El enclave donde se han localizado los restos descritos correspondería a una de estas aldeas, Villacones, que aparece por primera vez en la documentación escrita en el año 945 a través de un acta de donación de varias heredades y privilegios en las salinas que otorga el Conde de Castilla Fernán González al Monasterio de San Millán de la Cogolla. Estas aldeas, de las de que desconocemos su origen, constituyen el poblamiento de la zona hasta comienzos del siglo XII, cuando el monarca aragonés Alfonso I «El Batallador» funda la villa de Salinas de Añana sobre el cerro que domina el Valle Salado desde el norte[2]. El poblado de Villacones queda entonces parcialmente absorbido por el nuevo recinto amurallado de la villa. La cronología aportada por el conjunto cerámico recuperado en el interior del silo, data su amortización con anterioridad o en momentos cercanos a la fundación de la villa de Salinas de Añana.

V. Martínez Ferreras

[1] Solaun Bustinza, J.L., 2005. *La Cerámica Medieval en el País Vasco (siglos VIII-XIII)*. Serie EKOB. Vitoria-Gasteiz.

[2] Plata Montero, A. 2008. *Génesis de una villa medieval*. Serie EKOB. Vitoria-Gasteiz.

A.2.1.3. **Reloj kalea, 4**

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Saturnina García García; Ainhoa Sopelana Santamaría

A.2.1.3. **Reloj, 4**

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Saturnina García García; Ainhoa Sopelana Santamaría

Archaeological excavation comprising sondages examining the structural soundness of the building.

Sarrera

Beheko solairuaren zati batean eta zati horri dagokion sabaian bideratu dira egitura sendotzeko lanak. Eraikin honek «Babesik gabeko eraikina, kontserbatu beharrekoa» kalifikazioa du BEPBaren 1. Aldaketan, eta beraz, baimenduta daude hura zaharberritzeko esku hartzeak.

Esku hartzea

Esku hartze arkeologikoan bi zundaketa induskatu genituen eskuz, hain zuzen ere habeetako paldoei eusteko oinarriak jartzeko harroinak egongo diren puntuan. Esan bezala, eskuz induskatu genituen bi zundaketak, eta idatziz jaso genituen induskatzeko prozesuaren xehetasunak. Bi kasuetan negatiboak izan dira emaitzak, etxebizitzako beheko solairuko egungo zoruaren mailatik behera zentimetro gutxi batzuetara lur eremuko arroka naturala azaleratu baitzen. Esku hartze honen emaitzak negatiboak izan dira ikuspegi historikotik eta arkeologikotik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen dira etxebizitza honetako zorupeko beste alde batzuk.

Konklusioak

Negatiboak izan dira eskuz egindako zundaketak.

Introducción

El refuerzo estructural se realiza en parte de la planta baja y su techo correspondiente, el edificio está calificado en la 1ª Modificación del P.E.R.I. como «Edificio sin protección a conservar», permitiéndose las intervenciones de rehabilitación.

Intervención

La intervención arqueológica ha supuesto la excavación manual de dos sondeos donde van las zapatas para la colocación de los apoyos de los pilares de las vigas. Se han excavado los dos sondeos a mano y se ha procedido a la documentación del proceso de excavación. Los resultados obtenidos han sido negativos en ambos casos, pudiendo localizar la roca natural del terreno a escasos centímetros del suelo actual de la planta baja de la vivienda. Los resultados de la intervención son de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro en otras zonas del subsuelo de la vivienda.

Conclusiones

Sondeos manuales negativos.

R. Leorza

A.2.2. AÑANAKO GATZ HARANEKO KULTURA PAISAIA / PAISAJE CULTURAL DEL VALLE SALADO DE AÑANA

A.2.2.1. **25. Produkzio Unitatea. Goi Erdi Aroko eta kalkolitoko gatz ustiategia**

Zuzendaritza: Alberto Plata Montero
Finantzazioa: Añanako Gatz Harana Fundazioa

A.2.2.1. **Unidad Productiva 25. Explotación salinera altomedieval y calcolítica**

Dirección: Alberto Plata Montero
Financiación: Fundación Valle Salado de Añana

The archaeological excavations carried out in the Salt Valley have revealed that the Añana saltpans have been producing salt for over 7,000 years. Of all the areas in which we have worked, the one which has generated the most prolific results is, without doubt, area UP25, located next to the La Hontana spring. The 2020 intervention focused on this area, providing new data about the configuration of the production structures dating from around the 9th century AD. Directly underneath these pans, which were built during the High Middle Ages, we have found remains of a brine-cooking salt-manufacturing process dating from between the Chalcolithic era and the Early Bronze Age.

2017an 25. Produkzio Unitatean bideratutako azken esku hartzeak hainbat kanpainatan identifikatutako Erdi Aroko ekoizpen egituretatik kontserbatutako aztarnak

La última intervención realizada en la UP 25 durante el año 2017 tuvo como objetivo comprender los restos conservados de las estructuras de producción

Goi Erdi Aroko larrainen azpian dagoen kanalizazioaren ikuspegia, oholez estalia

Vista de la canalización situada bajo las eras altomedievales cubierta con tablas.

ulertzea eta dokumentatzea izan zituen xede, helburua baitzen horien eraikuntzaren eta erabileraren sekuentzia osoa zehaztu ahal izatea. Indusketa lanetan zehar Erdi Aroko larrainen sekuentzia dokumentatu genuen, XII. mendekoetatik hasi eta K.o. IX. eta X. mende bitartean jardunean izan ziren aspaldikoenekin buka. Azken horiek gatzuna biltegiratzeko putzu batekin lotu behar dira kronologikoki. Putzu hori, trabukete batez hornitua, 2012ko kanpainan induskatu genuen[3].

Zalantzarik gabe, sekuentzian aspaldikoena da gatza kristalizatzeko larrain interesgarriena. Oso dekantatua den buztinezko gainazal batek eratutako egitura da, eta zurezko habe etzanen parrilla baten gainean dago egokitua gainazalean pitzadurarik sor ez dadin.

Dokumentatutako egitura guztiek ekoizpenari emandako espazio bat osatzen dute, eta K.o. X. mendean gatza egiteko behar ziren elementu ia guztiak ditu: buztinezko larrainak, zurezko egitura baten gainean oso ondo prestatuak, eta gatzuna metatzeko putzu bat, gatzuna goratzeko eta larrainak ureztatzeko trabukete batekin. Hala eta guztiz ere, oraindik erregistratu gabe geneukan Goi Erdi Aroan gatzuna banatzeko erabili zuten sistema.

Aurten, behin habez osatutako sarea eta hari atxikitako betegarriak kenduta ekin genion indusketa lanari. Elementu horiek gatza egiteko beste larrain bat ebakitzen zuen lur eremuaren beheragune baten gainean egokitzen ziren, eta larrain hori tuparri zuri eta oso trinkoko geruza batez osatua zen. Geruza horren prestakinaren azpian dokumentatu ahal izan genuen Goi Erdi Aroko ustiategiko bigarren mailako kanalizazio sistema, gatzunaren iraizpenak bildu eta 2012an dokumentatutako putzura bideratzen zituena. Oraindik ez dugu gatzuna banatzeko sistema nagusia dokumentatu, gatzuna iturburuetatik ustiategira eramaten zuena.

[3] Elementu horien deskribapena eta kronologia kontsultatzeko, ikus Plata Montero, A., Martínez Torrecilla, J. M. (2014). Larrainei dagokienez, Gatza egiteko larraina 25. Produkzio Unitatean. *Arkeoikuska*, 2014, 38–42; eta putzuari dagokionez. Martínez Torrecilla, J. M., Plata Montero, A., Sánchez Zufiaurre, L. (2012). Añanako Gatz Haraneko Kultura Paisaia. Esku hartze arkeologikoa hegoaldeko muturrean. *Arkeoikuska,* 2012, 48–53.

altomedievales identificados en diferentes campañas, para así determinar la secuencia completa de construcción y su uso. Durante la excavación se documentó la secuencia de las eras medievales, desde las correspondientes al siglo XII hasta las más antiguas en funcionamiento entre los siglos IX y X d. C. Éstas se relacionan a su vez cronológicamente con un pozo para almacenar muera provisto de trabuquete que fue excavado en el 2012[3].

Sin duda, la plataforma de cristalización de mayor interés es la más antigua de la secuencia, una estructura formada por una superficie de arcilla muy decantada, que se extiende sobre un emparrillado de durmientes de madera para evitar grietas en su superficie.

Todas las estructuras documentadas conforman un espacio productivo con casi todos los elementos necesarios para la elaboración de sal en el siglo X d. C.: eras de arcilla muy bien preparadas sobre una estructura de madera y un pozo para la acumulación de salmuera con un trabuquete para elevarla y realizar el riego de las eras. Sin embargo, todavía no habíamos registrado el sistema de distribución del agua salada en la Alta Edad Media.

La excavación de este año comenzó una vez retirado el emparrillado y los rellenos asociados. Éstos se asentaban sobre un rebaje en el terreno que cortaba a otra era de hacer sal, en este caso formada por un manteado de greda blanca muy compacta. Debajo de la preparación de esta era pudo documentarse el sistema de canalizaciones secundario de la granja altomedieval, que recogía las filtraciones de la muera y las llevaba hacia el pozo documentado en 2012. El sistema de distribución principal, el que transportaba la salmuera desde los manantiales a la granja, no ha sido documentado por el momento.

[3] La descripción y cronología de estos elementos puede consultarse en Plata Montero, A., Martínez Torrecilla, J. M. (2014). Era de sal en la Unidad Productiva 25. *Arkeoikuska*, 2014, 38–42, para las eras y en Martínez Torrecilla, J. M., Plata Montero, A., Sánchez Zufiaurre, L. (2012). Paisaje Cultural del Valle Salado de Añana. Intervención arqueológica en el extremo sur. *Arkeoikuska,* 2012, 48–53 para el pozo.

Banaketa sarearen bi fase kontserbatzen ziren: lehenengoak trazadura irregularreko kanal txikiak zituen, estalkirik gabeak, eta elkartu egiten ziren putzura bidean. Eta ondorengo fasea, kanal handiago batekin, zuzena eta zeharkako enborretan bermatzen ziren hiru oholez estalia, hori ere eremu berera bideratua.

Ez dira gatzuna iturburuetatik larrainetarantz banatzen zituzten kanalizazioak; izan ere, larrainen azaleraren azpian antolatutako kanalak dira, zoruperantz iragazten zen gatzuna ibaian galdu aurretik biltzeko eta berrerabiltzeko erabiliak.

Gatzunaren soberakinak biltzeko bigarren mailako sistema honen sorrerak, bere urre likidoaren azken tanta aprobetxatzeko ahaleginetan, berretsi egiten dizkigu idatzizko dokumentazioak eskaintzen dizkigun datuak, agerian geratzen baita Goi Erdi Aroan handia izan zela gatzaren ustiapena Gatz Haranean.

2008. urtean azaldu genuen bezala[4], iturburu guztiek ematen duten ur gaziaren kantitate mugatuak (segundoko 3 litro inguru) eta landako komunitateen eta noblezia laiko eta eliz nobleziaren esku zeuden gatza egiteko etxaldeen kopuru handiak banaketa sistema antolatu bat sortzeko beharra eragin zuten. Banaketa sistema antolatu horrek segur aski antzinaroan du jatorria, K.o. V. mendean Salioncako hiri erromatarra (Espejoko herriaren azpian) suntsitu ondoren Inperio Erromatarreko agintarien kontrola amaitu zenean. Izan ere, Añanako gatzagei buruzko lehen aipamen idatzia 822. urtekoa da, Avito abadeak San Roman Tobillasi egindako zuzkidura baten karietara, eta hauxe adierazten da hartan hitzez hitz: «*ratione in illsa Fontes*».

Gatzuna banatzeko sistema edo «foru» hori egon arren, ugari dira ur gaziaren gaineko eskubideak defendatzeko jabeen artean gertatu ziren borrokak adierazten dituzten frogak. Horien artean inolaz ere nabarmentzekoa da X. mendearen erdialdera gertatu zen gatazka (data horretakoak dira 25. Produkzio Unitatean arkeologikoki dokumentatutako aztarnak). Zehazki, 945. urteko urtarrilaren 28an, Fernán González kondeak pribilegio garrantzitsuak eman zizkion Donemiliagako monasterioari, horien artean hirugarren egunean iturrietako gatzuna biltzeko eskubidea. Kontzesio horrek zuzeneko eragina zuzenez gatzuna banatzeko sisteman, kondeak eskatu zuen garai hartan gatz ustiategia inguratzen zuten herrixkek dokumentua onartu zezatela: «*confirmantes villas id est Villa Nova et Fontes, atque Olisares, Villacon, necnon et Terrazas el Villa Morosa*». Hala eta guztiz ere, ekimen horrek sortutako arazoen ondorioz, berriro ere esku hartu behar izan zuen kondeak hiru urte geroago. 948. urtean argi eta garbi antolatu zituen lehendik egindako dohaintzaren ordutegi txandak Donemiliagako, Salcedoko eta Cardeñako biztanleen eta inguruko herri garrantzitsueneko (Fontes) biztanleen artean bakea egiteko.

Tamalez, Goi Erdi Aroko gatz egiturak eraikitzeko, suntsitu egin zuten aurrez zegoen estratigrafiaren zati

[4] Plata, A., 2008, *Erdi Aroko hiri baten sorrera. Añanako Gatza Haraneko arkeologia, paisaia eta arkitektura*, Gasteiz, 138-149. or.

Se conservaban dos fases de la red de distribución: una primera con pequeños canales de trazado irregular, sin cubierta, que iban confluyendo hacia el pozo. Y la fase posterior con un canal de mayores dimensiones, rectilíneo y cubierto por tres tablas que se apoyaban en troncos transversales, que también se dirigían a la misma zona.

No se trata de canalizaciones que distribuyeran la muera que se transportaba desde los manantiales, sino que se trataba de conducciones situadas bajo la superficie de las propias eras para recoger y reutilizar la muera que se filtraba hacia el subsuelo antes de que se perdiese en el río.

La creación de este sistema secundario de recogida de los sobrantes de la salmuera intentando aprovechar hasta la ultima gota de su oro líquido nos está confirmando los datos que nos aporta la documentación escrita, donde queda reflejada la intensa explotación de la sal en el Valle Salado en la Alta Edad Media.

Tal y como exponíamos en el año 2008[4], la limitada cantidad de agua salada que proporciona el conjunto de los manantiales, en torno a unos 3 litros por segundo, y el gran números de granjas de hacer sal, que estaban en manos de las comunidades aldeanas y la nobleza laica y eclesiástica, provocó la necesidad de crear un sistema de reparto organizado que, seguramente, hunde sus raíces en la tardoantiguedad, cuando finalizó el control que ejercían las autoridades del Imperio Romano tras la destrucción de ciudad romana de Salionca (situada bajo la localidad de Espejo) en el siglo V d.C. De hecho, la primera mención documental sobre las salinas de Añana es la dotación que efectuó el abad Avito en el 822 a San Román de Tobillas fechada en el año 822, y en la que ya se cita «*ratione in illsa Fontes*».

A pesar de la existencia de este sistema de reparto o «fuero», son numerosas las pruebas que indican la lucha entre los diferentes propietarios por defender sus derechos sobre el agua salada. Entre ellos destaca, sin duda, el conflicto de mediados del siglo X, fecha de los restos documentados arqueológicamente en la UP25. En concreto, el 28 de enero del 945 el conde Fernán González otorgó importantes privilegios al monasterio de San Millán, entre los que se encontraba el derecho de la salmuera de los manantiales el tercer día. Debido a la afección directa de esta concesión en el sistema de reparto, el conde requirió la aprobación del documento por parte de las aldeas que por entonces rodeaban la explotación salinera «*confirmantes villas id est Villa Nova et Fontes, atque Olisares, Villacon, necnon et Terrazas el Villa Morosa*». No obstante, los problemas generados por esta intromisión llevaron a intervenir de nuevo al conde tres años más tarde. En el año 948 reguló claramente los turnos horarios de su anterior donación para poner paz entre los hombres de San Millán, Salcedo y Cardeña y los habitantes de la aldea más importante del lugar, Fontes.

Por desgracia, para la construcción de las estructuras salineras de la Alta Edad Media se arrasó con

[4] Plata, A., 2008, *Génesis de una villa medieval. Arqueología, paisaje y arquitectura del Valle Salado de Añana*, Vitoria-Gasteiz, p. 138-149.

handi bat, eta Goi Erdi Aroko egitura horiek zuzenean hartzen dute atseden Azken Brontze Aroaren eta Kalkolitoaren artean eraikitako ekoizpen plataformen gainean.

Gatzagetako beste alde batzuetan, bereziki 2013ko kanpainan, jada erregistratuta geneukan aldi horiei dagokien estratigrafia, baina betiere oso azalera txikietan. Esku hartze honetan, baina, azkenik hasiak gara azalera garrantzitsu batean lan egiten, gutxi gorabehera 50 m^2 hartzen dituen azaleran.

Geruza horizontal batean aurkitu genituen lehenengo aztarnak. Oso geruza homogeneoa da, 14 eta 20 cm bitarte lodi, oso pikor fineko buztin beltzez eta ikatz zati txikiez eta landare hondakinez osatua. Segur aski hurbil egongo zen gatza ekoizteko eremu batetik etorritako errautsezko isuria da. Isuri horrek, bere aldetik, beste ekoizpen gune bat amortizatzen du, azken hori gainazal erregularrarekin eta trinkotuarekin, errekarriz eta kolore gorriko hareez osatua, ibairanzko pendiz txikiarekin. Gainazal horren gainean, sutan jarritako kazoletan gatzuna egosteko su baten aztarnak identifikatu genituen, gutxi gorabehera metro beteko diametroko metaketa zirkular bat osatzen zutenak. Oso ikatz zuriez osatuta dago, barruan ikatz zati batzuk dituela eta zeramikak, harriak edo lurra oso gutxi direla.

Lan guneak antolatzeko lur eremua prestatu zutela nabari da. Horretarako, legarrak ekarri eta trinkotu egin zuten legarrezko geruza ekoizpenari emandako aztarnen gainean. Era berean, gatza ekoizteko guneak eta gatzuna isurtzeko aldeak bereizten dira, alde bat erabiliko zuten eginkizun bat betetzeko eta bestea beste eginkizun baterako, txandaka, behin eta berriz, eta denbora bertsuan, gatzaren ekoizpenarekin lotzen diren elementuek, hau da, sutegian eta amortizazioan aurkitutakoek, antzeko ezaugarriak dituztelako eta Azken Brontze Aroari dagozkiolako.

Aldi horretan kokatzea guztiz bat dator landutako azaleraren azpian dagoen geruzaren datazioarekin, K.a. 2110-1900[5]. Datazio hori kanpai formako apaingarriak dituzten Kalkolitoko materialekin lotzen da.

gran parte de la estratigrafía preexistente, y las estructuras altomedievales se asientan directamente sobre las plataformas de producción correspondientes a las construidas entre el Bronce Final y el Calcolítico.

En otras zonas de las salinas ya habíamos registrado estratigrafía correspondiente a estos periodos, fundamentalmente en la campaña del 2013, pero siempre sobre superficies muy reducidas. En esta intervención hemos comenzado a trabajar por fin en una extensión importante, en torno a los 50 m^2.

Los primeros restos localizados se corresponden con un estrato horizontal, muy homogéneo, de un grosor que oscila entre 14 y 20 cm, compuesto por arcilla de grano muy fino de color negro y pequeños carbones y restos vegetales. Se trata de un vertido de cenizas procedentes de una zona de fabricación de sal, seguramente cercana. Este vertido se encuentra amortizando a su vez otra zona de producción en la que encontramos una superficie regular, compactada y con ligera pendiente hacia el río, formada por cantos rodados y arenas de color rojizo. Sobre esa superficie encontramos los restos de una hoguera para la cocción de salmuera en cazuelas expuestas al fuego, consistente en una acumulación circular de aproximadamente 1 m de diámetro. Está formada por cenizas muy blancas con algunos carbones en su interior, con escasas intrusiones de materiales cerámicos, piedras o tierra.

Se observa una preparación del terreno para formar las zonas de trabajo realizada mediante el aporte y compactación de gravas sobre los restos de producción, y una alternancia de zonas de producción y de zonas de vertido, pudiendo utilizarse un lugar para una y otra función de forma sucesiva, reiterada y cercana en el tiempo, ya que los materiales que se asocian a la producción, es decir los encontrados en la hoguera, y a la amortización, tienen características similares, correspondientes al Bronce Antiguo.

La adscripción a este periodo concuerda perfectamente con la datación que tenemos del estrato situado inmediatamente bajo la superficie de trabajo, 2110-1900 a. C.[5] que se asocia a materiales calcolíticos con decoración de tipo campaniforme.

A. Plata Montero; J.M. Martínez Torrecilla

[5] Beta 316127 % 95 2 sigma K.a. 2110-2100- 2040-1900 .

[5] Beta 316127 95% 2 sigma 2110-2100- 2040-1900 a. C.

A.3. ARRAIA-MAEZTU

A.3.1. La Invención de la Santa Cruzko eliza (58. BAG). Urbanizazio lanak

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantzazioa: ASTIV Ingeniería

A.3.1. Iglesia de la Invención de la Santa Cruz (ZPA 58). Obras de urbanización

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: ASTIV Ingeniería

Archaeological monitoring of works with no positive archaeological results.

Elizako Plazaren ingurura mugatu genuen obren gaineko kontrol arkeologikoa, alde hori berrurbanizatu egin behar baitzuten zorupeko azpiegiturak berrituz eta Plazako zoladura aldatuz.

Esku hartze arkeologikoak agerian utzi du Erdi Aroko jatorria duen ustezko nekropolia, elizaren inguruan kokatua, nahasia izan dela obra hauei ekin baino lehen. Ez dugu inolako aztarna motarik identifikatu aztertutako eremuan, ez material depositurik, ez egiturarik, ez ebakirik. Lotura anatomikorik gabeko giza hezurrak aurkitu ditugu eliz atariaren azpian, obren eraginpeko eremutik kanpora.

Beraz, kontrol arkeologikoak agortu egin ditu berrurbanizatzeko prozesuan hartu beharreko balizko neurriak oro.

El control arqueológico de las obras se centró en el entorno de la Plaza de la Iglesia, lugar en el que se iba a producir la reurbanización del espacio mediante la sustitución de infraestructuras soterradas y el cambio de pavimentación de la Plaza.

La actividad arqueológica ha puesto de manifiesto que, la previsible necrópolis de origen medieval sita en torno a la iglesia, ha podido ser removida con anterioridad a la realización de estas obras. No se han detectado restos de ningún tipo en el área intervenida, ni depósitos de materiales, estructuras y/o cortes. Se han localizado huesos humanos sin conexión anatómica por debajo del pórtico de la iglesia, fuera ya de la afección de las obras.

El control arqueológico, por tanto, ha agotado las posibles medidas correctoras a tomar en el proceso de reurbanización.

F. R. Varón Hernández

A.3.2. Santa Pia herri hustua

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Arraia-Maeztuko Udala

A.3.2. Despoblado de Santa Pía

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Ayuntamiento de Arraia-Maeztu

Geophysical prospecting in the abandoned Santa Pía village, in search of the old chapel.

Sarrera

Scanner Patrimonio e Industria S.L. enpresak ustez Santa Pia baselizaren hondakin lurperatuak dauden aldean bideratutako miaketa geofisikoa.

Esku hartzea

IDS SISTEMI markako HI-MOD georadar ekipo bat erabili da, antena bikoitzekoa eta frekuentzia bikoitzekoa, 400Mhz eta 900Mhz haietako bakoi-tzean. GRED HD 3D eta GPR SLICE izan da interpretazio lanak egiteko erabili den softwarea. Emaitzak aski garbiak dira georadarra erabili ahal izan den hainbat puntutan. Miaketa geofisikoa beste gune urrunago batzuetara zabaldu zen, baina negatiboak izan ziren emaitzak.

Introducción

Prospección geofísica a cargo de la empresa Scanner Patrimonio e Industria S.L. en la zona donde se supone la presencia, enterrada, de los restos de la ermita de Santa Pía.

Intervención

Se ha utilizado un equipo de georadar de doble antena y doble frecuencia, de 400Mhz y 900Mhz en cada una de ellas, HI-MOD, de la marca IDS SISTEMI. El software de interpretación ha sido GRED HD 3D y GPR SLICE. Los resultados son bastante claros en varios puntos en los que se ha podido utilizar el georadar, la prospección geofísica se ha extendido a otras zonas más alejadas con resultados negativos.

Aztertutako aldeetan lortutako datuei eta Rufino Lopez de Aldaren ikerketa historikoak eskainitako datuei esker, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu Santa Pia baselizaren aztarnak sakonera maila egonkorrean daudela. Aipatu behar dugu segur aski 8-10 m luze izango den eta ekialdetik mendebaldera antolatzen den baseliza baten oinplanoa ari garela mugatzen, eta beraz, Arabako alde honetako baselizen kronologiarekin bat egiten duela.

Konklusioak

Hertsiki geofisikoa izan da aurkintza honetan bideratutako ikerketa, eta orain zundaketa arkeologikoak egin beharko lirateke, eskuz, emaitza positiboak eskaini dituzten guneetan.

Con los datos obtenidos en las zonas en las que se ha actuado y los datos aportados por la investigación histórica de Rufino Lopez de Alda podemos afirmar que se localizan los restos de la ermita de Santa Pía en profundidad estable. Debemos destacar que estamos, probablemente, delimitando la planta de una ermita con unos 8-10 m de largo, lo que le acerca las ermitas de esta cronología en esta zona alavesa, y con orientación E-W.

Conclusiones

La investigación de este enclave ha sido exclusivamente geofísica, debería centrarse ahora en sondeos arqueológicos manuales en las zonas con resultados positivos.

R. Leorza

A.4. **ARRATZUA-UBARRUNDIA**

A.4.1. **Dura. Urbanizazio lanak**

Zuzendaritza: Blanca Renedo Villarroya
Finantzazioa: Durako Administrazio Batzordea

A.4.1. **Durana. Obras de urbanización**

Dirección: Blanca Renedo Villarroya
Financiación: Junta Administrativa de Durana

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Durako urbanizazio lanen harira bideratutako esku hartzea, urbanizazio lan horiek hasi baino lehen. Herrian estrategikoki banatutako zundaketa arkeologiko batzuk egin genituen, baina historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik emaitzak oso eskasak izan ziren, edo guztiz negatiboak, guztietan. Etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da, urbanizazio lanak egiten direnean.

Intervención realizada con motivo de las obras de urbanización de la localidad de Durana y previa a éstas. Se ejecutaron una serie de sondeos arqueológicos repartidos estratégicamente por la localidad, siendo los resultados de todos ellos de escaso o nulo interés histórico-arqueológico. Queda pendiente de evaluar a futuro, cuando se ejecuten las obras de urbanización.

B. Renedo Villarroya

A.4.2. **San Pedro Protomartir eliza (4. BAG). 449. lursaila, 3. poligonoa**

Zuzendaritza: Miguel Loza Uriarte
Finantzazioa: Leire Argaiz Ajuria

A.4.2. **Iglesia de San Pedro Protomártir (ZPA 4). Parcela 449, polígono 3**

Dirección: Miguel Loza Uriarte
Financiación: Leire Argaiz Ajuria

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Durako (Arratzua-Ubarrundia) 3. poligonoko 449. lursailaren ipar-ekialdean, San Esteban elizaren hegomendebaldean, eraikin bat eraikitzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen mugen barruan dagoen lursailaren gainerakoa.

Control arqueológico de las obras de construcción de una edificación en la parte noreste de la parcela 449 del polígono 3 de la localidad de Durana (Arratzua-Ubarrundia), al suroeste de la iglesia de San Esteban, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la parcela que esté dentro de los límites de la Zona de Presunción Arqueológica.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.4.3. **Betolatzako Ama Birjinaren Jasokundearen eliza (11. BAG)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo

Finantzazioa: Betolatzako Administrazio Batzordea

A.4.3. **Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora (ZPA 11), en Betolaza**

Dirección: Javier Niso Lorenzo

Financiación: Junta Administrativa de Betolaza

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Betolatzako (Arratzua-Ubarrundia) hilerrian, Andre Mariaren Jasokundearen elizaren ipar-ekialdeko muturrean, kolunbario berri batzuk eraikitzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen mugen barruan biltzen den azaleraren gainerakoa.

Control arqueológico de las obras de construcción de unos nuevos columbarios en el cementerio de la localidad de Betolaza (Arratzua-Ubarrundia), ubicado en el extremo noreste de la Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la superficie que esté dentro de los límites de la Zona de Presunción Arqueológica.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.5. **ASPARRENA**

A.5.1. **Marutegiko gaztelua eta San Migel baseliza, Araian**

Zuzendaritza: J.L. Solaun Bustinza; A. Martínez Montecelo

Finantzazioa: Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

A.5.1. **Castillo de Marutegi y Ermita de San Miguel, en Araia**

Dirección: J.L. Solaun Bustinza; A. Martínez Montecelo

Financiación: Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco

Joint assessment intervention in the Marutegi and San Miguel peaks, linked to a castle and a chapel, respectively. The interventions were not able to determine the relationship between the two sites, nor were they able to confirm the existence of a possible contemporary settlement in the vicinity. The castle seems to have been occupied principally during the High and Late Middle Ages, whereas the supposed chapel did not come into use until the post-medieval period, leaving only a small margin for overlap between the two structures explored. Despite this, the intervention confirmed the excellent archaeological and heritage potential of the castle and its immediate environment.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zentroak eskatuta bideratu genuen Marutegiko gazteluan (Araia, Asparrena) egindako esku hartze arkeologikoa. Helburua, batez ere balorazio izaerakoa, aurrez induskatu ez den eta gutxi ezagutzen den leku baten aukera arkeologikoak ebaluatzea zen, azken xedea baita ondasunaren ondarea babesteko eta mugatzeko proposamen egokia egitea.

Horretarako, inguru honetan arkeologikoki interesgarrienak diren bi gunetan esku hartzeko erabakia hartu genuen. Lehenik gazteluan bertan, kontserbatu den egitura nagusiaren barruan, omenaldiaren dorrearekin identifikatzen den egituraren barruan. Bigarrenik, ondoko San Migel harrian, zehazki izen bereko baseliza egun galdua izan zen gunean. Gainera, gotorlekua hobe ezagutze aldera, inguruan miaketa intentsibo bat egitea planteatu zen. Miaketa lan horiekin batera landare geruzaren gainazal batzuk garbitu ge-

La intervención arqueológica efectuada en el castillo de Marutegi (Araia, Asparrena) fue realizada a solicitud del Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco. El objetivo, de carácter principalmente valorativo, era evaluar las posibilidades arqueológicas de un lugar nunca excavado anteriormente y poco conocido, con la finalidad de establecer una adecuada propuesta de protección y delimitación patrimonial del bien.

Para ello, se decidió intervenir en las dos zonas arqueológicamente más interesantes del lugar. En primer lugar, en el propio castillo, al interior de la principal estructura conservada, identificada con la torre del homenaje. En segundo lugar, en la cercana peña de San Miguel, concretamente en el área de la desaparecida ermita del mismo nombre. Además, con el objetivo de poseer un mayor conocimiento de la fortaleza, se planteó una prospección intensiva del lugar. Esta prospección fue acompañada de pequeñas limpiezas superficiales del manto vegetal, destinadas a

nituen landaretzak ezkutatutako balizko defentsa egiturak agerian uzteko.

Aurrekariak Marutegiko ikerketan

Marutegiko gaztelua esku hartze arkeologiko baten xede izan ez bada ere eta hari buruzko lehenengo aipamen idatziak oso berantiarrak badira ere (Erdi Aroaren amaierakoak), egile batzuek, esate baterako Frai Juan Vitoriak, Araxako Gaztelua deituarekin identifikatzen dute. Tradizioaren arabera, gaztelu hori Iruñeko errege Gartzia Enekoitzek fundatu zuen VIII. mendean «Arabako Lautadako sarrera defendatzeko» hegoaldetik iristen ziren musulmanen erasoetatik. Historialari hori aurrenekoa izan zen Marutegiko gaztelua mugen defentsarekin lotzen Goi Erdi Aroko musulmanen erasoen aurrean, eta hipotesi hori errepikatu egiten da Arabako lurraldeko beste gotorleku askotan, batez ere Ebro ibaiaren haranean. Izan ere, orain arte, gainerako ikertzaileek ideia hori jaso besterik ez dute egin, eta «elur bola» moduko efektua sortu dute, gazteluaren nondik norakoak mugatuz.

Kontakizunetik harago, esan dezagun 1362. urtekoa dela gotorleku honi buruzko lehen aipamen idatzia. 1481eko eskuizkribu batean jasotako dokumentua da. Bertan, Araia eta Zalduondo arteko mugarriak berrikusteko eta zedarri bat lekuz aldatzeko agindua ematen da. Testuak gotorleku hau aipatzen du, Araiako gaztelu gisa izendatuz, mugarrien lerroan, zehazki «*Dende, do la fuente de Laxa que es faza el castillo de Araya otro mojon*». Adierazten dituen leku izenak inolako zalantzarik gabe lotu behar dira Marutegiko egungo gotorlekuarekin.

Aspaldi ez dela, 2017an, Iñaki Sagredo historialariak aztertu egin zituen gazteluko gainazaleko aztarnak, eta hipotesi bat planteatu zuen haren osaeraren eta jatorriaren inguruan (Sagredo, 2017)[6]. Kronologiari dagokionez, erradiokarbono bidezko hiru datazio egin ziren beheko barrutiko harresiko eta dorre nagusiko morteroari atxikiriko materia organikotik abiaturik, baina lagin horiek erregistratzeko ez zen metodologia arkeologikoa aplikatu. Emaitzak kontuan harturik, XI. eta XII. mende arteko arku kronologikoa finkatu zuen historialariak. Gainera, gainazalean zeramikazko zati batzuk aurkitu zituen, historialariaren arabera XII. eta XIII. mendeetakoak, eta etxeko fauna hondakinak.

Azkenik egile horrek eta beste batzuek ustezko herrixka batekin lotzen dute gaztelua. Herrixka hori San Migel gainean egongo zen, izen bereko baseliza desagertua zegoen lekuan, gazteluaren ekialdean, edo egungo Marutegi baserriaren inguruan, gazteluaren hego-mendebaldean. Ildo horretan, 2019an bi zundaketa bideratu ziren San Migel aldean aipatutako baselizaren aztarnak aurkitzeko xedean (Martínez Montecelo, 2020)[7].

[6] Sagredo, I., 2017, *Marutegiko Gaztelua. Erdi Aroko gazteluari buruzko ikerketa*, txosten argitaratu gabea.

[7] Martínez Montecelo, A., 2020, Zundaketa arkeologikoak San Migel harrian (Araia, Asparrena), 2019ko kanpaina, *txosten argitaratu gabea*.

visibilizar posibles estructuras defensivas enmascaradas por la vegetación.

Antecedentes en la investigación de Marutegi

Aunque el castillo de Marutegi no ha sido nunca objeto de intervención arqueológica y sus primeras referencias escritas son muy tardías (tardomedievales), diversos autores como Fray Juan de Vitoria lo identifican con el llamado Castillo de Araxa, fundado, según la tradición, por el rey pamplonés García Íñiguez en el siglo VIII para «defender la entrada de Álava la Llana» de los ataques musulmanes provenientes del sur. Fue este historiador el primero en relacionar la existencia del castillo de Marutegi con la defensa de fronteras frente a las incursiones musulmanas en el alto medievo, una hipótesis replicada en otras muchas fortalezas de territorio alavés, fundamentalmente del valle del Ebro. Ciertamente, el resto de investigadores hasta la actualidad no han hecho sino recoger esta idea creando un efecto a modo de «bola de nieve», con la que el castillo ha quedado encasillado.

Más allá del relato, lo cierto es que la primera mención escrita que se conoce de esta fortaleza data del año 1362. Se trata de un documento recogido en un posterior manuscrito de 1481, en el que se ordena el traslado de un apeo y reconocimiento de mojones entre Araya y Zalduendo. El texto señala la existencia de esta fortaleza, nombrada como castillo de Araya, en la línea de mojones, concretamente «*Dende, do la fuente de Laxa que es faza el castillo de Araya otro mojon*». Los términos que menciona manifiestan, sin ningún género de dudas, que se refiere a la actual fortaleza de Marutegi.

Más recientemente, en al año 2017, el historiador Iñaki Sagredo efectuó un estudio de los restos en superficie del castillo, proponiendo una hipótesis de su configuración y origen (Sagredo, 2017)[6]. En lo que se refiere a su cronología, se realizaron tres dataciones radiocarbónicas a la materia orgánica del mortero presente en la muralla del recinto inferior y de la torre principal, si bien para el registro de las muestras no se utilizó metodología arqueológica. Atendiendo a sus resultados se estimó una horquilla cronológica situada entre los siglos XI y XII. Además, se recogieron varios fragmentos cerámicos en superficie que el historiador fecha entre los siglos XII y XIII, así como restos de fauna doméstica.

Por último, éste y otros autores relacionan el castillo con un posible poblado situado, bien en el alto de San Miguel, al este del castillo, donde se situaba la desaparecida ermita del mismo nombre; bien en el entorno del actual caserío de Marutegi, al suroeste. En este sentido, el año 2019 se realizaron dos sondeos en San Miguel con el objetivo de localizar los restos de dicha ermita (Martínez Montecelo, 2020)[7].

[6] Sagredo, I., 2017, *Castillo de Marutegi. Investigación sobre el castillo medieval*, informe inédito.

[7] Martínez Montecelo, A., 2020, Sondeos arqueológicos en la peña de San Miguel (Araia, Asparrena), Campaña de 2019, *informe inédito*.

Marutegiko gotorlekuaren airetiko ikuspegia, atzean San Migel gaina (Argazkia: Dronetikan AirWorks).

Vista aérea de la fortaleza de Marutegi, con el alto de San Miguel al fondo (Fotografía: Dronetikan AirWorks).

Gotorlekuaren konfigurazioa

Araiako herritik (Asparrena) ipar-mendebaldera gutxi gorabehera bi kilometrora dago Marutegiko gotorlekua, eta Altzaniako mendilerroan bereizten diren harkaitz handienetako baten gainean egokitzen da, gutxi gorabehera 870 metroko garaieran. Behatoki horretatik ongi asko ikusten dira Arabako Lautadako ekialdeko lurraldeak, baita Nafarroarako sarrera ere Arakilgo korridorean barrena (Burundako korridorea). Zuzenean hartzen zuen kontrolpean San Adrian portutik eta Araian barrena Agurainerantz egiten zuen bide garrantzitsua, horrenbestez babesten zituen Arabatik Gipuzkoaranzko igarobidea eta Nafarroatik Arabaranzko sarrera.

Gailurrean eta harrizko monolito izugarri handiaren oinetan egitura asko ikus daitezke, gehienak inguruaren ezaugarri estrategiko ezin hobea aprobetxaturik eraiki zuten gotorlekuari dagozkiolarik. Horiek guztiek, jarraian deskribatuko ditugunek, agerian uzten dute bi altueratan edo barrutitan (behean bata eta goian bestea) antolatutako egitura guztiz berezi honen artikulazio poliortzetiko konplexua.

Beheko maila

Gotorlekuko beheko maila harkaitzaren hegoekialdeko saihetsean dago, haren oinetan, eta itxura guztien arabera sarbidea babesten du defendatzeko egitura handi baten bidez (A). Kontserbazio egoera kaskarrean dagoen arren, batez ere abandonatu ostean behin eta berriz arpilatu baitzuten, oinplano angeluzuzeneko barruti handi bat bereiz daiteke harrizko labarrari atxikita, malkarraren erabilera azalera txikia mendi hegalean handitzen duena. Sarbide hein ba-

La configuración de la fortaleza

La fortaleza de Marutegi se localiza a unos dos kilómetros en dirección noroeste de la localidad de Araia (Asparrena) y se asienta sobre uno de los peñones más destacados que salpican la sierra de Altzania, a unos 870 metros de altitud. Se trata de una atalaya desde la que se divisan los territorios orientales de la Llanada alavesa, así como la entrada a Navarra por el corredor de Arakil (pasillo de la Burunda), y que ejerce un control directo del importante camino que, desde el puerto de San Adrián, se dirigía hacia Salvatierra por Araia, protegiendo así el paso de Álava hacia Gipuzkoa y la entrada desde Navarra.

En la cumbre y a los pies del enorme monolito de piedra se pueden observar múltiples estructuras, en su mayoría pertenecientes a la fortaleza que se construyó aprovechando sus indudables cualidades estratégicas. Todas ellas, que pasaremos a describir a continuación, reflejan la compleja articulación poliorcética de una estructura indudablemente singular, organizada en dos niveles o recintos diferentes, uno inferior y otro superior.

El nivel inferior

El nivel inferior de la fortaleza se sitúa en el costado sureste del peñasco, a sus pies, y parece proteger el acceso a través de una gran estructura defensiva (A). A pesar de su deficiente estado de conservación, derivado principalmente de los continuos expolios al que fue sometido tras su abandono, es posible visualizar un gran recinto de planta rectangular, adosado al farallón rocoso, que amplía la escasa superficie de uso del escarpe en ladera. Su ingreso es relativamen-

tean erraza du ekialdeko saihetsean, baina hegoaldetik eta mendebaldetik iristen zailagoa egiten du lur eremuaren malda handiak.

Barruan gune hein batean laua hartzen du, segur aski alde honetan egongo ziren gelei dagokien suntsipen geruza lodiez eta goiko mailatik behera etorritako egitura hondakinez beteta zegoen.

Goiko maila

Gazteluaren beheko gorputza babesten zuen harrizko labarraren hegoaldeko aurpegian dagoen irekidura estu batek egiten dio sarrera defendatzeko gotorlekuaren goiko egituretara iristeko bideari. Gaur egun, gutxi gorabehera 50 metro luze den igoera horrek arrisku batzuk ditu, ez da gomendagarria bisitarientzat edo ikusleentzat.

Gotorlekuko «goiko alde» hau ongi asko bereizten diren bi gunetan zatitu daiteke. Lehenengoak dorre nagusia edo omenaldiaren dorrea hartzen zuen (B), harrizko labarraren gailurrean. Zalantzarik gabe, gaztelutik hobekien kontserbatu den egitura da, zazpi metro inguruko garaiera duten horma atalak kontserbatu ditu mendebaldean. Indusketak oso datu interesgarriak eskaini ditu nola eraikuntzari hala kronologiari dagokionez, aurrerago azalduko ditugu. Dorrea barruti harresitu batek (C) inguratzen zuen hegoaldetik eta ekialdetik, harkaitzaren irregulartasunera egokitzen zen barruti harresitu hori, eta beheko mailan bezala, alde honetako erabilera azalera handitzen zuen. Bi alde horiek uraska batekin (D) osatuko ziren. Uraska dorre ondoan egongo zen, oraindik ezin zehaztu dezakegun puntu batean.

Esku hartze arkeologikoaren emaitzak

Gorago azaldu dugunez, funtsean ebaluatzeko asmoa zuen esku hartzeak, eta beraz, lanaren emaitza arkeologikoetara mugatuko gara, interpretazio historikoa eta politikoa irakurlearen hausnarketa askearen esku utzita. Bestalde, kontuan izanik indusketa arkeologikoa ia kilometro erdiko tartea duten bi aztarnategitan bideratu dela (Marutegiko gazteluan eta San Migel baselizan) eta horietan estratigrafia oso desberdina dela, emaitzak ere bereizita aurkeztuko ditugu, betiere aurrez ezarritako banaketan oinarriturik.

Marutegiko gaztelua

Zuzendaritza: J.L. Solaun Bustinza

Gazteluan bideratutako esku hartze arkeologikoak aukera eman du historian hiru eraikuntza fase bereizteko: gotorlekuaren eraikuntzari dagokiona (I. fasea), gotorlekuaren abandonatzeari dagokiona (II. fasea) eta haren suntsipenari dagokion azken fasea (III. fasea).

Eraikuntza

Konfigurazioa aztergai izan dugunean adierazi bezala, aztertutako gotorlekua bi mailatan dago antolatuta (beheko eta goiko barrutiak), eta horietako

te sencillo por el costado oriental, mientras que hacia el sur y el oeste la fuerte pendiente del terreno lo hace más inaccesible.

Su interior alberga un espacio relativamente llano, colmatado por potentes niveles de destrucción pertenecientes previsiblemente a las estancias o dependencias aquí situadas, así como a derrumbes procedentes del nivel superior.

El nivel superior

A través de una estrecha abertura situada en la cara meridional del farallón rocoso que protegía el cuerpo inferior del castillo se inicia la subida a las estructuras superiores del complejo defensivo. En la actualidad, el ascenso, de unos 50 metros de recorrido, conlleva ciertos riesgos y no es aconsejable para visitantes o curiosos.

Esta «zona superior» de la fortaleza puede subdividirse en dos espacios bien diferenciados. El primero de ellos acogía la torre principal o torre del homenaje (B), situada en lo más alto del espolón rocoso. Se trata, sin duda, de la estructura mejor conservada del castillo, con alzados que rondan los siete metros de altura en el lateral oeste. Su excavación ha ofrecido datos sumamente interesantes de carácter constructivo y cronológico que más adelante explicaremos. Por su parte, la torre se encontraba rodeada al sur y este por un recinto amurallado (C), adaptado a las irregularidades del peñón que, como en el nivel inferior, aumentaba la superficie de uso de este sitio. Ambos espacios debieron completarse además con un aljibe (D), probablemente situado junto a la torre, en un emplazamiento aún por determinar.

Resultados de la intervencion arqueológica

Como comentábamos más arriba, la intervención tenía una voluntad básicamente evaluadora, por lo que nos ceñiremos a los resultados más estrictamente arqueológicos del trabajo, dejando la interpretación histórica y política a la libre reflexión del lector. Por otra parte, el hecho de que la excavación arqueológica se efectuase en dos yacimientos separados casi medio kilómetro (castillo de Marutegi y ermita de San Miguel) con estratigrafías claramente diferenciadas, ha determinado que la presentación de los resultados se realice también por separado, sobre la base de la división preestablecida.

El Castillo de Marutegi

Dirección: J. L. Solaun Bustinza

La intervención arqueológica efectuada en el castillo ha permitido identificar tres fases histórico-constructivas: la correspondiente a la construcción de la fortaleza (Fase I), otra relativa a su abandono (Fase II) y una última relacionada con su destrucción (Fase III).

La construcción

Como señalamos al hablar de la configuración, la fortaleza estudiada se compone de dos niveles de altura (recinto inferior y superior), cada uno de los cua-

bakoitzak bere gelak eta egiturak ditu. Datuak behinbehinekoak diren arren, zenbait aldagairen azterketa konbinatutik abiatuta (batez ere estekadura motarena) ondoriozta daiteke Marutegiko gazteluaren egitura nagusiak garai batean eta berean proiektatu zirela. Edo gauza bera dena, eraikuntza fase batean eta berean kokatzen direla. Dorreak eskainitako erregistro arkeologikoa kontuan izanik, XII. mendearen bigarren erdialdearen eta XIII. mende hasieraren artean datatu daiteke[8], agian XIII. mendetik gertuago dagoen data batean.

Zaintza postua (A). Harrizko labarrari hego-mendebaldetik lotzen zaion eraikin handi bati dagokio gazteluaren beheko aldean antzemandako egitura bakarra. Gune horren ezaugarriak behar bezala ezagutzeko aukera soilik luze-zabalean bideratu beharreko esku hartze arkeologikoak eskainiko badu ere, garbitze lanei esker perimetroko hormatzar lodi baten aztarnak bereizi genituen, oinplano ia angeluzuzeneko barruti bat marrazten dute, gutxi gorabehera 340 m^2-koa.

Nabarmen hondatuta dauden hormek kalitate handiko estekadura zuten, harlandu txikiko pieza angeluzuzenez osatuta daude, ageriko aurpegiak ongi eskuairatuak, modulu ertaineko ilara erregularrak osatuz. Deigarria da gazteluari leku egiten dion kareharrizko harkaitza ez bezalako hareharriaren erabilera esklusiboa. Nolanahi ere, hareharri hori ingurutik ekarria da, Urkila-Elgea mendilerroko harrobietatik, alde horretan oso hedadura handia baitute harri mota horren azaleratzeek.

Dorrea (B). Harkaitzaren goiko aldan dago dorrea, iristen zailena den aldean, harrizko labarraren lekurik malkarrenean. Zalantzarik gabe, deskribatzen ari garen esku hartze honetako punturik interesgarriena da, eraikuntza berezia delako eta hobekien kontserbatu den egitura delako.

Dorrea eraikitzeko teknika, leku egiten dion harrizko gailurraren mehetasunari espazio erabilgarria irabazteko asmoz bideratua, sinplea da baina oso eraginkorra, errepikatu egiten ditu Arabako lurraldeko beste gotorleku batzuetan, esate baterako Ozio, Portilla eta Peña del Castillokoan, jada dokumentatutako ereduak. Eraikitzaileek, hasteko, harria zizelkatu edo induskatu zuten puntu garaienetik behera zenbait metrotan, mailatan antolatuta, eta xede horretan sortutako oheen gainean aurreneko horma altxatu zuten. Haren gainean beste bi gorputz mailakatu jaso zituzten, dorreko itxitura hormak, moldura alakatuek bereiziak. Beheko zaintza postuko (A) hormari begira egin dugun deskribapena ia guztiz bat dator hemengoarekin, modulu ertaineko hareharrizko harlandu txikiekin landutako estekadura egokia erakusten du. Pieza batzuetan oraindik ongi asko nabari da pikotxaz edo zizelaz landuak izan direla. Obra osoa bakarra da, hormetan ez baita denboraren joanean egin zitezkeen berreraikuntzak edo konponketak salatuko lituzkeen interfazerik edo aldaketarik erregistratzen.

[8] Dorreko morteroan txertatutako materia organikoarekin (ikatza) bideratutako erradiokarbono bidezko datazioak eskainitako emaitzak eta dorrea eraikitzeko mailan berreskuratutako zeramikaren azterketak gurutzatuta ondorioztatzen da kronologia hori.

les presenta diversas estancias o estructuras. A pesar de la provisionalidad de los datos, a partir del estudio combinado de algunas variables (principalmente del tipo de aparejo) puede inferirse que las principales estructuras del castillo de Marutegi fueron proyectadas de manera coetánea. O, lo que es lo mismo, que pertenecen a una misma fase edilicia. Su construcción, atendiendo al registro arqueológico de la torre, puede ser datada entre la segunda mitad del siglo XII y la primera mitad del siglo XIII[8], quizás más próxima a esta última centuria.

El cuerpo de guardia (A). La única estructura detectada en el nivel inferior del castillo se corresponde con un gran edificio adosado al farallón rocoso por el suroeste. Aunque solo una intervención arqueológica en extensión permitirá conocer en profundidad las características de este espacio, los trabajos de limpieza permitieron reconocer restos de un potente murallón perimetral que dibuja un recinto de planta cuasi rectangular, de aproximadamente 340 m² de superficie.

Su fábrica, notablemente arruinada, presentaba un aparejo de notable calidad, formado por piezas rectangulares de sillarejo, con su caravista bien escuadrada, formando hiladas regulares de módulo medio. Llama la atención el uso exclusivo de piedra arenisca, diferente a la naturaleza caliza del peñasco donde se asienta el castillo, cuyo origen -en todo caso- es local, procedente de canteras ubicadas en la sierra Urkilla-Elgea, donde los afloramientos son muy extensos.

La torre (B). La torre se ubica en la zona superior del peñón, en la parte más inaccesible y escarpada del farallón rocoso. Constituye, sin duda, el punto más interesante de la intervención que venimos describiendo, tanto por su especial naturaleza constructiva como por su mejor conservación.

Su técnica constructiva, orientada a ganar espacio útil a la estrechez del coronamiento rocoso donde se asienta, es sencilla pero efectiva, repitiendo modelos ya documentados en otras fortalezas de territorio alavés como Ocio, Portilla o Peña del Castillo. Los constructores comenzaron tallando la roca a una cota inferior en varios metros al punto más alto, cajeándola escalonadamente y levantando sobre las camas creadas a tal efecto un primer cuerpo de fábrica. Sobre él se levantaron dos nuevos cuerpos escalonados que constituyen los muros de cierre de la torre, separados entre sí por molduras biseladas. Su fábrica es análoga a la que describimos en el cuerpo de guardia inferior (A), caracterizada por un buen aparejo realizado en sillarejo arenisco de módulo mediano. En algunas piezas aún se aprecia la labra a picón y/o puntero. Toda la obra es perfectamente unitaria, sin que se registren interfaces o cambios de fábrica que denoten reconstrucciones o refacciones efectuadas en el tiempo.

[8] Esta cronología surge del cruce de resultados aportados por la datación radiocarbónica efectuada a la materia orgánica (carbón) presente en el mortero de la torre y del estudio realizado al material cerámico recuperado en el nivel constructivo de esta.

Behin perimetroko hormak eraiki ondoren sortu zen espazioari esker, gotorlekuko erabiltzaileek «D» zorrotz baten formako oinplanoa zuen eraikin handi bat izango zuten erabilgarri, gehienez ere 10,5 metro luze izango zen eta 9 metro zabal, barruan gutxi gorabehera 37 m²-ko espazio bat libre utzirik. Zalantzarik gabe, dorrean ekialdekoa da hobekien defendatzen den saihetsa, horma atal lodi kurbatu batez osatuta dago, gehienez ere 2,70 lodi erdialdean. Puntu horretatik gora egin ahala murriztu egiten da hormaren lodiera, eta eraikinaren beste aldera iristen garenean, mendebaldera, hormaren lodierak ez ditu 1,4 metro gainditzen oinean, eta ozta-ozta da 0,65 metro lodi gailurrean. Ikuspegi militar batetik, itxura guztien arabera etsaien artilleriari aurre egiteko modurik egokiena forma kurbatua aukeratu duen obra baten aurrean gaude, jaurtigaien inpaktua arindu egingo bailitzateke aurrealdeko horma kurbatuarekin.

Iristen zaila den harrizko gailur gainean kokatuta, lurraren mailan egokitu zuten atea, eraikinaren hegoaldeko saihetsean, garaieran goratu behar izan gabe. Barruan, bi maila zituen zoruak. Bata behean, atalasearen kota berean eta ekialdean zehar luzatzen zena. Eta bestea apur bat gorago, gelaren mendebaldean; harrizko bi maila igo behar ziren bertaratzeko. Beheko mailak karezko geruza baten arrastoak kontserbatzen zituen, geruza fina zen, dorrea eraiki ondorengo espazio osoa berdindu zuen eraikuntza materialez osaturiko betegarriaren gainean egokitzen zen. Gainera, gerora egindako berritze lan batzuk salatzen zituen. Halaber, arroka garaiagoa zen gunea behar bezala landu zuten arroka horri zoru erabilera emateko.

Dorrearen hormek goian gutxienez beste solairu bat izan zela salatzen dute, gutxi gorabehera 3 metroko altueran. Iparraldetik hegoaldera egokitutako hiru habek osatuko zuten forjatua, habe horiek iparraldean horma zulo irekietan hartuko zuten atseden, eta hegoaldean hormak alde horretan egiten duen atzeraemangune jarraituaren gainean. Horma zulo horien neurriek, 32 bider 25 cm-koak, habeen tamaina handia salatzen dute. Azkenik, dorreko suntsipen mailetan dokumentatutako teilek adierazten digute material hori erabili zutela eraikineko teilatuan, gutxienez eraikinaren azken okupazio aldian.

Barruti harresitua (C). Dorreak bere defentsa sendotuko zuen barruti harresitu bat eraikiz. Oinplano irregularrekoa izango zen defendatzeko multzoren goiko aldean altxatzen den harrizko muinoari egokitzeko. Dorrearekin gertatzen zen bezala, harkaitzaren gailurreko azalera txikia izanik alde hori egokitzeko lan batzuk egin behar izan zituzten perimetroan terraza moduko horma bat altxatzeko, defentsa hobetzeaz gain zuzendu egingo baitzuen gunearen profil malkartsua eta handitu egingo baitzuen erabilerarako azalera.

Kontserbatutako aztarnak gutxi diren arren, hormek, kasurik hoberenean, doi-doi gainditzen baitute metro beteko altuera, dorrean eta beheko gorputzean erregistratutako estekaduraren antzekoa da hemengoa, hau da, tamaina ertaineko harlandu txikiak erabili zituzten, piezak ilara erregularretan ipiniak. Barruti harresituaren dimentsioei dagokienez, gutxi gorabehera 280 m²-ko azalera kalkulatu liteke dorreak hartzen duen eremua barne hartuta, baina handiagoa izango zen, oraindik ez baitugu multzoaren iparraldeko muga non dagoen zehazterik izan.

El espacio que se creó una vez se levantaron los muros perimetrales permitió que los usuarios de la fortaleza dispusieran de un imponente edificio con planta en forma de «D» apuntada, de 10,5 metros de longitud máxima por 9 metros de anchura, dejando una superficie interior de aproximadamente 37 m². Sin duda, el costado mejor defendido de la torre es el este, dotado de un potente paramento curvo de 2,70 metros de grosor máximo en su zona central. Desde aquí, el muro disminuye el grosor conforme se gana altura y nos aproximamos al lado opuesto del edificio (oeste), donde el espesor no supera 1,4 metros en su base y apenas 0,65 metros en el piso superior. Bajo una óptica militar, todo apunta a que nos encontramos ante una obra que recurre a la forma curva como la más óptima para resistir la artillería enemiga, contrarrestando el impacto de los proyectiles con el muro curvilíneo frontal.

Su emplazamiento, sobre una cresta rocosa de difícil acceso, hizo que la puerta se situara a nivel de suelo, en el costado meridional del edificio, sin necesidad de elevarla en altura. Al interior, el suelo presentaba dos niveles. Uno inferior, que tomaba la cota del umbral de la puerta y que se extendía por el lateral oriental. Y otro ligeramente más alto, situado al oeste de la estancia, al que se accedía mediante dos peldaños de piedra. El nivel inferior conservaba restos de un piso de cal, de escaso espesor, situado inmediatamente encima del relleno constructivo que niveló todo el espacio tras la construcción de la torre. Presentaba, además, varias reformas posteriores. Asimismo, en la zona donde la roca alcanzaba mayor altura, ésta se labró adecuadamente para utilizarla como suelo.

Los alzados de la torre permiten certificar la presencia de, al menos, otro piso superior situado a unos 3 metros de altura. Su forjado estaría integrado por tres vigas con dirección N-S, apeadas al norte sobre otros tantos mechinales abiertos y al sur sobre el retranqueo corrido que efectúa el muro aquí. Las dimensiones de los mechinales, de 32 por 25 cm, dan idea de la entidad de las vigas. Finalmente, señalar que la presencia de teja en los niveles de destrucción de la torre avalaría el empleo de este material como cubierta del edificio, al menos, en su etapa final de ocupación.

El recinto amurallado (C). La torre va a reforzar su defensa con la construcción de un recinto amurallado de planta irregular, adaptado al cerro rocoso que se alza en lo alto del conjunto defensivo. Al igual que ocurría con la torre, la escasa superficie del coronamiento de la peña obligó a ciertos trabajos de acondicionamiento, con el objeto de levantar un muro de aterrazamiento perimetral que, además de mejorar la defensa, corregía el perfil quebrado del terreno y ampliaba la superficie de uso.

Aunque los restos conservados son escasos, con fábricas que, en el mejor de los casos, apenas superan el metro de altura, se registra un aparejo similar al detectado en la torre y el cuerpo inferior, caracterizado, recordemos, por un el empleo de sillarejos de medio tamaño, dispuestos en hiladas regulares. En lo que respecta a sus dimensiones, es posible estimar una superficie aproximada de 280 m², incluida el área de la torre, si bien debió ser superior al desconocer el límite septentrional del conjunto.

Uraska (D). Une honetan uraska non dagoen ez dakigun arren, zalantzarik ez dago jatorrian halako bat izan zela, Erdi Aroko harkaitzetako gaztelu guztietan arau orokorra baitzen uraska bat egotea. Eskuarki gotorlekuaren goiko aldean egokitzen zen, dorre nagusitik hurbil, zenbaitetan dorreko teilatuaren isuria aprobetxaturik euri urak biltzeko. Marutegin logikak adierazten digu dorre ondoan egongo zela, iparraldean, ekialdean edo mendebaldean, alde horien ezaugarri topografikoak egokiak baitira uraska bat antolatzeko.

Abandonatzea

Gazteluan antzemandako hurrengo faseak dorrearen abandonua dokumentatzen du eta, zentzuzkoa denez, gotortutako multzo osoarena. Zehazki, erabiltzeko azken zoruaren gainazalean abandonu maila bat erregistratu genuen, eta haren matrizean zeramikazko eta metalezko aztarna batzuk nabarmentzen ziren. Horiek, aurreko jarduerak ez bezala, batez ere kulturaz besteko faktore batzuek eragin zuten prozesuaren emaitza dira.

Gutxi badira ere, berreskuratutako zeramika zatiei esker abandonu hori XV. mende amaieran edo XVI. mendearen lehen erdialdean gertatu zela esan dezakegu.

Suntsipena

Dorrea abandonatu eta berehala, gaur arte iraun duen hondamen prozesu etengabea nagusitu zen. Suntsipen hori defendatzeko multzoa osatzen zuten egituretan ikus daitezkeen ebaketa interfazeei eta zorupean sortutako deposituei esker dokumentatu daiteke. Horiek guztiak gizakiek bideratutako arpilatzeen eta denboraren joanak eragindako berezko hondamenaren emaitza dira. Suntsipen deposituei dagokienez, osaera hareatsua eta trinkotasun txikia zituzten ezaugarri, ugari ziren dorrearen hormetatik etorritako eraikuntza materialak (bereziki, harria, kareorea eta teila) eta etxeko zaborrak (animalien hezur hondakinak eta zeramikak). Eraikineko solairu osoan barreiatzen ziren depositu horiek, batzuk besteak baino lodiagoak.

San Migel baseliza

Zuzendaritza: Á. Martínez Montecelo

San Migel gainean bideratutako esku hartze arkeologikoan hiru okupazio fase identifikatu dira: lehenengoak halako jarduera salatzen du muinoan gutxienez Erdi Aroaren amaieraz geroztik (I. fasea), bigarrena balizkio baselizaren eraikuntzari dagokio (II. fasea), eta azkenekoa baselizaren abandonuarekin eta suntsipenarekin (III. fasea).

Lehendik zeudenak

San Migel[9] inguruan historiaurreko eta proto-historiako materialak daudela dioten erreferentziak gutxi ez

[9] Zerrenda luzea da, baina Arabako Karta Arkeologikoan aipatzen diren materialak (AKA-297, Morutegi; AKA -3217, Peñas de Azpilletako Harriak; AKA -3223, Mizkiartes; AKA -3239, La

El aljibe (D). Aunque en la actualidad se desconoce la ubicación del aljibe, su primitiva existencia está fuera de dudas, según norma general en todos los castillos roqueros de época medieval. La pauta habitual es que se sitúe en la zona superior de la fortaleza, próximo a la torre principal, beneficiándose en ocasiones de la vertiente de su tejado para la recogida de las aguas de lluvia. En Marutegi, la lógica apunta a que se localizaba junto a la torre, bien al norte, al este u oeste de ella, al ser los emplazamientos con las características topográficas más adecuadas para su instalación.

El abandono

La siguiente fase detectada en el castillo documenta el abandono de la torre y, en buena lógica, de todo el conjunto fortificado. En concreto, sobre la superficie del último suelo de uso se registró un nivel de abandono, en cuya matriz destacaban algunos restos cerámicos y metálicos product0o de un proceso en el que, a diferencia de las actividades anteriores, intervinieron principalmente factores de tipo no cultural.

Aunque escasos, los fragmentos cerámicos recuperados permiten datar este abandono a finales del siglo XV o la primera mitad del siglo XVI.

La destrucción

Inmediatamente después del abandono de la torre, le siguió un proceso de ruina continuada que ha perdurado hasta la actualidad. Esta destrucción puede documentarse en el registro arqueológico gracias a las interfaces de corte observables en las diferentes estructuras que integraban el conjunto defensivo y a los depósitos generados en el subsuelo. Todos ellos fueron producto tanto del expolio humano como del deterioro natural provocado por el paso del tiempo. En lo que respecta a los depósitos de destrucción, se caracterizaban por su composición arenosa y baja compactación, con abundante presencia de material constructivo procedente de los alzados del torreón (en especial piedra, mortero y teja) y de basura doméstica (restos óseos animales y cerámica). Se extendían por toda la planta del edificio, aunque con desigual potencia.

La Ermita de San Miguel

Dirección: Á. Martínez Montecelo

Por su parte, la intervención ejecutada en el alto de San Miguel ha identificado tres fases de ocupación: una primera que detecta cierta actividad en el cerro desde, al menos, época tardomedieval (Fase I), otra correspondiente a la construcción de la posible ermita (Fase II) y una última relacionada con su abandono y destrucción (Fase III):

Preexistencias

A pesar de referencias a la presencia de materiales prehistóricos y protohistóricos en las inmediaciones de San Miguel[9], las evidencias más antiguas en-

[9] El repertorio es amplio, aunque podemos destacar los materiales citados en la *Carta Arqueológica de Álava* (CAA-297,

Dorrearen eta goiko barruti harresituaren ikuspegia, harresiaren trazadura lerro horiz adierazita (Argazkia Dronetikan AirWorks).

Vista de la torre y del recinto amurallado superior, con indicación de su trazado en línea amarilla (Fotografía: Dronetikan AirWorks).

Ballota; AKA -3500, Txuriturri; AKA -5604, Araia; AKA -5605: Ilarduia; AKA -5610, Zalduondo) eta Paquita Sáenz de Urturik 1992an Azpilletako Harrietan bideratutako esku hartzea aipa

---

Morutegi; CAA-3217, Peñas de Azpilleta; CAA-3223, Mizkiartes; CAA-3239, La Ballota; CAA-3500, Txuriturri; CAA-5604, Araya; CAA-5605: Ilarduya; CAA-5610, Zalduendo), así como la actuación realizada por Paquita Sáenz de Urturi en 1992 en

diren arren, Erdi Arokoak dira gure esku hartze arkeologikoan aurkitu ditugun aztarna zaharrenak. Zehazki, bigarren egokieran zeuden zeramikazko material batzuk berreskuratu genituen, kronologiaz Erdi Aro amaierakoak. Pentsatzekoa da material horiek gertutik ekarri zituztela honaino, eta beraz, une horietan okupatuko zutela harkaitz hori. Hala eta guztiz ere, ez ditugu ezagutzen giza egonleku honen neurriak eta gainerako ezaugarriak.

Eraikinaren eraikuntza eta erabilera

San Migel harrian bideratutako esku hartze arkeologikoak egin baino lehen, alde honetan baseliza bat egon zitekeela iradokitzen zuten aztarna batzuk zeuden.

- Aurrenekoa idatzia da, Asparrenan San Migel baseliza aipatzen baita Martin Gil Lizentziatuak 1556an egin zuen Bisitaldiaren harira.
- Bigarrena leku izena da, alde honek «San Migel harria edo gaina» baitu izena.
- Hirugarrena kokapena da, harriaren gailurrean, erraz asko ikusten den lekuan, San Migel gurtzeko leku askorekin bat datorrena. Egile batzuen arabera, San Migel gurtzeko tokiak nonahi ugaltzen dira leku garaietan, eta gurtzak egiten zituzten halakoetan[10].

Indusketa arkeologikoan, zalantzak zalantza, San Migel baselizarekin identifikatu litekeen eraikin bati dagozkion aztarna materialak erregistratu genituen. Nahiz eta gutxi kontserbatu den, batez ere oso larria izan delako desegite prozesua, oinplano angeluzuzeneko eraikin bat bereiz daiteke, guztira 11 bider 6 metrokoa, ipar-mendebaldetik hego-ekialderako ardatzaren arabera antolatua. Bi gelatan banatuta zegoen. Bat hego-ekialdeari begira, gutxi gorabehera 5,5 x 4,5 metroko azalerarekin barruko aldean, eta bestea ipar-mendebaldeari begira, gutxi gorabehera 2,5 x 4,5 metrokoa. Barruan ia gainazalean azaltzen zen arroka, eta ondorioz, oro har jarraipen txikikoak eta meheak ziren identifikatu genituen geruzak. Karezko zoru eten bat nabarmentzen zen, haren gainean egokitzen zen zanpatutako buztinezko zorua, eta haren gainean berreskuratu genituen euskal herri lozaz egindako bi gopor. Zabor organikoaren hondakinen (animalien hezurrak, ikatzak...) eta/edo suen absentzia kontuan izanik, guk uste dugu etxeko giroan baino erlijio erabilerako giroan gaudela.

Orain arte bildutako datuak kontuan harturik ondorioztatu dezakegu ezezaguna dela San Migel baseliza eraiki zuten une zehatza, nahiz eta 1556. urteko idatzi batean aipatzen den. Nolanahi ere, ezin dugu bere jatorria Goi Erdi Aroan edo Erdi Aro Betean kokatu desagertu den herrixka bateko eliza gisa, ez baita kronologia horretako zeramikazko materialik antzeman, ezta elizari atxikita egongo zen nekropoliaren arrastorik bat ere. Horregatik guztiagatik, azaldutako

ditzakegu (*Arkeoikuska* 1992, 292-293. or).

[10] Caro Baroja, J., (1995): «El culto y la leyenda de San Miguel de Excelsis», *Principe de Viana* 206. Iruñea, 1079-1086. or; Portilla, M.J., (1991): *Una ruta europea. Por Álava, a Compostela. Del paso de San Adrián, al Ebro*, Vitoria-Gasteiz, 53-54. or.

contradas en nuestra intervención arqueológica corresponden a época medieval. En concreto, se recuperaron diversos materiales cerámicos en posición secundaria de cronología tardomedieval. Es lógico suponer que su acarreo se realizase desde un entorno próximo, por lo que todo indica que la peña fue ocupada en estos momentos, si bien desconocemos la entidad y demás características de este asentamiento humano.

Construcción y uso del edificio

Con anterioridad a las intervenciones arqueológicas efectuadas en la peña de San Miguel, existían diversas evidencias que posibilitaban suponer la presencia de una ermita en este lugar.

- La primera es escrita, al mencionarse una ermita de San Miguel en Asparrena, según la Visita del Licenciado Martín Gil en 1556.
- La segunda es toponímica, al denominarse el lugar «peña o alto de San Miguel».
- La tercera es el emplazamiento, en plena cima de la peña, un lugar claramente visible y acorde con muchos de los lugares de culto de esta advocación. Según algunos autores, los lugares de culto a San Miguel se multiplican por doquier en las alturas, en muchos de los emplazamientos donde eran venerados cultos paganos[10].

La excavación arqueológica registró diversos restos materiales correspondientes a un edificio que, con las lógicas reservas, pudiera identificarse con la ermita de San Miguel. A pesar de su escasa preservación, producto de un importante proceso de desmantelamiento, es posible distinguir una construcción de planta rectangular, con unas dimensiones totales de 11 por 6 metros, orientado según el eje NW-SE. Aparecía compartimentado en dos espacios. Uno hacia el SE, de unos 5,5 x 4,5 metros de superficie interior y otro al NW de unos 2,5 x 4,5 metros. Al interior la roca afloraba casi inmediatamente, por lo que los estratos identificados presentaban por lo general poca continuidad y potencia. Destacaba la presencia de un suelo de cal discontinuo, sobre el que se depositaba un segundo suelo de arcilla apisonada, en cuya superficie se recuperaron dos escudillas de loza popular vasca. La ausencia de restos de basura orgánica (huesos animales, carbones…) y/o de hogares hace que nos inclinemos por un ambiente de uso religioso, más que doméstico.

Con los datos recabados hasta el momento podemos concluir que, aunque la ermita de San Miguel aparece citada en el año 1556, el momento preciso de su construcción se desconoce. Su origen, en todo caso, no puede llevarse a época alto o plenomedieval, como iglesia de una desaparecida aldea, ya que no se han detectado materiales cerámicos de esta cronología, ni de la necrópolis que debería tener asociada. Por

las Peñas de Azpilleta (*Arkeoikuska* 1992, p. 292-293).

[10] Caro Baroja, J., (1995): «El culto y la leyenda de San Miguel de Excelsis», *Principe de Viana* 206. Pamplona, pp. 1079-1086; Portilla, M.J., (1991): *Una ruta europea. Por Álava, a Compostela. Del paso de San Adrián, al Ebro*, Vitoria-Gasteiz, p. 53-54.

aztarnak San Migel baseliza galduari baldin badagozkio, baseliza hori segur aski XV.-XVI. mende bitartean eraiki zutela ondorioztatu behar dugu.

Eraikinaren suntsipena

Eraikina oso suntsituta dago, doi-doi kontserbatu da zimenduen mailan. Horrek agerian uzten du eraikinaren hormak ia osorik desegin zituztela. Suntsipen prozesu hori segur aski harrizko piezak inguru hurbileko beste eraikuntza batean edo batzuetan berrerabiltzeko eraman zen burura. Berariaz bideratutako desegite hori argi eta garbi islatzen da, esate baterako, iparraldeko hormaren kontra metatutako adreilu trinkoen pilaketa handian; adreilu horiek eraikinaren hormetatik etorriak dira seguruenik.

Suntsipen fase hau datatzeko funtsezkoa izan da azkeneko zoruaren gainean berreskuratutako zeramikazko goporren azterketa (gopor edo katilu horiek XVII. eta XVIII. mende bitartean datatu dira). Bestalde, XIX. mendetik aurrera iturri idatziek jada ez diote aipamenik egiten baselizari. Hala bada, mende honen hasieran, Historia Akademiako Hiztegiak Maguregiko gaztelua eta inguruko beste eraikuntza berezi batzuk jasotzen ditu, baina ez San Migel. Eta beste horrenbeste gertatzen da Pascual Madozen hiztegian (1848) eta hiztegiarekin batera doazen mapetan, Francisco de Coellok landutakoetan. Geroago, mende horren azken laurdenean, eremu hau ezin hobe ezagutzen zuen Ricardo Becerro de Bengoak Araiako leku interesgarri batzuk aipatzen ditu, baina ez dio inolako aipamenik egiten San Migel baselizari. Horrexegatik ondorioztatzen dugu ermita abandonatu eta ondoren hondatu egin zela, segur asko XVIII. mendean zehar, agian San Migel harriaren oinetan, iparralderantz, aurkitutako Erdi Aro osteko hilarriaren testuinguruarekin lotuta.

todo ello, debemos considerar que, si los restos aparecidos pertenecieron a la desaparecida ermita de San Miguel, debió tratarse de una ermita tardía levantada previsiblemente entre los siglos XV-XVI.

Destrucción del edificio

El fuerte arrasamiento del edificio, conservado apenas a nivel de cimentación, evidencia un proceso de desmantelamiento, cuasi completo, de sus alzados. Un proceso de destrucción realizado, previsiblemente, para reutilizar su fábrica en otra construcción (o construcciones) del entorno próximo. Este desmantelamiento deliberado se evidencia, por ejemplo, en un importante apilamiento de ladrillos macizos adosados contra el muro norte, pertenecientes posiblemente a la fábrica del edificio.

Para la datación de esta fase de destrucción ha sido crucial el estudio cerámico de las escudillas recuperadas sobre el último suelo, fechadas entre los siglos XVII y XVIII. Por otro lado, a partir del siglo XIX las fuentes escritas ya no hacen referencia a la ermita. Así, por ejemplo, a principios de esta centuria, el Diccionario de la Academia de Historia cita el castillo de Marutegi y otras construcciones singulares del lugar, pero no San Miguel. Y lo mismo el Diccionario de Pascual Madoz (1848) o los mapas que le acompañan de Francisco de Coello. Más adelante, durante el último cuarto de esa centuria, Ricardo Becerro de Bengoa, gran conocedor del territorio, cita varios lugares de interés en Araia, pero tampoco hace referencia alguna a San Miguel. Por todo ello, concluimos que la ermita debió ser abandonada y arruinada, probablemente, a lo largo del siglo XVIII, quizá en relación con la estela postmedieval localizada a los pies de la peña de San Miguel hacia el norte.

J.L. Solaun Bustinza; Á. Martínez Montecelo; M. Loza Uriarte; J. Diaz de Argote

A.5.2. **Kukuma haitzuloa. Araian**

Zuzendaritza: Maite García Rojas
Dirulaguntza emailea: MINECO (HAR2017-82483-C3-1-P)

A.5.2. **Cueva de Kukuma, en Araia**

Dirección: Maite García Rojas
Subvención: MINECO (HAR2017-82483-C3-1-P)

The archaeological intervention carried out in Kukuma cave consisted of the cleaning of the cave entrance and an assessment of the current condition of the existing stratigraphic samples.

Kukumako aztarnategia Araian (Asparrenako udalerria) dago, Altzaniako mendilerroaren hegoaldeko hegalean, itsas mailatik gora 715 metrora. Hego-ekialdeari begira dagoen haitzulo txikia da, sarrera hiru metro zabal eta metro eta erdi garai da, eta zazpi metro luze eta bi metro eta metro bete bitarte zabal den korridoreari egiten dio sarrera. Puntu horretatik aurrera bere garapen karstikoak hogeita hamar metroko galeria bakar bat du, eta bere neurriak murriztu egiten dira mendebaldera begira dagoen metro erdiko diametroko irekidura txiki batera iritsi arte.

El yacimiento de Kukuma se localiza en Araia (ayuntamiento de Asparrena), en la ladera sur de la sierra de Alzaina, a una altitud de 715 m.s.n.m. Se trata de una cueva de pequeñas dimensiones orientada al sureste, con una entrada de tres metros de ancho por un metro y medio de alto que da paso a una galería de siete metros de longitud y una anchura que oscila entre dos y un metro. A partir de este punto su desarrollo kárstico consta de una única galería de treinta metros donde sus dimensiones se van reduciendo hasta llegar a una pequeña abertura de medio metro de diámetro orientada al oeste.

Aztarnategi hau J. A. Madinabeitak eta T. Urigoitiak aurkitu zuten 1975ean, eta suharrizko aztarna sorta bat berreskuratu zuten zundaketa txiki bat egin zuten. Geroago, 1978an, beste zundaketa estratigrafiko bat bideratu zuten Valdeonek eta Berganzak, eta 1980an eta 1981ean zehar bi indusketa kanpaina egin zituzten. 1997ko txosten arkeologikoan daude jasota lan horiek.

Behin aztertzen amaitu ondoren ondorioztatu zuten aztarnategi hau hiru maila estratigrafikok ezaugarritzen dutela (Valdeón, Berganza 1997). Azalekoa zen bata, hortxe azaldu ziren material arkeologikoak material modernoekin nahasita; azpian, material arkeologikoa biltzen zuen geruza bakarra (I. maila), eta horren azpian, maila antzua.

2020ko esku hartze arkeologikoa

Aztarnategi honetan bideratutako esku hartze arkeologikoan haitzuloko sarrerako gainazal osoa garbitu genuen eta A. Valdeonen zuzendaritzapean induskatutako eremua identifikatu genuen. Gainera, laginen bilketa eguneratzeko eta datazio berriak egin ahal izateko beren horretan mantenduko zituzten balizko lekukotasunak identifikatzeko ahaleginak egin genituen.

Garbiketa lanak eginda ikusi dugu ezer gutxi gelditzen dela 1980an eta 1981ean egindako kanpainetan zehar induskatu zituzten deposituetatik. Beraz, interesgarria litzateke etorkizunean esku hartze sakon bat bideratzea.

El yacimiento fue descubierto por J. A. Madinabeita y T. Urigoitia en 1975 y realizaron una cata donde se recuperó una serie de restos de sílex. Posteriormente, en 1978, Baldeón y Berganza realizarán otro sondeo estratigráfico y durante los años 1980 y 1981 realizarán dos campañas de excavación. Publicando la memoria arqueológica en 1997.

Una vez concluido su estudio determinaron que este yacimiento se caracteriza por tres niveles estratigráficos (Valdeón, Berganza 1997). Uno superficial en el que aparecieron materiales arqueológicos mezclados con materiales modernos, bajo este, el único nivel con material arqueológico (nivel I) y bajo este, otro nivel estéril.

Actuación Arqueológica 2020

La actuación arqueológica llevada a cabo en el yacimiento ha consistido en la limpieza de toda la superficie de la entrada de la cueva y la identificación del área excavada dirigida por A. Valdeón. Además se ha intentado identificar los posibles testigos que debieron mantener para actualizar la recogida de muestras y poder realizar nuevas dataciones.

Tras la limpieza hemos observado que poco queda de los depósitos que se excavaron durante las campañas realizadas en 1980 y 1981. Por lo que sería interesante una intervención en profundidad en un futuro.

M. García Rojas

A.5.3. **Lezeako San Pedro tenplua eta herrixka (39. BAG), Ilarduian**

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Elisabeth Gorrotxategi

A.5.3. **Poblado y templo de San Pedro de Lecea (ZPA 39), en Ilarduia**

Director: Ander Arrese
Financiación: Elisabeth Gorrotxategi

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes arkeologikorik izan.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

A.5.4. **Miaketa lanak Araia-Burunda ibai arroan**

Zuzendaritza: Mikel Beorlegi Ereña

Finantzazioa: Asparrengo Udala; Vital Kutxa Fundazioa

A.5.4. **Prospecciones en la Cuenca del Río Araia-Burunda**

Direción: Mikel Beorlegi Ereña

Financiación: Ayuntamiento de Asparrena; Fundación Vital Kutxa

We expanded the area subject to spatial review in 2019, within the central area of the basin, determining the extent of the stone tool manufacturing concentrations and identifying several homogeneous assemblies, mostly dating from the Holocene.

We also commenced a review of the megalithic repertoire and caves in the foothills of the watershed, and initiated a geomorphological study of the prospected area, as well as a review of its minor (ancient) place names.

2020ko ekitaldian jarraipena eman nahi izan diegu AIA proiektuan finkatutako ildoei, eta beraz, ikerketak berezkoak dituen eginkizunak eta ondarea kudeatzeko, ezagutarazteko eta babesteko beste ataza batzuk eraman ditugu burura.

Ez dugu uste beharrezkoa denik 2020ko martxoaz geroztik ia esparru guztietan eta baita Asparrenakoak elkarteari atxikiriko AIA proiektuan halako geldialdia eta ondorengo birplanteamendua eragin dituzten zirkunstantzietan sakontzea.

Izan ere, ez da ekainerako aurreikusita genuen bigarren zundaketa kanpaina gauzatu, aurreko hilabeteetan ez genuelako hura prestatzeko aukerarik izan, eta egoerak berak halako ziurgabetasuna eragin duelako.[11]

Urtarrilean eta otsailean normaltasun osoz abiarazi genituen miaketa lanak eten egin ziren, eta berrogeialdiaren ostean berrekin genien, hori bai, agintariek urtearen gainerakoari begira agindutako erritmoei, lurraldeen itxialdiei, taldeei eta xedapenei egokituta.[12]

En el ejercicio del 2020 hemos querido dar continuidad a las líneas marcadas en el proyecto AIA, conjugando las tareas propias de la investigación con otras de gestión, difusión y defensa del patrimonio.

No creemos necesario abundar acerca de las circunstancias que, desde el mes de marzo de 2020 han provocado el frenazo y posterior replanteamiento en casi todos los ámbitos y también en el proyecto AIA, vinculado a la asociación Asparrenakoak.

De hecho, no se ha materializado la segunda campaña de sondeos prevista para el mes de junio, por no poder disponer de los meses preliminares para su preparación y por la incertidumbre generada por la propia situación.[11]

Las tareas de prospección iniciadas con normalidad en enero y febrero, se interrumpieron y pasaron a reiniciarse tras la cuarentena, adaptándose a los ritmos, cierres territoriales, disposiciones y grupos dictaminados por las autoridades durante el resto del año.[12]

---

[11] Gure ustez behar-beharrezkoa da haraneko behe eremuetan eta eremu irekietan dauden garrantzi desberdineko aztarnategien katalogazio lana osatzea, paisaia hondatzeko erritmo bizi hori azkartzen ari baita leku horietan. Izan ere, gizarte espektro sozial zabal batetik, indarrak biltzen ari dira Aizkorri-Aratz parke naturalaren ingurua zaintzeko eta hobetzeko, inguru horretan garatzen baita AIA proiektua, azken hamarkadetan azpiegituren gehiegizko eraikuntza jarduera garatzen ari direnen aurrean (gizarte mailan ere zalantzan jartzen da hori); azpiegitura horien artean aipatzekoak dira harrobiak, komunikazio bideen bikoizketak (pistak, errepidea, autobidea) eta abiadura handiko trenaren proiektua. Gaur egun, inoiz ez bezala, uste dugu gizarte osoak ulertu behar duela aurrerabidea ondare naturala suntsitzen ez duen zerbait bezala, eta beraz, ez paisaia ez arkeologia suntsitzen ez duen zerbait bezala.

Gainera, programatutako ikerketa lana zaildu eta trabatu baizik ez du egiten isilkako eta kontrolatu ezineko elementuen jarduera zalantzazkoak. Hala bada, gure ustez behar-beharrezkoa da aztarnategi horiek aztertzeko eta babesteko lanak irabazi asmorik gabeko elkarte kultural batetik koordinatzea, esate baterako Asparrenakoak elkartetik,inguruari buruzko ikuspegi espekulatiboei eta merkantilistei aurre egin ahal izateko, formula lehiakor orotatik ihes eginez; izan ere, unibertsitateko eremu batzuk, tamalez, lehiakortasun hori inplementatzen ari dira proiektu batzuei ekiteko orduan, baina curriculuma osatzeko helburua zilegi bada ere, joera intrusibo garbiak eta praktika ilunak antzematen dira horietan.

[12] Ondare arkeologikoari buruzko hitzaldien hirugarren zikloa, azaroan eta abenduan egitekoa zena, ezin izan da egin, eta hainbat txostengilek parte hartu behar zuten hartan. Era

[11] Vemos necesario el poder completar la catalogación de los yacimientos de distinta entidad, ubicados, en las zonas abiertas y bajas del valle, donde el mencionado ritmo de degradación del paisaje está acelerando su desaparición. De hecho, desde un amplio espectro social, se vienen aunando esfuerzos para el cuidado y la mejora del entorno al parque natural de Aizkorri-Aratz, en el que se desarrolla el proyecto AIA, frente a los que desde las últimas décadas se viene desarrollando una excesiva actividad constructiva de infraestructuras, también socialmente cuestionada, entre las que destacan las canteras, los desdoblamientos de vías de comunicación (pistas, carreteras, autovía) y el proyecto de tren de alta velocidad. Hoy más que nunca, consideramos que toda sociedad debe concebir el progreso como algo que no destruya el legado natural, ni el paisajístico, ni el arqueológico, por supuesto.

Además, la actividad incierta de elementos furtivos e incontrolables está haciendo difícil e incómodo el trabajo de investigación programado. Vemos así la necesidad de coordinar las actividades de estudio y defensa del patrimonio desde una asociación cultural sin ánimo de lucro, como Asparrenakoak, frente a las distintas visiones de carácter especulativo y mercantilista, huyendo además de toda fórmula competitiva que, por cierto, también desde algunos ambientes universitarios se está, tristemente, implementando a la hora de abordar algunos proyectos que, con el legítimo objetivo de engrosar currículum, manifiestan claras tendencias intrusivas y prácticas opacas.

[12] Tampoco se ha podido desarrollar el tercer ciclo de conferencias sobre patrimonio arqueológico, previsto para los

Arroaren erdialdeko ingurunearen azterketa geomorfologikoa eta ezaugarritze paleoanbientala egiteko helburu nagusiarekin, antzemandako prozesuei, morfologiari, deposituei eta sedimentu interesgarrienei buruzko analisi espezifikoak egiten hasi gara (analisi sedimentologikoa, palinologikoa, …), eta hurrengo kanpainetan osatu ahal izatea espero dugu. Izan ere, aurreneko etapa honetan, elkarrengandik oso gertu dauden Lezeko Iturria eta Allaran-Surbi aztarnategi arkeologikoetatik hurbil dagoen ingurua aztertu dugu, Ilarduiako eta Eginoko Administrazio Batzordeen lurretan.

Aitzitik, eskuarki denbora gutxi izaten delako sarritan gerorako uzten diren beste eginkizun batzuk eraman ahal izan ditugu burura. Esate baterako, proiektuari eta elkarteari buruzko gogoeta sakonak egin ditugu, erantzun egin diegu beste erakundeekin eta pertsonekin izan ditugun hartu-emanei eta gutun trukeei, artikulu monografikoak irakurri ditugu, landa lanetan sortutako informazioa landu dugu, berreskuratutako aztarnak kudeatu ditugu, eta kontsultak, konparazio lanak, azterlanak eta beste asko egin ditugu.

Kartografia kudeatzeko bitarteko hobeak ditugunez, emaitzak optimizatu egin ditugu inguruko aztarna arkeologikoak eta elementu geomorfologikoak kokatzean eta deskribatzean, ingurune fisikoaren ezaugarriak eta bilakaera hobeto ezagutzen lagunduko digutenak, eta, bistan denez, historiaurreko eta protohistoriako hainbat unetan bizi izan ziren kulturekin elkarreragiteko aukerak ezagutzen lagunduko digutenak, horixe baita Aia proiektuaren helburu nagusia.

Hala bada, Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena jaso dugu miaketa arkeologikoko kanpaina lurrak harrotu gabe egiteko. Kanpaina horretan, azterketa geomorfologiko bat egingo da lurraldearen erdiko eremuan, eta fenomeno megalitikoa ezaugarrituko dugu Arroaren iparraldeko eremu menditsuan. Gainera, Asparrenako Udalaren eta Vital Kutxa Fundazioaren laguntza ekonomiko bana jaso dugu. Honako lan hauek egin ditugu aurten:.

Miaketa arkeologikoak lurra harrotu gabe

Urtarrilean, otsailean eta abuztuan miaketa lan sakonak egiteko lau irteera egin ahal izan genituen. Irteera horietan eremua berrikusi genuen, aztarnategien egoera ebaluatu genuen, aztarna arkeologikoak bildu genituen (ez beti), argazkiak egin genituen, aztarnak geografian kokatu genituen eta espazioa neurtu genuen.[13] Gainerako irteerek, guztira 45, izaera estentsiboa eta puntualagoa izan dute, kanpainaren zatirik handiena hartu badute ere.

berean, udan ezin izan da jarduerarik egin, aurreko kanpainetan bezala, haurrekin Araiako igerilekuetan, eta ezin izan da amaitu udalak adeitasun osoz utzi zigun lan bulegoa egokitzeko lana.

[13] Lan horiek elkartearen lokalean egindako bilerekin eta formakuntza saioekin bateratu ditugu.

Con el principal objetivo de realizar un estudio geomorfológico y una caracterización paleo-ambiental del entorno central de la cuenca, se ha comenzado a trabajar en la realización de análisis específicos sobre los procesos, morfologías, depósitos y sedimentos localizados de mayor interés (análisis sedimentológico, palinológico,…) que esperamos poder completar en próximas campañas. De hecho en esta primera etapa se ha estudiado el ámbito inmediato a los yacimientos arqueológicos de Fuente de La Leze y Allaran-Surbi, muy próximos entre sí, dentro de los terrenos de las Juntas Administrativas de Ilarduia y Egino.

Sí que se han podido desarrollar otras labores que, muchas veces, quedan relegadas a momentos posteriores, y para las que normalmente se dispone de escaso tiempo, tales como la reflexión misma sobre el proyecto, y la asociación, como la atención a la correspondencia y comunicación con otras entidades y personas, como la lectura de monografías artículos y, entre otras, al trabajo y tratamiento de la información generada por las tareas de campo, la gestión de evidencias recuperadas, las tareas de consulta, de comparación, de estudio y un largo etcétera.

Al contar con mejores medios de gestión cartográfica, hemos optimizado los resultados al ubicar y describir las evidencias arqueológicas y los elementos geomorfológicos circundantes que nos van a ayudar a conocer mejor las características y evolución del entorno físico y, evidentemente, las diversas posibilidades de interacción con las culturas que lo poblaron en distintos momentos de la prehistoria y protohistoria. Principal objetivo este del proyecto AIA.

Así pues, contado con el pertinente permiso del Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Alava para desarrollar la campaña de prospecciones arqueológicas, sin remociones de tierras, que incluye el inicio de un estudio geomorfológico en el área central del territorio y una revisión y caracterización del fenómeno megalítico en área montañosa del norte de la Cuenca y pudiendo disponer de sendas ayudas económicas del Ayuntamiento de Asparrena, y de la Fundación Vital Kutxa Fundazioa, durante el presente año hemos desarrollado las siguientes tareas.

Prospecciones arqueológicas sin remociones de tierra

Durante los meses de enero, febrero y agosto pudimos realizar cuatro salidas de prospección de alta intensidad, en las que desarrollamos la revisión espacial, la evaluación del estado de los yacimientos, la recogida de evidencias arqueológicas (no siempre) el fotografiado, la geo-referenciación y medición espacial.[13] El resto de las salidas, 45, han tenido un carác-

meses de noviembre-diciembre, para el ya que contábamos con la participación de varios ponentes. Asimismo, no ha sido posible desarrollar ninguna actividad en verano, al igual que en campañas anteriores, con las niñas y niños en las piscinas de Araia, ni culminar el acondicionamiento del gabinete de trabajo que el ayuntamiento amablemente nos cedió.

[13] Trabajos que hemos podido compatibilizar con reuniones y sesiones de formación en el local de la asociación.

Arabako lurraldearen ipar-mendebaldeko muturrean aztertutako eremuaren kokapena. Gorriz daude adierazita 2020ko kanpainan berrikusitako aldeak.

Ubicación de la zona de estudio en el extremo NW del territorio de Álava, especificando en rojo las zonas revisadas en la campaña de 2020.

A- Hiru lagunetik gorako taldetan toponimo hauek berrikusi ditugu: Iriakosoroi, Arrazpi, Marutegi baserriaren inguruak (Araia), Mendiribil, Sarri, Lezeko Iturria, Las Arcillas, (Ilarduia) Allaran (Egino), eta hasteko egitura sorta bat identifikatu dugu, egitura gehienak guztiz hondatuta, tumulu edo monolito gisa, Oderitz, Arrazpi, Iriakosoroi eta Mendiribilen, eta azken aurkintza horretan aurreko kanpainetan antzemandako harri metaketa batzuk bereizi genituen. Harri metaketa horietan nahasirik ageri dira tresnak, gehienak Urbasako suharrian landuak, neurri motagatik, hidratazio eta patinen desberdintasunengatik eta berreskuratutako adibide tipologiko urriengatik.

B- Egoera bihurria tarteko, Internet, whatsap eta meet bidezko komunikazioak nabarmen aldatu du lan dinamika. eta lehen aipatutako 45 irteera horietan lan estentsiboa eta bakarkakoa lehenetsi da, hauxe da, miaketa lanak egiteko irteerak egin dira parte hartzaile batekin edo birekin. Funtsean 2019ko kanpainan bildutako emaitzetan oinarrituta lan egin dugu, eta Gortieta, Abide, Berua, Mariturri, Isasia, Murtzia, Ilarduiako bidea (Arbeiz) Lizardui, Las dos Aguas, Askartza, Ilarra, Eginobide (Ilarduia) izeneko aurkintzetan zabaldu egin ditugu miaketa eremuak. Era berean miatu ditugu inguruko beste eremu ba-tzuk, abiadura handiko trenaren eraikuntzak hein baten ukitzen dituen eremuak: Buztarrate, Milaguarda, Milagardoste (Andoin) eta Zabala, Biate, Gaztolepo, San Miguel, Iturrioz, Larrasoil, (Araia) Esnate, Txorreka, Gurraido, Basalde

ter extensivo y más puntual aunque han constituido el grueso de la campaña.

A- En grupos de más de tres personas, se han revisado los topónimos de Iriakosoroi, Arrazpi, alrededores del caserío Marutegi (Araia) Mendiribil, Sarri, Lezeako Iturria, Las Arcillas, (Ilarduia) Allaran, (Egino) y como resultado preliminar hemos identificado una serie de estructuras, en su mayor parte arruinadas, a modo de túmulos y monolitos, pendientes de su caracterización en Oderitz, Arrazpi, Iriakosoroi y Mendiribil, completado, en este último espacio, la localización de la serie de concentraciones líticas iniciada en campañas anteriores, en las que se evidencia una clara mezcolanza de industrias, en su mayoría en sílex de Urbasa, por el tipo de talla, por las diferencias de hidratación y de pátinas así como por los escasos ejemplos tipológicos recuperados.

B- Debido a la situación adversa, la comunicación a través de internet whatsap y meet, han cambiado sensiblemente en la dinámica de trabajo, priorizando en el curso de 45 salidas el trabajo extensivo y solitario, es decir, salidas de prospección a cargo de uno o dos participantes. Básicamente ha trabajado en base a los resultados de la campaña del 2019 ampliando sectores espaciales en lugares denominados como, Gortieta, Abide, Berua, Mariturri, Isasia, Murtzia, Camino de Ilarduia (Arbeiz) Lizardui, Las dos Aguas, Askartza, Ilarra, Eginobide (Ilarduia) así como en otras zonas aledañas afectadas en parte por la construcción del tren de alta velocidad como Buztarrate, Mila-

(Egino) Arrobigaina, Aginaran eta Olanoko eremu megalitikoak, Urrialdoko Harriak, Berokia, Arlanbe eta Basakaitz Hegia Araian, Zalduondo eta Galarreta. Leku horietan harrizko tresna multzo sorta bat mugatu dugu. Salbuespenak salbuespen, heterogeneotasuna da tresna horietan joera nagusia. Oraingoz hiato kultural zehatzagoetan kokatu beharreko harrizko sortak berreskuratu ditugu, halako homogeneotasuna erakusten dute patina, tipologia eta tipometriari dagokienez, baina horiek guztiak lagin guztiak sakon azterturik eta, geroago, esku hartze estratigrafikoak bideraturik berretsi beharko ditugu. Lizardui, Gortieta, Berua, Isasia, Ilarra eta Zabalako aurkintzez ari gara.

Ilarrako aurkintzan, Ilarduian, hegoalderantz apur bat inklinatzen den eremuan, 1995ean (Beorlegi, M.) 238 elementu partzialki dokumentatu ziren lekuan, tresna sorta txiki bat berreskuratu dugu, horien artean aipatzekoa moustier aldiko itxura duen R1 karrakagailua, ondoko Askartzako multzoarekin (Beorlegi. M. 1995 eta 2005) eta Eginoko Santa Barbarako material multzoko elementu batzuekin lotu daitekeena (Alday, A.; Díaz de Aranguiz, E. 2017).

Irteera horietan begiz aztertu genituen mendiko aztarnategiak eta Azpileta-Gaztolepo-Iturriotz, Zirauntza ibaiaren Iturburua, Arbarakoate eta Oderitz aldeetako haitzuloak, horrenbestez aberastu dugu orain arte erabilitako katalogoa. Era berean, Altzania-Urkila gailur lerroko estazio megalitikoak aztertu ditugu, eta monumentu batzuk nabarmen hondatu direla esan behar dugu, esate baterako, Aginaran-Txuloko trikuharriak, La Piedrako egiturak, eta bereziki Larrasoil trikuharria eta Jentilen leizea eta Atizparreko leizea.

C- Miaketak berezko dituen eginkizunekin zuzeneko zerikusirik ez badu ere, aurkintzak berrikusteko lan hauetan isilpeko lur mugimenduak egin dituztelako arrasto garbiak egiaztatu ditugu Araiako San Migel Harrian, Eginoko Allaran-Surbin eta Ilarduiako Lezeko Iturrian, eta horiek gehitu egiten zaizkie Aguraingo Kuadrilla osoaren inguruan egiaztatutakoei, babes gabe gelditu diren aurkintzetan, eta San Migel kasuan, aztertzeko prozesuan zeuden zundaketak nahasiz ehunezko sareak, edo babesten zituzten lurrak, mugitzean edo ateratzean.

Gertaera horiek agintarien aurrean salatzeaz gain, indartu egin dugu elementu horien babesa, eta horretarako ehunezko sarea berritu dugu, zohikatzez eta harriz bete ditugu, eta birlandatu egin dugu; horrenbestez bermatuko da deposituen egoera ona.

Fenomeno megalitikoaren berrikuspena Arroan eta Urkila eta Altzaniako mendi hegaletan

AIAko ikerlari taldeko kide baten master amaierako proiektuan erabilitako lan irizpide eta urrats berberetatik abiatuz, kanpaina honetan eta miaketa lanak egiteko irteeretan (baita kartografia eta argazkiak berrikusteko lanetan, LIDAR sistemaren erabileran eta QGIS

guarda, Milagardoste (Andoin) y en los términos de Zabala, Biate, Gaztolepo, San Miguel, Iturrioz, Larrasoil, (Araia) Esnate, Txorreka, Gurraido, Basalde (Egino) áreas megalíticas de Arrobigaina, Aginaran y Olano, Peñas de Urrialdo Berokia, Arlanbe y Basakaitz Hegia en Araia, Zalduondo y Galarreta, lugares en los que se han delimitado una serie de conjuntos de industrias líticas, en los que la tónica general es la heterogeneidad, salvo excepciones, donde por el momento hemos recuperado lotes líticos de hiatos culturales más concretos, con tendencia a una homogeneidad de pátinas, tipología y tipometría que deberemos confirmar con el estudio pormenorizado de toda la muestra y posteriormente por medio de intervenciones estratigráficas. Hablamos de Lizardui, Gortieta, Berua, Isasia, Ilarra y Zabala.

En el lugar de Ilarra, en Ilarduia, que se extiende sobre un terreno levemente inclinado hacia el sur, y donde ya fue publicado parcialmente un efectivo de 238 elementos (Beorlegi, M. 1995) se ha recuperado un corto lote de industria, entre la que destaca una raedera R1, de aspecto musteriense, que viene a asociarse al conjunto cercano de Askarza (Beorlegi. M. 1995 y 2005) y a algunas procedentes del conjunto de materiales de Sta. Bárbara de Egino (Alday, A.; Díaz de Aranguiz, E. 2017).

En estas salidas también se han realizado revisiones visuales de yacimientos de montaña, así como de cavidades en las área de Azpileta-Gaztolepo-Iturrioz, en El Nacedero del Zirauntza, en Arbarakoate, en Oderitz, ampliándose el catálogo hasta ahora utilizado. También se han explorado las estaciones megalíticas, del cordal de Altzania-Urkila constatándose un especial deterioro de algunos monumentos como dólmenes de Aginaran-Txulo, en las estructuras de La Piedra y especialmente, en el dolmen de Larrasoil, y en las cuevas de Los Gentiles y de Atizpar.

C- Aunque directamente no relacionadas con las tareas propias de la prospección, en estas revisiones hemos constatado claras evidencias de remociones clandestinas en el entorno de la Peña de San Miguel en Araia, en Allaran Surbi en Egino, y en La Fuente de La Leze en Ilarduia que han venido a sumarse a otras, también constatadas en el entorno de toda la Cuadrilla de Salvatierra, lugares en los que han quedado desprotegidas, y en el caso de San Miguel alteradas las catas en proceso de estudio al mover o eliminar los geo-textiles, o la tierra que los custodiaba.

Además de denunciar estos hechos ante las autoridades, se ha procedido a reforzar su protección, con reposición del geo-textil, rellenado de tierra de turba y piedra, resembrado, garantizando así el buen estado de los depósitos.

Revisión del fenómeno megalítico en la Cuenca y en las laderas de Urkila y Altzania

A.8.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.8.1.1. **Medio eta Serrea kaleak, 1-3**

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Pedro Mª Presa Corres

A.8.1.1. **Calles del Medio y Sarrea, 1-3**

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Pedro Mª Presa Corres

Sondages and archaeological monitoring of the consolidation of the retaining wall and enclosure of the plot located between 1 and 3 Medio and Sarrea Streets in Bernedo (Álava).

Sarrera

Lursaileko horma sendotzeko lanaren harira, aldez aurretik hiru zundaketa mekaniko egin dira, eta ondoren horma desegiteko eta berritik eraikitzeko lanak kontrolatu dira.

[15] Krumbein, W.C. and sloss, L.L. (1951): Stratigraphy and sedimentation, W.H. Freeman and Company, San Frantzisko, Kalifornia.

Introducción

Para la obra de consolidación del muro de la parcela se han llevado a cabo tres sondeos mecánicos previos y se ha procedido al control del desmonte del muro y su nueva construcción.

[15] Krumbein, W.C. and sloss, L.L. (1951): Stratigraphy and sedimentation, W.H. Freeman and Company, San Francisco, California.

Esku hartzea

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak, guztizko azaleraren 20 m² inguru. Agortu egin genituen iritsitako kotaraino beste ikerketa bat abiarazteko aukerak oro, emaitzak negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik.

Konklusioak

Bernedoko hirigune barruan dagoen arren, interes arkeologikorik gabea da lursail hau.

Intervención

Intervención arqueológica en buena parte del solar, cerca de 20 m² del total, agotando la posibilidad de nueva investigación hasta la cota alcanzada, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Conclusiones

Parcela sin interés arqueológico pese a encontrarse dentro del casco urbano de Bernedo.

R. Leorza

A.8.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.8.2.1. **Sotoko errota, Navarreten**

Zuzendaritza: José Ángel Apellániz González

Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia

A.8.2.1. **El molino El Soto, en Navarrete**

Dirección: José Ángel Apellániz González

Financiación: Diputación Foral de Álava

Third season of work designed to consolidate and clean some of the key structures in the El Soto mill complex (Navarrete, Álava). The work was supported by the Álava Provincial Council's Historical-Architectural Heritage Service. This year, the restoration work focused on the water vat or 'antepara', as well as on the cleaning of the small millpond located just in front of it. After emptying them, the vat and the millpond were cleaned by removing mud and sludge, verifying their watertightness and repairing the walls of the outer lining of the vat and the internal wall of the large NW side dam, with the aim of resolving the water filtration problem. In these spaces, diverse structural and ethnographical elements were detected and documented. These elements were linked to the mill and the mill usufructuaries and tenants from the 18th century onwards.

«Sotoko» errotan bideratutako bi esku hartzeen ostean (2016an eta 2019an), errotaren funtsezko egituren zati bat sendotzeko eta garbitzeko hirugarren jarduera kanpaina bideratu da Arabako Foru Aldundiko Ondare Historiko eta Arkitektonikoko Zerbitzuak finantzaturik eta sustaturik. Kasu honetan, kuboaren edo «antapararen» egitura zaharberritzeko eta haren aurretik dagoen ura biltzeko urmael txiki bat egokitzeko eta saneatzeko lanak egin ditugu. Behin hustuta, kuboan eta urmaelean bideratutako garbiketa lanen helburua lohiak ateratzea eta haien estankotasuna hobetzea zen. Horretarako, ur irazpenak saihesteko, kuboaren kanpoko estaldurako hormak konponduko genituen, baita ipar-mendebaldeko dike handiaren barruko horma atalak ere. Inguru hauetan, egitura eta etnografia izaerako elementu material batzuk hauteman eta dokumentatu ditugu errotaren jarduerarekin lotuak, XVIII. mendeaz geroztik errotaren errentarien edo usufruktuan erabili zutenei dagozkienak. Bestalde, ondoko jolas parketik (gutxi gorabehera 150 m-ra zuzen) errotako instalaziora iristeko bidea egokitzeko lanen gaineko jarraipen lanak egin ditugu. Jolas parke horretan azaleratzen da lurpeko iturburua –"Sotoko Iturriak», era berean «Egako Iturriak» deituak, Toloñoko Mendilerroko akuifero karstikotik datorren iturburua baita, ibaiaren goiburuan ura etenik gabe eskaintzen duena (uda partean, gutxienez 110 litro segundoko ur emaria)–. Kontrol ar-

Tras dos intervenciones en el complejo molinar de «El Soto» (2016 y 2019), se ha desarrollado una tercera campaña de actuaciones de consolidación y limpieza de parte de sus estructuras esenciales, financiada y promovida por el Servicio de Patrimonio Histórico-Arquitectónico de la Diputación Foral de Álava. En esta ocasión, la obra restauradora ha incidido sobre la estructura del cubo o «antepara» y en el acondicionamiento y saneamiento del pequeño estanque de represado de agua que le antecede. La limpieza del cubo y del estanque, una vez vaciados, ha tenido por objeto la extracción de lodos y la revisión y mejora de su estanqueidad, reparando los muros del forro exterior del cubo así como la pared interna del gran dique lateral NW para remitir las filtraciones de agua que presentaba. En estos espacios se han detectado y documentado diversos elementos materiales de carácter estructural y etnográfico, pertenecientes al ámbito de la actividad molinera de los usufructuarios y arrendatarios del molino desde el siglo XVIII. También se ha realizado el seguimiento de los trabajos de acondicionamiento del camino de acceso a la instalación molinera desde el cercano parque de ocio (unos 150 m de desarrollo longitudinal), lugar donde aflora el manantial subterráneo -"las Fuentes de El Soto», también denominadas «Fuentes del Ega», por ser esta surgencia procedente del acuífero kárstico de la Sierra de Cantabria, una de las principales aportaciones de caudal continuo en la cabecera del río (unos 110

keologikoko lan horretan arreta berezia jarri dugu errotako sarreraren kanpoko aldean, alde hori guztiz zaharberrituko delako eta bertan lur mugimenduak egitea aurreikusten delako.

Presa

Ur presan bideratutako lanetan atera egin genituen hondoan bildutako lohiak, eta egokitu egin genituen presaren ertzak, haren hegoaldean 45º-tan antolatutako ezpondak eginez. Horrenbestez, ura biltzeko garai baten izan zuen gaitasuna berreskuratu zuen presak, lan horien amaieran errotari zerbitzatzeko iraganean izan zuen altuera bera izango zuen (garbitzen hasi ginenean baino 1,5 m garaiagoa). Presa hondoko lohiak ateratzeko eta azken hamarkadetan ura biltzeko gune hau inbaditu duen landarea desagerrarazteko lur mugimenduek ez zuten ustekabeko materialik eskaini, ezta egiturazko ustekabekorik ere; besterik gabe, zeramika beiratuen zati batzuek eta metalezko paleta bat (11 x 6,5 cm eta milimetro bat lodi, burdinazko gider koadroaren abiapuntuarekin) identifikatu genituen presa kuboarekin ahokatzen den puntuan.

Berrikuntza gisa, esan dezagun hondoko ur korrontea kanalizatzeko egitura bakun bat dokumentatu dugula. Egitura hori baliatuko zuten aldiro-aldiro urmaela eta kuboa urez husten zutenean garbitzeko eta haien irazgaiztasuna berrikusteko. Hondoko kanal horrek 4ko multzotan lerrokatutako egurrezko barrera baten bidez biltzen zuen hondoko ura; egur horiek presaren hondoan ainguratuta zeuden, presaren ohean bertikalean sartutako paldoei lotuta. Barrera horrek kuborantz desbideratzen zuen ur korronte txikia urmaeleko «talweg» delakoan barrena, hutsik zegoenean, eta kuboak alboko dike handiarekin bat egiten duen puntuaren oinean irekitako hustubide bateraino bideratzen zuen. Horrenbestez, ur korronte hori egituraren kanpoko aldera husten zen antaparako arrapalatik eta bertako eroaleetatik igaro gabe. Hala egituratuta ez balego, ur fluxu etengabe horrek eragotzi egingo zituen errotako makineria hidraulikoa (gurpil hidraulikoak eta beste batzuk) konpontzeko eta/edo ordezkatzeko lanak, edo zaildu egingo zituen kuboaren harlanduzko horma ederren beheko aldeak konpontzeko eta haien irazgaiztasuna hobetzeko lanak.

Abiapuntua kuboaren egituran bertan duen presaren alboko dike handia ere konpondu genuen, eta hobetu egin genuen haren barruko aurpegiaren irazgaiztasuna. Egitura horretan dokumentatu genuen hormaren goiko aldean irekitako hustubidea, urmaeletik urrutien dagoen aldean, morfologiaz estandarra, eta bigarren mailako beste hustubide bat, hormaren erdialdean. Hustubide horrek alderik alde zeharkatzen du dikea beheko aldetik, urmaelaren alde horretako hondotik oso gertu: sekzio koadroko eroalea da –46 cm-ko aldea eta 2 m sakon (dikearen lodiera), % 2ko inklinazioarekin zoruaren mailarekiko, goiko aldea hormaren gailurretik 2,34 cm-ra duela–, segundoan gutxi gorabehera 0,25 m^3 ur husteko gaitasunarekin.

Urmaelaren hegoaldean barrena bide bat antolatu zen errotako sarrera urmaela elikatzen duen ur iturburuarekin lotzeko. Iturburu horren ondoko puntu batean oinezkoentzako pasabide bat egokitu genuen, zu-

l/s de caudal mínimo en época estival)-. El control arqueológico ha tenido un detenimiento especial en el espacio exterior de acceso al edificio molinar, objeto de una reforma en profundidad y donde también se preveían movimientos de tierra.

La represa

En líneas generales, la intervención realizada sobre la represa de agua supuso la limpieza de los lodos de su fondo y la adecuación de sus márgenes con taludes a 45ª por la parte meridional. De esta manera, se ha conseguido recuperar la anterior capacidad de almacenamiento de agua, para que al final de los trabajos pudiera adquirir el nivel normal que antaño sirvió al molino (1,5 m más alto que en su estado previo). Los movimientos de tierra para extracción de los lodos del fondo y la eliminación de la vegetación que había invadido este espacio de inundación en los últimos decenios, no ha deparado sorpresas materiales ni estructurales más allá de la recogida de algunos restos cerámicos vidriados y una paleta metálica (11 x 6,5 cm y 1 mm de grosor, con arranque de vástago cuadrangular en hierro) en la zona de embocadura al cubo.

Como novedad, se ha documentado una estructura simple de canalización de la corriente de fondo cuando se vaciaban el estanque y el cubo para proceder a sus periódicas limpiezas y revisiones de impermeabilidad. Este encauzamiento basal recogía el agua de arrastre del fondo mediante una barrera de maderos formada por 4 grupos alineados (cada uno con 2 ó 3 tablones superpuestos en vertical), anclados en el fondo de la represa y fijados a postes verticales hincados en su lecho. Esta barrera desviaba la pequeña corriente de agua que discurría en dirección al cubo por el «talweg» del estanque cuando estaba vacío, conduciéndola hasta un sumidero abierto en la base de confluencia del cubo con el gran dique lateral. De esta manera, esa corriente se evacuaba al exterior de la estructura sin precipitarse por la rampa de la antepara y los conductos de los saetines. De no ser así, este flujo continuo podía impedir los trabajos de reparación y/o sustitución de la maquinaria hidráulica molinar (rodeznos, etc.) en la sala del cárcavo, o dificultar los trabajos de reparación y mejora de la impermeabilidad de las partes bajas de las formidables paredes de sillería del cubo.

El gran dique lateral de la represa que sale de la misma estructura del cubo, también fue objeto de reparación y mejora de su impermeabilidad por su cara interna. En esta estructura se documentó el alivio abierto en la parte superior del muro en la zona más alejada del estanque, de morfología estándar, así como otro aliviadero secundario a mitad de su desarrollo. Éste atraviesa el dique por la parte inferior, muy cerca del fondo del estanque por esa parte: se trata de un conducto de sección cuadrangular -de 46 cm de lado, 2 m de profundidad (la anchura del dique), con una inclinación de suelo del 2% y cuya parte superior dista 2,34 cm del remate del muro- con una capacidad o flujo de desagüe de unos 0,25 m^3/s.

Por el lateral meridional del estanque se abrió un camino que conecta el acceso al molino con la surgencia o manantial del agua que le surte. En un punto junto a la surgencia se dispuso una pequeña pasarela

rezkoa, kanal labur hori gainditu ahal izateko. Kanal hori «Sotoko Iturriak» jolas parketik errotaraino iristen den pasealekuaren hasieran dago, eta luze gabe iturburuari eta iturburu horrek eten gabe hornitzen zituen hiru errota instalazioei buruzko azalpen panel bat instalatuko da bertan.

Bide horren oina legarrekin sendotzeko xedean bideratutako lur mugimenduetan ez genuen aztarna interesgarririk dokumentatu.

Kuboa

Behin kuboa urez hustu ondoren (60.000tik gora litro biltegiratzeko ahalmena du), hondoko lohiak atera genituen, baina lohi horietan ere ez genuen material arkeologiko/etnografiko interesgarririk identifikatu. Kuboaren barne egitura dokumentatu genuen (gorputz hexagonala, iparraldetik hegoalderako ardatza luzexeagoa dela; gorputz horren bularra errotaren eraikinetik bereizirik dago), kareharrizko harlandu handiekin eginda dago, eta irazgaiztuta ditu piezen arteko junturak. Harri horien ageriko aurpegietan ez genuen dataren bat edo eraikitzaileen izena eskain zezakeen grafiti irarririk identifikatu. Nolanahi ere den, kontsultatu dugun dokumentazio historikoaren arabera, segur aski XIX. mende hasieran (1813. urte inguruan) eraiki zuten eraikin berezi hau, hau da, errotaren instalazioa osoosorik berritu zutenean, aurreko mende amaieraz geroztik guztiz hondatuta baitzegoen (aurreko errentariak 1770. urteaz geroztik daude dokumentatuta). Kuboaren kanpoko aurpegiko estaldura angeluzuzena moldatzeko lanetan zehar elementu interesgarri batzuk identifikatu genituen, instalazioko etxeko esparruari eta laborantza lanei dagozkienak: goiko aldean beirazko kopa ia oso bat, itxuraz ez oso aspaldikoa, argia emateko burdinazko kriseilu bat eta goldea askatzeko eta lurrak luberritzeko lanetan (errotako iraganeko egoiliar batzuek ezinbesteko jarduera osagarria zuten laborantza bizirauteko) lor edo tiro abereak akuilatzeko erabiltzen zen «gavilán de guijada» motako kako baten metalezko muturra berreskuratu genituen. Estaldura horren ekialdean, behe aldean, errotaren eraikineko sarreratik hurbil, kareore zuriko zokalo zementatu batean sartuta, egituraren oinaldean identifikatutako konponketa datatzeko modua eskaintzen digun txanpon bat aurkitu genuen. Txanpon hori berariaz sartu zuten ur iragazpenek kuboaren barruko aldetik irekitako hutsuneak estaltzeko erabili zuten masan. Txanpona 5 gr pezeta da, kobrezkoa/brontzezkoa, I. Errepublikako Behin-behineko Gobernuak 1870ean Bartzelonan irarria.

Errotaren eraikineko sarrera

Errotaren eraikineko aleak ehotzeko gelaren ondoko kanpoko eremua berregokitu egin da harlangaitzez eta harlandu txikiez eraikitako eustorma batzuk altxatuta. Ondorioz, ezkaratz edo harrera gune antzeko bat sortu da errotako sarrera nagusiaren aurrean, lau mailako harrizko eskailera txiki batekin gainditzen da lur eremuko aldapa. Gune honetan lehengo jatorrizko zorua dokumentatu genuen, tamaina askotako kareharrizko errekarriez osatuta zegoen, segur aski XIX. mendean egina da: erdiko hezurrak bereiziriko harrizko bi gainazal bereizten dira. Jatorrizko harrizko zoladura hori berritu egin da obra honetan: birlez

peatonal de madera para salvar el cauce del corto canal, lugar éste en el inicio del camino de paseo desde el parque de ocio de las «Fuentes de El Soto» hasta el molino, donde próximamente se tiene previsto instalar un panel explicativo sobre la surgencia y las tres instalaciones molineras que se servían del flujo constante de agua que aportaba.

En las remociones de tierras para afianzar con gravas la base del camino no se han evidenciado restos de interés.

El cubo

Una vez vaciado de agua el cubo (con una capacidad de almacenaje superior a los 60.000 l), se procedió a la limpieza de lodos de su fondo, pero en ellos tampoco se localizaron materiales arqueo-etnográficos de interés. Se procedió a documentar la estructura interna del cubo (un cuerpo hexagonal con el eje N-S más alargado, cuyo pecho está exento del edificio molinar), realizado en paramento de grandes piezas de sillería caliza al interior, con impermeabilizado de las juntas. No se observaron en las cara-vistas restos de graffiti grabados que pudieran aportar alguna fecha o nombre de sus posibles constructores. En todo caso, lo más probable a tenor de la documentación histórica consultada, es que tal singular estructura fuese erigida a inicios del siglo XIX (hacia 1813), cuando la instalación molinera fue reformada en su integridad al encontrarse completamente arruinada desde finales del siglo anterior (los anteriores arrendatarios se documentan desde 1770). Durante las labores de acondicionamiento del forro rectangular exterior del cubo se han localizado algunos elementos de interés, atribuibles al ámbito doméstico y agrícola de la instalación: en la parte cimera se recogieron una copa de vidrio casi completa, de apariencia no muy antigua, así como un candil en hierro para iluminación en hierro y el extremo metálico de un «gavilán de guijada» para desembozar el arado y azuzar los animales de tiro en la actividad roturadora agraria, actividad complementaria para la subsistencia de alguno de los regentes pasados de la instalación molinera. Embutido en un zócalo de argamasa blanca encementada de la parte baja de este forro por la parte oriental (junto al acceso al edificio molinar), se halló una moneda que permite datar una reparación de la base de la estructura. Se trataría de la inclusión intencionada de la moneda en la masa para el taponado de huecos abiertos por filtraciones de agua desde el interior del cubo: 5 gr de peseta en cobre-bronce, emitida en Barcelona en 1870 por el Gobierno Provisional de la I República.

El acceso al edificio molinar

El espacio exterior inmediato a la sala de molturación del edificio molinar se ha reacondicionado mediante la construcción de muretes de contención de mampostería y sillarejo. Se ha creado así una especie de recibidor o espacio de llegada ante la puerta principal del molino que salva la pendiente del terreno con una pequeña escalinata de cuatro peldaños. Se ha documentado el suelo original anterior de este espacio, formado por un encachado de cantos rodados calizos de tamaños variables, probablemente realizado en el siglo XIX: distingue dos superficies empedradas adjuntas separadas por una espina central. El encachado

egindako harrizko zoladura berreskuratu da material berbera erabiliz, eta harrizko lauza txikiekin antolatutako «isuri erretenak» itxuratu dira zabalgunea urez hustea ahalbidetzeko. Halaber, hareharrizko kanaleta perimetralak jarri dira jariatze urak eta ur ihesak behar bezala drainatzeko eta eraikinaren barrualdera ez igarotzeko. Alde honetan berreskuratutako zeramikazko dozena erdi zati jatorrizko harrizko zorua prestatzeko mailaren osagaiak ziren.

Errota hau garbitzeko eta moldatzeko hurrengo kanpainan (2021), harrera gune honetan azalpenak emateko bigarren panel bat instalatzea aurreikusi dugu.

original ha sido reformulado por la obra: se ha recuperado el empedrado de bolos, reutilizando el mismo material y dibujando «limahoyas» con losetas de piedra que facilitan el desagüe de la explanada. También se han dispuesto canaletas perimetrales de piedra arenisca que sirven para drenar de manera correcta las escorrentías y fugas, evitando su tránsito al interior del edificio. La media docena de fragmentos cerámicos vidriados recogidos aquí se encontraban formando parte del nivel de preparación del encachado antiguo.

En una próxima campaña de limpieza y acondicionamiento de este molino (2021) se tiene previsto instalar en este ámbito de recibidor un segundo panel explicativo.

J.Á. Apellániz González

A.8.2.2. **Berrozi herrixka (15. BAG)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza

A.8.2.2. **Poblado de Berroci (ZPA 15)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Departamento de Seguridad. Gobierno Vasco

Archaeological monitoring of a small part of the Zone of Presumed Archaeological Interest, with no results worth reporting.

Estazio fotovoltaiko baterako erreten bat induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen gainerakoa.

Control arqueológico de la excavación de una zanja para una estación fotovoltaica siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la Zona de Presunción Arqueológica.

F. J. Ajamil Baños

A.9. **CAMPEZO / KANPEZU**

A.9.1. ANTOÑANAKO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE ANTOÑANA

A.9.1.1. **Hiriko kartzela eta harresia**

Zuzendaritza: Raúl Leorza
Finantzazioa: Antoñanako Administrazio Batzordea

A.9.1.1. **Cárcel y muralla de la villa**

Dirección: Raúl Leorza
Financiación: Junta Administrativa de Antoñana

Archaeological monitoring of the renovation of Antoñana Prison.

Esku hartzea

Antoñanako hirigune historikoaren baitan hiribilduko harresiari atxikita zegoen etxe zahar bat (guztiz hondatuta) eraisteko lanen gaineko kontrola bideratu genuen, baita etxe berria eraikitzeko lanen gaineko kontrola ere, betiere Arabako Foru Aldundiak ezarri-

Intervención

Se ha procedido al control del derribo del edificio antiguo (en ruina), dentro del casco histórico de Antoñana y pegado a la muralla de la villa, así como al control del nuevo, según prescripciones de Diputación Foral de Álava. No se han llevado a cabo remo-

tako aginduei jarraiki. Ez dira lur mugimenduak egin, eta bereziki zaindu dira harresiko euskarriak.

Konklusioak

Besterik gabe etxe zaharra eraitsi eta berria eraiki baizik egin ez denez, ez da aurkikuntzarik egin, eta ez zaio kalterik egin harresiari.

ciones de terreno, sino un especial cuidado por los apoyos en la muralla.

Conclusiones

Dado que solamente se ha procedido al derribo del edificio antiguo y la construcción del nuevo, no ha habido hallazgo alguno ni afecciones a la muralla.

R. Leorza

A.9.2. SANTIKURUTZE KANPEZUKO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE SANTA CRUZ DE CAMPEZO

A.9.2.1. **Andre Mariaren Jasokundearen eliza. Gas hargunea**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Andre Mariaren Jasokundearen parrokia

A.9.2.1. **Iglesia de la Asunción de Nuestra Señora. Acometida de gas**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Parroquia de la Asunción de Nuestra Señora

Archaeological monitoring of the excavation of a trench in Del Castillo Street, behind the Asunción de Nuestra Señora parish church. During the work, the church's foundation trench was found, along with the earth fillings generated around it by its foundations.

Andre Mariaren Jasokundearen elizarako gas hartunea jartzeko lanak tarteko, Santikurutze Kanpezuko Hirigune Historikoan, kontrol arkeologiko bat bideratu dugu. Lan horiek tenpluaren hegoaldean luzatzen den Gaztelua kalean eraman dira burura, 3 m luze, 60 cm zabal eta 70 cm sakon den erreten bat induskatu dute Karmengo Amaren kaperaren kanpoko hormaren ondoan, dagoeneko badagoen GLP kanalizazio sarearekin bat egin arte. Lan horien inguru hurbilean lehendik ere esku hartze arkeologiko batzuk egin dira, batzuk garrantzitsuak, bestetzuk ez hain garrantzitsuak, baina aipatzekoak dira 2000. urtean Gaztelua kalean azpiegitura eta zoladura berriak instalatzeko lanen harira egin zirenak. Kontrol arkeologiko horietan, elizaren absidearen parean, Erdi Aroko ehorzketa baten aztarnak azaldu ziren hobi bakun batean, oso nahasita zegoen iragan mendearen erdialdean alde hau zolatzeko xedean egindako lanen ondorioz.

Erretena induskatzeko lanei dagokienez, egungo zoladuraren azpian pakete bakarra bereizi genuen: lur ehunduraz buztintsua, trinkotasun txikikoa, kolorez gorrixka tonu marroiekin. Klastoak eta forma irregularreko harri batzuk zeuzkan, tamainaz zentimetrokoak, eta teila zati batzuk. Sakondu ahala harri handiagoak eta errekarriak azaltzen ziren, baina berdinak ziren lurrezko paketearen ezaugarriak: argi eta garbi kanpotik ekarritako geruza da, hori bai, leku honetatik gertu dagoen batetik ekarritako materialez osatutako geruza. Erretenaren profilak elizaren hormekin bat egiten zuen puntuan, argi eta garbi ikus zitekeen elizaren zimentazioa, kareharrizko harlangaitzezko egitura, erretenaren sakoneratik harago sakontzen dena.

La realización de obras de acometida de gas para la Parroquia de la Asunción de Nuestra Señora, dentro del Casco Histórico de Santa Cruz de Campezo, ha hecho necesario un control arqueológico. Las obras se han llevado a cabo en la calle Del Castillo, que discurre al sur del templo y han consistido en la excavación de una zanja de 3 m de longitud por 60 cm de anchura y 70 cm de profundidad junto a la pared exterior de la capilla de la Virgen del Carmen hasta enlazar con la red de GLP canalizante ya existente. En el entorno inmediato a la zona de obras ya se habían realizado con anterioridad diferentes intervenciones arqueológicas de diversa entidad, pero merece la pena destacar las realizadas para la instalación de nuevas infraestructuras y pavimentación de la calle del Castillo, en el año 2000. Durante su desarrollo, a la altura del ábside de la iglesia, se localizaron restos de un enterramiento medieval en fosa simple, muy alterado ya por las obras de pavimentación llevadas a cabo a mediados del siglo pasado.

En lo que a la excavación de la zanja se refiere, bajo el pavimento actual aparecía un único paquete de tierra de textura arcillosa y baja compactación, de coloración rojiza con tonalidades marrones. Contenía clastos y algunas piedras de formas irregulares y tamaño decimétrico, así como algunos fragmentos de teja. A medida que se profundizaba comenzaron a aparecer piedras de mayor tamaño y cantos, aunque las características del paquete de tierra seguían siendo las mismas, tratándose claramente de un nivel de aporte, aunque procedente del entorno inmediato a este lugar. Allí donde el perfil de la zanja coincidía con los muros de la iglesia se podía observar la cimentación de ésta, consistente en una estructura de mampostería a base de piedras calizas cuya profundidad se perdía más allá de la propia zanja.

Aztarna arkeologiko interesgarrien aurkikuntzari dagokionez, obren gaineko kontrolaren emaitzak negatiboak izan badira ere, kontrol lanak aukera eman du elizaren zimentazio erretena bertatik bertara egiaztatzeko kolore gorriko lur buztintsuko betegarriaren azpian. Segur aski lur horixe bera egongo zen eliza eraiki zutenean, eta haren inguruan zabalduko zuten. Hortaz, Micaela Portilla ikertzaileak Andre Mariaren Jasokundearen parrokiari buruz argitaratutakoa kontuan izanik, lur mugimendu horiek XVI. mende hasieran egin zituztela esan behar dugu.

Aunque podemos decir que los resultados del control de las obras, han resultado negativos en cuanto al hallazgo de restos arqueológicos de interés, éste ha servido para localizar la zanja de cimentación de la iglesia bajo un relleno de tierra arcillosa de color rojizo, seguramente la misma tierra existente en el momento de la construcción de la iglesia y que fue extendida a su alrededor. Podríamos datar por tanto estos movimientos de tierra a comienzos del siglo XVI si nos atenemos a lo publicado por la investigadora Micaela Portilla en referencia a la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción.

F.J. Ajamil Baños

A.10. ELBURGO / BURGELU

A.10.1. Santa Luzia eta San Adrian baseliza, Añuan

Zuzendaritza: A. Martínez Montecelo
Finantzazioa: Santa Luzia eta San Adrian baselizako kofradia; Añua, Egileta, Ixona eta Trokoizko Administrazio Batzordeak. Arabako Foru Aldundia

A.10.1. Ermita de Santa Lucía y San Adrian, en Añúa

Dirección: A. Martínez Montecelo
Financiación: Cofradía de la Ermita de Santa Lucía y San Adrián; Juntas Administrativas de Añua, Egileta, Ixona y Trokoniz; Diputación Foral de Álava

The repair of the entrance porch to the Santa Lucía y San Adrián Chapel prompted the archaeological monitoring of the works, resulting in the identification of filler material containing medieval pottery fragments. These materials confirm the presence of activity on the hill prior to the construction of the chapel.

Sarrera eta aurrekariak

2020ko urrian eta azaroan, Administrazio Batzordeak sustatuta, Añuako Santa Luzia eta San Adrian baselizan egindako obren gaineko kontrol arkeologikoa eraman genuen burura. Baseliza hori Arabako Lautadaren erdigunean dago, inguruko lurretatik gutxi gorabehera 50 metroan goratzen den muino txiki batean, hariztiek eta erkameztiek hartutako eremuan –begien bistakoa da baso horiek historian zehar erabili direla–, Natura 2000 Sarean bildutako Arabako Lautadako hariztien uhartedian.

Baselizaren babes mailari dagokionez, Euskadiko Kultura Ondarearen Zentroaren Inbentarioan dago jasota Burguko 5. zenbakiarekin, eta Burguko 2. Balizko Arkeologia Gune gisa dago izendatuta, eraikinaren barruko aldea babesturik dagoela. Beraz, azterketa arkeologikoa eskatzen dute alde horretako zorupean bideratzen diren lan guztiek.

Ikuspegi historikotik, aldez aurretik elementua ongi behatu eta eskuragarri dagoen informazioa aztertu ondoren, argi eta garbi ikus dezakegu oinplano angeluzuzeneko eraikina dela baseliza, ardatz nagusiaren norabidea ekialde/ipar-ekialdetik mendebalde/hegomendebaldera, 18,5 x 6,0 metroko habearte bakarrarekin. Bi isuriko teilatua du, zurezko forjatuaren gainean atseden hartzen duen teilazko estalkiarekin.

Introducción y antecedentes

Entre octubre y noviembre de 2020 se llevó a cabo el control arqueológico de las obras de rehabilitación realizadas en la ermita de Santa Lucía y San Adrián de Añua, promovidas por la Junta Administrativa. Dicha ermita está emplazada en el centro de la Llanada Alavesa en un pequeño cerro que destaca sobre el terreno circundante unos 50 metros, el cual se encuentra asimismo tapizado por un bosque de robles y quejigos –con evidentes muestras de uso histórico– que forma parte del archipiélago de robledales isla de la Llanada Alavesa, recogidos en la Red Natura 2000.

En cuanto a su protección, la ermita está recogida en el Inventario del Centro de Patrimonio Cultural del País Vasco con el nº 5 de Elburgo y declarada Zona de Presunción Arqueológica nº 2 de Elburgo, con un área de protección al interior del edificio, por lo que toda obra en el subsuelo dentro de este espacio requiere estudio arqueológico.

Desde un punto de vista histórico, tras realizar la observación previa del elemento y el vaciado de la información disponible, vemos que la ermita es un edificio de planta rectangular orientado según el eje ENE-OSO, con una única nave de 18,5 x 6,0 metros. El tejado se presenta a dos aguas, con una cubrición de tejas que descansa sobre un forjado de madera. En el extremo oriental sobresale una pequeña espadaña

Ekialdeko muturrean bao bakarreko kanpandorre txiki bat nabarmentzen da, era berean bi isuriko teilatuarekin, baina badira urte batzuk bertako kanpaia desagertu zela. Egituraren zatirik handiena kareharrizko harlangaitzez egina da, hormak partzialki zarpiatuta daude, eta hori eragozpen handia da hormen sekuentzia estratigrafikoa iradokitzeko. Hegoaldeko horman du sarrera, dobeladun arku apur bat zorrotzeko atea da. Hiru leiho bereizten dira: mendebaldeko horman bata eta hegoaldeko eta ekialdeko hormetan beste biak, bikiak. Gainera, aldare aldean, hegoaldera, horma hobi txiki bat bereizi genuen.

Barruko habeartea hiru tartetan banatzen da bere luzeran. Lehenengoak, mendebaldeen dagoenak, 3,7 x 5,0 metroko oinplanoa du, eta maila baten bidez dago goratuta. Erdiko tarteak osatzen du habeartea bera. 9,60 x 5,0 metroko oinplanoa du, eta aldareak 5,0 x 3,50 metrokoa, alde hori ere goratuta dagoela. Ekialdean bost pilastra bereizten dira, eta esan digutenez, adreiluz berreraiki behar izan zuten XX. mendearen erdialdeko urteetan.

Adreilu trinkoez egina da zoruaren zatirik handiena, muturretan berrituta badago ere, baina ez erdialdea, sarrera ondoan gorabehera eta irregulartasun batzuk hautematen baitira aspaldiko *opus spicatum*-eko estekaduran, alde horretan ehorzketa batzuk daudela iradokiz.

Aldare aldean ere aldaketa batzuk gertatu dira denboraren joanean. Aldaketa nagusiak erretaula zaharra kentzea –apaiza arropaz aldatzeko bionboarena egiten zuen– eta kareharrizko lauza handi bat jartzea –aldarearena egiteko– izan dira. Esan digutenez, Añuako iturri zaharretik ekarria da lauza hori. Monumentuen Katalogoan arte higigarrian sailkatutako elementu batzuk aipatzen dira: «Erdi Aroko tailua. Gerritik moztua, aurpegi luzeko santu bat irudikatzen du, eskuan liburu eta laban bana duela. Oso hondatuta dago, gehitutako ore askorekin, kontserbazio egoera penagarrian. Santa Luzia. XVII. mende amaierako edo XVIII. mendeko tailua, hau ere hainbat aldiz margotua izan dela. Gurutzea. Halako interesa du. XVI. mendekoa edo XVII. mende hasierakoa. San Isidro. Irudi Modernoa». Gaur egun, badaezpada, Añuako parrokian daude zainduta elementu horietako gehienak.

Baselizaren hegoaldeari atxikita 7,0 x 4,7 metroko portxe bat dago harlangaitzez eta adreilu hutsez egin-da. Ekialdean du sarrera eta bi bao hegoaldean. Guztia dago oso kontserbazio egoera txarrean, eta hain zuzen ere egitura hori izan da esku hartze arkitektonikoaren eta arkeologikoaren xede.

Bildutako informazio historikoari dagokionez, Martin Gil Lizentziatuak 1556an egindako bisitaldian San Adriani emandako baseliza bat aipatzen du, kofradia batekin eta errentarik gabe. La Laureako komunitatea zela eta Egileta, Ixona eta Trokoniz herriekin ere estu lotuta bazegoen ere, bisitaldi horretan soilik Añuarekin lotzen du Gilek. Beste horrenbeste gertatzen da *Diccionario de la Real Academia de la Historia* obran, Santa Luziari emandako baseliza bat aipatzen baitu soilik Añuako herriari lotua. Mende bete geroago, Cristobal de Castroren Katalogoaren arabera, tenplu egiazki xumea izan arren, Añuako elementu aipagarriena da Santa Luzia baseliza, bertan biltzen baitziren eskualde osoko erromesak.

con un único vano y también rematada a dos aguas, cuyo campanil desapareció hace unos años. La mayor parte de la obra está construida con mampostería caliza, aunque parcialmente enfoscada, lo cual impide en gran medida aventurar una secuencia estratigráfica de sus paramentos. La entrada se realiza desde el muro sur, a través de una pequeña puerta con una arco adovelado levemente apuntado. Se localizan otras tres ventanas: una en el paño occidental y otras dos –geminadas– en los paños meridional y oriental. En el sector del altar encontramos además una pequeña hornacina hacia el sur.

La nave del interior se reparte longitudinalmente en tres tramos. El primero, el más occidental, tiene una planta de 3,7 x 5,0 m y se encuentra sobreelevado con un escalón. El central se corresponde con la nave propiamente dicha. Presenta una planta de 9,60 x 5,0 m y el altar, también sobreelevado, con una planta de 5,0 x 3,50 m. En el paño oriental se aprecian cinco pilastras y, según nos comentan, debió ser reconstruido con ladrillo en los años centrales del siglo XX.

La mayor parte del suelo del interior es de ladrillo macizo, reformado en los extremos, pero no así en el centro, donde se aprecian junto a la entrada varias ondulaciones e irregularidades en el viejo aparejo de *opus spicatum* que sugieren la presencia de algunos enterramientos en este sector.

El tramo del altar ha sufrido también algunas transformaciones. La principal ha sido la retirada del viejo retablo, que servía de vestuario-biombo al cura, y la colocación de una gran losa caliza a modo de altar. Según nos comentan, esta pieza fue traslada desde la fuente vieja de Añua. En el Catálogo Monumental se mencionan algunos elementos de arte mueble: «Talla medieval. Cortada desde la cintura, representa a un santo de rostro alargado con libro y cuchillo en su mano. Muy deteriorada y emplastecida, y que en la actualidad se conserva en muy mal estado. Santa Lucía. Talla del siglo XVII en sus finales o ya del siglo XVIII, recubierta también por repintes. Crucifijo. De algún interés. Fines del siglo XVI o comienzos del XVII. San Isidro. Imagen Moderna» Hoy en día, por precaución, la mayoría de estos elementos se encuentran custodiados en la parroquia de Añua.

Adosado al sur de la ermita hay un porche añadido de 7,0 x 4,7 metros, construido con mampostería y ladrillo hueco. Presenta un acceso desde el este y dos vamos hacia el sur, todo ello en muy mal estado de conservación, que ha sido precisamente el objeto de la intervención arquitectónica y arqueológica.

En cuanto a la información histórica recabada vemos que el Licenciado Martín Gil en su visita de 1556 menciona una ermita dedicada a San Adrián con una cofradía y sin renta. A pesar de su relación con Egileta, Ixona y Trokoniz por motivo de la comunidad de La Laurea, en la visita solo aparece adscrita a Añua. Otro tanto ocurre en el *Diccionario de la Real Academia de la Historia*, que menciona una ermita dedicada a Santa Lucía únicamente vinculada a Añua Más de un siglo después, según el Catálogo de Cristóbal de Castro, a pesar de su lacónica sencillez, la ermita de Santa Lucía es el elemento más destacado de Añua, debido a sus famosas peregrinaciones frecuentadas por romeros de toda la comarca

Gerardo López de Guereñuk baseliza «handi samarra eta oso txukuna» deskribatzen digu, Santa Luziari emana dela, baina lehendik San Adrian izena zuela, eta bertan biltzen zela Añua, Egileta, Ixona eta Trokonizko herriek osatzen zuten La Laureako komunitatea Laurikobasoa mendiko egurra kudeatzeko, zaintzeko eta banatzeko.

Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria katalogoak, bere aldetik, landa eremuko tenplu txiki bat erakusten du, interes arkitektonikorik gabea, baina halako garrantzi historikoa ematen dio inguruko herriekin duen loturagatik.

Dokumentu idatziei dagokienez, La Laureako Komunitatearen bi kontu liburu daude, 1780tik gaur artekoak jasotzen dituztenak. Bazen lehendik beste kontu liburu bat, baina, tamalez, galdua da. Bi liburu horien lehen irakurketan ikusten dugu baselizan egiten zituztela bilkura guztiak. Diru sarrerak egurraren salmentatik eta, neurri apalagoan, baso aprobetxamenduaren arloan jarritako isunetatik etorriak dira. La Laureako Mendiak Komunitatearen Erabakiak eta Kontuak Liburutik (1780-1930, signaturarik gabea) datu interesgarri batzuk atera ditzakegu:

- 1780/07/16: komunitatea osatzen duten herrietako 4 agintari nagusiak bildu dira. Agintari bakoitza, txandaka, San Gregoriora (Sorlada) joango da ur bila, eta 16 gurutze banatuko ditu 4 lekuetan (soroak bedeinkatzeko), eta Lizarra ondoko Arbeitzara (Arbeitzako Ama Birjina) joango dira. Mezak egingo dira San Adrian eta Santa Luzia baselizan. La Laurea zainduko da (partekatutako mendiak zainduko dira balizko suteen edo legez kanpoko zuhaitz mozketen aurrean). Urte beteko kontratua 14 lakari gariren truke. s/f.
- 1791/06/16: arazoak, bat ez etortzeak edo kudeatzeko gaitasun eza tarteko, mendi partekatua 4 zatitan banatzeko erabakia hartu dute San Adrian baselizan bildutako auzo guztiek, herri bakoitza arduratuko da bere zatiaz, s/f.
- 1795eko kontuetan 3 errealeko gastu txiki bat dago jasota ermitauari ordaintzeko (baselizan bizi daiteke ermitaua, eta zaindu dezake, baina ez da ezer zehazten liburu horretan). 35. fol. Hurrengo urteetan ere hortxe jarraituko zuen, gutxienez 1815era arte, baina badirudi hortik aurrera desagertu egiten dela irudi hori.
- 1840/07/16: aurrerantzean 4 herrietako zendu bakoitzaren arimaren aldeko meza bana egiteko erabakia hartzen da (dena delako herrian, eta ez, antza denez, baselizan). Meza horrek 4 errealeko kostua izango zuen, eta La Laureako komunitateak ordainduko zuen, s/f. Bizilagun guztiak, anaikide izan ala ez (izan ere, testuetan bereizi egiten dira, nahiz eta horien arimen aldeko meza egin egiten zuten).
- 1851/09/28: ibilaldia Komunitateko mugarrietan barrena, aurkintzak bereizten ez direlarik, s/f.
- 1870-1880 urte bitartean San Adrian Santa Luzia bihurtzen hasten da, edo Santa Luzia aipatzen da lehenik. 1881ean sortu zen Arantzazurako erromesaldia, baina oraindik ez ziren La Laureatik joango.
- 1889/06/10: ekainaren 30ean, urtero, sermoia emateko erabakia hartu zuten, eta La Laurea komunitateak 30 erreal jarriko zituen urtero.

Gerardo López de Guereñu nos describe una ermita «de bastante capacidad, y muy bien arreglada» dedicada a Santa Lucía pero que antes se nombraba como de San Adrián, en cuyo recinto se reúne la comunidad de La Laurea, compuesta por los pueblos de Añua, Egileta, Ixona y Trokoniz para la gestión, cuidado y reparto de la leña del monte de Laurikobasoa.

El *Catálogo Monumental de la Diócesis de Vitoria*, por su parte, muestra un pequeño templo rural sin interés arquitectónico pero al que otorga cierta importancia histórica por su relación con las poblaciones limítrofes.

En cuanto a la información documental, existen dos libros de cuentas de la Comunidad de la Laurea, que abarcan desde 1780 a la actualidad. Había otro anterior pero, lamentablemente, ha desaparecido. En una lectura preliminar de los mismos vemos que todas las reuniones se realizan en la ermita. Los ingresos provienen de la venta de leña y, en menor medida, de multas impuestas en el aprovechamiento forestal. Según el Libro de Acuerdos y Cuentas de la Comunidad de Montes La Laurea, 1780-1930 (sin signatura), podemos extractar algunos datos de interés:

- 16/07/1780: se reúnen los 4 regidores de los pueblos conformantes. Cada regidor, alternando, irá a por el agua de San Gregorio (Sorlada) y repartirá 16 cruces entre los 4 lugares (bendición de campos), también irán a Arbeiza (Ntra. Sra. de Arbeiza), junto a Estella. Se celebran misas de San Adrián y Santa Lucía. Se remata la guarda de la Lauria (vigilancia de los montes comunes antes posibles incendios o talas ilegales), un año de contrato por 14 celemines de trigo. s/f.
- 16/06/1791: ante problemas, desavenencias e incapacidad de gestión, todos los vecinos reunidos en la ermita de San Adrián deciden que el monte común se divida en 4 partes, de la que se encargará cada pueblo, s/f.
- En las cuentas de 1795 aparece un pequeño gasto de 3 reales para pagar al ermitaño (figura que puede habitar y guardar la ermita, aunque no aparece nada especificado). Fol. 35. Se mantiene en los años siguientes, al menos hasta 1815, luego parece que desaparece.
- 16/07/1840: se decreta que en adelante se celebrará una misa por cada difunto de los 4 pueblos (en cada pueblo que sea, no en la ermita al parecer) de 4 reales de valor, que serán cargados a la Laurea, s/f. Todos los vecinos/as, sean o no cofrades (de hecho, se diferencia en los textos, aunque se les hace misa igual).
- 28/09/1851: recorrido de la mojonera de la Comunidad, aunque no se advierten parajes, s/f.
- Es entre los años 1870-1880 cuando San Adrián se va transformando más en Santa Lucía, o apareciendo ya primero Santa Lucía. En 1881 es cuando se instituye la peregrinación a Aránzazu, pero de momento no van desde la Laurea.
- 10/06/1889: se establece que haya sermón cada 30 de junio, y la Laurea contribuye con 30 reales anuales.

1. fasean aurkitutako zeramikak.

Cerámicas detectadas en la Fase 1.

– 1896/04/05: Komunitateko auzoen artean Santa Luziaren eta Arantzazuko Andre Mariaren errogatibei dagokienez izan diren aldeak direla eta, aurrerantzean San Adrian baselizan egingo dira batzarrak eta errogatibak, joaten ez den herriak 30 errealeko isuna ordainduko du, eta bizilagun eta egoiliar guztiak joango dira (anaikideak ez izan arren), gaixorik edo kanpoan ez badaude, erreal bateko isuna ordaindu nahi ez badute. Beste horrenbeste Arantzazuko errogatibari begira, herri bat joaten ez bada, 30 errealeko isuna.

La Laurea Mendiak Komunitateko Kontu Liburuak (1931-2014, signaturarik gabea), aurreko liburukian jasotakoaren ildotik jarraitzen du gastu motari dagokionez. Joan-etorriak San Gregoriora ur bila, Arbeitzako Ama Birjinaren tenplura gurutze bila (soroak bedeinkatzeko), mezak eta limosnak, bereziki San Adrian eta Santa Luzia baselizan eta Arantzazun, parte hartzen zuten herrietako zenduen arimen aldeko mezak, gastuak jan-edatekoetan, etab. Gastuak 4 herrien artean ordaintzen zituzten, diru sarrerarik ia ez zegoenez (dohaintzak, limosnak eta isunak ez joateagatik; ez dago egur salmentarik) herriek berek jarri behar baitzuten dirua. XX. mendeko 80. urteetan gastuak erregularizatu egin zituzten Estibalizi egin beharreko dohaina tarteko.

– 1992-1993: Ordainketa bat dago jasota baselizan egindako konponketak direla eta (72. fol).
– 1998-1999: Obrak teilatuko estalkian, Arabako Foru Aldundiak diruz lagunduak (79. fol.).
– 2010: Konponketak teilatuan (90. fol.).
– 2011: Baselizako atea (91. fol.).

– 05/04/1896: por diferencias habidas entre los vecinos de los pueblos conformantes respecto a las rogativas de Santa Lucía y Nuestra Señora de Aránzazu, en adelante las juntas y rogativas se celebrarán en la ermita de San Adrián y cada pueblo que no acudiera pagaría 30 r. de pena y que han de acudir todos los vecinos y morador (aunque no sean cofrades) a menos que estén enfermos o se hallen fuera, so pena de un real. Lo mismo para la rogativa a Aránzazu, si un pueblo no acude 30 r. de pena.

El Libro de Cuentas de la Comunidad de Montes La Laurea, 1931-2014 (sin signatura), continúa la tónica del tomo anterior en lo que respecta al tipo de gastos. Viajes a San Gregorio a por agua, a Nuestra Señora de Albeiza a por cruces (de bendición de campos), misas y limosnas, especialmente en San Adrián y Santa Lucía, también a Aránzazu, misas por difuntos/as de los pueblos participantes, gastos en vino y viandas, etc. Los gastos se sufragan repartiendo lo gastado entre los 4 pueblos, que ponen el dinero, porque no hay prácticamente ingresos (donativos, limosnas y multas por falta de asistencia; no hay ventas arbolado). En los 80 del siglo XX se regularizan gastos por donativos a Estíbaliz.

– 1992-1993: Se registra el pago por reparaciones en la ermita (fol. 72).
– 1998-1999: Obras en la cubierta del tejado subvencionadas por la Diputación Foral de Álava (fol. 79).
– 2010: Reparaciones tejado (fol. 90).
– 2011: Puerta ermita (fol. 91).

– Azkenik, liburu horretan datarik gabeko eranskin bat dago, baselizan egin beharreko obra batzuen aurrekontua da (XX. mendekoa). Aurrekontu hori Erentxuneko igeltsero maisuak eta harginak sinatua da (gero ez da identifikatzen), 1.448,75 pezetatan zehaztuta dago. Ez da urtea adierazten, eta obra zehatza zertan den ere ez. Aipatzen ditu orubea, 140 m²-ko teilatua, 45 m² eraiki behar direla paretetan, teilatuan 110 m² berregin behar direla, 64 m²-tan sabai izuna egin behar dela eta zarpiatu behar dela. Erretaula desegin behar dela zehazten da, eta gero berregin, eta ordezkatu beharreko egitura batetik etorritako zaborrak atera behar direla (baliteke iparraldeko hormaren adreiluzko berreraikuntzatik etorritako zaborraz aritzea).

Helburuak eta estrategia

Baselizan sartzeko portxearen ekialdeko, hegoaldeko eta mendebaldeko hormak eta baseliza barruko zorua zaharberritzea izan du xede esku hartzeak, ez da eraikinaren gorputz nagusia ukitu. Zaharberritzeko proiektuarekin bat etorrita, honako eginkizun hauek izan ditu kontrol arkeologikoak:

– gertutik zaintzea hormen zimenduak saneatzeko eta indartzeko lanak, eta arreta berezia jartzea zorupean eragin zitekeen uneetan.
– aldian behingo bisitaldien bidez, hormetan ezinbestean egin beharreko obrak gainbegiratzea, lan horiek aurreko egoerarekin bateragarriak diren material eta teknika tradizionalekin egiten direla zaintzea.
– portxe barruko egungo zorua altxatzeko eta zoru berria egiteko lanen gaineko kontrol lanak bideratzea.
– Azkenik, 2 x 2 metroko zundaketa txiki bat egin dugu hego-mendebaldeko izkinan elementuaren estratigrafia hobe ezagutze aldera.

Emaitzak

Estratigrafiaren ikuspegitik, 3 fase bereizi ditugu:

1. fasea. Aurrez zeudenak

Zuzenean kolore marroi/grisaxkako geruza buztintsuaren gainean –geruza naturala–, betegarri kolorez marroi horixka azaltzen da, ez da batere trinkoa, tuparrizko harri batzuk, ikatz zati ugari eta zeramika arrunta motako zatiak ditu. Lurra berdintzeko maila dela ematen du. Geruza hori portxearen hego-mendebaldeko izkinan egindako zundaketaren hondoaren eta portxearen hegoaldeko horma desegin osteko erretenaren hondoan identifikatzen da.

Zeramika arrunta motakoak dira berreskuratutako hogeita hamarren bat zatiki, ore gorrixkak eta grisaxkak dituzte, mikazko pikor, txamota eta burdin oxido askorekin. Nagusiki su edo errekuntza oxidatzailean landuak dira, baina badira errekuntza mistoaren arabera landutako pieza gutxi batzuk. Pieza horiek VIII. mendetik aurrera badiren baina XIII.-XIV. mendeetan bereziki ugari diren V. eta VI. Taldeetako Erdi Aroko zeramikaren ezaugarriekin bat egiten dute.

Zeramika horien kronologiari dagokionez, hainbat alderdi eduki behar dira kontuan. Alde batetik, soilik

– Finalmente, en este libro aparece un anexo sin fecha relativo a un presupuesto de obras en la ermita (siglo XX). El presupuesto es del maestro albañil y mampostero de Erentxun que suscribe (luego no se identifica), con un valor de 1.448,75 ptas. No se identifica ni el año ni el tipo específico de obra. Se habla de solar 140 m² de tejado, hacer 45 m² de pared, armar 110 m² de tejado y echar cielo raso (falso techo) en 64 m² y revocar. Se especifica que hay que retirar el retablo y volverlo a armar, además de retirar los escombros (de algo que se sustituye), que podría tratarse de la reconstrucción con ladrillo de la pared norte.

Objetivos y estrategia

La restauración se ha ocupado de la rehabilitación de los muros este, sur y oeste del cierre del porche de acceso a la ermita y de su suelo interior, sin afectar al cuerpo principal del edificio religioso. En sintonía con el proyecto de rehabilitación, el control arqueológico se ha centrado en:

Jada 2019an dokumentatua, kanpaina honetan irekitako 20 m^2-ak ere hartzen ditu. Harri metaketa lodia da, 20 eta 40 cm bitarteko geruza osatzen duena, nabarmen meheagoa iparraldean aipatutako zuhaitzek eraginda, luiziak eragin baitituzte monumentuaren hegalean azpiko geruza agerian utzi arte. Geruza induskatzen hasi eta aurreneko mailetan historiaurreko kronologiako zeramika zatiak aurkitu genituen, hamarnaka, baina pixkanaka desagertu egiten ziren sakondu ahala edo indusketa ekialderantz zabaldu ahala. Tamaina eta forma askotakoak ziren unitate estratigrafiko hori osatzen zuten harriak, horiexek ziren unitate honetan elementu nagusiak. Gehiago ziren harri txikiak, angelutsuak eta irregularrak, eta gutxiago beste harri handiagoak, lauak, joera angeluzuzenekoak, gehienak puskatuta; modulu ohikoena 40-44 cm luze, 22-24 cm zabal eta 11-14 cm lodi zen. Urria zen lurrezko matrizea, hareatsua, marroia, trinkotasun txikiarekin. Tarteka hareharri txiki batzuk identifikatu genituen, Martinez Torres Doktoreak adierazitakoaren arabera segur aski Baia ibai ibilgutik ekarriak direla. Kanpaina honetan bildutako datuak kontuan izanik, eutsi egiten diogu aurreko kanpainan planteatutako

Posteriormente el dolmen fue objeto de nuevas actuaciones, que afectaron fundamentalmente a la cámara funeraria, dado que su acceso era sencillo por carecer de tapa. Éste sería el motivo por el cual José Miguel Barandiarán y Juan María Apellániz plantearon y llevaron a cabo una excavación sobre el este de la cámara, en busca del corredor.

A continuación exponemos los caracteres de las unidades estratigráficas significativas en orden de excavación y/o localización sumando datos de las campañas 2019 y 2020:

001

Ya identificada en 2019. Fino nivel superficial y actual cobertura vegetal: tierra orgánica gris oscura de baja compactación y textura arenosa pero granulosa. No sobrepasaba los 10 cm de espesor y contenía gran cantidad de piedras calizas de pequeño tamaño y formas angulosas desprendidas del nivel al que cubría (U.E. 003). Hacia el norte del sondeo la superficie del túmulo presentaba un fuerte desnivel provocado por el crecimiento de árboles de porte mediano, sin descartar que acciones humanas hayan acentuado su deterioro. En el lado sureste se localizó una pequeña depresión de planta tendente a circular, de 1,10 cm de diámetro y no más de 20 cm de profundidad que asociamos a un posible expolio (U.E. 021). A la unidad le pertenecen un par de fragmentos cerámicos de cronología histórica, varias esquirlas de hueso y piezas dentales, así como algunos objetos de época reciente. Complementa, en el mismo sentido, a lo hallado en 2019. Se apoya en la U.E. 003 a la vez que rellena a la U.E. 021.

021

Pequeña depresión de perímetro circular de 1,10 cm de diámetro y menos de 20 cm de profundidad. Se localizó en el lado sureste del sondeo, afectando esta unidad negativa, muy parcialmente, a la U.E. 001.

003

Documentada ya en 2019, abarcando también a los 20 m^2 abiertos esta campaña. Potente acumulación de piedras de entre 20 y 40 cm de potencia, sensiblemente menor en el lado norte afectado por los mencionados árboles que han generado desprendimientos en ladera dejando asomar al estrato inferior. En su excavación recogimos, en las primeras tallas, varias decenas de fragmentos cerámicos de cronología prehistórica que, progresivamente, desaparecían tanto al profundizar como al extender su excavación hacia el este. Las piedras que componían esta unidad estratigráfica eran de tamaños y formas variables, siendo los elementos sustanciales de la unidad. Predominaban las de pequeño tamaño, angulosas e irregulares, combinadas con otras mayores, planas y tendentes a rectangulares, en su mayor parte partidas: el módulo más habitual era de entre 40-44 cm de largo, 22-24 cm de ancho y 11-13 cm de grosor. La matriz terrosa era escasa, arenosa, marrón y poco compactada. Esporádicamente se identificaron algunas areniscas de pequeño tamaño probablemente originarias del cauce del Baias según nos indica el Dr. Martínez Torres. La interpretación de la unidad como terrera de excavaciones antiguas que in-

Zundaketaren azken irudia 2020ko kanpaina amaitzean.

Imagen final del sondeo al finalizar la campaña de 2020.

interpretazioari: aspaldiko indusketetatik etorritako lur metaketa batek osatzen du unitate hau, eta esku hartze haietan jaso ez zituzten zeramika zati eta hezur ezpal asko zeuzkan (beraz, testuingurutik kanpo zeuden guk jaso genituenean). Halakoxea izan zen 2019an induskatutako aldea eta halakoa da aurten bideratutako lanetan mendebaldeen sektorean bereizitako unitatea, hots, aztarna arkeologikoak berreskuratu ziren geruzaren gainazala, unitatea lodien den aldean. Gainerakoa tumuluaren jatorrizko egitura izan daiteke, hondatu samar badago ere. 022. UEn hartzen du atseden multzo honek.

022

Kareharri kopuru handiak ezaugarritzen eta osatzen du unitate estratigrafiko hau. Gehienez ere metro bete lodi da, lodiera hori neurtu da zundaketaren hegoaldean, eta unitate honen eta 003. unitatearen arteko trantsizioa ez da argi eta garbi bereizten. Harrizko piezak horizontalean egoteko posizioan agertzen ziren, eta unitate hau estaltzen duen unitate estratigrafikoko harriekin alderatuz gero, batez beste handiagoak eta erregularragoak direla esan behar dugu: hemen nagusi dira harri lauak, formatuz poligonalak, ia angeluzuzenak edo karratuak, ertz biribilduak edo ertz biziak dituztenak, modulu ohikoenak 44-52 cm luze, 29-36 cm zabal eta 8-12 cm lodi. Honakoa mugatzen duten unitateetan ez bezala, honetan ugari dira kareharri meteorizatuak, ia harri koskor bihurtuak, lurrak tonu zurixka batez margotzen dutenak. Jada lehen deskribatutako tumuluaren hondamenak unitate hau ere hartzen zuen. Unitatearen baitan dozena bat zeramika zati txiki berreskuratu genuen, bailiteke goiko mailatik etorriak izatea. 005 eta 023. UEetan hartzen du atseden.

023

022. UEk estalitako unitate estratigrafikoa, 005. UE eta 025. UE gainean pausatzen dena. Egituraren ikuspegitik 022. UEren antzekoa da, baina hemen

cluía gran cantidad de fragmentos cerámicos y esquirlas de huesos no recogidos en aquellas actuaciones (y por tanto descontextualizados cuando los retirábamos nosotros) puede mantenerse con los datos de la actual campaña: como tal debe entenderse lo excavado en 2019 así como el sector más occidental de los trabajados este año, es decir, la superficie sobre la que se recogieron los restos arqueológicos y donde la potencia de la unidad es mayor. Lo restante bien puede ser la estructura original del túmulo, si bien con cierto deterioro. El conjunto se apoya en la U.E. 022.

022

Unidad estratigráfica caracterizada por la gran cantidad de piedras calizas que la componen con una potencia máxima, alcanzada por el sur del sondeo, de un metro, y sin transición clara respecto a 003. Sus componentes pétreos se presentaban en posición tendente a la horizontalidad, siendo de tamaño medio mayor en relación a la unidad estratigráfica que la cubre, así como más regulares: ahora dominan las planas de formatos poligonales, tendentes a rectangulares o cuadrangulares, sean de bordes redondeados o con aristas y módulos de 44-52 cm de largo por 29-36 cm de ancho y 8-12 cm de grosor. Una característica, frente a las unidades que delimitan a ésta, es la abundancia de calizas meteorizadas, al punto presentarse a la manera de cascajo, coloreando las tierras de una tonalidad blanquecina. El deterioro ya descrito del túmulo también afectaba a esta unidad. En su interior se recogieron alrededor de una docena de pequeños fragmentos cerámicos, quizá intrusiones del nivel superior. Se apoya en las UU.EE. 005 y 023.

023

Unidad estratigráfica cubierta por la U.E. 022 y apoyada tanto sobre la U.E. 005 como sobre la U.E. 025. Estructuralmente similar a la U.E. 022 pero con

pixkanaka galdu egiten dira kareharri birrinduak, blokeak laukizuzenagoak eta handiagoak dira, batik bat zundaketaren hegoaldean: batzuk metro erdi inguru luze ziren, edo luzeagoak (70 cm bitarte), 40 cm inguru zabal eta 10-13 cm bitarte lodi. 2019ko kanpainako profilean unitate horretako harrien egokiera berezia egiaztatzen genuen, eta orain berretsi egiten dugu egokiera hori oinplanoan: segur aski kolapso batek eragin zuen etena, 005. UEra lekualdatzen dena. Ez zuen material arkeologikorik eskaini.

024

Kareharrizko ortostatoa, zundaketaren hegoaldeko ertzean. 003 UEn txertaturik, gutxi gorabehera neurri hauek dokumentatu ahal izan ditugu: metro bete garai eta metro bete zabal, eta 30 cm lodi, hautsita badago ere. Oraindik ez dakigu jatorrizko posizioan dagoen ala ez, zundaketa geomagnetikoak itxura batean antzeman zuen egitura batekin lotu behar den ala ez, eta historiaurreko garaian (litekeena da) edo gure garaian (XIX. eta XX. mendeetan bideratutako jarduera arkeologikoen ondorioz) lekualdatua izan den ala ez. Baina bere izaeragatik eta neurriengatik badu halako lotura ganberako eta korridoreko lauzekin.

005

2019an tumulu baten itxura hartzen zuen buztinezko paketetzat hartua, gehienez ere 60 cm pasatxo lodi. Harriak dekantatuta daude, ehunduraz uniformeak dira, inklusiorik edo sarkinik gabeko unitatea da, kolorez marroia, tonu gorrixkekin. Buztinen trinkotasunak, induskatzen ere zaila baitzen, goiko geruzen berezko presiotik harago doan zanpatze motaren bat pentsarazten digu. Ez du material arkeologikorik. 009 eta 025. UEetan hartzen du atseden.

009

2019an identifikatua baina aurten zehaztua hartatik 025. UE deritzoguna bereizi ondoren. Tumulu baten itxura du, gailurra tamaina eta forma askotako harriek osatzen dutela, piezak antolatu gabe eta nahasi samar ageri direlarik, agian historiaurreko garaian tumuluaren alde honetan bideratutako eraldaketa arkitektonikoen ondorioz. Azaleko geruza hori altxatuta, harri handi eta lauez osatutako multzo bat identifikatu genuen, piezak ia karratuak, batez beste 0,50 m luze (gehienak), antzeko zabalera eta 12-15 cm bitarte lodi. Gainjarrita ageri ziren, ekialderantz inklinaturik tumulu baten itxura hartuta, 1,50 m-ra iristen den garapenarekin. Alde batzuetan 013. UEn hartzen zuen atseden, bestetzuetan 005 UEn (eta unitate horrek ere estaltzen zuen, multzoari konplexutasun handiagoa emanez). Unitate honetan dokumentatu genuen kuartzitazko errekarri handi eta gorri bat, berariazko kolpeek eragindako erabilera arrastoak dauzkana: gure hipotesien arabera, mailu handi baten erabilera eman zioten, Martinez Torres doktorearen arabera Baia ibaiaren ibilgutik, Kuartangoko haranean uraz beheiti, ekarria da harri hori, agian Pobes/Anuntzetatik, baina ez da baztertzen haren jatorria Ebro ibai ondokoa izatea.

025

Lan arkeologikoetan partzialki baizik ezin izan da dokumentatu unitate hau, etorkizuneko kanpainetan osatu beharko da lana. Aztertu dugun zatian harri

pérdida progresiva de restos de calizas pulverizadas, y participación de bloques más rectangulares y de mayor tamaño, principalmente en la parte sur del sondeo: varias rondaban el medio metro de longitud o incluso superaban esa dimensión (de hasta 70 cm), con anchuras cercanas a los 40 cm y grosor de 10-13 cm. En el perfil de la campaña de 2019 se constataba la particular disposición de las piedras de esta unidad, que ahora confirmamos en su desarrollo en planta: probablemente un colapso provocó su discontinuidad que se traslada a la U.E. 005. No aportó material arqueológico.

024

Ortostato de caliza localizado en el cantil sur del sondeo. Inserto en la U.E. 003, del que se ha podido documentar su aproximado metro de altura por otro tanto de anchura y un grosor de 30 cm., si bien está fracturada. Desconocemos aún si está en posición primaria y debe relacionarse con una estructura que parece detectó el sondeo geomagnético, o si fue desplazado de su ubicación original en tiempo prehistóricos, como más probable, o actuales, a partir de las actuaciones arqueológicas de los siglos XIX o XX. Por naturaleza y dimensiones guarda relación con las losas de la cámara y la del corredor.

005

Reconocida en 2019 como un paquete de arcillas en disposición tumular y potencia máxima algo superior a los 60 cm.: decantadas, uniformes en textura, sin intrusiones de coloraciones marrones con tonalidades rojizas. La compacidad de las arcillas, que dificultaba su excavación, nos hace pensar en algún tipo de prensado más allá de la presión propia de las capas superiores. Carente de material arqueológico. Se apoya en las UU.EE 009 y 025.

009

Identificada en 2019 pero redefinida el presente año al desgajar de la misma lo que hemos denominado U.E. 025. Se presenta en disposición tumular cuya cúspide la conforman piedras de diversos tamaños y formas colocadas con cierto desorden, quizá como resultado de transformaciones arquitectónicas realizadas en esta parte del túmulo en época prehistórica. Retirada esta inicial capa se identificaron un conjunto de grandes piedras planas tendentes a cuadrangulares con módulo medio de 0,50 m de largo (en casos mayores), anchura similar y grosor de 12-15 cm. Se disponían superpuestas e inclinadas hacia el este dando la forma del túmulo, con un desarrollo que alcanza los 1,50 m. Según zonas se apoyaba sobre la U.E. 013 o sobre la U.E. 005 (que para mayor complejidad, también la cubría. Le pertenece un voluminoso canto rodado de cuarcita rojiza con marcas de uso provocadas por golpeos intencionados: se baraja la hipótesis de su uso como maza. Según el Dr. Martínez Torres procede del cauce del río Baias aguas abajo del valle de Kuartango, quizá de las proximidades de Pobes/Anúcita, sin descartar incluso su recogida cerca del Ebro.

025

Los trabajos arqueológicos solo han podido documentar parcialmente esta unidad, en un trabajo que debería completarse en futuras campañas. En lo

multzo batek osatutako egitura bereizten da, harri gehienak lauak eta poligonalak, elkarren gainean jarrita eta inklinatuta, oraingoz ezin zehaztu dezakegula eraikitzaileek berariaz horrela ipiniak diren ala kolapso motaren baten emaitza diren. Nolanahi ere, ebaki bat (026. UE) sortzen du alboko unitatearekiko. Luzetarako garapenean, zundaketaren 5 metroko luzeran, hondoratuta dago egitura, eta gainera ekialderantz makurtzen da segur aski tumuluari eman beharreko inklinazioa emateko. Harri multzo horren gainean beste harri handiago batzuk dokumentatu genituen, lauak, formaz ia angeluzuzenak, horizontalean eta zeiharrean ipiniak tumuluaren luzetarako ardatzarekiko. Ez dugu baztertzen unitate hau estaltzen duen 023 UEko elementuak izatea.

026

025 eta 009. UEen gainean egindako ebakia, 025. UEko harriak ipinita mugatua dena. Ebaki hori partzialki lehengoratu zen 005. UEko buztinezko geruzarekin eta 023. UEko bloke horizontalekin, tumuluaren jatorrizko itxura berritzeko.

013

2019an identifikatua, buztin dekantatuak dira, itxura batean era berean zanpatuak, 005 eta 009. UEen azpian egokituak. Oso antzekoak dira 005. UE osatzen dutenen aldean (egitura uniformeari eta koloreari erreparatuta), erraz nahasten dira. Arkeologikoki antzua da.

Unitate estratigrafikoen artikulazioa zehaztea erraza ez bada ere landa lanak amaitu gabe daudelako, lanerako hipotesi gisa balioko digun hurbilketa bat egiten

conocido se presenta como una estructura compuesta por un conjunto de piedras, en su mayoría planas y poligonales, superpuestas e inclinadas sin poder concretar aún si por voluntad de los constructores o por efecto de algún tipo de colapso. En todo caso genera un corte (la U.E, 026) respecto a la unidad que la flanquea. En su desarrollo longitudinal, los 5 m del sondeo, la estructura está rehundida, pero además va buzando hacia el este para dar, seguramente, la debida inclinación al túmulo. Por encima de este conjunto de piedras se localizaron otras de mayor tamaño, planas y con formas tendentes a rectangulares, dispuestas en horizontal y transversalmente respecto al eje longitudinal del túmulo. No descartamos que sean elementos de la U.E. 023, que cubre a ésta.

026

Corte sobre las UU.EE. 025 y 009 delimitado con la colocación de las piedras de la U.E. 025. Parcialmente el corte fue restituido por la capa de arcillas U.E. 005 y los bloques horizontales de la U.E. 023, recreando la apariencia original del túmulo.

013

Identificada en 2019, son arcillas decantadas y también aparentemente prensadas, dispuestas bajo las UU.EE. 005 y 009. Son tan similares a las que conforman la U.E, 005 (dada su estructura uniforme y coloración) que llegan a confundirse. Arqueológicamente estéril.

Aunque no es sencilla la articulación de las unidades estratigráficas por estar incompletos los trabajos de campo, ensayamos una aproximación que nos sirve

Tumuluaren sekzioa, buztin prentsatuen eta kareharri meteorizatuen goiko geruzak kendu ondoren: 1. Tumuluaren harrizko koraza. 2. Harrizko lauza kolapsatuzko korridorea. 3. Harrizko egituren arteko buztin-geruza gogortua. 4. Maila naturalaren azpiko harrizko egitura.

Sección del túmulo tras retirar las capas superiores de arcillas prensadas y de piedras con calizas meteorizadas: 1. Coraza de piedra del túmulo. 2. Pasillo de lajas de piedra colapsado. 3. Capa de arcillas endurecida intermedia entre sendas estructuras pétreas. 4. Estructura pétrea inferior sobre el nivel natural.

saiatuko gara. Guk uste dugu tumulua, harrizko eta buztinezko geruzak (012, 013, 009, 005 eta 003. UEak) elkarren gainean jarrita eraikia, partzialki desmuntatu zutela (009 eta 005. UEak) goiko aldean identifikatu dugun ebakia sorraraziz, eta gero harrizko beste egitura batez (025. UE) bete zutela ebaki hori, aldi berean 005. UEko buztinezko geruzaren zati bat berreraiki zutelarik, eta haren gainean, harrizko eta buztinezko geruzak jartzeko jardun horretan, proiektatu zutela 023. UE, tumuluaren jatorrizko irudia itxuraldatuz. Denboraren joanean, dirudienez kolapso bat nozitu zuten obra berri horiek, eta gaur egun erakusten duen itxura hartu zuen tumuluak: baliteke sua erabili zuten jardueraren bat izatea kolapso horren eragilea.

Ezin izan dugu egiaztatu ekintza horiek, indusketa gunearen mugetan, zer neurritan eragin zioten 013 UEri, hau da, azpiko buztinezko geruzari, baina, tumuluaren ekialdeko zati batean egiaztatu dugu 009. UEko harrizko egituraren diametroaren amaieran batu egiten direla gaineko eta azpiko buztinezko geruzak (005 eta 013. UEak, hurrenez hurren), eta oso zailak direla bereizten osagaien ezaugarriak oso antzekoak direlako.

Azken batean, espero genuenarekin bat datoz lortutako emaitzak: elementu arkitektoniko desberdinen presentzia, historiaurreko erabilera aldian zehar monumentuan bideratu zituzten moldaketen emaitza direnak, eta material arkeologikoen zerrenda urria. Berretsi egiten dugu trikuharri konplexu baten biografiaren aurrean gaudelako ideia: besteak beste, korridorearen iparraldeko jatorrizko elementuak, korridorea definituko zuten lauzak, kendu egin zituzten behin lauza horiek estaltzen zituen tumulua desegin ondoren, eta gero berriz altxatu zuten tumulua.

Xehetasun gehiago eman gabe, hauexek aipa ditzakegu, goitik behera, egiturazko elementu esanguratsuen artean: 1.- Harrizko geruza bat, hasieran, edo ebakiaren zati txiki baten gainean, itxuraz monumentutik lehendik ateratako betegarriak dauzkana, kultura materialeko elementu gutxi batzuekin, baina berehala egungo tumuluaren goiko harrizko egiturari leku egiten diona. Geruza hori hainbat unitate estratigrafikotan bereizi da sakondu ahala lauzak gero eta handiagoak direlako eta itxura batean berariaz egindako suetatik etorritako elementuak identifikatzen direlako; 2.- Dekantatutako buztinezko geruza, tumulu baten itxura duena; 3.- Aurrekoaren azpian eta zundaketaren hegoaldeko herenaren gainean harrizko lauzez osatutako egitura segur aski kolapsatu bat (hondoratuta edo inklinatuta) dokumentatzen da, eta iparraldean goiko buztinezko geruzan hartzen du atseden harrizko beste egitura batek, aldi berean geruza horrek berak estaltzen duelarik. Dirudienez, puntu honetan lehenik buztinezko geruza atera zuten egitura hori altxatzeko, eta gero buztinezko geruza horrekin berarekin estali zuten. Lehenengo egiturak zundaketaren luzera osoa hartzen du mendebaldetik ekialderaino, baina laburragoa da bigarrena; egiaztatu beharko litzateke haren luzera jatorrizko tumuluarena ote den eta bestea geroagoko berreraikuntza lanen emaitza ote den. Ezin dugu gehiago zehaztu ebakia induskatzen amaitu gabe dugulako, baina itxura guztien arabera argi dago puntu horretan datzala panteoiaren berreraikuntza nola kudeatu zuten azaldu dezaketen gakoetako bat.

de hipótesis de trabajo. Pensamos que el túmulo, construido superponiendo capas de piedras y de arcillas (UU.EE. 012, 013, 009, 005, 003), fue parcialmente desmontado (así las UU.EE.009 y 005) creando un corte que hemos detectado en su desarrollo superior, y que fue rellenado con una nueva estructura pétrea (la U.E. 025), a la vez que pudo reconstruirse en parte la capa de arcillas 005 sobre la cual, en ese ejercicio de superponer capas de arcillas y piedras, proyectaron la U.E. 023, alterando la apariencia original del túmulo. Con el tiempo, estas nuevas obras parecen sufrir un colapso adoptando la apariencia que ahora presenta: evaluamos la posibilidad de que alguna actividad con fuego pudo estar detrás de esta eventualidad.

No hemos podido constatar en qué medida estas acciones, en los límites de la excavación, afectaron a la U.E. 013, es decir, a la capa de arcillas inferior, pero, en parte, hemos comprobado en el lado oriental del túmulo, que al finalizar el diámetro de la estructura pétrea U.E. 009, las capas de arcillas superior e inferior (UU.EE. 005 y 013 respectivamente) se unen, siendo muy difícil diferenciarlas al presentar unas características compositivas semejantes.

En definitiva, los resultados obtenidos van en línea con lo esperado: presencia de elementos arquitectónicos varios, resultado de diferentes reestructuraciones del monumento durante su uso prehistórico y escaso inventario de materiales arqueológicos. Confirmamos la idea de que estamos ante una biografía dolménica compleja, en la cual, entre otras cosas, los elementos originales del norte del corredor, las losas que deberían definirlo, fueron retirados previo lógico desmantelamiento del túmulo que lo recubría y posterior recrecimiento.

Sin entrar en más detalles, pueden retenerse como elementos estructurales significativos, de arriba hacia abajo: 1.- Una capa de piedra que inicialmente, o sobre una parte menor de la trinchera, parece contener rellenos de anteriores vacíos del monumento, incluyendo algunos pocos elementos de cultura material, pero que enseguida da paso a la estructura pétrea superior del actual túmulo. La capa se ha individualizado en diversas unidades estratigráficas por el progresivo aumento del tamaño de las losas, según se gana en profundidad, y la participación de lo que parecen ser elementos derivados de fuegos intencionados; 2.- Capa de arcilla decantada con desarrollo en formato tumular; 3.- Bajo la anterior y sobre el tercio sur del sondeo se individualiza una estructura pétrea de losas probablemente colapsada (rehundida o inclinada), mientras que tocante a ella por el norte, otra estructura pétrea se apoya, a la vez que es cubierta, en la capa de arcilla superior. Parece ser que la capa de arcilla fue en este punto desmantelada para levantar esta estructura que finalmente se cubrió con la misma capa de arcilla. Así como la primera de las estructuras ocupa toda la extensión oeste-este del sondeo, la segunda es de desarrollo más corto: habría que confirmar si su extensión marca la del túmulo original y la contigua señala su posterior reconstrucción. No puede precisarse más, por el estado incompleto de la exhumación de la trinchera, aunque parece clara que sobre este punto descansa una de las claves que podrá explicar cómo se gestionó la renovación arquitectónica del panteón.

Behin-behineko hipotesiaren arabera, jatorrizko korridorea birmoldatu ondoren, jatorrizko monumentuaren ekialderanzko balizko luzapenak tumuluaren ekialdeko tarte baten desegite partziala ekarriko zuen, eta gero berreraiki egingo zuten behar zen lekuetan zanpatutako buztinez eta aukeratutako harriez osatutako geruzak jarrita. Elementu berri horietako batzuen itxurazko kolapsoa egiturazko arazoen ondorioa izan daiteke, edo suaren erabilerak eragindako ondorioa, unitate estratigrafikoetako betegarrietan identifikatutako xehetasun batzuk kontuan hartzen baditugu. Eskualdeko beste hileta depositu megalitikoetan bezala, San Sebastian Sur monumentuan ere jatorrizko arkitektura berritzeko lan sakonak eraman zituzten burura, ehorzteko jatorrizko guneak itxi eta moldatu zituzten, eta berregokitu egin zituzten egiturazkoenak. Oso litekeena da moldatze lan horiek panteoiaren edukian eta ehorzteko erituetan eragin izana.

La idea, provisional, es que un posible alargamiento del monumento original hacia el este, tras la reconversión del primitivo corredor, necesitó de un desmantelamiento parcial del tramo oriental del túmulo y su reconstrucción allí donde fue necesario con nuevas capas de piedras seleccionadas y de arcillas prensadas. El aparente colapso que presentan algunos de los nuevos elementos puede deberse bien a problemas estructurales bien a actos punitivos con la ayuda del fuego, dados algunos detalles observados en el relleno de las unidades estratigráficas. Como en otros depósitos funerarios megalíticos de la región, en San Sebastián sur se llevaron a cabo profundas reformas de la arquitectura original, clausurando y reconvirtiendo los originales espacios de inhumación y reacondicionando los más estructurales. Es probable que, también, las reformas afectaran al contenido del panteón y los ritos de inhumación.

A. Alday Ruiz; F.J. Ajamil Baños

A.14. LABASTIDA / BASTIDA

A.14.1. BASTIDAKO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE LABASTIDA

A.14.1.1. **Del Olmo kalea, 17-19**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Daniel Patrick Lynch

A.14.1.1. **Calle del Olmo, 17-19**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Daniel Patrick Lynch

Archaeological intervention prompted by the renovation of the buildings located at 17 and 19 Olmo Street in the Historic Quarter of Labastida. The archaeological results of the monitoring process were negative, and the only thing worth mentioning is the discovering of an artificially levelled rocky outcrop with steps which, according to oral testimonies, may be linked to a chapel built by the previous owners. No documentary evidence has yet been found to support this claim.

Bastidako Del Olmo kaleko 17 eta 19. zenbakietako etxebizitza eta gorputz erantsiak zaharberritzeko lanen harira, lan horien gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen. Lehenengo eraikinak, 1910ean jasoak, trapezoide formako oinplanoa du, beheko solairuarekin eta sotoarekin, azken hori beste jabetza bati badagokio ere. Babes morfologikoa baizik ez du. Del Olmo kaleko 19. zenbakiko eraikinak, 1850ean eraikiak, oinplano ia angeluzuzena du, arrokan induskatutako sotoarekin, beheko eta lehenengo solairuarekin eta estalkipearekin. Eraikin honek babes partziala du fatxadan eta oinarrizkoa barruan. 1.049 m^2 ditu lursailak, mugak desnibel handian, hegoaldean izan ezik. Azpian dauden upeltegietako aireztapenen irteera batzuk nabarmentzen dira lursailaren gainazalean. Gainera, arrokan zizelkatutako eskailera batzuk daude artifizialki berdindu den harrizko azaleratze batean. Jarraipen lan horien perspektiba arkeologikoak ez ziren itxaropentsuak. Bastidako hiria fundatu baino lehen Santo Kristo baselizaren inguruan giza egonleku bat izan zela eta El Olmo eta La Mota auzoek hiribilduko jatorrizko

Con motivo de la realización de las obras de rehabilitación de la vivienda y anexos de la c/ Del Olmo, nº 17 y 19 de Labastida se llevó a cabo un control arqueológico de las mismas. El primero de los edificios, construido en 1910, tiene planta trapezoidal, con planta baja y sótano, aunque éste pertenece a otra propiedad. Cuenta únicamente con protección morfológica. El edificio de la calle del Olmo, 19, construido en el año 1850, tiene planta casi rectangular, con sótano excavado en la roca, planta baja, primera y bajocubierta. Este edificio goza de protección parcial en la fachada y básica en su interior. La parcela tiene 1.049 m^2 y las lindes presentan un acusado desnivel, salvo por su lado sur. Sobresalen en la superficie varias salidas de ventilación de calados existentes bajo ésta. Además, existen unas escalinatas talladas en roca en un afloramiento rocoso regularizado artificialmente. Las perspectivas arqueológicas de este seguimiento no se antojaban elevadas. Pese a que hay evidencias de que hubo un poblamiento anterior a la fundación de la villa en el entorno de la ermita del Santo Cristo y que los barrios de El Olmo y de La Mota pudieron albergar el núcleo pri-

nukleoa osatu zutela salatzen duten aztarnak badauden arren, kale horietan orain arte bideratutako dozenatik gora esku hartze arkeologikoetan ia ez da emaitza positiborik lortu, besterik gabe egiaztatu dezakegu arroka naturala zizelkatu zutela, noiz ez dakigula, eta elementu garaikideak azaldu direla.

Eraikinetako estalkiak, Del Olmo kaleko 19. zenbakiko eraikinari atxikitako adreiluzko gorputza eta fatxadetako elementu batzuk, iragan mendeko 60. urteetakoak, desegiten hasi zirenean eman genion hasiera obren gaineko kontrol arkeologikoko lanari. Hala ikusi genuen estalita gelditu ziren mendebaldeko eta iparraldeko fatxaden kanpoko hormak itxuraz zainduago zeudela, baina aldi berean zementuz zarpiatuta zeudela, eta harlandu asko eta asko pikotxa markak zituztela. Inoiz ere ez zen eraikinen jatorrizko egitura ukitu. Ordutik aurrera lursailean egindako lur mugimenduetara mugatu genituen jarraipen lanak, eraikinen barruko aldean bideratzen ari ziren lanak ez baitziren batere interesgarriak arkeologiaren ikuspegitik. Del Olmo kaleko 19. zenbakiko eraikinari atxikitako gorputzak hartu zuen gunean, eraikinaren iparraldean eta mendebaldean, gehienez ere 30 cm-ko sakonera maila iritsi zen, berreraikitzeko beharrezkoa zen sakonera maila, eta harrotutako lurretan hareharrizko harlanduak, teila eta adreilu zatiak eta forma irregularreko harri txikiak identifikatu genituen. Maila horretan, puntu batzuetan, jada arroka naturala azaleratzen zen, hareharrizkoa. Ez genuen aztarna arkeologikorik bat ere identifikatu. Gero erreten bat induskatu behar zuten saneamendurako hodi bat instalatzeko. Hodi horrek eraikinaren fatxada nagusian jada baden lotune batean izango zuen abiapuntua, eta lursailaren hegoaldeko muturraren kanpoko aldean dagoen kutxatila bateraino iritsiko zen. Erretena 28 m luze izango zen eta 60 cm zabal. Hasieran, 40 cm-ko sakonera mailan, lur eremuaren berezko harea horixkak, arroka amaren deskonposiziotik etorriak, azaleratzen baziren ere, hondeamakinak aurrera egin eta sakondu ahala gero eta lodiago bihurtzen zen goiko zaborrezko geruza, zuzenean azaltzen zen geruza naturalaren gainean, eta ez zen jatorri antropikoko ebakirik edo kolore aldaketarik identifikatzen. Eta beste aldeko muturrean, argi eta ur kanalizazioek erabat nahasita zegoen zorupea, ugari ziren zaborrak: adreiluak, teilak, forma angelutsuko eta neurri askotako hareharriak, igeltsu puskak eta kronologia berriko materialak.

Lursailean azaleratzen den arroka zizelaz landua baizik ez dugu aipagarri. Arroka hori eskailera mailak eratzeko moduan dago landuta, mailak 2,70 metro zabal, ia angeluzuzena den azalera bati sarrera egiten diotela (azalera hori artifizialki dago berdinduta). Azaleratze hori 30 eta 45 cm bitarte nabarmentzen da inguruko lurretatik, gutxi gorabehera 3,60 m zabal da eta 12 m luze iparraldetik hegoaldera, eta gero apur bat ekialderantz egiten du. Egitura honen inguruan jakin ahal izan dugun kontu bakarra da, ahozko lekukotasunen arabera, etxebizitzaren aspaldiko jabeek antolatutako kapera txiki batean izan dezakeela jatorria, baina alderdi hori ezin izan dugu dokumentuen bidez egiaztatu. Nolanahi ere, elementu hori guztiz errespetatu da obra lanetan zehar.

mitivo de ésta, las más de una docena de intervenciones arqueológicas realizadas en estas calles hasta ahora apenas han obtenido resultados, salvo algunas evidencias de rebajes en la roca natural de origen incierto y el hallazgo de elementos contemporáneos.

El control arqueológico de las obras se inició cuando se procedió a eliminar las cubiertas de los edificios y el anexo de ladrillo del edificio de la c/ Del Olmo, 19, así como algunos elementos de las fachadas, que databan de la década de los años 60 del siglo pasado. Se pudo ver así cómo los paños exteriores de las fachadas oeste y norte que habían quedado cubiertas presentaban un aspecto más cuidado pero, a la vez, habían recibido un revoco de cemento y muchos de los sillares se hallaban repicados. En ningún momento se afectó a la estructura original de los edificios. A partir de entonces, el seguimiento se centró prácticamente en los movimientos de tierra que se produjeron en la parcela ya que, en el interior de los edificios, los trabajos que se estaban desarrollando no tenían interés desde el punto de vista arqueológico. En la zona que ocupó el anexo del edificio de la c/ Del Olmo, 19, en los lados norte y oeste del edificio, la profundidad alcanzada fue de un máximo de 30 cm, lo justo para restituirlo, apareciendo entre la tierra removida sillares de arenisca, fragmentos de tejas y de ladrillos y algunas pequeñas piedras de formas irregulares. A esta cota ya comenzaba a aflorar en algunos puntos la propia roca natural de naturaleza arenisca. En ningún momento se localizaron evidencias de índole arqueológica. Posteriormente sólo quedaba la excavación de una zanja para la instalación de una tubería de saneamiento, que debería partir de una conexión ya existente en la fachada principal del edificio hasta una arqueta situada en el exterior del extremo sur de la parcela. Tendría una longitud de 28 m, abriéndose con una anchura de 60 cm. Si al inicio, a unos 40 cm de profundidad, ya afloraban arenas amarillentas propias del terreno, procedentes de la descomposición de la roca madre, según avanzaba la excavadora y se ganaba profundidad la capa superior de escombro aumentaba de potencia, apareciendo directamente sobre el estrato natural, en el que no se advertían cortes ni cambios de coloración de origen antrópico. Y ya en el extremo contrario el subsuelo se hallaba muy alterado por canalizaciones de luz y agua, con presencia de gran cantidad de escombro: ladrillos, tejas, piedras areniscas de formas angulosas y tamaños diversos, trozos de yeso y materiales de cronología reciente.

Únicamente podemos destacar la existencia en la parcela de un afloramiento rocoso que presenta entalles a modo de escalinatas de 2,70 m de ancho que dan acceso a una superficie tendente a rectangular raseada artificialmente. Sobresale del terreno entre 30 y 45 cm y tiene una anchura de unos 3,60 m por una longitud de casi 12 m de norte a sur, girando después levemente hacia el este. Lo único que hemos podido averiguar de esta estructura es que, según testimonios orales, su origen podría haber estado en la habilitación de una capilla por parte de los antiguos propietarios de la vivienda, lo que no ha podido ser constatado documentalmente. De todos modos, este elemento ha sido totalmente respetado durante las obras.

F.J. Ajamil Baños

A.14.2. GATZAGA BURADONGO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE SALINILLAS DE BURADÓN

A.14.2.1. **Ancha kalea**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Gatzaga Buradongo Administrazio Batzordea

A.14.2.1. **Calle Ancha**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Junta Administrativa de Salinillas de Buradón

Archaeological monitoring of the demolition of a children's playground in Ancha Street, in the Historic Quarter of Salinillas de Buradón, with no results of interest.

Haur parke bat desagerrarazteko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen gainerakoa.

Control arqueológico de la eliminación de un parque infantil siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la Zona de Presunción Arqueológica.

F. J. Ajamil Baños

A.15. **LAGUARDIA / GUARDIA**

A.15.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.15.1.1. **Plaza de la Cárcel, 3**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Nortegas Energía Distribución S. A. U.

A.15.1.1. **Plaza de la Cárcel, 3**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Nortegas Energía Distribución S.A.U.

Archaeological monitoring of the digging of a ditch for a gas pipeline in Plaza de la Cárcel, in the Historic Quarter of Labastida, with no results of interest.

Gas hargune baterako erreten bat induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen gainerakoa.

Control arqueológico de la excavación de una zanja para para la acometida de gas siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de la Zona de Presunción Arqueológica.

F. J. Ajamil Baños

A.15.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

A.15.2.1. **Paseo del Collado, 3 (31. BAG)**

Zuzendaritza: Miguel Ángel Berjón Lobato
Finantzazioa: Guardiako Udala

A.15.2.1. **Paseo del Collado, 3 (ZPA 31)**

Dirección: Miguel Ángel Berjón Lobato
Financiación: Ayuntamiento de Laguardia

Intervention carried out in the entranceway to an auxiliary municipal building located in the Zone of Presumed Archaeological Interest num. 31 in Laguardia (Álava), with no results of any archaeological interest.

Guardia udalerriko 31. Balizko Arkeologia Gunean dagoen Paso del Collado pasealekuko komunetako sarreretako obren gaineko kontrol arkeologikoa, ingu-

Control arqueológico de las obras de accesos a aseo en el Paseo del Collado, 3 situado en la Z.P.A. nº 31 del Municipio de Laguardia, Álava, en incluidas

ru hori Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaia Kulturaleko Monumentu Multzoan biltzen baita. Zorupe arkeologikoan (nola luze-zabalean hala sakonean) ia inolako eraginik izan ez duten obra horietan desmuntatu egingo zuten mailen bidezko sarrera, haren lekuan elbarriei egokitutako arrapala bat antolatzeko. Kontrol arkeologikoko lanetan zehar, zorua berdintzeko deposituen sekuentzia txiki bat dokumentatu ahal izan genuen, depositua XX. mendekoak, aurreko garai batean kokatu zitekeen aztarnarik bat ere gabe. Beraz, balorazio teknikoa negatiboa da ikuspegi historikotik eta arkeologikotik, baina etorkizunean ebaluatu egin beharko da inguru hau zorupean jardunez gero.

Conjunto Monumental, del Paisaje de la Cultura del Vino y el Viñedo de la Rioja Alavesa (Álava). Los trabajos de obra, que apenas han tenido incidencia en el subsuelo arqueológico -tanto en extensión como en profundidad-, consistían en el desmontaje de un acceso peldañado para sustituirlo por una rampa adaptada a discapacitados. En el proceso de control arqueológico se ha logrado documentar una pequeña secuencia de depósitos de nivelación contextualizables en el siglo XX, sin evidencia alguna atribuible a un período anterior. Por tanto, los resultados de la valoración técnica pueden calificarse de escaso interés histórico-arqueológico, quedando el lugar pendiente de evaluaciones ante futuras intervenciones en el subsuelo.

M.Á. Berjón Lobato

A.16. **LANTZIEGO**

A.16.1. **Pieza Redonda herrixka**

V. kanpaina
Zuzendaritza: A. Martínez Montecelo
Dirulaguntza emailea: Arabako Foru Aldundia

A.16.1. **Poblado de Pieza Redonda**

V Campaña
Dirección: A. Martínez Montecelo
Subvención: Diputación Foral de Álava

The 2020 season focused on the search for the funerary space presumed to have existed in the protohistoric settlement of Pieza Redonda, as well as on the digging of a sondage in the structure that is thought to have formed part of the settlement's defensive wall.

Aurrekariak eta 2020ko kanpainaren helburuak

2014. urteaz geroztik planifikatutako lan arkeologikoak ari gara Pieza Redonda herrixkan egiten. Miaketa intentsiboko lehenengo kanpaina burutu ondoren (kanpaina horretan material protohistorikoak inguruan barreiatuta zeudela egiaztatu genuen) hainbat esku hartze bideratu dira bertan, giza egonlekuaren kontserbazio egoera zorupean aztertzeko asmoz. 2015eko saioak ustelak gertatu baziren ere, 2017 eta 2018an egindako zundaketa kanpainetan zalantzarik gabe protohistoriari zegokion habitataren aztarnak aurkitu genituen, besteak beste 2019an partzialki induskatutako txabola.

Herrixkako beste alderdi batzuk aztertzeko, 2020ko kanpainan habitata mugatuko zuten balizko defentsa elementuak identifikatzen eta ezaugarritzen saiatuko ginen, eta ahaleginak egingo genituen hileta eremuren bat aurkitzen, a priori zenduak errausteko nekropoli bat izan zitekeena.

Defentsa egiturak izan litezkeenak

Defendatzeko balizko hormaren kokapenari dagokionez, aurreko kanpainetan lehorrean ipinitako harriez egindako egitura asko hauteman genituen, Aro Modernoan eta Aro Garaikidean nekazaritza eta abeltzaintza erabilera emateko terrazak inguratzen zituzten. Aitzitik,

Antecedentes y objetivos de la campaña de 2020

En el poblado de Pieza Redonda se vienen desarrollando trabajos arqueológicos planificados desde 2014. Tras una primera campaña de prospección intensiva que permitió comprobar cómo se comportaba la dispersión de materiales protohistóricos en el entorno, se han realizado varias intervenciones con la intención de constatar el estado de conservación del asentamiento en el subsuelo. Tras los intentos de 2015 no fue, sin embargo, hasta la campaña de sondeos realizada entre 2017 y 2018 cuando se localizaron inequívocamente restos del hábitat protohistórico, con una cabaña que fue parcialmente excavada en 2019.

Con el objetivo de atender a otros aspectos del poblamiento, la campaña de 2020 se ha centrado en la identificación y caracterización de posibles elementos defensivos que podrían delimitar el hábitat, y la búsqueda de algún espacio funerario que, a priori, se considera que podría tratarse de una necrópolis de incineración.

Posibles estructuras defensivas

En lo referente a la localización de un posible lienzo defensivo, en las campañas anteriores habían sido detectadas numerosas estructuras de piedra en seco que respondían a bancales para el aprovechamiento

Ezkerrean, 2020ko kanpainan egindako jardueren planoa: miaketa herrixkaren ekialdean eta zundaketa ustezko harresiaren hego-ekialdean. Eskuinean, Protohistoriako harresiaren aztarnatzat hartutako egituraren aurretiko ikuspegia.

A la izquierda, plano de las actividades realizadas en la campaña de 2020: prospección al este del poblado y sondeo al SE, junto a la supuesta muralla. A la derecha, vista frontal de la estructura interpretada como restos de la muralla protohistórica

ekialdeko hegal berean, 450 eta 455 kota mailen artean, gutxi gorabehera 150 luze zen tarte eten bat antzeman genuen, eta aztarnategiaren gainerakoan identifikatutakoak ez bezalako egitura zela esan behar dugu. Kanpaina honetan lubaki formako zundaketa bat egin dugu, 4 x 1 metrokoa, ipar-ekialdetik hego-mendebalderako norabidean. Erreten horrek perpendikularrean ebakitzen du egitura hain zuzen ere egituraren ezaugarriak hobekien ikusten diren puntuan.

Tokiko hareharrizko harlangaitzez eta kareorerik gabe egindako egitura da, doi-doi ikusten dira tamaina handi eta ertaineko blokeez eraturiko ilara horizontalak, ardatz nagusiko pieza batzuk ia metro bete luze direla. Gehienez ere 2,50 metrora iristen da kontserbatutako altuera. Obrak ebaki egiten du lur naturala (hareharrizko arroka eta buztina), mendi hegalean hartzen du atseden, eta aurpegi bakarra kontserbatu du hego-ekialderantz, beherantz egiten duen aldean. Hormaren barruko aldea askoz ere txikiagoak diren hareharrizko betegarri batez osatuta dago, piezak ausaz ipiniak, baina ez dago obra datatzeko aukera emango lukeen materialik. Laborantza lanek erabat kaltetu dute egitura, izan ere, hormaren altueraren metro erdi inguru desegin eta multzoa amortizatu egin baitute era berean Erdi Aro osteko materialak biltzen dituzten azaleko betegarriekin.

Azken batean, horman bideratutako esku hartzeak ez digu aukerarik eman herrixkako defentsa egituren zati baten aurrean gaudela baieztatzeko, nahiz eta lan hauetan aukera hori baztertuko lukeen argudiorik ere ez dugun topatu. Ildo horretan, kontuan eduki behar da, alde batetik, egitura honek inguruko terrazetan ohikoak direnen ez bezalako ezaugarriak dituela, oso bestelakoa dela, eta bestetik, barruko betegarrian ez dagoela material protohistorikorik ez material berriagorik, hots, oraingoz ez dagoela habitatarekin lotutako harresi baten aztarnak izateko aukera baztertzen duen materialik.

agropecuario de Edad Moderna y Contemporánea. Sin embargo, en la misma ladera oriental, entre las cotas 450 y 455 se había localizado un tramo intermitente de unos 150 metros de longitud, realizado con una fábrica radicalmente diferente a la detectada en el resto del yacimiento. En esta campaña se ha realizado un sondeo con forma de trinchera de 4 x 1 metros orientada según el eje NE-SO, que corta perpendicularmente la estructura en el punto donde mejor se aprecian sus características.

La estructura es una obra de mampostería de arenisca local sin mortero, en la que se reconocen tímidamente hiladas horizontales de bloques de mediano y gran tamaño, con algunas piezas de casi un metro en su eje mayor. La altura máxima conservada alcanza unos 2,50 metros. La obra corta el terreno natural (roca arenisca y arcilla) y se apoya contra la ladera, con solo un paño conservado hacia el SE, la parte descendente. El interior del muro está compuesto por un relleno de piedras areniscas de mucho menor tamaño, dispuestas de forma aleatoria, en el que destaca la ausencia de materiales que permitan datar la obra. Toda la estructura ha sido afectada por las labores agrícolas, que han ido desmantelando cerca de medio metro de su alzado y amortizando el conjunto con rellenos superficiales, que incluyen asimismo materiales postmedievales.

En definitiva, la intervención en el muro no ha permitido aclarar que nos encontremos ante parte de las defensas del poblado, aunque los trabajos no han encontrado tampoco argumentos que lo descarten. En este sentido debe tenerse en cuenta, por un lado, que la obra presenta unas características radicalmente diferentes a las habituales en los bancales de la zona y, por otro lado, la ausencia de materiales (ni protohistóricos ni más recientes) en el relleno interno, que eliminen por el momento la posibilidad de que nos encontremos ante los restos de una muralla realcionada con el hábitat.

Habitateko hileta eremua bilatzen

Bigarren alderdi honi dagokionez, balizko nekropoli bat aurkitzeko asmoz, miaketa estentsibo bat egin genuen ekialde hurbilaren inguruan. Aztertuko genuen eremua mugatzeko orduan oso kontuan hartu genituen herrixkaren hurbiltasuna eta herrixkaren bistan egotea. Kontuan harturik habitata muinoaren ekialdeko hegalean mailakatuta antolatuko zela, ekialderantz dagoen ibarbidera –Binasperitik behera datorren errekastoa igarotzen da bertatik–, haratago ikusi ahal izatea galarazten duten gailur txikiek eraturiko errenkada batez inguratuta dagoen eremura, mugatu genuen miaketa lana. Laburbilduz, gutxi gorabehera 50 hektarea hartzen dituen ibarra da, ipar/ipar-ekialdetik hego/hegomendebalderako ardatzaren arabera egokitzen da, 408 eta 475 metro bitarteko garaierekin, betiere herrixkatik gehienez ere kilometro batera. Laginketa unitate irregularretan oinarritutako miaketa lanetan bi pertsonek parte hartu dute, bi pertsonen artean gutxi gorabehera 20 metroko tartea utzirik, eta guztira 42 kilometro miatu dira ibarraren zatirik handiena hartuz.

Miaketa lanetan harrizko zati gutxi batzuk identifikatu genituen, eskuko errotei eta/edo leungailuei legozkiekeen piezak izan daitezke. Material horien banaketa argi eta garbi lerrokatzen da 2014ko miaketa lanetan identifikatutako materialenarekin, baina hemen gutxiago dira. Bestalde, aipagarria da aztertutako eremuaren gainazalean protohistoriako zeramikarik aurkitu ez izana; ikusten denez, halakoak 2014. urtean arakatutako eremuan baizik ez daude. Bestalde, miatutako eremuaren hegoaldean, partzialki desegin den silo edo zulo bat dirudiena identifikatu dugu. Ez dakigu zein den haren kronologia, baina luze gabe induskatuko dugula aurreikusten dugu.

Konklusioak

Ikusten ari garenez, 2020ko kanpainak ez ditu guztiz argitu planteatutako abiapuntuko kontuak. Lehendik ere aurreratu dugun bezala, harresiari dagokionez, eutsi egiten diogu hasierako hipotesiari, hauxe da, egitura protohistoriko baten aztarnak dira, gerora terrazak antolatzeko erabiliko zirenak. Balizko hileta eremu baten bilaketari dagokionez, esan beharra dago kanpaina hau jada abian zenean paldo zulo baten eta 2019an induskatutako txabolaren suntsiketaren datazioen emaitzak jaso genituela; emaitza horiek K.a. 1100 eta 950 urte bitarteko arku kronologikoa eskaintzen dute, eta beraz, argi eta garbi eramaten gaituzte Brontze Aroaren amaierara. Data zehatz horiek kontuan harturik, galdetu beharko litzateke une horretan gorpuak errausteko erritua (Kutxa Zelaien Kulturaren eskutik Ebro ibai haranean gora eginez iritsiko zena) jada nagusitu ote zen ala oraindik gorpuak ehorzteko ohitura ote zen nagusi. Beraz, birplanteatu beharko lirateke miaketa irizpideak.

Laburbilduta, esan dezagun oso lausoa dela Pieza Redonda herrixkari lotutako erregistro arkeologikoa, habitata ere oso ahula dela materialki, Mediterraneo aldeko giro lehorreko higadura prozesu biziak nozitzen dituela, eta hiru milurtekotan bideratutako laborantza eta abeltzaintza jarduerak ere bere ondorioak izan dituela aztarnategian.

Búsqueda del espacio funerario del hábitat

En lo que respecta a la segunda cuestión, con la intención de localizar una posible necrópolis, se ha realizado una prospección extensiva en el entorno oriental más próximo. En la delimitación de este espacio de estudio se ha tenido en cuenta la cercanía al poblado y la visibilidad desde éste. Considerando que el hábitat se escalonaría por la ladera oriental del cerro, la prospección se ha ceñido a la vaguada situada inmediatamente hacia el este –drenada por el arroyo que desciende desde Viñaspre– y delimitada por una línea de pequeñas cimas que impiden la visibilidad más allá de ese cordal. En definitiva, se trata de un valle con una superficie de unas 50 hectáreas, orientado según el eje NNE-SSO, con unas altitudes que varían entre 408 y 475 metros y nunca alejado más de un kilómetro del poblado. La prospección ha sido realizada por dos personas distanciadas entre sí unos 20 metros, mediante unidades de muestreo irregulares, recorriendo un total de unos 42 km y cubriendo la mayor parte del territorio.

En la prospección se han localizado unos pocos fragmentos líticos que podrían pertenecer a molinos de mano y/o alisadores La distribución de estos materiales se alinea claramente con los detectados durante las prospección de 2014, aunque con una menor densidad. Destaca, por otro lado, la ausencia de cerámica protohistórica en superficie en el área intervenida que, por lo que se viene observando, su presencia se ciñe muy estrictamente a la zona inspeccionada en 2014. Igualmente, al sur de la zona prospectada se ha localizado lo que parece un silo u hoyo parcialmente desmantelado y de cronología desconocida, el cual se prevé excavar próximamente.

Conclusiones

Como se está viendo, la campaña de 2020 no ha conseguido aclarar plenamente las cuestiones de partida planteadas. Tal como se ha apuntado, en lo que respecta a la muralla, seguimos manteniendo la hipótesis inicial de que nos encontremos con los restos de una estructura protohistórica reutilizada posteriormente como bancal. En lo que respecta a la búsqueda de un posible espacio funerario, resulta interesante mencionar que una vez que esta campaña ya estaba en marcha se recibieron los resultados de las dataciones de un agujero de poste y de la destrucción de la cabaña excavada en 2019, con una horquilla cronológica que se mueve entre 1100 y 950 a.C. y que nos sitúa claramente en el Bronce Final. Con estas fechas concretas cabe preguntarse si realmente en ese momento predominaría ya el rito de incineración, que habría llegado remontando el valle del Ebro de la mano de los Campos de Urnas, o bien perduraría todavía la inhumación, con lo que habría de replantearse los criterios de prospección.

En definitiva, seguimos observando que el registro arqueológico asociado al poblado de Pieza Redonda se muestra muy difuso, resultado de un hábitat materialmente endeble y sometido a los procesos de erosión típicos de un ambiente mediterráneo árido, a los que hay que añadir el efecto de tres milenios de actividad agrícola y ganadera.

Á. Martínez Montecelo; J. Rodríguez Fernández

A.17. LANTARÓN

A.17.1. Bergüenda-Fontecha. Goiko sarea berritzea

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños

Finantzazioa: Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia

A.17.1. Bergüenda-Fontecha. Renovación de red en alta

Dirección: F. Javier Ajamil Baños

Financiación: Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo. Diputación Foral de Álava

Archaeological monitoring of renovation work carried out along the high-voltage network between Bergüenda and Fontecha, in the municipality of Lantarón. The work was originally going to affect the Favliobriga-Uxama Barca Roman road, although an adjustment to the route and to the type of work carried out avoided this necessity. The work did, however, affect the site known as 'Fondo de Cabaña de El Parral', although the assessment sondages carried out prior to commencement proved negative. The rest of the route planned for the work did not affect any other element of archaeological value.

Puentelarrá eta Fontecha (Lantarongo udalerria) hornitzeko goiko sarea berritzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Lan horiek 3,2 km-ko trazadurari jarraitu diote, iparraldetik hegoaldera. Abiapuntua Omecillo ibaiaren gaineko zubi ondoko kutxatila batean izango zuen, Sobronera eramaten duen A-2122 errepidean, eta amaiera Fontechako ur deposituan. Obren trazaduraren inguruan kontuan eduki beharreko elementu arkeologiko eta arkitektoniko batzuk zeuden, inbentarioan jasoak, baina ez zuten obren zuzeneko eraginik nozituko. Hauexek dira elementu horiek: *Entrambasaguasko Errota*, eraikin desagertua, hari buruzko lehen aipamen idatzia XVII. mendearen bigarren erdikoa dela; *Entrambasaguasko Zubia*, XIX. mendearen erdialdean eraikia eta 1860an eraikitakoaren lekua hartzen duena; *Suertes Viejas Asentamendua*, Brontze Aroan datatua; *Balcorneko Kokalekua*, Eneolito-Brontze Arokoa; *Encinilla Kokalekua*, non 1983an harrizko material batzuk aurkitu zituzten gainazalean; *Bisotoko txabolaren oinarria*, Kalkolito-Brontze Arokoa; eta *San Martin Nekropolia*, 1993an aurkitua, non 250 m^2-ko eremuan guztiz lerrokatuta zeuden 40 hilobi induskatu ziren.

Bi izango ziren obrek zuzenean ukituko zituzten elementuak:

– *Favliobriga*-tik *Vxama Barca*-ra doan galtzada erromatarra, hegoaldetik Fontecha ondotik igarotzen dena, herriaren mendebaldetik, A-2122 errepidearekin bat eginez herria atzean uzteko. Berriz ere azaltzen da, fosilduta, gaur egun lursailak mugatzen dituzten *El tamaral* eta *Cuestalarra* mendien mendebaldeko hegalen oinetako bide zahar bateko ezpondan. Eta lursail batzuk handitzeko lanek ezkutaturik egon arren, lurraren alde kromatikoei esker hauteman daiteke galtzada hori. Aurrerago, iparraldera, berriz ere bat egiten du A-2625 errepidearekin, Omecillo ibaiaren erribera ondoan. Hain zuzen ere azken puntu horretan ukitu zezaketen obrek bide historiko hori, bidearen trazadura obren trazadurarekin gurutzatzen baita hor. Nolanahi ere, errepidea zeharkatzeko, hodia zorupean barrena antolatzeko erabakia hartu zen,

Control arqueológico de las obras de renovación de red en alta para abastecimiento de Puentelarrá y Fontecha, en el municipio de Lantarón. Éstas han seguido un trazado de 3,2 km que, de norte a sur, partía de una arqueta junto al puente sobre el río Omecillo, en la carretera A-2122, que se dirige a Sobrón, y terminaba en el depósito de aguas de Fontecha. En el entorno del trazado de las obras aparecían inventariados diversos elementos arqueológicos y arquitectónicos a tener en cuenta, si bien no se iban a ver directamente afectados. Eran el *Molino de Entrambasaguas*, edificio desaparecido cuya primera mención en las fuentes escritas data de la segunda mitad del siglo XVII; el *Puente de Entrambasaguas,* construido a mediados del siglo XIX y que sustituye a uno anterior construido en 1860; el *Asentamiento de Suertes Viejas,* yacimiento fechado en la Edad del Bronce; el *Asentamiento de Balcorne,* fechado en el Eneolítico-Bronce; el *Asentamiento de La Encinilla,* en el que se encontró en 1983 diverso material lítico en superficie; el *Fondo de cabaña de Bisoto,* con una cronología del Calcolítico-Bronce; y la *Necrópolis de San Martín,* descubierta en 1993 y donde se excavaron hasta 40 tumbas perfectamente alineadas en un área de unos 250 m^2.

Los elementos que sí iban a verse directamente afectados por las obras eran dos:

– La calzada romana *Favliobriga* a *Vxama Barca* que, desde el sur, transcurre junto a Fontecha, por su lado oeste, coincidiendo con la carretera A-2122 traspasado el pueblo. Vuelve a aparecer, fosilizada en el ribazo de un viejo camino a los pies de las laderas occidentales de los montes *El tamaral* y *Cuestalarra*, hoy lindes de parcelas. También se puede distinguir, oculta por la ampliación de algunas parcelas debido a las diferencias cromáticas de la tierra, para luego volver a coincidir, al norte, con la carretera A-2625, junto a la ribera del río Omecillo. Es aquí donde en todo caso las obras podrían haber afectado a esta vía histórica, ya que su trazado se cruzaba con el de las obras en este punto. No obstante, se optó por soterrar la tubería para atravesar la carretera por lo que no fue posible averiguar si se conservaban

eta beraz, ezinezkoa izan zen galtzadaren aztarnak kontserbatzen ziren ala ez egiaztatzea. Trazaduraren gainerakoan saihestu egin zen biek bat egitea, Arabako Foru Aldundiko Museoak eta Arkeologia Zerbitzuak obren trazadura aldatzeko proposamena egin baitzuen.

– *El Parral txabolaren oinarria.* Lantarongo udalerriko 113. zenbakiko BAG. Lantarongo 3. poligonoko 735. eta 736. zenbakietako finketan dago aztarnategia, A-2122 errepidearen ekialdean, Fontechako herritik ipar-mendebaldera kilometro bete eskasera. Iparraldetik hegoaldera zeharkatzen zuen obren trazadurak. Felix Murgak aurkitu zuen 1988an, bi orban ilun bereizi zituen bien artean gutxi gorabehera 50 m zeudela, eta aztarnategia Eneolitoan-Brontze Aroan datatzeko modua eskaini zuten material arkeologikoak bildu zituen. Gaur egun lausotuta eta bat eginda daude orban horiek laborantza lanen ondorioz.

Aurreikusita zegoen bezala, obrei ekin aurretik sei balorazio zundaketa induskatu ziren lursail horietan. Oinplanoan 6 m luze eta 2 m zabal izango ziren, eta hodiak sartzeko erretenaren noranzkoarekiko zeharkakoak. Indusketa horietan sakonera desberdinak iritsi ziren, betiere harearrizko arroka edo aurreko tuparrizko geruza azaleratzen zen mailaren arabera. Bitarteko mekanikoak baliatuta induskatu ziren zundaketa horiek, zundaketatik zundaketara 15 metroko tartea utzirik. Induskatu aurretik zundaketa eremuak bereizi ziren egunean lursailak miatu genituenean, gainazalean ez genuen material arkeologikoen kontzentrazio berezi bakar bat ere hauteman. Aitzitik, 736. lursailean 735.ean baino gehiago ziren teila puskak eta kronologia desberdinetako zeramika zatiak, baina barreiatuta azaltzen ziren, eta ez ziren lursailaren gainerakoa ez bezalako kolore orban bati lotuta azaltzen. Zundaketen indusketen emaitzak negatiboak izan ziren arkeologiaren ikuspegitik. Gaur egun zerealen laborantzari emanak diren lursail horietan lurrezko geruzak osatutako lehen maila bat bereizten da, gutxi gorabehera 40 cm lodi da batez beste, kolorez marroia, ehunduraz buztintsua/limotsua, garbia eta oso uniformea. Pixkanaka argitu egiten da azaleko geruza hori, ehundura ez da hain buztintsua, eta trinkoago bihurtzen da. Bigarren geruza hori irregularragoa da lodierari dagokionez, 65 eta 110 cm bitarte lodi baita. Era berean pixkanaka azaltzen den hirugarren geruzak osatzen du sekuentzia estratigrafikoa, ilunagoa eta buztintsuagoa da, eta itxura batean ez da hain trinkoa. Geruza hori ere irregularra da bere lodieran, 20 cm lodi da puntu batzuetan baina metro beteko lodiera gainditzen du bestetzuetan. Hareharrizko arroka amaren presentzia iragartzen duten tuparri zurixken gainean egokitzen da. Tuparri horiek ere oso sakonera maila desberdinetan azaltzen dira. 1,30 m-ko sakoneran eta gutxi gorabehera 2,25 m-koan azaltzen dira, baina oro har 2 m-ko sakonera maila gainditzen dute bi lursailetan. Material arkeologikoen presentziari dagokionez, zeramika zati txiki eta isolatu gutxi batzuk aurkitu genituen, kronologia desberdinetakoak, ugariago ziren teila puskak. Gehiago azaldu ziren, eta halere gutxi, 736. lursailean induskatutako zundaketan; hor, zeramika eta teila zati gehiago identifikatzen ziren gainazalean, baina segur aski kanpotik ekarriak

restos o no de la calzada. En el resto del trazado se había evitado su coincidencia al proponerse la variación del trazado de las obras desde el Servicio de Museos y Arqueología de la Diputación Foral de Álava.

– *Fondo de cabaña de El Parral.* Z.P.A. nº 113 del municipio de Lantarón. Yacimiento que se sitúa en las fincas 735 y 736 del polígono 3 de dicho municipio, en el lado oriental de la carretera A-2122, a menos de 1 km al noroeste de Fontecha. El trazado de las obras lo atravesaba de norte a sur. Fue descubierto en 1988 por Félix Murga, quien identificó dos manchas oscuras separadas por unos 50 m y en las que recogió diverso material arqueológico que permitió su fechación en el Eneolítico/Bronce. Hoy en día las manchas se han difuminado y unificado debido a las labores agrícolas.

Tal y como estaba previsto, con anterioridad al inicio de las obras se procedió a la excavación de seis sondeos de valoración en estas fincas. Se hicieron con unas medidas en planta de 6 m de largo por 2 m de anchura, transversales al sentido de la zanja para la introducción de la tubería. Su profundidad fue variable, en función de la cota a la que afloraba la roca arenisca o la capa de margas previas. Se abrieron con medios mecánicos con una distancia entre ellos de 15 m. Durante la revisión de las parcelas, realizada en la jornada en la que se colocaron los sondeos antes de su excavación, sobre el terreno no se apreció ninguna concentración especial de materiales arqueológicos en superficie. Sí se vio en la parcela 736 una proliferación mayor de fragmentos de teja y cerámicos de diversa cronología, frente a la mayor escasez en la parcela 735, pero dispersos, y no aparecían asociados a ningún tipo de mancha de color diferenciado al resto de la finca. Los resultados de la excavación de los sondeos fueron negativos desde el punto de vista arqueológico. Estas fincas, dedicadas en la actualidad al cultivo de cereal, cuentan con una primera capa superficial de tierra de unos 40 cm de potencia media de color marrón, de textura arcillo-limosa, limpia y muy uniforme. De forma gradual esta capa superficial va adquiriendo una coloración clara y la textura se vuelve menos arcillosa y de mayor compactación. Este segundo nivel es de espesor más irregular, yendo desde los 65 cm a los 110 cm. La secuencia estratigráfica se completa con un tercer nivel, éste más oscuro y arcilloso y relativamente menos compacto que aparece también gradualmente. Tiene también espesores muy irregulares, que van de los escasos 20 cm hasta superar el metro. Precede a las margas blanquecinas que anuncian ya la presencia de la roca madre, de naturaleza arenisca. La profundidad a la que aparecen estas margas también es muy diferente. Afloran a 1,30 m de profundidad y a unos 2,25 m, aunque por lo general superan la cota de 2 m en las dos fincas. En cuanto a la existencia de material arqueológico, apenas se localizaron algunos pequeños fragmentos cerámicos aislados, de cronología diversa y más abundantes eran los fragmentos de teja. Se localizaron en mayor número, y aun así escaso, en el sondeo excavado en la finca 736, sin otra explicación que en ésta ya se advertía en superficie una mayor presencia de fragmentos cerámicos y de tejas, seguramente por aportes o por la mayor dife-

izango ziren, edo alde horretan bideratutako laborantza lan desberdinen ondoriozkoak, lursail bakoitzak bere jabea baitzuen.

Azkenik, esan dezagun esku hartze arkeologiko honen emaitzak negatiboak izan diren arren, lursail horiek eutsi egin behar diotela bere kalifikazioari ikuspegi arkeologikotik. Aurreikusitako erretenaren trazadurara mugatu da zundaketen indusketa, eta beraz, ezin esan daiteke zorupearen gainerakoan ondare elementurik ez dagoenik. Batez ere 735. lursailaz ari gara, haren zatirik garaienean, ipar-mendebaldean, ongi asko hautematen baitzen ortoargazkietan lehen aipatu dugun orban ilun handia, bertatik bertara hain agerikoa ez zena lur eremua landuta dagoelako.

Obren trazaduraren gainerakoari dagokionez, oro har oso erregularrak diren lurretan barrena luzatu zen, ia soilik zerealen laborantzari emandako lursailetan. Gainazaleko lurrezko geruzaren lodiera aldatzen bazen ere, batez beste 60 cm lodi zen, eta puntu batzuetan 90 cm lodi. Oso geruza uniformea zen eta harriak oso gutxi ziren lursail gehienetan, segur aski kendu egingo zituzten laborantza lanetan. Trazadura osoan zehar geruza jada naturala azaltzen zen laborantzari emandako lurren azpian, kolorez zurixka edo okrea, ehunduraz limotsua edo limotsu/buztintsua, 1 eta 1,10 m bitarte lodi, ipar muturreko lursailetan 1,50 m lodi izateko. Lursail horietan, bigarren geruza horrek oso granulometria desberdineko legarrez eta errekarriez osatutako geruza estaltzen zuen, eta geruza horretan maila freatikoko ura iragazten zen maila hori urpean uzteko. Hala eta guztiz ere, obrek hegoaldera egin ahala, legar hobi horiek desagertu egiten ziren eta tarteko maila batean buztinezko geruza ilun bat azaltzen zen. Legar hobien kasuan ez bezala, geruza buztintsu hori pixkanaka azaltzen zen goiko geruzarekiko, eta lursail guztietan eratzen zuen arroka ama azaldu aurreko geruza.

A-2625 errepidearen alboko landa etxebizitza baten ondoan topatzen ditugu estratigrafia orokor horretan salbuespen bakarrak. Puntu horretan lur eremuan egindako mugimenduek eraldatu egin zuten inguru hurbilena bai gainazalean bai zorupean, puntu horretara iritsi aurreko metroetan eta trazaduraren amaieran, mendi hegalak hurbil egonik lur erauzketek zuzenean eragin baitzuten geruza naturalean.

Obren trazaduran zehar orain arte dokumentatu ez diren aurkikuntza posibleei dagokienez, emaitzak negatiboak izan direla esan behar dugu. Aurkitutako material arkeologiko urria han-hemen barreiatuta topatu dugu, teila eta kronologia desberdinetako zeramikazko ontzi zati isolatu batzuk, inolaz ere ez Erdi Aroa baino lehenagokoak. Ildo horretan, oso garrantzitsua izan da hodia sartzeko erretena egin aurretik obraren trazaduraren gainazala landarez garbitzeko egindako lana. Aurrez egindako lan horiei esker, oinplanoan identifikatu ahal izan ditugu erretena induskatzeko lanetan zehar soilik sekzioan dokumentatu ahal izango genituen aztarna arkeologikoak, nahiz eta gero beste esku hartze mota baten bidez dokumentatu ahal izango ziren.

rencia en el tipo de labores agrícolas realizadas al pertenecer a distintos propietarios.

Para terminar, añadir que pese a los resultados negativos de esta intervención arqueológica, no se puede considerar que estas parcelas puedan quedar desafectadas desde el punto de vista arqueológico. La excavación de los sondeos se ha ceñido al trazado de la zanja prevista por lo que no se puede afirmar que no existan elementos patrimoniales en el resto del subsuelo. Nos referimos principalmente a la parcela 735, en cuya parte más alta, al noroeste, se advertía en ortofotografías, aunque no tanto sobre el terreno al estar cultivada, la gran mancha oscura a la que hemos aludido antes.

En lo que al resto del trazado de las obras se refiere, en líneas generales dicurrió por terrenos que se caracterizaban por su regularidad, casi exclusivamente por fincas de cultivo de cereal. La capa superficial de tierra, aun variando en su potencia, con una media de 60 cm pero alcanzando en algunos puntos los 90 cm, se caracterizaba por su uniformidad y por la escasa presencia de piedras en la mayoría de las parcelas, seguramente por su eliminación para las labores agrícolas. Fue común durante todo el trazado la aparición bajo la tierra de cultivo de un nivel ya natural de color blanquecino u ocre de textura limosa o limoarcillosa con espesores de entre 1 y 1,10 m, aunque en las fincas situadas más al norte podía llegar incluso a los 1,50 m. En éstas, este segundo nivel cubría a un estrato compuesto de gravas de muy diferente granulometría y cantos rodados en el que se filtraba el agua del nivel freático, provocando su inundación. Sin embargo, según las obras iban avanzando hacia el sur, estas graveras desaparecían y bajo el nivel intermedio afloraba un estrato de arcillas de coloración oscura. Al contrario que sucedía con las graveras, este nivel arcilloso aparecía de forma gradual respecto al superior y siempre eran el paso previo a la aparición de la roca madre.

Las únicas excepciones a esta estratigrafía las encontramos al paso junto a una vivienda rural localizada al lado de la carretera A-2625, donde la alteración del terreno había transformado el entorno más inmediato, tanto en superficie como en el subsuelo, y tanto en los metros anteriores a este punto como al final del trazado, donde la cercanía de las laderas del monte hacía que los desmontes afectaran directamente al estrato natural.

En relación a los posibles hallazgos que pudieran haberse localizado a lo largo del trazado de las obras no documentados hasta ahora, los resultados han sido nulos. El escaso material arqueológico localizado ha sido de manera dispersa y ha consistido en fragmentos aislados de teja y de recipientes cerámicos de diferente cronología, pero no de más allá de la Edad Media en ningún caso. En este sentido ha sido muy importante la labor de desbroce previo del trazado antes de abrir la zanja para la introducción de la tubería. Gracias a estos trabajos previos habría sido posible identificar en planta restos arqueológicos que sólo hubieran podido ser documentados en sección durante la excavación de la zanja, aunque posteriormente se hubiera podido ampliar mediante una actuación posterior.

F.J. Ajamil Baños

A.17.2. **Antepardoko herrixka (26. BAG) eta Santullanako kokalekua (64. BAG)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Jasone Ortiz García

A.17.2. **Poblado de Antepardo (ZPA 26) y Asentamiento de Santullana (ZPA 64)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Jasone Ortiz García

Digging of 20 sondages in the plots occupied by the Zones of Presumed Archaeological Interest num. 26: 'Poblado de Antepardo' and num. 64: 'Asentamiento de Santullana' in the municipality of Lantarón. The sondages were prompted by the laying of an underground telephone line through the zones. The archaeological results were negative, but the plots in question have not been removed from the zone of interest because the sondages only covered the area of the telephone line trench and did not go down all the way to the bedrock.

Lantarongo udalerriko 3. poligonoko 778. eta 780. lursailetan bideratutako balorazio arkeologikoa, lur horietan airetiko telefono linea zorupera eramateko proiektu bat aurkeztu zelako. Kontua da aipatutako zorupeko lineari leku egiteko erretenaren trazadurak 26. balizko Arkeologia Gunea (*Antepardoko herrixka*) eta 64.a (*Santullanako kokalekua*) ukituko zituela. *Antepardoko* herrixka jada XI. mendeko iturri idatzietan aipatzen da, nola 1025. urteko *Donemiliagako Goldea* deritzon agirian hala Miranda de Ebroko Foruan (1099). Antepardori buruzko aipamen idatziak desagertu egiten dira XIX. mendera arte, bibliografiak herrixkari ez baizik eta jatorri ezezaguneko benta bati eta baseliza bati (dirudienez Bastidako parrokian dago titularraren irudia) aipamen egiten dien unera arte. A-2122 errepidearen mendebaldean kontserbatzen diren eraikuntza hondakinak aipatutako bentari dagozkio. Lursail horretan Erdi Aroko mota askotako zeramika zati ugari eta eraikuntza materialak berreskuratu zituzten bere garaian. *Santullanako kokalekua* 1972. urtean aurkitu zuten erromatarren garaiko zeramikazko material askoren presentziari esker. Dirudienez giza egonleku txikia da, segur aski nekazaritza ustiategi motaren batekin lotuta egongo da, eta A-2122 errepide ondoko lursailean eta errepidearen ekialdeko muinoaren hegalean barrena antolatzen da.

Aurreikusita zegoen bezala, telefono linea zorupera eraman aurretik, 20 zundaketa induskatu genituen erretenaren trazadurak balizko arkeologia guneak zuzenean ukituko zituen puntuetan. Zundaketa horiek baliabide mekanikoekin induskatu genituen aurrez finkatutako sakonera mailaraino, baina sortutako ertzak apur bat busti eta eskuz amaitu genituen indusketa lanak. Oinplanoan 2 m-ko aldea eta kasu guztietan metro beteko sakonera gainditutako zuten neurriak izan zituzten zundaketek (aurreikusitako erretena baino sakonagoak). 5. zundaketa izan zen salbuespen bakarra, 1,20 m-ko aldearekin eta 1,70 m-ko sakonerarekin egindakoa, hartu beharreko neurriak hartuta, bertan hormigoizko paldo bat jartzeko zuloa induskatu behar zelako. Zundaketen artean 15 metroko tartea utzi zen trazadurak balizko arkeologia guneen barruan, bai A-2122 errepidearen paraleloan bai muino ondoko adar txiki batean, hartzen dituen metroak, gutxi gorabehera 300, aztertu ahal izateko.

Negatiboak dira lursail hauetan bideratutako balorazio arkeologikoaren emaitzak. Gaur egun zerealaren laborantzari emanak diren lursail horietan lurrezko geruzak osatutako lehen maila bat bereizten

Valoración arqueológica de las parcelas 778 y 780 del polígono 4 del municipio de Lantarón por la existencia de un proyecto de soterramiento de la línea telefónica aérea. La razón es que el trazado de la zanja para el citado soterramiento afectaba a las Zonas de Presunción Arqueológica nº 26: «*Poblado de Antepardo*» y nº 64: «*Asentamiento de Santullana*». La aldea de *Antepardo* se menciona ya en las fuentes escritas en el siglo XI, tanto en la denominada *Reja de San Millán*, del año 1025, como en el Fuero de Miranda de Ebro, del año 1099. Las referencias documentales a *Antepardo* desaparecen hasta el siglo XIX, cuando la bibliografía hace mención, no al poblado, sino a una venta de la que se desconoce su origen, así como a una ermita cuya imagen titular se conserva al parecer en la parroquia de Labastida. Los restos constructivos que se conservan en el lado occidental de la carretera A-2122 se corresponden con la citada venta. En esta finca se recogieron en su día abundantes restos de cerámica medieval de diversos tipos, así como diverso material constructivo. El *Asentamiento de Santullana* fue descubierto en el año 1972 e identificado por la presencia de numerosos materiales cerámicos de época romana. Parece tratarse de un asentamiento de poca entidad, posiblemente relacionado con algún tipo de explotación agrícola, abarcando un área que se extiende por la finca situada junto a la carreta A-2122 y la ladera del promontorio situado al este de ella.

Tal y como estaba previsto, se llevó a cabo, previamente al inicio del soterramiento, la excavación de 20 sondeos en la parte del trazado en la que éste afectaba de forma directa a las zonas de presunción arqueológica. Se excavaron con medios mecánicos, hasta alcanzar la profundidad establecida, siendo terminados de forma manual tras refrescar los cantiles resultantes. Se dispusieron con unas medidas en planta de 2 m de lado y una profundidad que en todos los casos ha superado el metro, algo más de la profundidad de la zanja prevista. La única excepción fue la del sondeo 5, con unas medidas de 1,20 m de lado por 1,70 de profundidad al excavarse en el punto exacto donde se iba a colocar un poste de hormigón, por lo que se hizo con las medidas necesarias para ello. Se abrieron con una distancia entre ellos de 15 m, para cubrir los aproximadamente 300 m en los que en trazado está incluido dentro de las zonas de presunción arqueológica, tanto el paralelo a la carretera A-2122 como el de un pequeño ramal más cercano al promontorio.

Los resultados de la valoración arqueológica de estas parcelas se pueden considerar negativos. Las fincas, dedicadas en la actualidad al cultivo de cereal,

da, gutxi gorabehera 40 cm lodi da batez beste, kolorez gris argia, ehunduraz hareatsua eta trinkotasun txikikoa, ia inklusiorik gabea, klasto eta kuartzo zati gutxi batzuk salbu. Zati horiek ekialdeko mugan dagoen eta 5. zundaketan identifikatu genuen zain mehe eta hauskor batean dute jatorria, lursaila berdintzean eta laborantza lanak egitean zain horretako zatiak han-hemenka barreiatuko baitziren lursailetan barrena. Gainazaleko geruza horrek oso maila garbian eta uniformean hartzen du atseden, ehunduraz limotsua da, trinkotasun txikikoa, kolorez okrea, oso argia goiko aldean baina sakondu ahala iluntzen dena. Maila horren azpian, metro bete edo gutxiago induskatu ondoren, arroka amaren aurreko kareharrizko geruza azaltzen da. Aztertutako eremuaren azken herenean, lurraren altuera apaldu egiten den tartearekin bat eginez, tonalitate ilunagoak hartzen ditu geruza horrek, eta buztintsuago bihurtzen da ehundura. Deposituaren lodiera handiagoa da alde horretan, azaldu ere ez da egiten kareharrizko geruza. Nolanahi ere, aurreikusitako erretenak metro beteko sakonera gainduiko ez zuenez eta zundaketa guztiek neurri hori gainditu zutenez, ez genuen beharrezkotzat jo geruza naturaleraino iristea hura azaldu ez zen lekuetan, areago kontuan hartzen badugu hasiera-hasieratik negatiboak izaten ari zirela emaitza arkeologikoak.

Material arkeologikoaren presentziari dagokionez, zeramika zati txiki eta isolatu gutxi batzuk dokumentatu genituela esan behar dugu, kronologiaz aro modernokoak eta aro garaikidekoak. Gehiago ziren eraikuntza materiak, batez ere adreilu eta teila puskak, ondoko *Antepardoko Bentaren* hondakinekin, A-2122 errepidearen beste aldean, lotzen ditugunak, zati horiek gehiago baitziren aipatutako bentatik gertuen induskatutako zundaketetan.

Bukatzeko, esan dezagun esku hartze arkeologiko honen emaitzak negatiboak izan diren arren, lursail horiek eutsi egin behar diotela bere kalifikazioari ikuspegi arkeologikotik. Aurreikusitako erretenaren trazadurara mugatu da zundaketen indusketa, eta beraz, ezin esan daiteke Lantarongo udalerriko 26. zenbakiko (*Antepardoko herrixka*) eta 64. zenbakiko (*Santullanako kokalekua*) balizko arkeologia guneetan biltzen diren lursailetako zorupearen gainerakoan ondare elementurik ez dagoenik.

cuentan con una primera capa superficial de tierra de unos 40 cm de potencia media de color gris claro, de textura arenosa y poco compactada, sin apenas intrusiones salvo por algunos clastos y trozos de cuarzo. Estos proceden de una fina y quebradiza veta situada en la linde oriental y localizada en el sondeo 5, y cuya alteración al rasear la finca ha provocado que se expandieran los trozos por gran parte de esta al realizarse las labores agrícolas. Se apoya esta capa superficial en un nivel muy limpio y uniforme, de textura limosa, poco compacto y de color ocre, muy claro en cotas superiores que va oscureciéndose a medida que se profundiza. Este nivel da paso a la cayuela previa a la roca madre tras profundizar en él alrededor de 1 m, incluso algo menos. En el último tercio de la zona valorada, coincidiendo con un tramo en el que el terreno pierde altura, este estrato adquiere tonalidades más oscuras, a la vez que su textura se torna algo más arcillosa. La potencia de este depósito es mayor en esta parte, no apareciendo siquiera la cayuela. No obstante, ya que la zanja prevista no iba a superar el metro de profundidad y que todos los sondeos superaron esta medida, no se consideró necesario alcanzar el estrato natural en aquellos en los que no ha aparecido, más si cabe cuando los resultados arqueológicos estaban siendo negativos desde el inicio.

En cuanto a la existencia de material arqueológico, apenas se localizaron algunos pequeños fragmentos cerámicos aislados y de cronología moderna y contemporánea. Más abundantes eran los materiales constructivos, principalmente fragmentos de ladrillos y de tejas, que relacionamos con la cercanía de las ruinas de la *Venta de Antepardo*, al otro lado de la carretera A-2122, ya que eran relativamente más numerosos en los sondeos más cercanos a ésta.

Para terminar, añadir que pese a los resultados negativos de esta intervención arqueológica, no se puede considerar que estar parcelas puedan quedar desafectadas desde el punto de vista arqueológico. La excavación de los sondeos se ciñó al trazado de la zanja prevista por lo que no se puede afirmar que no existan elementos patrimoniales en el subsuelo del resto de estas parcelas incluidas en las zonas de presunción arqueológica nº 26: «*Poblado de Antepardo*» y nº 64: «*Asentamiento de Santullana*», del municipio de Lantarón.

F.J. Ajamil Baños

A.18. LLODIO / LAUDIO

A.18.1. Eremuko Andra Maria

VI. kanpaina
Zuzendaritza: Sergio Escribano Ruiz
Finantzazioa: Laudioko Udala; Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza; Eraikitako Ondarea Ikertzeko Taldea (UPV-EHU)

A.18.1. Santa María del Yermo

VI campaña
Dirección: Sergio Escribano Ruiz
Financiación: Ayuntamiento de Llodio; Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco; GPAC (UPV-EHU)

During the sixth season, excavation work began in 2017 and continued in 2018 resumed in the southern nave of the church. Work started at the stratigraphic layer explored during the fourth season, linked to the construction of the church that stands on the site today, which was built between the end of the 15th and the beginning of the 16th century. The sequence proposed to date was altered in light of the findings, and the results provide greater insight into those stages associated with both the current church and the two previous ones. We were also able to identify a new stage linked to the enlargement of the second church and to document a densely occupied cemetery associated with it, dating from the end of the 13th century. Surprisingly, we identified a hiatus in the occupation of the cemetery between the periods pertaining to the first and second churches. During part of the 13th century, the space was occupied by what seems to have been a house and a series of hearths apparently linked to pre-industrial activities. Underneath the remains of these activities, we found a new burial space associated with the first church, located in a lower terrace. This is in addition to the cemetery documented in previous seasons that is located at the foot of the first church, which was already standing by the beginning of the 12th century.

Esku hartze arkeologikoaren testuingurua

Eremuko Andra Mariaren Santutegian bideratutako seigarren indusketa kanpaina, aurreko bi kanpainak bezalaxe, «Eremuko (Laudio) Andra Mariaren elizak aztertzeko, sendotzeko eta gizarteratzeko proiektua» deritzon proiektu zabalagoaren baitan eraman zen burura. Halaz ere, indusketa kanpaina testuinguru horretan garatu bada ere, ez dio aurrez programatutako indusketa kanpaina bati erantzuten, proiektua Laudioko Udaleko ordezkarien, Arabako Foru Aldundiko ordezkariekin eta proiektuaren arduradunen artean lantzean hartutako erabakiari baizik. Laudioko Udaleko ordezkariek eskatuta, proiektatutako musealizazio proiektua gelditzeko erabakia hartu zen hegoaldeko habearteko barruko espazio osoa erabat induskatzen amaitu arte; ondorioz, atzeratu egin zen berreskuratutako aztarnak erakusgarri jartzeari buruzko erabakia. Indusketa kanpaina honi esker, agortu egin da aztertutako espazio osoaren potentzial arkeologikoa, induskatutako eremu osoan iritsi baikara arroka naturalera edo buztin naturaletara. Hala eta guztiz ere, agerian geratu ziren aztarna arkeologiko garrantzitsu batzuk, esate baterako, buztinetan induskatutako hilobi batzuk, hilobi horietako batzuei dagozkien harlauza batzuk, bigarren elizan sartzeko eskailerak eta bigarren eliza hori hegoaldetik ixten zuen horma. Aipatzekoak dira azken eraikuntza horien egitura eta kontserbazioa, eta bereziki horien lekukotasun balioa, jarraian azalduko dugun guztiaren memoria materiala baita.

Indusketa estrategiari dagokionez, seigarren kanpaina honetan berriz ere ekin genien tenpluaren hegoaldeko habeartearen barrunbea induskatzeko lanei, 2017an hasi eta 2018an segida izan zutenei. Indusketa lan horiek laugarren kanpaina utzi zen maila

Contextualización de la intervención arqueológica

La sexta campaña de excavación en el Santuario de Nuestra Señora del Yermo se desarrolló, al igual que las dos campañas anteriores, en el marco del proyecto «Estudio, consolidación y socialización de las iglesias de Santa María del Yermo (Llodio)». Sin embargo, pese a haberse desarrollado en este contexto, no responde a una campaña de excavación programada, sino acordada durante el curso del proyecto entre representantes del Ayuntamiento de Llodio, la Diputación Foral de Álava y los responsables del proyecto. A instancias de los primeros se decidió paralizar el proyecto de musealización proyectado, hasta no terminar de excavar totalmente el espacio interior de la nave sur, postergando así la decisión sobre la exhibición de los restos recuperados. Mediante esta campaña de excavación se agotó todo el potencial arqueológico del espacio intervenido, llegando a la roca natural o a las arcillas naturales en todo el espacio excavado. Sin embargo, quedaron importantes restos arqueológicos a la vista, como varias tumbas excavadas en las arcillas, las lajas de algunas de estas tumbas, las escaleras de acceso a la segunda iglesia y el muro de cierre meridional de la misma. Cabe destacar la factura y conservación de estas últimas estructuras constructivas, y muy especialmente su valor testimonial, en su condición de memoria material de todo lo que contaremos a continuación.

En lo que a la estrategia de excavación respecta, durante esta sexta campaña se reanudaron los trabajos de excavación del interior de la nave sur del templo, iniciados en 2017 y continuados en 2018. Si en la excavación se retomó el horizonte estratigráfico donde quedó en la cuarta campaña, en este trabajo reto-

estratigrafikoan bideratu baziren ere, lan honek 2018ko Arkeoikuskan utzi genuen puntuan helduko dio kontakizunari, hau da, gaur egun erabiltzen den tenpluaren eraikuntzarekin lotuta dagoen fasean. Balorazio orokor gisa, esan dezagun lortutako emaitzek erraz gainditu dituztela hasierako usteak. Alde batetik, aurreikuspen guztiak gainditu ditu potentzia arkeologikoak. Bestetik, dokumentatutako erregistroak orain arte proposatutako sekuentzia doitzeko aukera emateaz gain, inguru honetan bertan kokatutako hiru tenpluei lotutako etapei buruzko ezagutza areagotzea ahalbidetu du.

Emaitzak aldien arabera eta eguneratuta

Kanpaina honetako emaitzak aurreko kanpainetan eta bereziki laugarren kanpainan lortutako datuekin uztartu ahal izateko, sekuentzia lineal bati jarraiki azalduko ditugu emaitzak, betiere sortu dugun sekuentzia estratigrafikoarekin bat etorrita. Horrexegatik, hain zuzen ere, orain arte erabilitako narrazio estiloari eutsiko diogu, indusketa prozesuaren beraren adierazgarria baita, eta dokumentatutako azken fasea azaltzen hasiko gara fase zaharrenarekin amaitzeko. Nolanahi ere, aurreko kanpainetan bezala, aintzat hartuko dugu erregistro arkeologikoaren askotariko denborazkotasuna, eta horrexegatik jarriko dugu arreta berezia denboran iraun duten prozesuetan. Izan ere, Eremuko Andra Maria tenpluaren iraganaren ezaugarri nagusi da eremu hau behin eta berriz erabili izana sortu zenetik gaur egunera arte helburu bertsuekin. Ondoz ondo antolatutako hiru tenpluk, dagozkien hilerriekin, eta lehenagoko hileta elementuek, esate baterako hilarri berrerabiliak, batera hartuta itxuratzen dute edozein gizartetan funtsezkoak diren praktika espezifiko batzuen iraunkortasunak eratutako iragana. Hala bada, hileta erritua bezalako sistema garrantzitsu bati lotutako memoria material bat mantenduta, gizarte osoa inplikatzen zuen memoria mantenduta, partaide izatearen eta egonkortasun sozialaren sentimendua nagusitu da mendeetan zehar Eremuko komunitatean[16].

XV. mende amaiera-XVI. mende hasiera, egungo tenplua eta hilerria eraikitzeko lanak

XV. mendeko une aurreratu batean hasi ziren oraindik erabiltzen den eliza eraikitzen. Berritik eraiki eta neurriz handiagoa bada ere, aurreko bi elizak altxatu zituzten leku berean eraiki zuten. Horrexegatik, lehendik ere azaldu dugun bezala, tenplu berri honen eraikuntzak berekin batera ekarri zuen aurreko eliza baten suntsipena. Lehendik egindako indusketa kanpainetan ezagutu ahal izan genituen obra haien ezaugarri batzuk, eta egiaztatu egin genuen eraikin berria eraiki ahala desmuntatu egiten zutela aurreko tenpluaren zatirik handiena, eraikuntza materiala tipologiaren arabera metatuz. Materiala bereizteko eta antolatzeko prozesu hori hegoaldeko habearteko zoruaren maila berdintzeko erabili zuten betegarri batzuetan gelditu da islatuta, eta betegarri horietako

[16] Kontu horiei buruzko gogoeta sakona eta argudiatua argitaratuko da luze gabe *Espainiako eta Portugalgo Erdi Aroko Arkeologiari buruzko VI, Kongresuko Aktetan*, «La reutilización de espacios religiosos medievales en el País Vasco. El caso del Santuario de Nuestra Señora del Yermo» izenburupean.

mamos el relato donde lo dejamos en el Arkeoikuska 2018, en la fase relacionada con la construcción del templo en uso en la actualidad. Como valoración general, cabe mencionar que los resultados obtenidos han superado con creces las expectativas iniciales. Por un lado, la potencia arqueológica ha superado cualquier previsión. Por otro, el registro documentado no solo ha permitido modular la secuencia propuesta hasta la fecha, sino también ampliar el conocimiento sobre las etapas asociadas a los tres templos emplazados en este mismo entorno.

Resultados periodizados y actualizados

Con la intención de permitir correlacionar los resultados de esta campaña con los de las anteriores, especialmente con los de la cuarta campaña, exponemos los resultados siguiendo una secuencia lineal, acorde a la secuencia estratigráfica que hemos creado. Por ello seguiremos la estructura narrativa seguida hasta la fecha, representativa del propio proceso de excavación, y empezaremos narrando la fase más reciente, acabando en la más antigua de las documentadas. No obstante, como en ocasiones anteriores, trataremos de atender a la multitemporalidad del registro arqueológico y por ello prestaremos atención a los procesos de persistencia. No en vano, el pasado de Santa María del Yermo se ha caracterizado por la reutilización sucesiva de ese espacio con unos fines similares desde su origen hasta la actualidad. Tres templos sucesivos y sus correspondientes cementerios asociados, junto a elementos funerarios previos como la lápida reutilizada, trazan de forma conjunta un pasado marcado por la durabilidad de unas prácticas específicas, fundamentales en cualquier sociedad. Así, el mantenimiento de una memoria material vinculada a un sistema tan importante como el funerario, que implicaba al conjunto del colectivo social, ha dotado a la comunidad del Yermo de un sentido de pertenencia y estabilidad social durante siglos[16].

Fines siglo XV-inicios siglos XVI, obras de construcción del templo actual y cementerio

En un momento avanzado del siglo XV se acometió la construcción de la iglesia que aún hoy continúa en uso. Aunque fue construida de nueva planta y cuenta con unas dimensiones mayores, sigue anclada en el mismo lugar que las dos anteriores. Por eso, tal y como hemos mencionado en ocasiones anteriores, la construcción de este nuevo templo implicó la destrucción de una iglesia anterior. En las campañas de excavación previas pudimos conocer algunos detalles de estas obras y constatar que, a medida que se construía el nuevo edificio, se desmontaba la mayor parte del templo anterior, apilando el material constructivo en función a su tipología. Este proceso de selección y organización ha quedado plasmado en

[16] Una reflexión extensa y argumentada sobre estas cuestiones será próximamente publicada en las *Actas del VI Congreso de Arqueología Medieval, de España y Portugal,* bajo el título «La reutilización de espacios religiosos medievales en el País Vasco. El caso del Santuario de Nuestra Señora del Yermo».

batzuk, tenpluaren hegoaldeko hormari atxikita, izaeraz oso desberdinak direla esan behar dugu. Betegarri horiek erabilita gainditu zuten erdiko habeartearen eta hegoaldeko habeartea izango zenaren arteko desnibel handi samarra. Gogoan eduki behar da aurreko bi elizak goiko terraza baten gainean eraiki zituztela, eta tenplu berriaren eraikuntzak hegoaldera handitzea eskatzen zuela, beheko terrazaren maila ezinbestean goratu beharko zutelarik habeartearen barruko espazio osoa antzeko mailan gera zedin. Eta helburu hori guztiz lortu ez bazuten ere, hegoaldeko habeartea XVIII. mendera arte beherago egon zelako eta desnibela maila baten bidez gainditzen zelako, tenplu handiago bat ahalbidetu zuen hartutako soluzioak.

Azken kanpaina honetan bildu ahal izan dugun informazioa zorua berdintzeko lehenengo betegarriari buruzkoa da, obretan zehar dokumentatutako guztien artean lodienari buruzkoa. Aldi labur batez zenduak ehorzteko leku gisa erabili zela esan behar dugu. Betegarri horren azalean guztira bost hilobi identifikatu ahal izan ditugu, zenduak forma angeluzuzeneko eta mutur biribilduetako hobietan ehortziak. Esan beharra dago hilobi horietako bat okupatzen zuen banakoa, besteak ez bezala, *decúbito pronto* jarreran zegoela, zangoak tolestuta. Hilobi horietako gehienei dagozkien ebakiak identifikatzeko zailtasunak pentsarazten digu banako horiek hegoaldeko alboko habeartea betetzen zuten aldi berean ehortzi zituztela, edo gune hori ez zutela jalkinak behar bezala trinkotuak gertatzeko bezainbeste erabili. Sektore horretako obretan nabari den geldialdi erlatibo horren ostean (geldialdi horrek bertan hileta praktikak bideratu zirela iradokitzen baitu), laugarren kanpainan dokumentatutako ondoz ondoko betegarriek estali zituzten aurreneko betegarria eta hobiak. Espazio osoa berdintzeko obra hori aurreko kanpainen harira deskribatutako lauza txikiekin osatutako zoruarekin estali zuten.

XIV. mendearen bigarren erdialdea, tarteko tenpluaren burualdea handitzeko lanak eta hilerria

Kanpaina honetan zehar nabarmen sakondu ahal izan dugu ingurune honetan bertan eraikitako bigarren elizari buruzko ezagutzan. Esate baterako, egiaztatu ahal izan dugu aurreko kanpainan indusketaren ipar-ekialdean aurkitu eta dokumentatu genituen horma bularra eta harlanduzko horma bigarren eliza hau handitzeko obrari dagozkiola. Obra hartan eliza handitu egin zuten burualdetik, abside berri bat eraiki eta gurutzadura bat erantsi zioten. Ondorioz, oinplano angeluzuzena ez baizik eta gurutze latindarreko oinplanoa izango zuen aurrerantzean, tenpluak gaur egun duen luzera izango zuen orduan. Horma bularrak markatuko zuen elizaren hegoaldeko gurutzaduraren hasiera, itxura guztien arabera San Sebastianen irudi bat hartzen duen kaperako hormarekin bat egiten duena. Esanguratsua baita, esan dezagun kapera horren barruan egungo tenplua konfiguratzen duten argi baoak ez bezalako argi bao bat dokumentatu dugula erretaularen gibelaldean ezkutaturik. Gainera, kanpoko aldean, horma horri lotutako atalaren eta egungo elizari dagokion horma atalaren artean atzeraemangune bat ikusten da, eta varios rellenos de nivelación depositados en la nave meridional, algunos de naturaleza muy distinta, que se adosan al muro meridional del templo. Mediante el aporte de estos rellenos se salvó el desnivel, considerable, entre la nave central y la que sería la nave sur. Cabe recordar que las dos iglesias anteriores fueron construidas en una terraza superior y que la construcción del nuevo templo implicaba extenderse hacia el sur, obligando a elevar la cota de la terraza inferior para que todo el espacio interior de la nave quedara a una cota semejante. Y aunque no lo consiguieron del todo, porque hasta el siglo XVIII la nave sur estuvo a una cota inferior y el desnivel fue salvado mediante un peldaño, la solución adoptada permitió disponer de un templo más amplio.

La información que hemos podido recabar en esta última campaña es relativa al primero de los rellenos de nivelación, el más potente de todos los documentados, y a su efímero empleo como lugar de enterramiento durante el transcurso de las obras. En la superficie de este relleno hemos podido identificar un total de cinco enterramientos, inhumados en fosas de forma rectangular con los extremos redondeados. Cabe destacar que el individuo que ocupaba una de estas tumbas presentaba, a diferencia del resto, una posición *decúbito prono* con las extremidades inferiores flexionadas. La dificultad a la hora de identificar los cortes de la mayoría de estas tumbas, invitan a pensar que bien estos individuos fueron inhumados a la par que rellenaban la nave lateral sur, o bien este espacio no llegó a ser tan transitado como para que el sedimento se compactara lo suficiente. Tras la relativa pausa en las obras de este sector que parece denotar la práctica funeraria, tanto esta primera nivelación como los enterramientos fueron cubiertos por los sucesivos rellenos documentados en la cuarta campaña. Toda la obra de nivelación fue rematada mediante el suelo de losetas descrito en ocasiones anteriores.

Segunda mitad del siglo XIV, ampliación de la cabecera del templo intermedio y cementerio

Durante esta campaña hemos podido ahondar sobremanera en el conocimiento de la segunda iglesia construida en este mismo entorno. Así, por ejemplo, hemos podido comprobar que el muro de sillares y el contrafuerte documentado en una campaña anterior, localizado en la zona noreste de la excavación, corresponden a una ampliación de este edificio. Esta reforma consistió en la ampliación de la iglesia por la zona de la cabecera, mediante la construcción de un nuevo ábside y la adición de un transepto. De este modo, la iglesia pasó de tener una planta rectangular a una de cruz latina, adquiriendo la longitud que el templo tiene en la actualidad. El contrafuerte marcaría el inicio del transepto sur de la iglesia que parece se corresponde con el alzado de la capilla donde se encuentra una imagen de San Sebastian. De forma significativa, al interior de esta capilla se ha documentado un vano de luz diferente al resto de los que configuran el templo actual, oculto en la actualidad tras el retablo. Además, al exterior se observa un retranqueo entre el paño asociado a esta fábrica y el correspondiente a la iglesia actual, y la cimentación del contrafuerte y el paño asociado, están cortados

Ezkerrean, bigarren eliza handitzeko harlanduzko horman irekitako baoa, gaur egun erretaula baten gibelaldean ezkutatua. Eskuinean, goian, disko formako hilarria, XIV. mendeko testuinguruan berreskuratua, baina itxuraz berrerabilia eta aurreko hilobietatik etorria. Eskuinean, behean, XIII. mendeko okupazioarekin lotutako sutegietako batean berreskuratutako xafla esmaltatua.

A la izquierda, vano en la fábrica de sillería de la ampliación de la iglesia intermedia, oculto en la actualidad tras un retablo. A la derecha arriba, estela discoidal recuperada en un contexto del siglo XIV, pero aparentemente reaprovechada y procedente de enterramientos anteriores. A la derecha abajo, placa esmaltada recuperada en uno de los fuegos asociados a la ocupación del siglo XIII.

horma bularreko zimendua eta atxikiriko horma atala egungo tenplua eraikitzeko erretenak ebakita daude. Horregatik uste dugu kapera hori eraikitzeko obra ez datorrela egungo tenplua eraikitzeko unearekin bat, aurreko etapa batekin uztartzen dela, bigarren eliza gurutzadura batez eta abside batez hornitu zuten etaparekin. Harlanduaren erabilera dokumentatzen den aurreneko unea litzateke, baina hortik aurrera harlanduaren erabilera izango zen eraikuntza teknika nagusia, horma atal guztiak eraikiko zituzten kareharrizko harlandu horixkekin, piezak kareorez baturik. Indusketa lanetan agerian utzitako fase honetako zimenduen kasuan, hargin markak dokumentatu ahal izan dira, hots, hainbat «L» beste hainbeste posiziotan. Tenplua moldatzeko lan horiek eta aurreko etapa batean eraikitako harlangaitzezko horma lodiak eratuko zuten tarteko elizaren konfigurazioa bere azken etapan, eta konfigurazio horri eutsiko zion egungo tenplua eraiki arte.

Eliza handitzeko etapa horretan kokatzen dugu bigarren elizako nekropolia saneatzeko edo berdintzeko betegarrietako bat. Beste bost ehorzketa dokumentatu ditugu betegarri horretan. Lehen deskribatutakoak bezala, hobi bakuneko hilobiak dira, formaz angeluzuzenak eta muturrak biribilduta, Baina kasu honetan hilobi batzuek berrerabili egiten dituzte aurreko hilobietatik berreskuratutako alboko lauzak. Hilobi horietako batek ba-

por la zanja de construcción del templo actual. Por todo ello, creemos que la construcción de esta capilla no se corresponde con el momento de construcción del templo actual sino con una etapa anterior en la que la iglesia intermedia dotó de un transepto y un nuevo ábside. Sería el primer momento en el que se documenta el uso de la sillería, que en adelante se convertiría en la técnica constructiva predominante, siendo todos los paños construidos con sillares de caliza amarillenta trabados con argamasa. En el caso de las cimentaciones exhumadas en la excavación y correspondientes a esta fase, se han podido documentar marcas de cantero que consistían en una «L» dispuesta en diversas posiciones. Estas obras de reforma conformarían, junto con la gruesa fábrica de mampostería erigida en una etapa anterior, la configuración de la iglesia intermedia en su última etapa, que se extendió hasta la construcción del templo actual.

A esta etapa de ampliación hemos asociado también uno de los rellenos de saneamiento o nivelación de la necrópolis de la iglesia intermedia, en la que hemos documentado otros cinco enterramientos. Al igual que las descritas anteriormente, son tumbas de fosa simple de forma rectangular y extremos redondeados. Pero en este caso, algunas de las sepulturas reaprovechan las lajas laterales recuperadas de enterramientos anteriores. También cabe destacar que

tera ehortzitako bi banako hartu zituen, eta beste baten oinetan disko formako hilarri bat berreskuratu genuen. Bi aurpegietan gurutzeak dauzka ebakita hilarri horrek, eta segur aski aurreko ehorzketetan du jatorria.

XIII. mende amaiera-XIV. mendea, bigarren tenplua eta bere hilerria eraikitzeko lanak

Fase honetan kokatzen dugu bigarren tenpluaren eraikuntza, etapa horretakoa da lehen aipatu dugun horma, kareharri urdinxkako harlangaitz tamainaz ertain/handiez osatuta, harrien aurpegiak kareorez landuak. Eskura dauzkagun datuen arabera, oinplano angeluzuzeneko tenplua izango zen, burualdea ere angeluzuzena izango zuen seguruenik, baina ez dugu haren konfigurazio zehatza ezagutzen tenplua handitzeko obretan burualde hori ordezkatu egin zutelako. Esan beharra dago tenplu honen eraikuntzak zuzeneko eragina izan zuela goiko terrazara iristeko eskaileretan, izan ere, iparraldean ebaki egin zituzten aipatutako hormari leku egiteko, eta hegoalderantz eta mendebalderantz handitu zituzten eskailera horiek ongi landutako eta kareorez batutako bloke handien bidez, horrenbestez konfiguratu zuten bigarren tenplu honetan sartzeko baoa. Eskaileren ekialdean kareharrizko bi idulki dokumentatu ditugu, dirudienez eskaileraren ekialdean izango zen arkupea salatzen dute horiek. Arkupe horrek bigarren eliza horretako nekropoliaren zati zehatz bat estaliko zuen.

Azkenik, kanpaina honetan argi eta garbi identifikatu ahal izan dugu eliza honi atxikiriko nekropolia. Tenplua handitzeko etapan aipatutako bost hilobiek irudikatzen dute nekropoliko azken okupazio aldia. Aurrez diseinatutako hilerria da, hasteko mendebaldean saneamendu lan batzuk egin zituztelako alde horretan hezetasun handia metatzen zelako. Zirkunstantzia horretaz guztiz jabetuta, goiko terrazatik etorri eta eskailera azpitik azaleratzen ziren urak bideratzeko erreten sinple bat eraiki zuten. Behin alde hori saneatu ondoren, zenduei lur emateko erabili zuten alde hori behin eta berriz. Dokumentatutako 48 ehorzketek erakusten dute hilerri honetako okupazioaren dentsitatea, eta hilobi horiek tipologikoki askotarikoak direla esan behar dugu. Izan ere, hobi bakuneko hilobiak, lauzez egindakoak, lauzak eta estalkia dituztenak, burualdea duten hilobiak, buruari eusteko lauzez egindako belarriak dauzkaten hilobiak, burezurrak eta beste dokumentatu dira. Aniztasun horri gehitu beharko litzaizkioke hilarrien presentzia hipotetikoa, geroagoko ehorzketa batean berrerabilitakoa erakusgarri, eta beste ustezko hilarri zati batzuk, zenbait betegarritan aurkituak. Nekropoliaren erabilera planifikatua ez zen soilik aurrez egindako kanalizazio obretara edo espazio erabilgarria optimizatzera mugatu, espazioa aldian behin saneatzeko politika eraman baitzuten burura. Tokiko estratifikazioak horri buruzko lekukotasun argiak kontserbatzen ditu, eta guk dokumentatu ahal izan dugu nekropolia noizbehinka saneatzen zutela betegarriak eta karezko geruzak zabalduta.

Hilerriaren antolamenduak salatzen duen banaketaren arabera, igarobide bat izango zen aipatutako eskaileretara iristeko eta tenpluan sartzeko. Hala bada, argi eta garbi bereizten diren bi eremu antolatu ziren igarobidearen alde banatan:

una de estas tumbas albergó dos individuos enterrados a la vez, y que a los pies de otra se recuperó una estela discoidal. Se trata de una estela que cuenta con cruces incisas en ambas caras y que seguramente también procede de enterramientos anteriores.

Finales del siglo XIII-siglo XIV, construcción del templo intermedio y su cementerio

En esta fase encuadramos la construcción del segundo templo, al que asociamos el mencionado muro conformado por mampuestos de caliza azulada de mediano-gran tamaño con sus caras trabajadas con argamasa. Los datos con los que contamos apuntan a un templo de planta rectangular con la cabecera posiblemente rectangular, pero cuya configuración exacta desconocemos al ser reemplazada durante las obras de ampliación. De forma significativa, la construcción de este templo afectó a las escaleras de acceso a la terraza superior, que fueron cortadas al norte, para encajar el mencionado muro, y ampliadas hacia el sur y el oeste, mediante grandes bloques de arenisca bien labrados y trabados con argamasa, con los que se configuró el vano de acceso a este segundo templo. Al este de las escaleras se han documentado dos apoyos de piedra caliza, que parecen indicar la existencia de una zona porticada al este de la escalera, que cubriría una parte muy concreta de la necrópolis de esta segunda iglesia.

Finalmente, durante esta campaña hemos podido identificar con claridad la necrópolis asociada a esta iglesia, cuya última fase de ocupación está representada por los cinco enterramientos mencionados en la etapa de ampliación. Se trata de un cementerio de diseño racionalizado, que fue precedido por unas obras de saneamiento en la zona oeste, la que presenta mayor acumulación de humedad. Plenamente conscientes de esta circunstancia, construyeron una rudimentaria atarjea para encauzar las humedades provenientes de la terraza superior, que afloran por debajo de la escalera. Una vez saneado el lugar se procedió a enterrar en este espacio de forma recurrente. La densidad de ocupación de este cementerio la atestiguan los 48 enterramientos documentados, que representan una variabilidad tipológica notable. No en vano se han documentado tumbas de fosa simple, tumbas con lajas, tumbas con lajas y cubierta, tumbas con cabecera, tumbas con orejetas de lajas o cráneos. A esta variabilidad se sumaría la hipotética presencia de estelas como la reutilizada en un enterramiento posterior y aparentes fragmentos de otras, recuperados en varios rellenos. El uso planificado de la necrópolis no solo se hizo extensible a las obras de canalización previas o a la optimización del espacio disponible, sino también a una política de saneamiento periódica. La estratificación del lugar guarda claros testimonios al respecto, y hemos podido documentar que cada cierto tiempo sanearon la necrópolis mediante el aporte de rellenos y suelos de cal.

La organización del cementerio evidencia una distribución espacial mediada por una zona de paso asociada a las mencionadas escaleras y el consiguiente acceso al templo. Así, se aprecian dos zonas claramente diferenciadas a ambos lados del paso:

– Alde batetik, erdialdea/ekialdea, ehorzketa kopuru handiena hartzen duena, guztira 36 hilobi. Hilobi horietako batzuetako betegarrietan kronologia desberdineko txanponak berreskuratu genituen, XII. mende hasieratik XIV. mendera arteko txanponak. Gehienak Gaztelako erregeen (Alfontso X.a, Antso IV.a, Fernando IV.a, Endrike II.a) ondoz ondoko erregealdiekin daude lotuta, baina bada bat Nafarroako errege baten (Felipe I.a) erregealdiari dagokiona eta beste bat, oso egoera txarrean, Nafarroako/Aragoiko errege baten (Alfontso I.,a) erregealdiari dagokiona.
– Beste aldetik, mendebaldea, alde horretan zazpi ehorzketa baizik erregistratu ez genituela. Alde honetan aipatzekoa da aurreko kanpainetan erromatartzat identifikatu genuen hilarria zuen hilobia. Hilarri hori oraindik ere azterketa fasean dago, eta beraz, baliteke erromatarren osteko kronologia izatea. Hilobi hori sarritan berrerabili zuten, eta ondoz ondo jarri zituzten betegarrietan berreskuratutako txanponek egiaztatzen dute gune honi nekropoli erabilera eman ziotela XII. mendetik (Aragoiko eta Nafarroako Alfontso I.a) XIV. mendera arte (Gaztelako Fernando IV.a).

Ehorzketen hierarkizazio espazial horrek bat egiten du alde hau espazio berezitua izan zela berresten duten beste aztarna batzuekin. Espazioaren bereizketa horretan berebiziko rola jokatzen du aurreko kanpainetan aurkitutako hilarri berrerabiliarekin lotzen den hilobiak, itxura guztien arabera hilobi pribilegiatu deritzona dena. Hilobi hori eraikitzeko eten egin behar izan zituzten gune partekatuan bideratzen ziren ehorzketak, beste sei hilobiak lehenagokoak direlako eta ondoren besterik induskatu ez zutelako. Lehen aipatu dugun arkupea ere testuinguru horretan eraiki zuten, hilobiari babesa emanez, behin eta berriz erabiliz denboran luzatu egin baitzen hilobiaren erabilera. Hilobia iraunarazteko borondate hori argi eta garbi islatzen da hura eraikuntza egitura batez kontserbatzeko ekintzetan, egitura hori burura eraman zutela salatzen baitute aipatutako txanponek eta betegarrietan bereizitako hezurrezko material bolumen handiak.

XIII. mendea, etxeko gunea eta ekoizpen gunea

XIII. mendean zehar, bigarren tenplua eraiki aurretik, guztiz eraldatu zuten ingurunea, hilerri erabilera emateari utzi zioten etxeko erabilera eta artisautza erabilera emateko. Espazio honetako hileta funtzioetan hiato bat irudikatzen duten jarduera horiek ere bi gune berezituetan eraman ziren burura. Hala bada, mendebaldean egokitu zen etxeko gunea, eta erdialdean eta ekialdean artisautza lanei emandakoa.

– Mendebaldean erretako buztinezko zoru bat dokumentatu genuen mendebaldeko bi paldo zulorekin eta iparraldeko sutegi batekin lotuta. Hegoaldean harri angeluzuzen bat dokumentatu genuen goiko aurpegia leunduta zuela, baliteke aurreko fasean alde hori berdintzeko horman bideratutako balizko moldaketa batekin (alde honetara iristeko bao bat irekitzeko) zerikusia izatea. Zoru horren ekialdean beste gune bat zabaltzen da, baina soilik zokalo txiki baten aztarnak kontserbatu dira. Zokaloa harri txikiekin eta kareorearekin eginda dago, eta ustez iparraldetik he-
– La zona centro-este, que es la que aglutina la mayor parte de los enterramientos, un total de 36 tumbas. En los rellenos de algunas de estas tumbas se han recuperado monedas de diversas cronologías que van desde inicios del siglo XII al siglo XIV. La gran mayoría están relacionadas con los reinados de sucesivos reyes castellanos (Alfonso X, Sancho IV, Fernando IV, Enrique II), aunque una de ellas corresponde al reinado de un rey navarro (Felipe I) y otra, residual, al de un rey navarro-aragonés (Alfonso I).
– La zona oeste, donde solamente se han registrado siete enterramientos. En esta zona destaca la tumba que contaba con la lápida que identificamos como romana en campañas anteriores, pero cuyo estudio sigue en la actualidad, abriendo la posibilidad a su adscripción a una cronología posterior. Esta tumba fue intensamente reutilizada y en los sucesivos rellenos se han recuperado monedas que acreditan el empleo de este espacio como necrópolis desde principios del siglo XII (Alfonso I de Aragón y Navarra) hasta el siglo XIV (Fernando IV de Castilla).

Esta jerarquización espacial de los enterramientos, se une a otras evidencias que avalan que la zona fue un espacio diferenciado. En esta segregación espacial juega un papel esencial la tumba asociada a la lápida reutilizada que se descubrió en anteriores campañas y que a todas luces responde a lo que se conoce como enterramiento privilegiado. Su construcción supuso la interrupción de las prácticas funerarias en un espacio compartido, ya que las seis tumbas restantes son anteriores, y posteriormente no se excavó ninguna otra. La construcción del pórtico que señalábamos también se produce en este contexto, dando abrigo a esta tumba cuyo uso se prolongó en el tiempo mediante su continua reutilización. Esta voluntad de persistencia queda evidenciada por las actividades encaminadas a su conservación mediante una estructura constructiva, y fue consumada tal y como evidencian las monedas aludidas y el gran volumen de material óseo depositado en sus rellenos.

Siglo XIII, espacio doméstico y productivo

A lo largo del siglo XIII, y antes de la construcción del segundo templo, la zona sufrió una gran transformación, cesando su uso como cementerio y dando paso a actividades de ámbito doméstico y artesanal. Estas actividades, que representan un hiato en las funciones funerarias de este espacio, se desarrollaron también en dos espacios segregados. Así, el espacio doméstico se situó en la zona occidental y la zona artesanal en el espacio central y oriental.

– En la zona occidental se ha documentado un suelo de arcillas quemadas, asociado a dos agujeros de poste localizados al oeste, y a un hogar dispuesto al norte. Al sur se ha documentado una piedra rectangular con la cara superior pulida, relacionada con una posible reforma en el muro de aterrazamiento de la fase anterior, con objeto de dotar de un vano de acceso a este espacio. Al este de este suelo se abre otro espacio del que solo se han conservado los restos de un pequeño zócalo realizado con pequeñas piedras y argamasa, hipotéti-

goaldera eta ipar-ekialdetik hego-mendebaldera apur bat inklinatuta antolatutako egituraren batekin dago lotuta. Egitura horren alde banatan, zanpatutako buztinezko zoru baten arrastoak kontserbatzen dira. Bi alde horien artean espazio ireki bat dago, igarobidea izan daiteke, sarrera egiten baitio orduan lehenengo tenplua egongo zen goiko terrazara iristeko eskailerari.

– Erdialdean, zokaloaren ekialdean, guztira lau errekuntza egitura txiki dokumentatu ditugu, zirkularrak edo arrautza formakoak. Erretako buztinezko geruza batez daude osatuta, gainjarritako errekuntza hondakinak dauzkate, eta zuzenean antolatu zituzten arrokaren eta buztin naturalen gainean.

– Ekialdean beste bi errekuntza egitura dokumentatu genituen, hauek handiagoak. Sutegi zirkularra da bata, erretako buztinez dago osatuta, eta errauts eta ikatz hondakinak dauzka. Egitura horren iparraldean beste bat dokumentatu genuen, formaz angeluzuzena, mendebaldeko muturra biribilduta, paretak erreta. Alde hau ez da horren ongi kontserbatu, gerora bideratutako ehorzketa kopuru handiak nabarmen nahasi duelako. Hala eta guztiz ere, azken egitura horretan luxuzko artelan baten hondakinak berreskuratu ditugu. Champleve deritzon teknikaz esmaltaturiko xafla bat da, agian kutxatila edo erlikia ontzi bati legokiokeena. Halako obrak batez ere Limogeseko tailerretatik etorriak dira. Hala eta guztiz ere, arrakastatsuak gertatu zirenez eta ondorioz gehiago ekoizten hasi zirenez, XIII. menderako produktu aski irisgarria zen Europa mailan.

XI. mende amaiera-XIII. mendea, lehenengo tenplua eta bere hilerria

Azken indusketa honen ekarpenetako bat espazioen artikulazioarekin eta ingurune honen jatorrizko orografiarekin dago lotuta. Lehen ere aurreratu dugun bezala, denbora tarte honetan ondoz ondoko terrazetan antolatutako lekua zen. Goiko terraza jada hirugarren kanpainan dokumentatu ahal izan genuen, eta azken esku hartze honetan beheko terraza bat definitzen zuen horma egitura baten hondakinak dokumentatu ahal izan ditugu. Egitura hori tenpluaren hegomendebaldeko izkinan dago, eta tenpluko zimenduen azpitik luzatzen da hegoalderantz. Ekialdetik mendebalderako norabidea duen horma da, tamaina txikiko hareharrizko eta kareharrizko harlangaitzez egina, piezak ia landu gabe daudela, baina kareore horixkaz batuta. Egitura horrek, alde hori berdintzeko hormatzat hartuak, terraza honen hedadura definituko zuen hegoalderantz, eta bere hilerri erabilera mugatuko zuen.

Lehen une honetako beste egitura bat goiko terrazara iristeko eskailera da, terraza horretan eraiki zuten lehenengo eliza. Aurreko kanpainetan bi eraikuntza etapa bereizi ez bagenituen ere, azterlan sakonago bati esker bereizi ahal izan dira lehen une honetako eskailerak hurrengo faseko eskaileretatik. Zehazki, tokiko kareharri urdinxkan landutako bi eskailera maila kontserbatzen dira, tamainaz ertainak, aurpegiak ongi

camente relacionado con alguna estructura dispuesta en dirección norte-sur con ligera inclinación en sentido noreste-suroeste. A ambos lados de la estructura se conservan sendos restos de un suelo de arcillas apisonadas. Entre estas dos zonas hay un espacio abierto que se podría interpretar como zona de paso, ya que da acceso a la escalera que comunica con la terraza superior, donde se localizaría entonces el primer templo.

– En la zona central, inmediatamente al este del zócalo, hemos documentado un total de cuatro pequeñas estructuras de combustión de forma circular u ovalada. Están compuestas por una capa de arcillas quemadas, con restos de combustión superpuestos, y fueron dispuestas directamente sobre la roca y las arcillas naturales.

– En la zona oriental se localizan otras dos estructuras de combustión de mayor entidad. Se trata de los restos de un hogar circular, compuesto por arcillas quemadas y restos de cenizas y carbones. Al norte de esta estructura se documentó otra de forma rectangular con el extremo oeste redondeado, presentando las paredes quemadas. En esta zona la conservación ha sido peor, ya que ha sido alterada de forma significativa por la densidad de enterramientos posteriores. Sin embargo, en esta última estructura hemos recuperado los restos de una obra de arte suntuario. Se trata de una placa que fue esmaltada siguiendo la técnica champlevé y que podría corresponder a una arqueta o relicario. Este tipo de obras parecen proceder principalmente de los talleres de Limoges. Sin embargo, gracias a su éxito y el consiguiente incremento de la producción, hacia el siglo XIII era un producto relativamente accesible a nivel europeo.

Siglos finales del s XI-XIII, el primer templo y su cementerio

Una de las aportaciones de esta última excavación es relativa a la articulación de los espacios y a la orografía originaria del este entorno. De forma que, como ya hemos adelantado, durante este periodo era un lugar organizado en sucesivas terrazas. Si bien la existencia de una terraza superior la pudimos documentar ya desde la tercera campaña, en esta última intervención hemos podido documentar los restos de una estructura muraria que definiría una terraza inferior. Esta estructura está localizada en la esquina suroeste del templo y continúa bajo los cimientos del templo en dirección sur. Se trata de un muro orientado en sentido este-oeste y realizado con mampuestos de piedra arenisca y caliza de mediano tamaño, apenas trabajados pero trabados con argamasa amarillenta. Esta estructura, interpretada como muro de aterrazamiento, definiría la extensión de esta terraza hacia el sur y delimitaría su uso como cementerio.

Otra estructura correspondiente a este primer momento es la escalera que daba acceso a la terraza superior, donde fue construida la primera iglesia. Aunque en anteriores campañas no llegamos a diferenciar dos etapas constructivas, un estudio en mayor profundidad ha permitido diferenciar las escaleras de este primer momento de las de la fase posterior. En concreto, persisten dos peldaños realizados en

landuak eta kareorez batuak. Eskailera horretatik kontserbatu den tarte hori iparraldetik hegoalderako norabidean dago antolatuta, eta itxura batean alboko sarrera izan zen.

Lehen ere azaldu dugun bezala, terraza horri hilerri erabilera eman zioten lehenengo etapa honetan, eta beraz, funtzio horietan parekatu egiten da aurreko kanpainetan goiko terrazan dokumentatutako guneekin. Kasu honetan, lurra xede horretarako prestatzeko, tonalitate iluneko lur buztintsua gaineratu zuten, eta geruza horretan bost hilobi dokumentatu ahal izan ditugu. Horietako lau aztertutako eremuaren mendebaldean daude, bakar bat induskatu zuten ekialdean. Apalagoa bada ere, fase honetan ere halako aniztasun tipologikoa bereizten da, hilobi batzuek lauzak eta estalkia dituztelako eta beste batzuk forma antropomorfoa duten hobi bakunak direlako. Hilobien egokierak adierazten du hileta gunearen antolamendu zehatzik ez zegoela, izan ere, elkarren artean ebakitzen dira hilobi batzuk. Kronologiari dagokionez, Aragoiko eta Nafarroako errege Alfontso I.aren garaiko txanpon bat dugu, hilobietako batean aurkitua, XII. mende hasierako *post quem* kronologia eskaintzen duena. Geroagoko hilobietan berreskuratu diren errege horren erregealdiko beste txanponak aldi honetako hilobietako jatorrizko betegarrietan egongo ziren, eta berriz gertatuko ziren ondorengo betegarrietan, alde hau behin eta berriz erabili bai-tzuten zenduei lur emateko.

piedra caliza azulada local, de tamaño mediano y caras trabajadas, trabadas con argamasa. Este tramo conservado de escalera presenta una orientación norte-sur y aparentemente fue de acceso lateral.

Tal y como ya hemos comentado, esta terraza también tuvo un uso como cementerio en esta primera etapa, uniéndose en estas funciones a los espacios documentados en la terraza superior en campañas anteriores. En este caso, la preparación del terreno para estos fines consistió en el aporte de una tierra arcillosa de tonalidad oscura en la que se han podido documentar cinco enterramientos. Cuatro de ellos se localizan en la zona oeste de la intervención y tan solo uno de ellos fue practicado en la zona este. Aunque menor, en esta fase también existe cierta variabilidad tipológica, ya que algunas tumbas presentan lajas y cubierta, mientras otras consisten en fosas simples de forma antropomorfa. La disposición de los enterramientos indica que no existía una organización definida del espacio funerario, dado que varias de las tumbas se cortan entre sí. En cuanto a la cronología, contamos con una moneda de Alfonso I de Aragón y Navarra, recuperado en una de las tumbas y que ofrece una cronología *post quem* de inicios del siglo XII. El resto de monedas asociadas a este monarca que se han recuperado en enterramientos posteriores, corresponderían a los rellenos originarios de las tumbas de este periodo, habiendo sido redepositadas en rellenos posteriores como consecuencia de la reocupación sucesiva de este entorno con fines funerarios.

S. Escribano Ruiz; D. Martínez Izquierdo

A.19. NAVARIDAS

A.19.1. Castejón Garaia herrixka

Zuzendaritza: José Manuel Martínez Torrecilla
Finantzazioa: Navaridasko Udala

A.19.1. Poblado del Alto de Castejón

Dirección: José Manuel Martínez Torrecilla
Financiación: Ayuntamiento de Navaridas

During the archaeological excavation carried out on the high part of the hill, in the site occupied by the First Iron Age settlement known as Alto de Castejón, the two sondages dug in previous years (labelled 3A and 3E) were enlarged. Work also continued on analysing the materials and information recovered during previous interventions. Various phases of occupation have been established, all linked to the First Iron Age.

Castejón Garaia herrixkan esku hartzeko proiektuaren testuinguruan, Navaridasko udalerrian, handitu egin genituen aurreko urteetan muinoaren gailurrean ireki genituen zundaketetatik bi (3A eta 3E izenekoak), herrixkaren alde honetako okupazioari buruzko informazioa osatu ahal izateko.

3A zundaketa erdialdean dago, mesetaren iparekialdeko muturraren baitan. 2011. urtean bideratutako lehenengo esku hartzean hasi ginen induskatzen, eta helburua zen muinoaren gailurrean egiturarik ba ote zegoen egiaztatzea eta, hala izatera, haren

En el contexto del proyecto de actuación en el poblado del Alto de Castejón, en el municipio de Navaridas, se ampliaron dos de los sondeos (los denominados 3A y 3E) que habían sido abiertos en años anteriores en la parte más alta del cerro, con el fin de poder completar la información sobre la ocupación de esta parte del poblado.

El sondeo 3A se encuentra en una posición central dentro del extremo noreste de la meseta. Se inició durante la primera intervención, realizada en 2011, que tuvo como finalidad documentar la existencia de

kontserbazio egoera aztertzea. Zundaketa hartan bi egitura dokumentatu genituen, oinplano kurbatuko hormekin eta errekuntza biziaren arrasto agerikoekin, inguruan metatutako errauts hondakin ugariek salatzen duten bezala.

2015eko esku hartzean 6 x 5 m-ra handitu genuen hasieran 4 x 4 metrokoa zen zundaketa. Horri esker, bi txabola dokumentatu ahal izan genituen: bata oinplano zirkularrekoa, azken erabilera uneari legokiokeena, eta bestea oinplano angeludunarekin, ageriko izkina biribilduta, sute batek hondatua eta bere adobezko holtzetik behera etorritako hondakinez amortizatua, arestian aipatutako txabola eraiki aurretik.

Kanpaina honetan bideratutako esku hartzean berriz ere handitu dugu zundaketa hego-mendebalderantz eta ipar-mendebalderantz, 3 m zabalerako zerrendekin. Beraz, une honetan 8 x 9 m-ko neurriak ditu zundaketak.

Esku hartze horri esker, 4 okupazio aldi bereizi ahal izan dira:

– Lehen fase batean oinplano angeluduneko txabola bat eraiki zuten. Baliteke txabola zirkularraren azpian erabat induskatu ez diren azpiko egituretako batzuekin bat etortzea.

– Txabola angeluzuzena erre eta behera etorri zen fasea. Ez dakigu zer ondorio izan zituen gero txabola zirkularrak hartuko zuen lekuan.

– Txabola angeluzuzenak okupatutako espazioa eta ingurua buztin horixkekin berdintzeko geruza eta txabola zirkularraren eraikuntza, harrizko zokaloarekin eta bajareke deritzon paretekin.

– Txabola zirkularreko pareten desmuntatze partziala (hondakinak barruko zorua berdintzeko erabili zituzten), haien ordez paldoak jartzeko perimetroan eta hesolak barruan, landarezko holtzei eusteko. Une horretakoak izan daitezke txabolaren inguruan dokumentatutako paldo zulo ugari, alde honetako azken okupazioari legozkiokeenak.

Indusketa lanen garapenari dagokionez, kanpaina honetan, azaleko mailaren eta laborantza lurrari lotutako depositu baten azpian, paldo zulo batzuk dokumentatu genituen, eta erreten bat zundaketaren hego-mendebaldean. Erreten horretako betegarria zabor isuriez osatua da, eta zeramikazko material kopuru garrantzitsua berreskuratu genuen hartan. Paldo zulo horiek guztiak aurreko indusketa kanpainetan induskatutako txabola zirkularraren azken fasearekin lotzen ditugu.

Baina batez ere lehenengo faseari dagokion txabolan jarri dugu arreta, oinplano angeluzuzena eta izkina biribilduak dituen txabolan, eta haren sute eta amortizazio faseetan. Sekuentzian garrantzizko aldaketarik izan ez bada ere, eraikin horren oinplano osoa eta osatzen zuen egitura zehaztu ahal izan dugula esan behar dugu.

Egitura angeluzuzena da, ipar-ekialdetik hego-mendebaldera egokitua, ipar-ekialdeko paretako izkinak biribilduta dituela. Harlangaitzezko eta orri bakarreko paretak mugatzen du oinplanoa, hego-mendebaldetik irekitako ferra formakoa, non itxitura

estructuras y su estado de conservación en la parte alta del cerro. En este sondeo se documentaron dos estancias con muros de planta curva y signos evidentes de una fuerte combustión, como reflejan los abundantes restos de cenizas acumuladas en su entorno.

En la intervención de 2015, el sondeo fue ampliado de su tamaño inicial de 4 x 4 m hasta los 6 x 5 m. Quedaron entonces definidas dos cabañas: una de planta circular, que correspondía al momento de uso más reciente y otra de planta angular con la esquina visible redondeada, que quedó destruida por un incendio y amortizada por los restos de sus propios alzados de adobe y tapial, antes de la construcción de la anteriormente citada.

La intervención que se ha realizado en esta campaña ha supuesto una nueva ampliación del sondeo hacia el suroeste y hacia el noroeste, con unas bandas de 3 m de anchura, con lo que presenta actualmente unas dimensiones de 8 x 9 m.

Con dicha intervención quedaron establecidas 4 fases de ocupación:

– Una fase inicial en la que se construye una cabaña de planta angular, que puede coincidir con algunas de las estructuras sudyacentes y no completamente excavadas bajo la cabaña circular.

– Una fase de incendio y derrumbe de la cabaña rectangular, que desconocemos como afectaría a la zona ocupada después por la cabaña circular.

– Nivelación con arcillas amarillas, posiblemente restos de las estructuras anteriores, del espacio ocupado por la cabaña rectangular y su entorno y construcción de la cabaña circular con zócalo de piedra y alzado de bajareque.

– Desmontaje parcial de los muros de la cabaña circular, cuyos restos se utilizaron para nivelar el interior, sustituidos por postes para el perímetro y estacas al interior para sujetar tabiques vegetales. A este momento pueden corresponder numerosos postes documentados en el entorno de la cabaña como parte de la última ocupación de la zona.

En cuanto al desarrollo de los trabajos de excavación, en esta campaña, bajo el nivel superficial y un depósito asociado con terreno de cultivo, hallamos una serie de agujeros de poste, así como una zanja en el extremo SW del sondeo, cuyo relleno consideramos como los vertidos de un basurero, donde se recogió un importante número de material cerámico. Todos estos postes se asociarían a la última de las fases de la cabaña circular excavada en las anteriores excavaciones.

Pero la intervención se ha concentrado fundamentalmente en la cabaña de planta rectangular con esquinas redondeadas correspondiente a la primera fase y a su incendio y amortización. Si bien la secuencia no ha sufrido variaciones de importancia, sí ha podido determinarse la planta completa de la estancia y la estructura que la componía.

Ha quedado definida como una estructura rectangular con orientación NE-SO, con las esquinas situadas en la pared NE redondeadas. La planta está delimitada por un muro de mampostería irregular de una

Argazkiak Castejón Garaiko 3A (ezkerrean) eta 3E (eskuinean) zundaketetan egindako indusketen azken egoera azalduz.

Fotografías con el estado final de las excavaciones realizadas en los sondeos 3A (a la izquierda) y 3E (a la derecha) del Alto de Castejón.

osatuko zuten paldo batzuk egokituko ziren. Egituraren alboko bi paretak loditu egiten dira barruko aldera, progresiboki, adobezko banku luzearen bidez. Buztinezko geruza mehe batez osatuta dago zorua, eta buztinezko beste geruza batek estaltzen ditu iparekialdeko harlangaitzezko horma eta bi alboetako banku luzeak.

2015ean induskatutako aldean dokumentatutako sutea egonleku osora hedatu zela egiaztatu genuen. Aleak biltegiratzeko ontzi handi batzuk berreskuratzen jarraitu genuen, aurreko kanpainan partzialki berreskuratu baikenituen, eta edalontzi leundu asko, txikiagoak baina.

Hego-mendebaldera egonlekuaren amaiera identifikatu genuen, baina beste hiru aldeetan ez bezala, paretez ez baizik eta zurezko paldoez osaturiko itxitura zen; beraz, baliteke etxeak jarraipena izatea alde horretan, baina izatekotan, bereizitako gela baten bidez luzatuko zen.

3E zundaketa mesetaren hego-ekialdean dago, goiko gune lauak eta hegalaren hasierak bat egiten duten puntuan. 2011ko kanpainan 6 x 4 metroko zundaketa bat induskatu genuen goiko mesetaren beheko terrazan. Jarduera antropikoaren aztarnak aurkitu genituen, baina guztiz suntsituta. Ustezko sutegi baten hondakinez eta errautsez ari gara, eta geruza naturalean egindako bost ebakiz, horietako hiru segur aski paldo zuloak direla.

Aurtengo esku hartzean zundaketaren 4 metroko zabalera ipar-mendebaldera handitzeko proposamena egin zen goiko aldearen eta beheko terrazaren arteko trantsizio gunea barruan hartzeko. Era berean, hego-ekialdera handituko genuen beheko terraza alde horretatik ixten zuen horma bat dokumentatzeko eta dagokion sekuentzian kokatzeko.

Lan horiei esker osatu egin dugu informazioa, eta guztira sei eraikuntza fase identifikatu ditugu.

1. fasea

Geruza naturalean paldo zulo bat eta ebaki txiki bat egin zuten. Biak dira aztarna zaharrenak, eta biak amortizatu zituen geroagoko zoru batek. Zoru hori hartzen zuen egonlekuan adobezko pareta bat eta

sola hoja, con planta de herradura abierta por el SO, donde se disponen una serie de postes que conformarían este cierre. Los dos muros laterales de la estructura se engrosan hacia el interior, progresivamente, mediante un banco corrido de adobe. El suelo está formado por un fino manteado de arcilla que se levanta revistiendo el muro de mampostería en el cierre noreste y los bancos corridos en los dos laterales.

Se comprobó que el incendio documentado en la parte excavada en 2015 se extendía a toda la estancia, donde se continuó con la recuperación de varias grandes vasijas de almacenaje, ya parcialmente recogidas en la campaña precedente, y de numerosos vasos bruñidos de menor tamaño.

Al suroeste, se identifico también el final de la estancia, pero al contrario que en los otros tres laterales, en este caso se trataba de un cierre formado por postes de madera y no por muros, lo que puede suponer que la casa tuviese continuidad hacia ese lado, pero en una estancia separada.

El sondeo 3E se sitúa en el lateral sureste de la meseta, en el punto en el que confluyen la zona plana superior y el inicio de la ladera. En la intervención de 2011 se excavó un sondeo de 6 x 4 metros en la terraza inmediatamente inferior a la meseta alta. Se hallaron indicios de actividad antrópica, aunque muy arrasados. Se trata de los restos de un posible hogar y cenizas, así como cinco cortes en el sustrato natural, tres de ellos posiblemente agujeros de poste.

En la intervención de este año se propuso una ampliación del sondeo hacia el noroeste en los 4 m de anchura que presenta, integrando la transición entre la zona alta y la terraza inferior, y también hacia el sureste, para documentar y situar en la secuencia un muro que cerraba la terraza inferior por ese lado.

Estos trabajos nos han permitido completar la información, pudiendo identificar un total de seis fases constructivas.

Fase 1

En el sustrato natural se ejecutaron un agujero de poste y un pequeño rebaje. Ambos son los vestigios más antiguos y fueron amortizados por un suelo posterior que formaba parte de una estancia de la que

egitura indartzeko armazoiari eutsiko zioten paldoei zegozkien zulo batzuk dokumentatu genituen. Egitura horri lotuta, sutegi xafla baten aztarnak eta paldo zulo bat dokumentatu genituen.

2. fasea

Bigarren okupazio aldiari dagokio, zundaketaren ipar herenean dokumentatuari. Zoruaren eta sutegi xaflaren gainean harlangaitzezko pareta apur bat kurbatua altxatu zuten. Hormari atxikita, aurreko faseko aztarnak partzialki estaltzen zituen buztinezko zoru horixka, zanpatua, egokitu zuten.

3. fasea

Aurreko faseetako egiturak kolapsatu ziren, gertaera horrekin lotutako betegarrietan eta behera etorritako piezetan dokumentatzen denez.

4. fasea

Berriz ere konfiguratu zuten espazioa, erabilera maila bat moldatu zuten. Zoru bat sortu eta paldo zulo batzuk egin zituzten zundaketaren ipar herenean.

5. fasea

Fase honetan kokatzen ditugu protohistoriako azken ekintzak. Harlangaitzezko horma bat eraiki zuten mendi hegaleko ebakiaren gainean. Amortizatu zituzten aurreko faseko paldo zuloak zorua berdinduta, eta horrenbestez sortu zen beste espazio erabilgarri bat hormari atxikita. Zoruaren maila berdintzeko betegarri horiek suaren arrasto agerikoak zituzten deposituez osatuta zeuden, depositu horiek muinoaren hegoaldeko hegalaren goiko aldea egokitzeko eta zoru bat izateko zabaldu zituzten, baina aspaldi ez dela suntsituta gertatu zen zoru hori laborantza lanen ondorioz.

6. fasea

Une honetakoak dira dokumentatutako azken jarduera antropikoak. Muino hegalaren gainazalean, bi depositu osatutako lehenengo terraza sistema dokumentatzen da. Geroago bigarren sistema bat sortu zuten terraza antolatzeko ebaki bat eginda, eustorma bat altxatuta eta horma hori finkatzeko betegarria zabalduta.

también documentamos un muro de adobe y una serie de agujeros de los postes de un armazón de refuerzo. Asociada a esta estructura se excavaron los restos de una placa de hogar sobre el suelo y un agujero de poste asociado a ella.

Fase 2

Se corresponde con el segundo momento de ocupación, documentado en el tercio norte del sondeo. Apoyado sobre el suelo y la placa de hogar, se colocó un muro de mampostería ligeramente curvado. Adosado a él, un suelo de arcilla amarillenta prensada que cubría parcialmente las evidencias de la fase anterior.

Fase 3

Se produce el colapso de las estructuras de las fases precedentes, documentando rellenos y derrumbes asociados a este evento.

Fase 4

Se reconfigura de nuevo el espacio, acondicionando un nivel de uso. Se creó un suelo y se ejecutaron una serie de agujeros de poste en el tercio norte del sondeo.

Fase 5

En esta fase se registran las últimas acciones de época protohistórica. Se levantó un muro de mampostería sobre el corte de ladera. Se amortizaron los agujeros de poste de la fase anterior con una nivelación que creó un nuevo espacio de uso asociado al muro. Esta nivelación se componía de una serie de depósitos con claros indicios de exposición al fuego, aportados para adecuar la zona superior de la ladera sur del cerro y disponer un suelo que fue arrasado por actividades de cultivo en época reciente.

Fase 6

A este momento corresponden las últimas actividades antrópicas documentadas. Se constata un primer sistema de terrazas formado por dos depósitos sobre la superficie de la ladera. Posteriormente se creó un segundo sistema formado por un corte para la terraza, un muro de contención y el relleno para su asiento.

J.M. Martínez Torrecilla; B. Renedo Villarroya

A.20. **OYÓN / OION**

A.20.1. LABRAZAKO HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO DE LABRAZA

A.20.1.1. **Concepción kalea, 8**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Mª Blanca eta Mª Begoña Bujanda

A.20.1.1. **Concepción, 8**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Mª Blanca y Mª Begoña Bujanda

Archaeological intervention in the lower-ground floor of the building located at num. 8 Concepción Street, in the Historic Quarter of Labraza. The intervention uncovered the remains of a corner section of a wall built on the bedrock, of which only a single stretch has been preserved. It also uncovered a masonry press from the modern era, which had been dismantled to create an entranceway from the lower-ground floor to the underground wine cellar, blocking a pre-existing passageway. The remains are the only surviving elements of the dwelling that stood on the site prior to the current one, which was built in 1940 and has since undergone two major renovations.

Labraza hiriko Hirigune Historikoko Concepción kaleko 8. zenbakiko eraikineko erdisotoan bideratutako esku hartze arkeologikoa. Etxebizitza familiabakarra da, 1940an eraikia, baina lehenagoko etxe baten gainean dago jasota, elkarren ondoan dauden bi lursailak elkartu zituztenean. XX. mendeko 60. urteetan eta 90. hamarkadaren erdialdeko urteetan berritu zuten. Eraikinean egin beharreko obren arabera, beheko solairua berritu eta sotoa moldatuko zuten, eta ondorioz, lanei ekin aurretik bi zundaketa induskatzea planteatu zen, eta ondorengo lanen gaineko kontrol arkeologikoa egitea. Aurreikusitako zundaketek 1,5 metroko aldea izango zuten, eta erdisotoan egin beharreko harroinak hartuko zituzten puntu guztietan egingo ziren.

1. zundaketan, egungo lurrezko zoruak estalita, forma irregularreko eta tamaina askotako kareharriez osatutako harrizko zoladura bat identifikatu genuen. Harri txiki batzuk eta adreilu trinkoen zati batzuk zeuzkan ziri gisa. Harrizko zoladura hori berdintzeko eta goratzeko betegarriaren (lur ehunduraz hareatsuaz osatua, trinkotasun txikiarekin, tamaina askotako harri askorekin, formaz angelutsuak, zenbait kronologiatako objektuekin) azpian izkina egiten zuen horma egitura baten hondakinak aurkitu genituen. Errenkada bakarra kontserbatzen zuen hormak, eta zuzenean hartzen zuen atseden arroka naturalaren gainean. Hormaren ondoan sakonera apaleko ebaki bat identifikatu genuen, oinplanoan joera zirkularreko forman induskatua, pendiz ahurrarekin. Nolanahi ere, oso irregularra zen haren profila, eta beraz, kubetatzat hartzerik ere ez zegoen.

2. zundaketan bi unitate estratigrafiko dokumentatu ahal izan genituen: zorua osatzen zuten karezko, zementuzko eta hormigoizko zoru multzoa, erdisotoko alde honetan ondoz ondo bideratutako konponketekin, eta zorua berdintzeko eta goratzeko betegarria, tamaina askotako harri forma angelutsuez osatua, harriak zoruko hormigoiarekin berarekin batuak; oso trinkotuta egonik, ezin izan zen guztiz desagerrarazi. Obren gaineko kontrol arkeologikoko lanetan dokumentatu ahal izango genuen puntu honetan zorupeko estratigrafia bere osotasunean.

Intervención arqueológica desarrollada en el semisótano del edificio de la c/ Concepción, 8, dentro del Casco Histórico de la villa de Labraza. Se trata de una vivienda unifamiliar cuya construcción data del año 1940 y estaría construida sobre una anterior, unión de dos parcelas contiguas. Fue objeto de reforma en la década de los años 60 del siglo XX y también a mediados de los años 90. Las obras en el edificio comprendían la reforma de la planta baja y el acondicionamiento del sótano para lo que se planteó la excavación de dos sondeos previos y un control arqueológico de los trabajos posteriores. Los sondeos previstos tenían unas medidas de 1,50 m de lado, uno en cada uno de los puntos donde iban a asentarse las zapatas a ejecutar en el semisótano.

En el sondeo 1 se localizó, cubierto por la solera de tierra actual, un empedrado compuesto de piedras calizas de formas irregulares y tamaños diversos. Contaba con pequeñas piedras y fragmentos de ladrillo macizo a modo de ripios. Bajo el relleno de recrecimiento y nivelación de este empedrado, compuesto de tierra de textura arenosa, poco compactada con gran cantidad de piedras de diferente tamaño y formas angulosas, que contenía objetos de diversas cronologías, se hallaron los restos de una estructura muraria en esquina. El muro conservaba sólo una hilada y asentaba directamente en la roca natural. Junto a éste apareció un rebaje poco profundo excavado con forma tendente a circular en planta y con pendiente cóncava. No obstante, su perfil era muy irregular, por lo que no podría considerarse siquiera como cubeta.

En el sondeo 2 se pudieron documentar dos unidades estratigráficas: el conjunto de planchas de cal, cemento y hormigón que conformaban la solera con sucesivos arreglos en esta parte de la estancia y el relleno de recrecimiento y nivelación compuesto de piedras de diferentes tamaños y formas angulosas trabadas con el propio hormigón de la solera, por lo que no se pudo llegar a eliminarlo totalmente dada su compactación. Durante el control arqueológico de las obras sería cuando pudiera documentarse en su totalidad la estratigrafía del subsuelo en este punto.

Egungo eraikinaren aurreko eraikinaren atal izango zen harlanduzko dolaretik kontserbatutako aztarna bakarrak.

Únicos restos conservados del lagar de sillería que formaría parte del edificio anterior al actual.

Behin beheko solairuko eta erdisotoko trenkadak eta bi espazio horien arteko eskailerak eraitsi ondoren eraman genituen burura kontrol arkeologikoko lanak. 1. zundaketa induskatu zen aldean geruza naturala azaldu zen eskailera azpian eta ondoko gela azpian zeuden betegarriak kendu ondoren. Esku hartze arkeologikoaren lehenengo fasean zehar jada dokumentatutako aurkikuntzak baizik ez dira aipagarri alde honetan. Baina aipatzekoa da hareharrizko harlandu batzuen presentzia, desegindako dolare batetik etorriak dira. Dolare hori 2. zundaketa induskatu zen aldean zegoen. Zorua baizik ez zuen kontserbatzen, landutako lauzez egindako zorua, orduan dokumentatutako harrizko betegarriaren eta alboetako paretetako baten azpian, holtzak kentzean azaldu zen paretaren azpian. Barruko aurpegia 2,80 m luze zen eta 1,30 metroko altura kontserbatzen zuen harlanduzko hiru errenkadarekin. Harlandu horiek, hareharrian landuak, oso handiak ziren, baina oso modulazio desberdinekoak. Era berean, iparraldeko hormaren abiapuntua kontserbatzen da, guztira 0,95 m luze eta 1,40 m garai da kontserbatu den atala. Mahastizaintzarekin eta ardogintzarekin lotutako biltegiratze egitura mota horiek soilik Arabako Errioxakoak ez diren arren, oso arruntak dira eskualde horretan, eta haien jatorria ez da XVI. mendea baino lehenagokoa, nahiz eta hurrengo mendean guztiz orokortuko ziren. Dolare hori segur aski eraikina eraiki zutenean suntsituko zuten, katastrotik lortutako datuen arabera 1940an, adreiluz altxatutako paretak eta ostikoak XX. mendeko 60. urteetako hamarkadan etxebizitzan egindako berritze lan integralen emaitzak baitira. Dirudienez, dolare hori desmuntatu egin zuten erdisototik zorupeko upeltegira iristeko igarobide bat antolatzeko, horrenbestez amortizatuko zuten aurreko sarrera.

El control arqueológico se llevó a cabo una vez se derribaron los tabiques de la planta baja y del semisótano y las escaleras entre ambos espacios. En la zona donde se excavó el sondeo 1 se alcanzó el estrato natural tras retirar los rellenos existentes bajo las escaleras y la estancia anexa, sin que se produjeran otros hallazgos que los ya documentados durante la primera fase de la actuación arqueológica. Únicamente destacar la presencia de algunos sillares de piedra arenisca cuya procedencia era un lagar desmantelado. Este lagar se ubicaba en la zona donde se había excavado el sondeo 2. Sólo le quedaba la solera, compuesta de losas labradas, que estaba directamente bajo el relleno de piedras documentado entonces, y una de las paredes laterales, que salió a la luz tras la eliminación de tabiques. Constaba de un paño interior de 2,80 m y una altura conservada de 1,30 con tres hiladas de sillares. Éstos, tallados en piedra arenisca, eran de gran tamaño pero de muy diferente modulación. También se conserva el arranque de la pared norte, con una longitud de 0,95 m y una altura de 1,40 m conservados. Este tipo de estructuras de almacenaje, relacionadas con la actividad vitivinícola, aunque no son exclusivas de la Rioja Alavesa, si son comunes en esta comarca y su origen no se remontaría más allá del siglo XVI, generalizándose en la centuria siguiente. La destrucción de este lagar se produciría casi con total seguridad al construirse el edificio, en el año 1940 según los datos obtenidos del catastro, ya que los machones y paredes levantados con ladrillos pertenecerían a la reforma integral de la vivienda realizada en la década de los años 60 del siglo XX. Al parecer, este lagar fue desmontado para habilitar un paso desde el semisótano hasta la bodega subterránea amortizando así un acceso anterior.

F.J. Ajamil Baños

A.21. ENTZIAKO PARTZUERGOA / PARZONERÍA DE ENTZIA

A.21.1. Legaireko Parke Megalitikoa

Zuzendaritza: Javier Ordoño Daubagna
Finantzazioa: Arabako Foru Aldundia; Gondra-Barandiaran Fundazioa

A.21.1. Parque Megalítico de Legaire

Dirección: Javier Ordoño Daubagna
Financiación: Diputación Foral de Álava; Fundación Gondra-Barandiaran

This paper presents the results of the archaeological work carried out at the Legaire Sur burial mound (Legaire Megalithic Complex, Entzia, Araba/Alava) in 2020. The excavation enabled the characterisation of the chamber as a 3 m long, trapezoidal-shaped space delimited by two limestone slabs to the NE, two to the SW and none along its inner NW wall, which was found to be made from the mound's earth and stone filling, perhaps due to the breakage or removal of the slabs at some unknown time in the past. The chamber had an intact funerary deposit with no internal stratigraphy, from which more than 11,000 archaeological remains were recovered. These include the mostly scattered skeletal remains of at least 29 individuals, accompanied by grave goods and fauna. The only exception was the identification of ten crania intentionally placed beside the walls and some connected bone fragments from four individuals right on top of the chamber's floor. The 1.8 m long passageway connected to the chamber had been almost completely excavated by E. Eguren in 1925, whereas the excavation of its entrance revealed the presence of a space that can be interpreted as a vestibule connecting to the outside of the mound.

Jarraian azalduko ditugu 2020ko udan Legaireko (Araba) Parke Megalitikoan bideratuko III. indusketa kanpainaren eta kontrol arkeologikoko lanen emaitzak. Esku hartze hau Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak sustatutako Arabako monumentu megalitikoak kontserbatzeko, sendotzeko eta balioa emateko programan biltzen da, eta Legaireko kasu berezian Gondra-Barandiaran Fundazioak 2018. urteaz geroztik diruz lagundu duela esan behar dugu. Honenbestez, Legaire Hegoaldea trikuharriko ganbera eta korridorea induskatzen amaitu dugu aurtengo ekinaldian, eta hileta monumentua sendotzeko eta hari balioa emateko lanen gaineko kontrol arkeologikoa bideratu dugu.

Emaitzen artean aipatzekoak dira lehenengo aldiz 2019an identifikatu eta induskatzen hasi ginen ganberaren ezaugarriak eskaintzen dituztenak: trapezoide formako oinplanoa duen ganbera da, gehienez ere 3 m luze, ipar-mendebaldetik lurrean sartutako kareharri dolomitizatuzko bi lauza handik mugatuta, eta hego-mendebaldetik beste bi lauzak mugatuta, eta sarreraren beste aldeko itxiturako lauzaren (edo lauzen) ordez, lurrezko ezpondak mugatuta, lur masa horretan tumuluko betegarriarekin berarekin lotu daitezkeen harrizko blokeak bereizten direla. Era berean, berretsi egin genuen ganberak historiaurreko hileta depositu bat kontserbatzen zuela bere baitan ukitu gabe. Itxura batean barne estratigrafiarik gabe eta 35-45 cm bitarte lodi, depositu horretan ugari ziren giza hezurrak, fauna hondakinak eta askotariko tresnak –aztarna guztiak batera hartuta, 11.000tik gora–. Aztarna horiek guztiak, oro har, itxurazko ordenarik gabe azaltzen ziren, guztiak salbu eta alboetako lauzen babesean zeuden burezur osoak –berariaz hor jarriak– eta lotura anatomikoari eusten zioten hezurdura gutxi batzuk, horien artean aipagarri zuzenean ganberako zoru gainean aurkitu genituen lau banakoren eskeletoen segmentuak. Azkenik, 1,8 m-ko korridorea, gan-

Se presentan los resultados de la III campaña de excavación y control arqueológico en el Parque Megalítico de Legaire (Álava), durante el verano de 2020. Esta actuación se enmarca dentro del programa de investigación, restauración y puesta en valor de los monumentos megalíticos alaveses promovido por el Servicio de Museos y Arqueología del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava, que en el caso particular de Legaire ha contado con la cofinanciación de la Fundación Gondra-Barandiaran desde 2018. La actuación ha supuesto la finalización de la excavación de la cámara y el corredor del dolmen de Legaire Sur, iniciada en 2019, y el control arqueológico de los trabajos destinados a la consolidación y puesta en valor del monumento funerario.

Destacan entre los resultados la caracterización de la cámara, identificada por primera vez y comenzada a excavar en 2019, como un recinto de planta trapezoidal de 3 m de longitud máxima, delimitado por dos grandes losas imbricadas de caliza dolomitizada en su lado NE, dos en su lado SW y, en ausencia de losa (o losas) de cierre en el lado opuesto a su entrada, un talud de tierra mezclada con bloques pétreos asimilable al propio relleno del túmulo. Así mismo, la confirmación de que la cámara preservaba un depósito funerario prehistórico intacto en su interior. Sin aparente estratigrafía interna y una potencia de 35-45 cm, este depósito presentaba una gran acumulación de restos humanos acompañados de fauna y ajuar diversos –sumando más de 11.000 restos entre todas las evidencias– y generalmente dispuestos sin orden aparente, a excepción de la colocación –interpretada como intencional– de cráneos enteros al cobijo de las losas laterales y la presencia de contadas conexiones anatómicas, entre las que destaca el hallazgo de segmentos esqueléticos de cuatro individuos dispuestos directamente sobre el suelo de la cámara. Por último, la comprobación de que el

beratik segur aski lauza batez bereizita dagoena, E. Egurenek 1925. urtean bideratu zuen lehenengo esku hartze hartatik induskatuta zegoela egiaztatu genuen, eta haren sarreran ataritzat interpretatutako gune bat identifikatu genuen; atari hori kanpoko aldera zabalduko zen tumuluaren erdian.

Aurrekariak

Lan horiek alde batera utzita, aurreko *Arkeoikuska* zenbakian (Ordoño et al., 2019) kontsultatu daitezke Legaire Hegoaldea trikuharrian bideratu genuen lehenengo indusketa kanpainaren emaitzak.

Esku hartzearen helburuak

Hauexek izan ziren esku hartzearen helburuak: 1) 2019an aurkitutako ganberan ukitu gabe topatutako hileta deposituaren indusketa arkeologiko sistematikoa egitea, kontserbatutako aztarnak berreskuratzeko eta haren hileta biografia aztertzeko; 2) E. Egurenek 1925ean induskatutako korridorea garbitzea, berrikustea eta dokumentatzea; eta 3) monumentua sendotzea eta babestea, balio handiagoa emateko.

Guztira 15 m^2-ko eremua induskatzea proposatu zen, horietatik 10 m^2 ganberan eta 5 m^2 korridorean eta korridorean sartzeko ustezko atarian.

Gainera, monumentua behin betirako sendotzeko eta babesteko lanen gaineko kontrol arkeologikoa proiektatu genuen. Lan horietan makineria (hondeamakina), material aloktonoak (esate baterako, lur eta ehunezko sareak, tertziario kontinentaleko legarrak) eta ondarearen testuinguruari nabarmen eragin ziezaioketen soluzio teknikoak erabiliko ziren, eta beraz, gainbegiratu behar genituen lan horiek.

Metodologia

Indusketa eremuan bideratu beharreko esku hartze arkeologikoari begira 2019ko ekinaldian eredu fotogrametrikoetan eta ortoargazki geoerreferentziatuetan oinarrituta irekitako 1 x 1 m-ko lauki berberak erabili genituen. Lauki horiek puntu kardinalen arabera antolatuko genituen, abzisa eta ordenatua ardatzak gurutzatzen diren 0 puntua erreferentziatzat hartuta. Indusketa prozesuan zehar kotak edo mailak zehazteko, 0 plano horizontal batean egokitutako ikusgailu topografiko bat erabili genuen.

Indusketa prozesuan aurreko ekinaldian finkatutako prozedurari jarraitu gintzaizkion: lanabes txikiak lagun, bost zentimetro lodierako geruzatan induskatu genituen depositukо jalkinak. Metodo horrek aukera ematen du kontserbatutako egituren eta material arkeologikoaren kontrol espaziala izateko, eta horrek berebiziko garrantzia du testuinguru nahasietan, esate baterako trikuharrietan. Ateratako jalkin guztiak lehorrean bahetu genituen sare fineko galbaheekin.

Oinplanoak eta altxaerak marrazturik eta/edo argazkiak eta plano fotogrametrikoak eginik grafikoki dokumentatu genituen lanetan zehar bereizitako maila arkeologikoak, egiturak, elementuak eta/edo ñabardurak.

corredor, de 1,8 m de longitud y posiblemente separado de la cámara por una losa, ya se encontraba excavado desde la primera intervención de E. Eguren en 1925, y la identificación en su entrada de un espacio interpretado como atrio que se abriría al exterior en mitad del túmulo.

Antecedentes

Fuera de trabajos anteriores, los resultados de nuestra primera campaña de excavación en el dolmen de Legaire Sur pueden consultarse en el anterior número de *Arkeoikuska* (Ordoño et al., 2019).

Objetivos de la actuación

La intervención tenía por objetivos: 1) la excavación arqueológica sistemática del depósito funerario intacto hallado en la cámara descubierta en 2019, a fin de recuperar los restos conservados y estudiar su biografía funeraria; 2) la limpieza, revisión y documentación del corredor excavado en 1925 por E. Eguren; y 3) la consolidación y protección del monumento de cara a su puesta en valor.

En total, se propuso la excavación de un área de 15 m^2, de los que 10 m^2 se correspondían con la cámara y 5 m^2 con el corredor y potencial zona de acceso a éste.

Además, se proyectó el control arqueológico de los trabajos destinados a la consolidación y protección definitiva del monumento. Dichas tareas suponían la utilización de maquinaria (pala), materiales alóctonos (p.e. geotextil, grava del terciario continental) y soluciones técnicas que podían afectar significativamente al contexto patrimonial y, por tanto, requerían de supervisión.

Metodología

Para la intervención arqueológica en el área a excavar se empleó la misma cuadrícula de 1 x 1 m, orientada según los puntos cardinales y referenciada respecto a un punto 0 en que se cruzan los ejes de abscisas y ordenadas, que se generó para la campaña de 2019 a partir de modelos fotogramétricos y ortofotografías georreferenciadas. Para la toma de cotas durante el proceso de excavación se utilizó una mira topográfica referenciada a partir del plano 0 horizontal.

El proceso de excavación siguió el procedimiento establecido en la campaña anterior: excavación de los sedimentos del depósito en capas de ca. cinco centímetros de espesor con ayuda de herramienta menor. El método permite el control espacial de las estructuras y del material arqueológico conservado, de vital importancia en contextos desorganizados como suelen ser los dolménicos. Todos los sedimentos extraídos fueron cribados en seco con cedazos de malla fina.

La documentación gráfica de los niveles arqueológicos, estructuras, elementos y/o matices aparecidos en el curso de los trabajos se realizó mediante dibujos en planta y alzados, fotografías y/o levantamientos fotogramétricos.

Legaire Hegoaldea trikuharria (Entziako Partzuergoa). Tumuluko betegarri gainean horizontalean egokitutako lauza zatiak. Jatorrizko lauzarik ezean, betegarri horrexek ixten du ganbera ipar-mendebaldetik.

Dolmen de Legaire Sur (Parzonería de Entzia). Fragmentos de losa dispuestos horizontalmente sobre el relleno tumular que, en ausencia de losa generatriz, cierra la cámara por su lado NW.

Dokumentatu eta in situ koordenatu genituen berreskuratutako materialak, eta bakoitza bere plastikozko poltsa itxian bildu genuen zegozkion etiketarekin eta siglarekin. Gero excel taula batera ekarri genituen etiketetan jasotako datuak, oso mesedegarria izan zen materialen zerrenda osatzeko.

Indusketa lanak amaitzean, monumentuaren doitasun handiko eredu fotogrametrikoa landu genuen, esku hartzearen azken emaitza dokumentatzeko eta ortoargazki, lur eremuaren eredu digital eta sestra kurba eguneratuak lortzeko eta egiturazko elementu nagusien neurri zehatzak finkatzeko.

Ganbera sendotzeko lanen eta hari balio handiagoa emateko egokitzapen lanen gaineko kontrol arkeologikoan bildu egin genituen material arkeologikoak, argazki sortak egin genituen eta azken plano fotogrametriko bat landu genuen, ondare honetan bideratutako esku hartzearen amaieran monumentuaren egoera jasoko zuen «segurtasun kopia» antzeko bat edukitzeko.

Lan guztiak, indusketa egunkari batean erregistratu genituen, bertan gelditu ziren jasota iruzkinak, oharrak eta indusketa prozesutik eratorritako datu esanguratsuak, baita landa lanetan emandako orduak, taldekideen parte hartzea eta esku hartzeko proiektuaren baitan antolatutako bilerak eta/edo bisitaldi teknikoak ere.

Landa lanen nondik norakoak

Batez ere eguraldiak eta giza baliabideek eta baliabide materialek behartuta, 15 jardunaldi etenetan eraman genituen burura landa lanak, zehazki 2020ko uztailak 27 eta irailak 2 bitartean.

Los materiales recuperados fueron documentados y coordenados in situ, y guardados en bolsas de plástico herméticas con su respectiva etiqueta y sigla. Los datos recogidos en las etiquetas fueron posteriormente volcados en una tabla excel que facilitó el inventario de los materiales.

Al finalizar la excavación, se realizó un modelo fotogramétrico de precisión del monumento con el objetivo de documentar el resultado final de la intervención y obtener imágenes ortofotográficas actualizadas, modelos digitales del terreno y curvas de nivel, así como mediciones precisas de sus principales elementos estructurales.

El control de los trabajos de consolidación de la cámara y adecuación para su puesta en valor incluyó la recogida de los materiales arqueológicos, la ejecución de series fotográficas y la realización de un último levantamiento fotogramétrico como «copia de seguridad» del estado del monumento a la finalización de toda la intervención patrimonial.

Todas las actuaciones fueron registradas en un diario de excavación con datos y comentarios relevantes derivados del proceso excavatorio, así como las horas invertidas, la participación de los miembros del equipo y las reuniones y/o visitas técnicas organizadas dentro del proyecto de intervención.

Desarrollo de los trabajos de campo

Los trabajos de campo se desarrollaron durante 15 jornadas laborales no consecutivas, debido a las condiciones meteorológicas y a la disponibilidad de medios humanos y materiales, entre el 27 de julio y el 2 de septiembre de 2020.

Behin indusketa estrategia zehazteko egindako lehen ikustaldiak egin, erreferentziazko laukiak prestatu eta dagozkion segurtasun neurriak finkatu ondoren, segida eman genion 2019an hasitako lanari, hots, sistematikoki jarraitu genuen ganbera induskatzen. Fase hori amaituta, korridorean maila arkeologikorik kontserbatzen zen ala ez egiaztatuko genuen, eta sarreraren ezaugarriak definituko genituen. Bukatzeko, monumentua babesteko neurri egokiak aplikatu genituen (hain egonkor ez zeuden lauzei eutsi eta lur eta ehunezko sarea ipini) monumentuari balio handiagoa emateko ezinbesteko lanari ekin baino lehen. Azken lan hori ere kontrol arkeologikoaren xede izan zen.

Behin-behineko emaitzak

Dokumentatutako eta/edo berreskuratutako aztarna nagusiak

Ganbera

Korridorearekin lotzen den ganbera aldeko jalkinak (Y'2 laukia) estaltzen zituen lauza altxatuta hasi ginen induskatzen. Lauza hori, tamainaz ertaina, kareharri dolomitikoa da, meteorizazioak hautsia. Gure ustez hilobiko jatorrizko estalkiaren zati bat den lauza horren azpian jarraipena zuen aurreko urtean ganberaren gainerakoan identifikatutako hileta depositu ukitua gabeak, eta beraz, berretsi egiten zen E. Egurenek ez zuela 1925ean ganbera barruan induskatu, ezta korridorearen alboetan ere.

Jarraian handitu egin genuen ganberako indusketa eremua korridoreko sarreraren beste aldeko muturrerantz, V'/U'4 eta V'/U'6 laukietan, haren hondoan itxiturako lauzarik ba ote zen ala ez egiaztatzeko eta haren perimetroa zehatz mugatzeko, aurreko urteko ekinaldian ez baikenuen alderdi hori behar bezala argitzerik izan. Goiko mailetan horizontalean zeuden hiru lauza zati handi altxatu genituen, eta horien azpian betegarri bat identifikatu genuen, jalkinean txertatutako zentimetroko eta dezimetroko blokeez (tokiko kareharri angelutsuak) osatuta. Betegarri hori ganbera eta korridorea inguratzen duen tumulua osatzen duenaren berdin-berdina da. Betegarri hori tumulutik ganbera gainera eroritako masa izan zitekeelakoan, 1 x 1 metroko zundaketa bat egin genuen V'4 laukian tokiko geruza geologikoa iritsi arte –buztin plastiko antzuak osatutako paleozorua, 5-10 cm bitarte lodi, zuzenean tokiko kareharrizko arrokaren gainean egokitzen dena), baina ez genuen hilera depositurik hauteman. Beraz, berretsi ahal izan genuen ganberak ez zuela, ez bederen guk esku hartutako unean, ipar-mendebaldetik itxiko zuen lauzarik. Gainera, lauza horren presentzia (nahiz eta oinean zatituta egon zitekeen beste megalito batzuetan bezala) egiaztatzeko saioan gainditu egin genuen ganberaren esparrua tumuluan bertan sartzeko.

Galdera asko planteatzen zituen lauzaren (edo lauzen) absentziak ganberaren hondoan: uneren batean nahita kendutako elementua izan al zen (agian berrerabiltzeko)? Tumuluko betegarriaren eta ganbarako deposituaren gainean aurkitutako lauza zatiak faktore naturalek (lauza guztiak daude kontserbazio egoera kaskarrean) edo gizakiek (gogora dezagun tumulu hori hainbat aldiz leherrarazi zutela XX. mendean gan-

Una vez efectuadas las visitas previas para preparar la campaña de excavación, rehabilitar las referencias de cuadriculación y establecer las medidas de seguridad pertinentes, se dio continuación a la excavación sistemática de la cámara, iniciada en 2019. Una vez finalizada esta fase, se procedió a comprobar la conservación o no de niveles arqueológicos en el corredor y a definir las características de su zona de acceso. Finalmente, se tomaron las medidas de protección oportunas en el monumento (sujeción de losas menos estables, colocación de geotextil) previas a la intervención necesaria para su puesta en valor, que fue objeto de control arqueológico.

Resultados provisionales

Principales evidencias documentadas y/o recuperadas

Cámara

La excavación comenzó con la retirada de una losa de caliza dolomítica de tamaño medio y fragmentada por meteorización que cubría los sedimentos en la zona de la cámara que conecta con el corredor, cuadro Y'2. Debajo de dicha losa, que interpretamos como parte de la cubierta original de la tumba, seguía extendiéndose el depósito funerario intacto identificado en el resto de la cámara el año anterior, confirmando el hecho de que E. Eguren no actuó dentro de la cámara en 1925 ni siquiera en zonas adyacentes al corredor.

A continuación, se procedió a ampliar el área de excavación de la cámara hacia el extremo opuesto a la entrada del corredor, en los cuadros V'/U'4 y V'/U'6, a fin de determinar la presencia o no de losa de cierre en el fondo de la misma y delimitar con precisión su perímetro, aspecto que no había podido resolverse con claridad el año anterior. Se retiraron tres grandes fragmentos de losa dispuestos horizontalmente en cotas altas y se comprobó que debajo de éstos aparecía un relleno compuesto por bloques centi-decimétricos angulosos de calizas locales imbricados en sedimento, exactamente idéntico al que compone el túmulo que rodea a la cámara y el corredor. Ante la posibilidad de que se tratase de una invasión por derrumbe del túmulo hacia la cámara realizamos una cata de 1 x 1 m en V'4 hasta alcanzar el sustrato geológico local –un paleosuelo de arcilla plástica estéril de 5-10 cm que asienta directamente sobre la roca caliza local–, sin detectar depósito funerario alguno. Esto nos permitió confirmar que la cámara carecía, al menos en el momento de nuestra intervención, de cualquier losa o losas que la cerrasen por su lado NW y que en nuestro intento por determinar su existencia (aunque fuese de forma fragmentaria en su base, como ha ocurrido en otros megalitos) habíamos trascendido el ámbito cameral para adentrarnos en el propio túmulo.

La ausencia de losa (o losas) en el fondo de la cámara planteaba numerosos interrogantes: ¿fue este elemento voluntariamente retirado en algún momento (quizá para su reaprovechamiento)? ¿pertenecen los diversos fragmentos de losa hallados sobre el relleno tumular y sobre el depósito de la cámara a una losa destruida por factores naturales (todas las losas presentan un deficiente estado de conservación) o hu-

Ezkerrean, goian, lotura anatomikoari eusten diote eskeleto zatiak, bi banakori dagozkienak («1. Banakoaren» bizkarrezurra eta besoak; «1B banakoaren» aldaka, izterrezurra eta berna-hezurra), zuzenean Legaire Hegoaldea ganberako zoru gainean utziak. Ezkerrean, behean, 2019 eta 2020ko kanpainetan Legaire Hegoaldea trikuharrian berreskuratutako elementu material aipa-garriak: 1-8: suharrian landutako gezi muturrak; 9-16: harrizko aleak; 17-18: hezurrean landutako puntzoiak; 19: hezurrean landutako ustezko espatula; 20-24 hezurrean landutako uztaiak; 25: literatura frantsesean «cheville» deritzon elementu zulatua, hezurrean landua; 26: brontzezko zintzilikarioa; 27: iparrorratz motako puntzoia, brontzezkoa. Eskuinean, erdian, ezkerrean: kanpotik Legaire Hegoaldea trikuharriko korridorean sartzeko gunea, inbutu formako atari gisa interpretatua, behin induskatzen amaitu ondoren.

A la izquierda arriba, segmentos esqueléticos en conexión pertenecientes a dos sujetos (columna vertebral y brazos de «Individuo 1»; cadera, fémur y tibia de «Individuo 1B») colocados directamente sobre el suelo de la cámara de Legaire Sur. A la izquierda abajo, elementos materiales destacados recuperados en el dolmen de Legaire Sur en las campañas 2019 y 2020. 1-8: puntas de flecha en sílex; 9-16: cuentas en piedra; 17-18: punzones en hueso; 19: posible espátula en hueso; 20-24: aretes en hueso; 25: elemento perforado en hueso denominado «cheville» en la literatura francesa; 26: colgante de bronce; 27: punzón de cobre tipo brújula. A la derecha, zona de entrada al corredor de Legaire Sur desde el exterior, interpretada como atrio en forma de embudo, una vez finalizada su excavación.

beraren hondotik gertuen dagoen aldetik harria ateratzeko) suntsitutako lauza bati al dagozkio? Agian beste soluzio arkitektoniko bat aplikatu al zuten ganbera ipar-mendebaldetik itxi ahal izateko?

Dena dela, tumuluan egindako leherketen eta/edo ustezko jatorrizko lauzaren nahasketen ondorioz ganberaren oinplanoa (gaur egun trapezoide formakoa) aldatu egin den ala ez oraindik ez dakigun arren, ez dirudi barrutia jada ezagutzen dugun tamaina baino handiagoa izan zenik: gutxi gorabehera 3 m luze eta, 4,5 m^2-ko azalera du, eta lurrean sartutako kareharri dolomitizatuzko bi lauza handik mugatuta dago iparekialdetik eta beste bi lauzak mugatuta hego-mendebaldetik.

Egiaztapen horiek egin ondoren, hileta depositua induskatzen jarraitu genuen (I. geruza) 2019ko kanpainan utzi genuen puntutik aurrera, 0 puntutik behera

manos (recordemos que el túmulo fue objeto de explosiones para la extracción de piedra en el siglo XX en la zona más cercana al fondo de la cámara)? ¿era quizá otro tipo de solución arquitectónica la que permitía el cierre de la cámara en su lado NW?

Sea como fuere, y desconociendo si la cámara ha podido ver modificada su planta, hoy trapezoidal, por las explosiones efectuadas en el túmulo y/o la remoción de la supuesta losa generatriz, el recinto no parece haber tenido mayor tamaño que el ya conocido: ca. 3 m de longitud máxima y ca. 4,5 m^2 de superficie, estando delimitada por dos grandes losas imbricadas de caliza dolomitizada en su lado NE y dos en su lado SW.

Tras estas comprobaciones, se continuó con la excavación del depósito funerario (Capa I) donde se había dejado en la campaña de 2019, a una cota de -60 bajo el plano 0. Se rebajaron tres nuevas tallas (3,

-60 kotatik behera. Beste hiru maila (3, 4 eta 5) beheratu genituen W', X' eta Y' zerrendetan, eta agortu egin genuen depositua, lekuko batzuk besterik ez genituen utzi perimetroan erregistroaren zati bat etorkizuneko ikerketei begira in situ kontserbatzeko eta ganberaren alboetako lauzak oinik gabe ez uzteko. Depositua ez zuen barne estratigrafiarik, osaera bera zuen bere lodiera osoan: matrize buztintsua/hareatsua, iluna, zentimetroko harriekin eta aztarna arkeologikoekin. Depositua oina (eta beraz baita ganberarena ere) -75 kotan zegoen, eta haren azpian paleozoru antzua azaltzen zen; salbuespen bakarra ganberaren erdiko zulo formako sakonune natural txiki bat, 40x40 cm-koa eta 5-10 cm bitarte sakon (-85 kotaraino). Alboetako lauzek zuzenean hartzen zuten atseden paleozoruaren gainean, ganberako zoruaren kota bertsuan, eta eraikuntza megalitikoetan ohikoa denez, lauzak lurrean sartuta zeudela.

Hileta depositukо hondakinak oro har ez zeuden espazioan banatzeko eredu bakar baten arabera antolatuta, baina alboetako lauzen babesean azaldu ziren (jada 2019an hauteman genuen bezala) gutxienez hamabi burezur osorik edo partzialki kontserbatuak, adin desberdineko beste hainbeste banakori zegozkienak. Ez dirudi burezur horiek ganberaren perimetroan ausaz ipini zituztenik (beste trikuharrietan ere horrelakoak egiaztatu dira), eta beraz, nahita ipini zituztela uste dugu, aztarna horiek gisa horretan kokatzeko arrazoiak edozein izanda ere (errituzkoak, profilaktikoak, gunea moldatzekoak). Era berean dokumentatu genituen lotura anatomiko batzuk. Aipatzekoak dira depositua oinean identifikatutako eskeleto zatiak, lotura anatomikoan, gutxienez lau banakori dagozkienak (bi helduri eta bi gazteri), segur aski ganberako zoru gainean saiheska utzitakoak. Haietako biren laginak, perimetroan jarritako burezur batzuen laginak eta ganberaren erdiko zulo naturalaren oinean aurkitutako hezur zati baten lagina bidali dira datatzeko eta aurkikuntzak dagokien testuinguru kronologikoan kokatzeko.

Korridorea

Ezagutzen den korridorea induskatzeko edo, hobe esanda, berrinduskatzeko lanak aztarna gutxi eskaini ditu, eta egiaztatu dugu E. Egurenek ia guztiz hustu zuela korridoreko depositu arkeologikoa 1925ean bideratu zuen esku hartze hartan. Gainazaleko betegarri kolorez ilunaren azpian (batez beste 20 cm lodi zen betegarria, eta -45 eta -65 kota bitartean egokitzen zen), material modernoak eta zaharrak eta tamaina ertaineko harri solteak biltzen zituen betegarriaren azpian, 5 cm-ko lodierara iristen ez zen hondar depositua azaldu zen, izaeraz ganberako depositua antzekoa, zeramika eta hezur hondakin gutxi batzuekin eta ikatz zatiren batekin. Depositu horren azpian, ganberako koten maila bertsuan, ganberaren oinean identifikatutako paleozorua geratu zen agerian. Kanporago, legarrak biltzen zituen buztinezko geruza mehe bat dokumentatu genuen.

Korridoreko sarrera

Korridoreak tumuluaren kanpoko alderantz duen luzera ezaguna baino luzeagoa ote zen egiaztatzeko, 3 m^2-ko indusketa txiki bat egin genuen haren hegoekialdean. Esku hartze horretan korridorea E. Egure-

4 y 5) en las bandas W', X' e Y', agotando el depósito salvo por testigos dejados perimetralmente a fin de preservar parte del registro in situ de cara a futuras investigaciones y evitar que las losas laterales de la cámara perdieran pie. El depósito no mostró estratigrafía interna, manteniendo la misma composición de matriz arcillo-arenosa oscura mezclada con cantos centimétricos y restos arqueológicos en toda su potencia. La base del depósito (y, por ende, de la cámara) se situaba a la cota de -75, bajo la cual apareció un paleosuelo estéril, con la excepción de un pequeño rebaje natural en forma de hoyo de 40 x 40 cm y 5-10 cm de profundidad (hasta -85) en el centro de la cámara. Las losas laterales apoyaban directamente sobre el paleosuelo, a una cota similar a la del suelo de la cámara, como es típico de construcciones megalíticas con losas imbricadas.

La organización de los restos en el depósito funerario no mostró ningún patrón de distribución espacial específico, salvo por la disposición al cobijo de las losas laterales (ya intuida en 2019) de, al menos, una decena de cráneos completa o parcialmente conservados de individuos de edades diferentes. Esta colocación perimetral de los cráneos no parece fortuita y ya ha sido descrita en otros dólmenes, por lo que la consideramos intencional, independientemente de si atiende a razones rituales, profilácticas o de mera acomodación del espacio. También han sido documentadas algunas conexiones anatómicas. Cabe destacar la identificación en la base del depósito de segmentos esqueléticos en conexión de, al menos, cuatro individuos diferentes (dos adultos y dos juveniles) probablemente depositados en posición lateral sobre el mismo suelo de la cámara. Se han enviado a datar muestras de dos de ellos, así como de varios de los cráneos colocados perimetralmente y de un fragmento de hueso hallado en la base del rebaje natural en el centro de la cámara, para dar contexto cronológico a los hallazgos.

Corredor

La excavación (o, mejor, reexcavación) del corredor conocido ha procurado escasos restos y la certeza de que E. Eguren vació prácticamente su depósito arqueológico durante su intervención en 1925. Solo por debajo de un relleno superficial de color negruzco con una potencia media de 20 cm (-45 a -65) y presencia revuelta de materiales modernos y antiguos y piedras sueltas de tamaño medio, apareció un depósito residual de menos de 5 cm de potencia y naturaleza similar al de la cámara con presencia de escasos restos de cerámica, hueso y algún carbón. Bajo este y a cotas similares a la cámara, se identificó el paleosuelo identificado en la base de la cámara. En la zona más exterior también apareció una fina capa de arcilla con gravas.

Entrada al corredor

Para comprobar si el corredor tenía más desarrollo hacia el exterior del túmulo que el ya conocido, se excavó una pequeña extensión de 3 m^2 en su lado SE. Si bien la intervención evidenció que el corredor no se extendía más allá del tramo excavado por E.

nek induskatutako tartetik harago luzatzen ez zela egiaztatu genuen, eta agerian utzi genuen sarrerako ataria, 1,3 x 1,5 metrokoa, korridorearen barruko alderantz inklinatutako lauza txikiek mugatuta, tumuluaren kanpoko aldera irekiko zen inbutu antzeko bat osatzeko. Alde horretan, gainazaleko geruzaren azpian, ukitu gabeko lehenengo betegarria identifikatu genuen, lurrezkoa, hezur hondakin gutxirekin, eta azpian beste geruza bat dokumentatu genuen, kareharrizko zati angelutsuez osatua, zati horiek nolabait ere buztinezko paleozoruan sartuta zeudela, zoru antzeko bat eratuz (korridorearekin bat egiteko puntuan desagertzen zen). Atariaren eta tumuluaren arteko mugetan (A1 laukia) burdinan landutako lantza mutur baten zati bat dokumentatu genuen.

Alde honetan bideratutako esku hartze honekin amaitutzat ematen ditugu Legaire Hegoaldea trikuharria induskatzeko lanak.

2019ko eta 2020ko kanpainetan berreskuratutako material arkeologikoen zerrenda laburra

Zortzi milatik gorakoa da 2020ko landa lanetan Legaire Hegoaldea trikuharrian berreskuratutako aztarna arkeologikoen kopurua, eta horiei 2019ko kanpainan berreskuratutako hiru mila aztarna inguru gehitu behar zaizkie. Material guztiak garbitu, siglak ipini, zerrendatu eta bakoitza bere poltsan sartu genuen. Hona hemen aztarna horien banaketa (bi kanpainetan bildutakoak kontuan izanik):

- 6988 hondakin antropologiko, gutxienez 29 banakori dagozkienak, adin guztietakoak (haurrak barne hartuta) eta bi sexuetakoak. Orain arte lortutako datazioak kontuan harturik (Ordoño et al. 2019), esan dezagun Neolitoaren azken garaian eta Kalkolitoan eman zietela lur banako horiei.
- Fauna handiaren 502 hezur zati, txakur baten eskeleto oso bat barne hartuta, kronologiaz Goi Erdi Arokoa, hileta deposituaren sabaian utzia.
- Fauna txikiaren 197 hezur zati.
- Gutxi gorabehera 3600 hezur printza zehaztu gabe.
- 419 zeramika zati, batzuek zerrenda bidez dekoratuak.
- Harrizko 51 elementu, horien artean aipagarri suharrian landutako zortzi gezi mutur (hiru ojibazkoak, bi txortendunak eta hegaldunak, bat kamerrarekin eta bi zati), bi trapezio, zulakaitz bat eta ijeki ukitu batzuk, laskak eta suharriaren lanketatik etorritako hondakinak, lepoko zortzi ale (bost azabatxezkoak, bat bariszitazkoa eta bi harri zehaztu gabean landuak) eta okrezko nodulu bat, besteak beste.
- Hezurrean landutako 9 elementu, horien artean aipagarri, metalezko bost uztai, bi puntzoi, espatula bat eta bibliografia frantsesean «cheville» esaten dioten elementu zulatu bat.
- Metalezko 8 elementu, horien artean aipagarri hiru uztairekin osatutako brontzezko zintzilikario bat, iparrorratz motako puntzoi bat, kobrezkoa, eta lantza mutur baten zati bat, burdinazkoa.
- Itsas maskor baten zati bat, eta
- Landare ikatzezko 16 zati.

Eguren, sí puso al descubierto un atrio de entrada de 1,3 x 1,5 m delimitado por pequeñas losas inclinadas hacia el interior del corredor, formando una especie de embudo que se abriría al exterior del túmulo. Esta zona procuró, bajo el nivel superficial, un primer relleno intacto de tierra con escasos restos óseos al que seguía una capa de fragmentos angulosos de caliza dispuestos de forma más o menos imbricada sobre el paleosuelo de arcilla, como formando un suelo que acababa al contactar con el corredor. En los límites del atrio con el túmulo (cuadro A1) apareció un fragmento de punta de lanza de hierro.

Con la intervención en esta zona se dio por finalizada la excavación en el dolmen de Legaire Sur.

Inventario resumido de los materiales arqueológicos recuperados (campañas 2019 y 2020)

El número de restos arqueológicos recuperados en los trabajos de campo de 2020 en el dolmen de Legaire Sur supera los ocho millares, a los que hay sumar los cerca de tres recuperados en la campaña de 2019. Todos los materiales han sido lavados, inventariados y dispuestos en sus respectivas bolsas. Se distribuyen de la siguiente manera (suma de ambas campañas):

- 6988 restos antropológicos, pertenecientes a un número mínimo preliminar de 29 individuos de todas las edades (incluidos infantiles pretérmino) y ambos sexos que, si atendemos a las dataciones obtenidas hasta el momento (Ordoño et al. 2019), fueron depositados durante el Neolítico final y el Calcolítico,
- 502 restos de macrofauna, incluidos el esqueleto completo de un cánido de cronología altomedieval depositado a techo del depósito funerario,
- 197 restos de microfauna,
- ca. 3600 esquirlas óseas indeterminadas,
- 419 fragmentos cerámicos, algunos con decoración a bandas,
- 51 elementos líticos, destacando ocho puntas de flecha en sílex (tres ojivales, dos de pedúnculo y aletas, una con muesca y dos fragmentos) dos trapecios, un buril y varias láminas retocadas, lascas y restos de talla en sílex, ocho cuentas de collar (cinco de azabache, una de variscita y dos de roca indeterminada) y un nódulo de ocre, entre otros,
- 9 elementos de industria ósea, entre los que se cuentan cinco aretes, dos punzones, una espátula y un elemento perforado que en la bibliografía francesa denominan «cheville»,
- 8 elementos de metal, entre los cuales destacan un colgante en bronce compuesto por tres aros, un punzón tipo brújula en cobre y un fragmento de punta de lanza en hierro,
- un fragmento de concha marina, y
- 16 restos de carbón vegetal.

Zalantzarik gabe, erregistro aparta da. Elementu horien azterketak (une honetan etapa horretan baitaude) aukera emango du trikuharriaren hileta erabileraren ezagutzan aurrerapausoak egiteko, eta gainera, orain arte izan ez duen esparru kronologiko eta kultural bat eskainiko dio inguruko megalitismoari.

Konklusioak eta etorkizuneko perspektibak

Hauexek lortu dira 2020an Legaire Hegoaldea trikuharrian bideratutako esku hartzean zehar:

- ganberaren gutxi gorabeherako perimetroa eta neurriak mugatzea; gutxienez 4,5 m^2 ditu.
- ganbera barruan ukitu gabe kontserbatutako hileta deposituari buruzko informazio arkeologikoa berreskuratzea, depositu hori ezezaguna izan baita orain arte;
- E. Egurenek monumentuan bideratu zuen esku hartzearen nondik norakoak eta eragina egiaztatzea:
- megalitoari balioa emateko lanak gainbegiratzea.

Aurkikuntza garrantzitsuen artean, hauexek ditugu aipagarri:

- une honetan bederen, ganbera ipar-mendebaldetik itxiko lukeen lauzaren (edo lauzen) absentzia, galdera asko planteatzen dituena;
- burezurrak ganberaren alboetako lauzen oinetan berariaz utzi izana;
- ganberako zoru gainean lotura anatomikoari eusten dioten giza hezurren presentzia;
- korridorean sartzeko gune baten presentzia, atari gisa.

Une honetan bi lerrotan ari gara lanean: 1) 2019ko eta 2020ko kanpainetan zehar Legaire Hegoaldea trikuharrian berreskuratutako materialen azterketa analitikoa (antropologia fisikoa, harrizko tresneria, zeramika, hezurrak, metalezko tresnak, fauna handia eta txikia, isotopoak, ADN, antrakologia) egiten nazio eta nazioarte mailako adituen eskutik; eta 2) 2018. urteaz geroztik Legaireko Parke Megalitikoan egindako lanen emaitzei buruzko irakurketa arkeologikoa, geologikoa eta ondarezkoa eskaintzen saiatuko den behin betiko txostena lantzen.

Se trata sin duda de un registro notable. Su estudio, actualmente en curso, permitirá avanzar en el conocimiento del uso funerario del dolmen y dotará de un marco cronológico y cultural al megalitismo de la zona del que se carecía hasta ahora.

Conclusiones y perspectivas de futuro

Durante la intervención realizada en 2020 en el dolmen de Legaire Sur se ha logrado:

- delimitar el perímetro aproximado y las dimensiones de la cámara, que podemos estimar en al menos 4,5 m^2;
- recuperar la información arqueológica del depósito funerario intacto preservado al interior dela cámara, que había pasado desapercibido hasta el presente;
- comprobar el recorrido e impacto de la intervención de E. Eguren en el monumento;
- supervisar los trabajos de puesta en valor del megalito.

Como hallazgos destacados, cabe citar:

- la ausencia, al menos en la actualidad, de losa (o losas) que cierren la cámara en su lado NW (fondo), la cual plantea numerosos interrogantes;
- la colocación de cráneos de manera deliberada a los pies de las losas laterales de la cámara;
- la presencia de restos humanos en conexión anatómica sobre el suelo de la cámara;
- la existencia de una zona de entrada al corredor en forma de atrio.

En la actualidad se está trabajando en dos líneas: 1) el estudio analítico a través de diversos especialistas nacionales e internacionales de los diferentes registros materiales recuperados en el dolmen de Legaire Sur durante las campañas 2019 y 2020 (antropología física, industria lítica, cerámica, ósea y metálica, macro y microfauna, isótopos, ADN, antracología); y 2) la preparación de la memoria definitiva que recogerá, sintetizará e intentará ofrecer una lectura arqueológica, geológica y patrimonial de los resultados de los trabajos efectuados en el Parque Megalítico de Legaire desde 2018.

J. Ordoño Daubagna; L. M. Martínez Torres; A. Alday Ruiz; J. Niso Lorenzo; M. Loza Uriarte; T. Fernández-Crespo

A.22. PEÑACERRADA-URIZAHARRA

A.22.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

A.22.1.1. **Barón de Benasque, 2**

Zuzendaritza: F. Rafael Varón Hernández
Finantzazioa: Ana María Ramírez de la Piscina

The analysis of the walls of a building in Peñacerrada enabled us to verify the existence of remains of the town wall inside the plot.

Urizaharreko Hirigune Historikoko Barón de Benasque kaleko 2. zenbakiko eraikineko teilatua eta barruko egitura eraisteko lanek eraikinaren mendebaldeko hormaren azterketa estratigrafikoa egiteko aukera eskaini ziguten.

Lehendik egindako azterlan batzuek eraikinaren kanpoko aldean, haren zatirik beherenean, identifikatu zuten Urizaharreko hiribilduko harresia.

Gure lanen artean, horma atalaren eta orubeko beste aztarna batzuen plano fotogrametrikoa ere egin dugu.

Bi dira hormak aztertzeko lan horretatik ondorioztatu ditzakegun konklusioak. Alde batetik, Urizaharreko hiribilduko harresia identifikatu dugu orube honetan. Bestetik, XIX. mendean eraikitako etxebizitza

A.22.1.1. **Barón de Benasque, 2**

Dirección: F. Rafael Varón Hernández
Financiación: Ana María Ramírez de la Piscina

El derribo de la cubierta y el interior del edificio sito en la C/ Barón de Benasque, 2, del Casco Histórico de Peñacerrada supuso la oportunidad de realizar el estudio estratigráfico de su alzado oeste.

Estudios anteriores habían identificado la muralla de la villa de Peñacerrada en la parte exterior del edificio, en su parte más baja.

Los trabajos han incluido el levantamiento fotogramétrico del lienzo y de otros restos presentes en el solar.

Dos son las conclusiones principales de este estudio de alzados. Por un lado, la identificación de la muralla medieval de la villa de Peñacerrada en este solar. Por otra parte, hemos podido constatar la evolución constructiva de un edificio levantado en el final

Horma atalaren planoa, erregistratutako UEak eta bakoitzari dagokion fase historikoa adierazita.

Plano del lienzo con indicación de las UUEE registradas y la fase histórica a la que pertenece cada una.

baten eraikuntzaren bilakaera egiaztatu ahal izan dugu, eta etxe horrek hiribilduko hiri ehunari gaur egun arte eutsi diola esan behar dugu.

Lehenengoari dagokionez, guk uste dugu aztertutako horma atalaren beheko aldean hauteman dugula harresia. Horma horren estekadura eta lodiera bat datoz aldez aurreko azterlanetan bildutako datuekin.

Orubearen luzera osoan kontserbatzen da harresiaren atal hori. Gutxi gorabehera 80 zentimetroko lodiera erakusten du eraikinaren barruko aldera, baina bi metroko lodiera izan dezake eraikinaren hormaren azpian.

Bigarren konklusioak segur aski XIX. mende amaieran jasotako eraikin baten bilakaeraren berri ematen digu. Behin harresiak bere eginkizuna galdu zuenean, hein handi batean azken Karlistaldiaren (1872-1876) ondorio traumatikoen ondorioz, etxe berri bat eraiki zuten.

Horma atalak, barruko aldera, landa eremuko etxebizitzan ohikoa den banaketa erakusten du: beheko solairu bat, non atari aldea eta ukuilua hauteman daitezkeen. Gainean, eguneroko bizitzari emandako lehenengo solairua, eraikinaren alde honetan bizitzeko erosotasuna eta egokitasuna hobetzen duten luzituekin hornitua. Gainean, estalkipeko solairua, kanpotik isolatzeko material xumeagoekin eraikia. Zirkunstantzia horrek eramaten gaitu azken solairu horri biltegi erabilera eman ziotela pentsatzera.

Hiribilduko harresiaren aurkikuntzak eta orubeko zorupea ukitu ez izanak adierazten dute orube horrek lehendik ere ezarrita zituen karga arkeologikoekin jarraitu behar duela etorkizunean bideratu litezkeen esku hartzeen aurrean.

del siglo XIX y que permanece manteniendo el tejido urbano de la villa hasta la actualidad.

En cuanto a la primera, nos parece que hemos detectado la muralla en la parte inferior del paramento analizado. El aparejo y la potencia del muro muestran coincidencias con lo esperable en estudios anteriores.

El lienzo de la muralla se conserva en toda la longitud del solar. En anchura conserva unos 80 centímetros hacia dentro del edificio y podría alcanzar hasta los dos metros por debajo del muro de este.

La segunda conclusión nos lleva a la constatación de la vida de un edificio nacido, probablemente, a fines del siglo XIX. Una vez que la muralla pierde su función, debido, en buena medida, a los traumáticos efectos de la última Guerra Carlista (1872-1876), crece una nueva casa.

El lienzo presenta al interior la división común en una vivienda de ámbito rural: una planta baja en la que podemos intuir el espacio del portal y de los lugares dedicados al aprovechamiento agropecuario. Por encima una primera planta dedicada a la vida cotidiana que ha implementado enlucidos que mejoran la comodidad y la habitabilidad de este lado del edificio. Por encima, una planta entrecubierta que utilizará materiales más modestos para lograr el aislamiento con el exterior. Esta circunstancia nos induce a pensar en su uso como espacio de almacenaje.

El hallazgo de la muralla de la villa y la no afección al subsuelo del solar indican que este solar debe permanecer con las cargas arqueológicas que ya tenía establecidas ante futuras actuaciones sobre él.

F. R. Varón Hernández

A.22.1.2. **Barón de Benasque, 18**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Urizaharreko BEPB idatzi duen taldea

A.22.1.2. **Barón de Benasque, 18**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Equipo redactor del PERI de Peñacerrada

Archaeological intervention designed to confirm the presence of a stretch of the Peñacerrada town wall in this plot, which was necessary for the revision of the PERI (Plan Especial de Reforma Interior-Special Interior Reform Plan). The remains of the medieval wall located were in a very poor state of conservation, having been abandoned and plundered. However, the intervention confirmed that the wall passed diagonally through the plot adjacent to the town's South Gate.

Urizaharreko udalerriko 2. poligonoko 82. lursailari begira BEPBan proposatutako antolamendua justifikatzeko, Barón de Benasque kaleko 18. zenbakiko orubean esku hartze arkeologiko bat bideratu genuen hiribilduko Erdi Aroko harresiaren trazadura lursail horretarik igarotzen den berresteko, edo, hala badagokio, baztertzeko. Hain zuzen ere konklusio horretara iritsi zen *Ondare Babesa SL* enpresak 2000 eta 2003 urte bitartean bi fasetan egindako *Urizaharreko harresien azterketa historikoa eta arkeologikoan*. Izan ere, frontoiaren eta hiribilduaren hegoaldeko atearen arteko harresi atalean orduan ez zen Erdi Aroko harresiaren aztarna materialik identifikatu, eta beraz, garran-

Para justificar la ordenación propuesta en el PERI en relación a la parcela 82 del polígono 2 del municipio de Peñacerrada/Urizaharra, en la calle Barón de Benasque, 18, se realizó una intervención arqueológica para corroborar o, en su caso, descartar que el trazado de la muralla medieval de la villa discurría por la citada parcela. Esta era la conclusión a la que se había llegado en el *Estudio Histórico-Arqueológico de las murallas de Peñacerrada*, realizado en dos fases entre los años 2000 y 2003 por *Ondare Babesa S.L.* Precisamente en el tramo de muralla comprendido entre el frontón y el portal sur de la villa no se localizaron entonces restos materiales de la cerca medieval,

tzitsua zen orain alderdi hori BEPBaren antolamenduari begira argitzea. Lehen adierazitako azterketa historikoan eta arkeologikoan adierazten denez, Erdi Aroko harresia lursailean barrena luzatuko zen ekialdetik mendebaldera, hegoaldeko Ateko mendebaldeko kubotik abiatuta mendebalderantz, hiriko frontoitik oso gertuko puntu batean galtzeko. Urizaharreko hiribilduko perimetro harresituan, soilik puntu honetan ezin izan zen Erdi Aroko harresiaren trazadura zehaztasunez identifikatu.

Esku hartze arkeologikoan zeharkako erreten batzuk induskatu genituen harresiaren aztarnekin bat egin arte edo, hala behar bazuen, harresiaren trazadura lursail honetan barrena luzatzen zela baztertzeko. Baina, jada induskatutako lehenengo erretenean lortu genituen emaitza positiboak, eta beraz, ez zen beharrezkoa izan gainerakoak induskatzea. Hauxe izan zen lursailean identifikatu genuen sekuentzia estratigrafikoa: landare geruzari eusten zion gainazaleko lurrezko maila, batez beste 45 cm lodi, lur organikoz osatua zen, kolorez marroi iluna, oso garbia, inolako intrusio motarik gabea,salbu eta teila arabiar zati txiki eta isolatu gabe batzuk. Beste maila bat estaltzen zuen, batez beste 30 cm lodi, lur ehunduraz buztintsuagoak osatua, kolorez marroi argia, zabor askorekin, batez ere teila zatiak, kareore zatiak eta tamaina askotako harri formaz angelutsuak. Maila horren azpian arroka ama azaleratzen zen, kareharrizkoa, tarte batzuetan kolore grisaxkako tuparrizko geruza bat identifikatzen zelarik arroka amaren gainean.

Hain zuzen ere zaborrez osatutako mailaren eta arroka amaren artean azaldu ziren Erdi Aroko harresiaren aztarnak. Oso-oso egoera txarrean zegoen, errenkada bakarra kontserbatzen zuen zundaketaren mugen barruan. Bi harri baizik ez zituen barruko horma ataletik kontserbatzen, kareztaturik zeuden kanpoko aurpegian eta irregularrak ziren barruko aldera, kolorez arrosakarak. Hiribilduko hegoaldeko Atearen horma atalean kolore bertsuko harri batzuk ikus daitezke. Egituraren barruko aldea forma irregularreko eta tamaina askotako harriek osatzen zuten, harriak ia batu gabe kareorerik erabili ez zutelako. Kontserbazio egoera tamalgarrian zegoen, eta dokumentatutako lodiera 1,55

por lo que era de interés para la reordenación del PERI aclararlo ahora. Según aparece en el Estudio Histórico-Arqueológico citado antes, el trazado de la muralla medieval discurriría a través de la parcela en sentido este-oeste, desde el arranque existente en el cubo occidental del Portal sur hasta perderse por el oeste en un punto muy cercano al frontón de la villa. Se trata del único tramo del perímetro amurallado de la villa de Peñacerrada en el que no se pudo identificar con exactitud el trazado de la cerca medieval.

La intervención arqueológica se planteó mediante la excavación de sucesivas zanjas transversales hasta dar con los restos de la muralla o, en su caso, descartar su trazado a través de la parcela si no aparecían. Sin embargo, ya en la primera de ellas, se obtuvieron resultados positivos por lo que no hizo falta continuar con la excavación de las siguientes. La secuencia estratigráfica de la parcela era la siguiente: La capa superficial de tierra que daba soporte a la cobertura vegetal, de 45 cm de potencia media, estaba formada por tierra orgánica de color marrón oscuro, muy limpia, sin intrusiones de ningún tipo, salvo por algunos pequeños fragmentos de teja curva aislados. Cubría a un nivel compuesto de tierra de textura más arcillosa y color marrón claro, con gran cantidad de escombro, predominando los fragmentos de tejas, trozos de argamasa y piedras de formas angulosas de diferente tamaño, hasta alcanzar los 30 cm de potencia media. Ya bajo este nivel afloraba la roca madre, de naturaleza caliza, con algunas zonas en las que le precedía una capa margosa de color grisáceo.

Era precisamente entre este nivel de escombro y la roca madre donde aparecieron los restos de la muralla medieval. Su estado de conservación era pésimo, manteniendo una sola hilada dentro de los límites del sondeo. Del paño interior sólo se conservaban dos piedras, careadas por la cara externa e irregulares en el interior y de color rosáceo. En el paramento del Portal sur de la villa se advierten algunas piedras de similar coloración. El interior de la estructura se componía de piedras de formas irregulares y tamaños diversos, apenas trabadas por la falta de argamasa. Tan mala era su conservación que, pese a que la an-

Erdi Aroko harresiko aztarnak eta horien kokalekua lursailean.

Restos de la muralla medieval localizados y ubicación respecto a la parcela.

m-koa izan arren, zalantzan jartzen dugu beste aldeko atala benetan identifikatu zena izatea. Egitura barneko lur oso soltezko geruzaren ezaugarriak eta harrien egokiera arpilatze prozesu bizi bati berezkoak zaizkionak dira. Puntu horretatik zundaketaren hegoaldeko mugara bitartean ez genuen arroka ama identifikatu. Hemen dokumentatutako maila harresiaren beraren gainean identifikatutakoaren antzekoa zen oso, hau da, harresitik etorritako, edo hartatik eroritako, edo arpilatzeetatik baztertutako lur eta harriez osatutako maila da. Ustez, hiribilduko perimetro harresituaren gainerakoan gertatzen den bezala, harresiaren kanpoko atalak arroka amaren bat-bateko makurdura aprobetxatzen du defentsa hobetze aldera.

Urizaharreko perimetro harresituaren lursail honetan barnako trazadurari dagokionez, BEPBaren antolamenduari begira alderdi hori baitzen interesgarriena, berretsi egiten da Erdi Aroko harresiaren trazadura hiribilduko hegoaldeko Atearen ondoko lorategietan barrena luzatzen dela. Hala eta guztiz ere, ez litzateke 2003ko Urizaharreko harresien azterketa historiko eta arkeologikoan proposatutako trazadurara moldatuko, izan ere, mendebaldeko kubo ondoan berreraikitako harresi ataletik abiatuta, diagonalean zeharkatzen du lorategia, eta ez, uste zen bezala, ekialdetik mendebalderako luzetarako ardatzean barrena gaur egun eustorma bat denaren lerroari jarraiki, lursailaren erditik, ondoko lursaileraino, eta gero iparralderantz eginez frontoiaren eta erabilera askotako eraikinaren artetik. Ez dugu baztertzen lursail horiek bat egiten duten puntuan, jatorrian, defendatzeko kubo bat izatea, perimetro harresituaren kanpoko erronda bidea ezkutatzen duen bihurgune bat gertatzen baita puntu horretan. Nolanahi ere den, kubo hori desagertu egingo zen gerora, harresia zedarritzen zuten beste batzuk bezalaxe.

chura documentada era de 1,55 m, dudamos de que el paño contrario fuera realmente el localizado. Tanto las características de la capa de tierra muy suelta en el interior de la estructura como la disposición de las piedras eran las propias de un intenso proceso de expolio. Desde este punto hasta el límite sur del sondeo no se pudo localizar la roca madre. El nivel descubierto aquí era similar al existente sobre la propia muralla, es decir, se trataba de tierra y piedras procedentes de ésta, caídas o desechadas del saqueo. Es de suponer, como ocurre en el resto del perímetro amurallado de la villa, que el paño externo de la cerca aproveche un brusco buzamiento de la roca madre para ganar finalidad defensiva.

En lo que al trazado del perímetro amurallado de Peñacerrada a través de esta parcela se refiere, que es lo que de cara a la reordenación del PERI interesaba, se confirma que el trazado de la cerca medieval discurre por el espacio ajardinado anexo al Portal sur de la villa. Sin embargo, no seguiría el que se propuso en el *Estudio Histórico-Arqueológico de las murallas de Peñacerrada* del año 2003, sino que, aunque partiendo igualmente del arranque de muralla reconstruido junto al cubo occidental, atraviesa el jardín de forma diagonal y no, como se suponía, cercano a su eje longitudinal E.-W. siguiendo después la línea de lo que hoy es un muro de contención por mitad de la parcela hasta alcanzar la parcela contigua y continuar hacia el norte entre el frontón y el edificio multiusos. En este punto de unión entre las dos parcelas no descartamos que hubiera originalmente un cubo defensivo al producirse un giro que impide la visión del paso de ronda exterior del perímetro amurallado, si bien habría desaparecido posteriormente al igual que otros que jalonaban la muralla.

F.J. Ajamil Baños

A.23. RIBERA ALTA / ERRIBERAGOITIA

A.23.1. Santa Eulalia eliza, Vilorian. Ingurua

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: Viloriako Administrazio Batzordea

A.23.1. Iglesia de Santa Eulalia, en Viloria. Entorno

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: Junta Administrativa de Viloria

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Viloriako Santa Eulalia eliza hego-mendebaldetik inguratzen duen kaleko tarte txiki bat zolatzeko lanen eta kale hori eliza hartzen duen muino txikitik behera iristen den ezpondatik bereizteko eustorma bat eraikitzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina etorkizunean ebaluatzeko gelditzen da Balizko Arkeologia Gunearen mugen barruan biltzen den azaleraren gainerakoa.

Control arqueológico de las obras de pavimentación de un pequeño tramo de calle que circunda la iglesia de Santa Eulalia de Viloria en su lado suroeste y la construcción de un muro de contención para separar la calle del talud que baja desde el pequeño promontorio donde se ubica la iglesia, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto de superficie de la Zona de Presunción Arqueológica.

M. Loza Uriarte; J. Niso Lorenzo

A.24. SALVATIERRA / AGURAIN

A.24.1. Okarantzako Done Jurgi (28. BAG). 728. lursaila, 1. poligonoa. HUA berriko obrak

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: URA, Uraren Euskal Agentzia

A.24.1. San Jorge de Ocaranza (ZPA 28). Parcela 728, polígono 1. Obras de la nueva EDAR

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: URA - Agencia Vasca del Agua

Archaeological monitoring of the work carried out on the new Salvatierra/Agurain waste water treatment plant, with no positive results. The work affected both plots located around 50 m north of ZPAI num. 28: 'San Jorge de Ocaranza'.

Aguraingo HUA berria eraikitzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa, emaitza positiborik gabea. Lan horiek «Okarantzako Done Jurgi» 28. zenbakiko Balizko Arkeologia Gunearen iparraldera gutxi gorabehera 50 metrora dauden bi lursail ukituko zituzten, kontuan hartu baitzen Aguraingo Hiri Antolamendurako 2016ko Plan Orokorrean jasotako planimetria.

Agurainen HUA berri bat eraikitzeko lanek eragin zuten kontrol arkeologiko hau. Lan horiek Aguraingo 28. zenbakiko Balizko Arkeologia Gunea («Okarantzako Done Jurgi») hartzen duen lursailaren iparraldeko 1. poligonoko 729. eta 730. lursailen zati bat hartzen dute. Zehazki, arkeologia gunearen iparraldeko mugatik iparraldera gutxi gorabehera 50 metrora egokitzen da obren hegoaldeko muturra. Nolanahi ere, alde honetan lehendik esku arkeologikorik bideratu ez denez eta aztarnategi horri dagokion planimetria lehen handiagoa zenez, ongi justifikatuta zegoen obren aurrean bideratu beharreko kontrol arkeologikoa. HUA eraikitzeko, lur erauzketa handiak egingo zituzten arroka naturalaren sabaia gainditzen zuten sakonera mailak iritsi arte, batez ere azpiegiturak hartuko zuen eremuaren erdialdean eta iparraldean. Lorategietan besterik gabe garbitu egingo zuten landareak aldatzeko gainazaleko lurrezko geruza.

Aguraingo Udalerriko 28. zenbakiko Balizko Arkeologia Guneak («Okarantzako Done Jurgi») gutxi gorabehera 1,1 hektareako lursail bat hartzen du, laborantzari emana. Aguraingo udalerriko 1. poligonoko 728. lursaila da, lehorreko laborantzari emana. Gaur egun, lursail horren gainazalean zeramikazko ontzi zatiak eta eraikuntza material zatiak ikus daitezke, batez ere teila zatiak. 2004. urtean, Aguraingo bizilagun batzuek azaldu zuten urte batzuk lehenago hilobi batzuei zegozkien lauza handi batzuk atera zituztela hortik, eta hilobi horiek Done Jurgiren baselizarekin lotzen zirela. Done Jurgirekin batera doan Okarantza izena kontuan harturik, halako lotura izango zuen toponimoa baino kontserbatu ez duen izen bereko herrixkaren batekin.

Hala eta guztiz ere, burura eramandako lur mugimenduak handiak izan ziren arren, guztiz negatiboak izan ziren kontrol arkeologikoaren emaitzak. Arrazoi nagusia da Balizko Arkeologia Gunea bera obren eremuaren hegoaldean dagoela, eta obra horiek ez dutela ukitu ere egin aztarnategia, esku hartze hau eragin zuen Aguraingo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak 2016ko testu bateginean jasotako planimetria kontuan hartuta zirudienaz beste.

F.J. Ajamil Baños

Control arqueológico de las obras de la nueva EDAR de Salvatierra sin resultados positivos. Las obras afectaron a sendas parcelas situadas a unos 50 m al norte de la ZPA nº 28: «San Jorge de Ocaranza» porque se tuvo en cuenta la planimetría recogida en el Plan General de Ordenación Urbana de Salvatierra, de 2016.

Control de obras motivado por las obras de construcción de una nueva EDAR en Salvatierra, que ocupa parte de las parcelas 729 y 730 del polígono 1 de este municipio, localizadas al norte de la finca por la que se extiende la Zona de Presunción Arqueológica nº 28: «San Jorge de Ocaranza». En concreto, el extremo sur de las obras se sitúa a unos 50 m al norte del límite septentrional de ésta. No obstante, dado que aquí no se habían realizado intervenciones arqueológicas antes y que la planimetría correspondiente a este yacimiento anteriormente era más extensa, se consideró que el control arqueológico de las obras estaba plenamente justificado. Para la construcción de la EDAR se iban a acometer importantes desmontes hasta profundidades que superaban el techo de la roca natural, principalmente en la zona central y en la parte norte del complejo. En las zonas ajardinadas únicamente se procedería al desbroce de la tierra superficial de cultivo.

La Zona de Presunción Arqueológica nº 28 del Municipio de Salvatierra: «San Jorge de Ocaranza», ocupa una finca de cultivo de aproximadamente 1,1 hectáreas. Se trata de la parcela rústica 728 del polígono 1 del municipio de Salvatierra, dedicada al cultivo de secano. En esta parcela en la actualidad se pueden observar en superficie fragmentos de recipientes cerámicos y de material constructivo, principalmente de tejas. En el año 2004, vecinos de Salvatierra informaron de que años antes se extrajeron en este lugar grandes losas pertenecientes a tumbas, que pertenecería a la ermita dedicada a San Jorge. Dado el nombre de Ocaranza que acompaña a esta advocación, pudiera tener relación con algún poblamiento del mismo nombre, del cual ya sólo queda el topónimo.

Los resultados del control arqueológico, sin embargo, fueron absolutamente negativos, pese a los grandes movimientos de tierra realizados. La razón no fue otra que la propia localización de la Zona de Presunción Arqueológica, localizada al sur de la zona de obras, pero sin que se haya visto afectada por éstas, al contrario de lo que parecía teniendo en cuenta la planimetría recogida en el Plan General de Ordenación Urbana de Salvatierra, en su texto refundido de 2016, que fue lo que motivó la intervención.

A.24.2. **Obrak ur biltzaile berrien sarean (28. eta 20. BAGak eta Donejakue Bidea)**

Zuzendaritza: F. Javier Ajamil Baños
Finantzazioa: Ingurumen eta Hirigintza Saila. Arabako Foru Aldundia

A.24.2. **Obras de la red de nuevos colectores (ZPA 28, 30 y Camino de Santiago)**

Dirección: F. Javier Ajamil Baños
Financiación: Departamento de Medio Ambiente de Urbanismo. Diputación Foral de Álava

Archaeological monitoring of the work carried out on the new sewage pipeline in Salvatierra/Agurain. The work affected three archaeological elements in ZPAI num. 28: 'San Jorge de Ocaranza', ZPAI num. 30: 'Fondo de cabaña Senda de Gaceo' and the 'St James' Way Heritage Site'. However, no findings of any archaeological interest were found in any of the areas studied.

Aguraingo ur biltzaileen sare berria eraikitzeko obren gaineko kontrol arkeologikoa. Sare horrek gutxi gorabehera 3 km-ko trazadura du bi adarretan banaturik. Haietako bat, gutxi gorabehera 800 m luze mendebaldetik ekialdera, eraikitzeko fasean den Aguraingo HUA berritik egungo araztegiraino iritsiko zen, Zadorra ibaiaren mendebaldeko ertzean dagoen araztegiraino. Bigarren adarrak ere HUA berrian izango zuen abiapuntua, hegoaldera egingo zuen, 2,2 km pasatxo izango zituen, eta Galtzar Industrialdearen hego-mendebaldeko muturreraino iritsiko zen, Kañuetas kalean dagon ponpaketa estazioraino.

Obren trazaduraren inguru hurbilean zenbait elementu arkeologiko zeuden zerrendatuta. Oso gertu zeuden 5. zenbakiko BAG («Ulako herrixka»), oso gertu mendebaldetik ekialdera eginez Aguraingo araztegirantz luzatzen zen adarretik, Zadorra ibaiak bereizita; 33. BAG («Urgutia errota»), Aguraingo araztegian amaitzen zen adarraren amaieratik hego-ekialdera gutxi gorabehera 150 m-ra, honakoa ere Zadorra ibaiaren beste erriberan kokatua; eta 36. BAG («ITER XXXIV») Kañuetas kaletik metro gutxi batzuetara dagoena, Galtzar Industrialdean. Baina hiru ziren obrek zuzenean ukitu zitzaketen elementu arkeologikoak: 28. zenbakiko BAG («Okarantzako Done Jurgi»), 30. zenbakiko BAG («Gazeo bideko etxola hondoa), eta «Donejakue Bideko Monumentu Multzoa».

Aguraingo Udalerriko 28. zenbakiko Balizko Arkeologia Guneak («Okarantzako Done Jurgi») gutxi gorabehera 1,1 hektareako lursail bat hartzen du, laborantzari emana. Aguraingo udalerriko 1. poligonoko 728. lursaila da, lehorreko laborantzari emana. Gaur egun, lursail horren gainazalean zeramikazko ontzi zatiak eta eraikuntza material zatiak ikus daitezke, batez ere teila zatiak. 2004. urtean, Aguraingo bizilagun batzuek azaldu zuten urte batzuk lehenago hilobi batzuei zegozkien lauza handi batzuk atera zituztela hortik, eta hilobi horiek Done Jurgiren baselizarekin lotzen zirela. Done Jurgirekin batera doan Okarantza izena kontuan harturik, halako lotura izan zezakeen toponimoa baino kontserbatu ez duen izen bereko herrixkaren batekin. «Gazeo bideko etxola hondoa» A-3100 errepidearen hegoaldean dago, *Gurutzebide* kalearen mendebaldean, ekialdeko muga hain zuzen ere bi kale horien bidegurutzeko biribilgunean duela. Beraz, guztiz urbanizatuta dagoen eremua da. Bertan, 1999an, F. Sáenz de Urturik lur iluneko pakete eta material arkeologiko batzuk aurkitu zituen Arabako Lautada gas naturalaz hornitzeko hodi sareak antolatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoan. «Done-

Control arqueológico de las obras de la nueva red de colectores de Salvatierra. Esta red ha seguido un trazado aproximado de 3 km divido en dos ramales. Uno de ellos, de unos 800 m de longitud se dirigía desde la nueva EDAR de Salvatierra, aún en construcción, con dirección oeste-este, hasta alcanzar la actual depuradora, en la orilla occidental del río Zadorra. El segundo ramal, hacia el sur, de algo más de 2,2 km, partía también de la nueva EDAR de Salvatierra y hasta llegar al edificio de bombeo existente en la calle Kañuetas, en el extremo suroeste del Polígono Industrial de Galtzar.

En el entorno inmediato del trazado de las obras aparecían inventariados diversos elementos arqueológicos. Muy próximos estaban la Z.P.A. nº 5: «Poblado de Ula», muy cerca del ramal que llevaba dirección oeste-este, hacia la depuradora de Salvatierra, pero separada de éste por el cauce del río Zadorra; la Z.P.A. nº 33: «Molino Urgutia», a unos 150 m al sureste del final del ramal que concluía en la depuradora de Salvatierra, pero también en la ribera contraria del río Zadorra; y la Z.P.A. nº 36: «ITER XXXIV», que discurre a escasos metros de la calle Kañuetas, en el Polígono Industrial de Galtzar. Pero tres eran los elementos arqueológicos directamente afectados por las obras: la Z.P.A. nº 28: «San Jorge de Ocaranza», la Z.P.A. nº 30: «Fondo de cabaña Senda de Gaceo» y el «Conjunto Monumental del Camino de Santiago».

«San Jorge de Ocaranza» se localiza a menos de 50 m al sur de la nueva EDAR de Salvatierra, ocupando una finca de cultivo de secano de aproximadamente 1,1 hectáreas. En esta parcela en la actualidad se pueden observar en superficie fragmentos de recipientes cerámicos y de material constructivo, principalmente de tejas. En el año 2004, vecinos de Salvatierra informaron de que años antes se extrajeron en este lugar grandes losas de tumbas, que pertenecerían a la ermita dedicada a San Jorge. Dado el nombre de Ocaranza que acompaña a esta advocación, pudiera tener relación con algún poblamiento del mismo nombre, del cual ya sólo queda el topónimo. El «Fondo de Cabaña Senda de Gaceo» se localiza en el lado sur de la carretera A-3100, al oeste de la calle *Gurutzebide*, teniendo su límite oriental justo en la rotonda del cruce de ambas. Se trata, por tanto, de una zona ya totalmente urbanizada donde F. Sáenz de Urturi descubrió algunas bolsas de tierra oscura y diverso material arqueológico en 1999, durante el seguimiento de las obras de tendido de la red de tuberías para el suministro de gas natural a la Llanada Alave-

jakue Bideko Monumentu Multzoa» bat dator obren trazadurarekin gutxi gorabehera 700 metrotan, A-3100 errepidetik hegoalderantz, eta aurrerago mendebalderantz, Galtzar Industrialdeko Kañuetas kalean barrena eta, beraz, guztiz urbanizatuta dagoen eremuan barrena.

Oro har oso lur eremu erregularretan luzatu zen obren trazadura, bai zerealari emandako laborantza lurretan barrena, bai Galtzar Industrialdean barrena. Zerealari emandako laborantza lurretan, laborantza lurren azpian, berezko geruza azaltzen zen, kolorez zurixka, ehunduraz limotsua/buztintsua. Oro har geruza mota hori azaltzen zen arroka amaren gainean. Maila horren kota baxuagoa zen puntuetan, Galtzar ibaitik gertu eta ibai horren mendebaldeko erriberan, tarteko maila batzuk identifikatzen ziren. «Okarantzako Done Jurgi» balizko arkeologia gunearen parean, lur organikoko pakete lodi bat identifikatu genuen, oso iluna, baina aztarna arkeologikorik gabea, zeramika zatirik bat ere gabe: XX. mendearen erdialdean bideratutako lursailen kontzentrazioarekin desagertuko zen bidearekin eta ibaiak puntu honetaraino ekarritako material metaketarekin lotu behar dugu pakete hori. Lursail horren hegoaldean, Galtzar Industrialdera iritsi baino lehen, laborantza lurren azpiko geruza naturaletan gertatzen den sakonune batean ere tarteko maila batzuk azaldu ziren, baina horiek berezkoak ziren, ehunduraz buztintsuak eta plastikoak, seguruenik dekantazio prozesu batetik etorriak. Esan gabe doa, zorupeko estratigrafia oso bestelakoa zen Galtzar Industrialdean, bideak eta industria pabiloiak eraikitzeko eta horientzako zerbitzuak sartzeko ingurune osoa urbanizatuta zegoelako. Funtsean, gainazala asfaltatzeko lurzorua goratzeko eta berdintzeko legarrezko pakete batek osatzen zuen geruza, eta pakete horren azpian zuzenean azaltzen zen geruza naturala, tuparriez osatua, edo arroka ama.

Aurkikuntza arkeologikoei dagokienez, kronologia desberdineko teila eta zeramika zati batzuk baizik ez ditugu aipagarri. Zati horiek ez dira metaketa berezietan identifikatzen, ez dira inguruko lurren aldean bestelako kolore bat ageri duten lurretan biltzen, eta ez dira egiturekin edo ebaki artifizialekin lotzen. Zati isolatuak ziren, txikiak, eta zentzuzkoa denez, gehiago ziren halakoak 28. zenbakiko BAGean («Okarantzako Done Jurgi») biltzen den lursailean, baina baita Galtzar ibaiaren beste aldeko lursailean ere, eta batez ere Aguraingo araztegitik gertuen dagoenean, Zadorra ibaiaren mendebaldeko erriberan, 5. zenbakiko BAGetik («Ulako herrixka») oso hurbil. Nolanahi ere den, azken kasu horretan oso kontuan eduki behar da ondoko Agurain hiria. Isolatuta aurkitutako material arkeologikoa alde batera utzita, ezin aipa gabe utzi ditzakegu A-3022 errepidearen mendebaldeko lursailean azaldu diren lurrak drainatzeko kanalizazioak, aski berriak direnak eginda dauden materialak kontuan baditugu: plastiko korrugatuzko hodiak, adreiluak, hartxintxarrak…, «Okarantzako Done Jurgi» aldean bezala, non hodia legar geruza batez eta lur eta ehunezko sare batez estalita zegoen. Ildo horretan esan dezagun oso garrantzitsua izan zela hodia sartzeko erretena induskatu aurretik hoditeriaren trazadura garbitzeko egin zen lana. Aurretiazko lan horiei esker dokumentatu ahal izan ziren oinplanoan lehen adierazitako kanalizazioak eta material arkeologikoak azaldu ziren guneak.

sa. El «Conjunto Monumental del Camino de Santiago» es coincidente con el trazado de las obras a lo largo de unos 700 m desde la carretera A-3100 hacia el sur y después hacia el oeste por la calle Kañuetas del Polígono Industrial de Galzar, zona también totalmente urbanizada.

En líneas generales el trazado de las obras discurrió por terrenos que se caracterizaban por su regularidad, tanto en lo referente a las fincas de cultivo de cereal, como a través del Polígono Industrial de *Galtzar*. En el primero de los casos fue común durante todo el trazado la aparición bajo la tierra de cultivo de un nivel ya de carácter natural, de color blanquecino y de textura limoarcillosa. Normalmente era el que precedía al afloramiento de la roca madre. Allí donde la cota de este nivel era más baja, coincidiendo con la cercanía del río *Galtzar*, y en su ribera occidental, aparecían algunos niveles intermedios. A la altura de «San Jorge de Ocaranza», un potente paquete de tierra orgánica, muy oscura, pero sin relación con ningún tipo de resto arqueológico, ni siquiera fragmentos cerámicos, y que se explicaría por la existencia de un camino desaparecido con la concentración parcelaria de la segunda mitad del siglo XX y la acumulación de material arrastrado por el río en este punto. Al sur de esta finca, antes de alcanzarse el Polígono Industrial de *Galtzar*, a causa de una nueva depresión en estos estratos naturales bajo la tierra de cultivo, también aparecieron unos niveles intermedios, pero esta vez de carácter natural, de textura arcillosa plástica, seguramente por decantación. Obviamente, en el Polígono Industrial de *Galtzar* la estratigrafía del subsuelo era totalmente diferente a consecuencia de la urbanización del entorno para la construcción de viales, pabellones industriales y la introducción de servicios para éstos. Básicamente se limitaba a un nivel de gravas de recrecimiento y nivelación para el asfalto y, bajo aquellas, directamente el estrato natural, ya sea margosos o directamente ya la roca madre.

En lo que a hallazgos de índole arqueológico se refiere, únicamente destacar la presencia de fragmentos de tejas y cerámicos de diversa cronología, sin presentarse en acumulaciones excepcionales ni relacionados con un color diferenciado de la tierra respecto a la del entorno, ni con estructuras ni cortes artificiales. Se trataba de fragmentos dispersos, de pequeño tamaño, y su profusión era mayor, lógicamente, en la finca incluida en la ZPA nº 28: «San Jorge de Ocaranza», pero también en la localizada al otro lado del río *Galtzar* y, sobre todo, en la más cercana a la depuradora de Salvatierra, en la ribera oeste del río Zadorra, muy cercana a la Z.P.A. nº 5: «Poblado de Ula». No obstante, en este último caso también hay que tener en cuenta la cercanía de la villa de Salvatierra. Al margen del material arqueológico disperso localizado, hacer mención a los caños de drenaje aparecidos en la finca situada al oeste de la carretera A-3022, de cronología reciente a tenor de su material constitutivo: tuberías de plástico corrugado, ladrillos, pequeñas piedras…, lo que se repitió en «San Jorge de Ocaranza», donde la tubería estaba recubierta de una capa de grava y con una malla geotextil. En este sentido, destacar que fue muy importante la labor de desbroce previo del trazado antes de abrir la zanja para la introducción de la tubería. Gracias a estos trabajos previos fue posible documentar

Eta obren trazadurak zuzenean ukitutako ondare elementuei dagokienez, hauexek azaldu behar ditugu txosten honi amaiera emateko:

Aguraingo udalerriko 28. zenbakiko BAGean («Okarantzako Done Jurgi»), gainazala aurretiaz garbitzeko lanetan zehar, han-hemenka barreiatutako zeramika eta teila zati isolatu batzuk eta izterrezur zati bat baizik ez genituen identifikatu, ez ordea horma edo hilobi egiturarik, ez eta inguruko lurretatik bereizten zen kolore orbanik edo etenik ere. Ildo horretan, esan dezagun lursail honetan garbitutako zerrendatik gertu, mendebaldean, goiko aldean, askoz ere handiagoa zela teila eta zeramika zatien eta harrien metaketa, halako distantziatik ere nabari zitekeen lurraren kolorea ilunagoa zela alde horretan. Segur aski alde garai horretan egongo zen egun desagertua den Done Jurgi baseliza. Laborantza lanek barreiatu egingo zituzten haren hondakinak eta baselizari lotutako material arkeologikoak lursailaren gainerakoan barrena. Erretena induskatzean lurrak drainatzeko kanalizazio bat identifikatu genuen plastiko korrugatuzko hodi batez, legarrez eta lur eta ehunezko sareaz osatua. Era berean, lur iluneko geruza lodi bat hedatzen zen eremu bat identifikatu genuen, lur organikoz osatua, ehundura limotsu/buztintsuko geruza natural zurixkako sakonune baten gainean. Azken hori XX. mendearen bigarren erdialdean bideratutako lursail kontzentrazioaren ondorioz desagertu zen bidearekin eta Galtzar ibaiak puntu honetaraino ekarritako materialen metaketarekin lotzen dugu.

Aguraingo 30. zenbakiko BAGean («Gazeo bideko etxola hondoa»), balizko arkeologia gune honetako ekialdeko muturra zeharkatuko zuen erretena induskatu aurretik egindako zundaketen emaitzek berretsi egin zuten alde horretan zorupea hainbat kanalizaziok zeharkatuta zegoela, eta kanalizazio horiek norabide desberdinak zituztela. Ez genuen aztarna arkeologikorik aurkitu.

“Donejakue Bideko Monumentu Multzoari» dagokionez, guztiz urbanizatuta dagoen eremua da, baina urbanizatuta egongo ez balitz ere, ez zen Donejakue Bidearekin zerikusia izan zezakeen ondare elementurik aurkitzeko aukerarik izango; izan ere, gaur egun erromesek erabiltzen duten bidearen tarte bat da, eta tarte hori ez dator jatorrizko bidearekin, «ITER XXXIV» bidetik gertu egongo zen bidearekin, bat.

en planta los caños citados antes y las zonas de aparición de material arqueológico.

Y ya, para terminar, en lo referente a la afección de las obras sobre los elementos patrimoniales afectados directamente por el trazado de las obras, decir lo siguiente:

En la Z.P.A. nº 28 del municipio de Salvatierra: «San Jorge de Ocaranza», durante el desbroce previo únicamente se localizaron fragmentos cerámicos y de tejas dispersos así como otro de un fémur, pero no así restos de estructuras murarias o de sepulturas, ni manchas de color diferenciado del resto o discontinuidades asociadas a ello. A este respecto, señalar que a escasa distancia al oeste del pasillo desbrozado en esta parcela, en su parte más alta, la concentración de fragmentos de tejas, cerámicos y piedras era muy superior, advirtiéndose a cierta distancia que el color de la tierra era allí más oscuro. Posiblemente sea en esa zona más elevada donde se pudo localizar la desaparecida ermita de San Jorge. Las labores de labranza habrían dispersado sus restos y el material arqueológico asociado por el resto de la finca. Al excavarse la zanja se localizó una canalización de drenaje compuesta por una tubería de plástico corrugado, grava y una malla geotextil. También se advirtió una zona en la que se extendía un potente estrato de tierra oscura, orgánica, sobre una depresión del estrato natural blanquecino de textura limoarcillosa. La asociamos en este caso a la existencia de un viejo camino desaparecido con la concentración parcelaria de la segunda mitad del siglo XX y la acumulación en este punto del material arrastrado por el río *Galtzar*.

En la Z.P.A. nº 30 del municipio de Salvatierra: «Fondo de cabaña Senda de Gaceo», los resultados de las catas realizadas previamente a la excavación de la zanja, atravesando el extremo oriental de esta zona de presunción, constataron que el subsuelo estaba atravesado por varias canalizaciones en diversos sentidos sin hallarse indicios de índole arqueológica.

Respecto al «Conjunto Monumental del Camino de Santiago», se trataba de una zona totalmente urbanizada pero en la que, aun sin haberlo estado, no existía la posibilidad de hallar elementos patrimoniales relacionados con el Camino de Santiago al ser parte de la ruta que se usa actualmente por los peregrinos sin ser coincidente con el camino original, seguramente en este caso el trazado cercano de la «ITER XXXIV».

F.J. Ajamil Baños

A.25. VALDEGOVÍA / GAUBEA

A.25.1. Peña los Castros (Barrio, Bachicabo)

I. kanpaina

Zuzendaritza: Juan Antonio Quirós

Finantzazioa: UPV/EHUko Ondare eta Paisaia Kulturalen Ikerketa Taldea

A.25.1. Peña los Castros (Barrio, Bachicabo)

I Campaña

Dirección: Juan Antonio Quirós

Financiación: Grupo de Investigación en Patrimonio y Paisajes Culturales de la UPV/EHU

In 2020, an archaeological assessment was carried out of the Peña los Castros site, which had recently been identified as a possible Early Medieval Fort. Thanks to the prospecting, planimetric documentation and digging of a sondage, we were able to identify the remains of a High Medieval occupation compatible with a high-standing castle or fortress. The toponymic discontinuity prevents us from establishing a definite connection between this site and Lantarón Castle, although the possibility cannot be entirely dismissed. We also cannot dismiss the possibility that, although the remains found date from the High Medieval period, the site may have been used during earlier periods. Finally, we discuss the significance of this finding within the functional polycentric political-geographical context that characterised this region during the Middle Ages.

Sarrera

2019. urtean Antxoka Martínez Velascok Erdi Aroko zeramika eta metal multzo bat aurkitu zuen Peña los Castrosen (Barrio-Bachicabo, Gaubea) Historiaurreko azken faseko okupazioen testuinguruan bideratzen ari zen miaketa lanetan (ikus, *Arkeoikuska 19*, 136-138. or.). Orduan iradoki zen Erdi Aroko gaztelutzat interpretatu zitekeela aztarnategia, are, Lantarongo gazteluarekin identifikatu zitekeela. Nolanahi ere, kontserbatutako aztarnen muntak, kronologiak eta materialen izaerak guztiz zailtzen zituzten ordura arte katalogatu ez zen aztarnategi berriaren identifikazioa eta interpretazioa.

Gure ikerketa taldeak hamar urtetik gora zeramatzanez lurralde honetan lanean Lantarongo konderria deitua ezaugarritu zuten praktika sozialak eta politikoak ulertzen ahaleginduz, egoki iritzi genion tokiko potentzial arkeologikoa ebaluatzeko esku hartze arkeologiko bat bideratzeari, betiere aztarnategia eta dagokion kronologia ahalik eta zehatzen definitzeko xedearekin.

Kontuan izanik larrialdi sanitarioa, intentsitate apaleko esku hartze bat bideratu genuen talde txiki batekin eta laneko segurtasunari buruz indarrean dagoen araudia aplikaturik.

Peña los Castros aztarnategia

Gailur harritsua da Peña los Castros, hegoaldean duen Lahozeko mendi lepoan barrena iristen da bertara. Gailurra oso nabarmentzen da paisaian, erraz asko ikusten da Ebro ibai haranetik (ekialdean), Gaubeako haranetik (iparraldean) eta egungo Barrio herrixkatik (ipar-mendebaldean). 1.061 m-ko altuera du gailur nagusiak. Gailurraren alde bietara handia da amildegia, eta gailurretik gertuen dauden aldeetan harri metaketa batzuk bereizten dira. Harri horiek kareharrizko arrokaren hausturatik etor daitezke, baina ez dugu baztertzen horien jatorria an-

Introducción

En el año 2019 Antxoka Martínez Velasco halló un conjunto de cerámicas y metales de época medieval en la Peña los Castros (Barrio-Bachicabo, Valdegovía) en el marco de las prospecciones que estaba realizando en torno a las ocupaciones de la Prehistoria reciente (ver *Arkeiokuska 19*, 136-138). Se sugirió entonces que el yacimiento podría ser interpretado como un castillo medieval y que, incluso, podría identificarse con el castillo de Lantarón. No obstante, la entidad de los restos preservados, la cronología y la naturaleza de los materiales dificultaba la identificación y la interpretación del nuevo yacimiento, que hasta el momento no había sido catalogado.

Puesto que nuestro grupo de investigación llevaba un decenio trabajando en este territorio intentando comprender las prácticas sociales y políticas que caracterizaron el denominado condado de Lantarón, se consideró oportuno realizar una intervención arqueológica destinada a evaluar la potencialidad arqueológica del lugar, definir con la mayor precisión posible el yacimiento y su cronología.

Teniendo en cuenta la emergencia sanitaria se ha realizado una intervención de baja intensidad, con un equipo reducido y aplicando la normativa en vigor relativa a la seguridad laboral.

El yacimiento de Peña los Castros

La Peña los Castros es un gran roquedo al que se accede desde el collado La Hoz, situado al sur de la misma. Esta altura destaca de forma muy significativa en el paisaje y cuenta con una gran visibilidad tanto desde el valle del Ebro al este, como del valle de Valdegovía al norte y el entorno de la actual aldea de Barrio, situada al noroeste. La altura máxima de la Peña es de 1061 m. A ambos lados de la cima la caída es significativa y, en las partes más cercanas a la cima se localizan pedreras que, si bien podrían proceder del fraccionamiento de la

tropikoa izatea eta nola gailurrean hala Peña inguruan egongo ziren egitura arinen kolapsoaren ondorio izatea.

Gailurrean zulo edo lubanarro batez bereiziriko bi plataforma handi identifikatu ditugu. Plataforma nagusia, iparraldean, bi gainazal laututan eta txikitan dago bereizita, goikoa (A eremua) behekoa (B) baino txikiagoa dela (72,4 m^2 eta 442 m^2, hurrenez hurren). Zuloaren hegoaldean, gutxi gorabehera 117 m^2 hartzen dituen beste plataforma bat egokitzen da, baina ez dugu horraino iristerik izan. Zuloa mugatzen duten paretetan ez dugu zuloa induskatzeko edo ebakitzeko zizelkatze lanen arrastorik hauteman, baina kontuan eduki behar da kareharrizko arrokaren izaerak aukera ematen duela harria diaklasa naturaletan induskatzeko.

Esku hartze arkeologikoa

Esku hartze arkeologiko honetan miaketa intentsibo bat bideratu dugu eremu osoan, multzo guztiaren dokumentazio planimetrikoa landu dugu eta zundaketa bakar bat egin dugu plataforma nagusiaren goiko gainazal lautuan (A eremua). Halako lodiera estratigrafikoa zuten leku urrietako bat izanik, gure ustez leku egokia zen aztarnategia ezaugarritzeko eta kronologia zehatza eskuratzeko. Bestalde, egokitzat jo genuen beheko plataforma (B eremua) erreserbatzea etorkizunean egin litezkeen lanetarako.

Gainazalaren morfologiari egokitu behar izan zitzaion induskatutako sektorearen trazadura, 7 m2-ko azalera aztertu genuen. Ez genuen egitura aztarnarik aurkitu, ez harrizkorik ez beste material batez egindakorik, baina eraikuntza arin bati legokiokeen estaldura bateko buztinezko zati batzuk berreskuratu genituen. Zundaketa induskatuta etxeko okupazio bat identifikatu ahal izan genuen, Erdi Aro Betekoa, tokiko azken okupazio aldiari zegokiona. Arroka lautua ukitzen zuen lur zanpatuzko zoru baten zati bat, sutegi bat eta erabilera eta abandonu deposituak identifikatu genituen, azken horietan material arkeologiko gutxi batzuk berreskuratu genituela, tartean fauna hezurrak, metalak eta zeramikak.

Berreskuratutako zeramika piezak oso zati txikitan bazeuden ere, aski osorik kontserbatu diren forma itxien kopuru txiki bat dokumentatu ahal izan genuen. Beraz, ondorioztatu dezakegu material horiek ez direla lekuz aldatuak izan behin bertan utzi zirenez geroztik. Zehazki lau forma bereizi ahal izan ditugu: gider bakarreko eltze edo ortza bat, ertza apur bat kanpoko aldera irtena eta ezpain alakatuarekin, almendra formakoarekin; Globo formako eltzea, hondo laukoa eta apur bat ahurra, ertza kanpoko aldera irtena eta ezpain biribilduarekin; espatulaz landutako botila edo pitxer txikia, gorputz luzekoa, kono-enbor formakoa, oin zabalekoa, aho txikikoa eta mutur isurle batekin; pitxer edo pegar bat, ertz hiru gingildunarekin, aho handiarekin eta hondo lauarekin. Ezaugarri horiek kontuan harturik, XI.-XIII. mende bitartean datatu daitezke pieza horiek.

Metalezko materialen artean dardo edo gezi mutur batzuk eta bost aplikez osatutako multzo bat berreskuratu ditugu. Aplike horiek formaz zirkularrak dira, zulatuta daude, brontze urrekaran landuak dira, eta

roca caliza, no se descarta que pudieran tener un origen antrópico resultado del derrumbe de estructuras ligeras que se situarían tanto en la cima como en el entorno de la Peña.

En la cima se han reconocido dos grandes plataformas separadas por un foso. La plataforma principal, situada al norte, está a su vez dividida en dos pequeñas superficies amesetadas, siendo la superior (zona A) más reducida (72,4 m^2) respecto a la inferior (B), de 442 m^2 (zona B). Al sur del foso se encuentra una nueva plataforma de unos 117 m^2, pero no ha sido posible acceder a la misma. En las paredes que definen el foso no se han hallado huellas de instrumentos de talla o de corte, aunque la naturaleza de la roca caliza permitiría haber realizado la extracción mediante diaclasas naturales.

La intervención arqueológica

La intervención arqueológica ha consistido en la prospección intensiva del área, la documentación planimétrica de todo el conjunto y la realización de un único sondeo en la superficie amesetada superior de la plataforma principal (zona A). Al tratarse de uno de los pocos lugares en los que había una cierta potencia estratigráfica, se consideró que sería el lugar adecuado para poder caracterizar el yacimiento y obtener una cronología precisa. En cambio, se estimó oportuno reservar la plataforma inferior (zona B) en previsión de futuros trabajos.

El trazado del sector excavado tuvo que adaptarse a la morfología de la superficie, cubriendo una extensión de 7 m^2. No se hallaron restos de estructuras, ni en piedra ni en otros materiales, aunque sí se recuperaron fragmentos de arcilla que podrían pertenecer al manteado de alguna construcción ligera. La excavación del sondeo permitió identificar una ocupación doméstica de época plenomedieval relativa al último momento de ocupación del lugar. En contacto con la roca aplanada se halló parte de un suelo de tierra apisonada, un hogar y depósitos de uso y abandono en los que se recuperó un discreto número de materiales arqueológicos que incluyen fauna, metales y cerámicas.

Aunque la fragmentación de las piezas cerámicas recuperadas era muy elevada, se ha podido reconocer un reducido número de formas cerradas conservadas de forma bastante íntegra. Se puede concluir, por lo tanto, que estos materiales no han sido desplazados una vez descartados. Más concretamente se han reconocido cuatro individuos: una olla u orza monoansada con borde ligeramente exvasado y labio biselado y almendrado; una olla globular de fondo plano y ligeramente cóncavo, con un borde exvasado y labio redondeado; una botella o jarrita espatulada de cuerpo alargado y troncocónico con una base amplia, boca reducida y pico vertedor; una jarra o cántaro con borde trilobulado monoansado de gran apertura de boca y base plana. En base a los paralelos estas piezas se podrían fechar entre los siglos XI-XIII.

Entre los materiales metálicos se han recuperado algunos dardos o puntas de flecha y un conjunto de cinco apliques calados de forma circular realizados en bronce dorado y decorados con motivos geométricos y vegetales. Ejemplares similares han sido recu-

Peña los Castros aztarnategiaren planimetria airetiko argazki batean oinarrituta.

Planimetría de Peña los Castros sobre fotografía aérea.

landare motiboekin eta motibo geometrikoekin daude dekoratuta. Antzeko aleak berreskuratu izan dira Erdi Aro Beteko kronologian finkatzen diren inguruko beste aztarnategi batzuetan.

Fauna hezur batzuek osatzen dute multzoa, batzuk suaren eraginez daude belztuta.

Laburbilduz, esan dezagun posizio primarioan zeuden elementuak direla, segur aski in situ abandonatu zituztela azken erabilera aldian. Kontuan izanik deposituen lodiera estratigrafiko mugatua eta sekuentzia diakroniko baten absentzia, ez dago okupazioaren hasierako unea finkatzerik, bai ordea okupazioa abandonatu zuten unea. Kontuan izanik berreskuratutako aztarnen bolumena eta munta, oso litekeena da garaian garaiko okupazioen emaitzak izatea.

Goiko bi plataformak bereizten dituen ustezko zuloa edo lubanarroa alde batera utzirik, Peñako goiko plataforman eraiki zuten egitura edo egiturak ez ziren oso handiak izango, eta segur aski oso material arinekin egongo ziren eginda alde horretan. Bestalde, ez dago okupazio aristokratiko bat salatuko lukeen ageriko aztarnarik, baina bai izaera militarreko garnizio txiki batek erabili izanaren arrastoak. Erabilera hori segur aski etena izango zen, edo intentsitate apalekoa.

Emaitzak eta interpretazioa

Peña los Castros aztarnategian identifikatutako aztarnak guztiz bat datoz penintsularen iparraldean ongi asko ezagutzen den Erdi Aroko gotorleku mota batekin; egile batzuek haitzetako gazteluak edo altuerako gazteluak esaten diete halakoei. Funtsean, behin-behinean erabiltzeko gotorlekuak dira, mendi bateko gailurrak edo harrizko haitzak eskaintzen dituen

perados en otros yacimientos próximos en cronologías plenomedievales.

Completan el conjunto algunos fragmentos de fauna, en ocasiones ennegrecidos por la acción del fuego.

En definitiva, se trata de materiales en posición primaria que probablemente han sido abandonos in situ durante el último período de uso. Teniendo en cuenta la limitada potencia estratigráfica de los depósitos y la ausencia de una secuencia diacrónica, no resulta posible establecer el momento inicial de la ocupación, únicamente el de su abandono. También podría sugerirse que se trataría de ocupaciones estacionales, teniendo en cuenta el volumen y la entidad de restos recuperados.

Con excepción del presunto foso que divide las dos mesetas, la estructura o estructuras que se realizaron en la plataforma superior de la Peña no debieron ser de notable entidad, y probablemente han sido realizadas en parte con materiales ligeros. Por otro lado, no hay elementos evidentes de una ocupación aristocrática, pero sí de un uso por parte de una reducida guarnición de carácter militar, probablemente discontinua o de baja intensidad.

Resultados e interpretación

Los restos hallados en Peña los Castros son compatibles con un tipo de fortificaciones medievales bien conocido en el norte peninsular denominados por varios autores como castillos roquedos o castillos de altura. Se trata, sustancialmente, de fortificaciones de uso temporal que aprovechan las defensas naturales que proporciona la ubicación en un pico rocoso o

Indusketa lanetan berreskuratutako metalezko aplikeak eta burdinezko dardoak.

Apliques metálicos y dardos de hierro recuperados en la excavación.

defentsa naturalak baliatzen dituztenak. Defendatzeko gaitasun hori emendatzeko munta txikiko obrak eta egokitzapenak egingo zituzten, mendi hegal malkartsuek berez zailduko baitzituzten sarrerak. Beraz, eraikuntza eta mantentze lanak xumeak izango ziren, baina behar izanez gero lekua berriz okupatzeko modua eskainiko zuten. Zalantzarik gabe, honakoa gotorleku xumea izango zen, eta haren funtzio nagusia erasotzea ez baizik eta lurralde zabal batetik bistaratu ahal izatea izango zen. Hortaz, botere gunetzat har daiteke, bertan antolatuko baitziren agintaritza eta legezkotasuna, baina baita unean-unean erabiltzeko behin-behineko gune militar bat ere.

Asturias, Kantabria, Bizkaia eta Gipuzkoako mota honetako gotorleku ezagunek (esate baterako, Buanga, Subiedes, Untzueta, Aitzorrotz, etab.) erakusten dute gotorleku mota honen irakurgarritasun maila oso aldakorra dela, betiere okupazioaren muntaren, higadura prozesuen eta erabileraren iraupenaren araberakoa baita. Gainera, halakoak altuera desberdinetan egokitzen ziren eta funtzio desberdinak betetzen zituzten bi plataformaren inguruan antolatu ohi ziren sarritan. Peña los Castros aztarnategian bideratu dugun esku hartzea intentsitatea apalekoa izan denez, ezin izan dugu gune guztien artikulazioa zehatz definitu. Nolanahi ere den, haitzetako edo alturako gaztelua da, garnizio batek gutxienez XI-XII. mendeetan behin-behinean erabili zuena. Bestalde, ez dago baztertzerik lehendik ere erabili izana. Izan ere, iparraldeko eta Europako beste alde batzuetako Erdi Aroko gaztelu asko eta askoren ezaugarri nagusia da hain zuzen ere euren izaera material eskasa, haitzetako edo alturako beste gazteluen parekoa baita.

Lantaronen gaztelu bat dagoela 1175. urtean Gaubean zeuden ondasun fiskalak identifikatzeko xedean egindako ikerketa batean baizik ez dago dokumentatuta. Egintza hori berresten duen agirian, espresuki aipatzen da «*Ferrant Pelaez qui tenebat castellum de Lhantaron*» delako bat. Hala eta guztiz ere, ugari izan dira Goi Erdi Aroan Lantaronen izen bereko konderri baten buruan izan zen gaztelua iradoki edo, besterik gabe, onartu duten egileak. Baina,

la cima de una montaña. La capacidad defensiva se ve reforzada mediante la realización de obras y adecuaciones de pequeña entidad, puesto que las abruptas laderas dificultarían por sí mismas los accesos. De esta manera, las labores de construcción y mantenimiento serían sencillas, permitiendo la reocupación regular en caso de necesidad. No cabe duda de que ha debido ser una fortificación modesta, destinada más a ser vista desde un amplio territorio que a desempeñar un papel ofensivo activo. Podría interpretarse, por lo tanto, como un centro de poder desde el que se construye autoridad y legitimidad, así como un punto militar temporal de uso coyuntural.

Los ejemplos conocidos en Asturias, Cantabria, Bizkaia o Gipuzkoa (p.e. Buanga, Subiedes, Untzueta, Aitzorrotz, etc.) muestran que el grado de legibilidad de este tipo de fortificaciones es muy variable en función de la entidad de la ocupación, los procesos erosivos y la perduración de uso. Suele ser frecuente, además, que se hayan articulado en torno a dos plataformas situadas a distintas alturas con distintas funciones. Puesto que la intervención de Peña los Castros ha sido de baja intensidad, no se ha podido definir con precisión la articulación de todos los espacios. En todo caso, se trata de un castillo roquedo o de altura que estuvo en uso, al menos, en los siglos XI-XII por parte de una guarnición de forma estacional. Por otro lado, no se debe descartar que hubiese estado en uso con anterioridad. De hecho, un rasgo que caracteriza muchos castillos altomedievales del norte y otros sectores europeos es precisamente su escasa entidad material, asimilable a los castillos roquedos o de altura.

La existencia de un castillo en Lantarón solamente está documentada en una única ocasión en una pesquisa realizada en el año 1175 destinada a identificar los bienes fiscales existentes en Valdegovía. En la confirmación de este acto se menciona expresamente a un cierto «*Ferrant Pelaez qui tenebat castellum de Lhantaron*». No obstante, han sido numerosos los autores que han sugerido o asumido sin más que ha habido un castillo de Lantarón en la Alta Edad Media a

egiari zor, IX. mende amaieraren eta XI. mendearen erdialdearen artean idatzitako dokumentu batzuek jasotzen dutena da beren buruari Lantarongo konde esaten dioten pertsonaia batzuk daudela; beraz, titulu hori konderri baten jabetzarekin edo jabariarekin baino banakoen estatusarekin lotzen zela esan behar dugu. Nolanahi ere, aditu guztiak bat datoz XI. mendean zehar lurraldetasun politiko horren grabitate zentroa Lantarondik Terminora (gaur egun Santa Gadea del Cid) aldatu zela onartzerakoan. Hala bada, mende horretan bi erreferentzia espazial horiek erabili zituzten pertsonaia horiek. Bestalde, lurralde bat, gaztelu bat eta leku populatu bat (segur aski 1384 eta 1442 urte bitartean hustuko zen) izendatzeko erabili zen Lantarón izena.

Peña los Castros gotorlekua Lantarongo gazteluarekin identifikatu ote liteke? Toponimiaren etenak ez du identifikazio hori zalantzarik gabe finkatzeko modurik eskaintzen, baina ez dago aukera hori baztertzerik. Bestalde, Peña los Castros aztarnategitik lerro zuzenean 1,75 km-ra Berbeia izeneko lekua dago, eta badakigu bertan 1123. urteko dokumentu batean aipatzen den beste gaztelu bat izan zela Erdi Aroan, eta leku garrantzitsua zela tokiko geografia politikoan, bertan biltzen baitzen Barrioko kontzejua. Leku hori 70. urteetan ikertu zuten Burdin Aroko okupazioa aztertzeko lanen testuinguruan, eta «herrixkako Erdi Aroko dorre txiki bat» dokumentatu zen orduan. Kontuan izanik erreferentzia idatziak eta berreskuratutako materialak, zalantzarik ez dago Peña los Castros eta Berbeiako haitzetako gotorlekuak XII. mendean erabiltzen zituztela, agian defentsa sistema edo sare bat osatuz. Gainera, biak dira garaikideak Lantarongo gazteluari buruzko aipamen bakarrarekin.

Hala eta guztiz ere, funtsean ez da hain garrantzitsua Peña los Castros aztarnategia Lantarongo gaztelua izatea edo ez, gotorleku horren aurkikuntzak aukera ematen baitu Erdi Aroko gotorlekuak hobe ezaugarritzeko eta ezagutzeko, eta ondorioz, Arabako alde honetan gutxienez XI-XII. mendeetan zehar bideratu zituzten praktika politikoen nondik norakoak ezagutzeko. Eta ez dago baztertzerik horien jatorriak lehenagokoak izatea. IX-XI. mendeetan Lantarongo kondeen mende zegoen lurraldeko geografia politikoa polizentrismo funtzionaletan oinarritzen zela esan behar dugu: apezpikutegia, justizia emateko lekuak, palatia, monasterio eta eliza pribatuak eta tokiko beste botere forma batzuk han-hemen barreiatuta azaltzen dira lurraldeko hainbat puntutan. Jada Goi Erdi Aroaz geroztik lurralde zabal batetik bistaratu zitekeen gaztelu baten edo batzuen presentzia guztiz bateragarria da Peña los Castros aztarnategiarekin eta, agian, baita Berbeiakoarekin ere.

movían por los espacios montanos. Siguiendo con el agua de boca, Zigoitia es fundamental para la provisión hídrica contemporánea de Vitoria-Gasteiz. Inicialmente tomando varios manantiales durante la segunda mitad del siglo XIX y transportándolos hasta el depósito de El Campillo, a casi 20 kilómetros de distancia. Este abastecimiento se mejoró en la década de los 30 del siglo XX gracias a dos embalses en el río Zubialde Con una finalidad agrícola y ganadera, hemos identificado 16 balsas artificiales que se llenaban gracias a manantiales cercanos o, simplemente, con el aporte de lluvia.

En otro ámbito, y gracias a la labor incansable de Javier Castro y la asociación Abadelaueta, se han catalogado en Zigoitia 52 áreas de extracción de muelas de molino con no menos de 120 piedras de diferentes dimensiones (45-160 cm de diámetro), conservadas en distintas fases de ejecución. Existen también varios ejemplos de canteras para edificación y obras de ingeniería (las canteras de Oketa abastecieron históricamente a numerosas edificaciones de todo tipo en un entorno muy amplio), zonas de extracción de arenas o arcilla y, ya de cronología contemporánea, catas mineras y galerías subterráneas de corredor en busca de minerales.

Aunque no se hallaba entre los objetivos de investigación iniciales, la gran presencia de huellas materiales relacionadas con la Guerra Civil (92 UPs; el 8,3% de los elementos identificados) y la colaboración de Josu Santamarina, arqueólogo especialista en esta temática, obligaba a tener en cuenta el registro bélico. Cronológicamente, son restos muy bien anclados, y sirven además de referencias *ante quem* para datar relativamente otras estructuras tradicionales que son afectadas por ellos. Republicanos y franquistas establecieron líneas de trincheras en zig-zag, posiciones de tirador, fortines, búnkeres, edificaciones auxiliares, caminos y cables aéreos de abastecimiento, lugares de descanso para soldados y prisioneros o monumentos honoríficos, cuyas sobrecogedoras huellas han llegado a la actualidad.

Y, para finalizar este breve repaso, no podemos olvidar que la ocupación y explotación de un territorio se articula necesariamente a través de un tejido viario que une poblaciones, personas, productos e ideas. Hemos identificado hasta 118 elementos relacionados con la caminería tradicional (el 11% del total). Existen rutas históricas de larga distancia que son conocidas desde al menos la Edad Media y presentan continuas intervenciones a lo largo del tiempo, por ejemplo las tres vías que conectaban la Llanada Alavesa con Bizkaia y los puertos del cantábrico a través del territorio de Zigoitia, utilizando los pasos de Altube, Barazar y Urkiola. Sin embargo, la mayoría de los caminos tradicionales unen localidades cercanas y presentan materialidades de menor porte. Queremos llamar la atención en todo caso sobre los «caminos perdidos del bosque» que unían los núcleos con sus zonas forestales, ganaderas y de extracción en altura. Son fácilmente reconocibles por presentar secciones cóncavas excavadas en el terreno, a menudo con fuerte pendiente, sin fábrica de piedra y plataformas de uso siempre menores a 150 cm, lo que remite al uso de recuas, pequeños carros de sección estrecha o trineos sin rueda.

Esku hartzeak zorupean

2020an Madalenako karobian eta Arbinako Iturrian lan egin dugu.

Madalenako karobia (Etxaguen/Murua)

Karea egiteko labe hau Zigoitiko Mendietako herri lurretan dago, Etxaguen eta Murua herrien artean, Gorbeiako Parke Naturalean (X: 522071; Y: 4759650; Z: 670 m). 2014an aztertutako beste bi labeetatik oso gertu dago. Labearen barrunbea eta korridorea induskatu ditugu erregistro arkeologikoa agortu arte. Bestalde, 1 x 1 m-ko bi zundaketa txiki egin ditugu, iparraldean bata eta hegoaldean bestea, karearen ekoizpenarekin zerikusirik ez duten beste jarduera batzuekin lotu zitezkeen aztarnak –halakorik izanez gero– hauteman ahal izateko.

Estratigrafiaren ikuspegitik, karobia eraikitzeko hauteman den lehenengo ekintza lurrean egindako ebaki erraldoia da, oinplano zirkularrekoa, gehienez ere 3,60 m-ra iristen den diametroarekin. Sekzioan, zuloaren profila apur bat estutzen da gorantz, gutxi gorabehera 2,50 m-tan dago induskatuta. Beherago, soilik sarreran eteten den maila bat du perimetro osoan. Banku luze antzeko bat da, gutxi gorabehera 0,50 m zabal, kareharria ganga moduan ipintzeko erabiliko zuten. Maila horretatik aurrera, beste 0,90 m-tan sakontzen da labea, hondo ahurrarekin, ia erdiesferikoa. Hegoaldean du sarrera, tunel formakoa: gutxi gorabehera 0,83 m garai da eta kanpoko aldera (hegoaldera) 0,50 eta 1,00 m bitarte luze da. Gutxi gorabehera 4,70 m-koa da labearen desnibela goiko ertzetik hondoraino. Oso interesgarria da zilindro handi honetako pareten barruko aurpegia xehetasunez aztertzea, tarte batzuetan zuloa induskatzeko erabili zuten pikotxak utzitako arrastoak ikus baitaitezke. Gainera, iristen ziren tenperaturen ondorioz, gorrituta gertatuko ziren zuzenean pikotxaz landutako tarte horiek, eta beraz, baztertu egiten dugu beste ikertzaile batzuek proposatutako buztin erregogorrez luzitu izana –gutxienez goiko aldean–.

Labean hegoaldetik sartzeko tunela da obra honetako zatirik delikatuena, oso litekeena baitzen behera etorri izana, halakoak eskuarki ez baitira kontserbatzen. Esku hartze honetan zehar konponketa bat hauteman ahal izan dugu arkuaren kanpoko aldean (gutxi gorabehera 0,80 m zabal eta 0,50 m lodi). Trinkotutako buztinezko masa bat da, kareharrizko harri batzuk bildu dituena (harri horiek labeko kargatik beretik etorriak izango dira seguruenik). Konponketari erreparatzen badiogu, lurrari eusteko zinbria motaren bat edo zutiko batzuk beharko zituen. Bestalde, esan beharra dago sartzeko korridoreak ez duela labeko eduki osoa grabitatez ateratzeko aukerarik ematen, labe hondoa sarrerako baoa baino beherago baitago. Ondorioz, perimetroko mailak zehatz mugatutako kubeta handi bat sortzen da.

Ez dakigu zenbat aldiz erabili zuten labe hori, baina, kontuan izanik paretak suak gorrituta eta beiratuta zeudela, segur aski sarritan erabili zuten. Esku hartze honetan zehar estratigrafikoki hustu dugu karea egiteko azken labealdiaren aztarnatzat interpretatu duguna. Zaharrenetik hasi eta modernoenean amai, hauexek bereizi ditugu:

Intervenciones en el subsuelo

Los elementos intervenidos en 2020 han sido el Calero de la Magdalena y la Fuente de Arbina.

Calero de La Magdalena (Etxaguen / Murua)

Este horno para la fabricación de cal se sitúa en terrenos comunales de los Montes de Zigoitia entre las localidades de Etxaguen y Murua, dentro del Parque Natural de Gorbeia (X: 522071; Y: 4759650; Z: 670 m). Se encuentra muy próximo a los otros dos hornos intervenidos en 2014 Los trabajos han consistido en la excavación del interior y del pasillo del horno hasta agotar el registro arqueológico. También se han realizado dos pequeños sondeos de 1 x 1 m, uno al norte y otro al sur, para poder detectar –si las hubiera– evidencias que pudieran estar relacionas con otras actividades que no sean estrictamente la producción de cal.

Desde el punto de vista estratigráfico, la primera acción detectada para la elaboración del calero es un gigantesco corte en el terreno, con una planta circular, con un diámetro máximo que alcanza unos 3,60 metros. En sección, el perfil de este pozo presenta un leve estrechamiento hacia arriba, con un desarrollo excavado de unos 2,50 m. Más abajo, presenta un escalón perimetral únicamente interrumpido en el acceso. Se trata de una especie de banco corrido con una anchura de unos 0,50 m que serviría para colocar la piedra caliza de forma abovedada. A partir de este nivel, el horno profundiza otros 0,90 m, con un fondo cóncavo, prácticamente semiesférico. Hacia el sur se encuentra un acceso con forma de túnel, que perfora el terreno. Este acceso, aparece en la parte interna a unos 0,45 m del fondo, presenta una altura de unos 0,83 m y un desarrollo hacia el exterior (sur) de unos 0,50-1,00 m. El desnivel que presenta el horno desde su borde superior hasta el fondo alcanza unos 4,70 m. Resulta interesante la observación con detalle del interior de las paredes de este gran cilindro, ya que en algunos sectores se pueden apreciar las huellas del pico con el que fue excavado. Estas picadas realizadas directamente sobre el terreno se ven además afectadas por los procesos de rubefacción, debidos a las altas temperaturas obtenidas, lo cual descarta la posibilidad –al menos en la parte alta– de un enlucido de arcilla refractaria propuesto por otros investigadores.

El túnel de acceso desde el sur es una de las partes más delicadas de la obra ya que es probable que se desmoronara con facilidad, y lo más habitual es que no llegue a conservarse. En el transcurso de la intervención se ha podido detectar un arreglo en la parte exterior del arco, con una anchura de unos 0,80 m y un grosor de unos 0,50 m. Se trata de una masa de arcilla compactada que presenta algunas piedras calizas empastadas (muy posiblemente de la propia carga del horno). Tal como se presenta esta reparación, todo apunta a que requeriría algún tipo de cimbra o apuntalamiento para sujetar la tierra. Es también interesante señalar que el pasillo de acceso no permite la evacuación completa del contenido del horno por gravedad, ya que el fondo del mismo se encuentra más bajo que el vano de la entrada, de modo que genera una gran cubeta perfectamente delimitada por el escalón perimetral.

Se desconoce cuántas veces se utilizó el horno, aunque –a juzgar por el estado rubefactado y vitrificado

Labearen beheko aldean gehienez ere 15 cm-ko diametroa duten enborrekin osatutako geruza bat dokumentatzen da (enborrak karobiaren hondoan daude pilatuta). Egurra hein batean ikaztuta dago goiko aldean (sugarretan zegoen aldean), baina bikain kontserbatzen da beheko aldean (urpean dagoen aldea). Ez da antolamendu zehatzik hautematen enborren kokapenean. Egur zati handiena aztertu ondoren, Josue Susperregik berretsi zigun *Quercus spp.* bat dela, segur aski haritz kanduduna (*Q. Robur*) edo ametz arrunta (*Q. pyrenaica*). Baliteke erregaiaren gainerakoa labearen hondoan ez bustitzeko egurrezko ohe bat izatea, edo erre ez zen erregaiaren hondakinak izatea.

Zuzenean enbor hondakin horien gainean ikatz geruza lodi batez osatutako depositu bat kontserbatzen zen. Oso betegarri beltza eta plastikoa da, begi hutsez ez da egur zatirik bereizten hartan. Sakondu ahala gero eta hezeagoa da, eta beheko zatian urpean gelditzen da. Labearen hondoaren gopor formara egokitzen da. Hemen ere goiko mailatik etorritako kare zati batzuk identifikatzen dira. Karea egiteko azken labealdian zehar erabilitako erregaiaren hondakinak dira denak. Erregai hori hein handi batean osatuko zuten zuhaixketatik etorritako adaxkek, begi hutsez ez baita enbor bat irudikatzeko modua eskainiko lukeen adarrik.

Trinkotasun aldakorreko depositu batek estaltzen du ikatzezko geruza, kolorez zurixka, ehunduraz hareatsua, baina zati batzuk karezkoak dira, oso zurrunak eta hauskorrak. Sakondu ahala, beheko ikatzak ukituz, trinkoagoa da eta ez da horren hareatsua. Beheko zatian ugari dira karezko zarakarrak, batzuk oso handiak. Labe osoa hartzen du erdigunea izan ezik, erdigune horretan azaleratzen baita ikatzez osatutako maila. Karea egiteko azken labealdiaren hondakinak dira depositu horiek. Era berean, labearen perimetroko mailan, bada suak gorritutako isuri irregular eta izurtsu batzuez osatutako erlaitz bat, segur aski lehenagoko labealdietatik etorritako hondakinak dira isuri horiek.

Karobiaren hondoko depositu horiez gain, azken labealdian labea elikatzeko kareharrizko harri metaketa baten hondakinak identifikatu ditugu karobiaren perimetroko ertzean. Kareharrizko harri puskak dira, azaletik orez estaliak, gutxi gorabehera 18 x 15 x 10 cm-koak edo txikiagoak. Pieza gehienak nahita hautsiak direla ematen du.

Karobia abandonatu ostean, multzoa amortizatzen duten betegarri batzuk egokitu ziren elkarren gainean, gutxi gorabehera metro beteko lodiera hartuta. Betegarri horiek karobiko pareten suntsipen partzialez eta landare hondakin ugariez osatuta daude.

Laburbilduta, karea egiteko instalazio tradizional zoragarri baten aztarnen aurrean gaude, ongi samar kontserbatzen ditu bere elementuak, eta halakoak nolakoak ziren ezagutarazteko eredu bikaina da. Elementuaren kronologiari dagokionez, ezagutzen diren antzeko beste batzuekin tipologikoki alderatuta, de las paredes– seguramente en numerosas ocasiones. En el transcurso de la intervención se ha ido vaciando de forma estratigráfica lo que se ha interpretado como los restos de la extracción de la última hornada de cal. De más antiguo a más moderno localizamos:

En la parte inferior del horno se localizan restos de una capa de troncos de unos 15 cm de diámetro máximo, que se conservan en el fondo del calero. La madera está parcialmente carbonizada por la parte superior (en contacto con las llamas) y perfectamente conservada por la inferior (totalmente encharcada). No se detecta un orden concreto en la colocación de los troncos. Tras la inspección del madero de mayor tamaño, Josué Superregi nos confirma que se trata de *Quercus spp.*, probablemente roble pedunculado (*Q. robur*) o tocorno (*Q. pyrenaica*). Podría ser una cama de madera para evitar que el resto del combustible se mojara en el fondo del horno, o bien restos del combustible que no se quemó.

Directamente sobre los restos de troncos, se conservaba un depósito formado por una potente capa de carbones. Se trata de un relleno muy negro y plástico, en el que no se reconocen a simple vista fragmentos de madera. Se encuentra cada vez más húmedo al profundizar, hasta el punto de encharcarse en la parte inferior. Se adapta a la forma de cuenco del fondo del horno. Aparecen también, intercalados algunos fragmentos de cal procedentes del nivel superior. Todo ello se interpreta como los restos del combustible utilizado durante la última hornada de cal, que debió de ser en gran medida de tipo arbustivo ya que no se identifica ningún fragmento de ramita que recuerde a simple vista a una estructura lígnea.

La capa de carbones está cubierta por un depósito de compactación variable, con un color blanquecino y una textura arenosa, pero con algunas partes muy rígidas y quebradizas de cal. Este nivel presenta un aspecto menos arenoso y más compacto hacia abajo, en el contacto con los carbones inferiores. La parte inferior presenta abundantes costrones de cal, algunos de gran tamaño. Ocupa todo el horno salvo la parte central, por la que aflora el nivel de carbones. Este depósito se interpreta como los restos de la última hornada de cal. Del mismo modo, en el escalón perimetral del horno hay una repisa que presenta una serie de coladas rubefactadas, irregulares y rugosas, posiblemente restos de hornadas anteriores.

Además de estos depósitos situados en el fondo del calero, en su borde perimetral se han localizado los restos de los que se interpreta como restos del acopio de piedra caliza para alimentar el horno, durante su última carga. Se trata de fragmentos de piedra caliza empastados en el nivel superficial, que presentan un tamaño de unos 18 x 15 x 10 cm o inferior. La mayoría de ellos parece que hubieran sufrido un proceso de fragmentación deliberado.

Tras el abandono del calero se depositan varios rellenos superpuestos que amortizan el conjunto, con una potencia total próxima a un metro, resultado del desmoronamiento parcial de las paredes y la colmatación con abundantes restos vegetales.

En definitiva, no encontramos ante los restos de una magnífica instalación tradicional para la producción de cal, que conserva además bastante bien sus

esan dezagun XVIII. mendekoa izan daitekeela, baina tipologia honetako karobiak XIX. mendean orokortu zirela, XX. mende hasierara arte. Itxura guztien arabera orain dela gutxienez mende bat abandonatuko zuten, inguruko inork ere ez baitu gogoratzen karobi horren erabilera. Tipologiaren ikuspegitik, karobi eten izeneko karobia da aztergai dugun hau. Mendi hegalean egindako zulo bakun batzuk ziren karobi eten horiek, ia obrarik gabeak, eta ingurukoek berez eta behin eta berriz erabiliko zituzten egiturak betikoz hondatzen ziren arte. Kasuistika arruntena da Zigoitian.

Orain arte aztertutako dokumentuetan, Zigoitiko karobiei egindako aipamenak bereziki dira ugariak XVIII. eta XIX. mendeetan, asko eta asko aipatzen dira karearen prezioaren inguruan, aziendaren inguruan eta baso baliabide batzuen erabilera desegokiaren inguruan sortutako liskar eta bat ez etortzeen harira.

Arbinako Iturria (Eribe)

Metodologia arkeologikoari jarraiki garbitu dugu elementu hau hondakinen kontserbazio egoera balioesteko eta beste kanpaina batean berreskuratzeko aukera aintzat hartzeko. Zigoitiko udalerriaren ekialdean dago iturri hau, Eribeko Administrazio Batzordearen baitan (herriaren ipar-ekialdean), kontzejuarenak berarenak diren lurretan (X: 524620; Y: 4756495; Z: 608 m).

elementos, con una interesante capacidad didáctica. En cuanto a la cronología del elemento, por comparación tipológica con otros casos similares conocidos, su origen podría retrotraerse hasta el siglo XVIII, aunque la generalización de este tipo de caleros se produce a lo largo del siglo XIX, prolongándose hasta principios del siglo XX. Todo indica que su abandono debió producirse hace al menos un siglo, ya que nadie de lugar recuerda haber oído mencionar su uso. Tipológicamente el calero intervenido se corresponde con los denominados caleros intermitentes. Serían simples agujeros realizado en ladera sin apenas obra, y serían utilizados de forma espontánea y recurrente por los lugareños hasta que la estructura se deterioraba definitivamente. Se trata de la casuística más habitual en Zigoitia.

En la revisión documental realizada hasta el momento, las menciones a caleros en Zigoitia son especialmente frecuentes entre los siglos XVIII y XIX, muchas veces en relación con conflictos y desacuerdos sobre el precio de la cal, problemas con el ganado y el uso indebido de algunos recursos forestales.

Fuente de Arbina (Eribe)

Sobre este elemento se ha realizado una limpieza con metodología arqueológica con el objetivo de valorar el estado de conservación de los restos y considerar la posibilidad de su recuperación en otra campaña. Se sitúa al este del municipio de Zigoitia y dentro de la Junta Administrativa de Eribe (al NE de su núcleo), en terrenos que pertenecen al propio concejo (X: 524620; Y: 4756495; Z: 608 m).

Arbinako Iturriaren planoa.

Plano de la Fuente de Arbina.

Orain gutxira arte, XX. mendearen bigarren erdialdean abandonatu zutenetik, iturriaren hondakinak urpean gelditzen ziren urte sasoiaren arabera, eta zuhaixka eta lokatz geruza trinko batez estalita gelditzen ziren. Esku hartzeari ekin baino lehen, lursailen arteko bidean behera, iturburu baten gainean zerbitzua emateko egitura txiki batean (ur depositua-urmaela, estalkirik gabea) egindako iturri bat zela sumatu zitekeen. Egitura hori segur aski harlangaitzezko hormatxoek mugatuta egongo zen, eta iturriari berari (iparraldean) egingo zion sarrera, iturriaren frontea ere harlangaitzezkoa. Hegoaldean poligono irregular baten formako depositua edo urmaela egongo zen harlangaitzezko hormek mugatua, itxura batean estalkirik gabe, eta ezagutu zutenek esaten zutenez lixiba jotzeko erabiltzen zuten. Horregatik guztiagatik, inolako zalantzarik gabe da zerbitzu hidriko tradizionaleko egitura garrantzitsua, gaur egun ondare zerrenda bakar batean jasota ez dagoen arren eta Meneako Herrixka eta San Juan Tenplua Balizko Arkeologia Gunearen (Zigoitiko Ondare Arkeologikoko 14. fitxa) muga ofizialetik oso hurbil dagoen arren.

Berrogei urtetik gora abandonatuta egon ondoren, 2020an burututako lan arkeologikoei esker agerian gelditu dira multzoaren hondakinak aski kontserbazio egoera onargarrian. Jarraian deskribatuko dugu.

Iturria bera tokiko kareharrizko harlangaitzekin eraikia da, harriak ez daude landuta edo soilik ertzak dauzkate kenduta, nahiz eta pieza gehien-gehienak lau samarrak diren. Bi atal bereizten dira. Gibelaldean, elementuaren iparraldeko muturrean, lurrari atxikitako horma edo pantaila bat topatzen dugu, gutxi gorabehera 2,50 m luze eta 1,30 m garai, segur aski ekialderantz luzatzen dena –ingurukoek adierazi digutenez– eta alboko lursailarekiko eustormarena egiten duena. Pantaila/horma horrek gutxi gorabehera 0,25-0,30 m bitarteko bi leihatila txiki ditu behe aldean, bere garaian leihatila horietatik aterako zen ura. Oraingoz ez dakigu ezponda aldera lurperatuta uraska edo deposituren bat ote dagoen edo iparraldera ur harguneren bat ote dagoen. Trapezoide formako uraska batean (batez beste 1,58 m-ko aldea du goiko aldean) biltzen zen ura. Uraska hori estutu egiten da beherantz (era berean trapezoide formako oinplanoarekin, gutxi gorabehera 1,10-1,35 x 1,25 metrokoa eta gutxi gorabehera 0,35 m sakon). Bereziki uraskaren hondoan kolore laranjako kareore oso trinko baten hondakinak identifikatzen dira, hondoko lauzak eta artesiak zigilatzen zituen kareorezko geruza horrek. Bestalde, uraskaren eskuinaldea guztiz okupatzen zuen hareharrizko pieza angeluzuzen handi batek (1,88 m luze eta 0,35 cm garai), paretan sartuta zegoen gutxi gorabehera beste 35 cm-tan, ikus zitekeenez. Kontuan izanik pieza monolitiko hori bikain eskuairatuta zegoela, haren litologia aloktonoa dela eta Meneako herrixka eta San Juan Tenplua gertu daudela, oso litekeena da Erdi Aroko hilobi bati dagokion pieza berrerabilia izatea.

Hegoaldera istmo moduko korridore bat dago, 1,50 eta 2,00 m bitarte zabal, urmaelarekin lotzen dena. Haren goiko aldean uraskan erabilitako kareorearen antzeko kareore batez batutako lauzekin egindako lauzadura baten hondakinak identifikatzen dira, lauzadura horrexek estaliko zuen jatorrian goiko alde

Hasta hace poco, sus restos se encontraban estacionalmente inundados y cubiertos por una densa capa de arbustos y barro, desde su abandono en la segunda mitad del siglo XX. Antes de la intervención, según se descendía desde la pista de parcelaria, se intuía que se trataba de una fuente sobre manantial en un pequeño habitáculo cuadrangular de servicio (depósito-piscina exterior, sin cubierta), delimitado posiblemente por muretes de mampostería que daba paso a la fuente propiamente dicha (al norte), en frente también de mampostería. Al sur, debió existir una piscina en forma de polígono irregular delimitada en mampostería que fue utilizada (según comentaban los que la conocieron) para fines domésticos de colada, sin presentar aparentemente cubierta alguna. Por todo ello, no cabe duda, de que se trata de una importante estructura de servicio hídrico tradicional que actualmente no se halla inscrita en ningún inventario patrimonial, a pesar de encontrarse muy cerca de la delimitación oficial de la Zona de Presunción Arqueológica del Poblado de Menea y Templo de San Juan (Ficha nº 14 del Patrimonio Arqueológico de Zigoitia).

Los trabajos arqueológicos realizados en 2020 han permitido sacar a la luz completamente los restos del conjunto, tras más de cuarenta años de abandono, en un estado de conservación aceptable. A continuación describimos su materialidad.

La fuente propiamente dicha está construida con mampostería caliza local que apenas presenta tratamiento ni talla, aunque la mayoría de las piezas muestra una clara tendencia al aplanamiento. Hay dos partes diferenciadas. Al fondo, en el extremo septentrional del elemento encontramos una pantalla adosada al terreno que presenta un desarrollo de unos 2,50 m y una altura de 1,30 m y que probablemente continúe hacia el este –tal como han informado los lugareños– actuando como muro de contención de la finca aneja. Este muro-pantalla presenta dos pequeñas ventanitas con una luz de unos 0,25-0,30 m en la parte inferior, por las que en su día debió manar el agua. Por el momento, se desconoce si existe un depósito aljibe enterrado hacia el talud o si existe algún tipo de captación hacia el norte. El agua se acumulaba en una pila de forma en planta trapezoidal con un promedio de unos 1,58 m de lado en la parte superior. Esta pila, se va estrechando hacia abajo, con una planta también trapezoidal de unos 1,10-1,35 x 1,25 m, y una profundidad de unos 0,35 m. Especialmente en la parte inferior de la pila se aprecian restos de una argamasa anaranjada, muy compacta, que sellaba las fisuras y las lajas del fondo. Por otro lado, el lateral derecho de la pila está totalmente ocupado por una gran pieza rectangular de arenisca, de 1,88 m de largo y 0,35 cm de altura, embutida en la pared hasta un desarrollo visible también de unos 0,35 cm. La forma tan bien escuadrada de esta pieza monolítica, su litología alóctona y la cercanía de la Poblado de Menea y Templo de San Juan sugieren que podría tratarse de un antiguo sepulcro medieval reutilizado.

Inmediatamente hacia el sur hay un pasillo, a modo de istmo, con una anchura de entre 1,50-2,00 m que conecta con la alberca, en cuya parte superior se aprecian los restos del enlosado de lajas trabadas con una argamasa similar a la de la pila, que originalmente coronaría toda esta parte. Desde la pila, conti-

hori guztia. Urmael horretatik aurrera, ustezko sarkofagoaren trazadurari jarraiki, uraska elikatuko zuen kanala hautematen da.

Uraska da multzoko elementurik aipagarriena, poligono irregularreko forma du, 5,00 metro baino luzeagoa eta zabalagoa da, eta gutxi gorabehera 0,50-0,60 metro bitarte sakon. Obra guztia dago tokiko kareharrizko/tuparrizko bloke handiekin egina, pizak handiagoak direla barruko alderantz. Horma osoaren kontserbazio egoera ez da berdina atal guztietan, tarte batzuk hondatuago daude hego-ekialdeko angeluan. Uraskaren ekialdeko ertzeko pieza batzuk handiagoak dira barruko aldera, hegal antzeko bat eratzen dute urmaelaren gainean. Baliteke pieza horiek halaxe egotea ondoko lursaileko lurren presioaren ondorioz, eta baliteke piezak berariaz ipini izana modu horretan uretara iristeko. Esan bezala, oso egoera txarrean zegoen urmaelaren hego-mendebaldeko muturra, eta horma atal horretako hondakinen artean era berean oso hondatuta zegoen burdinazko hodi bat identifikatu genuen. Burdinazko uztai bati lotutako zurezko tapoia kenduta, hodi horren bidez husten zuten aldian behin uraska.

Uraskaren hondoa tokiko harrizko oso lauza handiekin eginda dago. Piezak bikain daude berdinduta, estekadura poligonal irregular baten arabera daude antolatuta, baina erdialdeko pieza batzuk beren lekutik atera egin zituzten multzoa betikoz abandonatu baino lehen.

Hegoaldean aipagarria da arropa eskuz garbitzeko harria. Kareharrizko/tuparrizko pieza angeluzuzena da, gutxi gorabehera 0,95 x 0,45 m-koa, inklinatuta dago, beheko aldea mendebalderantz. Deigarria da uraskaren ertzaren perpendikularrean ez baizik eta haren paraleloan egokitzea, normalean perpendikularrean behar baitzuen. Uraskako pieza gehien-gehienek ez dute kareorearen arrastorik, baita tarteka kareore zurixkako eta zementuzko zati batzuk identifikatzen dira, multzoan ondoz ondo bideratutako konponketen emaitza dira. Hain zuzen ere arropa garbitzeko harrian eta bere inguruan bereizten dira zementu modernoaren arrasto gehienak, eta beraz, uraska eraiki ondoren erantsiko zioten elementu berriagoa izan daiteke harri hori.

Urmaelaren hegoaldean beste bi elementu interesgarri dokumentatu ditugu, inguru hau lursail kontzentrazioaren bezperara arte nola egituratu zen ulertzeko oso baliagarriak. Alde batetik, egungo lursailen arteko bidearen paraleloan baina metro batzuk iparralderago luzatzen zen bide zahar baten aztarnak aurkitu ditugu. Zanpatutako lurrez eta harri batzuez egindako bidea da, eta iturri ondoko tarte honetan ia hiru metro zabal izango zen, airetiko argazki historikoan ikus daitekeenez trazaduraren gainerakoan estuagoa bazen ere. Bestalde, bide horren hegoaldean, katastroaren antolamendu berriarekin desagertu den lursail bateko eustorma baten (gutxi gorabehera 8 m luze) hondakinak kontserbatzen dira.

Iturriaren eraikuntzaren kronologiari dagokionez, inguruko adintsuenek diotenez ez dago jasota noiz eraiki zuten, besterik gabe hortxe ezagutu zuten beti, eta beraz, itxura guztien arabera gutxienez XIX. mendekoa izango da. Multzoa XX. mendeko 70. hamarkadaren bigarren erdialdean abandonatu zuten behin nuando con el trazado del supuesto sarcófago, se intuye el canal que alimentaría la alberca.

La alberca es el elemento más destacado del conjunto, con forma de polígono irregular, con una longitud y anchura que superan los 5,00 m, así como una profundidad de unos 0,50-0,60 m. Toda la obra está realizada con grandes bloques de la caliza-margosa local, de mayor tamaño hacia la parte interna. La conservación de todo este murete es variable con los tramos más deteriorados en el ángulo sudoriental. Algunas de las piezas del borde oriental de la alberca presentan cierto desarrollo hacia el interior, haciendo una especie de voladizo sobre el estanque. Esta circunstancia podría ser debido a los empujes de terreno desde la finca aneja o bien fueron que colocadas así, de forma deliberada, para acceder al agua. Como hemos comentado, el extremo SW del estaque se encontraba muy deteriorado y entre los restos del murete se localizó un tubo de hierro –también muy estropeado– que servía para vaciar de forma periódica la alberca extrayendo un tapón de madera sujeto a una argolla de hierro.

El fondo de la alberca está rematado con grandísimas lajas de la piedra local, perfectamente niveladas y encajadas con un aparejo poligonal irregular, aunque en el centro fueron arrancadas varias piezas antes del abandono definitivo del conjunto.

En el lateral meridional, destaca la presencia de una piedra para lavar a mano. Se trata de una pieza de caliza margosa rectangular de unos 0,95 x 0,45 m, inclinada con la parte inferior hacia el oeste. Llama la atención que se encuentra curiosamente orientada de forma paralela al borde de la alberca, en lugar de perpendicularmente, que sería lo habitual. La mayor parte de las piezas de la alberca no presentan restos de argamasa, aunque se conservan puntualmente algunos tramos de argamasa blanquecina e incluso cemento, que se relacionan con las sucesivas reparaciones que tuvo el conjunto. Es en la propia piedra de lavar y a su alrededor donde se detectan más vestigios de cemento moderno, por lo que podría tratarse de un añadido más reciente.

Al sur del estanque se han documentado, asimismo, dos elementos interesantes que sirven para entender cómo se articuló este espacio hasta vísperas de la concentración parcelaria. Por un lado, se han localizado los restos del antiguo camino que discurría con un trazado paralelo a la actual parcelaria, aunque desplazado unos metros hacia el norte. Se trata de una vía de tierra apisonada y algunas piedras, que en este tramo junto a la fuente debió tener una anchura de casi tres metros, aunque según se aprecia en la fotografía aérea histórica era por lo general más estrecho. Por otro lado, al sur del camino se conservan los restos del muro de contención –con unos 8 metros de desarrollo– de una parcela que desapareció con la nueva organización catastral.

En cuanto a la cronología de la construcción de la fuente, según atestiguan los mayores del lugar, no hay constancia del momento de su obra, simplemente ya existía, por lo que todo apunta a que debió realizarse como mínimo durante el siglo XIX. El conjunto fue definitivamente abandonado en la segunda mitad de los años 70 del siglo XX. La cita-

betiko. Aipatutako lursail kontzentrazio hori 1975. urte inguruan egin zen Zigoitian, eta urak 1977an ekarri ziren Eribera: bi ekintza horiek izan ziren multzo hau ahanzturara kondenatu zutenak.

Orduz geroztik jalkin berri asko metatu da ibarbide horretan, lokazti lodi bat eratu da, uraskako sektore batzuetan metro bete lodi izateraino iritsi dela. Depositu horretan aipagarria da aztarna antropikoen absentzia ia erabatekoa, baina garbiketa lanetan, urmaelaren mendebaldeko ertzean, Mauser fusilaz jaurtitzeko bala zorro bat aurkitu genuen, 0,92 mm-ko kalibrearekin, oso egoera txarrean. Segur aski Alemanian egina da, eta Gerra Zibilean erabiliko zen 1936ko azaroak 30 eta abenduak 2 bitartean Legutioko Guduaren testuinguruan izan ziren borroketan.

da concentración parcelaria, llevada a cabo en Zigoitia hacia 1975 y la traída de aguas a Eribe en 1977 fueron los dos eventos que condenaron a este conjunto al olvido.

Desde entonces en esta vaguada se ha acumulado una gran cantidad de sedimento reciente, constituido por un potente lodazal que en algunos sectores de la alberca ha llegado a alcanzar hasta un metro de espesor. En este depósito destaca la casi total ausencia de evidencias antrópicas, aunque durante la limpieza se ha recuperado en el borde occidental del estanque un casquillo en muy mal estado de fusil Mauser de 7,92 mm, muy probablemente de fabricación alemana, perteneciente a la Guerra Civil y relacionado con la operaciones llevadas a cabo entre el 30 de noviembre y el 3 de diciembre de 1936 en el contexto de la Batalla de Villarreal.

J. Rodríguez Fernández; Á. Martínez Montecelo

A.30. BESTE BATZUK / VARIOS

A.30.1. Okupazio arkeo-paleontologikoko harpeak Arabako Lurralde Historikoan

Zuzendaritza: Aritza Villaluenga
Finantzazioa: Euskal Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

A.30.1. Cavidades con ocupaciones arqueo-paleontológicas en el Territorio Histórico de Álava

Dirección: Aritza Villaluenga
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural Vasco. Gobierno Vasco

This article presents the preliminary results of the archaeological work carried out in some caves in the Province of Álava-Araba. In 2020, and despite the current health crisis, we were able to evaluate and analyse five caves located in the Province of Álava-Araba.

2020an zehar Arabako Lurralde Historikoko harpe sorta batean egindako kokapen, ebaluazio arkeologiko eta babes lanak aurkezten ditugu txosten honetan.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroak «Estudio y protección de cavidades con evidencias arqueológicas y paleontológicas alrededor de la Llanada Alavesa» izenburuko proiektuari emandako finantzazioari esker egin ahal izan genituen lan hauek.

Aurrekariak

2012. urtean gutako batek (Aritza Villaluenga), Arabako Foru Aldundiaren ikerketa beka bati esker, une hartan Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutuan (IAN-ANI) gordailatuta zegoen bilduma paleontologiko bat aztertu ahal izan zuen. Proiektu horretan, aurreko hamarkadetan Arabako Lurralde Historikoko harpeetan egindako aurkikuntza arkeologiko eta paleontologiko sorta baten zerrenda zehatza eskuratu ahal izan zen.

2019. urtean hamasei harpez osatutako aurreneko multzoa aztertu eta ebaluatu genuen. 2020an bidera-

En este texto se presentan los trabajos de localización, evaluación arqueológica y protección realizados durante 2020 en una serie de cavidades situadas en el Territorio Histórico de Álava.

Estos trabajos fueron posibles gracias a la financiación otorgada por el Centro de Patrimonio Cultural Vasco al proyecto «Estudio y protección de cavidades con evidencias arqueológicas y paleontológicas alrededor de la Llanada Alavesa».

Antecedentes

En el año 2012 uno de nosotros (AV) tuvo acceso, gracias a una beca de investigación de la Diputación Foral de Álava, a una colección paleontológica custodiada en ese momento por el Instituto Alavés de la Naturaleza-Arabako Natur Institutoa (IAN-ANI). En el transcurso de este proyecto, se obtuvo una lista detallada de una serie de hallazgos arqueológicos y paleontológicos realizados durante las décadas precedentes en cavidades del Territorio Histórico de Álava.

En el año 2019 se procedió al estudio y evaluación de un primer conjunto de dieciséis cavidades. Las ac-

tutako lanek segida eman diote aurreko urteko ikerketa ildoari, eta beste hamabi harpe izan ditugu aztergai.

Emaitzak

Bizi dugun testuinguru sanitarioa dela eta, proiektua ezin izan dugu bere osotasunean burutu.

Sugusti I eta II (Gorbeia)

Gorbeia mendiko Parke Naturalean daude bi harpe hauek. Ikuspegi geologikotik bi harpeak sistema karstiko batean eta berean biltzen direla esan behar dugu.

Meandro formako galeria horizontala da Sugusti I, gutxi gorabehera 300 m luze da, eta bere luzeraren erdialdean, bihurgune batean, arautu gabeko indusketa bat identifikatu genuen. Irregularra zen induskatutako gainazala, 1,80 m luze, 50-80 cm bitarte zabal eta metro pasatxo sakon. Harpearen amaieran ere kontrolik gabeko beste esku hartze batzuk bideratu zituztela ikusi genuen, agerian utzi zituzten zenbait hezur zati. Harpea sakonago ikuskatuta beste hezur zati batzuk identifikatu genituen, gehienak *Capra Pyrenaica* eta *Ursidae* espezieetakoak.

Sugusti II kontserbazio egoera txarrean dago, barruan ugari dira hondakinak. 10 metroko galeria txiki eta horizontal batek, gela zirkular batek eta 15 metroko beste galeria batek osatzen dute harpe hau. Bigarren galeria tarte horretan arautu gabeko indusketa txiki bat eta sarrera bat estaltzen zuen higakin kono bat identifikatu genituen. Tranpa natural bat izan da harpe hau, ornodun handi eta txiki askoren hondakinak metatu baitira bertan.

Iguaran I eta Oreinen Zuloa harpeak (Entzia)

Harpe oso buztintsua da Iguaran I, halako interes geologikoa du. Halaz ere, sarrera ondoan aurkitutako hezur ez aspaldiko bat alde batera utzirik, ez genuen hezur depositurik bat ere identifikatu.

Izatez gela erdizirkular txiki bat duen leizea da Oreinen Zuloa, sabaia gero eta beherago du. Gainazalean, hezur zati nahasien metaketa batzuk identifikatzen dira, eta beraz, segur aski legez kanpoko zundaketetan azaleratuak dira.

Obekun leizea (Santikurutze Kanpezu)

Obekun leizea XX. mende hasieratik izan da azterketa arkeologikoen xede. Gaur egun, BIBAT museoan zaintzen dira leize horretan aurkitutako aztarna geologikoak.

Ozta-ozta 1,50 metroko altuera duen galeria horizontal batek eratzen du Obekun leizea. Kareharrizko blokeez estalita dago zorua. Bloke horien artean eta azpian, galeriaren alboetan, identifikatu genituen aztarna antropologikoak.

Barruko tartean tamaina handiko blokeen nahasmendu handia dago, eta horien artean gutxi gorabehera 20 m-ko sakonera duen zulo bat irekitzen da. Gela batek ematen dio amaiera galeriari, eta bertan hartzek induskatutako etzauntza batzuk identifikatu genituen.

tividades desarrolladas en 2020, han continuado la misma línea de investigación ampliando las intervenciones a doce nuevas cavidades.

Resultados

Debido al presente contexto sanitario este proyecto no ha podido ser desarrollado en su totalidad.

Sugusti I y II (Gorbea)

Estas cavidades se encuentran en el Parque Natural del monte Gorbea. Desde un punto de vista geológico ambas cavidades forman parte de un mismo sistema kárstico.

Sugusti I es una galería horizontal meandriforme, de unos 300 m de longitud, en cuya zona intermedia fue identificada una excavación no reglada situada en un recodo. La superficie excavada era irregular, de 1,80 m de longitud por 50-80 cm de anchura y superaba el metro de profundidad. La zona terminal de la cueva sufrió otras intervenciones incontroladas, dejando al descubierto restos óseos. La inspección de la cavidad evidenció la presencia de fragmentos óseos de *Capra pyrenaica* y de úrsido, siendo estos los más abundantes.

Sugusti II presenta un mal estado de conservación, en su interior abundan los desperdicios. Esta cavidad está formada por una pequeña galería horizontal de 10 m, una sala circular y una galería de 15 m de desarrollo horizontal. En esta ubicación fue identificada una excavación no reglada de pequeñas dimensiones y un cono de derrubios que colmata una entrada. Esta cavidad actuó como una trampa natural, acumulándose una variada serie de restos de macro y microvertebrados.

Cuevas de Iguaran I y Oreinen Zuloa (Entzia)

La primera es una cavidad muy arcillosa y con cierto interés geológico. Sin embargo, aparte de algún hueso reciente hallado en la zona de entrada, no se localiza ningún depósito óseo.

Oreinen Zuloa es en realidad una sima con una sala semicircular de dimensiones reducidas, en la que el techo se va haciendo cada vez más bajo. Se localizan varias acumulaciones de restos óseos en superficie y mezcladas, por lo que probablemente han sido localizadas en catas ilegales.

Cueva de Obekun (Santa Cruz de Campezo)

La cueva de Obekun ha sido objeto de estudios arqueológicos desde principios del siglo XX. Actualmente, el museo BIBAT custodia una variada colección de restos arqueológicos.

La cueva de Obekun se compone de una galería horizontal que apenas alcanza el 1,50 m de altura. El suelo se encuentra recubierto de bloques calcáreos. Entre y bajo estos bloques y a los lados de la galería han sido identificados restos antropológicos.

El sector interior discurre en un caos de bloques de gran tamaño, bajo los cuales se abre una sima de una veintena de metros de profundidad. La zona terminal es una sala en la que identificamos una serie de yacijas excavadas por los úrsidos.

Konklusioak

Arabako Lurralde Historikoak aberastasun arkeologiko eta paleontologiko handia du. Txosten hau sinatzen dugunok ondare handi horren multzo sorta mugatu bat baizik ez dugu aztertu eta ebaluatu.

Oraindik amaitu ez den ikerketa lerro honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarea Zentroaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Historiaurrea Ikertzeko taldearen (IT-1223-19) laguntza jaso du.

Conclusiones

El Territorio Histórico de Álava goza de una gran riqueza arqueológica y paleontológica. Los firmantes de este trabajo hemos procedido a localizar y evaluar una limitada serie de conjuntos de este amplio patrimonio.

Esta línea de investigación que permanece abierta, ha gozado del apoyo del Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, de la Diputación Foral de Álava y del Grupo de Investigación en Prehistoria (IT-1223-19) de la Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

A. Villaluenga; N. Garcia-Ibaibarriaga; A. Soto Sebastián; U. Perez-Arzak; A. Suárez Bilbao

A.30.2. **Arabako hegoaldeko errepideak**

Zuzendaritza: Francisco Gómez-Diez
Finantzazioa: Berak finantzatua

A.30.2. **Carreteras del sur de Álava**

Dirección: Francisco Gómez-Diez
Financiación: Propia

This intervention enabled the documentation of the archaeological remains of two suspension bridges that were built over the River Ebro during the 19th century, in the municipality of Lapuebla de Labarca, and which pre-dated the current bridge.

Sarrera eta jardueraren testuingurua

Miaketa lan hauen helburua izan da Guardia-Arabako Errioxako kuadrillan eta Arabako Mendialdeko eta Añanako kuadrilletako hegoaldean XVIII., XIX. eta XX. mendearen lehen hereneko errepide sareko obra publikoen aztarnak identifikatzea eta arkeologikoki ezaugarritzea. Hala eta guztiz ere, egoera epidemiologikoan bilakaeraren ondorioz SARS-CoV-2k eragindako kutsaduraren zabalkundeari aurre egiteko neurriek mugatu egin zituzten Lapuebla de Labarcako zubian bideratu beharreko lanak.

Emaitzak

Ikusizko miaketa lanetan zehar hiru eraikuntza fase dokumentatu genituen. Zubiko bi horma bularrek eta ibai ohearen gainean eraikitako harroinak osatzen dute aurreneko fasea. Horiek guztiak daude kareharrizko harlanduez eta morteroz eginda. Elementu horiek Lapuebla de Labarcako udalak 1869an eraikitako jatorrizko zubiaren zati bat osatzen dute. Bi horma bular horien eta harroinaren gainean egokitutako sei zutabeak, kareharrizko harlanduez eta morteroz eginak, bigarren fasean kokatzen dira. 1871ko urtarrilaren 12ko uholdeen ostean egin behar izan zen berreraikuntzaren zati dira elementu horiek, eta zubi eseki berria goratzeko xedea zuten etorkizunean izan zitezkeen uholdeen kalteak saihesteko. Hormigoi armatuzko egitura da dokumentatutako azken fasea, gaur egungo zubia bera. 1940ko hamarkadan eraiki zuten zubi hori, eta 1870eko hamarkadako berreraikuntzaren egituraren zati bat ebaki zuen.

Introducción y contexto de la actuación

El objetivo de las prospecciones ha sido identificar y caracterizar arqueológicamente los vestigios de las obras públicas del ramo de carreteras de los siglos XVIII, XIX y primer tercio del XX en la cuadrilla de Laguardia-Rioja Alavesa y el sector meridional de las cuadrillas de Montaña Alavesa y Añana. No obstante, las medidas para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2 como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica limitaron los trabajos en el puente de Lapuebla de Labarca.

Resultados

Durante la prospección visual documentamos tres fases constructivas. La primera la constituyen los dos estribos del puente y la pila erigida sobre el lecho del río. Todos ellos formados por sillares de piedra caliza y mortero. Estos elementos forman parte del puente original, construido en 1869 por el ayuntamiento de Lapuebla de Labarca. La segunda fase corresponde a seis columnas de sillares de caliza y mortero ubicados sobre ambos estribos y la pila. Estos elementos son parte de la reconstrucción que tuvo que realizarse tras la riada del 12 de enero de 1871 y tenía como objetivo elevar el nuevo puente colgante para salvar futuras avenidas. La tercera fase es la estructura de hormigón armado, la cual forma el puente actual. Esta obra fue realizada en la década de 1940 y seccionó parte de la estructura de la reconstrucción de la década de 1870.

F. Gómez-Diez

B. BIZKAIA

B.1. ABADIÑO

B.1.1. Bolunbizkar etxea

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Atxondo-Abadiño ABEE (Dragados-Tecsa)

B.1.1. Casa Bolunbizkar

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: UTE Atxondo-Abadiño (Dragados-Tecsa)

Results of the archaeological intervention carried out in Bolunbizkar House, located in the municipality of Abadiño, prompted by work on the Vitoria-San Sebastián High-Speed Rail Link, in the stretch running between Atxondo and Abadiño. The work consisted of the archaeological study of the walls of the house, which was scheduled to be demolished as part of the construction work. Its overgrown, ruinous state severely hampered the analysis. Nevertheless, a clear stratigraphic sequence was identified, from the origin of the house, probably at some point after the 17th century, to its demolition in June 2020.

Sarrera

Abiadura handiko Gasteiz-Bilbo-Donostia lineako Plataformako obren testuinguruan, Atxondo-Abadiño tartean, Bolunbizkar etxearen irakurketa estratigrafikoa egin dugu. Etxe hori Abadiñoko udalerriko Muntsaratz auzoko Urkitze-Baso aurkintzan dago.

Azterlan hau burutzerakoan, abandonu egoeran zegoen eraikina, oso hondatuta, landaredia oparoak estalita. Hala eta guztiz ere, oraindik zutik zirauten hormen irakurketa estratigrafiko zehatza egin ahal izan genuen.

Emaitzak

Azterlan arkeologikoari esker, eraikin honen historiaren eta eraikuntzaren sekuentzia ezagutu dugu. Hiru fasetan banatu dugu:

1. fasea. Jatorrizko obra

Bolunbizkar etxea harrizko hormek eratutako egituratik gora altxa zuten, horma horien gainean hartuko zuen atseden teilatuari eusten zion zurezko egiturak. Oinplano karratua zuen etxeak, ipar-mendebaldetik hego-mendebalderako norabidean; iparekialdeko horman zegoen etxebizitzan sartzeko ate nagusia, dintelduna. Beheko solairua bi gelatan eta ukuiluan banatzen zen. Gainera, beheko egitura horrek karga elementuarena egingo zuen, haren gainean jaso baitzuten zurezko armazoia. Armazoi hori eraikita, luzetarako hiru hormartetan eta zeharkako hiru hormartetan banatuta gelditu zen etxea. Tamalez, aurri egoeran egonik, ez zen goiko solairuko aztarnarik bat ere kontserbatzen.

Bi isuriko teilatua izan zuen etxeak, batez ere zurezko egituran hartzen zuen atseden teilatuak, baina baita, neurri txikiagoan, eraikinaren hormetan. Beraz, Bolunbizkar etxeak ez dio XV.-XVI. mendeetako baserri tradizionalen eraikuntza ereduari erantzuten. Aitzitik, XVII. mende ondorengo baserri edo nekazari etxe handien berezko ezaugarriak dauzkan eraikuntza baten aurrean gaudela ematen du.

Introducción

En el contexto de las obras de la Plataforma de la línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián, en su tramo Atxondo-Abadiño se ha realizado la lectura estratigráfica de la casa Bolunbizkar, situada en el paraje de Urkitze-Baso, del barrio de Muntsaratz, dentro del término municipal de Abadiño.

En el momento de llevar a cabo el estudio, el edificio se encontraba en estado de abandono y ruina avanzada, cubierto por abundante vegetación. Pese a ello, fue posible la lectura pormenorizada de los alzados que aún se mantenían en pie.

Resultados

El estudio arqueológico nos ha permitido conocer la secuencia histórico-constructiva de este edificio, que hemos dividido en tres fases.

Fase 1. Obra original

La casa Bolunbizkar fue erigida a partir de una estructura de muros de piedra, sobre la que se apoyó la estructura de madera que sustentaba la techumbre. La casa presentaba planta cuadrangular, con orientación NW-SW; en el alzado NE se encontraba el acceso principal a la zona de vivienda, adintelado. La planta baja se distribuía en dos estancias y el espacio de la cuadra. Esta estructura servía además como elemento portante sobre el que se edificó el armazón de madera. Con la construcción de este armazón, la casa pasa a distribuirse en tres crujías longitudinales y tres transversales. Lamentablemente el estado de ruina no dejó ningún vestigio de la planta superior.

La cubierta del edificio se construyó a dos aguas que se apoyaban sobre todo en la estructura de madera y en menor medida en los muros del edificio. Esto indica que la casa Bolunbizkar no se asocia al modelo constructivo de los caseríos tradicionales, propios de los siglos XV-XVI. Más bien parece que estamos ante una construcción con características propias de las grandes bordas o casas de labranza del siglo XVII en adelante.

2. fasea. Moldaketak eraikin nagusian eta hegoaldeko gorputzaren eraikuntza

Une honetan kokatu behar ditugu Bolunbizkar etxearen bizitza erabilgarrian zehar egindako moldaketa batzuk eta erantsitako gorputza.

Fase honetan dokumentatutako lehenengo jarduera hegoaldean eraikitako gorputza da. Eraikin nagusiaren gibelaldeko hormari atxikita eraiki zuten, eta ondorioz, ukuiluko leihoetako bat itsutu eta ebaki sorta bat egin zuten erantsitako gorputz horretako isuri bakarreko teilatuari eta ateko buruaren muturretako bati eusteko.

Bigarren fase honetan dokumentatutako bigarren jarduera ipar-mendebaldeko fatxadan egindako moldatze lanekin dago lotuta. Fatxada horretan leiho bat ireki, tximiniari leku egiteko hutsarte bat sortu eta hustubide txiki bat egin zuten leiho baten azpian.

Era berean, birmoldatu egin zuten hego-mendebaldeko angelua, ipar-mendebaldeko gelatik goiko solairura iristeko eskailera batzuk eraiki zituzten. Obra horretan bao bat itsutu eta leiho berri batek hartu zuen haren lekua.

Bigarren fase honetan egindako obra multzoan harlangaitzezko horma bat eraiki zuten ipar-mendebaldeko gelan, horrenbestez sortu ziren bi gela. Halaber, harrizko labe bat eraiki zuten ipar-mendebaldeko gela barruan, eta leiho bat ireki zuten hego-mendebaldeko hormaren mendebaldeko muturrean.

Hainbat berritze lan dira, proiektu bakar bati erantzuten ez diotenak. Lan horiek eraikinean sortzen ziren premien arabera eraman ziren burura XVII. mende inguruan etxea eraiki zutenetik XX. mendeko hirurogeigarren urteen erdialdera arte.

3. fasea. Eraikinaren abandonua eta hondamena

Fase honetan kolapsatu ziren ia teilatu osoa eta eraikin nagusiaren egituraren zati handi bat. Beste horrenbeste gertatu zen hegoaldean atxikiriko gorputzaren hormekin eta estalkiarekin. Eraikinak nozitutako abandonu prozesuaren ondorioz hondatu da etxea. Abandonu unearen data zehatza eskaintzeko hormen irakurketatik etorritako informazioa oraindik esku artean ez badugu ere, ahozko iturriei esker badakigu Bolunbizkar etxean ez zela inor ere bizi XX. mendeko hirurogeita hamargarren urteetan, eta guk aztertutako ortoargazki historikoek berretsi egiten dute alderdi hori. Une horretatik aurrera, etxea pixkanaka hondatu egin zen behin betirako kolapsatu zen arte.

Fase 2. Reformas en la edificación principal y construcción del anexo sur

En este momento se realizan una serie de modificaciones y añadidos realizados durante la vida útil de la casa Bolunbizkar.

La primera actividad que se documenta en esta fase es la construcción de un anexo al sur, adosado al muro zaguero de la edificación principal, lo que implicó la eliminación de una de las ventanas de la cuadra y la creación de una serie de cortes para la sujeción del tejado a un agua del anexo y de uno de los extremos del dintel de su puerta.

La segunda actividad documentada en esta segunda fase tiene que ver con las reformas realizadas en la fachada noroeste, donde se abrió una ventana, se creó un hueco para la chimenea y se hizo un pequeño desagüe debajo de una ventana.

También se registran reformas en el ángulo SW con la construcción de unas escaleras de acceso a la planta superior realizadas desde la estancia NW. Con esta obra fue cegado un vano y reemplazado por una nueva ventana.

En el conjunto de obras realizadas dentro de esta segunda fase se construyó un muro de mampostería que supuso la compartimentación de la estancia NW, creando dos habitaciones. También se construyó un horno pétreo en el interior de la estancia NW y se abrió una ventana en el extremo occidental del alzado SW.

Se trata de reformas variadas, sin un proyecto unitario, realizadas a medida que surgen nuevas necesidades en el edificio entre su construcción en torno al siglo XVII y mediados de los años sesenta del siglo XX.

Fase 3. Abandono y ruina del edificio

Se registra en esta fase el colapso de la práctica totalidad de la cubierta y de gran parte de la estructura de la edificación principal. Lo mismo ocurre con los alzados y la cubierta del anexo sur. La ruina de la casa se debe al proceso de abandono sufrido por el edificio. Aunque no disponemos de información derivada de la lectura de alzados que aporte una fecha concreta a este momento de abandono, por fuentes orales sabemos que la casa Bolunbizkar se encontraba deshabitada hacia los años setenta del siglo XX, hecho corroborado por el estudio de ortofotografías históricas. A partir de ese momento la casa sufrirá un deterioro progresivo hasta su colapso definitivo.

L. Sánchez Zufiaurre; J. López de Ocáriz Casas; V. Martínez Ferreras

B.1.2. **Mendilibar Artzeaga baserria**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Atxondo-Abadiño ABEE (Dragados-Tecsa)

B.1.2. **Caserío Mendilibar Artzeaga**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: UTE Atxondo-Abadiño (Dragados-Tecsa)

Results of the archaeological intervention carried out in Mendilibar Artzeaga farmhouse, located in the municipality of Abadiño, prompted by work on the Vitoria-San Sebastián High-Speed Rail Link, in the stretch running between Atxondo and Abadiño. The work consisted of the archaeological study of its walls, the archaeological excavation of part of its subsoil and the archaeological monitoring of its demolition. The results revealed a stratigraphic sequence running from the end of the 15th or beginning of the 16th century, right up to its demolition in 2020.

Sarrera

Abiadura handiko Gasteiz-Bilbo-Donostia lineako Plataformako obren testuinguruan, Atxondo-Abadiño tartean, Mendilibar Artzeaga baserriko irakurketa estratigrafikoa egin dugu. Baserri hori Abadiñoko udalerriko Muntsaratz auzoan dago, Abadiñoko hirigunearen hegoaldean. Abadiñoko hirigunea eta Mendiola eta Sagasta auzoak lotzen dituen errepidetik hurbil. Lau aldeak agerian zituen eraikina zen, oinplano karratukoa eta bi isuriko teilatuarekin. Fatxada nagusia ipar-ekialdeari begira zuen, eta iparraldean beste gorputz bat zuen atxikita, eta beste gorputz txikiago bana hegoaldeari eta hego-ekialdeari atxikita.

Luzetarako hiru hormartetan eta zeharkako hiru hormartetan antolatzen zen baserria, bi solairutan; pieza bakarreko zurezko paldoekin antolatutako bilbadurak eusten zion guztiari.

2020ko otsail eta martxo bitartean egin genuen baserriaren hormen irakurketa estratigrafikoa. Gero baserria eraitsi zuten kontrol arkeologikopean, ahal zen neurrian modu estratigrafikoan desegin ziren egiturak obra nola egituratzen zen ikusi ahal izateko eta aurreko etapan sortutako zalantzak argitu ahal izateko. AHTren obren premiak ekarri zuen baserriaren eraispena, bertan zubibideetako baten zutabea altxatuko baitzuten. Azkenik, lur eremuko indusketa arkeologiko partziala bideratu genuen baserria izan zenaren barruan eta kanpoko aldean. Indusketa hori 2020ko maiatzean egin genuen.

Emaitzak

Azterlan arkeologikoari esker, eraikin honen historiaren eta eraikuntzaren sekuentzia jarraitua ezagutu dugu. Bost fasetan banatu dugu:

1. fasea. Baserria eraikitzea

Mendilibar Artzeaga baserria zuzenean geruza naturalean bermaturiko zurezko habeekin egituratutako bilbadurarekin eraiki zuten. Luzetarako hiru hormarte zeuzkan ipar-ekialdetik hego-mendebalderako norabidean, erdikoa apur bat zabalagoa. Zeharka ere hiru hormarte zeuzkan, eta sarrera nagusia ipar-ekialdean zuen.

Zurezko armazoi horretatik pieza bakarreko sei paldo kontserbatzen ziren, sekzio karratukoak, harrizko lauzetan eta ostikoetan bermatuak, aho zirien bidezko uhalez batuak eta besoez indartuak.

Behin zurezko egitura eraiki eta finkatu ondoren, harrizko egitura batez mugatu zuten baserriaren peri-

Introducción

En el contexto de las obras de la Plataforma de la línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián, en su tramo Atxondo-Abadiño se ha realizado la lectura estratigráfica del caserío Mendilibar Artzeaga, situado en el barrio de Muntsaratz, al sur del núcleo urbano de Abadiño. Cercano a la carretera que comunica este núcleo con los barrios de Mendiola y Sagasta, se trataba de un edificio exento, de planta cuadrangular y cubierta a dos aguas. Su fachada principal se abría al NE y al N se adosaba un anexo, con otros dos de menores dimensiones adosados al S y al SE respectivamente.

El caserío se organizaba en tres crujías longitudinales y tres transversales con dos alturas; todo ello sustentado con un entramado de madera con postes enterizos.

Entre febrero y marzo de 2020 se realizó la lectura estratigráfica de sus alzados. Posteriormente se procedió a su derribo bajo control arqueológico, eliminando en la medida de lo posible las diferentes estructuras de modo estratigráfico, observando cómo se articulaban las obras y solventando las posibles dudas creadas en la etapa anterior. Este derribo vino marcado por las necesidades de las obras del TAV, ya que en el lugar se proyectaba una pila de uno de los viaductos. Por último se hizo la excavación arqueológica parcial del terreno, tanto en el exterior como en el interior de lo que fue el caserío. La excavación se realizó en mayo de 2020.

Resultados

El estudio arqueológico nos ha permitido conocer la secuencia histórico-constructiva continuada de este edificio, que hemos dividido en cinco fases:

Fase 1. Construcción del caserío

El caserío Mendilibar Artzeaga se levantó con un entramado de vigas de madera apoyado directamente sobre el sustrato natural, organizado en tres crujías longitudinales orientadas de NE a SW siendo la central ligeramente más ancha. Transversalmente también se distribuye en tres crujías y su entrada principal se situaba al NE.

De este armazón de madera se conservaban seis postes enterizos de sección cuadrada apoyados en lajas pétreas y pies derechos, unidos por correas mediante el sistema de caja y espiga, reforzados por jabalcones.

Una vez construida y fijada la estructura de madera, se delimitó el perímetro del caserío con una es-

Mendilibar Artzeaga baserriko irakurketa estratigrafikoaren planoak: ezkerrean, ipar ekialdeko eta hego-mendebaldeko hormak, argazki zuzenduarekin. Eskuinean, beheko solairua.

Planos de la lectura arqueológica de Mendilibar Artzeaga; izquierda: alzados NE y SW, con fotografía rectificada. Derecha: Planta baja.

metroa. Egitura horretatik tarte batzuk dokumentatu ditugu guk, harlangaitzez eginda zeuden, eskantzuak harlandu txikiz, piezak luzeka eta zeharka jarriak. Horma horiek ez zuten zimentazio erretenik, zuzenean hartzen zuten atseden arroka naturalaren gainean. Indusketa lanetan zehar, horma horietako bateko morteroan, 1454 eta 1474 bitartean Gaztelako errege izandako Endrike IV.aren agintaldiko txanpon bat aurkitu genuen, balio handiko elementua obra hau datatu ahal izateko.

Baserri honetako beheko solairua iparraldeko koadrantean egokitutako etxebizitzarekin, sarrera iparekialdean zuela, eta ukuiluari emandako beste espazio handi batekin, L formakoarekin, osatzen zen. Ukuiluak bi sarrera zeuzkan, bata fatxada nagusian, ipar-ekialdean, eta beste bat, txikiagoa, gibelaldeko horman, azken horretatik ateko zangoetako bat osatzen zuten bi harlandu baizik kontserbatu ez direla. Kanpoko aldean gorputz txiki bat zuen erantsita ipar-mendebaldeko fatxadan. Goiko solairua lastategi gisa erabiltzen zen, eta aurreko aldea segur aski etxeko espazioren batek hartuko zuen, gerora bideratutako berritze lanek alderdi hori egiaztatzeko bideak itxi dizkiguten arren.

Banaketa horretatik ondorioztatu dugu Mendilibar Artzeaga jatorrian harrizko baserri bat izan zela, ataririk gabea, bibliografiaren arabera oso kasu berezia zena Bizkaia aldean, baina oso eredu errotua Gipuzkoa eta Nafarroa aldean.

tructura de piedra de la que hemos documentado varios tramos, realizados en mampostería con los esquinales de sillarejo con las piezas colocadas a soga y tizón. Estos muros no presentaban zanja de cimentación, apoyándose directamente sobre la roca natural. Durante la excavación se halló, en el mortero de uno de estos muros, una moneda de Enrique IV, rey de Castilla entre 1454 y 1474, elemento de gran valor para poder datar esta obra.

La planta baja de este caserío se organizaba en un espacio de vivienda situada en el cuadrante norte y con acceso desde el NE y otro gran espacio dedicado a la cuadra, con forma de L y con dos accesos: uno en la fachada principal al NE y otro más pequeño en el muro zaguero del que únicamente nos han llegado dos sillares que formaban una de sus jambas. En el exterior tenía un pequeño anexo adosado a la fachada noroccidental. La planta superior se utilizaba como pajar y la parte delantera seguramente estaría ocupada por algún espacio doméstico, que reformas posteriores nos han impedido identificar.

Esta distribución nos llevó a concluir que Mendilibar Artzeaga fue en origen un caserío de piedra sin soportal que según la bibliografía era poco común en el área vizcaína, pero en cambio, era una variedad muy implantada en la zona de Gipuzkoa y Navarra.

Lehenengo fase honen kronologiari dagokionez, indusketa arkeologikoan lortutako estratigrafiei eta emaitzei esker esan dezakegu baserri hau XV. mende amaieran eraiki zutela, edo XVI. mendeko lehen hamarkadetan.

2. fasea. Egiturazko lehen arazoak

Egiturazko moldaketa handi bat bideratu zuten baserrian, agian egitura behar bezala finkatuta ez zegoelako edo lur eremuko hezetasuna handia zelako. Egituren kolapso partzialak hartaraturik, gibelaldeko hormaren zatirik handiena berreraiki zuten, itxi egin zuten ukuilurako sarrera eta desegin zuten hego-ekialdeko hormaren goiko zatia. Era berean, hein batean berreraiki zuten ipar-mendebaldeko hormaren iparraldea. Obra horiek harlangaitzez egin zuten, erresistentzia handiagoa duen materiala delako eta isolatzaile hobea delako. Era berean, ipar-ekialdeko hormaren goiko aldea berreraiki zuten zurezko eta adreiluzko bilbadurarekin, material arinagoa delako eta, nolabait ere material apaingarriagoa. Horrek baserriko sabaiak berritu behar izatea ekarri zuen, tarte batzuk dokumentatu ditugu ukuilu eta etxebizitza aldeetan, zurez eginak, lehenengo solairuko zoruak eratuz, jatorrizko zurezko egitura sostengatzailean bermatzen direlarik.

Fase honen kronologiari dagokionez, bibliografiaren arabera XVII. mendeko une aurreratu batean orokortu zen adreiluaren erabilera baserrietan, batez ere Durangaldean, lehendik ere ezaguna bazen ere. Datu horiek eta dokumentatutako estratigrafiak kontuan izanik, guk XVII. mende amaieraren eta XVIII. mendearen lehen erdialdearen arteko kronologia proposatzen dugu fase honi begira.

3. fasea. Berritze lanak baserrian

Fase honetan berritze lan ugari erregistratzen dira baserriaren multzoan. Ipar-mendebaldeko hormaren kanpoko aldean aldatu egin zuten lehendik erantsitako gorputza, eta ukuiluan, gibelaldeko sarrera itsutu ondoren, beste berri bat ireki zuten hego-ekialdeko hormaren hegoaldeko muturrean. Fatxada nagusian, ipar-ekialdean, jatorrizko sarrerak itxi eta beste bi ireki zituzten, bata ukuiluan sartzeko eta bestea etxebizitzan sartzeko, ukuilukoa baino handiagoa, biak dinteldunak.

Barruan espazioak mugatzeko paretak eraiki zituzten ukuiluan eta etxebizitzari emandako aldean, eta sabaien atal batzuk berritu zituzten zurezko egiturekin. Ukuiluan arazo batzuk eragin zituzten aldaketa horiek zurezko egitura euslean, eta beste paldo batez sendotu behar izan zuten egitura hori.

Barruko banaketa horren ondorioz leiho batzuk ireki behar izan zituzten barruan aireztapena eta argitasuna ahalbidetzeko. Fatxada nagusiaren goiko aldean irekitako leihoek adierazten digute goiko solairu horri etxebizitza erabilera ematen ziotela.

XVIII. mende amaieraren eta XIX. mendearen lehen erdialdearen artean eraman zituzten burura obra horiek.

4. fasea. Aldaketak barruan eta iparraldeko eranskina

Fase honetan kokatutako obrak baserriaren azalera osoan bideratutako berritze lan garrantzitsuekin

Respecto a la cronología de esta primera fase, las relaciones estratigráficas y los resultados obtenidos en la excavación arqueológica nos permiten afirmar que este caserío fue levantado a finales del siglo XV o en las primeras décadas del siglo XVI.

Fase 2. Primeros problemas estructurales

Se produce una gran remodelación estructural en el caserío, motivada quizás por el mal asiento de la estructura o por la gran humedad del terreno. Quizás el colapso parcial de las estructuras hace que se reedifique la mayor parte del muro zaguero, eliminando el acceso a la cuadra, y la parte superior del alzado SE. También se aprecia una reconstrucción en parte de la zona norte del alzado NW. Estas obras se hacen de mampostería, material más resistente y aislante. La parte superior del alzado principal al NE también es reconstruida con entramado de madera y ladrillo, material más ligero y de alguna forma más decorativo. Esto a su vez provoca la reforma de los techos del caserío, de los que hemos documentado algunos tramos, tanto en la zona de la cuadra como de la vivienda, realizados en madera, formando también los suelos del primer piso y que se apoyan en la estructura sustentante de madera original.

Respecto a la cronología de esta fase, según la bibliografía el uso del ladrillo en los caseríos se generaliza ya avanzado el siglo XVII, sobre todo en la comarca del Duranguesado, aunque ya se conocía en épocas anteriores. Teniendo en cuenta estos datos y las relaciones estratigráficas documentadas, nos decantamos por una cronología entre finales del siglo XVII y la primera mitad del siglo XVIII.

Fase 3. Reformas en el caserío

En esta fase se registran numerosas reformas en el conjunto del caserío. En el exterior del alzado noroccidental se modifica el anexo previo y en la cuadra, tras la eliminación del acceso del muro zaguero, se abre uno nuevo, esta vez en el extremo sur del alzado sureste. En la fachada principal, al noreste se eliminan los primitivos accesos y se abren otros dos, uno para la cuadra y otro para la zona de vivienda, de mayores dimensiones el primero y ambos adintelados.

En el interior se levantan muros de delimitación de espacios tanto en la zona de la cuadra como en la zona de vivienda y se reforman parte de los techos con nuevas estructuras de madera. En la zona de la cuadra, estos cambios producen problemas en la estructura de madera sustentante que ahora se debe reforzar con un nuevo poste.

La compartimentación interna hace que se abran una serie de ventanas que permiten la aireación e iluminación interior. Las abiertas en la parte superior de la fachada principal implican el uso habitacional de este espacio.

Estas obras se llevaron a cabo entre finales del siglo XVIII y la primera mitad del siglo XIX.

Fase 4. Modificaciones internas y anexo norte

Las obras recogidas en esta fase tienen que ver con reformas importantes realizadas en toda la su-

daude lotuta. Beheko solairuan aldatu egin zuten sukaldeari emandako espazioa, mugatu egin zuten, harrizko lauza handiekin antolatutako zoru berria egin zuten, eta sutegi egitura berri bat jarri zuten baserriaren altuera osoan luzatzen den tximiniarekin. Ukuiluan aska berriak jarri zituzten eta lastategiarekin komunikatzeko zulo bat ireki zuten altueran. Goiko solairuaren aurreko aldean trenkadekin mugatu zituzten espazioak, lau gela eta gelara iristeko korridorea sortu zituzten. Korridore horretara beheko solairutik iristen zen aurreneko harrizko mailak kontserbatzen zituen eskaileraren bitartez. Baserri barruko berritze lan horien ondorioz berriz ere moldatu behar izan zituzten beheko solairuko sabaiak, era berean goiko solairuko zoruak eratuko zituzten zurezko egitura berriekin.

Kanpoko aldean, desegin egin zuten ipar-mendebaldeko horman zegoen gorputz erantsia, eta beste gorputz handi bat eraiki zuten iparraldeko muturrean, bi espaziotan banatuta, baserriari atxikitako biltegiarena egingo zuena.

Moldaketa lan horiek adierazten digute aldaketa handi bat izan zela etxeko erabileretan, hobetu egin zuten baserriko bizigarritasuna, berrikuntzak aplikatu zituzten aziendarentzako ukuiluan, aska berriak eraiki zituzten. Obren estratigrafia eta tipologia kontuan izanik, fase hau XIX. mendearen bigarren erdialdearen eta XX. mendearen lehenengo erdialdearen artean gertatu zela esan behar dugu.

5. fasea. Azken berritze lanak

Dirudienez hezetasun arazoek beren horretan jarraitzen zuten etapa honetan. Arazoari aurre egiteko, drainatzeko erreten bat ireki zuten ipar-mendebaldean, eta harrizko eta hormigoizko egiturak altxatu zituzten ukuiluaren kanpoko aldean. Gibelaldeko hormaren barruko aldean ere hormigoizko kofratu bat altxatu zuten alde hori isolatzeko. Isolatzeko eta lur eremuari eusteko egin zituzten obra horiek.

Ukuilu barruan itsutu egin zuten ukuiluaren eta lastategiaren arteko jatorrizko zuloa eta beste bat ireki zuten, zurezko egituraren zati bat apur bat aldatuta; era berean, abereentzako barruti txiki bat antolatu zuten. Etxebizitza barruan ipar muturrera eraman zuten sukaldea, eta janaritegi gisa erabiliko zuten sukalde zaharra. Bainugela bat sortu eta goiko solairura iristeko eskailerak berritu zituzten, eta azken obra horrek berriz ere ekarriko zuen berekin batera alde horretako zurezko sabaia berritu behar izatea.

Kanpoko aldean aldaketa batzuk egin zituzten iparraldeko gorputz erantsian garaje erabilera emateko. Gainera, beste bi gorputz erantsi zituzten, bata hego-ekialdeko hormaren iparraldeko muturrean, oilategi erabilera emateko, eta bestea hego-mendebaldeko hormaren hegoaldeko muturrean, biak hormigoizko blokeez eginda.

Moldaketa lan horiek guztiek, aspaldi ez direla egindakoek, konfiguratu zuten 2020. urtera arte iritsi zen baserria. Abiadura Handiko trenaren lineako obrak direla eta eraitsi egin zuten baserria, betikoz desagerrarazi zuten baserriaren egitura, ikusi dugun bezala ondare balio handikoa zena.

perficie del caserío. En la planta baja se modifica el espacio dedicado a la cocina, delimitándolo, colocando un nuevo suelo de grandes lajas de piedra y construyendo una nueva estructura del fuego del hogar con una chimenea que recorre toda la altura del caserío. En la cuadra se colocan nuevos pesebres y se abre un hueco de comunicación con el pajar, en altura. En la parte delantera de la planta superior se delimitan los espacios con tabiquería, creando cuatro habitaciones y un pasillo distribuidor, al que se tiene acceso desde la planta baja por medio de una escalera de la que se conservaban los primeros escalones de piedra. Estas reformas internas obligan una vez más a modificar los techos de la planta baja con nuevas estructuras de madera que formaban también los suelos de la planta superior.

Por su parte, en el exterior, se elimina el anexo que se situaba en el alzado noroccidental y se edifica otro de grandes dimensiones en el extremo norte, dividido en dos espacios y que funcionaría como almacén adosado al caserío.

Todas estas reformas nos hablan de un cambio en los usos domésticos, con una mejora en la habitabilidad del caserío, incluyendo innovaciones en la estabulación del ganado, con la incorporación de nuevos pesebres. Por la estratigrafía y la tipología de las obras, esta fase se ejecutó entre la segunda mitad del siglo XIX y la primera mitad del siglo XX.

Fase 5. Últimas reformas

Los problemas de humedad parece que continúan en esta etapa, y se intentan solventar con una zanja de drenaje en la zona noroccidental, además de estructuras de piedra y hormigón en la zona exterior de la cuadra. En el interior del muro zaguero también evidenciamos la ejecución de un encofrado de hormigón colocado a modo de aislamiento. Estas obras se realizan para aislar y contener el terreno.

En el interior de la cuadra se ciega el primitivo hueco de comunicación entre ésta y el pajar, abriéndose uno nuevo, modificando levemente parte de la estructura de madera; también se hace un pequeño recinto para animales. En el interior de la vivienda se traslada la cocina al extremo norte, quedando la primitiva como un espacio de despensa, se crea un baño y se reforman las escaleras de acceso a la planta superior, lo que provoca una nueva reforma del techo de madera en esta zona.

En el exterior, se modifica el anexo norte para su nuevo uso como garaje. Además, se hacen dos nuevos anexos, uno en el extremo norte del alzado SE, que se utiliza como gallinero y otro en el extremo sur del alzado suroccidental, ambos realizados en bloques de hormigón.

Todas estas reformas, realizadas en época actual, configuraron definitivamente el caserío tal y como nos llegó hasta el año 2020. A causa de las obras de la línea del tren de Alta Velocidad se produjo su demolición, eliminando definitivamente la estructura de este caserío que, como hemos visto, contaba co0n un gran valor patrimonial.

B.2. ABANTO Y CIÉRVANA / ABANTO-ZIERBENA

B.2.1. 1874ko Armada Liberaleko soldaduen hobia, Putxetan

Zuzendaritza: Lourdes Herrasti

Finantzazioa: Gogora, Memoriaren eta Giza Eskubideen Institutua; Aranzadi Zientzia Elkartea

B.2.1. Fosa combatientes del Ejército Liberal de 1874 en Putxeta

Dirección: Lourdes Herrasti

Financiación: Instituto de la Memoria y los Derechos Humanos, Gogora; S. C. Aranzadi

Mass grave of soldiers in the Liberal Army, dating from 1874, in Putxeta.

In February 2020, human remains were discovered at the back of house num. 38 in Putxeta (Abanto-Zierbana, Bizkaia). Along with the human skeletal remains, uniform buttons were recovered, thereby determining their chronology. This was a mass grave of soldiers fighting in the Liberal Army who died during the Second Carlist War (1872-1876), specifically in the battles of Somorrostro and in the military actions that took place from 24 to 25 March, 1874. From the buttons and the emblem on the uniforms we know that the soldiers were members of the 14th Hunters' Battalion of the Liberal Army.

Eleven soldiers were buried in the grave, dressed in their uniforms, the buttons of which have been preserved. Other personal items and ammunition were also found at the burial site. Furthermore, the remains were observed to have gunshot wounds.

2020ko otsailean, David Ojedak eta Maite Etxebarriak, Abanto-Zierbenako bizilagunak eta alkateak hurrenez hurren, Ertzaintzari eta instrukzioko epaileari jakinarazi zieten giza hezur batzuk aurkitu zituztela Putxeta kaleko 38. zenbakiko etxearen gibelaldean. Gerra Zibilaren garaiko ehorzketa bat izan zitekeelakoan, Memoriaren eta Giza Eskubideen Institutu Gogorari eman zitzaion aurkikuntzaren berri. Erakunde hori Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri zen harremanetan, Gerra Zibileko eta gerra osteko hobiak eta ehorzketak aurkitzeko, lurpetik ateratzeko eta aztertzeko lankidetza hitzarmena baitute bi erakunde horiek sinatuta.

Giza hezur batzuekin batera, horien kronologia zehazteko bidea eskaini zuten uniforme botoiak aurkitu genituen. Bigarren karlistaldian (1872-1876) zendutako Armada Liberaleko soldaduak hartzeko hobi komun bat zen, zehazki Somorrostroko borroketan eta 1874ko martxoaren 24an eta 25ean izandako gerra ekintzetan hildakoak hartzeko. Uniformeen enblema eta botoiei esker, badakigu Armada Liberaleko 14. zenbakiko Ehiztari Batailoiko soldaduak zirela.

Hobian hamaika soldadu zeuden lurperatuta uniformearen jakez jantzita (uniforme horietako botoiak eta beste objektu pertsonal batzuk kontserbatu dira) eta aldean munizioa zutela. Era berean, su armek eragindako zauriak bereizi genituen.

2020ko otsailaren 9 eta 11 bitartean indusketa arkeologikoa egin eta lurpetik atera genituen giza hezurrak. Arkeologoek eta antropologoek osatu zuten giza hezurrak ateratzeko taldea, eta beste pertsona boluntario batzuen laguntza jaso zuten.

Hobia 5 m luze eta 0,80 m zabal zen erretena zen. Jatorrizko zoruaren mailatik behera 77 cm-ko sakone-

En febrero de 2020, David Ojeda y Maite Etxeberria, vecino y alcaldesa de Abanto-Zierbana, comunicaron a la Ertzaintza y a la jueza de Instrucción que se habían localizado varios restos humanos en la parte trasera de la casa nº 38 de Putxeta. Se interpretó que pudiera tratarse de un enterramiento de la Guerra Civil por lo que se notificó al Instituto de la Memoria y los Derechos Humanos, Gogora. Esta institución se puso en contacto con la Sociedad de Ciencias Aranzadi, con la que mantiene un convenio de colaboración para la localización, exhumación y análisis de fosas e inhumaciones de la Guerra Civil y posguerra.

Junto a varios restos óseos humanos se localizaron botones de uniforme que permitieron determinar su cronología. Se trataba de una fosa común de soldados del Ejército Liberal que fallecieron en la Segunda Guerra Carlista (1872-1876), concretamente en las batallas de Somorrostro y las acciones bélicas que tuvieron lugar del 24 al 25 de marzo de 1874. Por los botones y el emblema de los uniformes se sabe que eran soldados del batallón de Cazadores número 14 del Ejército Liberal.

En la fosa se encontraban inhumados once soldados ataviados con las guerreras del uniforme, de las que se han conservado los botones y otros elementos personales, así como munición. Asimismo se constató la existencia de heridas por arma de fuego.

La intervención arqueológica y exhumación se realizó los días 9 a 11 de febrero de 2020. El equipo de exhumación estuvo conformado por arqueólogos/as y antropólogo/as, auxiliados/as por otras personas voluntarias.

La fosa consistía en una zanja longitudinal de 5 m de largo y 0,80 m de ancho. Se situaba a 77 cm de

Aurrean, etxearen gibelaldean aurkitutako hobia. Goian eskuinean, Armada Liberaleko 14. Batailoiaren enblema.

En primer plano, fosa hallada en la parte trasera de la casa. Arriba, a la derecha: emblema del Batallón número 14 del Ejército Liberal.

ran zegoen, argi eta garbi ikus zitekeen etxebizitzaren gibelaldeko horman.

Gorpuak ongi antolatuta utzi zituzten hobian, ahoz gora etzanda, eta beraz, ondorioztatu dezakegu taldekideek berek edo liberalei lagundu zieten brigadetako kideek eman zietela lur. Hipotesi hori indartzen du zenduak beren uniformeekin eta jakekin lurperatu izanak. Jaka horietatik botoien ilara bikoitzak berreskuratu genituen. Era berean, orrazi bat, labana bat, domina bat eta txanpon batzuk aurkitu genituen.

Indusketa lanak amaituta, emaitzen berri eman zitzaien Epaitegiari, Udalari, Udaltzaingoari eta Muskizko Ertzaintzari, azken hori arduratu baitzen atestatua egiteaz eta lekua zaintzeaz.

profundidad con respecto al nivel de tierra original, que era visible en la pared posterior de la casa.

Los cadáveres habían sido dispuestos con orden en posición *decúbito supino*, lo que puede indicar que fueron sus propios compañeros o brigadas de apoyo liberales quiénes los enterraron. A este aspecto se añade que fueron inhumados con sus uniformes y guerreras, de las que se han recuperado las dobles hileras de botones. También se han localizado un peine, una navaja, una medalla y varias monedas.

Terminada la excavación, se comunicaron los resultados al Juzgado, al Ayuntamiento, a la Policía Municipal y a la Ertzaintza de Muskiz que se había encargado de elaborar el atestado y custodia del lugar.

L. Herrasti

B.2.2. **Ezkerralde/Meatzaldeko Parke Teknologikoa. Somorrostroko Borroka Zelaia**

Zuzendaritza: José Manuel Matés Luque
Finantzazioa: Azpiegiturak S. A. M. P.; Accesos Parke ABEE

B.2.2. **Parque Tecnológico de Ezkerraldea/ Meatzaldea. Campo de Batalla de Somorrostro**

Dirección: José Manuel Matés Luque
Financiación: Azpiegiturak S.A.M.P.; UTE Accesos Parke

This watching brief was carried out in the battlefield related to the Battle of Somorrostro (1872), which took place during the Second Carlist War (1872-1876). A bullet and some other metal items were found.

Alde honetan Parke Teknologiko bat eraiki behar zutenez, obren gaineko kontrol arkeologiko bat bideratu behar zen BI-639 errepidetik bertara iristeko sarbideetan eta EIC (Energy Inteligence Center) Eraikinaren egoitza hartuko zuen orubean. Izan ere, balizko arkeologia gunea da inguru hau, eremu honetan, eta gertuko beste batzuetan, Somorrostroko Gudua gertatu baitzen 1874ko gerraren testuinguruan, Bigarren Karlistaldian (1872-1876).

Beste lankide batzuek[17] borroka zelai honetan bideratutako miaketa arkeologikoaren emaitzak aintzat hartuta izendatu zuten alde hau balizko arkeologia gune. Lan haien emaitzak nahikoak izan ziren alde hau interes arkeologikotzat hartzeko eta bertan metal detektagailuak lagun miaketa batzuk egiteko. Horri esker, armamentu pieza batzuk aurkitu zituzten han-hemen barreiatuta, eta ondorioz arrisku maila desberdineko eremu batzuk bereizi ziren, etorkizuneko esku hartze arkeologikoek kontuan hartu beharrekoak[18].

Aurrekari horiek aintzat harturik, guk beste miaketa batzuk egin genituen metal detektagailu baten laguntzarekin, Moraza Barearen lanean (2019) adierazitako eremu sentsible batzuk ukituko zirelako.

Miaketa lan horietan beste irregulartasun batzuk hauteman genituen; horietako batzuk zabor modernoak ziren (iltzeak eta arantzadun alanbre hesiaren hondakinak), baina beste batzuk guduaren pasartearekin lotu ditzakegun elementuak ziren. Bi bala aurkitu genituen[19], borrokan erabilitako fusil baterako munizioa osatuko zuten. Eta gure ustez kanoi bala zati bat dena identifikatu genuen. Borrokarekin lotu beharreko elementu horiez gain, metalezko beste elementu batzuk antzeman genituen. Bat halako pisua duen metalezko ziri antzeko bat da; beste bat zurezko pieza bateko burdinazko pieza bat dirudiena da; eta metalezko bi barra identifikatu genituen[20]. Barretako bat bertan kanpatutako osteek kanpaden-

[17] Arrate Jorrin, J.A.; Rubio Olmedo, A.; Astorqui Hernández, A. (2014): «Batallas de Somorrostro, 1874: Viejas Guerras, Nuevas tecnologías», *Kobie. Paleoantropologia saila 33*, 107-128.

[18] Moraza Barea, Alfredo. «Somorrostroko Gudua. Ezkerralde/ Meatzaldeko Parke Teknologikorako sarbideak, Las Carrerasen». *Arkeoikuska 2018,* 2019, 253-54.

[19] Makineriak lehendik harrotutako alde batean bideratutako begi bidezko miaketa lanetan berreskuratu genuen baletako bat..

[20] Lur mugimenduen gaineko kontrol arkeologikoko lanetan azaldu zen barretako bat.

La construcción de un Parque Tecnológico en esta zona conllevaba la realización de un control de obra de los accesos al mismo desde la carretera BI-639 asi como del solar para la sede del Edificio EIC (Energy Inteligence Center). Eso se debía a que ésta era una zona de presunción arqueológica ya que en este espacio, y otros próximos, tuvo lugar la Batalla de Somorrostro, evento bélico de 1874 llevado a cabo durante la Segunda Guerra Carlista (1872-1876).

La declaración de la zona como zona de presunción arqueológica se debió a los resultados de una prospección arqueológica de este campo de batalla por parte de otros colegas[17]. Sus resultados fueron suficientes para que este entorno fuera considerado de interés arqueológico y desarrollar allí una actuación de prospección con detector de metales, localizándose varias piezas de armamento en diversas zonas por lo que se diferenciaron diversas áreas con diversos niveles de riesgo a tener en cuenta en las futuras actuaciones arqueológicas[18].

Con estos elementos previos, nuestra actuación consistió en la realización de una nueva prospección con detector de metales ya que algunas zonas sensibles indicadas en el trabajo de Moraza Barea (2019) se verían afectados.

Durante el mismo, se detectaron nuevas anomalías; algunas consistieron en basura moderna (clavos y restos de alambrada de espino) pero otras fueron elementos que podemos poner en relación con el episodio de la batalla. Se han encontrado dos balas[19] que encajarían con los restos de munición de algún fusil usado en la batalla. También lo que creemos corresponde a un fragmento de bala de cañón. Además de estos elementos vinculados con la batalla, se detectaron otros elementos metálicos. Una pieza es una especie de cuña de metal de cierto peso; otra pieza es lo que parece ser un herraje de alguna pieza de madera; también aparecieron dos barras de metal[20].

[17] Arrate Jorrin, J.A.; Rubio Olmedo, A.; Astorqui Hernández, A. (2014): «Batallas de Somorrostro, 1874: Viejas Guerras, Nuevas tecnologías», *Kobie. Serie Paleoantropología 33*, 107-128.

[18] Moraza Barea, Alfredo. «Batalla de Somorrostro. Accesos al Parque Tecnológico de Ezkerraldea/ Meatzaldea, en Las Carreras». *Arkeoikuska 2018*, 2019, 253-54.

[19] Una de las balas recuperadas la detectamos visualmente en las labores de prospección en una zona ya removida previamente por maquinaria.

[20] Una de las barras apareció durante las labores de control de movimiento de tierras.

dak altxatzeko erabiliko zuten pikotx bat izan liteke, baina oraingoz hipotesi bat baizik ez da.

Balak alde batera utzirik, gainerako artefaktuak ezin guduarekin lotu ditzakegu, baina gainazaletik behera 10 cm baino sakonera tarte txikiagoan azaldu ziren. Lehen azaldutako beste kide batzuen aurretiazko azterlanek eta gureak erakusten dute arkeologia aurreneko geruzetan dagoela, oso sakonera maila txikian, gainazalean ez dagoenean.

Halaber, XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako zeramika zati batzuk eta teila zatiak identifikatu genituen, baina ezin esan dezakegu borrokaren testuinguruarekin lotuta daudenik. Gainera, laborantzari emanda egon da alde hau, erabilera horretarako eraikinak izan dira bertan, eta beraz, horiekin lotu behar ditugu zeramika eta teila horiek.

Orubearen goiko aldean hainbat teila zati azaltzen hasi ziren multzoa osatuz, eta beraz, makinak gelditu eta eskuz garbitu genuen gutxi gorabehera 2 x 2 metroko azalera. Tamaina desberdineko teila zatiek osatutako multzoa da, zatiak nahasian agertzen dira, eta ez daude eraikuntza elementu bakar batekin ere lotuta. Guk uste dugu teila horiek berariaz eta bertan utzi zituztela zabortegi bat bailitzan. Teila horien ondoan eta in situ beste eraikuntza materialik azaldu ez zenez, horien dataren edo jatorriaren berri eman ziezagukeen beste elementu txikirik identifikatu ez genuenez, ezin dugu horri buruzko beste ezer gehiago azaldu.

Laburbilduta, Somorrostroko guduarekin argi eta garbi lotzen diren elementu batzuk berreskuratu ditugu, zehazki bi bala eta ustezko kanoi bala baten zati bat. Aurkikuntza horrek agerian uzten du leku batzuk lehendik miatuta ere beti azaldu daitezkeela aurrez egindako esku hartzeetan aurkitu gabeko aztarnak. Nolanahi ere, aztarna horiek ez dute lehen adierazitako lankideek gerra pasarteari buruz jada azaldutakoa, baina zalantzarik ez dago borroka zelaietako arkeologia oso atzeratuta dagoela gure herrian. Europako beste adiskide batzuek askoz ere garatuago dute arkeologia mota hori.

Una de las barras pudiera ser una piqueta de tienda de campaña de las tropas allí acampadas, pero esto es de momento solo una suposición.

Salvo por las balas, el resto de artefactos no podemos asociarlos a la batalla pero se encontraron a menos de 10 cm de la superficie. Tanto los estudios previos ya indicados de otros colegas como este nuestro demuestra que la arqueología está en los primeros horizontes y a muy poca profundidad, cuando no en superficie.

Igualmente se identificaron algunos restos de cerámica de fin del s. XIX y principios del s. XX, así como restos de teja, que no podemos señalar que se correspondan con el contexto de la batalla. Además esta zona ha sido un terreno agrícola y ha tenido construcciones para tal uso por lo que fácilmente pueden corresponder a esto.

En la zona alta del solar comenzaron a aparecer varios fragmentos de teja juntos por lo que se detuvieron los trabajos de maquinaria y se limpió a mano un área de 2 x 2 metros aproximadamente. Se trata de un conjunto de restos de teja de varios tamaños depositadas sin orden y sin estar asociadas a ningún otro elemento constructivo con la que pudieran estar vinculadas. Creemos que esto es un abandono intencionado de estas tejas como si de una escombrera se tratara. La falta de otros materiales bien de construcción in situ junto a estas tejas, bien de otros elementos menores que pudieran dar una indicación de fecha u origen, nos impide aportar nada más al respecto.

En resumen, se ha recuperado algún elemento más claramente vinculado con la batalla de Somorrostro, como son las balas y el posible resto de proyectil. Esto demuestra que aunque algunos lugares hayan sido prospectados previamente, siempre pueden aparecer otros restos no encontrados en actuaciones anteriores. En cualquier0 caso, los restos no cambiarán lo ya indicado por los anteriores colegas en cuanto al episodio bélico pero no cabe duda que la arqueología de los campos de batalla está aún por desarrollarse en nuestro país. Otros colegas europeos tienen este tipo de arqueología mucho más desarrollada.

J. M. Matés Luque

B.3. BARRIKA

B.3.1. Aranbaltza. Paleolitoko ageriko aztarnategia

VIII. kanpaina
Zuzendaritza: Joseba Rios-Garaizar
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.3.1. Aranbaltza. Yacimiento paleolítico al aire libre

VIII Campaña
Dirección: Joseba Rios-Garaizar
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

Due to the extraordinary conditions imposed by the Covid-19 pandemic, during the 8th season of excavations in Aranbaltza, work was restricted to US1 in Zone 6, estimated at dating from around 55,000 BP, according to the thermo-luminescence dating technique.

Aranbaltzako VIII. ikerketa kanpaina 2020ko abuztutik abendura bitartean egin genuen, baina landa lan gehienak urrian egin ziren. Aranbaltzako indusketa Barrika Hipika Klubaren lurretan garatzen ari gara, Damián Líbanoren lurretan.

2019an 2014-2015eko zundaketaren iparraldean irekitako Aranbaltza III aztarnategiko 6. gunean bideratu genituen indusketa lanak. Aurreko urteetan bezala, identifikatutako unitate estratigrafikoen topografiari jarraiki irekitako eremua eskuz induskatzeko metodoa erabili genuen. Aztarna arkeologiko guztien posizioa banan-banan erregistratu genuen topografiako estazio totalaren bidez eta 2013an ezarritako tokiko koordenatu sistemari jarraiki. Aurreko urteetan bezalaxe, suharri naturalen zatiak, hein batean ugari baitira halakoak lag testuinguruetan, inguruetan jasotako beste aztarna batzuekin (gutxi gorabehera 25 cm-ko diametroa dute) osatutako poltsa orokorretan bildu genituen. Kanpaina honetan, kontuan izanik induskatutako mailak seguruenik bigarren posizioan daudela (Rios-Garaizar et a., 2018), 4 mm-ko sarea duen galbahearekin bahetu genuen jalkina, lehorrean. Poltsa orokorretan jaso genituen baheketatik etorritako hondakinak. Gainera, 6. gunea beste 3 x 1 metrotan handitu dugu mendebalderantz, harrobiko lubakiaren paraleloan. Horri esker, azalera handiagoa izango dugu erabilgarri US4, 5 eta 6 unitateak induskatzeko, eta aldi berean sekzioen altuerak murriztu ahal izango ditugu indusketa lanen segurtasunari begira. Zundaketa handitzeko lan horretan jalkin nahasiak eta US0 unitatetik etorritakoak baizik ez ditugu jaso. Unitate horren azpian harea grisek osatutako unitate bat erregistratu dugu, Aranbaltza III aztarnategian orain arte argi eta garbi identifikatu gabea, Aranbaltza I aztarnategiko B mailarekin antz handia duena eta harrizko aztarna bakar eta isolatu bat eskaini duena.

2014 eta 2019 bitartean US0 unitatea induskatu da aztarnategiko hainbat puntutan, betiere azalera mugatuetan, Aranbaltza III aztarnategian unitate nahasiena baita agregatuen harrobiko lanen eraginez. Unitate hori 50-70 cm bitarte lodi da, kuartzozko hareaz osatuta dago, tartean legar hobiak (lag direlakoak) osatzen dituzten buztin zatiak eta suharrizko eta hareharrizko klastoak bereizten direla. Azpiko unitatearekiko ukipen puntuan higatuta dago eta irregularra da. Unitate hori ibai betegarri gisa interpretatzen da, ondoz ondo etorritako mailakatze, giza okupazio eta ebakitze faseak bizi izan zituena. Ebakitze faseetan, kanalen hondoan metatzen dira material arkeolo-

La VIII campaña de investigación de Aranbaltza se desarrolló entre los meses de agosto y diciembre de 2020, estando el grueso de las actuaciones de campo concentradas en el mes de octubre. La excavación de Aranbaltza se desarrolla en los terrenos del Club Hípico Barrika, propiedad de Damián Líbano.

La excavación se desarrolló en la zona 6 de Aranbaltza III abierta en 2019 al N del sondeo de 2014-2015. El método de excavación, al igual que en años anteriores, consistió en la excavación manual en área abierta siguiendo los topografía de las unidades estratigráficas identificadas. La posición de todos los restos arqueológicos se registró de manera individualizada mediante estación total de topografía siguiendo el sistema de coordenadas locales establecido en 2013. Al igual que otros años los restos de sílex natural, relativamente abundantes en los contextos de lag, se recogieron en bolsas generales con los restos provenientes de áreas de unos 25 cm de diámetro. En esta campaña, teniendo en cuenta que los niveles excavados están muy probablemente en posición secundaria (Rios-Garaizar et a., 2018), el sedimento se cribó en seco con una malla de 4 mm de luz. Los restos de criba se incorporaron a las bolsas generales. Además, se ha ampliado la zona 6 un total de 3x1 metros hacia el W en paralelo a la trinchera de la cantera. Esto nos va a permitir tener una mayor superficie dónde poder abordar la excavación de las US4, 5 y 6 al tiempo que nos va a permitir rebajar la altura de las secciones de cara a la seguridad de la excavación. En esta ampliación sólo se han retirado los sedimentos revueltos y aportes de la US0, bajo la cuál hemos localizado una unidad de arena gris, no identificada con claridad hasta el momento en Aranbaltza III, que se asemeja al nivel B de Aranbaltza I, y que ha proporcionado un único resto lítico aislado.

Entre 2014 y 2019 se ha excavado la US1 en distintos puntos del yacimiento, siempre en superficies restringidas, ya que esta es la unidad más afectada en Aranbaltza III por el laboreo de la cantera de áridos. Esta unidad tiene un espesor de 50-70 cm, formado por arena de cuarzo con algunas pasadas de arcilla y clastos de sílex y arenisca que forman graveras (lags). El contacto con la unidad inferior, también arenosa, es erosivo e irregular. Esta unidad se interpreta como un relleno fluvial con sucesivas fases de agradación, ocupación humana e incisión. En las fases de incisión se acumulan en el fondo de los canales rellenos de gravas (lags) que incorporan ma-

Aranbaltza. Suharrizko nukleo polobakarra.

Aranbaltza. Núcleo unipolar de sílex.

gikoak biltzen dituzten legarrezko betegarriak (lag-ak). Unitate horrek gutxi gorabehera 55 mila urte ditu (Rios-Garaizar et al., 2018; Rios-Garaizar et al., 2020).

6. gunean, 2019an eta 2020an, harrizko material asko berreskuratu dugu, gutxi gorabehera harrizko 1.000 hondakin koordenatu (eta horiei 2014-2015eko zundaketetan berrekuratutako 901 piezak gehitu behar zaizkie; Rios-Garaizar et al., 2018). Lag-etan metatutako material horrek halako homogeneotasun teknotipologikoa erakusten du (Rios-Garaizar et a., 2018), urri dira garraioak eragindako aldaketa mekanikoak azaltzen dituztenak. Hala eta guztiz ere, kontserbatutako harrizko materialek patina desberdinak ageri dituzte, eta beraz ondorioztatu dezakegu garai desberdinetako materialak egon daitezkeela metatuta lag horietan. 2014-2015eko zundaketan berreskuratutako multzoaren ezaugarri teknologikoek Levallois ekoizpen estrategiaren erabilera salatzen zuten, eta hein txikiagoan sistema diskoidearen erabilera, suharrizko tektofraktuen erabilerarekin batean (Rios-Garaizar *et al.,* 2018). 2016 eta 2020 bitartean US1 unitatean berreskuratutako materialek zehaztu egiten dute alderdi hori. Hala bada, Levallois lanketa motako piezak gutxiago dira, eta gehiago dira sistema diskoidearen arabera landutakoak eta Quina motakoak. Bestalde, ez dira gutxi ukitutako edo landutako tresnak, horien artean aipagarri karrakagailuak, printza ukituak, dentikulatuak eta bec-ak. Zundaketan identifikatutako materialen artean Abri-Audi motako printza bizkardun bat dokumentatu zen (Rios-Garaizar et al., 2018).

Aranbaltza III aztarnategiko US1 unitatearen ezaugarri tekno-tipologikoek antz handia dute Aranbaltza I aztarnategiko D unitatearenekin. Horrek, garaikideak direla eta bi unitateak antzeko ingurune sedimentarioetan eratu direla kontuan hartuta, iradokitzen du, izatez, MIS3ren hasieran ibai ingurune batean egokitutako neandertalen okupazio multzo bereko zati direla. Bereziki interesgarria da Erdi Paleolitoko aire zabaleko aztarnategi batean Quina teknologia identifikatu izana, izan ere, Aranbaltza III aztarnategiko US1 unitatea Axlor, Lezetxiki eta Amalda bezalako haitzulo eta harpeetako aztarnategietako okupazioekin (Baldeón 1993; Rios-Garaizar, 2012, Rios-Garaizar, 2010) lotzeko aukera eskaintzen digu.

terial arqueológico. Esta unidad está datada en ca. 55 mil años (Rios-Garaizar et al., 2018; Rios-Garaizar et al., 2020).

En la zona 6, entre 2019 y 2020, se ha recuperado abundante material lítico, alcanzando la cifra de ca. 1000 restos líticos coordenados (a los que habría que sumar los 901 recuperados en el sondeo de 2014-15, Rios-Garaizar et al., 2018). Este material acumulado en lags muestra una cierta homogeneidad tecnotipológica (Rios-Garaizar et a., 2018) y escasas alteraciones mecánicas producidas por transporte. No obstante los materiales líticos preservados sí presentan una variabilidad de pátinas que sugieren que materiales de distintas épocas pueden estar concentrados en estos lags. Las características tecnológicas del conjunto recuperado en el sondeo de 2014-2015 indicaban el uso de una estrategia de producción Levallois, y en menor medida Discoide, junto con un uso oportunista de tectofractos de sílex (Rios-Garaizar *et al.,* 2018). Los materiales recuperados entre 2016 y 2020 en la US1 matizan esta impresión. Así, el peso de la talla Levallois es menos importante y ganan peso otros tipos de producción como el Quina o el Discoide. Por otro lado, el utillaje retocado es relativamente abundante, destacando las raederas, las lascas retocadas, los denticulados y los becs. También entre los materiales del sondeo se documentó una lasca de dorso tipo Abri-Audí (Rios-Garaizar et al., 2018).

Las características tecno-tipológicas de la US1 de Aranbaltza III tienen gran semejanza con las de la unidad D de Aranbaltza I. Esto, unido al hecho de que son coetáneas y que ambas unidades se han formado en ambientes sedimentarios semejantes, sugiere que de hecho son parte de un mismo conjunto de ocupaciones neandertales de un entorno fluvial a inicios del MIS3. Resulta especialmente interesante la presencia de tecnología Quina en un yacimiento del Paleolítico Medio al aire libre, ya que nos va a permitir vincular la US1 de Aranbaltza III con las ocupaciones en yacimientos en cueva y abrigo como Axlor, Lezetxiki o Amalda (Baldeón 1993; Rios-Garaizar, 2012, Rios-Garaizar, 2010).

J. Rios-Garaizar

B.3.2. **Zabaletxe**

Zuzendaritza: Arantza Aranburu Artano
Finantzazioa: Unibertsitatea-Gizartea Proiektua. EHU

B.3.2. **Zabaletxe**

Dirección: Arantza Aranburu Artano
Financiación: Proyecto Universidad Sociedad. UPV

With the aim of studying the past tectonic evolution of sea and coastline levels, samples were taken in Zabaletxe, in the area studied previously. The samples revealed past accumulations of sand on the shore platform, and we attempted to determine when this occurred, using new methods not employed to date. Although not all the results have yet been obtained and the samples are still being processed, everything indicates that the oldest sediments pre-date MIS7.

Iraganeko itsas mailen eta gure kostaldearen eboluzio tektonikoaren inguruko informazioa lortzeko asmoarekin, lehenagotik ere indusketak eta azterketak egindako gunea da Zabaletxekoa (Aguirre, 2010; Martinez de Hidalga, 2012). Hau horrela izanda, rasaren gainean metatutako sedimentu lez definituak izan dira bertako harea kuartzotsu eta bioklastorik gabeak. Laginketaren helburua, orain arte erabili gabeko metodoen bidez, hare hauen sedimentazioa zein momentutan gertatu zen zehaztea izan da. Horretarako, OSL (*Optically Stimulated Luminiscence*) deritzon metodoaren bitartez, sedimentu hauek noiz metatu ziren jakin daiteke. Teknika honen bitartez, harea partikulek azkeneko aldiz eguzki izpiak noiz ikusi zituzten kalkulatu daiteke. Lortutako laginekin, ez da posible izan guneko sedimenturik zaharrenak datatzea, izan ere lagin zaharrenak 4 metrotako zundaketatik eskuratu ziren, eta oraindik ez ginen sedimentu deposituaren oinera iritsi. Inguru honetan, 5.5 metrotako sedimentu potentziak ere neurtu ziren aurreko indusketetan (Aguirre, 2010). Zundaketaren lehenengo ~ 65 cm ak sedimentu beltzez eratuta daude, gaur egungo edafizazio prozesuen ondoriozkoak liratekeenak. Ondoren, orokorki sekuentzia estratigrafiko bat, hiru aldiz errepikatzen dela ikus daiteke. Kolore zurixkako tartea, ondoren kolore laranjazko sedimentu hareatsua, eta bukatzeko kolore gorri eta beltzezko faziea. Honen ostean, eta oso kontaktu garbi baten bidez, berriro ere tarte berdinez osatutako beste sekuentzia berri bat hasten da. Fazie bakoitzak erakusten duen potentzia, desberdina da sekuentzia estratigrafiko bakoitzean.

Lagin guztien adin datuak oraindik ere tratatzeke daude, baina eskuragarri ditugun lehenengo datuen arabera sedimentu zaharrenak gutxienez MIS7 baino zaharragoak izango lirateke.

Con el objetivo de recabar información en torno a la evolución tectónica de nuestra costa y niveles marinos del pasado, el de Zabaletxe es una zona en donde ya se han llevado a cabo con anterioridad diversos análisis y excavaciones arqueológicas (Aguirre, 2010; Martinez de Hidalga, 2012). Siendo eso así, se han definido como sedimentos acumulados sobre rasa las arenas cuarzosas carentes de bioclastos. La finalidad del muestreo ha consistido en definir por medios hasta ahora nunca utilizados en qué momento sucedió la sedimentación de dichas arenas. De hecho, aplicando el método denominado OSL (*Optically Stimulated Luminiscence*) es posible saber cuándo se acumularon dichos sedimentos. Por medio de esta técnica se puede calcular cuándo fue la última vez en que las partículas arenosas estuvieron expuestas a los rayos solares. Con las muestras a nuestra disposición ha resultado imposible datar los sedimentos más antiguos de la zona; de hecho, las muestras más antiguas se recogieron del sondeo de 4 metros de profundidad, y aún no habíamos alcanzado el lecho del depósito. También en esta zona se registraron potencias de sedimentos de hasta 5,5 metros en anteriores excavaciones arqueológicas (Aguirre, 2010). Los primeros 65 cm de potencia están compuestos de un sedimento de color negro, son el resultado de los procesos de edafización actual. A continuación se puede observar una secuencia estratigráfica general repetida tres veces. Un tramo de color blanquecino, seguido de un sedimento arenoso de color anaranjado, y para acabar una facies de color rojo y negro. Por debajo, por medio de un claro contacto, da comienzo un nueva secuencia formada por los mismos tramos. La potencia de cada facies es desigual en cada secuencia estratigráfica.

Todavía están en fase de tratamiendo los datos referidos a las dataciones de todas las muestras, pero según nos indican los primeros datos disponibles es que los sedimentos más antiguos son por lo menos del MIS7.

P. Bilbao Lasa; A. Aranburu Artano

B.4. BERRIATUA

B.4.1. Santa Ana baserria (15. BAG)

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Eroski S. Coop.

B.4.1. Caserío Santa Ana (ZPA 15)

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Eroski S. Coop.

The intervention carried out in Santa Ana de Berritxu farmhouse (ZPAI num. 15: Ermita de Santa Ana) comprised the archaeological documentation of the remains of the church that previously stood on the site. Despite the drastic transformations undergone by the original building, the original floor plan was found to have been preserved, along with its foundations and two loopholes.

Berritxuko Santa Ana baserria (Asterrika auzoko 31. zk.) eraisteko proiektuari ekin baino lehen azterlan arkeologiko bat egin behar zen baserri horrek aurreko Santa Ana ermitaren lekua hartzen duelako (udalerriko 15. BAG).

3 lan fase aurreikusi ziren esku hartzean: hormak grafikoki dokumentatzeko fasea, eraikina eraisteko lanen gaineko kontrol fasea eta zorupea baloratzeko fasea, elkarren artean gurutzatuko ziren bi erreten irekita bideratuko zena.

Baserri familiabakarra da Santa Ana, Urkiaga mendiko gailurretik hego/hego-ekialdera jaisten diren hegalen beheko aldean egokitua. Gaur egun oinplano angeluzuzena du, ekialdetik mendebalderako norabidean antolatutako bi gorputzez osatua da, eta beste bi gorputz dauzka erantsita, iparraldean bata (portxea) eta hegoaldean bestea (komuna). Baserria harlangaitzez egina da, eskantzuak harlanduzkoak, eta beheko solairua eta lehenengo solairua ditu, teilatua bi isurikoa eta ekialdeko fatxadaren perpendikularrean. Higiezina luzituta dago, eta duela gutxi irekitako bao batzuk ditu. Barruko aldea guztiz eraldatuta dago, ez du inolako antzik garai batean izango zuen itxurarekin.

Ekialdeko eraikinak osatuko zuen jatorrizko eraikina, oinplanoan bat etorriko zen tenplu zaharrarenarekin (10,5 x 9 m). 1556an dago dokumentatuta Santa Ana ermita, Durangaldea Ondarroako portuarekin lotzen zuen bide ondoan zegoen. Horrexegatik, hain zuzen ere, eta kontuan izanik beste aztarnarik ez dugula, guk uste dugu bideko ermita izan zela, hots, santutxo bat.

Oinplano angeluzuzena zuen tenpluak, eta lau fatxadetatik hiru harlangaitzezkoak izango ziren, eskantzuak harlanduzkoak. Mendebaldeko fatxada irekita egongo zen barruko aldea ikusi ahal izateko. Ermita zahar hartatik, oinplanoaz gain, bi gezileiho kontserbatzen dira, biak tutu formakoak hormen barruko aldera.

XIX. mende hasieran beste fase bati eman zitzaion hasiera, ermita desamortizatu eta baserri bihurtu zen. Une horretan gutxi gorabehera metro betean goratu zituzten hormak, eta teilatua berreraiki zuten habe zaharrak berrerabiliz. Hormetan bao berriak ireki zituzten nekazaritza eta abeltzaina erabilera berriari egokitzeko. 1890. urte inguruan mendebaldeko gorputza eraiki zuten etxebizitza erabilera emateko, eta jatorrizko eraikinari ukuilu erabilera eman zioten ordutik aurrera. XX. mendean zehar beste gorputz batzuk eran-

El proyecto de derribo del caserío Santa Ana de Berritxu (nº 31 del barrio Asterrika) precisa realizar un estudio arqueológico previo dada la inclusión de la Ermita de Santa Ana, que lo precedería, como la Z.P.A. nº 15 del municipio.

La actuación contempló 3 fases de trabajo: la documentación gráfica de sus alzados, el control del derribo y la valoración del subsuelo mediante la apertura de dos zanjas cruzadas.

Santa Ana es un asentamiento unifamiliar situado en la zona baja de las laderas que discurren con orientación SSE desde la cima del monte Urkiaga. Actualmente presenta planta rectangular y se compone de dos cuerpos orientados E-W, con diferentes añadidos en sus lados septentrional (porche) y meridional (aseo). El cuerpo de obra es de mampostería con esquinales de sillería y cuenta con planta baja y una altura que se remata con cubierta a dos aguas de caballete perpendicular a la fachada este. El inmueble se encuentra enlucido y presenta diversos vanos de reciente construcción. El interior está completamente transformado respecto al aspecto que presentaría antaño.

El edificio original estaría compuesto por el edificio oriental, que coincidiría en sus dimensiones en planta con las del antiguo templo (10,5 x 9 m). En 1556 se documenta la existencia de Santa Ana como ermita ubicada junto al camino que unía la zona del Duranguesado con el puerto de Ondarroa. Debido a esta circunstancia y pese a que no se dispone de más evidencias, se considera probable que se tratase de una ermita de camino, un humilladero.

El templo era de planta rectangular y tres de las cuatro fachadas eran muros de mampostería con esquinales de sillería. La fachada oeste estaría abierta para permitir desde la visión del interior. De lo que fue antiguamente, además de la planta, se conservan dos aspilleras, abocinadas al interior.

A principios del siglo XIX se inicia una nueva fase con la desamortización de la ermita y su conversión a caserío. En este momento se elevarán los muros aproximadamente un metro y se reconstruye la cubierta reutilizando piezas de viguería antigua. También se abren nuevos huecos en los muros, para adaptarse a su nuevo uso agropecuario. En torno al año 1890, se procede a la construcción del cuerpo oeste para su uso como vivienda, mientras que el edificio inicial se destinará a un uso como cuadra. A lo largo del siglo XX el cuerpo original será objeto de diferen-

tsi zizkioten jatorrizko eraikinari, eta guztiz eraldatu zuten barruko egitura.

Esku hartze arkeologiko honetan egiaztatu ahal izan dugu eutsi egin zaiela tenpluaren oinplanoaren bolumenari eta ipar, eki eta hegoaldeko hormetako zimentazioari. Hormetako beste atalak birmoldatuta daude guztiz, eta ezin izan dira argi eta garbi identifikatu jatorrizko eraikinari legozkiokeen elementuak, salbu eta gezileihoak, baina azken horiek higiezina baserri bihurtu zutenean aldatu zituzten lekuz. Iparmendebaldeko izkina ukitu gabe kontserbatu denez, ermitaren mendebaldea irekita egon zela berretsi dezakegu.

Bestalde, historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik negatiboak izan dira Santa Anako zorupean bideratutako azterketak eskainitako datuak.

tes adosamientos y una profunda trasformación de la estructura interior.

La intervención arqueológica ha podido constatar el mantenimiento del volumen en planta del templo y de las cimentaciones de los muros norte, este y sur. El resto de los alzados se encuentran profundamente remodelados y no se ha podido identificar de manera clara elementos pertenecientes a la construcción original, a excepción de las aspilleras que serían reubicadas durante la reconversión del inmueble a caserío. Igualmente, la conservación intacta de la esquina NW ha permitido confirmar que la ermita estaría abierta a occidente.

Por su parte, los datos aportados por el estudio del subsuelo de Santa Ana han sido de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Ortega Franco

B.5. **BILBO / BILBAO**

B.5.1. **Emilio Campuzano LHII. Juan Santuak ospitalea (13. BAG)**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal

Finantzazioa: Hezkuntza Saila. Eusko Jaurlaritza

B.5.1. **CIFP Emilio Campuzano. Hospital de los Santos Juanes (ZPA 13)**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal

Financiación: Dpto. de Educación. Gobierno Vasco

The intervention carried out at CIFP Emilio Campuzano (ZPAI num. 13: Hospital de los Santos Juanes) comprised the archaeological monitoring of the emptying of two lift pits. The results of the monitoring process were of little or no historical-archaeological interest.

Gaur egungo Emilio Campuzano LHIIn (13. BAG, Juan Santuak ospitalea) igogailurako bi zulo induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak hutsaren hurrengo edo guztiz negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico del vaciado de dos fosos de ascensor en el actual CIFP Emilio Campuzano (ZPA Nº 13 Hospital de los Santos Juanes), siendo los resultados del mismo de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

J.A. Fernández Carvajal

B.5.2. **Hirumugarrieta 3 trikuharria**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana

Finantzazioa: Bilboko Udala - Bilbomendi 2017 ABEE

B.5.2. **Dolmen de Hirumugarrieta 3**

Dirección: Juan Carlos López Quintana

Financiación: Ayuntamiento de Bilbao – UTE Bilbomendi 2017

Hirumugarrieta 3 dolmen was affected at the end of the 20th century by forestry work, which destroyed a large part of its burial mound. The archaeological intervention carried out between 2019 and 2020 documented one burial chamber that is exceptionally well-preserved given the aforementioned event, and which enabled the volume of the entire monument to be studied and reconstructed, with a view to its restoration as part of the Hirumugarrieta megalithic complex.

Hirumugarrieta 3 trikuharria (HR3) Hirumugarrietako lepoaren mendebaldeko ordeka txiki batean dago, izen bereko estazio megalitikoa osatzen duten egituretako

El dolmen de Hirumugarrieta 3 (HR3) se localiza sobre un pequeño rellano situado al oeste del collado de Hirumugarrieta, formando parte de la estación

bat da. 1973an aurkitu zuten P. M. Gorrochateguik eta J. Gorrochateguik, eta monumentu zalantzagarritzat kalifikatu zen, ia erabat suntsituta baitzegoen. 2006. urtean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zentroak monumentua arkeologikoki aztertzeko eskaera egin zigun Bizkaiko lurralde historikoan izendatu beharreko monumentuen zerrendan sartzeko. Hipotesi hura egiaztatzeko bideratutako zundaketa estratigrafikoari esker, egitura monumentu megalitiko gisa kalifikatu ahal izan zen (*Arkeoikuska 06*: 383-385).

2019. urte amaieran, Bilboko Udalak, Bilbomendi ABEEaren bidez, Hirumugarrietako estazio megalitikoa babesteko eta hari balio handiagoa emateko proiektu bat landu genezan eskatu zigun. Helburu hauek planteatu genituen HR3 trikuharriari begira:

- Monumentuaren arkitektura ezaugarritzea: hileta ganbera eta egitura tumularra.
- Irakurketa estratigrafikoa egitea eta aztarna materialak berreskuratzea.
- Laginketa analitikoa: ikatz, polen eta jalkin laginak hartzea. Laginketa antrokologikoa zen monumentuaren eraikuntza eta erabilera faseak C14 bidez datatzeko bide bakarra.
- Kontserbazio egoera balioestea eta babes neurriak eta balioa ematekoak proposatzea.
- Basolanek suntsitutako bolumena berreraikitzea.

21 m^2-ko azalera hartu zuen indusketa guneak: ganberak gutxi gorabehera 2 m^2 hartu zituen, gainerakoa ganbera mugatzeko perimetroko zerrenda batek (gutxi gorabehera 7 m^2) eta iparraldetik hegoalderako lubaki diametralak (12 m^2) hartu zuten.

Monumentuaren estratigrafia

Jarraian azalduko dugu, sabaitik hondora, HR3 trikuharriaren estratigrafia monumentuaren arkitekturarekin lotua.

Harrizko koraza (Bsm-Smb)

Harrizko koraza bat du monumentuak, egitura osoa estaltzen zuen: Bsm-Smb unitate estratigrafikoa osatzen du. Lodieraz aldakorra da: lodiagoa da egituraren erdigunean, meheagoa bazterretara hurbildu ahala. Orientagarriak dira eskaintzen ditugun neurriak, monumentuaren goiko aldea murriztuta gertatu baitzen XX. mende amaierako basolanen ondorioz. Arkeologiaren ikuspegitik, harrizko 3 pieza eskaini zituen (dentikulatu 1, ijekitxo bat eta nukleo txiki 1).

Erdiko lurrezko nukleoa (Sak unitatea)

Harrizko korazaren azpian, formaz ia esferikoa den lurrezko nukleo bat du HR3 trikuharriak, 7,20 m-ko diametroa du, eta beraz monumentuaren erdigunera mugatuta dago (monumentuak gutxi gorabehera 14-16 metroko diametroa du). Profila ez da guztiz simetrikoa, handiagoa da (lodiagoa) hegoaldean, 0,40 m lodi izatera iristen da. Kanpotik ekarritako lurrezko nukleo hori Sak unitate estratigrafiko gisa definitu da.

Jalkin masa hori talde megalitikoek ekarri eta paratu zuten monumentuaren bihotza konfiguratzeko.

megalítica homónima. Fue descubierto en 1973 por P.M. Gorrochategui y J. Gorrochategui, calificándose como un monumento dudoso, prácticamente destruido. En el año 2006, el Centro de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco nos solicitó una revisión arqueológica del monumento, de cara a su inclusión en el listado de monumentos a declarar en el territorio histórico de Bizkaia. El sondeo estratigráfico de comprobación permitió calificar la estructura como monumento megalítico (*Arkeoikuska 06*: 383-385).

A finales de 2019, el Ayuntamiento de Bilbao, a través de la UTE Bilbomendi 2017, nos encargó un proyecto para la protección y puesta en valor de la estación megalítica de Hirumugarrieta. Para el dolmen HR3 planteamos los siguientes objetivos:

- Caracterización arquitectónica del monumento: cámara sepulcral y estructura tumular.
- Lectura estratigráfica y recuperación de evidencias materiales.
- Muestreo analítico: toma de muestras de carbón, polen y sedimento. El muestreo antracológico era el único recurso para datar por C14 las fases de construcción y uso del monumento.
- Valoración del estado de conservación y propuesta de medidas de protección y puesta en valor.
- Reconstrucción del volumen destruido por el laboreo forestal.

El área de excavación abarcó 21 m^2: la cámara ocupó una superficie aproximada de 2 m^2, correspondiendo el resto a una franja perimetral de delimitación de la cámara (de *ca.* 7 m^2) y a una trinchera diametral norte-sur, de 12 m^2.

Estratigrafía del monumento

Exponemos a continuación, de techo a muro, la estratigrafía de HR3 en conexión con la arquitectura del monumento.

La coraza pétrea (Bsm-Smb)

El monumento dispone de una coraza de piedra, que cubriría la totalidad de la estructura, y que conforma la unidad estratigráfica Bsm-Smb. Muestra un grosor variable: más potente en el centro de la estructura y más fino hacia la periferia. Las medidas que aportamos son orientativas, ya que la parte superior del monumento fue afectada y rebajada por los trabajos forestales de finales del siglo XX. A nivel arqueológico, aporta 3 piezas líticas (1 denticulado, 1 laminita y 1 núcleo sumario).

El núcleo terroso central (unidad Sak)

Bajo la coraza pétrea, HR3 consta de un núcleo terroso de forma hemisférica, de 7,20 metros de diámetro, reducido al núcleo del monumento, el cual ronda los 14-16 metros de diámetro. El perfil no es totalmente simétrico, teniendo más entidad (espesor) en la mitad sur, donde llega a alcanzar los 0,40 m de potencia. Este núcleo de tierras aportadas se ha definido como unidad estratigráfica Sak.

Esta masa de sedimentos fue transportada y colocada por los grupos megalíticos para configurar el

HR3 trikuharriko hileta ganberaren ikuspegia, beheko blokeek eraturiko geruzarekin (Bsak-CAM).

Vista de la cámara sepulcral del dolmen HR3, con el horizonte inferior de bloques (Bsak-CAM).

Lurrezko masa horren erdigunean, lodien zen gunean, altxatu eta eraiki zuten hileta ganbera 4 lauzarekin. Lurrezko nukleoa duten monumentuak Bizkaian ongi dokumentatuta dagoen arkitekturaren aldaera bat dira, gisa horretako aleak dira Katillotxu V, Otsobaso, Eskatxabel 1, La Cabaña 2, Cotobasero 2, La Boheriza 2 eta beste asko. Lurrezko nukleoaren barruan harrizko 10 pieza berreskuratu genituen (malkartsu 1, birbizitu 1, 7 printza eta ijeki 1), eta hondakin antrokologikoak gehiago direla esan behar da.

Hilobi ganberako betegarria (Sak-CAM eta Bsak-CAM unitateak)

Bi unitate estratigrafikok osatua da:

Sak-CAM unitate estratigrafikoa (hilobi ganberaren barruko betegarria)

Hileta ganberako betegarria (Sak-CAM) itxura batean monumentuko lurrezko nukleoaren antzekoa da, eta zirkunstantzia horrek erabilera aldi laburreko hilobia iradokitzen du, lur gordin berbera erabili baitzuten monumentuko nukleoan eta ganberako betegarrian. Betegarriaren goiko aldean (3-6 taila erdiak) Ebroko suharri ebaporitikoan landutako ukiera malkartsuko 2 geometriko, segmentu itxurakoak, identifikatu genituen.

Bsak-CAM unitate estratigrafikoa (ganberaren behe aldeko blokeek eraturiko geruza)

Ganberako betegarriaren beheko tartea hartzen du (7-10 taila erdiak). Unitate honetan Ebroko suharri ebaporitikoan landutako ukiera malkartsuko 3 geo-

corazón del monumento. En la parte central y más potente de esta masa de tierra, fue implantada la cámara funeraria, erigida y conformada con 4 losas. Los monumentos de núcleo terroso constituyen una variante arquitectónica bien documentada en Bizkaia, con numerosos ejemplos como Katillotxu V, Otsobaso, Eskatxabel 1, La Cabaña 2, Cotobasero 2, La Boheriza 2, etc. Dentro del núcleo terroso, se recuperan 10 piezas líticas (1 abrupto, 1 avivado, 7 lascas y 1 lámina), y se anota un incremento de los restos antracológicos.

El relleno de la cámara sepulcral (unidades Sak-CAM y Bsak-CAM)

Se compone de dos unidades estratigráficas:

Unidad estratigráfica Sak-CAM (relleno del interior de la cámara sepulcral)

El relleno de la cámara funeraria (Sak-CAM) es aparentemente similar al núcleo terroso del monumento, lo cual alude a un sepulcro de uso corto, que utiliza la misma tierra cruda para el núcleo del monumento y para el relleno de la cámara. La parte superior del relleno (semitallas 3 a 6) aporta 2 geométricos segmentoides de retoque abrupto en sílex evaporítico del Ebro.

Unidad estratigráfica Bsak-CAM (horizonte de bloques en la parte inferior de la cámara)

Corresponde al tramo inferior del relleno de la cámara (semitallas 7 a 10), donde se recuperan 3 geométricos de retoque abrupto (2 segmentos y 1

metriko (2 segmentu eta trapezio bat), leundua izan delako arrastoak dituen eskistozko plaketa zati 1 eta hainbat lagin arkeobotaniko berreskuratu genituen. 8. taila erditik aurrera aldaketa esanguratsua egiaztatzen da hileta ganberaren barruan, harehar-rizko blokeez osatutako unitate bat azaleratzen da lurrezko nukleoarekin (Sak) parekatu daitekeen harea eta buztin hori eta trinkoko matrize (Bsak/Sabk) baten baitan. Ganberako betegarriaren behe alde horretako blokeez osaturiko geruza horrek zoru artifiziala eratzen zuen bere garaian. Bsak unitate estratigrafikoaren posizioa kontuan harturik, O-2 lauzaren altuera berean baina O-3 lauzaren azpian baitago, zentzuzkoa da jatorrizko zorua dela iradokitzea, hileta ganbera eraiki zuten fase berean antolatuko baitzuten zoru hori.

Tumulu azpiko zorua (Sack unitate estratigrafikoa)

Sack unitate estratigrafikoak hartzen du tumulu azpiko zorua, eraldatzeko prozesuan diren klastoak eta legarrak (baita bloke txikiak ere) dira nagusi (C geruza). Ganbera barruko lurrezko nukleoaren oso antzekoa da matrizea, baina tarte honetan hareharri burdintsuen eraldaketatik etorritako laranja tonalitateak nabarmentzen dira. Desagertzen dira harrizko tresnak, eta guztiz murrizten dira hondakin arkeobotanikoak.

Monumentuaren arkitektura

Lurrezko nukleoa eta harrizko koraza dituen monumentu ia esferikoa da Hirumugarrieta 3 trikuharria, gutxi gorabehera 14 eta 16 metro bitarteko diametroa du (trikuharria moztuta dago iparraldeko eta hegoaldeko muturretan) eta 1,20 m-ko garaiera. Lurrezko nukleoan sartutako hileta ganberak trapezoide formako oinplanoa du, ekialderanzko norabidean dago, eta 4 ortostatok osatua da.

Kontserbazioa eta balioa ematea

Egitura lehengoratzeko eta sendotzeko lanek Katillotxuko estazio megalitikoan aztertutako eta aplikatutako ingurumenean jarduteko gidalerroak izan dituzte ardatz. Monumentuak kontserbatzeko sistematika horrek landare (belar) geruza finkatzea eta hari eustea ditu helburu higadura prozesuei galgak jartzeko elementu gisa.

HR3 trikuharrian lortutako datu arkeologikoek azpimarratu egiten dute monumentuaren garrantzia, hemendik aurrera diziplina anitzeko ikuspegitik aztertu beharko da. Dagozkion txosten analitikoak gure azterlanean oraindik jaso gabe dauden arren, bagaude balio hauek aurreratzeko moduan:

– Hasteko, esku hartze arkeologikoaren emaitzak oso positiboak izan direla esan behar dugu. XX. mende amaierako basolanek oso kaltetutako monumentuak bereziki ongi kontserbatzen zuen bere hileta ganbara. Horri esker, monumentua aztertu ahal izan da eta haren bolumena berreraiki ahal izan da Hirumugarrietako estazio megalitikoa ezagutarazteko eta balio handiagoa emateko.
– Kronologiari dagokionez, eta kontuan harturik berreskuratutako harrizko tresneria (segmentu itxu-

trapecio) en sílex evaporítico del Ebro, 1 fragmento de plaqueta de esquisto con huellas de alisado y un buen número de muestras arqueobotánicas. A partir de la semitalla 8 se constata un cambio significativo en el interior de la cámara sepulcral, aflorando una unidad de bloques de arenisca dentro de una matriz de arenas y arcillas amarillas compactas (Bsak/Sabk), equiparable al núcleo de tierra Sak. Este horizonte de bloques en la parte inferior del relleno de la cámara corresponde a un suelo artificial. Valorando la posición estratigráfica de Bsak, a la misma altura que la losa O-2 y por debajo de la losa O-3, es razonable sugerir que se trata de un suelo fundacional, instalado en la misma fase en la que se construye la cámara sepulcral.

Suelo infratumular (unidad estratigráfica Sack)

El suelo infratumular aparece representado por la unidad estratigráfica Sack, caracterizada por la presencia de clastos y gravas (también pequeños bloques) en proceso de alteración (horizonte C). La matriz es muy similar al núcleo terroso del interior de la cámara, si bien en este tramo destacan los tonos naranjas procedentes de la alteración de las areniscas ferruginosas. El material lítico desaparece y los restos arqueobotánicos se reducen de forma drástica.

Arquitectura del monumento

El dolmen de Hirumugarrieta 3 es un monumento hemisférico de núcleo terroso y coraza pétrea, con unas dimensiones de entre 14 y 16 metros de diámetro (el dolmen está cortado tanto en su extremo norte como en el sur) y 1,20 m de altura. La cámara funeraria, inserta dentro del núcleo terroso, muestra una planta trapezoidal, orientada al este y conformada por 4 ortostatos.

Conservación y puesta en valor

Los trabajos de reintegración y consolidación de la estructura han continuado las directrices de intervención ambiental estudiadas y aplicadas en la estación megalítica de Katillotxu. Esta sistemática de conservación se orienta a la potenciación y mantenimiento de la capa vegetal (herbácea) como elemento amortiguador de los procesos erosivos.

Los datos arqueológicos recuperados en el dolmen HR3 subrayan la importancia de este monumento, al que ahora le corresponde ser abordado desde una óptica pluridisciplinar. A la espera de integrar en nuestro estudio los correspondientes informes analíticos, podemos adelantar los siguientes valores:

– En primer lugar, los resultados de la actuación arqueológica deben valorarse como altamente positivos. Un monumento muy afectado por el laboreo forestal de finales del siglo XX guardaba de forma excepcional la cámara sepulcral. Así, se ha podido estudiar y reconstruir su volumen para la difusión y puesta en valor de la estación megalítica de Hirumugarrieta.
– En lo que respecta a la cronología, y en base al ajuar lítico recuperado (4 geométricos segmentoides y 1 trapecio), todo apunta a que HR3 se

rako 4 geometriko eta trapezio 1), Itxura guztien arabera Atlantikoko Megalitismoaren fase zaharrean eraiki zuten HR3 trikuharria, eta hilobi kolektibo gisa erabili zuten. Ikatz lagin batekin bideratu beharreko C14 bidezko datazioak gutxi gorabehera K.a. V. milurtekotik IV. milurtekora arteko aldaketa garaira eraman beharko gintuzke.

– Monumentuaren biografiari dagokionez, guk uste dugu ziklo laburreko hilobia izan zela, oso luze joko ez zuen epe batean eraiki, erabili eta lurrez estalia (zigilatua) izan zena. Hirumugarrieta 3 trikuharria beste erreferentzia bat da Kantauri aldeko monumentu megalitikoen itxieren fenomenoa aztertzeko.

construyó y se empleó como sepulcro colectivo en la fase antigua del Megalitismo atlántico. El resultado de la datación C14, a realizar sobre muestra de carbón, debería situarnos en torno al cambio del V al IV milenio cal BC.

– En cuanto a la biografía del monumento, barajamos la hipótesis de una tumba de ciclo corto, construida, utilizada y cerrada con tierra (sellada) en un período de tiempo no muy dilatado. Hirumugarrieta 3 pasaría a ser una nueva referencia para el fenómeno de los cierres y clausuras de monumentos megalíticos cantábricos.

J.C. López Quintana; A. Guenaga Lizasu; J. M. Arruabarrena; A. Olazabal; X. Alberdi; E. Alonso

B.6. **ELANTXOBE**

B.6.1. **Urpeko miaketa harrizko aingura bat berreskuratzeko**

Zuzendaritza: José Manuel Matés Luque

Finantzazioa: Bou Nabarra urpekaritza zentroa. Arqueocean

B.6.1. **Prospección subacuática para recuperar un ancla lítica**

Dirección: José Manuel Matés Luque

Financiación: Centro de Buceo Bou Nabarra. Arqueocean

A new classical anchor was found and recovered off Elantxobe harbour. This is the second classical anchor recovered in the province of Biscay. Despite being classical, it cannot be dated back to Roman times. It is more likely a more modern anchor, although it cannot be dated accurately.

2020ko udan, Bou Nabarra Urpekaritza Zentroko kide Raul Rodriguez Rodriguezek ausaz aurkitu zuen hiru zuloko aingura bat Elantxobeko portutik hurbil.

Rodriguez jauna harremanetan jarri zen Bilboko Itsasmuseum museoko zuzendaritzarekin, eta hark guri hots egin zigun kontsulta egiteko. Argazki bidez hiru zuloko aingura bat zela egiaztatu ondoren, aurkikuntzaren berri Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuari eman behar zitzaiola azaldu genuen. Itsasmuseum museoko zuzendaritza arduratu zen Ondare Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko urratsak egiteaz.

Ondare Zerbitzuak eskatu zigun itsas hondoa miatu eta aingura berreskuratu genezala, iristen erraza den leku batean egonik hura arpilatzeko arriskua handia zelako. Lan taldean parte hartu zuten Bou Nabarra Urpekaritza Zentroko kideek (Verónica Cuadra Bastida, Julián López Orduña, Olatz Aguirregabiria Moro eta Raúl Rodríguez Rodríguez bera), eurek aurkitu baitzuten aingura eta eurek jarri baitzituzten eskura urpekaritza zentroko baliabideak. Era berean, Elantxobeko alkate Patxi Egurrola Goiogana jaunak parte hartu zuen ontziko egitekoen laguntzeko[21].

[21] Nabarmendu nahi ditugu, aingura dagozkion baimenak izan gabe eta aurkikuntza bere testuinguruan kokatzeko dokumentazio arkeologikorik gabe berreskuratu aurretik, agintariei aurkikuntzaren berri eman zieten pertsonen sentsibilitatea eta laguntza. Oso erraza izango zen pertsona horientzat le-

En verano de 2020, Raúl Rodríguez Rodríguez, miembro del Centro de Buceo Bou Nabarra, descubre por casualidad un ancla de tres orificios en las inmediaciones del puerto de Elantxobe.

El Sr. Rodríguez contactó con la dirección del Itsasmuseum de Bilbao quien nos llamó a consulta al respecto. Comprobada por foto que efectivamente se trata de un ancla de tres orificios, se indicó que debía notificar el hallazgo al Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral. La dirección del Itsasmuseum se encargó de establecer contacto con el Servicio de Patrimonio con tal fin.

Desde el Servicio de Patrimonio se nos pidió la prospección del fondo y la recuperación del ancla debido al peligro de expolio potencial por estar en una zona de fácil acceso. En el equipo de trabajo participaron los miembros del Centro de Buceo Nabarra (Verónica Cuadra Bastida, Julián López Orduña, Olatz Aguirregabiria Moro y el propio Raúl Rodríguez Rodríguez) ya que eran los descubridores y quienes además se brindaron a disponer los recursos propios del centro (embarcación, botellas etc). También participó el alcalde de Elantxobe el Sr. Patxi Egurrola Goiogana como persona de apoyo en la embarcación[21].

[21] Queremos destacar la ayuda y la sensibilidad de las personas que notificaron a las autoridades el hallazgo antes de recuperar el ancla sin las autorizaciones pertinentes ni la documentación arqueológica para contextualizar el hallazgo.

Elantxobeko portutik kanpora zegoen aingura, gutxi gorabehera 10 m-ko sakoneran. Flysch moldeko itsas hondoaren gainean (kareharrizko arrokez osatutako geruza bertikalak eta tuparrizkoak, hareak metatzen dituztenak) zegoen.

Aingura inguruko aldea miatu genuen harekin lotuta egon zitekeen beste elementurik ba ote zegoen jakiteko. Hala eta guztiz ere, ez genuen besterik aurkitu.

Behin aingura argazkien eta bideoaren bidez dokumentatu ondoren, hura berreskuratu eta biharamunean Bilboko Arkeologi Museora eraman genuen han uzteko.

Triangelu isoszele baten formakoa da aingura, hiru zulo ditu, bata goiko aldean, zirkularra, soka sartzekoa, eta beste biak formaz angeluzuzenak, beheko aldean eta alde banatan, zurezko besoak hartzekoak. Formak kontuan harturik, hiru zuloko aingura klasiko gisa ezagutzen den aingura mota da.

Hauexek dira ainguraren neurri orokorrak: 760 mm luze, 550 mm zabal eta 56 eta 75 mm bitarte lodi, aingura atalaren arabera. Kareharrizkoa da aingura. Gutxi gorabehera 35 kg-ko pisua kalkulatzen zaio, baina ez da pisaketa sistema egoki bat erabiltzerik izan, eta noizbait eguneratu beharko dugu datu hori.

Aurpegi bat bestea baino kolonizatuago du, eta kolonizazio hori bera eragozpena da aldaketa edo marka esanguratsuak identifikatzeko. Izan ere, ez da erabileraren poderioz sortutako ildo txikiak salatuko lukeen erabilera markarik ikusten soka sartzeko goiko zuloan. Eta ez da aingura behin eta berriz igotzearen eta ontziaren ertzean kolpatzearen ondoriozko markarik hautematen. Alderdi horiek esanguratsuak ez diren arren, itxura guztien arabera aingurak ez zuen bizitza erabilgarri luzea izan, erabilerak eragindako kolpeak nozitu baino lehen galdu zen edo abandonatu zuten. Ildo bat identifikatzen da besoak hartzeko zuloetako baten azpian, baina ez dago esaterik berariaz egindako markaren bat den ala nahigabeko kolpe baten ondorio.

Zuloek ez dute zulatze planorik, eta beraz, badirudi soilik aurpegi batetik zulatu zituztela. Bestela plano elkarketa bat aurkitu zitekeen zuloaren erdigunean. Besoak hartzeko zuloetako bat apur bat inklinatuta dago planoarekiko, hau da, zulo hori bestea baino apur bat gorago dagoela ikus daiteke.

Ainguraren aurpegi bat, ageriko aurpegia, konkrezio eta itsas bizitzaz kolonizatuago dago, azpiko aurpegia ez dago horren kolonizatuta. Beraz, aingura denbora batez egon da agerian, itsas bizitzak ainguraren azalak kolonizatzeko behar adina denboran.

Aingurak datatzeko moduko hondakinik ez duenez (ezin eskaini dezakegu Karbono 14 bidezko dataziorik ez dagoelako aingurari lotzeko sokaren arrastorik ez eta zurezko besoen hondakinik bat ere) eta itsas

El ancla se encontraba en las afueras del puerto de Elantxobe a una profundidad de unos 10 metros. Se sitúa sobre el fondo marino que corresponde al entorno tipo flysch, con estratos en vertical de roca caliza y otros de margas en los que se acumula la arena.

Se prospectó la zona en torno al ancla para comprobar si había algún elemento más que pudiera estar asociado a la misma. Sin embargo, no se descubrió ningún otro elemento.

Una vez que se documentó el ancla mediante fotografía y video, se procedió a la recuperación de la misma, y se trasladó al día siguiente al Arkeologi Museoa de Bilbao donde quedó depositada.

El ancla tiene forma de triángulo isósceles, con tres orificios, uno en la parte superior de forma circular para el cabo de labor y dos de forma rectangular en la parte inferior y a cada lado para los brazos de madera. Por sus formas es un tipo que se conoce como ancla clásica de tres orificios.

Las dimensiones generales del ancla son 760 mm de longitud, ancho de 550 mm y grosor que varía entre los 65 y 75 mm según en qué parte se mida la misma. El material de esta ancla es la piedra caliza. Respecto al peso de la misma se estima un peso torno a los 35 kgs, pero no se ha podido usar un sistema correcto de pesado y este dato debería ser actualizado en algún momento.

Una cara está más colonizada que otra y esa misma colonización no hace posible reconocer alteraciones o marcas significativas. De hecho, no se observa ninguna marca de uso en el orificio superior del cabo lo que podría haber indicado mucho uso de desgaste al crear un pequeño surco. Tampoco se ven golpes en los laterales que pudieran haber indicado uso repetitivo al izar el ancla y golpear en el borde de la embarcación. Aunque ninguno de estos elementos es significativo, parece que el ancla no tuvo una vida útil prolongada perdiéndose o abandonándose antes de que recibiera golpes de uso. Se puede apreciar un surco bajo uno de los orificios de los brazos pero no es posible indicar si es una marca intencionada o fruto de un golpe accidental.

Los orificios no muestran planos de perforación por lo que parece que se realizaron sólo desde una única cara. De otro modo, podría haberse encontrado una unión de planos en el centro del orificio. Un orificio para los brazos está ligeramente inclinado respecto al plano, es decir, que se puede apreciar que ese orificio está ligeramente elevado respecto al otro orificio.

El ancla tiene una cara que presenta más concreción y colonización de vida marina en el lado más expuesto mientras que la parte inferior presenta una colonización menor. Esto podría indicar que el ancla ha estado cierto tiempo expuesta como para que la vida marina colonizara las superficies.

Como el ancla no presenta ningún resto que pudiera ser susceptible de datación (como el Carbono 14 al no haber restos ni de cabo de amarre ni de bra-

---

henik aingura berreskuratzea eta ondoren aurkikuntzaren berri ematea, baina hala egin izanez gero galdu egingo ziren haren jatorrizko posizioa eta testuingurua. Kontuan har dezatela etorkizunean halako aurkikuntzak egiten dituztenek.

Habría sido muy fácil para ellos recuperarla y luego notificar el hallazgo pero en ese caso se habría perdido la posición original y el contexto. Sirva esto de llamada de atención a futuros descubridores de hallazgos.

Harrizko ainguraren ikuspegia metro 1eko eskalan.

Vista del ancla lítica con escala de 1 metro y norte.

hondoan aingura horrekin lotuta egon zitekeen beste aztarnarik ez dagoenez, oso zaila da aztarnetan oinarritutako datazio bat eskaini ahal izatea. Aitzitik, huts egiteko beldurrik gabe esan dezakegu hiru zuloko eredu klasikoari erantzuten dion aingura dela, ainguren bilakaeraren prozesuan Antzinarotik errotutako ereduari erantzuten diola, eta gure uretan XIX. mende amaiera arte eta XX. mende hasierara arte, metalezko aingurak nagusitu ziren arte[22], erabili zen aingura mota dela. Aingura eredu hori Antzinaroan ere erabiltzen zela esateak erromatarren garaian datatu dezakegula pentsarazi diezaguke. Hala eta guztiz ere, dirudienaz beste, aingura hori ez dago Bizkaiko erromatarren garaian kokatzerik. Alde batetik, oso arriskutsua da aingura honen data zehaztea elementu gehiago izan gabe, eta bestetik, ez dago erromatarren presentziaren aztarnarik Elantxoben, kostaldeko herri hori ez baita azaldu ere egiten erromatarren munduan ezagutzen zen Via Maris delakoan[23]. Izan ere, XVI. mende hasierakoak dira Elantxobeko herriari buruzko lehen

[22] Matés Luque, José Manuel. 2015. «El ancla lítica de tres orificios de la playa de Karraspio (Mendexa, Bizkaia)». *Kobie*, Paleoantropologia, 34: 283-99. or.

[23] Esteban Delgado, Milagros. 1990. El País Vasco Atlántico en época romana. *Mundaiz*. Cuadernos Universitarios. Departamento de Historia 6. Donostia: Deustuko Unibertsitatea; 2003. «La Vardulia costera: la franja litoral guipuzcoana entre los ríos Divae y Menlasci». *Gijón puerto romano. Navegación y comercio en el Cantábrico durante la Antigüedad*, 178-91. Bartzelona. Madril: Autoridad Portuaria de Gijón. Lunwerg Editores. Martínez Salcedo, Ana eta Unzueta Portilla, Mikel. 2003. «La Via Maris y el poblamiento costero romano en Vizcaya». *Gijón puerto romano. Navegación y comercio en el Cantábrico durante la Antigüedad,* 162-77. Bartzelona. Madril: Autoridad Portuaria de Gijón. Lunwerg Editores. Unzueta Portilla, Mikel. 1996. «El período romano en la vertiente cantábrica de la Comunidad Autónoma Vasca: las evidencias arqueológicas del proceso romanizador (siglos I a. C a II d. C.)». Fernández Ochoa, Carmen (koord.) *Los Finisterres Atlánticos en la Antigüedad. Época prerromana y Romana* (Nazioarteko elkarrizketa), 165-70. or.

zos de madera), y puesto que no hay ningún otro resto en el fondo que pudiera estar asociado a tal ancla, es difícil poder ofrecer una datación fundamentada en evidencias. Lo que sí se puede decir es que este tipo de ancla es conocida como el modelo clásico de tres orificios y que en el proceso evolutivo de las anclas está ya consolidado en la Antigüedad, desde donde seguiría en uso en nuestra aguas hasta finales o principios del s. XX cuando ya se sustituyen por arpeos de metal[22]. Decir que este modelo de ancla está ya formado en la Antigüedad lleva a pensar que la podemos datar en el mundo romano. Sin embargo, a pesar de lo que parece, esta ancla no se puede datar en el período romano de Bizkaia. No sólo es demasiado arriesgado sin tener más elementos que ayuden a centrar la fecha de este ancla sino que no se tienen evidencias de presencia romana en Elantxobe ya que este punto costero no aparece en la Via Maris reconocida dentro del mundo romano[23]. De hecho, hay que esperar hasta principios del s. XVI para tener las

[22] Matés Luque, José Manuel. 2015. «El ancla lítica de tres orificios de la playa de Karraspio (Mendexa, Bizkaia)». *Kobie*, Paleoantropología, 34: p. 283-99.

[23] Esteban Delgado, Milagros. 1990. El País Vasco Atlántico en época romana. *Mundaiz*. Cuadernos Universitarios. Departamento de Historia 6. San Sebastián: Universidad de Deusto; 2003. «La Vardulia costera: la franja litoral guipuzcoana entre los ríos Divae y Menlasci». En *Gijón puerto romano. Navegación y comercio en el Cantábrico durante la Antigüedad*, 178-91. Barcelona. Madrid: Autoridad Portuaria de Gijón. Lunwerg Editores. Martínez Salcedo, Ana y Unzueta Portilla, Mikel. 2003. «La Via Maris y el poblamiento costero romano en Vizcaya». En *Gijón puerto romano. Navegación y comercio en el Cantábrico durante la Antigüedad,* 162-77. Barcelona. Madrid: Autoridad Portuaria de Gijón. Lunwerg Editores. Unzueta Portilla, Mikel. 1996. «El período romano en la vertiente cantábrica de la Comunidad Autónoma Vasca: las evidencias arqueológicas del proceso romanizador (siglos I a. C a II d. C.)». Fernández Ochoa, Carmen (coord.) *Los Finisterres Atlánticos en la Antigüedad. Época prerromana y Romana* (Coloquio internacional), p. 165-70.

aipamen idatziak[24]. Beraz, aingura hori ezin daiteke post quem data horretatik harago datatu, nekez onartu baitaiteke aingura hori Elantxobe populatzen hasi baino lehen pausatu izana leku horretan.

Aingura itsas hondora nola iritsi den azaltzeko, erantzun posible bakarra da gisa honetako aingurak elementu galkorrak direla, txalupa txikitan erabiltzen zirela beste batzuekin batera, leku jakin batean ainguratzeko erabiltzen zirela arrantzan egiteko; arrantza bukatutakoan, aingura berreskuratu eta portura itzultzen ziren. Aingura trabatuta gelditu eta ezin berreskuratu zitekeenean, soka moztu eta abandonatu egiten zuten. Horrexegatik dira elementu galkorrak, leku jakin batzuetan galtzen edo abandonatzen direnak, agertzen diren itsaso aldeari emandako erabilera salatzen dute, eskuarki ontziak ainguratzeko eta arrantzan egiteko erabilera. Aingura honen kasuan, modu bertsuan galdu zela pentsa genezake, denboraren joanean betikoz galduko ziren zurezko besoak eta era berean material organiko batez (segur aski espartzuz edo antzeko zuntzez) eginda egongo zen soka.

Bukatzeko, kontuan eduki beharreko puntu batzuk azalduko ditugu. Hasteko, Bizkaian aurkitutako eta berreskuratutako bigarren aingura da hiru zuloko ainguren eredu klasikoari erantzuten diona. Aurreneko aingura Mendexako[25] Karraspio hondartzan aurkitu zuten, Elantxobetik ekialdera gutxi gorabehera 12 km-ra lerro zuzenean. Bestalde, datazioari dagokionez, ez dugu uste aspaldiko aingura denik, guk uste dugu XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran abandonatutako aingura dela, nahiz eta ez dugun datazio hori egiaztatzeko frogarik bat ere. Hirugarrenik, aingura honen ausazko aurkikuntza zorioneko gertaera izan da, Rodriguez jaunaren ohiko urpekaritza gunea izanik ez baita 2020ko uda arte aurkitu, orduan ohartu zen haren presentziaz. Zorioneko gertaera horrek eramaten gaitu beste batzuetan ere azaldu dugun gogoeta egitera, hauxe da, itsas ingurunean ibiltzen direnak eta bereziki kirol urpekariak prestatu behar dira hain erraz identifikatzen ez diren balizko elementu arkeologiko interesgarriak identifikatu ditzaten. Azkenik, era berean, komunikazio bide argiak eta guztiz publikoak sortu behar dira ausazko aurkikuntzak egiten dituzten beste urpekariek ongi jakin dezaten nora jo behar duten aurkikuntzen berri ematera.

Mendexako aingurari buruzko informazioan aurreratu genuen besteren bat aurkitzeko itxaropen handiak geneuzkala. Elantxobeko ainguraren aurkikuntzak berretsi egin du uste hori. Ziur gara ez dela azkenekoa izango. Eta ziur gaude ez dela gure uretan itsas kontuekin lotuta egingo den ausazko aurkikuntza bakarra.

primeras noticias de poblamiento en Elantxobe[24]. Esto indicaría que como mucho el ancla no se podría datar más allá de esa fecha como postquem ya que sería muy difícil asumir que el ancla hubiera acabado allí antes que el poblamiento hubiera comenzado.

El porqué acaba el ancla en el fondo marino, la única respuesta posible es que este tipo de ancla son elementos fungibles que se llevan en pequeños botes junto con otras y que sirven para fondear en un punto determinado y realizar las operaciones necesarias de pesca; cuando se acaba, se recupera el ancla y se vuelve a puerto. Si el ancla ha quedado encajada y no se puede recuperar se corta el cabo de amarre y se abandona. Por ello, son elementos fungibles que se van perdiendo o abandonando en puntos determinados y que indican un uso marítimo de la zona donde aparecen como puntos de fondeo para diversas actuaciones, normalmente de pesca. En el caso de esta ancla debemos suponer una pérdida similar y con el tiempo los brazos de madera y el cabo de material igualmente orgánico (seguramente esparto o fibras similares) acabo por desaparecer.

Para concluir podemos indicar varios puntos que sería interesante tener presente. Primero, esta ancla es la segunda encontrada y recuperada en Bizkaia que responde al modelo clásico de ancla de tres orificios. El ancla anterior es la encontrada en la playa de Karraspio (Mendexa)[25], al este de Elantxobe y a unos 12 km en línea recta. Segundo, respecto a la datación, no creemos que sea un ancla antigua sino más bien una abandonada a finales del s. XIX o principios del s. XX aunque no tenemos pruebas para demostrar esta datación. Tercero, el hallazgo casual de esta ancla ha sido un suceso afortunado ya que siendo la zona de buceo habitual del Sr. Rodríguez, no ha sido localizada el verano de 2020 en que se dio cuenta de la presencia de la misma. Ese suceso afortunado nos lleva a la reflexión ya indicada en otros momentos de la necesidad de formar a buceadores deportivos, principalmente, y a otras personas que actúan en el medio marino para que reconozcan elementos de posible interés arqueológico que no son tan habituales de reconocer. Finalmente, del mismo modo, es necesario crear canales de comunicación claros y ampliamente públicos para que otros buceadores que realicen hallazgos casuales sepan claramente a dónde han de dirigirse para notificarlos.

Ya apuntamos en la información del ancla de Mendexa que esperábamos que no fuera el único ancla descubierta. Esto se ha corroborado con el descubrimiento de esta de Elantxobe. Estamos seguros que no será la última, como tampoco será el único descubrimiento casual de tema marítimo que aparecerá en nuestras aguas.

J.M. Matés Luque

---

[24] Ciriquiain-Gaiztarro, M. 1986. *Los puertos marítimos del País Vasco*. Donostia: Txertoa. Giner Serrano, María Jesús. 2001. Estudio histórico del puerto de Elantxobe. *Estudios históricos de puertos 6.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

[25] Matés Luque, J. M. 2015. «El ancla lítica de tres orificios de la playa de Karraspio (Mendexa, Bizkaia)». *Kobie*, Paleoantropologia, 34: 283-99. or; 2016. «Hiru zuloko harrizko aingura, Karraspio hondartzan *Arkeoikuska 2015*, 246-49. or.

[24] Ciriquiain-Gaiztarro, M. 1986. *Los puertos marítimos del País Vasco*. San Sebastián: Txertoa. Giner Serrano, María Jesús. 2001. Estudio histórico del puerto de Elantxobe. *Estudios históricos de puertos 6.* Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

[25] Matés Luque, J. M. 2015. «El ancla lítica de tres orificios de la playa de Karraspio (Mendexa, Bizkaia)». *Kobie*, Paleoantropología, 34: p. 283-99; 2016. «Ancla lítica de tres orificios, en la playa de Karraspio». *Arkeoikuska 2015*, p. 246-49.

B.7. FORUA

B.7.1. Foruko herrigune erromatarra

XXXIII. kanpaina
Zuzendaritza: Ana Martínez Salcedo
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.7.1. Poblado romano de Forua

XXXIII Campaña
Dirección: Ana Martínez Salcedo
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The work carried out in 2020 in the Roman settlement of Forua mainly aimed to complete the demarcation of the site and the archaeological recording of structure 12. The intervention focused on areas 3, 6 and 7 of this building.

Denboraren joanean aztarnategiko III. sektorean bideratutako lan arkeologikoetan zehar, eremua moldatu behar izan zen makineriaren sarrera eta indusketa lanek sorrarazitako zabortegiranzko joan-etorriak ahalbidetzeko. Ezin saihestuzko egoera horren ondorioz, dokumentatu gabe utzi behar izan genituen gune batzuk, esate baterako, 11. egituraren iparraldeko tarte bat eta aztergai dugun 12. egituraren mendebaldeko beste tarte bat.

Eraikin honen mugak zehaztu ahal izateko, beharbeharrezkoa zen lan eremua zabaltzea eta 3. barrutiaren azalera osoa eta 6. barrutiaren nondik norakoak zehaztea galarazten zuen lekukotasuna desagerraraztea. Horrexegatik, kanpaina honen helburu nagusia izan zen, alde batetik, azterketa osatzea, eta bestetik, 3. barrutiaren mendebaldeko horma ondoko gunean zundaketa bat egitea, beste barrutirik ba ote zen ikusteko edo, bestela, kanpoko espazio hurbilaren ezaugarriak zehazteko.

En el transcurso de las labores arqueológicas llevadas a cabo a lo largo del tiempo en el sector III del yacimiento, se hizo necesario acondicionar el espacio para permitir el acceso de maquinaria y el tránsito hacia la escombrera generada por los trabajos de excavación. Esta inevitable situación, obligó a dejar algunas zonas sin ser documentadas, tal y como sucede con un tramo de la zona septentrional de la estructura 11 y, en el caso que nos ocupa, en el sector occidental de la estructura 12.

Para poder completar la delimitación de este edificio era necesario ampliar el área de trabajo eliminando el testigo que impedía reconocer, tanto la superficie completa del ambiente 3, como el desarrollo del ambiente 6. Por ello el principal objetivo de esta campaña fue completar su análisis, así como la realización de un sondeo en el espacio contiguo al muro oeste del ambiente 3, con el fin de determinar la posible presencia de más recintos o, en su caso, del comportamiento del espacio externo inmediato.

Forua. 12. egitura. 3. barrutiaren ipar ekialdetik eta eraikin ondoko kanpoko guneetatik begiratuta.

Forua. Estructura 12. Vista desde noreste del ambiente 3 y las zonas externas inmediatas al edificio.

Forua. 12. egitura. 7. barrutia. Zundaketaren eta drainatzeko erretenaren ikuspegia mendebaldetik begiratuta.

Forua. Estructura 12. Ambiente 7. Vista del sondeo y de la zanja de drenaje, desde el oeste.

3. barrutia

Barruti honetako lan gunea handitzeko, ezinbestean amaitu behar genuen 689. unitate estratigrafikoan irekitako tartea, eraikinaren suntsipenetik etorritako materialez osatua, induskatzen. Material higigarri asko duen geruza da, kasu honetan 8 eta 37 formako TSH zati batzuk, G7 multzoko zeramika arrunteko edalontzi bat, eta AQTA G3 multzoko zeramikazko gopor bat eskaini ditu.

Beheko geruzan –707. UE–, harlangaitzezko zaborrik eta hormetako eta teilatuko lauzarik gabean, zeramikazko ostilamendua osatzen zuen elementu sorta oparo bat berreskuratu genuen: 8 formako TSH, G7 multzoko edalontzi bat, 503 motakoa eta G2 multzoko AQTA zeramikak, 701 eta 701a motakoak era G3 multzokoak, 702a motakoak, baita 203 motako gopor bati zegozkion zati batzuk eta beirazko, burdinazko eta brontzezko beste zati batzuk, oso kontserbazio egoera txarrean.

Geruza horren azpian barrutiko zorua azaldu zen –854. UE–, aurreko kanpainan balizko ukuilu bat finkatzeko egiturarekin lotu genituen ebaki batzuek zituena. Irekitako gunea handiturik eta ukuiluaren erabilera izan zuen gela osoa mugaturik, aipatutako egiturari eutsiko zion beste paldo zulo bat –921. UE– identifikatu ahal izan genuen.

6. barrutia

12. egitura mugatzeko lanetan era berean jardun behar izan genuen 6. barrutian. Kanpaina honetan irekitako tartea induskatuta, gune hau mendebaldetik ixten zuen hormaz gain eraikin honetako beste gela batzuetan identifikatutako jarduera metalurgikoarekin lotu litezkeen elementuak –harlangaitzak, suak gorritutako lurrezko plaketa zatiak eta beste batzuk, nahasirik– bereizi genituen.

El ambiente 3

La ampliación del área de trabajo en este ambiente implicaba completar la extracción, en el tramo abierto, de la UE 689, formada por los derrumbes del edificio. Se trata de un estrato que contiene numerosos aportes de material mueble, que en esta ocasión ha proporcionado varios fragmentos de TSH de las forma 8 y 37, así como de un vaso de cerámica común del grupo G7 y una escudilla de cerámica AQTA G3.

En el estrato inferior –UE 707– ya libre de los escombros de mampuestos y lajas de los muros y el tejado, fue recuperado un nutrido conjunto de elementos de ajuar cerámico: TSH de forma 8, un vaso del grupo G7 del tipo 503 y cerámicas AQTA del grupo G2 de los tipos 701 y 701a, y del grupo G3 del tipo 702a, así como varios fragmentos de una escudilla del tipo 203, y otros de vidrio, hierro y bronce en muy mal estado de conservación.

Por debajo de este estrato pudo alcanzarse el suelo del recinto –UE 854– al que en la campaña anterior se asociaron varios cortes, puestos en relación con el anclaje de un posible pesebre. La ampliación del espacio abierto y la delimitación completa de esta estancia, destinada a establo, hizo posible identificar un nuevo agujero de poste –UE 921– de sustentación de la estructura mencionada.

El ambiente 6

Las labores de delimitación de la estructura 12 también tuvieron como punto de actuación el ambiente 6. La excavación del tramo abierto en esta campaña hizo posible reconocer, junto al muro de cierre occidental de este espacio, un conjunto de elementos entremezclados –mampuestos, restos de plaquetas de tierra rubificada…– que podrían asociarse con la actividad metalúrgica reconocida en otros habitáculos de este edificio.

Eraikuntza oso higatuta dago barruti hau hartu zuen gunean, eta beraz, ez da erraza argi eta garbi zehaztea ez haren mugak, ez balizko egitura horiek bertan beteko zuten egitekoa. Hala eta guztiz ere, itxura guztien arabera substratu geologikoko arroka landu egin zuten 6. Barrutiaren mendebaldeko tarte honetan plano horizontal bat sortzeko, haren gainean zabaldu zuten ongi trinkotutako lurrezko zorua –918. UE–, eta bertan instalatu zituzten labeak.

Eraikina oso nahasita dagoen arren, tarte horretatik aurrera badirudi eraikuntza III. sektorearen hegoalderantz luzatu zutela. Puntu horretan, 2009ko kanpainan zehar, herrixka inguratzen zuen harresiaren trazaduraren pareko mailetan, labe metalurgiko baten hondakinak identifikatu genituen. Hori guztia gonbit garbia da etorkizuneko kanpainetan indusketa eremua puntu honetaraino handitzeko, 12. egiturarekin lotutako guneen eta harresi ondoko eremuan izan zen jarduera metalurgikoaren artean loturaren bat ba ote dagoen jakiteko.

7. barrutia

Indusketa gunea handitzeko lanak agerian utzi zuen 3. barrutiaren mendebaldeko hormaren muga markatzen duen horma. 12. egitura ondoko kanpoko gunea aztertzeko, mendebaldetik, zundaketa bat planteatu eta induskatu genuen 913. UEko hormaren kanpoko aurpegitik hurbil. 7. barrutia izendatu dugu gune ireki hau.

Zundaketaren emaitzek erakutsi dute substratu geologikoko buztinetan egindako ebaki bat dagoela, drainatzeko erreten batek berezkoak dituen ezaugarriekin. Itxura guztien arabera, eraikinaren mendebaldeko horma altxatu zutenean egin zuten urak kanalizatzeko egitura hori, Herrixkako eraikin ez gutxitan identifikatutako drainatzeko beste egituren tipologiarekin bat etorrita.

Behin erretena –910. UE– amortizatuta, eraikina hondatu ondoren alde horretara eroritako materialez osatutako geruzak –908. UE– estalita gertatu zen. Geruza horren baitan 911. unitate estratigrafikoa dokumentatu genuen, kolore horiko lurrez osatua, ikatz zati txiki batzuekin eta material higigarri sorta garrantzitsu batekin. Aztertutako espazio txiki-txikian hauexek berreskuratu genituen: 37 formako TSH moldeko profil oso bat, II. mendeko ekoizpen triziotarrek berezkoak dauzkaten ohiko zirkulu motiboekin dekoratua; zeramika arruntak, horien artean G19 multzoko plater bat, G8 eta G10 multzoetako pitxerrak, G2 multzoko eltze bat eta AQTA gopor bat, eta burdinazko iltze batzuk eta beste metalezko zati batzuk.

Burura eramandako esku hartzearen emaitzek berriz ere utzi dute agerian aztarnategiaren potentzial handia eta lan eremua IV. sektorerantz handitzeko beharra, horrenbestez zehaztu ahal izango dugu 12. egitura honen ondoko guneen eta 2019ko kanpainan zehar egindako zundaketetan hautemandako eraikuntza elementu berrien artean ezinbestean egon behar duen lotura.

La construcción se encuentra fuertemente erosionada, en el área por la que se extendió este recinto, por lo que no resulta fácil determinar con claridad, ni sus límites, ni el papel que estas posibles estructuras pudieron cumplir en él. A pesar de ello, todo indica que la roca del sustrato geológico fue trabajada en este tramo occidental del ambiente 6 creando un plano horizontal, sobre el que se asentó un pavimento de tierra con fuerte compactación –UE 918–, en el que quedaron instalados los hornos.

A pesar del alto grado de alteración del edificio, a partir de este tramo, todo hace pensar que la construcción pudo haberse prolongado hacia la zona meridional del sector III, lugar en el que fue detectado durante la campaña de 2009, en cotas próximas al trazado de la cerca de cierre del poblado, los restos de un horno metalúrgico. Todo lo cual invita a que, en futuras campañas, se amplíe el área de excavación hasta este punto, con el fin de determinar si existe alguna conexión entre los espacios asociados a la estructura 12, con la actividad metalúrgica que tuvo lugar en la zona inmediata al espacio de la muralla.

El ambiente 7

El trabajo de ampliación del área de excavación pone en evidencia el cierre del edificio con el muro –UE 913– que marca el límite occidental del ambiente 3. Con el fin de determinar el comportamiento de la zona externa inmediata a la estructura 12, por su lado oeste, se procedió al planteamiento y excavación de un sondeo junto a la cara externa de la UE 913. Este espacio abierto ha quedado denominado como ambiente 7.

Los resultados del sondeo revelan la existencia de un corte efectuado en las arcillas del sustrato geológico, con las características propias de una zanja de drenaje. Todo indica que una estructura de canalización de aguas fue trazada de forma paralela al cierre occidental del edificio, en concordancia con la tipología de otros ejemplos de estructuras de avenamiento asociadas a buena parte de los edificios del Poblado.

La zanja –UE 910– una vez amortizada, quedó colmatada por el estrato de derrumbes caídos hacia este lado –UE 908– tras la ruina de esta construcción. En su interior fue detectada una unidad estratigráfica –UE 911– formada por tierras de color amarillento con la que se mezclaban algunos carboncillos y un importante conjunto de material mueble. Solo en el reducido espacio intervenido fueron recuperados un perfil completo de TSH de forma 37 decorada con los característicos motivos de círculos, propios de las producciones tritienses del s. II; cerámicas comunes, entre ellas un plato del grupo G19, jarras de los grupos G8 y G10, una olla y una escudilla AQTA del grupo G2, así como varios clavos de hierro y otros fragmentos metálicos.

Los resultados de la intervención llevada a cabo ponen de nuevo de manifiesto el enorme potencial del yacimiento y la necesidad de ampliar el área de actuación hacia su sector IV, lo que permitiría establecer la necesaria conexión de los espacios colindantes de esta estructura 12, con los nuevos elementos constructivos detectados tras las prospecciones realizadas durante la campaña de 2019.

A. Martínez Salcedo

B.8. GALDAMES

B.8.1. Hornidura sare nagusiaren bidez San Pedro Galdamesera eta atxikiriko ur biltzaileak

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.8.1. Abastecimiento en red primaria a San Pedro de Galdames y colectores asociados

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of no historical-archaeological interest.

Aurretiazko miaketa arkeologikoari esker, egiaztatu egin genuen obrak Arenatza I Leizea – 2. Eremua Babes Bereziko Kultura Ondasunean eta Atxuriagako Tunela, Traslaviña-Castro Trenbidea eta Berangoko Meategia eta Meatze-ahoa Babes maila Ertaineko Kultura Ondasunetan izan duen eragina. Bestalde, beste hiru elementu dokumentatu genituen: meatze trenbide zahar bati lotutako La Aceña higiezinaren aurriak, Galdames ibaiaren gaineko Arenatza zubia eta Karobi bat, hiruak babes espezifikorik gabeak.

Proiektuaren araberako lur mugimenduen gaineko jarraipen eta kontrol arkeologikoetan lortutako emaitzak kontuan izanik, obren eragina hutsa izan dela esan behar dugu, guztiz bermatu baita leizearen eta aipatutako higiezin guztien egituren osotasuna.

La prospección arqueológica previa permitió verificar el impacto patrimonial de la obra sobre el Bien Cultural de Protección Especial Cueva de Arenaza I - Zona 2 y en los Bienes Culturales de Protección Media: Túnel de Atxuriaga, Ferrocarril Traslaviña-Castro, Coto minero y Bocamina de Berango. También se documentaron tres nuevos elementos: las ruinas del inmueble La Aceña, asociado al antiguo ferrocarril minero, el Puente Arenatza sobre el cauce del río Galdames y un Calero, todos ellos sin protección específica.

Los resultados obtenidos tras el seguimiento y control arqueológico de los movimientos de tierra derivados de la ejecución del proyecto permiten afirmar que el impacto de las obras ha sido nulo, al haberse garantizado la integridad de la cueva, así como la de la fábrica de todos los inmuebles aludidos.

M. Lerín Sanz

B.9. LARRABETZU

B.9.1. Basaraz Dorrea baserria

Zuzendaritza: Román Rodríguez Calleja
Finantzazioa: Ibai Sagarna Uría

B.9.1. Caserío Torre de Basaras

Dirección: Román Rodríguez Calleja
Financiación: Ibai Sagarna Uría

The restoration of part of the Basaras Farmhouse-Tower prompted a series of archaeological interventions which enabled the history of the building to be documented. Despite there being no stratigraphy in the subsoil linked to earlier phases, the analysis of the structure's walls enabled its history to be charted from its construction at the end of the 15th century to the beginning of the 21st century.

Sarrera

Etxebizitza familiabakar eta isolatu bat da, Txorierriko harenaren ekialdeko muturrean dago, Basaraz auzoan, hegoaldeari begira dagoen mendi hegalean, itsas mailatik gora 75 m-ra. Eraikinaren fatxada nagusia ekialdeari begira dago, zehazki Txorierriko haranean barrena luzatzen den Zugaztierreka erreka sortzen den inguruneari begira.

Introducción

Se trata de una vivienda unifamiliar aislada, situada en el entorno más oriental del valle del Txorierri, en el barrio Basaras, ubicado en la ladera orientada al sur, a 75 m.s.n.m, disponiendo la fachada principal del edificio hacia el este, concretamente hacia el entorno donde nace el cauce de Zugaztierreka, que discurre por el valle del Txorierri.

Esku hartze arkeologikoaren xede den eraikina, Basaraz dorre Nagusia-baserria, Larrabetzuko Balizko Arkeologia Gunean dago jasota Euskal Kultura Ondarearen Erregistroan, A babes mailarekin, hau da, hormez barrukoa baizik ez dago babestuta.

Basaraz Dorrea Bizkaiko XVIII. mendeko Errolda liburuetan dago jasota, aurreneko aldiz 1704. urtekoan, hartan Mª Guerra azaltzen da egoiliar eta Seb. Ugarte maizter. 1745eko erroldan Basaraz dorretxea aipatzen da, Dº Castillo jabe eta Mi. Castillo maizter. 1796ko erroldan, baina, ez dago Basaraz Dorrea jasota.

Bizkaiko Foru Aldundiko Artxibo Historikoko Katalogoetan egindako bilaketan hainbat dokumentu bereizi genituen. 1547. urteko dokumentu batean azaltzen da, hitzez hitz honela laburtuta:

«Escritura de cesión y traspaso otorgada por Rodrigo de Uribarri, alias el de «Larrumbe», vecino de Arrancudiaga, en favor de Miguel de Loroño, vecino de Larrabezúa, de siete ducados de oro que le adeudan Iñigo de Basaras, vecino de este lugar, procedentes de una escritura de obligación».

1567. urteko beste dokumentu batean halaxe dago jasota:

«Escritura de convenio otorgada por Pedro Abad de Basaras, clérigo beneficiado de las iglesias de la villa de Bilbao, y María Gabon de Sauto, vecina de la anteiglesia de Begoña, moradora en Achuri, de renunciar a la posesión de la casa y huerta de «Achuri» y sus pertenecidos, sita en la citada anteiglesia, el primero, y de pagar lo que éste tiene de haber en dicha casa según lo tasado por el contador Martín de Abaroa, apoticario, vecino de Bilbao, la segunda.

Azkenik, 1568. urteko beste dokumentu batek erreferentzia egiten dio Larrabetzuko bizilagun Juan de Basarasek Mungiako bizilagun Juan de Atecaren alde emandako eskriturari, bertan honako obligazio hau ezartzen delarik hitzez hitz «hacer en bracería todo el montazgo del robledad de «Landaetabaso» sito entre las casas de «landeta» y la ermita de Santa Marina y entregarlo hecho carbón al precio de un real la carga».

Burura eramandako lan arkeologikoetan, alde batetik saneamendurako erreten bat induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen, eta bestetik, obrek ukitutako etxebizitza aldeko hormen irakurketa egin genuen.

Kontrol arkeologikoko lanak

Ekialdetik mendebaldera 4,21 m luze eta 0,18 eta 0,24 m bitarte zabal izango zen erretena induskatzeko lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen. Lan horiei esker, hormigoizko zoladuraren eraikuntza fasea identifikatu genuen: gainazalean zementuzko zoladura, azpian legarrez osatutako geruza, jarraian sare elektrosoldatua, eta azpian, berdintzeko betegarri gehiago zigilatzen zuen plastiko isolatzailea. Hori guztia ekialdeko itxitura hormaren oinetik behera 20 cm-ko sakonera mailan egin zen. Hala bada, egiaztatu egin

El edificio objeto de la actuación arqueológica, caserío-torre Nagusia de Basaras, se encuentra incluido dentro de la Zonas de Presunción Arqueológica de Larrabetzu en el Registro de Patrimonio Cultural Vasco con un tipo de protección A, es decir, con una protección únicamente intramuros.

Se ha podido comprobar la existencia de la Torre Basaras en el siglo XVIII mediante el libro de Fogueraciones de Bizkaia del Siglo XVIII, en la primera de ellas, en la fogueración de 1704, figura como morador Mª Guerra, siendo inquilino Seb. Ugalde. En la fogueración de 1745 se encuentra la casa-torre Basaras, Dº Castillo, y como inquilino figura Mi. Castillo, mientras que en la fogueración de 1796 no aparece la Torre Basaras.

En la búsqueda realizada en los Catálogos del Archivo Histórico de la Diputación Foral de Bizkaia, se encuentran varios documentos. Aparece en un documento de 1547, que se resume de la siguiente manera:

“Escritura de cesión y traspaso otorgada por Rodrigo de Uribarri, alias el de «Larrumbe», vecino de Arrancudiaga, en favor de Miguel de Loroño, vecino de Larrabezúa, de siete ducados de oro que le adeudan Iñigo de Basaras, vecino de este lugar, procedentes de una escritura de obligación».

De igual modo, se encuentra otro documento del año 1567 que dice lo siguiente:

«Escritura de convenio otorgada por Pedro Abad de Basaras, clérigo beneficiado de las iglesias de la villa de Bilbao, y María Gabon de Sauto, vecina de la anteiglesia de Begoña, moradora en Achuri, de renunciar a la posesión de la casa y huerta de «Achuri» y sus pertenecidos, sita en la citada anteiglesia, el primero, y de pagar lo que éste tiene de haber en dicha casa según lo tasado por el contador Martín de Abaroa, apoticario, vecino de Bilbao, la segunda.

Por último, aparece otro documento del año 1568 que hace referencia a una escritura de obligación otorgada por Juan de Basaras, vecino de Larrabezúa, en favor de Juan de Ateca, vecino de la villa de Munguia, de hacer en bracería todo el montazgo del robledad de «Landaetabaso» sito entre las casas de «landeta» y la ermita de Santa Marina y entregarlo hecho carbón al precio de un real la carga.

Los trabajos arqueológicos realizados fueron, por una parte, control arqueológico de una zanja para saneamiento, y por otra, la lectura de paramentos de la parte de la vivienda afectada por las obras.

Actuación de control arqueológico

El trabajo de control arqueológico se realizó sobre una zanja con una longitud de 4,21 m y una anchura de entre 0,18 y 0,24 m, con una orientación este-oeste. Los trabajos permitieron identificar la fase constructiva del pavimento de hormigón, presentándose primero una solera de cemento, posteriormente un nivel de grijo, luego el mallazo y bajo este plástico aislante que sellaba más material de relleno de nivelación. Todo esto se hizo en una profundidad de 20 cm de profundidad bajo la base del muro de cierre este. Con ello pudimos comprobar que la información trasladada por la propiedad indicando el rebaje del sustrato geológico existente previamente en el espacio

genuen jabeak emandako informazioa, hots, ukuiluak hartzen duen espazioan lehendik zegoen substratu geologikoa beheratua izan zela.

Hormen irakurketa estratigrafikoa

1. fasea. Dorretxea

Egungo eraikinaren iparraldeko horman dago Dorretxe horretatik kontserbatu den aztarna bakarra. Trapezoide formako hareharrizko harlandu irregular zulodunez osatutako horma da, piezak neurriz ertainak eta handiak. Aurpegiak trauskil landuta daude. Gainera, harri koskor asko ditu. 7 errenkada kontserbatzen ditu, lehenengoa zabalagoa da, harroinarena egiten du.

Fase honetan dokumentatutako aztarnak eskainitako informazioaren arabera, Behe Erdi Aroko dorretxe baten iparraldeko horma da. Dorretxe horrek oinplano karratua edo angeluzuzena izango zuen, eta alde luzeetako bat, hain zuzen ere kontserbatu dena, gutxi gorabehera 12 m luze izango zen.

Fase honen kronologia XV. mende bukaeran kokatu behar da batez ere hormaren eraikuntzan erabilitako estekadura kontuan hartzen badugu.

2. fasea. Jauregiaren eraikuntza

Hasteko, jauregi bihurtu zenean dorretxea erabiltzen zuten ala abandonu egoeran zegoen argitzeko nahikoa daturik ez dugula esan behar dugu.

Jauregia eraikitzeko, artean zutik zirauten dorretxearen horma atalak izan zituzten abiapuntu. Horretarako, ebaki bat egin zuten kontserbatzen zen horman, garbitzeko eta berdintzeko, eta ondoren egitura berria behar bezala finkatzeko.

Jauregiaren egituratik bi horma kontserbatzen dira, zehazki hegoaldeko horma eta iparraldekoa. Horma horiek, era berean, paraleloan luzatzen diren bi paretez osatuta daude, pareten artekoa betegarriez beteta. Hareharrizko harlanduz eginda daude hormak, harriak pikotxaz landuak, zeharkako kolpeekin, eta kareore horixkekin batuak. Tamaina ertainekoak eta handikoak dira blokeak: Batzuk zeharka ipiniak, besteak luzetara. Hareharrizko blokeez, tartean kareharriren bat, dago osatuta betegarria, piezak tamainaz askotarikoak dira, eta landu gabe dituzte aurpegiak. Metro bete eta 1,12 m bitarte lodi da. Gutxi gorabehera 15 errenkada kontserbatzen ditu hegoaldeko horman, 12 iparraldekoan, eta gutxi gorabehera 3,17/5 m garai da eta 9,57 eta 12 m bitarte luze[26]. Errenkadak erregularrak dira, baina harri koskor batzuk eta burdinazko lotura batzuk dauzkate. Hegoaldeko hormaren mendebaldean blokeak handiagoak dira eraikinaren izkinakoak direlako; horri esker, eraikinaren neurriak irudikatu ditzakegu. Horma horretan ikus dezakegu halako harroina duela, aurreneko errenkada 0,15 eta 0,18 m bitarte lodiagoa baita.

[26] Hegoaldeko horman neurtu dugu luzera, iparraldeko horman, zati gehiago kontserbatzen dituen arren, ezin izan ditugulako dimentsio zehatzak neurtu, neurketa eragozten duen beste eraikin bati atxikita dagoelako. Gainera, ezin izan ginen egungo etxebizitza barruan sartu horma horiek barruko aldetik zer kontserbazio egoeran dauden ikustera.

de cuadra, se verificaba. Con ello dimos por terminada la labor arqueológica en relación al control de ejecución de la zanja.

Lectura estratigráfica de los alzados

Fase 1. Casa Torre

El único resto conservado de esta Casa Torre se encuentra en el muro norte del edificio actual. Se trata de un muro compuesto por sillares irregulares de arenisca alveolada trapezoidal, de mediano y gran tamaño; Las caras están toscamente labradas. Además, se contabilizan abundantes rípios. Conserva 7 hiladas siendo la primera más ancha, ejerciendo la función de zapata.

Por la información aportada por el resto documentado de esta fase, se trataría del muro norte de una casa torre bajomedieval con una planta cuadrada o rectangular siendo uno de los lados más largo, el conservado, de aproximadamente 12 m.

Respecto a la cronología de esta fase habría que situarla a finales del siglo XV; principalmente por el aparejo utilizado en la construcción del muro.

Fase 2. Construcción del palacio

Debemos señalar, que no disponemos de datos para poder decir si la casa torre estaba en uso cuando se transformó en palacio o se encontraba en estado de abandono.

Para la construcción del palacio se cogieron como base los restos de los muros de la casa torre que permanecían aún en pie. Para ello se realizó un corte en el muro conservado, para sanear y regularizarlo; con el fin de asentar la nueva estructura adecuadamente.

De la estructura del palacio se conservan dos paramentos. Concretamente la pared sur y la norte. Estos muros están formados a su vez por dos muros en paralelo y un relleno entre ambos. Los muros están compuestos por sillares de arenisca, labradas a picón oblicuo y trabadas con argamasa amarillenta. Los bloques son de mediano y gran tamaño: colocados a soga, aunque algunos a tizón. El relleno está compuesto por bloques de piedra arenisca y alguna caliza de diversos tamaños y sin trabajo de sus caras a modo de relleno. La anchura oscila entre 1 m y 1,12 m. Conserva unas 15 hiladas en el muro sur y 12 en el muro norte siendo la altura de unos 3´17/5 m de alto y una longitud[26] de 9,57 m a 12 m aproximadamente. Las hiladas son regulares, pero presentan algunos ripios y engatillados. En la parte oeste del muro sur, los bloques son más grandes porque corresponden a la esquina del edificio, lo que nos permite tener una idea de sus dimensiones. En este mismo muro se observa que tiene zapata el muro, sobresaliendo la primera hilada entre 0,15 m y 0,18 m.

[26] La longitud se ha medido en el muro sur ya que, en el muro norte, aunque se conserva más no se han podido tomar las dimensiones exactas, puesto que se adosa una edificación impidiendo tal tarea. Además, no se ha podido acceder al interior de la actual vivienda para ver cómo se conservan estos muros en su cara interna.

Hegoaldeko hormaren ekialdeko muturrean gezileiho bat dago. Bao hori 0,98 m garai da eta 0,07 eta 0,2 m bitarte zabal, ez da osorik kontserbatzen. Ia haren parean, iparraldeko horman, bada beste gezileiho bat, ia neurri berberak dituena: metro bete garai eta 0,15/0,30 m bitarte zabal. Horma horretan, goiko aldean, erdialdera, jatorrizkoa izan litekeen beste bao bat hautematen da, karratua.

Eraikinetik kontserbatutako atalek, eraikinaren iparraldeko eta hegoaldeko hormek eta izkinetako batetik kontserbatu den zatiak ezagutarazten digute jauregiak izango zuen oinplanoa: barrutik 9,04 m zabal izango zen (iparraldetik hegoaldera) eta gutxi gorabehera 12 m luze, eta beraz, 100 m^2-tik gorako oinplano angeluzuzena izango zuen. Hormak metro bete eta 1,12 m bitarte lodi izango ziren, behe aldean gezileihoak izango zituzten, eta gorago leiho txiki angeluzuzen bat[27].

Kronologiari dagokionez, XVI. mendearen erdialdeko kronologia ematen zaio jauregi honi.

3. fasea. Ukuiluaren eraikuntza

Fase honetan desmuntatu zuten jauregiaren mendebaldeko horma (gerora bideratutako moldaketa lanen ondorioz ez da ekintza horren arrastorik bat ere identifikatzen), eta fase honetan handitu zuten eraikina harlangaitzeko hiru horma altxatuta, kalitate eskasekoak, tamaina askotako harriekin eta kareharriren batekin, harri horien aurpegietan besterik gabe ertzak kendu edo berdindu zituztela. Eta badira ongi landutako hareharrizko bloke handiak, jauregia eraikitzeko erabili zuten material berrerabiliak izan daitezkeenak. Horma horietako errenkadak ez daude ongi antolatuta. Izkinetan ongi landutako hareharrizko blokeak identifikatzen dira, oso handiak dira, izkina horiek indartzeko erabiliak dira. Deigarria da hegoaldeko izkinan halako hamabost bloke izatea eta iparraldekoan 10, goraino iritsi gabe. Hegoaldeko horman, eraikinean kanpotik sartzeko ate bat identifikatzen da. 2,10 m garai eta 0,20/0,23 m bitarte zabal diren bi ate zangok eta 2,80 m luze eta 0,20/0,30 m bitarte zabal den ate buruak osatuta dago sarrera hori, 2,22 m-koa da baoaren argia. Hain zuzen ere ate buru hori jartzeko dorrearen hormako bloke bat kendu behar izan zuten, eta horretarako ,33 x 0,31 x 0,47 m-ko ebaki bat egin behar izan zuten. Gibelaldean ere bi ebaki dokumentatu genituen, dorrearen iparraldeko beste hainbeste bloke kentzeko egin zituzten, kasu honetan bi hormak lotzeko eta horma berriari egonkortasun handiagoa emateko. Ebaki horiek formaz karratuak dira, eta dorrearen hormaren goiko aldean identifikatzen dira.

Fase honetan dokumentatutako leiho/bao bakarra barrutian sartzeko atearen goiko aldean dago. Mendebaldeko leiho zangoa baizik ez du kontserbatzen, hareharrizko bloke handiez osatuta dago zango hori, eta blokeek ongi landuta dauzkate aurpegiak. Luzeka eta zeharka daude ipinita blokeak, zeharka ipinitakoak iparralderantz nabarmentzen direlarik barruko aurpegian.

[27] Dorrearen hormek zuzenean hartzen dute atseden hareharrizko substratu harritsuan.

El muro sur presenta una aspillera en su extremo este. Esta abertura presenta unas dimensiones de 0,98 m de altura y una abertura de entre 0,07 y 0,2 m, no se conserva completa. Casi enfrentada a ésta, en el muro norte, hay otra aspillera con casi las mismas dimensiones: 1 m de altura y 0,15/0,30 cm de anchura. En este mismo lienzo y en la parte superior central se aprecia otro posible vano original cuadrado.

Los restos conservados del edificio, que corresponden a los lienzos norte y sur del edificio y a la parcial conservación de una de las esquinas, nos dan a conocer la planta que presentaría este palacio, que tendría una anchura interna (norte-sur), de 9,04 m y una longitud conservada de aproximadamente 12 m que daría como resultado una planta rectangular de más de 100 m². Los muros tendrían un grosor entre 1 m y los 1,12 m y presentan, en la mitad inferior saeteras y a una mayor altura una pequeña ventana rectangular[27].

Referente a la cronología se viene dando una cronología de mediados del siglo XVI a este palacio.

Fase 3. Construcción de la cuadra

De este momento es cuando se desmonta el muro oeste del palacio, del que no queda ningún rastro de esta actividad debido a acciones posteriores y se amplía realizando tres muros de mampostería de baja calidad, realizados con piedra arenisca y alguna caliza de diversos tamaños, presentando sus caras un simple trabajo de regularización. También presentan grandes bloques de arenisca labrados, que pudieran ser reutilizaciones del material utilizado para la construcción del palacio. No presentan hiladas ordenadas. Las esquinas muestran bloques de piedra arenisca bien trabajados y de grandes dimensiones para reforzar dichas esquinas. Llama la atención que en la esquina sur haya quince de estos bloques y en el lado norte 10, sin terminar de llegar arriba del todo. Se localiza un acceso desde el exterior situado en el muro sur. Consiste en dos jambas de madera de 2,10 m de alto y 0,20/0,23 m de lado y un dintel formado por dos vigas en paralelo de 2,80 m de longitud y de 0,20/0,25 m de lado, siendo la luz de la puerta de 2,22 m. Precisamente, para colocar este dintel tienen que retirar un bloque del muro de la torre por lo que practican un corte de 0,33 x 0,31 x 0,47 m. En la parte trasera también se han documentado dos cortes para retirar sendos bloques del muro norte de la torre, esta vez para trabar los dos muros y dar más estabilidad al nuevo muro. Estos cortes presentan unas formas cuadrangulares y están situados en la parte superior oeste del muro de la torre.

El único vano de ventana documentado en esta fase se localiza por encima de la puerta de acceso al recinto; que conserva solamente la jamba oeste, formada por bloques de arenisca de gran tamaño, con sus caras bien labradas. Están colocados a soga y tizón, sobresaliendo estos últimos por la cara interna con orientación norte.

[27] Los muros de la torre se asientan directamente sobre el estrato rocoso de arenisca.

Esan bezala, horma horietako errenkadak ez dira homogeneoak, estekadura ez da erregularra, eta lodiera ere ez da homogeneoa denetan, hegoaldekoa 0,42 m lodi baita, mendebaldekoa 0,57 m lodi eta iparraldekoa 0,50 m lodi. Iparraldeko horma 5,38 m luze da eta 5,18 m garai; mendebaldekoa barruko aldetik 10,59 m luze da eta 5,18 m garai muturretan (erdialdean 7,15 m garai da); eta hegoaldekoa 5,25 m luze da eta 5,18 m garai.

Une honetakoa da, era berean, zurezko egitura, teilatuari eutsiko ziona. Egitura horrek hareharrian landutako piramide-enbor formako euskarri garaietan bermatutako bi zutoin zituen.

Ekialdeko hormak itxiko zuen eraikin hau, baina gutxi gorabehera 3,43 m harago egongo zen jauregiaren mendebaldeko horma. Aurreko hormen eraikuntza ezaugarri berberak ditu, baina bi berezitasun nabarmentzen zaizkio. Beheko solairuan, horma atalaren erdialdean, azaldutako moldatze lanak bukatutakoan sortuko ziren bi gela berriak lotzen zituen sarrera bat identifikatzen da. Hareharrizko bloke handiekin egindako zangoak dituen atea da, harrien aurpegiak ongi landuta daudela eta piezak luzeka eta zeharka ipinita daudela; bi zango horien gainean bermatzen den zurezko habe batek osatzen du ate burua. Ate horren argia 1,33 m zabal da eta 2,02 m garai. Eskuinaldean (hegoalderantz), beste bao bat bereizten da altuera ertainean, formaz angeluzuzena da. Ezaugarri berberak ditu: ongi landutako hareharrizko blokeek osatzen dituzte ate zangoak, eta zurezko habeak ate burua, baina kasu honetan zurezko habea ez da eraikinean sartzeko ateetan erabilitakoak bezain zuzena. Atearen argia 2,25 m luze da eta 1,25 m garai. Horman altuera ertainean dagoenez, ukuilu bat izan zitekeela pentsatu genuen, eta higiezinaren jabeak berretsi egin zigun ustea. Hauexek dira horma horren neurriak (ezin izan genuen lodiera zehaztu): 9,04 m luze eta 7,15 m garai muturretan eta 5,18 m erdialdean.

Fase honetakoak dira jauregiaren hegoaldeko horman, kanpoko aurpegian, egindako bi ebaki. Lehenengoa, goi eskuineko izkinan, formaz irregularra da, ia laukizuzen baten itxurakoa. Besteak, aurrekoaren ekialdera gutxi gorabehera 6 metrora dagoenak, ezaugarri berberak ditu. Ebaki horiek hareharrizko harri txiki eta ertainez beteta daude, kareore zurixka batez daude batuta. Zehatz ez dakigu zeri erantzuten dioten ebaki horiek. Dorrearen hormako bloke batzuk ebakitzen dituzte partzialki. Baliteke ezertxo ere kontserbatu ez duen zurezko egitura bat desegiteko lanaren emaitza izatea.

Era berean, fase honetan kokatu behar dugu dorrearen hegoaldeko hormako gezileihoa itsutzeko obra. Horretarako hareharrizko harri txikiak eta kareorea erabili zituzten.

Gezileiho horren ekialdean, metro beteko tartera, ekialdeko horma desegiteko eta alde hori handitzeko egindako ebaki bat dokumentatzen da. Ebaki irregularra da, jauregiaren hormako harlanduak sigi-saga eta mailaka hartzen dituena; egungo etxebizitzaren beheko solairuan baizik ez da hautematen, lehenengo solairua kareztaturik dagoelako eta estaldura hori

Como hemos comentado, estos muros no presentan hiladas homogéneas ni un aparejo regular, tampoco presentan un grosor homogéneo ya que el muro sur tiene un grosor de 0´42 m; el muro oeste, de 0´57 m y el muro norte, de 0´50 m de grosor; Las dimensiones que tienes son para el muro norte de una longitud de 5´38 m y una altura de 5´18 m ; para el muro oeste una longitud interna de 10´59 m y una altura en los extremos de 5,18 que en el centro es de 7,15; para el muro sur una altura de 5´25 m de longitud y una altura de 5´18 m.

De este momento también data la estructura de madera con dos pies derechos apoyados sobre altos poyales troncopiramidales realizados en arenisca, que sostendría el tejado.

Como cierre a esté edificio nos encontramos con el muro este, pero a unos 3,43 m más se encontraría el muro oeste del palacio. Presenta las mismas características constructivas que los anteriores, pero con dos peculiaridades. En la planta baja se localiza, en la mitad del lienzo, un acceso que comunicaría los dos nuevos espacios surgidos tras esta reforma, Consiste en una puerta con las jambas realizadas con grandes bloques de piedras arenisca con sus caras bien labradas colocadas a soga y tizón; el dintel lo conforma una viga de madera que se asienta sobre dichas jambas; la luz de este acceso es de 1,33 m de anchura y 2,02 m de altura. A su lado derecho (hacia el sur) se aprecia otro vano con forma rectangular a media altura. Presenta las mismas características: grandes bloques de arenisca ladrados para formar las jambas y una viga de madera para el dintel, pero en este caso la viga de madera no es tan recta como las utilizadas en las puertas de acceso. La luz de la puerta es de 2,25 m de longitud y 1,25 m de alto y su localización a media altura en el muro nos hace pensar que se trataría de un pesebre, uso que fue confirmado por la propiedad del inmueble. Las dimensiones de este muro, donde no pudo sacarse la anchura, son de 9,04 m de longitud y una altura de los extremos al centro de 5,18 m a 7,15 m.

De esta misma fase tenemos dos cortes realizados en el muro sur del palacio, en su cara externa. El primero de ellos, localizado en la esquina superior derecha, con forma irregular tirando a rectangular. El otro, localizado a unos 6 m al este del anterior, presentando las mismas características. Estos cortes están rellenados por piedras de mediano y pequeño tamaño de arenisca trabada con argamasa blanquecina. Estos cortes no sabemos muy bien a que corresponden. Están cortando parte de los bloques del muro de la torre. Podrían corresponder al desmantelamiento de alguna estructura de madera de la que nada se conserva.

En esta actividad se ha incluido el cegado de la saetera del muro sur de la torre con pequeñas piedras de arenisca con argamasa.

Al este de esta saetera, a 1 m de distancia se documenta un corte que corresponde al realizado para desmontar el lado este y para ampliarlo. Es un corte irregular, que recorre los sillares del muro del palacio en zig-zag, escalonadamente; solamente se aprecia en la parte baja de la vivienda actual ya que el primer

eragozpen delako ebaki horren bidea bertatik bertara ikusteko. Eraikina alde honetatik handitzeko, hareharrizko eta kareharrizko tamaina txiki eta ertaineko harriz egindako horma bat altxatu zuten, tartean hareharri handiagoren bat identifikatzen zen horma horretan, segur aski jauregiaren hormatik hartutako pieza berrerabilia izango da. Hormaren errenkadak ez dira erregularrak. Eraikuntza elementu horretatik gehiago ikusterik izan ez genuen arren, zatirik handiena karez estalita dagoelako eta azterlanaren xede den gunetik kanpora dagoelako, eraikina mendebaldera handitzeko hormetako estekadura ekartzen digu gogora horma honek.

Handik gutxira mendebaldera handitu zuten eraikina, eta horrenbestez, eraldatu egin ziren eraikin berriaren neurriak eta barruko banaketa.

Dirudienez, jauregiak XVIII. mende amaieran nozitu zuen sutearen ostean du hasiera fase honek. Sute horren arrastoak eraikinaren hormen barruko aurpegietan geratu dira islatuta, argi eta garbi ikusten dira suak eta beroak gorritutako elementuak. Hortik gutxira handitu egin zuten eraikina mendebalderantz, eta ondorioz, eraldatu egin ziren eraikin berriaren neurriak, haren barruko banaketa eta bere funtzionaltasuna aurreko eraikinarekiko. Jauregiaren mendebaldeko horma desegin edo arpilatu zuten kalitate apaleko harlangaitzezko hormekin handitzeko. Horma horiek hareharrizko eta kareharrizko pieza landu gabeez eginda zeuden, harriak errenkada irregularretan paratuak. Gainera, ekialderantz ixten da, mendebaldeko aurreko hormarekiko 3,43 m-tan atzera eramanda, 10,06 m (iparraldetik hegoaldera) bider 8,08 m-ko (ekialdetik mendebaldera) gune angeluzuzen bat osatzeko. Bi ate ditu: bata kanpotik sartzekoa, hegoaldeko fatxadan, bi orriko atearekin, zurezko habeekin egindako ate zangoekin eta ate buruarekin, kareharrizko lauzez egindako atalasearekin, 2,22 m luze eta 2,10 m garai den argiarekin. Beste atea, ekialdeko horman, gela hau eta ondokoa komunikatzekoa zen. Aurrekoa ez bezalakoa da ate zangoak hareharrizko bloke handiez osatuta dituelako eta ate burua zurezko habe batez. Hormetako bitan baorik ez izateak eta horman ganbela bat izateak adierazten digute barruti honi ukuilu erabilera eman ziotela, eta etxebizitza alboko aldean egongo zela, ekialdeko hormako baoak egingo ziola sarrera. Barruko egitura zurezkoa izango zen, hareharrizko piramide-enbor formako bi euskarritan bermatutako bi zutoinek eratuta egongo zen.

Fase honetako kronologiari dagokionez, dokumentazioari esker badakigu Basaraz dorrea XVIII. mendeko dokumentu idatzietan aipatzen dela, mende horren amaierako dokumentuetatik desagertzen bada ere. Dokumentuetako absentzia horri jauregi barruan gertatutako sutearen arrastoak gehitzen badizkiogu, erraz pentsa genezake jauregia sute hartan suntsitu zela. Gertaera horri buruzko informaziorik ez dugun arren, datak kontuan harturik baliteke Konbentzioko Gerraren pasarte baten ondorioz gertatu izana suntsipen hori, baina hori hipotesi bat baizik ez da. Guk uste dugu suntsitu eta gutxira berriz eraiki zutela beste funtzio batekin, kasu honetan baserria izateko. XIX. mende hasieran kokatu behar dugu fase hori.

piso presenta un encalado que impide ver el recorrido de dicho corte. La ampliación por esta parte del edificio consta de un muro realizado con piedras de mediano y pequeño tamaño de arenisca y de caliza, con alguna arenisca de mayor tamaño reaprovechada, probablemente del palacio. No presenta hiladas regulares. A pesar de no poder ver más de este elemento constructivo, al estar la mayor parte del mismo encalado y no formar parte estrictamente de la zona objeto de estudio, nos recuerda mucho al aparejo de los muros de la ampliación hacia el oeste.

Poco tiempo más tarde, se amplía el edificio hacia el oeste, transformando tanto las dimensiones del nuevo edificio como su división interna

Esta fase se inicia, parece ser, tras sufrir un incendio el palacio a finales del siglo XVIII, quedando plasmado en las caras internas de los muros del edificio, donde se aprecian elementos rubefactados y recentados por la acción del fuego y el calor. Poco tiempo más tarde, se amplía el edificio hacia el oeste, transformando tanto las dimensiones del nuevo edificio, su división interna y su funcionalidad con respecto al edificio anterior. Se desmonta o saquea el muro oeste del palacio para ampliarlo con muros de mampostería de baja calidad compuestos por piedra arenisca y calizas, sin trabajo y sin hiladas regularizadas. Presentan refuerzos en los esquinales de grandes bloques de areniscas bien trabajados. Además, se cierra hacia el este retranqueando 3´43 m con respecto a la situación del anterior muro oeste, configurando un espacio rectangular de 10´06 m de norte-sur y de 8´08 m de este-oeste. Presenta dos accesos: uno desde el exterior, situado en la fachada sur con una puerta de doble hoja, jambas y dintel de vigas de madera y con un umbral de lajas de piedra caliza con una luz de 2,22 m de longitud y 2,10 m de alto. La otra entrada, situada en el muro este, serviría para comunicar este espacio con el contiguo. Difiere del anterior al tener las jambas formadas por bloques de arenisca de gran tamaño y un dintel de viga de madera. La ausencia de vanos en dos de sus paredes, y la presencia de un pesebre en el muro este nos indica que este recinto se utilizaría como establo y que la vivienda se situaría en la zona contigua, accediendo por el vano situada en el muro este. La estructura interna seria de madera compuesta por dos pies derechos apoyados sobre sendos apoyos troncopiramidales de arenisca.

Respecto a la cronología de esta fase, sabemos por la documentación, que aparece mencionada la torre Basaras durante el siglo XVIII, desapareciendo posteriormente a finales de esta centuria. Si añadimos a esta ausencia en la documentación los restos de un incendio en el interior del palacio, hace suponer que se destruiría en un incendio. Pese a no constar con información referente a este suceso, por las fechas, podría deberse a la Guerra de Convención, aunque únicamente sería una hipótesis. Sospechamos que en un breve periodo de tiempo se reconstruiría con otra finalidad, en este caso, de caserío. Esta fase habrá que situarla a principios del siglo XIX.

4. fasea. Moldaketa txikiak

Fase honetan dokumentatu dugu dorrearen hegoaldeko hormaren barruko aurpegian egindako ebaki bat, formaz irregularra, 0,52 m luze eta 0,12 m garai; 0,265 m luze eta 0,045 m lodi diren adreilu trinkoez beteta dago, hiru errenkadatan banatzen dira horiek. Horman bideratutako konponketa baten emaitza izan daiteke ebaki hori, egoera txarrean egongo zen blokeren bat atera eta gero adreilu horiekin beteko zuten blokeak utzitako hutsunea.

Kronologiari dagokionez, XIX. mendean zehar kokatu behar dugu ebakia, ezin dugu zehaztapen gehiagorik eman.

5. fasea. Bigarren moldaketak

Fase honetan erabaki zuten gela honetan bi bao berri egitea.

Lehenengoa, ekialdeko hormaren erdialdean, kanpotik sartzeko ate berri bat da. Horretarako, ertz irregularreko ebaki bertikal eta angeluzuzen bat egin zuten horman, 2,65 m garai, 1,49/1,70 m zabal eta 0,57 m lodi. Behin atea jarri ondoren, bete egin zuten sobera gelditzen zen tartea (0,20 m alde banatan). Ez dakigu zer material erabili zuten horretarako, zementuzko zarpiatuak galarazten baitu haren osaera ikustea.

Eraikina handitzeko iparraldeko horman dagoen leihoa da bigarren baoa. Horretarako zoruaren mailatik gora 1,79 m-ra ebaki bat egin zuten, formaz angeluzuzena, ekialdetik mendebaldera, ertz irregular eta zeiharrekin, barruko ebakia kanpokoa baino handiagoa delarik: 1,26/1,50 m bitarte luze, 0,78/1,30 m bitarte garai eta 0,50 m lodi. Leihoa 1,02 m garai eta 1,25 zabal da, eta goiko aldean zurezko leiho burua du, 0,10 m lodi eta 1,38 m luze. Kanpotik baizik ez da ikusten. Leihoaren eta ebakiaren arteko ebakia soilik barruko aurpegian ikusten da, zementuz beteta dago.

Antza fase honetakoak dira hegoaldeko atearen eskuinaldean identifikatutako bi grafitiak. Haietako batean, goikoan, izen bat irakur daiteke: MARIANO, eta idatzi zen urtea, 1905. Mariano Echevarria izan liteke, gaur egungo jabearen aitonaren anaia, eta oso litekeena da Echeverria familiako kideak garai hartan oraindik maizterrak baizik ez izatea.

Moldaketa lan horien helburuak ziren ukuiluaren barruko aldeari argi gehiago ematea eta mendebaldetik beste sarrera batez hornitzea. Oso litekeena da fase honetan eraiki izana hegoaldeko fatxadako balkoia.

Kontuan izanik burura eramandako moldaketa lanen ezaugarriak eta izenaren eta urtearen irarlanak, guk ondorioztatzen dugu urte horretan egin zituztela obra horiek, edo data horren inguruan.

6. fasea. Etxebizitza aldea egokitzeko lanak

Gerra Zibila bukatu ondoren beste jabe bat izango zuen etxeak, gaur egun ere jabe den familiaren esku gelditu zen. Une hartan moldaketa lan handiak egin zituzten eraikinean, Hormarte berri bat altxatu zuten

Fase 4. Pequeñas reformas

En esta fase se ha documentado un corte por la cara interna del muro sur de la torre, con forma irregular cuyas dimensiones son 0,52 m de longitud y 0,12 m de altura; está rellenado por ladrillos tabiqueros macizos de 0,265 m de longitud y 0,045 m de grosor, distribuyéndose en tres hiladas. Esta acción puede deberse a una reparación del muro, extracción de algún bloque en mal estado y el posterior relleno con dichos ladrillos.

Referente a la cronología habrá que situarla a lo largo del siglo XIX sin poder precisar más al respecto.

Fase 5. Segundas reformas

En estos momentos se decide hacer dos vanos nuevos en esta estancia.

El primero, situado en la mitad del muro oeste, es una nueva puerta de acceso desde el exterior. Para ello realizan un corte rectangular de bordes irregulares y con desarrollo vertical, cuyas dimensiones son de 2´65 m de altura, 1,49/1,70 m de anchura y 0,57 m de anchura. Tras la colocación de la puerta rellenan el espacio sobrante que presenta una longitud de 0´20 m a cada lado, sin poder precisar el material que lo compone, ya que el enlucido de cemento impide ver su composición.

El segundo vano es una ventana situada en el muro norte de la ampliación. Para ello realizan un corte a 1,79 m del suelo, con forma rectangular, orientación este-oeste y bordes irregulares oblicuos, siendo el corte interior más amplio que el exterior; presentando unas dimensiones de 1,26/1,50 m de longitud; 0´78/1´30 m de altura y 0´50 m de grosor. La ventana mide 1,02 de alto y 1,26 cm de longitud y presenta un dintel de madera en la parte superior de 0,10 m de grosor y 1,38 m de longitud. Solamente se ve por el exterior. El hueco entre la ventana y el corte solamente se localiza en la cara interna y está rellenado por cemento.

Parecen ser de esta fase los dos grafitos localizados en la parte derecha de la puerta sur. En uno de ellos, el superior, aparece un nombre: MARIANO, y la fecha de realización. 1905. Se podría tratar de Mariano Echevarría, hermano del abuelo del propietario actual, siendo probable que en aquella época los miembros de la familia Echevarria fueran aún, únicamente inquilinos.

Estas reformas tienen como finalidad dar más luz al interior del establo y proporcionarle otro acceso desde el oeste. Es muy probable también que en esta fase se construyera el balcón de la fachada sur.
En este sentido, junto al muro medianil se ha constatado la reutilización de una atarjea propia del edificio inmediatamente anterior construida con paredes de mampostería y losas en el fondo y cubierta.

Por su parte, en la zona central del fondo destaca la presencia de un noque. Se trata de una pileta exenta de gran porte, construida mediante sillares calizos con forma en planta rectangular y que queda unida mediante argamasa blanquecina de base de cal de gran compactación. El fondo de la misma lo constituye una losa con una oquedad en su zona central. El conjunto alcanza unas medidas en planta de 2,40 x 2,60 m y se elevaba hasta 40 cm. Para su construcción se practica una zanja en la arcilla base que solo se ha podido documentar en la mitad occidental de la misma.

En origen podría tratarse de una estructura vinculada a la implementación de actividades artesanales en el interior de la villa. Estructuras similares se han relacionado con manufacturas de textiles y/o las pieles, tal y como se documenta en varias villas y arrabales del País Vasco para los siglos comprendidos entre el XV y el XVII. Cabe destacar que, en el solar enfrentado de Dendari 46, ya se documentó una estructura del mismo tipo asociada al muro medianil que podría datarse en el siglo XVI, lo que pondría de manifiesto el desarrollo de este tipo de actividades artesanales para Dendari en la Edad Moderna.

Su estado de conservación se puede calificar de bueno, aunque es evidente la alteración en su lado NW. Dada la entidad de la estructura y el coste que supondría su retirada quedaría intacta, no pudiendo descartar que durante las obras de construcción del actual inmueble u reformas posteriores fuese reutilizada como pileta para la fabricación de argamasa, cumpliendo un papel similar al de otras estructuras (de distinta entidad) documentadas en los cercanos Dendari 23 y 32 o Beheko 9-11 y 28.

J.A. Fernández Carvajal, A. Ortega Franco

B.10.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

B.10.2.1. **Mendieta ontziola**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal

Finantzazioa: IPCE Espainiako Kultura Ondarearen Institutua

B.10.2.1. **Astillero Mendieta**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal

Financiación: IPCE Instituto de Patrimonio Cultural de España

The archaeological intervention carried out forms part of a broader study prompted by the imminent restoration of the Mendieta shipyard in Lekeitio. As well as being one of the foremost Basque cultural heritage sites, Mendieta is the best preserved riverside shipyard along the Biscay coastline. The intervention carried out on the contemporary site focused on digging several sondages in areas about which doubts exist regarding the origin and subsequent development of the existing facilities. The intervention also included an analysis of the walls of the wooden structures, ramps, docks, house and auxiliary facilities. The detailed analysis of the rest of the materials that make up the site enabled the diachronic evolution of the shipyard to be determined from its origins during the last quarter of the 19th century to its abandonment at the end of the 20th century.

Lekeitioko Mendieta Ontziola zaharberritu aurreko azterlan orokor baten baitan kokatu behar dugu burura eramandako esku hartze arkeologikoa. Euskal kultura ondarea osatzen duten ondasunetan nabarmenetakoa izateaz gain, gure garaira iritsi diren erriberako ontzioletan hobekien kontserbatutakoa da Mendieta ontziola Bizkaiko kostaldean.

Mendieta ontziola (1883-1993)

Luis Javier Escudero Dominguezek[37] 2009an egindako azterlanari esker xehetasun osoz ezagutzen dugu Lea ibaiaren alde honetako jardueraren garapen historikoa, bai aztertutako egituraren beraren sorreratik, bai Mendieta familiaren jardueraren hasiera-hasieratik.

1830ean Jose Antonio Mendieta Akurriolak ontziola bat instalatu zuen Magdalena ermita ondoan. Jose Antonioren seme Domingo Mendieta Maguregi Isuntza aldera lekualdatu zen 1862an, Lekeitioko itsasadarrera, Lea ibaiaren bokale ondora. Han txalupak eraikitzeko instalazio xume bat eraiki zuen, hura izango zen gure garaira arte iritsi den ontziolaren jatorria.

Gaur egun ikus dezakegun ontziolak bi hamarkada geroago du jatorria, Domingoren anaia Andresek Lekeitioko udalari eskatutako 36 x 14 metroko lursailean arrapala berri bat eraiki zuenean «fraideen kai» ondoan. Instalazio horren eta kaiaren artean albateez hornituriko putzu bat prestatu zuten bertan gero ontziolan erabiliko ziren zurezko piezak uzteko.

Hasiera-hasieratik, eraiki eta konpondu beharreko ontzien bilakaerak eta tamaina gero eta handiagoak eragin zuten behar-beharrezkoa izatea ontziolako jatorrizko zurezko egitura moldatzeko eta handitzeko lan

[37] Escudero Domínguez, Luis Javier (2009): «El astillero Mendieta de Lekeitio, singular exponente de la carpintería de ribera del Cantábrico», *Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaiei Buruzko Aldizkaria*, 6, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 237-268. or.

La actuación arqueológica realizada se enmarca dentro de un estudio global previo a la restauración del Astillero Mendieta de Lekeitio. Mendieta, además de ser uno de los bienes más destacados del patrimonio cultural vasco, es el mejor conservado de los astilleros de ribera que ha llegado a nuestros días en el litoral vizcaíno.

El Astillero Mendieta (1883-1993)

Gracias al estudio realizado por Luis Javier Escudero Domínguez[37] en el año 2009 conocemos con detalle el desarrollo histórico de la actividad en esta margen del Lea; no solo desde el origen de la propia estructura estudiada, sino también del inicio de la actividad por parte de la familia Mendieta.

En 1830 José Antonio Mendieta Acurriola instala un astillero junto a la ermita de la Magdalena. Pero será Domingo Mendieta Maguregui, hijo de José Antonio, quien en 1862 se traslade a la zona de Isuntza, en plena ría de Lekeitio, junto a la desembocadura del río Lea. Allí levantó una tejavana dedicada a la construcción de lanchas; la cual sería el origen del astillero que ha llegado a nuestros días.

El que podemos ver en la actualidad tiene su origen dos décadas después en 1883 cuando su hermano Andrés Mendieta construye, junto al conocido «muelle de los frailes», la nueva rampa sobre una parcela de 36 x 14 metros solicitada al ayuntamiento de Lekeitio. Entre esta nueva instalación y el muelle se habilitaría un pozo con compuertas que permitiría situar las piezas de madera que posteriormente serían utilizadas en el astillero.

Desde sus orígenes, las necesidades productivas derivadas de la evolución y aumento de escala de las embarcaciones a construir y reparar hicieron que fuera necesario someter a la primitiva estructura de ma-

[37] Escudero Domínguez, Luis Javier (2009): «El astillero Mendieta de Lekeitio, singular exponente de la carpintería de ribera del Cantábrico», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 6, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, p. 237-268.

ugari egitea. Hala eta guztiz ere, Mendieta ontziola handitzeko lehen bultzada hori zapuztuta geldituko zen 1913ko abuztuan, sute batek ia erabat suntsitu baitzituen instalazioak. Berehala berreraiki zuten Andresen alargunak (Andres sutea gertatu eta gutxira hil zen) eta bere seme Ramon Mendieta Madarietak. Eraikuntza fase hori 1917an amaitu zen ontziolari atxikita etxe bat eraiki zutenean.

Dokumentu idatziek eskaintzen dizkiguten hurrengo albisteek aldaketen berri ematen digute ekoizpen jardueran, tamaina handiagoko baporeak eraiki eta konpondu behar baitziren. Ondorioz, obra handiak egin behar izan zituzten ontziolan, horien erakusgarri dira 1913 eta 1917 bitartean eraikitako pabiloiak goratu izana (1940ko hamarkadan) eta kota garaiagoan beste arrapala bat eraiki izana.

Hurrengo hiru hamarkadetan guztiz aldatu zen egoera ekonomikoa. 1968an iritsi zuen bere jarduera maila gorena, urtean 6-8 ontzi uretaratzen zituen. Baina urte horretatik aurrera lana pixkanaka apaldu egin zen (eskaera gutxitu egin zen eta aldaketa handia izan zen mundu mailako ontzigintzan), 1990eko hamarkadan batez ere konpondu egiten zituzten ontziak, edo mantentze lanak egiten zituzten, 1993an ontziola betikoz itxi zuten arte.

Gaur egun bi gune ongi berezituek osatzen dute Mendieta ontziola.

Lehenengoa, iparraldean, da bietan txikiena. Fraideen kaiaren eta ontziolan erabilitako zurak biltegiratzeko erabili zituzten ur putzuen gainean eraikitako etxebizitza familiarraren hondakinak dira.

Bigarrena, askoz ere handiagoa, ekoizpen aldea da, bertan biltzen dira bi arrapalak eta zurezko estalkia. Gune deigarriena izanik (handia baita eta zurezko egiturekin eratuta baitaude paretak) interesgarriena ere bada, eta huraxe izan da esku hartzeko proiektuen xede.

Jarraipen arkeologikoa eta pareten dokumentazioa

Esku hartze arkeologikoaren helburua zen ontziolaren egitura eta atxikiriko elementu higigarriak finkatzeko eta zaharberritzeko lanetan laguntzeko beharrezkoa den informazio guztia datu berriekin osatzea. Instalazioak hartzen duen lursail osoan landareak kentzeko, garbitzeko, eta zaborrak ateratzeko lanak egin dira eta azterketa geoteknikoak egin dira, betiere kontrol arkeologiko zorrotzen begiradapean.

Esku hartze guztiek datu berriak eskaini dituzte ontziola eta dagozkion elementu osagarriak hobe ezagutzeko. Esate baterako, lursaileko sastrakak garbituta mendebaldeko arrapala eta orain arte ezkutuan egon diren elementu batzuk dokumentatu ahal izan ditugu; era berean, kontrol lanetan eta azterlan geoteknikoan egiaztatu da ez dagoela lehenagoko erabilera faseei legokiekeen egiturarik edo elementurik.

Bestalde, aurretiazko egiteko horiek osatzeko, kontserbatu diren harrizko horma atalen azterketa es-

dera del astillero a un gran número de intervenciones y ampliaciones. Sin embargo, este primer impulso del astillero Mendieta se verá frenado en agosto de 1913 cuando un incendio arrasará las instalaciones casi por completo. La reconstrucción será inmediata y la realizará la viuda de Andrés (fallecido al poco del incendio) y su hijo Ramón Mendieta Madarieta. Esta nueva fase constructiva finalizará en 1917 junto con una casa anexa al astillero.

Las siguientes noticias aportadas por la documentación nos indican cambios en la actividad productiva fruto de la necesidad de lanchas de vapor de un tamaño mayor. Esto trajo como consecuencia importantes obras en el astillero cuyo mayor ejemplo es el crecimiento en altura (década de los 40) de las naves construidas entre 1913 y 1917; y la construcción de una nueva rampa en una cota superior.

A lo largo de las siguientes tres décadas la situación económica cambió radicalmente. En 1968 se alcanzaría el pico de actividad, llegándose a botar de 6 a 8 embarcaciones al año. Sin embargo, a partir de esa fecha la actividad fue decreciendo paulatinamente (debido al descenso de la demanda y al cambio en la coyuntura mundial) hasta que en 1990 las labores se centraron en el mantenimiento y reparación de embarcaciones hasta su cierre definitivo en 1993.

En la actualidad el astillero Mendieta está compuesto por dos espacios bien diferenciados.

El primero de ellos, situado al norte, es el de menor superficie. Se trata de los restos de la vivienda familiar que se levantan sobre el muelle de los frailes y las balsas de agua que sirvieron para almacenar las maderas utilizadas en el astillero.

El segundo, de mucha mayor entidad, es el espacio de producción, que incluye las dos rampas y la cubierta de madera. Siendo éste el espacio más llamativo (tanto por su escala como por la estructura lígnea de sus alzados) es el que ha suscitado mayor interés y el que ha centrado los proyectos de intervención.

Seguimiento arqueológico y documentación de los alzados

El objetivo de la actuación arqueológica era completar, con nuevos datos, toda la información necesaria para ayudar en los trabajos de consolidación y restauración de la estructura del astillero y sus elementos muebles asociados. En la totalidad de la parcela ocupada por la instalación se han realizado labores de desbroce, limpieza, desescombro y estudios geotécnicos que han sido acompañados de un control arqueológico intensivo.

Todas las actuaciones han proporcionado nuevos datos al conocimiento del astillero y sus elementos auxiliares. Así, por ejemplo, el desbroce intensivo de la parcela ha permitido documentar la rampa occidental y algunos elementos hasta la fecha ocultos; del mismo modo que el control y los datos del estudio geotécnico han constatado la inexistencia de estructuras/elementos de fases de uso precedentes.

A su vez, estas tareas previas se han completado mediante la realización del estudio estratigráfico de

Mendieta ontziola. Eraikinaren barrualdean egindako zundaketa.

Astillero Mendieta. Sondeo realizado en el interior del edificio.

tratigrafikoa egin dugu Fraideen Kaian eta ontziolako plataforman. Fraideen kaia da Mendietan dokumentatutako egitura zaharrena. Obra bakar gisa eraiki zuten, eta geroago aldaketa txiki batzuk egin zituzten hartan 1917an amaitu zuten etxebizitza familiarraren eraikuntza medio.

Zundaketak 1917ko eraikin barruan

Iparraldeko eraikina kaiaren eta ontziolako arrapalaren arteko zerrenda batean zegoen altxatuta. Dokumentazioaren eta ahozko lekukotasunen arabera, albate sistema batez hornituriko ur putzu bat zegoen gune osagarri horretan. Albate horiek gero ontziolan erabiliko ziren zurezko piezak biltegiratzeko behar zen ur fluxua ahalbidetzen zuten.

Eraikin barruan, egiturak nozitutako sutetik etorritako zaborrezko metaketa ez aspaldikoaren azpian, neurri handiko bi zundaketa egin genituen elementu osagarri horren presentzia egiaztatzeko xedearekin.

Bi zundaketetan hauteman genituen ontzien eraikuntzan erabilitako zurezko piezak zeuzkaten hareazko geruzak, pieza horien artean ohol zatiak, txantiloiak, zuakerrak edo saihetseko oholak eta beste batzuk bereiz zitezkeela. Kota beheragoko mailek segur aski 1975. urtea baino lehen ur putzuetan sartutako azken kargari zegozkion piezak hartuko dituzte. Hala eta guztiz ere, piezen artean ikusten diren hondakin ugariek iradokitzen dute behin albateek beren egitekoari utzi ondoren zabortegi erabilera eman zietela `putzu horiei. Zundaketetan egiaztatu genuen 1917ko eraikineko zutabeen ondoan harlangaitzezko eta adreiluzko bi horma txertatu zituztela.

los paramentos pétreos conservados; como es el Muelle de los Frailes y la plataforma del astillero. El primero de ellos es la estructura más antigua documentada en Mendieta. Se ejecutaría como una obra única a la que, posteriormente, se le han realizado pequeñas afecciones con motivo de la construcción de la vivienda familiar finalizada en 1917.

Sondeos en el interior del edificio de 1917

El edificio septentrional estaba levantado sobre una franja comprendida entre el muelle y la rampa del astillero. En este espacio auxiliar la documentación, y los testimonios orales, situaban una balsa de agua conseguida mediante un sistema de compuertas. Estas permitían el flujo de agua necesario para el almacenaje de piezas de madera que posteriormente serían utilizadas en el astillero.

En el interior del edificio, bajo la acumulación de los escombros recientes fruto del incendio de la estructura, se realizaron dos sondeos de grandes dimensiones cuyo objetivo era confirmar la existencia de este elemento auxiliar.

En ambos casos se detectaron niveles de arenas que contenían piezas de madera empleadas en la construcción de los barcos, entre las que se podían distinguir recortes, plantillas, cuadernas, etc. Presumiblemente los niveles con cotas más bajas se corresponderían a la última carga de piezas que se había introducido en los pozos en un momento anterior a 1975. Sin embargo la existencia de numerosos desechos entre las piezas puede explicar un último uso como basurero tras la inutilización de las compuertas. En los sondeos se constató la inserción de sendos muros de mampostería y ladrillo junto a los pilares de la construcción de 1917.

Ekoizpen aldearen azterketa

Ontziolaren hegoaldeko zerrendan dago beheko arrapalako lan gunea, instalazioko irudi ikusgarriena. Mende batetik gorako jarduera aldian zehar eten gabe erantsitako eta eraitsitako eraikinen eta egindako handitze eta berritze lanen emaitza da. Lan horietatik gehien-gehienek berehalako premiei erantzuten diete, eta beraz, egindako eskaeren ezaugarrien araberakoak izango ziren instalazio barruan bideratutako moldatze lan horiek. Horrexegatik, hain zuzen ere, gaur egun ikus dezakegun instalazioa erreiak eta ontzi orgak hartzen dituzten arrapaletako eta harmailako estaliarena egiteko berrerabilitako eta berregokitutako zutoin, habe, beso, uhal eta beste elementu askoren nahasketa da.

Teilatuaren kontserbazio egoera txarrak eta hari eusteko xedean berriki antolatutako kable sistemak ia ezinezko egiten zuten barruan jarduera arkeologikoak bideratzea. Horrexegatik, hain zuzen ere, arrapala zehatz-mehatz dokumentatzea eta zurezko egituraren irakurketa estratigrafikoa egitea izan genituen esku hartzearen ardatz.

Itsasadarraren ondoko beheko arrapalak egiten du egitura osoaren oinarriarena. Hura eraikitzeko, lehenik dike bat altxatu eta ondoren bete egin zuten plataforma bat itxuratu arte. Aipatzekoa da etxebizitzatik gertuen dagoen gunea, izkina sendo bat eratzen baitu zurak biltegiratzeko putzu ondoan. Putzu horiek itxuratu baino lehenagokoa izanik, izkina hori 1883an eraiki zutela esan behar dugu. Beraz, aurreneko eraikuntzatik kontserbatu den aztarna bakarrenetakoa da.

Etengabeko aldaketek eta eranskinek ezaugarritutako elementuan bideratu genuen pareten irakurketa. Une garrantzitsuenak laburbilduta, irakurketa horrek ahalbidetu du, alde batetik, grafikoki islatzea ontziolaren eraikuntzaren historia konplexua, eta bestetik, bizi izandako bilakaera oro har ulertzea. Eta hori burura eraman ahal izan da ahozko iturriek eta dokumentazio historikoak emandako informazioari eta proiektu honen beraren baitan bideratutako armatzeko arotzeriaren eta ibaiertzeko arotzeriaren arteko azterlanari esker. Azterketa xehakatuan zehar, harreman estratigrafikoez gain, aplikatutako soluzioen tipologiak, zur motak, loturak eta beste aldagai batzuk erabili ditugu.

1883 eta XX. mendeko 90. urteen arteko bost eraikuntza fase handi identifikatu ditugu. Fase horietan daude irudikatuta instalazioak bizi izandako une garrantzitsuenak: jatorriak (jatorrizko posizioan kontserbatutako hondakin materialak beste material berrerabiliekin batera), 1917ko sute handiaren osteko berreraikuntza eta egituraren altuera goratzeko lana, 1940koa.

Azterlanean egiaztatu egin da Ontziola behin eta berriz egokitu behar izan zela barruko aldeari ematen zioten erabileraren arabera. Mendietan bideratutako jarduerak une oro behar izan zuen lan gune aldakor bat. Horrexegatik, fase bakoitzean identifikatutako aldaketa asko eta asko une bakoitzean eraikitzen edo konpontzen ari ziren ontzi motaren egiturari egokitzea eskatzen zuen inprobisazioaren ondorio dira.

Estudio del espacio de producción

El espacio de trabajo de la rampa inferior, la imagen más reconocible de la instalación, se encuentra en la franja meridional del astillero. Es el fruto de la incorporación y retirada ininterrumpida de construcciones, ampliaciones y reformas a lo largo de más de un siglo de actividad. La mayoría de ellas son resultado de la necesidad inmediata; por lo que es del todo probable que las modificaciones fuesen realizadas según las características de los encargos realizados en su interior. Es por este motivo por el que la estructura que ha llegado hasta nosotros es una amalgama de pilares, vigas, tornapuntas, correas, etc., adaptados y reutilizados para servir de tejavana a la grada y rampas sobre los que se asientan los carriles y carros varaderos.

El estado de conservación de la tejavana, junto con la colocación reciente de un sistema de cableado y sujeción, hacía casi imposible la realización de actividades arqueológicas en el interior. Por este motivo la actuación se centró en la documentación exhaustiva de la rampa junto con la lectura estratigráfica de la estructura de madera.

La rampa inferior, junto a la ría, sirve de asiento a toda la estructura. Para su construcción fue necesario levantar un dique posteriormente relleno hasta lograr la plataforma. Destaca la zona más cercana a la vivienda; ya que forma una potente esquina junto a los pozos para el almacenamiento de las maderas. Su relación de anterioridad en relación a estos pozos permiten situar su construcción en 1883; siendo, por lo tanto, uno de los únicos vestigios que tenemos de la primera construcción.

La lectura de alzados se realizó sobre un elemento caracterizado por las continuas modificaciones y adiciones. Esta lectura ha permitido plasmar gráficamente la compleja historia constructiva del astillero, sintetizando los momentos más relevantes y permitiendo la comprensión global de su evolución. Esto ha sido posible gracias a la información proporcionada por las fuentes orales, la documentación histórica y el estudio entre la carpintería de armar y la carpintería de ribera realizado en este mismo proyecto. Durante el estudio pormenorizado, además de las propias relaciones estratigráficas, se han utilizado variables como la tipología de las soluciones adoptadas, los tipos de maderas, las uniones, etc.

Se han identificado hasta cinco grandes fases constructivas comprendidas entre 1883 y los años 90 del siglo XX. En estas fases quedan representados gran parte de los hitos que vive la instalación; como sus orígenes (con la conservación de restos materiales conservados en su posición original junto con otros reaprovechados), su reconstrucción tras un gran incendio en 1917 y la ampliación en altura de la estructura en 1940.

El estudio ha permitido constatar la continuada adaptación del Astillero a su uso interior. La actividad realizada en Mendieta necesitó en todo momento tener un espacio de trabajo versátil. Por este motivo, muchas de las modificaciones identificadas en cada fase fueron fruto de la improvisación que requería adaptar la estructura al tipo de embarcación que se estaba construyendo, o arreglando, en cada momento.

J.Á. Fernández Carvajal

B.10.2.2. **Garraitz edo San Nikolas uhartea**

VI. kanpaina
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Lekeitioko Udala; Atabaka Kultur Alkartea

B.10.2.2. **Isla de Garraitz/San Nicolás**

VI Campaña
Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Lekeitio; Atabaka Kultur Alkartea

The intervention carried out on Garraitz/San Nicolás Island enabled us to document the presence of a series of remains dating from the Middle Ages, prior even to the foundation of the fishing town. Other evidence was also found associated with the development of the First Carlist War (1833-1839).

Lekeitioko Garraitz/San Nikolas uhartean 2020an egindako lan arkeologikoei esker, oso datu interesgarriak lortu ditugu kokagune berezi horren iragan aberatsari buruz. Lan horiek «*Garraitz 2025. Giza aztarna eta Paisaia denboran zehar*» proiektuaren baitan bideratu dira. Azken urteetan bezala, lanak uhartearen hegoaldeko muturrean egin ditugu, uharteari izena ematen dion baseliza zaharra eta ondorengo komentu frantziskotarra (1617-1650) zeuden lekuan, beste aztarna arkeologiko batzuen artean. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik urte «berezi» honen berezitasunak eta bizi dugun pandemiak eragindako mugak, lan eremuak zabaldu behar izan ditugu lanerako eremu egokiago bat izateko unean uneko osasun gomendioak errespetatuz.

Guztira hamarren bat aurkintzatan lan egin dugu, kasu bakoitzean perspektiba desberdinak aplikatuz. Sektore emankorrena ekialdeko zerrendatzat definitu dezakeguna da, portuari begira dagoen zerrenda. Sektore horretan egindako zundaketetan, aztarna ar-

Los trabajos arqueológicos desarrollados en la isla de Garraitz/San Nicolás de Lekeitio a lo largo del año 2020 han permitido obtener datos muy interesantes sobre el rico pasado de este singular enclave. Estos trabajos se circunscriben dentro del proyecto «*Garraitz 2025. Giza aztarna eta Paisaia denboran zehar*». Al igual que los últimos años los trabajos se han centrado en el extremo sur de la isla, el punto donde se dispuso la antigua ermita que da el nombre a la isla y el posterior convento franciscano (1617-1650) entre otras evidencias arqueológicas. Si bien ante las particularidades de este «singular» año y debido a las limitaciones provocadas por la presente pandemia ha sido necesario ampliar los espacios de trabajo a fin de disponer de un ámbito más adecuado para el trabajo respetando las recomendaciones sanitarias del momento.

En total se ha trabajado en una decena de emplazamientos diferentes con unas perspectivas distintas en cada caso. El sector más fructífero ha sido la que podemos definir como banda oriental, aquella que se abre al puerto. En los sondeos practicados en este sector se han podido recoger nuevas e interesantes evidencias arqueológicas en los definidos como Sondeo VIII, donde ya se había trabajado en las campañas precedentes, y Sondeo XIII (abierto este año), separados entre si por algo más de una veintena de metros. Entre

Alde horretan berreskuratutako txanpon batzuk, Erdi Arokoak eta Garraitz uharteko Ermita-Komentu zaharraren inguruan berreskuratutako brontzezko titarearen xehetasunak.

Algunas de las monedas medievales recuperadas en la zona y detalle del dedal de bronce recuperado en el entorno de la antigua Ermita-Convento de la isla de Garraitz.

Kuartelaren ikuspegia Garraitz uhartean lan arkeologikoak amaitu ondoren.

Perspectiva del Cuartel tras la finalización de los trabajos arqueológicos en la isla de Garraitz.

keologiko berri eta interesgarri batzuk berreskuratu ditugu VIII. Zundaketatzat –aurreko kanpainetan jada lan eginda eginen aldea– eta XIII. Zundaketatzat –aurten induskatua– definitutakoetan (bi zundaketa horien artean hogei metro pasatxoko tartea dago). Aztarna horien artean burdinazko iltzeen askotariko tipologiaren presentzia egiaztatu da, zeramikazko zati isolaturen bat, faunaren hezur hondakinak eta, horien ondoan, beste txanpon batzuk (bat VIII. Zundaketan eta beste lauak XIII.ean). Guztiak dira, argi eta garbi, Erdi Arokoak, XIII. mendearen erdialdetik XV. mende amaiera artekoak, eta horien jatorria ere askotarikoa da (Portugal, Gaztela eta Leon, Frantzia eta Eskozia). Elementu horiek guztiak plataforma hau itsas aldetik ixten zuen hormaren kontra metatutako oso maila uniformean (lur buztintsua, oso garbia, solifluxioz metatutako deposituak gogorarazten dituena) eta aski lodian (1-1,20 m bitarte) berreskuratu ahal izan dira. Beraz, errepikatu egiten dira aurreko kanpainan lortutako datuak, nahiz eta oraindik konplikatu samarra den behar bezala interpretatzea. Hasiera baten planteatzen genuen depositu uniforme hori ermita ondoko lekutik, zenduei lur emateko lekutik edo agian hezurtegitik, aldapan behera herrestan etorritako masarekin lotuta egon zitekeela. Depositu hori itsasbazterreko lur zerrenda handian zabaltzen dela ikusita, zalantza batzuk sortu zitzaizkigun (ez genuen giza hezurrik identifikatu), eta beraz, oso litekeena da benetan zabortegi antzeko bat izatea. Azken bi kanpainetan berreskuratutako txanponak (hamar) oso uniformeak dira kronologikoki (XIII. mendearen erdialdekoak eta XV. mende amaierakoak), guztiak dira balio txikiko txanponak, eta seguruenik ondoko San Nikolas Ermitatik etorriak dira, limosna gisa emandako txanponak izango dira. Nolanahi ere, txanpon horiek oso datu interesgarria eskaintzen dute, berretsi egiten dute egungo Lekeitioko hiria fundatu aurretik (1325ean jaso zuen hiri gutuna) herri marinel oso aktibo bat izan zela bertan, gutxienez hiria fundatu baino mende bat lehenago (XIII. mendearen lehen erdialdean). Gogorarazi beesas evidencias se ha constatado la presencia de una variada tipología de clavos de hierro, algún fragmento aislado de cerámica, restos óseos de fauna y junto a ellos nuevas muestras monetarias (una en el Sondeo VIII y las cuatro restantes en el XIII). Todas ellas tienen una cronología claramente medieval oscilando entre mediados del siglo XIII y finales del XV, con una procedencia muy variada (Portugal, Castilla-León, Francia o Escocia). Elementos todos ellos que han podido ser recuperados en un nivel muy uniforme (tierra arcillosa muy limpia que recuerda a los depósitos acumulados por solifluxión) y de cierta potencia (en torno a 1-1,20 m) que quedaba acumulado contra el muro que cerraba estaba plataforma por la banda de la mar. De esta manera se repiten los datos ya obtenidos en la campaña precedente, si bien su interpretación resulta aún un tanto complicada. Inicialmente se planteaba la posibilidad que ese uniforme depósito estuviera relacionado con algún tipo de arrastre ladera abajo desde un emplazamiento dispuesto junto a la ermita donde se dispondría una zona de enterramiento o quizás un osario. La extensión de ese depósito por la amplia franja de terreno dispuesta al borde de la mar plantea ciertas dudas sobre este aspecto (carencia de restos óseos humanos), y es muy posible que realmente nos encontremos ante un posible basurero o similar. Las monedas recuperadas en estas dos últimas campañas (diez) presentan una gran uniformidad cronológica (mediados del siglo XIII y finales del XV), si bien todas ellas son monedas de un bajo valor monetario y muy posiblemente relacionadas con la cercana Ermita de San Nicolás a modo de limosnas. Su presencia, sin embargo, ofrece un dato muy interesante confirmando la existencia de un núcleo de población marinero muy activo previo sobre el que se fundará la actual villa de Lekeitio, la Carta Puebla será otorgada en 1325, retrotrayendo su existencia en al menos un siglo (hasta la primera mitad del siglo XIII). eS necesario recordar que en diversos puntos de la población se han localizado evidencias de poblamiento de época

har da hiriko hainbat puntutan erromatarren garaiko herrixkaren aztarnak identifikatu direla, eta herrixka hura izango zela Erdi Arora arte giza egonleku berriak antolatzeko abiapuntua.

Ekialdeko sektore horretan bertan oso tipologia eta kronologia desberdineko egitura txiki batean lan egin dugu. Zehazki, karea egiteko karobi batez ari gara. Muinoaren hegalean induskatuta dago, oso egoera txarrean kontserbatzen den harlangaitzezko horma bakun batek eratuta dago. Sortutako espazioa oinplano gutxi gorabehera zirkularrekoa da, 3-3,20 m bitarteko diametroarekin eta, oraingoz, 2 m-ko altuerarekin, ekialdean erabat estutzen dela inbutu baten modura. Dokumentu idatzien arabera, 1836-1837 aldera zegoen erabilgarri, gobernuaren soldadu taldeek eraiki zuten uhartearen gailurrean egiten ari ziren gotortze lanak karez hornitzeko.

Era berean, oso datu interesgarriak eskaini dituzte aspaldiko ermitaren eta inguruan izan ziren eraikinen ondoan bideratutako lan arkeologikoek (VI., VII. eta X. Zundaketak). Sektore honetan zehaztasun handiago batez definitu dugu jada lehendik hauteman genuen hormaren trazadura. Ekialdetik mendebaldera eginez, egungo ermitaren hegoaldean, egungo itxitura hormak altxatu baino lehen, funtzio zehaztu gabe bat betetzen zuen gunea inguratzen zuen. Puntu horretan kronologia hein batean berriko materialak (XVII.-XVIII. mendeak) berreskuratu ahal izan ditugu, guztietan aipagarriena brontzezko titare txiki bat, titarearen gorputza zitori lore sorta batez apainduta dagoela; gutxi gorabehera XVIII. mendearen erdialdean datatu daiteke.

Beste lan gunea uhartearen iparraldean bereizi dugu, bi gotorlekuen arteko lepoan egokitutako Kuartel zaharrean. Puntu horretan hustu egin dugu barruan metatutako zaborra, eta garbitu egin ditugu bertara iristeko eskailerak. Azken lan horri esker, zehaztasun handiago batez definitu ahal izan dugu eraikuntza hau: azken okupazio fasea karlismoaren garaian (1836-1839) kokatu behar dugu.

Honenbestez, datorren kanpainari begira, oraindik badira multzo interesgarri honi eta bere bilakaera historikoari buruz argitu beharreko hainbat alderdi ezezagun.

romana, que servirá de base para nuevos asentamientos hasta la Edad Media.

En este mismo sector oriental se ha podido trabajar también sobre una pequeña estructura de una tipología y cronología muy diferente. En concreto, nos estamos refiriendo a un antiguo horno calero o de fabricación de cal. Este se encuentra excavado en la ladera y ejecutado con un sencillo muro de mampostería muy deficientemente conservado. El espacio resultante presenta una planta aproximadamente circular, con un diámetro de 3-3,20 m y una altura de algo más de 2 m por el momento, con un estrechamiento muy acentuado en su frente E a modo de emboquille. Este horno aparece documentado en funcionamiento hacia 1836-1837, habiendo sido construido por las tropas gubernamentales para abastecer de cal a las obras de fortificación que se estaban ejecutando en la cima de la isla.

Los trabajos arqueológicos desarrollados en el entorno de la antigua ermita y de las diferentes construcciones dispuestas en sus proximidades (Sondeos VI, VII y X) han ofrecido también interesantes datos. En este sector se ha conseguido definir con mayor certeza el trazado de una línea de muro que ya se intuía con anterioridad con una orientación E-O y que delimitaba un espacio de función indeterminada al S de la actual ermita y anterior a los actuales cierres. En este punto se ha podido recoger diverso material de una cronología relativamente reciente (siglos XVII-XVIII), destacando como pieza más singular un pequeño dedal de bronce decorado con una serie de flores de lis en su cuerpo y que se puede datar a mediados del XVIII aproximadamente.

El otro área de trabajo se ha situado en el sector septentrional de la isla, en el antiguo Cuartel dispuesto en el collado entre ambas fortificaciones. En este punto se ha procedido al vaciado del escombro de su interior y a la limpieza de las escaleras de acceso. Gracias a esta labor se ha podido definir con mayor certeza esta construcción que dataría, en su última fase de ocupación, de la época carlista (1836-1839).

De esta manera, y de cara a la próxima campaña, aún quedan diversas incógnitas a resolver sobre este interesante conjunto y su evolución histórica.

A. Moraza Barea

B.10.2.3. **Mesedetakoak**

Zuzendaritza: Juan Carlos López Quintana
Finantzazioa: Valeriano Urrutikoetxea, S.L.

B.10.2.3. **Los Mercedarios**

Dirección: Juan Carlos López Quintana
Financiación: Valeriano Urrutikoetxea, S.L.

This paper presents the results of the archaeological monitoring and interpretation of the geo-technical sondages dug by the company Lurgintza S.L., in the Mercedarios site in Lekeitio, in response to plans to build three apartment blocks.

Lekeitioko Mesedetakoen orubean hiru etxebizitza bloke eraikitzeko proiektu bat abiarazi da. Proiektu horrek kalteak eragin zitzakeen Kultura Ondarea osatu lezaketen balizko elementuetan (erromatarren ga-

En el solar de los Mercedarios de Lekeitio se ha puesto en marcha un proyecto de construcción de tres bloques de viviendas, que podía afectar a presuntos elementos del Patrimonio Cultural (restos de

raiko edo Erdi Aroko aztarnak, koba edo galeria beteak, etab.). Horrexegatik, enpresa sustatzaileak obra proiektuaren aurreko eta zorupea induskatzeko lanen gaineko ikuskaritza eta jarraipen arkeologikoa eskatu zuen. Hauxe izan zen, ekainaren 26an proposatutako prozedura:

– Zundaketa geoteknikoen proiektua ebaluatuko eta sinatuko zen, Lurgintza SL enpresak egingo zituen zundaketa horiek.
– Azterlan geoteknikoan berreskuratutako lekukotasunak berrikusiko eta interpretatuko ziren arkeologikoki.
– Zundaketa estratigrafikoen (eskuz) kanpaina, lekukotasun geoteknikoetan lortutako emaitzen arabera programatu beharrekoa.
– Zorupean induskatzeko (kareharrizko substratua ere barne hartuta) lanen gaineko jarraipen arkeologikoa.

Txosten honek aurreneko fasea hartzen du, Lurgintza SL enpresak egindako zundaketa geoteknikoak arkeologikoki kontrolatzeko eta interpretatzeko fasea.

Azterlan geofisikoa

2019an, zundaketa geoteknikoak egin aurretik, azterlan geofisiko bat egin zen tomografia elektriko bidez (Análisis y Gestión del Subsuelo S.L., 2019). Azterlan horretan irregulartasun batzuk hauteman ziren, erresistibitate elektrikoaren balio apalagoa zuten guneak, karstifikazioak eragindako balizko zulo, galeria edo korridoretzat interpretatu zirenak. Zulo horiek handiagoak ziren lursailaren hego-mendebaldean, alde horretan hautematen ziren irregulartasun handienak, betiere itsas mailatik gora gutxi gorabehera 0 eta 7 metro bitartean.

Azterlan geoteknikoa

Lursailean bideratu beharreko azterlan geoteknikoaren xedea da zorupea aztertzea orubeko eraikigarritasuna bermatzeko. Modu osagarrian, azterlanak aukera ematen du hutsuneak eta betegarriak hautemateko, izan ere, aztarna arkeologikoak kontserbatu litezkeen testuinguru edo matrize garrantzitsuenak dira horiek. Azterlan horretan 101-86 mm bitarteko diametroa izango zuten 7 zundaketa induskatuko ziren lekukotasun jarraituarekin. Azkenik, lursailaren hego-mendebaldeko sektorea xehetasun handiagoarekin aztertzeko, alde horretan hautematen baitziren irregulartasun handienak, beste 4 zundaketa induskatu ziren. Horrenbestez, 178,7 metro zuzeneko lekukotasuna aztertu zen guztira.

Metodologia

Lekukotasun geoteknikoen azterketa estratigrafikoa, ebaluazio arkeologikoko metodo gisa ulertuta, ez da ohikoa gure ingurunean, oso-oso txikia baita aztertzen den azalera (101-86 mm-ko diametroa duten lekukotasunak). Hala eta guztiz ere, zirkunstantzia jakin batzuetan (ingurumen eta/edo geologia arlokoak) oso metodo interesgarria da ebaluatu nahi dugun testuingurura hurbiltzeko. Gure ingurunean, badugu diziplina anitzeko azterlan arkeologiko eta paleontologiko baten adibide bat, hain zuzen ere Por-

época romana o medieval, cuevas o galerías colmatadas, etc.). Por ello, la empresa promotora solicitó la supervisión arqueológica del proyecto de obra y el posterior seguimiento de las labores de excavación del subsuelo. El procedimiento propuesto, a fecha de 26 de junio de 2020, fue el siguiente:

– Evaluación y suscripción del proyecto de sondeos geotécnicos, a realizar por la empresa Lurgintza S.L.
– Revisión e interpretación arqueológica de los testigos recuperados en el estudio geotécnico.
– Campaña de sondeos estratigráficos (manuales), a programar en función de los resultados obtenidos en los testigos geotécnicos.
– Seguimiento arqueológico de las obras de excavación del subsuelo, incluyendo el substrato calizo.

El presente informe abarca la primera fase, referente al control e interpretación arqueológica de los sondeos geotécnicos realizados por Lurgintza S.L.

El estudio geofísico

En 2019, con anterioridad a los sondeos geotécnicos, se realizó un estudio geofísico mediante tomografía eléctrica (Análisis y Gestión del Subsuelo S.L., 2019). En este estudio aparecían algunas anomalías, zonas con valores más bajos de resistividad eléctrica, que fueron interpretadas como posibles cavidades, galerías o conductos producto de la karstificación. La presencia de estos conductos tenía un mayor desarrollo hacia el SW de la parcela, donde aparecían las anomalías conductoras más destacables, situadas a una cota aproximada de 0 a 7 m sobre el nivel del mar.

El estudio geotécnico

El estudio geotécnico de la parcela tiene como objetivo el análisis del subsuelo de cara a garantizar la edificabilidad del solar. Complementariamente, el estudio permite detectar la presencia de huecos y rellenos, que serían los principales contextos o matrices donde podrían conservarse restos arqueológicos. El estudio incluía la realización de 7 sondeos de perforación con testificación continua, de diámetro 101-86 mm. Finalmente, y de cara a examinar con mayor grado de detalle el sector SW de la parcela, donde aparecían las anomalías conductoras más destacadas, se practicaron otros 4 sondeos de perforación, sumando un total de 178,7 metros lineales de testigo.

Metodología

El examen estratigráfico de testigos geotécnicos, como método de evaluación arqueológica, no es algo habitual en nuestro entorno, ya que la superficie sobre la que se actúa es mínima (testigos de 101-86 mm de diámetro). Sin embargo, en determinadas circunstancias (ambientales y/o geológicas) es un interesante método de aproximación al contexto que queremos evaluar. En nuestro entorno, disponemos de un ejemplo de estudio pluridisciplinar, arqueológico y paleoambiental, realizado sobre muestras de sondeos geotécnicos, en el área de Portuzarra (Gernika-Lumo).

tuzarra aldean (Gernika-Lumo) egindako zundaketa geologikoa. 2006an egin zen Gernika-Lumoko saihesbidea eraikitzeko proiektuaren (II. fasea) kontrol arkeologikoko programaren barruan, hiriko Erdi Aroko portua alde horretan zegoen ala ez egiaztatzeko.

Lekeitioko Mesedetakoen orubean hasi S-1 zundaketatik eta buka S-11 zundaketan berreskuratutako lekukotasunaren 178,7 metro aztertu dira. Lurrezko tarteak luzetara ebaki dira irakurketa estratigrafikoa eta arkeologikoa egiteko, betiere Estratigrafia Analitikoaren printzipioak aplikatuz. Lortutako datuak ebaki topografikoen gainean itxuratutako profil estratigrafikoetan irudikatu dira, horrenbestez zehaztu da zorupearen antolaera geologikoa, eta gisa horretan balioetsi da eraikuntzak ukituko duen lursailaren potentzial arkeologikoa.

Zundaketa geoteknikoen balorazio arkeologikoa

Emaitza hauek eskaintzen ditu burura eramandako zundaketa geoteknikoen irakurketa estratigrafikoak eta arkeologikoak:

Lurzorua edo lursailaren gainazaleko estaldura

Orubeko zoruetan ez da elementu arkeologikorik hauteman, ez elementu materialik ez egiturazkorik. Gainera, lursaileko zoruaren zati handi bat nahasita dago Mesedetakoen Ikastetxea eta bertako jolaslekuak eraikitzeko lanen ondorioz. Halaber, esan behar dugu negatiboak izan zirela Ondare Babesa SL enpresak Mesedetakoen lursailean bideratutako esku hartzearen emaitzak (2013), izan ere, zundaketa haiek «*ez dute datu interesgarririk eskaini ikuspegi arkeologikotik, eta beraz, ez da beharrezkoa beste esku hartze arkeologikorik*».

Lursaileko substratu litologikoan hutsuneak hautematea

Azterlan geofisikoan hautemandako irregulartasunak, balizko zulotzat edo galeriatzat interpretatuak, ez dira azterlan geoteknikoan islatzen, eta beraz, baztertu egiten dugu alde horretan halako tamaina izan dezaketen leizeak, azterlan geofisikoko profiletan islatzen zirenen modukoak, izatea. Lurgintza SL enpresak egindako azterlan geoteknikoak azpimarratu egiten du eredu geofisikoaren eta lur eremuaren benetako portaeraren arteko bat ez etortzea. Profil geofisikoetan azaltzen diren zuloak ez dira zundaketetan identifikatu, baina azterlan geofisikoan ere ez dira buztinezko paketeen lodiera garrantzitsuak islatzen, lursailaren erdialdean 8 metroko lodiera izatera iristen den arren.

Buztinez betetako sakonune karstikoen presentzia

Burura eramandako zundaketa batzuek (S3, S7, S8, S9 eta S10), dekaltzifikazio buztinez eta uholdeek ekarritako beste hondakin disolbaezinez betetako sakonune karstikoak salatzen dituzte. S8 eta S10 zundaketek sakonune handi bat iradokitzen dute, 10 m-ko diametrotik gorakoa eta 6,5 m-ko sakonerarekin. Jalkin pakete horiek, funtsean dekal-

Fue acometido en 2006 dentro del programa de control arqueológico del proyecto de construcción de la variante de Gernika-Lumo (fase II), con la finalidad de comprobar la existencia del puerto medieval de la villa.

En el solar de Los Mercedarios de Lekeitio se han examinado los 178,7 metros de testigo, recuperados en los sondeos S-1 a S-11. Los tramos terrosos han sido seccionados longitudinalmente para la lectura estratigráfica y arqueológica, aplicando los principios de la Estratigrafía Analítica. Los datos extraídos se han representado en perfiles estratigráficos sobre cortes topográficos, pudiendo así percibir la disposición geológica del subsuelo y valorar el potencial arqueológico de la parcela afectada por la obra constructiva.

Valoración arqueológica de los sondeos geotécnicos

La lectura estratigráfica y arqueológica de los sondeos geotécnicos realizados expone los siguientes resultados:

El suelo o recubrimiento superficial de la parcela

Dentro de los suelos del solar no se ha detectado ningún elemento arqueológico, material ni estructural. Además, el suelo de una buena parte de la parcela se encuentra alterado por las obras constructivas del Colegio de los Mercedarios y de sus áreas de recreo. Debemos añadir, asimismo, los resultados también negativos de la intervención de la empresa Ondare Babesa S.L. en la parcela de Los Mercedarios (2013), cuyos sondeos «*no aportaron datos de interés desde el punto de vista arqueológico, desaconsejando la necesidad de nuevas actuaciones arqueológicas*».

La detección de cavidades en el substrato litológico de la parcela.

Las anomalías detectadas en el estudio geofísico, interpretadas como posibles cavidades o galerías, no aparecen reflejadas en el estudio geotécnico, descartando la existencia de cuevas en esa zona, al menos de cavidades de cierta envergadura, tal y como aparecían reflejadas en los perfiles del estudio geofísico. El estudio geotécnico de Lurgintza S.L. subraya la discordancia entre el modelo geofísico y el comportamiento real del terreno. Las cavidades que aparecen en los perfiles geofísicos no se manifiestan en los sondeos, pero tampoco se reflejan en la geofísica los importantes espesores superficiales de los paquetes de arcillas, que llegan a alcanzar, en la zona central de la parcela, los 8 metros de potencia.

La presencia de depresiones kársticas rellenas de arcillas

Algunos de los sondeos practicados (S3, S7, S8, S9 y S10) revelan la presencia de depresiones kársticas colmatadas por arcillas de decalcificación y otros restos insolubles y de arroyada. Los sondeos S8 y S10 parecen manifestar una gran depresión, de más de 10 metros de diámetro y 6,5 metros de profundidad. Esta serie de paquetes sedimentarios, constituidos esencialmente por arcillas de decalcificación re-

tzifikazio buztinez osatuak, informazio arkeologikoa eduki dezakete. Zundaketa geoteknikoetako estratigrafia aztertuta aztarna arkeologikorik bat ere hauteman ez den arren, sakonune karstiko horiek eramaten gaituzte zorupea induskatzeko obretan zehar, batik bat lursailaren hego-mendebaldeko sektorean, ikuskaritza arkeologikoa proposatzera.

presentan contextos susceptibles de contener información arqueológica. A pesar de que en la revisión estratigráfica de los sondeos geotécnicos no se ha detectado ningún indicio arqueológico, la presencia de estas depresiones kársticas nos obliga a proponer una vigilancia arqueológica durante el desarrollo de las obras de excavación del subsuelo, especialmente en el sector SW de la parcela.

J. C. López Quintana

B.11. **MAÑARIA**

B.11.1. **Silibrankako harpea**

IV. kanpaina
Zuzendaritza: Maria Jose Iriarte-Chiapusso
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.11.1. **Abrigo de Silibranka**

IV. Campaña
Dirección: María José Iriarte Chiapusso
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The 2020 season was strongly affected by the COVID-19 pandemic. The initial aims of the season had to be revised due to both health protocols and the meteorological conditions during the excavation period (November 2020-March 2021).

Bizi dugun pandemiak nabarmen baldintzatu du aurtengo kanpaina. Hasteko, ezarritako osasun araudira moldatu genuen jarduera arkeologikorako plangintza, horrexegatik murriztu behar izan genuen parte hartzaileen kopurua. Gainera, kanpaina ezin izan zen abiarazi azaroa amaierara arte. Tamalez, ez genuen eguraldia aldeko izan (euria eta elurra), eta ezin izan dugu kanpaina hau martxo hasierara arte itxi, eta hori Bizkaiko Foru Aldundiak emandako luzapenari esker.

Abenduaren erdialdera eten egin behar izan genituen behe aldeko lanak, ur asko iragazten baitzen hormatik. Prezipitazioak etengabeak izanik, eta ura zuzenean aztarnategiaren gainera iristea eragozten zuten aldi baterako estalkiak jarri ziren arren, jalkinak ez ditu bere baldintza onenak berreskuratu induskatua izateko. Horrexegatik ezin izan ditugu burura eraman alde honi begira proposatutakoak, horrexegatik utzi behar izan dugu jalkin hori induskatzeko lana datorren kanpainarako.

Goiko aldean, proposatutako laginketak (sedimentologikoak eta paleoanbientalak) egin ditugu eta gainerako lekukotasuna induskatu dugu. Gainera, beste zundaketa bat egin dugu harpearen hegoaldean, J.M. Barandiaranek zioen bezala jalkinen erregistroa nahasita zegoela egiaztatzeko. Alde horretan makurdura handia dagoen arren, sekuentzia estratigrafikoa ukitu gabe dagoela ikusi dugu (gainazala izan ezik), eta bat datorrela aztarnategiko beste gune batzuetan identifikatutakoarekin. Ezin izan gara zundaketaren hondoraino iritsi bertan harrizko bloke handi bat dagoelako.

La situación pandémica ha condicionado notablemente la realización de la campaña de este año. La primera actuación a realizar fue la de adaptar la planificación de la actuación arqueológica a la normativa sanitaria establecida, motivo por el cual se redujo el número de participantes en ella. Asimismo, la campaña no pudo iniciarse hasta finales del mes de noviembre. Lamentablemente, las condiciones meteorológicas (lluvia y nieve) no nos han acompañado y no hemos podido concluir la campaña hasta principios de marzo, gracias a la prórroga proporcionada por la Diputación Foral de Bizkaia.

El trabajo en la zona inferior se vio interrumpido, a mediados de diciembre, por el agua que se filtra desde la pared. La continuidad en el tiempo de las precipitaciones no ha permitido que el sedimento recupere las condiciones óptimas para su excavación, a pesar de que la colocación de cubiertas temporales impedía la caída de agua directa sobre el yacimiento. Por este motivo, no hemos podido realizar los objetivos propuestos en esta zona y nos hemos visto obligados a dejar su excavación para la próxima campaña.

En la zona superior hemos realizado los muestreos propuestos (sedimentológicos y paleoambientales) y se ha excavado el testigo restante. Asimismo, hemos realizado un sondeo en la zona sur del abrigo, con la finalidad de confirmar si el registro sedimentario estaba alterado, cómo indicaba J.M. de Barandiarán. Pese a que en esta área hay un fuerte buzamiento, hemos comprobado que la secuencia estratigráfica se mantiene intacta (salvo el nivel superficial) y es coherente a la de otras zonas del yacimiento. No hemos podido alcanzar la base del sondeo debido a un gran bloque que aparece en el mismo.

Mª J. Iriarte-Chiapusso

B.12. MENDATA

B.12.1. Albiz dorrea

Zuzendaritza: Iban Sánchez Pinto
Finantzazioa: José Ignacio Cases Comyn

B.12.1. Torre de Albiz

Dirección: Iban Sánchez Pinto
Financiación: José Ignacio Cases Comyn

Prior to the emergency measures instigated in Albiz Tower to prevent its definitive collapse, a study was conducted of its walls and subsoil in order to determine the historical-construction evolution of the building.

Sarrera

Albiz dorrean bideratutako esku hartze arkeologikoaren arrazoia da, alde batetik, dorrearen horma atalak sendotzeko beharra, oso kontserbazio egoera txarrean egonik behin betiko kolapsoa galarazteko, eta bestetik, denboraren joanean bizi izan duen historia eta eraikuntza bilakaera ulertzea. Egitura sendotzeko lanek ezkutatu egingo zituzten eraikinaren horma zati batzuk, eta bertako zorupean eragingo zuten, neurri txikiagoan bada ere.

Iragan mendearen erdialdean eraikina birgaitzeko saioak ekarri zuen higiezinaren biografiaren zati handi bat betikoz galtzea, izan ere, dorrearen jatorrizko «irudia» berreskuratu nahian, desagerrarazi zituzten behin dorrea baserri bihurtu ondoren erantsi zizkioten gorputz guztiak. Gainera, eranskin horiek dorreari eusten zioten horma bularrarena betetzen zuten, horiei esker ez zen dorrea lehenago behera etorri. Dorrearen irudia berreskuratzeko obra horren ostean, eraikina pixkanaka abandonatu eta behera etorri ziren hormen zati handiak.

Egindako lanetan estratigrafikoki aztertu dugu eraikina 0 kotatik gora eta 0 kotatik behera, eta bi zundaketa egin ditugu, bata eraikinaren barruko aldean eta bestea kanpoan. Barruan egindako zundaketan lortutako datuek egiaztatzen dute behin baserri bihurtu ondoren barruko espazio osoa zimentazioko zapatatik behera gutxi gorabehera 50 cm-tan beheratu zutela. Beraz, desagertuak dira lehendik egon zitezkeen aztarnak oro. Kanpoko aldean baserria izan zeneko etapan erantsitako gorputzei zegozkien aztarnak dokumentatu genituen.

Emaitza garrantzitsuenak

Esku hartze arkeologikoak 5 eraikuntza une utzi ditu agerian. Guztiek hartzen dute beren lekua egun ikus daitekeen dorrean, eta ez dugu dorre honen aurreko aztarnaren presentziarik erregistratu.

1. fasea. Dorrearen eraikuntza

Dorrearen eraikuntzarekin lotu behar dugu indusketa lanetan eta horma atalen irakurketa estratigrafikoan dokumentatutako obra aspaldikoena. Oinplano apur bat angeluzuzeneko eraikina da, beheko solairuan 8,90 m-ko (ekialdetik mendebaldera) bider 7,70 m-ko (iparraldetik mendebaldera) aldeekin, altueran gutxi gorabehera 9 kontserbatzen dituena, nahiz eta badakigun XX. mendearen erdialdera 11 metro inguru kontserbatzen zituela. Beheko solai-

Introducción

La intervención arqueológica efectuada en la torre de Albiz está motivada por la necesidad de consolidar sus paramentos debido a su mal estado de conservación, evitando así su colapso definitivo, y comprender su evolución histórico-constructiva en el tiempo. Las obras de consolidación iban a enmascarar parte de los alzados del edificio y afectar, aunque en menor medida, al subsuelo del mismo.

El intento de rehabilitación del edificio acometido a mediados de la centuria pasada supuso el que una parte importante de la biografía del inmueble desapareciera al eliminarse, con la intención de recuperar «la imagen» original de la torre, todos los adosados que se le añadieron después de su transformación en casa de labranza. Estos añadidos, además, actuaban a modo de contrafuertes que sostenían la torre, evitando con ello su derrumbe. Después de esta actuación, el edificio sufrió un proceso paulatino de abandono que supuso la caída de gran parte de sus alzados.

Los trabajos realizados han consistido en el análisis estratigráfico del edificio tanto sobre cota 0 como bajo cota 0, habiéndose realizado sendos sondeos, uno al interior y el segundo al exterior del edificio. En el sondeo interior los resultados obtenidos han permitido comprobar cómo en algún momento después de su transformación en caserío, todo el espacio interior es rebajado cerca de 50 cm por debajo de la zapata de cimentación, con lo que todas las evidencias previas fueron eliminadas. Al exterior se documentaron restos pertenecientes a los adosados de la etapa del caserío.

Principales resultados

La intervención arqueológica ha puesto de manifiesto la presencia de hasta 5 momentos constructivos. Todos ellos se corresponden con diferentes actuaciones realizadas sobre la torre visible, no habiéndose registrado la presencia de evidencias previas a la misma.

Fase 1. Construcción de la torre

La obra más antigua documentada, tanto en los trabajos de excavación como de lectura estratigráfica de los paramentos, se corresponde con la construcción de la torre. Se trata de un edificio con planta ligeramente rectangular y con unas dimensiones en la planta baja de 8,90 metros E-W, 7,70 metros N-S que conserva un desarrollo en altura cercano a los 9 metros, si bien sabemos que a mediados del siglo XX aún conservaba cerca de 11 metros. En la planta baja el muro del edificio al-

ruan metro bete lodi da eraikinaren horma, baina gora egin ahala mehetu egiten da. Dorrearen horma oso modu homogeneoan dago estekatuta altxaera osoan. Kareharrizko pieza berdinduekin jasotako harlangaitzezko hormak ditu, eskantzuetan eta bao inguruetan hareharrizko harlanduak. Harlangaitzak

canza 1 metro de espesor que a medida que el edificio crece en altura va decreciendo. El muro de la torre se encuentra aparejado de una forma muy homogénea en todo el alzado. Presenta mampostería regularizada de piedra de caliza en los alzados y sillería arenisca en los esquinales y recercos de los vanos. Una revisión tanto

Albiz dorrea. Eraikinak bizi izandako eraikuntza prozesua baserri bihurtu zenetik. A eta B, ekialdeko eta mendebaldeko baserri aldeak (Argazkiak: J. I. Cases Comyn). C, eraikinaren irudia behin baserri aldeak desagerrarazi ondoren (Argazkia: J. I. Cases Comyn). D, dorrearen egoera 2002an. E, gaur egungo egoera eraikineko hormak sendotzeko lanak amaitu ostean.

Torre de Albiz. Proceso constructivo seguido por el edificio desde su transformación en caserío. A y B caserío oriental y occidental (fotos J. I. Cases Comyn). C, estado en el que quedó el edificio después de la eliminación de los caseríos (foto J. I. Cases Comyn). D, estado de la torre en 2012. E, estado actual después de la consolidación de las fábricas del edificio.

eta harlanduak aztertuta, horiek lantzeko unean erabili zituzten tresnak modu erlatibo batean identifikatu ahal izan ditugu. Harlangaitzezko piezak besterik gabe arbastatuta daude, baina eskantzuetan bildutako harlandu batzuetan pika-txoien markak nabari daitezke. Multzo horretan bilduta, hegoaldeko saihetsean horma bat zuen kanpoko aldean, eraikinean sartzeko patio txikia, 2 metro eskas zabal zen espazioa, defendatzen zuena.

Zirkulu erdiko arku batek eraturiko atea igarota iristen da patio txikia defendatzen duen hormak definitutako espaziora. Dorrearen beheko solairuak iragan mendearen erdialdera egindako obrek erabat eraldatutako ate bat eta hiru gezileiho ditu (bat desagertua) mendebaldeko eta iparraldeko horma atalen erdialdean, beheko solairuaren goiko aldean. Lehenengo solairuan bi ate daude hegoaldeko horman, lehenengoa 0,90 m zabal eta 1,95 m garai, gainean kanpoko aldera begira duen arku zorrotza duela eta barruko aldera begira arku eskartzanoa, eta bigarrena mende honen hasierako kolapsoa gertatu ondoren berreraikitakoa da, 1,35 metro zabal eta 2,25 metro garai, patio txikiko hormako atearen morfologia berdin-berdinarekin. Lehenengo solairu hori mendebaldeko leiho bikiaren bidez (gaur egun desagertua da), iparraldeko gezileiho baten bidez eta gaur egun desagertua den ekialdeko hormako leiho zorrotz txiki baten bidez argiztatuko zen.

Beheko solairua, lehenengoa eta bigarrena zituen dorreak. Barruko forjatuak erdiko zurezko egitura handi batean antolatzen ziren, haren gainean eta horman utzitako 20 zentimetroko tarteetan hartzen zuten atseden solibek.

Hauxe zioen Lopez Garcia de Salazarrel Albiztarrei buruz: «…son mucho antiguos e vienen de don Martín Roiz de Guatiquis, que casó con fija de don Gimeno de Muñatones, que pobló en Arteaga el primero. E d'este linaje pobló uno d'ellos en Alvis, que es cavo Arteaga, e de allí poblaron en Gareca e en las comarcas…». XII. mende amaieran eta XIII. mendearen lehen erdialdean bizi izan zen Gimeno de Muñatones, eta beraz, XIII. mendearen bigarren herenean ezkondu ziren haren alaba eta Martin Ruiz de Gautegiz. Eta bikote horren oinordeko bat izan baldin bazen Albizen finkatu zena, nekez egokituko zen bertan XIII. mende amaiera baino lehen edo XIV. mendean zehar. Burura eramandako analisi arkeometrikoek eta dorrearen beheko solairuko kareoretik hartutako ikatz baten datazioak (CNA5297.1. 2) eramaten gaituzte dorrea XIII. mendearen amaieratik aurrera eta XIV. mendean zehar eraiki zutela esatera.

2. fasea. Dorrearen berreraikuntza

Eraikuntza etapa horretako aztarna materialik kontserbatu ez bada ere, XX. mendearen erdialdera bideratutako zaharberritze lanen garaian egindako argazki sorta oparoak aukera eman digu eraikinaren alde honetan moldaketa lan garrantzitsu bat egin zutela identifikatzeko. Izan ere, ekialdeko hormaren zati handi bat eta horma horren iparraldeko eta

de los mampuestos como de los sillares nos ha permitido valorar los instrumentos empleados en su consecución, aunque de forma muy relativa. La mampostería se encuentra simplemente desbastada y no ha dejado huellas del instrumento empleado, sin embargo, alguno de los sillares que integran los esquinales presentan marcas de labra a picón. Formando parte de este conjunto en su costado sur contaba con un muro por el exterior, que defendía el patín de ingreso al edificio, que generaba un espacio de apenas 2 metros de ancho.

Al espacio que define el muro que defiende el patín se accede a través de una puerta rematada en arco de medio punto. La planta baja de la torre cuenta con una puerta de comunicación, muy modificada por las obras realizadas a mediados de la centuria pasada, y tres saeteras (una de ellas desaparecida) situadas en el centro del paño oeste y norte y dispuestas en la parte superior de esta plata. La primera planta cuenta con sendas puertas de comunicación situadas en el alzado meridional, la primera se trata de un vano de 0,90 metros de luz y 1,95 metros de alto rematada en arco apuntado al exterior y arco escarzano al interior y la segunda, reconstruida después de su colapso a comienzos de la presente centuria, se trataba de un vano de 1,35 metros de luz y una altura de 2,25 metros de idéntica morfología a la puerta del muro del patín. Esta primera planta se iluminaria mediante una ventana geminada situada en su lateral occidental y que actualmente se encuentra desaparecido, una saetera en el lateral septentrional y una pequeña ventana apuntada en el alzado oriental actualmente desaparecida.

La torre se articulaba en planta baja, primera planta y segunda planta. Los forjados interiores se organizaban mediante una gran carrera central sobre la que asentaban los solivos que, en el paño, descansaban sobre una deja de 20 cm.

Sobre los Albiz señala Lope García de Salazar que «…son mucho antiguos e vienen de don Martín Roiz de Guatiquis, que casó con fija de don Gimeno de Muñatones, que pobló en Arteaga el primero. E d'este linaje pobló uno d'ellos en Alvis, que es cavo Arteaga, e de allí poblaron en Gareca e en las comarcas…». Gimeno de Muñatones vivió a finales del siglo XII y primera mitad del XIII, por lo que su hija y Martín Ruiz de Gauteguiz no se casaron hasta el segundo tercio del siglo XIII. Y si fue un descendiente de este matrimonio quien se asentó en Albiz, difícilmente pudo hacerlo antes de finales del siglo XIII o ya a lo largo del XIV. Los análisis arqueométricos efectuados, datación de un carbón procedente de la argamasa de la planta baja de la torre (CNA5297.1.2), nos permiten situar su construcción en algún momento desde finales del siglo XIII y a lo largo del siglo XIV.

Fase 2. Reconstrucción de la torre

Si bien no quedan evidencias materiales conservadas de esta etapa edilicia, el abundante repertorio fotográfico conservado del momento de la restauración acometida a mediados del siglo XX nos ha permitido identificar una importante obra de remodelación de parte del edificio. Se trata de la reconstrucción de gran parte del muro oriental y de

hegoaldeko eskantzuak berreraiki zituzten. Horretarako hareharrizko harlanduak erabili zituzten berreraikitako eskantzuetan, eta kareharrizko harlangaitzak hormaren gainerakoan. Berritze lan horietan berreraiki egin zuten eraikinean sartzeko ateko arkua, 2012an kolapsatu zen arte izan zuen itxura eman zioten orduan ate horri.

3. fasea. Baserri bihurtzeko lanak

Berriz ere eskura dugun dokumentazio grafikoa da eraikuntza etapa honi buruzko informazio gehiena eskaintzen duena. Burura eramandako indusketa arkeologikoan agerian utzitako aztarnek aukera eman digute eraikinaren barruko aldea beheratu egin zutela egiaztatzeko (espazio hori moldatu egin zuten nekazaritza eta abeltzaintza jardueretatik etorritako premiei erantzuteko). Era berean, baserria osatzen zuten gorputzetako batek izan zuen zorua identifikatu ahal izan dugu.

Une horretan, dorreaz gain, beste lau bolumen eraiki zituzten dorreari hegoaldetik, mendebaldetik eta ekialdetik itsatsirik. Lehenengo gorputza patio txikiaren egitura aprobetxatuz altxatu zuten, hormak goratu eta barruan bi solairu sortu ziren. Elementu berri horretatik iritsiko zen dorreko solairuetaraino bertan ziren ateak aprobetxaturik eta bigarren solairuaren parean beste ate bat zabaldurik. Geroago, baserriari zegokion bolumena altxatu zuten ekialdean, dorrearen zabalera osoa harturik, baita mendebaldean ere, azkenik hegoaldean egindako handitze lan bi horiek batuko zituen bolumena eraikitzeko.

Dorrearen inguruan eraikin horiek jasota guztiz eraldatu zen dorrearen itxura, izan ere, komunikatzeko ateak eraiki behar izan zituzten eta bi solairutan zatitu zuten beheko solairua, horrexegatik beheratu behar izan zuten barruko zoruaren maila 50 zentimetrotan. Dorrearen ekialdeko horman bi ate ireki zituzten, lehenengoa beheko solairuaren altueran eta bigarrena lehenengo solairuarenean. Bestalde, mendebaldeko horman, beste ate bat ireki zuten lehenengo solairuaren altueran. Komunikatzeko bao horiei esker ahalbidetzen ziren dorrearen eta hari erantsitako bolumenen arteko joan-etorriak.

Dorre barruko zorua kareharrizko lauzekin eginda zegoen, seguru aski aurreko etapako lauza berrerabiliak izango ziren. Baserria osatuko zuten gorputzetako zorua lur iluneko prestakinaren gainean zabarki antolatutako harrizko zoladuraz egina zen, kareharrizko harri txikiak eta lauza handiagoren bat erabili zituzten.

4. fasea: XX. mende erdialdeko zaharberritze lanak

Eraikinak iragan mendearen erdialdera bizi izan zuen zaharberritze prozesuan eraitsi egin zituzten baserriaren etapa osatu zuten egitura guztiak, eta ondorioz, desagertu egin ziren horiek guztiak. Gainera, eraitsi egin zuten patio txikiko hormaren zati handi bat, eta berreraiki egin zuten sartzeko eskailerekin batera. Bestalde, itsutu egin zituzten baserriaren faseari zegozkion baoak, eraikinean sartzeko bi ate berritu zituzten, dorre barruko espazioa berdindu zuten baserriaren egituren eraispenetik etorritako harlangaitzez eta adreiluz osatutako pakete lodiarekin, eta itsutu

las esquinas N y S del citado alzado. Para su construcción se emplearon sillares de piedra de arenisca en los dos esquinales reconstruidos y mampostería de caliza en el alzado. Esta reforma, además, supuso la reconstrucción del arco de la puerta de ingreso al edificio, dándole la imagen con la que se vio hasta el año 2012 cuando colapsó.

Fase 3. Conversión en caserío

Nuevamente es gracias a la documentación gráfica con la que contamos la que aporta la mayor información relativa a esta etapa edilicia. Los restos exhumados en la excavación arqueológica efectuada, por su parte, nos han permitido evidenciar el rebaje realizado en el interior del edificio, para acondicionar el espacio a los nuevos usos agropecuarios, y el suelo con el que contó uno de los adosados que componían los diferentes caseríos.

En este momento, además de la torre, se construyen hasta cuatro nuevos volúmenes que abrazan a la torre por sus costados meridional, occidental y oriental. El primer bloque surge aprovechando la estructura del patín, que se recrece y se generan en su interior hasta dos plantas. Desde este nuevo elemento se accedería a las distintas plantas de la torre aprovechando las puertas de acceso existentes y construyendo una nueva a la altura de la segunda planta. Con posterioridad se levantó el volumen perteneciente al caserío este, que ocupaba todo el ancho de la torre, y el caserío situado al oeste para, finalmente, construir el volumen que unía estas dos ampliaciones por el sur.

La construcción de estos edificios alrededor de la torre supuso la transformación de la misma mediante la construcción de puertas de comunicación y la subdivisión de la planta baja en dos plantas, motivo por el que se tuvo que rebajar el suelo interior del edificio 50 centímetros. En el alzado este de la torre se abrieron sendas puertas, la primera a la altura de la planta baja y la segunda a la altura de la primera planta. Por su parte, en el alzado oeste se construyó una nueva puerta a la altura de la primera planta. Con estos vanos de comunicación se aseguraba el tránsito entre la torre y los distintos volúmenes que se le habían adosado.

El suelo interior de la torre estaba compuesto por una serie de losas de piedra caliza, muy probablemente reaprovechadas de la etapa anterior, mientras que el de los caseríos estaba compuesto por una cama de preparación de tierra oscura sobre el que se dispuso un empedrado toscamente ejecutado mediante el empleo de pequeñas piedras de caliza y alguna losa de mayores dimensiones.

Fase 4. Reformas de mediados del siglo XX

El proceso de reforma por el que atravesó el edificio a mediados de la centuria pasada consistió en el derribo de todas aquellas estructuras que formaban parte de la etapa del caserío, con su consiguiente desaparición, la demolición de gran parte del muro del patín y su reconstrucción junto con las escaleras de acceso, el cegado de aquellos vanos que pertenecían a la fase del caserío, la reforma de dos de las puertas de ingreso al edificio, la nivelación del espacio interior de la torre mediante un potente paquete compuesto por la mampostería y ladrillo procedente

egin zituzten baserriaren etapako horma zulo guztiak, kurioski barruko fatxadetan zeudenak.

5. fasea. Azken berritze lanak eta behin betiko hondamena

Behin mozorrotzen zuten eranskinak kendu eta dorrea berreraiki ondoren, jabeen arabera jatorrian izan zuen itxurarekin, pixkanaka abandonatua gertatzeko prozesua bizi izan zuen eraikinak, horren ondorioz hondatuko zen betikoz. Hasteko, behera etorri zen teilatua, eta gero, abiapuntua iragan mendeko 70. urteetan jarri behar den prozesuan, hondatuz joan zen dorrearen hormak sendotzeko lanei ekin arte izan duen hondamen irudia bereganatu arte.

Azken gogoetak

Albiz dorreak bolumen bakarra izan zuen jatorrian, ez zuen kanpotik mozorrotuko zuen elementurik. Jatorrian gaur egun kontserbatzen duen altuera baino garaiagoa izan bazen ere, soilik beheko solairua eta lehenengoa kontserbatzen ditu lehen une hartatik, desagertu egin dira bigarren solairuari legozkiokeen aztarnak oro. Bi sarrera eduki zituen, biak alde berean. Lehenengoa beheko solairuan, bigarrena lehenengoan. Bi sarrera horiek eta lehenengo solairuari sarrera egiten zion patio txikia horma batek babesten zituen hegoaldetik, mendebaldetik eta ekialdetik, multzo osoa ixten zuen horma horrek. Horma horren zati bat soilik mendebaldeko altxaeran hautematen bada ere, estratigrafiak eta eskura dugun erregistro grafikoak berretsi egiten dute haren presentzia.Eraikin itxia zen barruko aldean, bertan sartzeko bi baoak alde batera utzirik, oso txikiak dira dokumentatutako leihoak, salbu eta mendebaldeko hormako leiho bikia eta hegoaldeko irteera atea. Barruko aldean gutxienez beheko solairua, lehenengo solairua eta bigarrena izango zituen, solairu bakoitza hegoaldetik iparraldera luzatzen zen zurezko egitura handi eta bakar batean egituratuta, horren gainean bermatzen zirelarik solibak. Ez dakigu nola zegoen antolatuta barruko komunikazioa; guk uste dugu zurezko eskailerekin antolatuko zela, ez baitugu solairu batetik bestera igarotzeko harrizko eskailera bat iradokiko lukeen horma zulorik bat ere erregistratu.

Erdi Aroa igarota, eraikinak eraikuntza bilakaera handia izaten jarraituko zuen. Gutxienez berreraikuntza garrantzitsu bat bizi izan zuen. Baserri bihurtu zenean hainbat egitura erantsi zizkioten, altxaeraren zati bat galdu zuen eta bolumenen arteko komunikazioa ahalbidetzeko ate eta bao berriak ireki zituzten. Baina aldi berean eman zitzaion hasiera eraikuntzaren memoria galtzeko prozesuari, eraikinaren beheko solairuari ukuilu erabilera emanda eraikinaren barruko aldea 50 cm bitarte beheratu baitzuten alde askotan. Ondorioz, betikoz desagertu ziren zorupean kontserbatu zitezkeen dorrearen eraikuntza uneko aztarnak oro.

Azkenik, eraikina suspertzeko saio ustel baten ostean, abandonatu eta behera etortzeko prozesua jarri zen abian gaur egun erakusten digun aurri egoera penagarria nagusitu den arte.

del derribo de las estructuras del caserío y el cegado de todos aquellos mechinales pertenecientes a la fase del caserío dispuestos, curiosamente, en las fachadas exteriores. (imagen XX).

Fase 5. Últimas reformas y ruina definitiva

Liberada la torre de aditamentos que la enmascararán y reconstruida, según sus propietarios, tal y como pudo ser, el edificio sufrió un paulatino proceso de abandono que devino en su ulterior ruina. El paulatino abandono supuso, en primer lugar, la caída del tejado para después, en un proceso que se inició en la década de los años 70 del siglo pasado, ir desmoronándose hasta tener la imagen de ruina con la que contaba hasta los inicios de consolidación de sus fábricas.

Consideraciones finales

La torre de Albiz surgió como un volumen único, sin elementos que la enmascararan por el exterior. Si bien en origen debió de contar con una altura mayor a la conservada en la actualidad, sólo restan de este primer momento la planta baja y la primera, habiendo desaparecido los restos de la segunda. Contó con dos accesos, situados ambos en el mismo lateral. El primero se encontraba en la planta baja, mientras que el segundo estaba en la primera planta. Ambos dos, así como el patín que daba paso a la primera planta, se encontraban defendidos por un muro que, por los costados sur, oeste y este, cerraba todo el complejo. Aunque sólo se observa parte de este muro en el alzado oeste, las evidencias estratigráficas, así como el registro gráfico con el que contamos, permiten afirmar su existencia. Se trataba de un edificio hermético al interior, ya que, a excepción de los dos vanos de ingreso, las ventanas documentadas eran de escasa entidad a excepción de la ventana geminada del alzado occidental y la puerta de salida situada en la cara sur. Al interior se encontraría articulada, por lo menos, en planta baja, primera planta y segunda planta, estando conformados los diferentes pisos por una única carrera (orientada S-N) sobre la que descansaban los cabios. Desconocemos cómo sería la comunicación interna, cabe suponer que ésta se articularía mediante escaleras de madera, al no haberse registrado mechinales que permitan suponer la ubicación de una escalera de tránsito.

Pasado el periodo medieval, el edificio sigue conociendo una rica evolución constructiva. Conoce, al menos, una reconstrucción importante. Se le adosan toda una serie de estructuras al trasformase en caserío, pierde parte de su alzado y se abren toda una serie de nuevos accesos y vanos que facilitan la comunicación entre los diferentes volúmenes. Pero es el comienzo de la pérdida de la memoria de la construcción, ya que el uso continuo de la planta baja del edificio como cuadra provocó el que se rebajara todo el interior del edificio hasta 50 cm en muchas partes, con lo que los restos que pudieran quedar en el subsuelo del momento constructivo de la torre desaparecieron.

Finalmente, después de un intento fallido de revitalizar el edificio, es abandonado y conoce un profundo proceso de derrumbe hasta llegar a nuestros días en un avanzado estado de ruina.

I. Sánchez Pinto

B.13. **MENDEXA**

B.13.1. **Karraspio hondartza**

Zuzendaritza: Arantza Aranburu Artano
Finantzazioa: Unibertsitatea-Gizartea Proiektua. EHU

B.13.1. **Playa Karraspio**

Dirección: Arantza Aranburu Artano
Financiación: Proyecto Universidad Sociedad. UPV

In light of the remains left by sea levels in the past, a deposit located at the end of Karraspio beach was analysed. The deposit is situated a few metres above the current sea level and its two main facies (gravel and sand sediment), coupled with the characteristics observed under both a magnifying glass and microscope, suggest that it is of marine origin. The tests carried out indicate that it predates the Holocene, and is probably associated with the MIS5e period, at the end of the Pleistocene.

Iraganeko itsas mailen eta gure kostaldearen eboluzio tektonikoaren inguruko informazioa lortzeko asmoarekin, Karraspio hondartzaren bukaeran dagoen sedimentu depositua lagindu da. Sedimentu depositu hau, gainazal leun baten gainean kokatuta dago, gaur egungo itsas maila baino metro batzuk gorago, eta bi fazie guztiz desberdintzen nabarmentzen dira. Alde batetik, legar dezimetrikoz zein zentimetrikoz eratutako metakin bat, eta hauen gainetik, harea tamainako sedimentuz osatutako beste depositu bat. Deposituaren ingurua lutita beltzez osatuta dago nagusiki, non geruza batzuk kolore gorrixka daukaten eta erresistenteagoak diren, burdinean aberatsagoak direlako. Hain justu ere legarrak inguruko arroka formazio hauetatik eratorritako klastoz eratuta daude. Bestetik, harea metakinak egitura xaflakara paralelo bat erakusten du. Tarte batzuk zementatuago azaltzen dira beste batzuk baino, non partikulak oso erraz disgregatzen diren. Legarrez eta harea metakinez osatutako egitura hau, beste toki batzuetan ere deskribatua izan da, esaterako Oyambren (Sainz de Murieta et al., 2017), eta iraganeko hondartzetako depositu lez definitu izan dira. Laginketaren helburu nagusia, metakin hauek zein momentutan metatu ziren da-

Con el objetivo de recabar información en torno a la evolución tectónica de nuestra costa y niveles marinos del pasado, se ha llevado a cabo un muestreo en el depósito sedimentario situado en la parte final de la playa de Karraspio. Este depósito sedimentario se sitúa sobre una suave superficie unos metros por encima del nivel actual del mar, y en él se diferencian claramente dos facies. Por una parte, un acumulamiento de gravas decimétricas y centimétricas, y por encima de las mismas otro depósito compuesto de sedimentos del tamaño de la arena. El contorno del depósito está compuesto mayormente de lutitas negras, donde unos niveles presentan un color rojizo y son más resistentes al ser más ricos en hierro. Precisamente las gravas están compuestas de los clastos provenientes de estas formaciones rocosas que las rodean. Por otra parte, el acumulamiento arenoso muestra una estructura compuesta de una serie de placas paralelas entre sí. Algunos tramos se muestran más cementados que otros, y en aquellos las partículas se disgregan con mucha facilidad. Esta estructura compuesta de gravas y acumulamientos arenosos ya ha sido descrita en otros lugares como por ejemplo en Oianbre (Sainz de Murieta et al., 2017) y han sido definidos como depósitos de arenales del pasado. La finalidad del muestreo ha sido la de de-

Karraspioko metakina hondartzaren bukaeran, eta gaur egungo itsas maila baino gorago kokatuta. Gorriz, legarrez eratutako faziea, gainazal leunaren gainean kokatua. Urdinez, harea tamainako partikulez eratuta sedimentua.

Acumulación de Karraspio al final del arenal, situada por encima del nivel del mar actual. En rojo, facies compuesta de gravas, situada sobre una suave superficie. En azul, sedimento compuesto de partículas del tamaño de la arena.

tatzea izan da. Horretarako, harea metakina lagindu zen, eta ondoren, OSL (*Optically Stimulated Luminiscence*) deritzon teknikaren bitartez, sedimentu hauek noiz metatu ziren jakin daiteke. Teknika honen bitartez, harea partikulek azkeneko aldiz eguzki izpiak noiz ikusi zituzten kalkulatu daiteke. Lortutako emaitzek erakusten dute sedimentu hauek Holozenokoak baino zaharragoak direla, beraien metaketa unea, ziurrenik MIS5e garaiarekin lotuko delarik, alegia Pleistozeno bukaeran.

Honetaz gain, sedimentu hauetan egindako beste analisi batzuek, hala nola lupa bidezko behaketak, zein mikroskopio optiko bidezkoak, argi utzi dute sedimentu hauen jatorri itsastarra. Izan ere bioklasto itsastarrak aurkitu dira bertan, hala nola ekinodermatu arantzak zein plataformako foraminiferoak.

finir en qué momento sucedió la acumulación de dichos sedimentos. Para ello se ha muestreado la acumulación arenosa, y posteriormente, aplicando el método denominado OSL (*Optically Stimulated Luminiscence)* se puede saber cuándo se acumularon dichos sedimentos. Por medio de esta técnica se puede calcular cuándo fue la última vez en que las partículas arenosas estuvieron expuestas a los rayos solares. Los resultados obtenidos nos muestran que dichos sedimentos son anteriores al Holoceno, que el momento de la acumulación de los mismos debió de suceder probablemente en el MIS5e, es decir, a finales del Pleistoceno.

Además, otros análisis realizados con estos sedimentos, por ejemplo observándolos con lupa y microscópio óptico, se observa cláramente su procedencia marina. De hecho se han identificado bioclastos marinos en los mismos, asi como espinas de equinodermos y foraminicedos de la plataforma.

P. Bilbao Lasa; A. Aranburu Artano

B.14. **PLENTZIA**

B.14.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

B.14.1.1. **Artekale, 6**

Zuzendaritza: Jose Angel Lecanda Esteban
Finantzazioa: Kukullena Barria S.L.

B.14.1.1. **Artekale, 6**

Dirección: Jose Angel Lecanda Esteban
Financiación: Kukullena Barria S.L.

The archaeological intervention carried out at num. 6 Artekale Street in Plentzia revealed some surprising results that bear no relation at all to the medieval town or its historical evolution. Their interest lies in the fact this is the first time that stone material from (possibly) the Palaeolithic era has been found in this archaeological environment.

Indusketa lan honen xedea Artekale kaleko 6. zenbakiko orubea da, gaur egun oso-osorik dago berritu beharreko eraikin batek okupatuta. Oinplano angeluzuzena du, iparraldetik hegoaldera, eta barrutik 7 x 14 m ditu. Kokalekuari, tamainari eta orientabideari erreparatuz gero, Erdi Aroko lursail tipologiari erantzuten diola esan behar dugu, XIII. mendean hiria sortu zenean trazatutako hiru kaleetako batean baitago.

Proposatutako eraberritze proiektuak, esku hartze honen xede denak, ez du eraikina eraistea aurreikusten, baizik eta haren barne egitura berritzea, eta beraz, proposatutako eta baimendutako esku hartzea higiezinaren barruko hainbat puntutan eskuz egin beharreko zundaketa batzuetara mugatuko zen. Helburua zen zundaketa horien bidez –kopuruagatik, azaleragatik eta banaketa espazialagatik– orubearen zorupean ondare arkeologikorik ba ote zen jakiteko informazioa lortzea, eta hala izatera, ondare horren interesa balioestea.

El área de intervención de esta excavación se corresponde con el solar nº 6 de la calle Artekale, ocupado actualmente en su integridad por un edificio a reformar. Su planta, rectangular, orientada N-S, tiene unas dimensiones interiores de 7 x 14 m y por su localización, tamaño y orientación parece mantener claramente la tipología del parcelario medieval en una de las tres calles trazadas cuando se creó la villa, en el siglo XIII.

El proyecto de la reforma propuesta y del que se deriva la intervención no contempla el derribo del edificio sino la reforma de su estructura interna, por lo que la actuación propuesta y autorizada consistió en la apertura de varios sondeos manuales en el interior distribuidos en varias zonas. La intención fue que con ellos –por su número, superficie y distribución espacial- se obtuviera una información suficiente para reconocer la existencia de patrimonio arqueológico en el subsuelo del solar y, en caso afirmativo, valorar su interés.

Plan hori ardatz hartuta lau zundaketa egingo genituen. Haietatik hiru –100, 200 eta 300 zundaketak– orubearen iparraldeko herenean ireki genituen, hau da, aurreikusitako obrek gehien ukituko zuten aldean, eta laugarrena, 400 zundaketa, orubearen hego-ekialdeko angeluan, fatxadari eta kantoi bati begira, orubearen azterketa ahalik eta zehatzena izan zedin.

Oso eskasak izan ziren 100, 200 eta 400 zundaketetan lortutako emaitzak; antzuak 200 eta 400 zundaketetan, edo historiaren ikuspegitik inolako interesik gabea 100 zundaketan, kontuan hartzen baditugu bere estratigrafia bakuna eta oso nahasia eta berreskuratutako materialak, guztiak XIX. mende amaierakoak edo XX. mende hasierakoak. Zundaketa bakar batek ez zuen Erdi Aroko Plentziako hiria eta bere bilakaera historikoa ezagutzeko informazio interesgarririk eskaini.

300 zundaketa baizik ez dugu aipatzekoa orrialde hauetan, baina ez bestelako estratigrafia duelako, hemen ere beste zundaketetan bezain bakuna eta antzua baita, eta Erdi Aroko historiari begira interesgarria delako ere ez, ez baitu deus argitzen. Aitzitik, bertan berreskuratutako historiaurreko harrizko material sortagatik deskribatu beharra dago.

300 zundaketa egungo eraikinaren ipar-ekialdeko angeluan ireki genuen, saneamendu sarea kanalizatuko zen aldean. Estratigrafia bakuna eta lineala da hormigoizko zoladuraren gaineko baldosazko zorutik tertziarioko kareharrizko arroka amaraino. Arroka amaren aurreko azken unitate estratigrafikoa, hiriko hirigune historiko osoan, ongi ezagutzen baitugu bertan hainbat esku hartze bideratu ditugulako, tokiko berezko buztin horixkak osatutako geruza horizontal naturala da, eta geruza horren lodierak berdindu egiten ditu zoru geologikoaren gainazala ezaugarritzen duten gailurrak eta ibarrak. Baina ñabardura bat azaldu behar da sekuentzia horretan, izan ere, kasu batzuetan, azken maila estratigrafikoetan, kareharriarekin nahasita klerazko zainak bereizten dira, itxuraz kareharriaren beraren oso antzekoak. Izan ere, Plentziako hirigune historikoan klera da arroka nagusia, lehenagoko materialak biltzen ditu, esate baterako, hareharriak eta Triasikoko kareharriak. Flyschean ez bezala, bertan material gogorrez (hareharriak eta kareharriak) eta material bigunez (tuparriak eta buztinak) osatutako geruza homogeneoak ondoz ondo agertzen baitira, kasu honetan zainen arteko nahasketa bat edo txandakatze bat bereizten da.

Buztinezko unitate hori arkeologikoki antzua da hemen eta, oro har, hiri osoan; baina kasu honetan, hain zuzen ere klerazko zainen gainean, zundaketaren erdialdean, harrizko materiala dokumentatzen hasi ginen: harriaren lanketatik baztertutako printza batzuk eta, gutxiago, balizko ukiera arrastoak dituzten beste printza batzuk. Banaketa erradio oso txikian zeuden metatuta aurkikuntza horiek, eta bi ezaugarri ditu alde horrek: sakonera eta klerazko zainarekiko lotura.

Beraz, zundaketa positiboa izan da ez «Erdi Aroko Plentziako hiria» aztarnategia hobe ezagutzeko halako interes historikoa eskaintzen duelako, baizik eta harrian landutako material sorta hori, sorta txikia baina esanguratsua, bigarren egokieran azaleratu delako. Bistan denez, milaka urtetako etenaldia dago bi pasarte historiko horien artean, ez dago tarteko hiatorik, eta

Con este plan, se establecieron cuatro sondeos. Tres de ellos –sondeos 100, 200 y 300- quedaban en el tercio septentrional del solar, aquel que iba a sufrir una mayor afección por las obras previstas, abriéndose el sondeo 400, en el ángulo SE del solar, dando a la fachada y a un cantón, para que la valoración del solar fue la más ajustada.

Los resultados obtenidos en los sondeos 100, 200 y 400 fueron muy pobres; estériles en el caso del 200 y 400, o de nulo interés histórico en el caso del 100, a tenor de su estratigrafía, simple y muy alterada, y de los materiales obtenidos, todos de finales del XIX o principios del XX. Ninguno de los sondeos aporta información de interés para el conocimiento de la villa medieval de Plentzia y su evolución histórica.

Solo el sondeo 300 merece ser reseñado en estas páginas; y ello tampoco se debe a su estratigrafía, igual de simple y estéril que en los otros sondeos, ni a su interés para la historia de la villa medieval, que es nulo. Si debe ser explicado es por el lote de material lítico prehistórico allí recuperado.

El sondeo 300 se abrió en una estancia localizada en el ángulo NE del actual edificio, espacio por el que se va a canalizar la red de saneamiento. Su estratigrafía es simple y lineal desde el embaldosado contemporáneo sobre solera de hormigón hasta la roca madre, caliza terciaria. La última unidad estratigráfica previa a ésta es, en todo el casco histórico de la villa, que conocemos bien por el número de intervenciones que allí hemos ejecutado, una capa natural horizontal compuesta por las arcillas amarillas propias del lugar, cuya potencia colmata diferencialmente las crestas o los valles que caracteriza la superficie del suelo geológico. Pero debe señalarse en esta secuencia un matiz, como es que, a veces, en los últimos niveles estratigráficos, aparece de forma entreverada con la caliza vetas de creta caliza o cayuela, muy similares en su aspecto a la propia caliza. De hecho, en el casco histórico de Plentzia la roca más característica es esta creta caliza, que envuelve materiales anteriores como las areniscas o la caliza del Triásico. Se trata de una alternancia o mezcla de vetas, más que una sucesión de capas tan homogénea como en el flysch, de materiales duros (areniscas y calizas) y materiales blandos (margas y arcillas).

Esa unidad de arcillas puede considerase, aquí, como en general toda la villa, arqueológicamente estéril; pero en este caso, justamente sobre las vetas de cayuela, en la zona central del sondeo, comenzó a documentarse material lítico: algunas lascas de descarte y otras, las menos, con posibles huellas de retoque. Los hallazgos se localizaban concentrados en un radio de distribución muy pequeño y su área presenta dos características: su profundidad y su relación con la veta de creta caliza.

Así que el sondeo ha resultado positivo, no porque ofrezca interés histórico para el mejor conocimiento del yacimiento «villa medieval de Plentzia», sino por este lote, pequeño pero relevante, de material lítico en posición secundaria. Obviamente hay un hiato temporal de miles de años entre ambos episodios históricos y sin jalones intermedios que impide

Ezkerrean, 300 zundaketako zoru geologikoaren edo arroka amaren ortoargazkiplanoa. Bertan dago adierazita aurkikuntzen kokalekua. Eskuinean, PLE-XV.20.302.11 eta PLE-XV.20.302.12 piezak.

A la izquierda: ortofotoplano del suelo geológico o roca madre del sondeo 300, se indica la ubicación de los hallazgos. A la derecha: piezas PLE-XV.20.302.11 y PLE-XV.20.302.12.

hortaz, ezinezkoa da pieza horien kronologiaren eta Erdi Aroko hiriaren fundazioaren arteko edozein lotura mota finkatzea. Ildo horretan, guk uste dugu oso garrantzitsua dela azpimarratzea buztinezko geruzaren azpian eta Plentziako muinoko klerazko substratuaren gainean historiaurreko aztarna arkeologikoak izan daitezkeela. Ezaugarriek beste zerbait iradokitzen badute ere, ez du zertan geruza antzua izan.

Hirukoitza zen haren indusketak planteatzen zuen arazoa: hasteko, buztin trinkoko beste geruzetatik bereizten zaila zelako; bigarrenik, sedimentu isuritzat hartua delako, muinoko lurrezko gainazala pleistozenotik higatu izanaren emaitza dena (kontuan izan aurkikuntzak Kuaternarioan geomorfologikoki oso biziak ziren aldeetan gertatu direla, eta beraz, haien itxura, gainazalak eta estratigrafia oso bestelakoak direla gaur egun ekintza antropikoen ondorioz baina baita ekintza geomorfologikoen ondorioz ere); eta, hirugarrenik, ezin aurreikusi zitekeelako material hori bigarren egokieran ote zegoen ala, segur aski, non-site edo off-site (aurkikuntza arkeologikoaren tokiko hirugarren tipologia, aztarnategi bati ez dagokiona baina aurkikuntza isolatu baten ereduari ere erantzuten ez diona. «Jarduera mugatuko lekutzat» definitu liteke) bati ote zegokion.

Plentziako hirigune historikoan orain arte egin den gisa horretako lehenengo aurkikuntza izan da. Hala eta guztiz ere, agian ez da aurkikuntza berezitzat hartu behar, Uribe Kosta eskualdea aberatsa baita historiau-

establecer cualquier tipo de relación entre la cronología de estas piezas y la fundación de la villa medieval. En este sentido, creemos muy importante insistir en que bajo la capa arcillosa y sobre el sustrato pétreo creto-calizo de la colina de Plentzia puede haber evidencias arqueológicas de época prehistórica. No es un estrato necesariamente estéril, aunque dadas sus características lo parezca.

El problema de su excavación es triple: primero, por su difícil diferenciación de otras capas de arcillas compactas; segundo, por su consideración de colada sedimentaria producto de la erosión desde el pleistoceno de suelo terroso de la colina por escorrentía (téngase en cuenta que los hallazgos se han producido en zonas geomorfológicamente dinámicas durante el Cuaternario, de modo que su aspecto, superficies y estratigrafía, son muy diferentes en su aspecto actual, tanto por acciones antrópicas como puramente geomorfológicas); y, tercero, por la impredecibilidad del hallazgo en posición secundaria o del correspondiente, muy probablemente, a un non-site u off-site (una tercera tipología de lugar de hallazgo arqueológico que no se corresponde con un yacimiento, pero que tampoco responde al patrón de un hallazgo aislado. Podría definirse como «lugar de actividad limitada»).

El hallazgo es el primero de esa naturaleza que se ha producido en el casco histórico de Plentzia. Sin embargo, tal vez no haya de considerarse extraordinario, porque la comarca de Uribe Kosta

rreko aire zabaleko aztarnategietako aurkikuntzetan: adituen arabera, horren arrazoia da eskualde honetan kalitatezko suharrizko noduluak azaleratzen direla, eskuratzen errazak, Kurtziako itsaslabarretatik (Barrika) gutxienez Butroe ibairaino (Plentzia) zabaltzen den Flyschezko formazioak eskainita.

Balizko lanketaren arrastoak dauzkaten piezak identifikatzeko, hainbat aditurengana jo genuen. Piezen kontserbazio egoera txarra eragozpena da kultura jakin batean kokatzeko pieza diagnostikotzat hartzeko. Kontuan izanik aleen kopuru txikia –hogei pieza baino pixka bat gehiago–, printzipioz baztertu egin beharko litzateke Behe Paleolitoko edo Erdi Paleolitoko teknologiaz landutako piezak izatea.

Sorta horretan aipagarriak dira PLE-XV.20.302.11 eta PLE- XV.20.302.12 piezak. Lehengoak Kurtziako flyschean landutako xafla baten urruneko zati bat da, kortexa duena; bigarrena azaleko orpoa duen printza bat da, deshidratatuta dago eta era berean Kurtziako flyscheko suharrian landua da. Hautematen diren ukierak berariaz eginak direla ulertuta (ez dira argi eta garbiak, pausatu osteko nahasketen ondorio izan baitaitezke), karrakailu dentikulatutzat definitu litezke.

Kasu horretan, bi pieza horiek Aranbaltzako aztarnategiko I. eta III. sektoreetako materialekin parekatuko lirateke (ikus *Arkeoikuska* 2013: 175-179; 2014: 165-167; 2015: 181-182; 2016: 238-240; 2017: 240; 2018: 264-266 eta 2019: 250-253).

Uribe Kosta eskualdearen mendebaldeko sektorean, 1990ean Mousteriar kultura arkeologikoa definitzea (levallois teknikaren bidez landutako dentikulatuei esker) ahalbidetu zuen estratigrafia dokumentatu eta Atxabiribilen erradiokarbono bidezko datazioa bat (41.400 + 2.500) lortu zenetik, egiaztatu egiten da harrizko piezen lanketatik etorritako hondakin ugari baina amaitutako tresna gutxi dauzkaten lan guneak daudela. Gero, Euskal Kultura Ondarearen legeak ahalbidetu du Kurtziako muinoaren inguruan nola prebentzioz hala sistematikoki jardutea. Aztarnategi horietatik gehienek ez dute estratigrafia bertikalik, eta halakoetan aurkikuntzak egiteko, oro har bigarren deposituaren izaera edo posizio eratorriaren izaera dutela planteatzen da. Azken urteetan aipatzekoa da, eskaini dituen emaitzengatik, Aranbaltzako aztarnategian bideratutako ikerketa proiektua.

Eta hain zuzen ere aztarnategi horretan aurkitzen dugu neandertalen jardueraren erregistrorik onena. I. eta II. aztarnategietan suharrizko tresnak fabrikatzen eta erabiltzen zituen okupazioaren aztarnak kontserbatu dira, asko eta asko Levallois teknikarekin landuak. Aitzitik, Plentzia eta Gorliz aldean, historiaurreko giza okupazioen presentzia aurkikuntza isolatu batzuetara mugatzen da, eta gainera, aurkikuntza horiek, Artekale kaleko 6. zenbakian egindakoa bezala, ez dira Sopela eta Barrika aldean dokumentatutakoak bezain garrantzitsuak.

presenta una alta densidad de hallazgos de época prehistórica al aire libre que se explica, según los expertos, por el afloramiento de nódulos de sílex de calidad y fácil acceso que proporciona la formación del Flysch que se extiende desde los acantilados de Kurtzia, en Barrika hasta, al menos, el cauce del Río Butrón en Plentzia.

Para la identificación de las piezas con posibles huellas de talla se ha consultado a varios especialistas. El estado de conservación de las piezas impide tenerlas por piezas diagnósticas de atribuciones culturales claras. Dada la escasez de ejemplares –poco más de una veintena-, en principio, habría que descartar una asimilación tecnológica del Paleolítico Inferior o Medio.

Dentro del conjunto habría que destacar las piezas PLE-XV.20.302.11 y PLE- XV.20.302.12. La primera sería un fragmento distal de lámina que presenta córtex realizado sobre sílex del flysch Kurtzia, mientras que la segunda sería una lasca con talón cortical que se encuentra deshidratada y también se realiza sobre sílex del flysch Kurtzia. Entendiendo que las huellas que se perciben se trate de retoques válidos (no son claros y podrían deberse a alteraciones postdeposicionales), podrían definirse como raederas denticuladas.

En tal caso, ambas piezas se asimilarían a los materiales del yacimiento de Aranbaltza, especialmente con sus sectores I y III (véase *Arkeoikuska 2013*: 175-179; 2014: 165-167; 2015: 181-182; 2016: 238-240; 2017: 240; 2018: 264-266 y 2019: 250-253).

En el sector occidental de Uribe Costa, desde que en 1990 se documentara una estratigrafía que permitía definir un horizonte Musteriense (por los denticulados con técnica levallois) y una datación radiocarbónica en Atxabiribil, (41.400 + 2.500), se considera un hecho la existencia de áreas de taller con abundantes restos de talla y escasas herramientas acabadas. Después, el desarrollo de la ley de Patrimonio Cultural Vasco, ha permitido actuar tanto de forma preventiva como sistemáticamente en la zona circundante a la colina de Kurtzia. La mayoría de estos yacimientos carecen de estratigrafía vertical y, en general, se plantea para sus hallazgos un carácter de depósito secundario o posición derivada. Durante los últimos años destaca por sus resultados el proyecto de investigación desarrollado en el yacimiento de Aranbaltza.

Y es en éste donde encontramos el mejor registro de actividad de neandertales. En los yacimientos I y III hay evidencias de ocupación que incluyen la fabricación y uso de herramientas de sílex, buena parte de ellos obtenidos con talla Levallois. Mientras, en la zona concreta de Plentzia y Górliz la presencia de ocupaciones humanas prehistóricas se reduce a algunos hallazgos aislados y mucho menos significativos que las documentadas en el área de Sopela y Barrika, como ocurre en el caso del solar número 6 de Artekale.

J.A. Lecanda Esteban; A. Ortega

B.15. **SOPELA**

B.15.1. **Iturralde Errekalde edo Kurtzia**

Zuzendaritza: Blanca Renedo Villarroya
Finantzazioa: Sopelako UE-7.1 Unitateko Hitzarmen Batzarra

B.15.1. **Iturralde Errekalde o Kurtzia**

Dirección: Blanca Renedo Villarroya
Financiación: Junta de Concertación de la Unidad UE-7.1 de Sopela

Results of the archaeological work carried out in the town of Sopela in response to the urban development of the local area which affects the site known as Iturralde Errekalde or Kurtzia. A total of eight sondages were dug, with no archaeological remains being found. A flint tool was recovered from the surface.

Sopelako udalerriko 7.1 Unitateko Hitzarmen Batzarrak urbanizazio berri bat proiektatu zuen Iturralde aldean, udalerriaren iparraldean. Urbanizazio horrek Iturralde Errekalde edo Kurtzia izeneko aztarnategia ukituko zuen, eta beraz, ezinbestekoa zen urbanizazio lanei hasiera eman aurretik azterlan arkeologiko bat egitea.

Zundaketa sorta bat ireki genuen obrek ukituko zuten aldeetan, 1. Eremua eta 2. Eremua deituetan, biak Balizko Arkeologia Gunearen ipar-ekialdean.

1. eremua

Forma angeluzuzen irregularreko lursaila, gutxi gorabehera 2.346 m^2-koa, hego-mendebaldetik ipar-ekialderako aldaparekin. Eremu horretan lubaki formako hiru zundaketa mekaniko egin genituen, bakoitza norabide batean. 1. zundaketan (4 m luze eta 1,3 m zabal) landare lurrez osatutako lehenengo maila eta manganeso asko zituen buztin horixkez osatutako bigarren maila identifikatu genituen. Arroka naturala gainazaletik metro beteko sakoneran azaltzen zen. 2. eta 3. zundaketetan (4,6 m eta 5 m luze, hurrenez hurren) lehenengo zundaketan bereizitako maila berberak identifikatu genituen, eta ikuspegi arkeologikotik guztiak antzuak zirela esan behar dugu. 3. zundaketan, manganesoak zeuzkan buztin horixkako paketeak, bere oinean, oso higatuta zeuden kareharrizko alubioetatik etorritako klastoak zituen; guk uste dugu azpiko kareharrizko geruza naturalaren disgregazioaren zati direla klasto horiek.

2. eremua

Forma irregularreko lursaila, 3.630 m^2-koa, aldapa handiarekin hego-ekialdetik ipar-ekialdera. Lursail handiagoa izanik, tamaina desberdineko bost zundaketa egiteko erabakia hartu genuen ahalik eta lur eremu zabalena hartzeko eta kontuan izanik inguruneren topografia. Lehenengo eremuko nomenklaturari jarraituz, 4. zundaketan (4,5 m luze) gutxi gorabehera 30 cm lodi zen lehenengo maila bat dokumentatu genuen gainazalean, buztin grisaxkez eta klastoez osatuta zegoen. Haren azpian, lur eremuko substratu naturalaren zati diren kareharrizko bi zain identifikatu genituen, zeharkako garapenarekin zundaketaren norabidearekiko. 5. zundaketa 4 m luze izan zen, eta gainazaleko lehenengo mailaren beheko zatian tornuan landutako zeramikazko bi zati erregistratu geni-

En el municipio de Sopela, la Junta de Concentración de la Unidad 7.1 proyectó una nueva urbanización en una zona de Iturralde, situada al norte del municipio. Esta urbanización afectaba al yacimiento llamado Iturralde Errekalde o Kurtzia. Por ello fue imprescindible un estudio arqueológico previo a las obras de urbanización.

Se abrieron una serie de sondeos en las zonas que iban a verse afectadas, siendo denominadas Zona 1 y Zona 2, localizadas ambas en la parte nororiental de la Zona de Presunción Arqueológica.

Zona 1

Parcela de forma rectangular irregular de unos 2346 m^2 de superficie y con una pendiente de suroeste a noreste. En esta zona se realizaron tres sondeos mecánicos en forma de trincheras con diferentes orientaciones. En el sondeo 1 (de 4 m de longitud y 1,3 m de anchura) se identificó un primer nivel de tierra vegetal y un segundo nivel de arcillas amarillentas con abundantes manganesos. La roca natural aparecía a un metro de la superficie. En los sondeos 2 y 3 (de 4,6 m y 5 m de longitud respectivamente) se identificaron los mismos niveles que en el primero, siendo en todos los casos estériles desde el punto de vista arqueológico. En el sondeo 3, el paquete de arcillas amarillentas con manganesos presentaba, en su base, clastos que respondían a aluviones de caliza muy rodados y que interpretamos como parte de la disgregación del estrato natural de caliza que aparecía debajo.

Zona 2

Parcela de forma irregular, con una extensión de 3630 m2 y con una importante pendiente de sureste a noreste. Por su mayor extensión, decidimos realizar cinco sondeos de diferente tamaño, intentando abarcar el máximo terreno posible y teniendo en cuenta su topografía. En el sondeo 4 (siguiendo con la nomenclatura de la primera zona), de 4,5 m de longitud, se documentó un primer nivel superficial de unos 30 cm de espesor, compuesto por arcillas grisáceas y clastos. Bajo él se hallaron dos vetas de caliza con un desarrollo transversal respecto a la orientación del sondeo que formaban parte del sustrato natural del terreno. El sondeo 5 tenía 4 m de longitud y se halló un primer nivel superficial en cuya parte inferior se registraron dos fragmentos de cerámica a torno, con

Aztertutako aldeekin hartutako eremua. Behean, berreskuratutako piezaren irudia.

Área con las zonas intervenidas.

tuen, ore laranjekin eginak eta ertz lauekin. Azpian, buztin horixkez osatutako maila, apurtutako arroka naturalaren zainak tartekatzen zituena, dokumentatu genuen. Substratu naturala bere osotasunean azaltzen zen egungo zoruaren mailatik behera gutxi gorabehera 50 cm-ra. 6. zundaketan (3,5 m luze) materia organiko asko zuen gainazaleko lehenengo maila identifikatu genuen. Azpian, arroka naturalaren gainean pausatuta, buztin horixkako maila dokumentatu genuen, klastorik gabea eta manganesoekin. 7. zundaketak aurrekoaren ezaugarri berberak erakusten zituen, 75 cm-ko sakonera mailan azaltzen zen geruza naturala. Aurrekoak bezala 3,5 m luze izan zen 8. zundaketa, eta aurrekoetan bezala, gainazaleko mailaren azpian manganesoak eta klastoren bat zituen buztin horiko betegarria dokumentatu genuen. Haren azpian substratu naturala azaltzen zen.

Zundaketetan erregistratuez gain, esan beharra dago suharrizko zati bat aurkitu genuela 2. Eremuaren mendebaldeko muturrean makina 1. Eremutik 2. Eremura eramatean. Zehazki marruska zati bat da, urruneko aldean trunkadura bat duena. Flyscheko suharria zen, Barrikako ondoko azaleratzetik etorria.

Horrenbestez amaitu genuen gure esku hartzea, txosten honekin osatu duguna. Bertan, lortutako emaitzak jasotzeaz gain, alde honetan etorkizunean egin litezkeen lanei begira behar-beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak proposatu ditugu.

pastas anaranjadas y bordes planos. Bajo éste se documentó un nivel de arcillas amarillas intercaladas con vetas de la roca natural disgregada. El sustrato natural aparecía plenamente a unos 50 cm del suelo actual. En el sondeo 6, de 3,5 m de longitud, se evidenció una primera capa superficial con abundante materia orgánica, bajo la que se desarrollaba un nivel de arcillas amarillas, sin clastos y con manganesos, apoyada en la roca natural. El sondeo 7 presentaba las mismas características que el anterior, apareciendo el sustrato natural a 75 cm de profundidad. El sondeo 8, como los anteriores, tenía una longitud de 3,5 m, y como ellos, tras el nivel superficial documentamos un relleno de arcillas amarillas con manganesos y algún clasto. Bajo él, el sustrato natural.

Además de lo registrado en la apertura de los sondeos, hay que mencionar que durante el traslado de la máquina de la zona 1 a la zona 2 se localizó, en el extremo oeste de la zona 2, un fragmento de sílex, concretamente un raspador fragmentado, con una truncadura en el lado distal. Se trataba de un sílex de Flysch, del cercano afloramiento de Barrika.

Con esto finalizó nuestra actuación, completada con la emisión del informe, donde además de los resultados obtenidos se reflejaron las medidas correctoras necesarias para futuros trabajos en la zona.

C. Camarero Arribas; B. Renedo Villarroya

B.16. **SUKARRIETA**

B.16.1. **Portuondo ontzi zatia**

Zuzendaritza: José Manuel Matés Luque
Finantzazioa: Berak finantzatua

B.16.1. **Pecio Portuondo**

Dirección: José Manuel Matés Luque
Financiación: Propia

This paper describes a new shipwreck found by chance and reported by local inhabitants. It seems to be a wooden ship from the early 20th century, although some features point to an earlier date, since the dovetail features used to join some of the frames are older and have been found to be an Iberoatlantic shipbuilding feature. These issues will have to be assessed in a future underwater campaign.

Aurtengo abuztuan Itziar Caballero andreak[38] ontzi bateko zur batzuk eta harri batzuk, segur aski pisugarria osatuko zutenak, berreskuratu zituen, eta Julio Ruiz de Velascori[39] eman zion aurkikuntzaren berri. Juliok argazki batzuk helarazi zizkigun gure balorazioa egin genezan.

Hondakinak ikustera joan eta ontzi zatia zegoen lekura hurbildu gintuzten. Itsasbehera zenean ikus zitekeen, hori bai, ur kantitate ez txiki batek estalita; beraz, gainazaletik ezin izan genituen haren ezaugarriak identifikatu. Horrexegatik, berriz ere itzuli ginen beste batean urpean ibiltzeko ekipoaz horniturik eta ontzi zatia hobe dokumentatzeko xedearekin.

Juan Miguek Sainz Vicaya jaunak emandako tokiko informazioaren arabera, ontziak abandonatzeko erabiltzen zen senadia[40]. Inguru honi egindako airetiko argazkietan ez dira ikusten, eta horrexegatik uste dugu gutxienez 1946. urteaz geroztik, 1945-1946ko hegaldi amerikarrean egindako aurreneko argazkiak egin zirenetik, hareen azpian egon direla.

Egoera txarrean eta zizare barrenariak jota zeuden arren, dokumentatu egin genituen ateratako zurak. Horrexegatik, hain zuzen ere, ontzi atala bertatik bertara dokumentatzea zen garrantzitsuena.

Ontzi zatia Sukarrietako ferryan ontziratzeko kaiaren parean dago, kanal aldera, kanaletik gutxi gorabehera 70 metroko tartera, Oka ibaiko estuarioaren kanalera iritsi baino lehen. Hareak estalita dago, eta itsasbehera denean, hareak atzera egin duenean, agerian gelditzen da ontzi zatia, ontzia bera (behar beste harea kendu bada) eta pisugarriaren atal bat, tamaina ertaineko harri

[38] Itziar Caballero da uda partean alde hau Laida hondartzarekin lotzen duen Sukarrietako Ferryko patroia.

[39] Eskerrak ematen dizkiogu emandako informazioagatik eta laguntzagatik.

[40] Gogoan izan behar dugu alde hau erromatarren garaiko ainguralekutzat hartua dela. Ikus Martínez Salcedo, Ana eta Unzueta Portilla, Mikel. 1988. «Portuondo, Un nuevo asentamiento romano en la ría de Gernika (Bizkaia)», *Kobie 17*: 279-81; Martínez Salcedo, Ana eta Unzueta Portilla, Mikel. 1995. «El Asentamiento Romano de la Ensenada de Portuondo (Pedernales-Mundaka, Bizkaia)», *Kobie Paleoantropologia 22*: 107-36; Unzueta Portilla, Mikel eta Martínez Salcedo, Ana. 1998. «Portuondoko Erromatarren garaiko Aztarnategia (Sukarrieta-Mundaka, Bizkaia)» *Arkeoikuska 1988*, 74-77.

En agosto de este año la Sra Itziar Caballero[38] recuperó unas maderas de un barco y unas piedras, posiblemente lastre, y lo comentó a Julio Ruíz de Velasco[39], quien nos mandó foto para nuestra valoración.

Acudimos a ver los restos y nos acercaron a la posición del pecio, visible en marea baja aunque aún cubierto con cierta cantidad de agua por lo que no pudimos ver bien desde la superficie las características del mismo. Por ello, volvimos en otra ocasión con equipación de buceo para realizar una documentación mejor.

Según información local facilitada por el señor Juan Miguel Sainz Vizcaya, la ensenada era usada para abandonar barcos[40]. La consulta a fotos aéreas de la zona no la presentan visible por lo que podemos suponer que al menos desde 1946 cuando se tienen las primeras fotos con el vuelo americano de 1945-1946 estaría enterrada.

Se documentaron las maderas sacadas aunque estaban en mal estado y afectadas por el teredo navalis. Por ello, lo principal era documentar el pecio in situ.

El pecio se encuentra frente al pantalán de embarque del ferry de Sukarrieta, hacia la canal, a unos 70 metros de distancia del mismo y antes de la canal del estuario del Oka. Queda enterrado por la arena y en la bajamar, cuando la arena se ha retirado, el pecio es visible, tanto parte de la embarcación (si suficiente arena se ha retirado) como parte del lastre compuesto por un conjunto de piedras redondeadas de tama-

[38] Ella es la patrona encargada del ferry de Sukarrieta que conecta este lugar con la playa de Laida en los meses de verano.

[39] Agradecemos su información y la ayuda prestada.

[40] Debemos recordar que esta zona ha sido caracterizada como fondeadero romano. Véase Martínez Salcedo, Ana y Unzueta Portilla, Mikel. 1988. «Portuondo, Un nuevo asentamiento romano en la ría de Gernika (Bizkaia)», *Kobie 17*: 279-81; Martínez Salcedo, Ana y Unzueta Portilla, Mikel. 1995. «El Asentamiento Romano de la Ensenada de Portuondo (Pedernales-Mundaka, Bizkaia)», *Kobie Paleoantropología 22*: 107-36; Unzueta Portilla, Mikel y Martínez Salcedo, Ana. 1998. «Asentamiento Romano de Portuondo (Pedernales-Mundaka, Bizkaia)» *Arkeoikuska 1988*, 74-77.

biribilduez osatua. Uretan murgildu ginenean 4 metrokoa zen sakonera (nolanahi ere, etorkizuneko murgilaldietan kontuan hartu behar da sakonera hori itsasaldiaren arabera aldatu daitekeela).

Ontzi atala ekialdetik mendebalderako norabidean dago, popa kanalari begira eta branka itsasertzari begira. Popa ia osorik dago agerian, metro betetik gorako altuerarekin. Ontzia 19 metro luze da[41], baina esan behar dugu oso litekeena dela brankaren azken metroa oraindik hareen pean egotea; hala bada, gutxienez 20 m luze izango da ontzia. Ontziaren zabalera, baterako egiturari dagokionez, 3,60 metrokoa da, baina badira egurrak egituraren alde bietara, segur aski alde bakoitzetik eroriak dira, baina baliteke egur horiek hareak estalitako egituraren bati eusten egotea.

Popatik brankara, brankaren gutxi gorabehera metro beteko zati txikia alde batera utzirik, ontzi zatiaren gainerakoa hareen eta limoen azpian eta batez ere ontziko pisugarrien zatitzat identifikatutako tamaina ertaineko harri biribilduen azpian dago lurperatuta. Pisugarria osatzen zuten pieza horietako batzuk zuakerren arteko hutsuneetan aurkitu genituen. Ontzi zatiaren estaldura hori 12 metroraino iristen da, eta brankaraino neurtutako gainerako 7 metroak agerian gelditzen dira –agerian gelditzen den istriborreko zuakerrak, barruko aldetik eta kanpotik estalita daudela, eta brankako goi aldea izan ezik–; horixe da ontzi atalak erakusten duen zatia, pieza guztiak daude agerian, eta beraz, horixe da ontziaren erdialdetik brankarantz ikus daitekeena.

Zuakerrak bi motatan bereizten direla ematen du: batzuk ondoz ondo daude paratuta, euren artean tarterik ia batere utzi gabe, eta beraz, hutsunerik utzi gabe; beste batzuk elkarren artean hutsune handi samarra utzita daude jarrita. Izan ere, hutsuneak dituen aldeak ez ditu jobaltak erdiko trantsituaren marraraino, lehenago bukatzen dira, euren artean tarterik ez duten zuakerretan baranga-jobalta-baranga-jobalta txandaka eta modu jarraituan antolatzen diren bitartean. Egitura ontzi gainak eta hareak estalita dagoenez, baliteke jobaltek hutsuneen egitura berari eustea beste alde horretan. Jobalten muturrak eskuko tresnekin landuta dauden alaketan amaitzen dira.

Baieztatzea arriskutsua bada ere, badirudi miru buztan itxurako mihiztadura erabili zutela baranga-jobalta piezak batzeko. Eta hori egiaztatu egin behar da; izan ere, hala balitz, ontzi iberoatlantiarraren bereizgarria izango litzateke hori, 1565ean Kanadako Red Bay badian hondoratutako San Juan baleontziarena bezala, euskal ontzigintzari halako ospea eman dion ezaugarria baita.

Aski sendoa da ontzi zatiaren ageriko egitura, oro har 20 eta 25 cm bitarte zabal eta 12 cm garai dira egiturazko piezak. Haietako bakoitza zehatzago neurtzen direnean pieza handiagoak eta txikiagoak izango direla aurreikusten dugu.

Ontzi kroskoa kanpotik eta barrutik dago 6 cm lodi diren oholez estalita. Bi estalduren arteko espazioa 16 cm-koa da. Ez dugu estaldura zuakerrekin lotzeko il-

[41] Gutxi gorabeherakoak dira neurketa guztiak. Lehenengo murgialdiaren xedea ez zen azken milimetroraino neurtzea, baizik eta tamainaren ideia orokor bat izatea.

ño medio. Cuando nos sumergimos la profundidad era de unos 4 metros (aunque esta marca dependerá de la amplitud de marea en futuras inmersiones).

El pecio se sitúa orientado prácticamente E-W, con la popa hacia la canal y la proa hacia la orilla. La popa está prácticamente expuesta, con una altura de más de 1 metro. Tiene una eslora de 19 metros[41], aunque debemos indicar que es posible que la proa esté en su último metro aún enterrado, lo que implicaría una eslora de al menos 20 metros. La manga del barco, en cuanto a estructura conjunta es de 3,60 metros pero existen maderas a ambos lados de esa estructura, posiblemente caídas de cada banda aunque pueden estar manteniendo cierta estructura que esté cubierta por arena.

Desde la popa, y salvo esa pequeña parte de la proa, aproximadamente 1 metro visto, el resto del pecio está enterrado bajo arena y limo y sobre todo piedras redondeadas de medio tamaño que identificamos como parte del lastre de la misma. Algunas de estas piezas de lastre han sido encontradas entre las claras de las cuadernas. Esta cobertura del pecio llega hasta los 12 metros, quedando los otros 7 metros restantes hasta la proa medida al descubierto –salvo por el costado emergido de estribor con cuadernas y forro interior y exterior y la parte indicada arriba de la amura-; ésta es la parte que muestra el pecio y todas sus piezas visibles, siendo por tanto la parte visible desde la mitad del barco hacia proa.

Las cuadernas parecen dividirse en dos tipos: las que están lado con lado sin dejar prácticamente espacio entre sí y por tanto sin la presencia de claras, y las que se separan entre sí con un tamaño de clara considerable. Esto es debido a que la parte que presenta huecos no tiene los genoles hasta la línea de crujía sino que acaban antes, mientras que las cuadernas sin espacio entre ellas lo que indica es la alternancia de varenga-genol-varenga-genol y así sucesivamente. Debido a que la estructura está tanto tapada por la cubierta como por arena es posible que los genoles mantengan la misma estructura de claras en esa otra zona. Los extremos de los genoles acaban en un chaflán que está trabajado con herramientas manuales.

Aunque es arriesgado afirmarlo, parece que la unión varenga-genol pudiera realizarse mediante cola de milano. Esto es algo que habría que comprobar porque de ser así, sería una característica de las embarcaciones iberoatlánticas, como el ballenero San Juan, hundido en Red Bay (Canadá) en 1565 y por que la construcción vasca es tan reconocida.

La estructura visible del pecio es bastante sólida, con piezas estructurales de entre 20 y 25 cm de ancho y 12 cm de alto como mediciones genéricas. Posiblemente existan piezas de dimensiones mayores y otras menores cuando se mida correctamente cada una de ellas.

El casco tiene forro exterior e interior, con un grosor de traca de 6 cm. El espacio entre ambos

[41] Todas las mediciones son aproximadas. En la primera inmersión no se buscaba medir hasta el último milímetro sino tener una idea general del tamaño.

Ezkerrean, gila gainaren eta istriborreko saihetsaren ikuspegia, jobaltak eta zuakerrak bereizten direla. Eskuinean ontziaren erdigunearen ikuspegi zenitala. Barangak, jobaltak, gila gaina, ontzi gainaren barrunbearen zati bat eta palmejar deritzon ustezko ohola ikus daitezke.

A la izquierda, vista de la sobrequilla y el costado de estribor donde se aprecian los genoles y cuadernas. A la derecha, vista cenital del centro de la embarcación. Se pueden ver varengas, genoles, sobrequilla, parte de la cubierta interior y un posible palmejar.

tzerik aurkitu, baina segur aski hareek estalita egongo dira. Hori bai, zuakerrek gutxi gorabehera 2,5 cm-ko diametroko kabilak dauzkatela esan behar dugu.

Gutxienez zuakerretako batean opaitzurrez edo aizkoraz egindako markak identifikatzen dira, eta horrexegatik esan dezakegu ontzi hau eskuz eraikia dela.

Barruko ontzi gaina oso ohol zabalez osatuta dago, baten bat 25 cm baino zabalagoa da.

Gila gaina agerikoa da, prest dago modu batean edo bestean barangekin mihiztatzeko. Badirudi tarteren batean galdua dela, baina ez dakigu hautsi egin delako ote den ala leku horretan halakorik izan ez delako ote den.

Mehatxu batzuk nozitzen ditu ontzi zatiak, zehazki hauexek: a) zizare barrenaria; b) txalupen mugimendu handiko aldean dago, eta ugari dira txalupa horiek geldirik edukitzeko aingurak eta kateak; c) itsasbehera denean erraz iristen da bertaraino, eta ikusleek haren «oroigarri bat» eramateko arriskua ez da txikia; d) sakonera txikiaren ondorioz, noizbait ontzien mugimenduek kolpatu egin ditzakete hautsita gertatuko diren elementuak, eta itsasbehera denean agerian gelditzen diren pisugarriko elementuak eta zurak eragozgarriak dira ontzien erabiltzaileentzat, kontrolik gabe kentzeko arriskuan daude; e) itsasaldiek txandaka estaliko eta agerraraziko dute ontzi zati hau, eta agerian geratzen diren uneak dira arazotsuenak arestian azaldu ditugun arrazoiengatik.

Laburbilduta, halako tamaina duen ontzia da, era guztietako mehatxuen pean dagoena baina aldi berean itsas ontzigintza ezagutzeko aukera apartak eskaintzen dituena. Segur aski XX. mendearen lehen erdialdea baino lehenagokoa da, baina ustekabekoren bat izan dezakegu ustez ikusi duguna jobalten arteko miru buztan itxurako mihiztadura egiazki halakoa baldin bada. Eta ontzi berriagoa bada baina baranga eta jobalta miru buztan itxurako mihiztaduraz batuta baldin badaude, eraikitzaileek eredutzat lehenagoko eraikuntza sistemak, sistema iberoatlantiarrak be-

forros es de 16 cm. No se han encontrado clavos de unión del forro con las cuadernas pero posiblemente estén cubiertos. Lo que sí podemos indicar es que las cuadernas tienen cabillas de unos 2,5 cm de diámetro.

Al menos en una cuaderna se encuentran marcas de azuela o hacha por lo que podemos indicar que la embarcación ha sido construida manualmente.

La cubierta interior está compuesta por tracas de gran anchura, alguna de más de 25 cm.

La sobrequilla es evidente e incluso está preparada para encajar de algún modo con las varengas. Parece que en algún tramo está perdida pero no podemos indicar si por rotura o porque no ha existido en ese lugar.

El pecio sufre una serie de amenazas, a saber, a) el teredo navalis; b) su posición en una zona de movimiento de botes y de colocación de muertos de fondeo y cadenas para esos mismos botes; c) facilidad de acceso en bajamar y con el peligro de «toma de souvernir» por parte de gente curiosa; d) la poca profundidad que hará que en algún momento el transito de embarcaciones pueda golpear elementos que acabarán fracturándose además que los elementos de lastre y madera que están expuestos en bajamar resultan molestos para los usuarios de las embarcaciones y acaban retirándolos sin control; e) las mareas que expondrán y cubrirán el pecio aleatoriamente, siendo los momentos de exposición los problemáticos por los motivos anteriores.

En resumen, se trata de una embarcación de cierto tamaño que está muy expuesta a amenazas de todo tipo pero que ofrece también oportunidades de conocimiento de construcción naval. Posiblemente la embarcación pudiera datarse antes de mitad del s. XX pero pudiera darnos alguna sorpresa si lo que creemos haber visto como unión de cola de milano entre los genoles es cierto. E incluso si fuera una embarcación más reciente pero mantiene la unión de varenga y genol en cola de milano indicaría una conti-

rezkoak dituen sistemak, izan zituztela esan nahi du. Ezinbestekoa da analisi sakon bat egitea datazioa egiaztatzeko eta zalantzak argitzeko. Gainera, ziur gaude prestatzen ari garen hurrengo kanpainan oraingoz lehenengo murgilketa honekin erantzun gabe gelditu diren galdera batzuei erantzun ahal izango diegula. Ontzi honen azterketa oso lagungarria izango da Bizkaiko, Urdaibaiko[42] eta, hedaduraz, Euskal Herriko itsas ontzigintza eta nabigazioa hobe ezagutzeko.

nuidad de sistemas de construcción más antiguo y característico del sistema iberoatlántico. Es necesaria una analítica para comprobar la datación y despejar incógnitas. Además, confiamos que la próxima campaña que estamos preparando pueda responder a algunas de las preguntas que de momento han quedado abiertas con esta primera inmersión. El estudio de esta embarcación ayudara a un mejor conocimiento de la construcción naval y la navegación en Bizkaia y en Urdaibai[42], y por extensión en el País Vasco.

J. M. Matés Luque

---

[42] Gai honi buruz, beste lankide batzuek Arkeoikuskaren aurreko aletean egindako ekarpenak kontsultatu daitezke, esate baterako, egile hauen lanak: Mercedes Gómez Bravo eta Juan Carlos Zallo Uskola, *Arkeoikuska 2007*, 313-14; *Arkeoikuska 2009*, 319-22; *Arkeoikuska 2010*, 316-17; *Arkeoikuska 2011*, 310-12; *Arkeoikuska 2012*, 190-91; *Arkeoikuska 2013*, 216-17; *Arkeoikuska 2014*, 231-32; *Arkeoikuska 2015*, 211-12; *Arkeoikuska 2016*, 312-15; *Arkeoikuska 2017*, 328-31; *Arkeoikuska 2018*, 373-75; *Arkeoikuska 2019*, 378-381. Egile horienak beraienak, 2014. «Nuevos hallazgos en la ría de Gernika-Mundaka (Bizkaia): los pecios Laida I y Laida II». Arqueología subacuática española. *Actas del I Congreso de Arqueología Náutica y Subacuática Española*. Cartagena, 2013ko martxoak 14, 15 eta 16, II. liburukia: 133-41. Egile horienak dira, era berean, 2016 «Nuevas embarcaciones a tingladillo en la ría de Gernika (Bizkaia)». *Actas del V Congreso Internacional de Arqueología Subacuática. Ikuwa V*. Un patrimonio para la humanidad Cartagena, 2014ko urriak 15-18, 757-68. Eta ez dugu ahaztu behar Urbietako ontzi zatia, Gernikako itsasadarrean aurkitutako eta arkeologikoki induskatutako aurrenekoa. Ikus Izaguirre, Manu, eta Luis VALDÉS. 1998. «Avance de excavación del pecio del siglo XV de Urbieta (Gernika)». *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco 2*: 35-41. Izaguirre, Manu, Luis Valdés, eta José Manuel Matés, 1998. «Urbietako XV. mendeko ontzi aztarnen indusketa (Gernika)». *Arkeoikuska 1998*, 1999, 392-98. Izaguirre, Manu, Luis Valdés, José Manuel Matés Luque, eta Izaskun Pujana. 2001. «State of the excavation works of the 15th century shipwreck in Urbieta (Gernika, Spain)». *Trabalhos de Arqueologia 18*: 449-54. Rieth, Eric, eta Manu IZAGUIRRE. 2004. «Urbietako Erdi Aroko pezioa (Gernika). El pecio medieval de Urbieta (Gernika)». *Urpeko oroimena. Euskal Herriko urpeko arkeologia eta ondarea. La Memoria Sumergida. Arqueología y patrimonio subacuático vasco*, 142-51. Donostia-San Sebastián: Untzi Museoa-Museo Naval. Rieth, Eric. 2006. «L'épave d'Urbieta (Gernika): une embarcation à clin du milieu du XVe siècle. Étude préliminaire. Itsas Memoria. Euskal Herriko Itsas Gaiei Buruzko Aldizkaria 5 (2006): 603-16. Alde honetako ontziei buruzko beste ekarpen bat da Matés Luque, José Manuel. 2016. Laidako hondartza. Lehengoratzeko lanen gaineko jarraipena». *Arkeoikuska 2015*, 207-10. Egile berarena 2016-2017) «Una traca a tingladillo hallada en la playa de Laida (Ibarrangelua, Bizkaia). Un nuevo pecio medieval en el País Vasco». *Kobie* (Paleoantropologia Saila) 35: 205-24.

[42] Sobre esta temática, se pueden consultar las aportaciones de otros colegas en números anteriores de *Arkeoikuska* como son los trabajos de Mercedes Gómez Bravo y Juan Carlos Zallo Uskola en *Arkeoikuska 2007*, 313-14; *Arkeoikuska 2009*, 319-22; *Arkeoikuska 2010*, 316-17; *Arkeoikuska 2011*, 310-12; *Arkeoikuska 2012*, 190-91; *Arkeoikuska 2013*, 216-17; *Arkeoikuska 2014*, 231-32; *Arkeoikuska 2015*, 211-12; *Arkeoikuska 2016*, 312-15; *Arkeoikuska 2017*, 328-31; *Arkeoikuska 2018*, 373-75; *Arkeoikuska 2019*, 378-381. De los mismos autores, 2014. «Nuevos hallazgos en la ría de Gernika-Mundaka (Bizkaia): los pecios Laida I y Laida II». Arqueología subacuática española. *Actas del I Congreso de Arqueología Náutica y Subacuática Española*. Cartagena, 14, 15 y 16 de marzo de 2013, vol. II: 133-41. Además, de ellos mismos, véase 2016 «Nuevas embarcaciones a tingladillo en la ría de Gernika (Bizkaia)». *Actas del V Congreso Internacional de Arqueología Subacuática. Ikuwa V*. Un patrimonio para la humanidad Cartagena, 15-18 de octubre de 2014, 757-68. A esto no habría que olvidarse del pecio de Urbieta, el primero hallado en la ría de Gernika y excavado arqueológicamente. Véase Izaguirre, Manu, y Luis VALDÉS. 1998. «Avance de excavación del pecio del siglo XV de Urbieta (Gernika)». *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco 2*: 35-41. Izaguirre, Manu, Luis Valdés, y José Manuel Matés, 1998. «Avance de excavación del Pecio del s. XV de Urbieta (Gernika)». *Arkeoikuska 1998*, 1999, 392-98. Izaguirre, Manu, Luis Valdés, José Manuel Matés Luque, y Izaskun Pujana. 2001. «State of the excavation works of the 15th century shipwreck in Urbieta (Gernika, Spain)». *Trabalhos de Arqueologia 18*: 449-54. Rieth, Eric, y Manu IZAGUIRRE. 2004. «Urbietako Erdi Aroko pezioa (Gernika). El pecio medieval de Urbieta (Gernika)». En *Urpeko oroimena. Euskal Herriko urpeko arkeologia eta ondarea. La Memoria Sumergida. Arqueología y patrimonio subacuático vasco*, 142-51. Donostia-San Sebastián: Untzi Museoa-Museo Naval. Rieth, Eric. 2006. «L'épave d'Urbieta (Gernika): une embarcation à clin du milieu du XVe siècle. Étude préliminaire. Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco 5 (2006): 603-16. Otro aporte sobre embarcaciones de la zona es Matés Luque, José Manuel. 2016. Playa de Laida. Seguimiento de su restauración». *Arkeoikuska 2015*, 207-10. Del mismo autor 2016-2017) «Una traca a tingladillo hallada en la playa de Laida (Ibarrangelua, Bizkaia). Un nuevo pecio medieval en el País Vasco». *Kobie* (Serie Paleoantropología) 35: 205-24.

B.17. URDUÑA / ORDUÑA

B.17.1. Santa Klara komentua (13. BAG, Santa Marina ermita)

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco

Finantzazioa:Artebakarra-Derioko Klaratarren komunitatea

B.17.1. Convento de Santa Clara (ZPA 13. Ermita de Santa Marina)

Dirección: Ander Ortega Franco

Financiación: Comunidad de Clarisas de Artebakarra-Derio

The intervention carried out in Santa Clara Convent in Orduña (ZPAI num. 13: Ermita de Santa Marina) consisted of the archaeological monitoring of the emptying of a lift pit. The results of the monitoring process were of no historical-archaeological interest.

Urduñako egungo Santa Klara Komentuan (13. BAG, Santa Marina ermita) igogailu bati leku egiteko zuloa husteko lanen gaineko kontrol arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Control arqueológico del vaciado de un foso de ascensor en el actual Convento de Santa Clara de Orduña (Z.P.A nº 13: Ermita de Santa Marina), siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Ortega Franco

B.18. KARRANTZA HARANA / VALLE DE CARRANZA

B.18.1. San Estebango eskola zaharrak

Zuzendaritza: Carlos Cortés Montes

Finantzazioa: Karrantza Haraneko Udala

B.18.1. Antiguas Escuelas de San Esteban

Dirección: Carlos Cortés Montes

Financiación: Ayuntamiento del Valle de Carranza

An archaeological sondage was dug in the basement of the Old San Esteban Schools to locate structures pre-dating the existing building.

San Estebango Eskola Zaharretako sotoan zundaketa arkeologiko bat egin da eraikin hori jaso aurreko egiturak aurkitzeko. Gako hitzak: arkitektura tradizionala, eraberritzea, etnografia, Karrantza Harana.

San Estebango Eskola Zaharrak zaharberritzeko proiektuaren baitan, zaharberritze lanei ekin baino lehen, zundaketa arkeologiko bat egin da higiezin hori eraiki aurreko egiturarik ba ote den jakiteko asmoz.

Hortaz, arkeologikoki induskatu genuen 2 m^2-ko azalera eraikinaren beheko solairuan edo sotoan. Horretarako, lehenik azaletik garbitu genuen espazio hori, higiezinaren abandonuak eragindako zaborrak eta zakarrak ateratzeko eta zundaketa zehazki kokatzeko.

Gainazala garbitu ondoren identifikatu genituen aurreneko unitate estratigrafikoak. Lehenik, zundatutako gunearen hego-ekialdean, zementuzko estaldura

Se ha realizado un sondeo arqueológico en la planta sótano de las Antiguas Escuelas de San Esteban, para la localización de estructuras anteriores al edificio. Palabras clave: arquitectura tradicional, rehabilitación, etnografía, Valle de Carranza.

El proyecto de rehabilitación de las Antiguas Escuelas de San Esteban, ha contado con la realización de un sondeo arqueológico previo a la realización del mismo, con la intención de conocer la posible existencia de estructuras anteriores al inmueble.

Gracias a ello, se ha realizado la excavación arqueológica de un área de 2 m² en la planta baja o sótano de la edificación. Para ello se realizó una limpieza superficial de la estancia para el establecimiento del sondeo, para la retirada de escombros y basuras producido por el abandono del inmueble.

Realizada la limpieza superficial se identifican las primeras unidades estratigráficas. En primer lugar, se aprecia en el lado sureste del establecimiento del

baten modura (001. UE), itxura batean zoruaren funtzioa betetzen duen maila bat identifikatzen da. Maila horrek bigarren unitate zaharrago bat (002. UE) estaltzen du, eta bere eraikuntza ezaugarriei erreparatuz gero segur aski higiezinaren eraikuntzarekin berarekin lotuta dagoela esango dugu. Harrizko lauzez egindako zoru hori lurrean bertikalean sartutako lauza sorta batez dago mugatuta ekialdetik.

Hala bada, induskatzen hasi ginen zundaketaren ekialdeko sektore horretan, material geologikoz estalitako sektorean, eta betegarriak osatutako maila bat dokumentatu genuen (004. UE), segur aski zorua berdintzeko eta zuzenean maila geologikoen gainean egokitutako zorua sortzeko. Eta horrelaxe ikus genuen lehen aipatutako lauza bertikalen lerroa (003. UE) maila geologiko horretan oinarritzen dela.

Azkenik, harrizko horma bat (005. UE) identifikatu dugula esan behar dugu. Badirudi San Estebango Eskola Zaharren jatorrizko eraikuntzaren zimentazioa osatzen zuela, eta era berean betegarriak osatutako mailak (004. UE) ezkutaturik zegoela.

Konklusioak

Indusketa lan honi esker egiaztatu ahal izan da harrizko (tuparriak) lauzez egindako zoru baten presentzia, 002 eta 003 unitate estratigrafikoez osatua, segur aski espazio hau hobe isolatzeko funtzioa zuena. Bi unitate estratigrafiko horiek eta 005. unitatea (higiezineko zimentazioko horma) garai berekoak dira, eta beraz, egitura horiek une berean sortu zituztela esan behar dugu. Horrenbestez ondorioztatzen dugu egitura horiek higiezina eraikitzeko lehenengo uneari (XIX. mendea) dagozkiola.

sondeo a modo de echadizo de cemento (U.E. 001), un nivel que parece hacer las funciones de suelo cubriendo, una segunda unidad más antigua, posiblemente relacionada con la creación del propio inmueble debido a sus características edilicias (U.E. 002). Este suelo de lajas de piedra, se ve delimitado en su lado este por una serie de lajas hincadas verticalmente (U.E. 003).

De esta manera, se comenzó la excavación del sector este del sondeo, forrado por material geológico, documentándose un nivel de relleno (U.E. 004), posiblemente utilizado para la nivelación del piso y la creación de un suelo que se encuentra directamente sobre los niveles geológicos. Así pues, se ha podido observar que la línea de piedras dispuestas verticalmente mencionadas anteriormente (U.E. 003), se disponen apoyadas sobre este nivel geológico.

Por último, hay que destacar la localización de un muro realizado en piedra (U.E. 005), que parece formar parte de la cimentación de la construcción original de las Antiguas Escuelas de San Esteban, que se encontraba también oculto por el nivel de relleno (U.E. 004).

Conclusiones

Mediante esta excavación se ha podido constatar la presencia de un suelo de lajas de piedra (margas), compuesto por las U.E.'s 002 y 003, posiblemente para dotar de un mejor aislamiento a este espacio. Estas dos unidades estratigráficas, son coetáneas a la nº 005, definida como el muro de cimentación del inmueble, indicándonos que estas estructuras fueron creadas en un mismo momento. Concluimos así, que estas estructuras formarían parte del primer momento de construcción del edificio en el s. XIX.

C. Cortés Montes; V. Pérez-Galán

B.19. **ZALLA**

B.19.1. **Bolunburuko El Cerco kastroa**

Zuzendaritza: Juan José Cepeda-Ocampo
Finantzazioa: Zallako Udala

B.19.1. **Castro de El Cerco de Bolunburu**

Dirección: Juan José Cepeda Ocampo
Financiación: Ayuntamiento de Zalla

The excavation work was carried out inside the fort. The area contains various cabins, which were partially documented during previous seasons. The extension of the work area enabled the discovery of new post holes and a stone alignment pertaining to the outer enclosure of the dwellings. All date from the more recent occupation period, from the 1st century BC to the 1st century AD.

Barruti gotortuaren barruko aldean eraman dira burura indusketa lanak. Lan horietan handitu egin da irekitako gunea bere ekialdetik, gutxi gorabehera 2 x 15 m-ko beste zerrenda batean. Horri esker, alde horretako etxebizitzetako itxitura hormak identifikatu ahal izan ditugu, alde horretan lehendik identifikatutako paldo zuloen errenkadek segida dutela egiaztatu ondoren.

Los trabajos de excavación se han llevado a cabo en el interior del recinto fortificado y han consistido en la ampliación del área abierta sobre una banda de aproximadamente 2 x 15 m, situada en su lado oriental. Ello ha servido para localizar los cierres de las viviendas existentes en la zona, tras comprobar la continuidad en ese mismo lado de las líneas de agujeros de poste identificadas con anterioridad.

Bolunburu. Kastro barruko indusketa eremu handituaren ikuspegi orokorra.

Bolunburu. Vista general de la ampliación del área de excavación en el interior del castro.

Indusketa lanetan zehar harrizko itxitura horma bat eta kastroaren barruko terrazan induskatutako beste zortzi paldo zulo identifikatu ahal izan dira, zulo horietako batzuk segur aki etxebizitzetako perimetroko hormei eusteko euskarriak izango direlarik. Hormak guztiz desagertuta daude higaduraren ondorioz, baina aipatutako hormetako koltzazko paretetatik etorritako buztinezko zati erre batzuk berreskuratu ahal izan genituen batez ere C4 etxebizitzako zokaloaren kanpoko aldean, ikatz zati txikiak eta errautsak zeuzkan sute maila baten baitan. Lortutako datu berriekin hiru etxebizitzaren (C4, C1 eta C2) oinplanoa mugatu ahal izan dugu, formaz angeluzuzenak eta trapezio itxurakoak dira. Lerrokatuta daude, mehelinak partekatzen dituzte. Hasierako kanpainetan zehar bildutako informazioari esker badakigu etxebizitza horietan sartzeko baoa mendebaldean izaten zutela, eta beheko sua atetik gertu. Barruti horien neurriak oinplanoan berdintsuak dira, batez beste 8,5 m luze dira eta 4,50 eta 3,20 m bitarte zabal. Neurri horiekin gutxi gorabehera 30 m^2 izango zituzten erabilgarri barruan, eta beraz, hasieran haien oinplanoa soilik partzialki ezagutu genuenean kalkulatu genuena baino dezente gehiago.

Aurten bakartu ditugun etxebizitzak herrixkaren okupazioaren faserik berrienean kokatu behar ditugu, betiere kontuan izanik kastro hau K.a. I. mendearen bigarren erdialdearen eta K.o. I. mendearen artean kokatzen dela.

En el curso de la excavación se ha podido identificar un cierre de piedra y ocho nuevos agujeros de poste excavados en la terraza interior del castro, algunos de los cuales corresponden seguramente a los apoyos de las paredes perimetrales de las viviendas. Los alzados han desaparecido completamente por efecto de la erosión, pero se han podido recuperar varios fragmentos de barro cocido que proceden de los muros de zarzo de dichas paredes, localizados especialmente en el exterior del zócalo de la vivienda C4, dentro de un nivel de incendio que contenía pequeños carboncillos y cenizas. Con los nuevos datos obtenidos se ha podido delimitar la planta de tres viviendas (C4, C1 y C2), de forma rectangular y trapezoidal. Se disponen de manera alineada, con los muros medianiles compartidos. Como sabemos a partir de la información recabada durante las campañas iniciales, los vanos de acceso a las mismas se abrían en los muros correspondientes al lado oeste, con el hogar situado en las inmediaciones. Las dimensiones en planta de los recintos varían ligeramente, pero presentan una longitud media de 8,5 m y una anchura que varía entre los 4,50 y los 3,20 m. Con estas medidas se obtienen espacios interiores de aproximadamente 30 m^2, que se alejan de las estimaciones iniciales, mucho más modestas, calculadas cuando solo se conocía parcialmente su planta.

El horizonte al que se pueden adscribir las distintas viviendas individualizadas durante este año pertenece a la fase más reciente de la ocupación del poblado, que se sitúa entre la segunda mitad del siglo I a.C. y el siglo I d.C.

J.J. Cepeda-Ocampo

B.19.2. **Urrutia jauregia**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal

Finantzazioa: Zallako Udala

B.19.2. **Palacio Urrutia**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal

Financiación: Ayuntamiento de Zalla

The archaeological intervention carried out in Urrutia Palace in Zalla basically consisted of the intensive archaeological monitoring of the removal of various levels of rubble resulting from the collapse of the building after its abandonment. This intervention forms part of a global comprehensive restoration project aimed principally at halting the deterioration of various heritage elements located in the La Mella neighbourhood in Zalla. As well as preventing the definitive collapse of one of the building's façades, the intervention carried out in Urrutia is also enabling this magnificent example of architecture from the Modern Era to be documented

Zallako Urrutia jauregian bideratutako esku hartze arkeologikoan, funtsean zorrotz kontrolatu genituen abandonatua gertatu ondoren higiezinak jasandako kolapsotik etorritako zaborrezko mailak ateratzeko lanak. Esku hartze hau eraberritze integraleko proiektu orokor baten zati da, eta proiektu horren helburua da Zallako La Mella auzoan dauden ondare elementu batzuen hondamena geldiaraztea. Urrutia jauregian bideratutako esku hartzea ahalbidetzen ari da, fatxadetako batzuk betikoz behera etortzea eragozteaz gain, Aro Modernoko arkitektura zoragarri hau behar bezala dokumentatu ahal izatea.

Urrutia familia XVI. mendearen erdialdera egokitu zen Cadagua ibaiaren alde honetan, La Mella auzoko izen bereko familiarena zen etxetzar zahar baten hondakinetan. XVI. mende amaieran leinua berrosatuta (Urrutia de la Mellaren Orubea izena hartuko zuen), gaur egun ikus dezakegun jauregi zoragarriaren hondarrak ekarriko zituzten etengabeko eraberritze lanak abiarazi zituzten. Onibarra beste elementu batzuek ere osatzen zuten, esate baterako, 1673ko kaperak, hiru olak, errota batek eta beste ondasun batzuek. Eraikin nagusiak errege bidearen alde bietan egokitzen ziren kubo eta horma batzuek zedarriztaturik; horrek guztiak agerian uzten zuen familiaren nagusitasuna.

Baliteke Urrutiatarrek, jatorrian, XVI. mendeko orubean ziren elementu arkitektonikoak aprobetxatu izana. Urrutia y Llanoren arabera[43], XVI. mendean erantsi zioten harlanduzko fatxada nagusia, eta gainerakoa pixkanaka hondatu egin zen tuparriz eginda zegoelako eta zimendurik gabe. Baina gainerako egileek XVII. mende amaieran eta XVIII. mende hasieran kokatzen dute eraberritze handi hori, San Antonio eta Jasokundearen kapera eraiki zuten garai berberean. Fatxada nagusian birjarritako armarria baizik ez litzateke aurreko eraikin batekoa izango.

Zaharberritzeko lanetan, batez ere sendotu egin dira gure garaira arte zutik kontserbatu diren fatxadak. Geroago higiezineko elementu garrantzitsuenei balio handiagoa emateko urratsak egingo dira eta dagokion ingurunean berrintegratuko da jauregia. Lan horiek guztiak funtsezkoak dira eta izango dira eraikin historiko honen hondamen handiagoa saihesteko eta, ho-

[43] Urrutia y Llano, J.M. (1982). *Nota sobre el proyecto de declarar monumento histórico artístico al solar del linaje de Urrutia de La Mella (Barrio de la Herrera, concejo de Zalla) y subsiguiente conservación*. Dokumentu hori Bizkaiko Foru Aldundiari eta Zallako Udalari helarazi zaie.

La actuación arqueológica realizada en al Palacio Urrutia de Zalla ha consistido básicamente en un control arqueológico intensivo de la retirada de los niveles de escombro resultantes del colapso del inmueble tras su abandono. Esta intervención forma parte un proyecto global de restauración integral que tiene como objetivo principal paralizar el deterioro de varios elementos patrimoniales situados en el barrio de La Mella de Zalla. La intervención realizada en el Palacio Urrutia, además de evitar el desplome definitivo de algunas de sus fachadas, está permitiendo documentar su magnífica arquitectura de Época Moderna.

La familia Urrutia se asentó en esta margen del río Cadagua a mediados del XVI, sobre los restos de la antigua casona de la Mella pertenecientes a la familia del mismo nombre. Con la refundación del linaje a finales del XVI (pasará a denominarse Solar de Urrutia de La Mella) se inician las continuas reformas que dieron como consecuencia los restos del magnífico palacio que podemos observar en la actualidad. El mayorazgo llegó a estar integrado por varios elementos más, como la capilla de 1673, tres ferrerías, un molino y otros bienes. Los edificios principales se disponían a ambos lados del camino real jalonado por varios cubos y muros; lo que evidenciaba la supremacía de la familia.

Es posible que los Urrutia aprovechasen, en origen, elementos arquitectónicos del solar existente en el XVI. Según Urrutia y Llano[43] la fachada principal de sillería se añadiría en el siglo XVI; y el resto fue progresivamente deteriorándose al estar realizada con piedra margosa y sin cimientos. Pero el resto de autores abogan más por situar la gran reforma del palacio a finales del siglo XVII y principios del XVIII junto con la capilla de San Antonio y la Asunción. Únicamente el escudo de armas recolocado en la fachada principal pertenecería a una construcción anterior.

La restauración se ha centrado en la consolidación de las fachadas que han llegado hasta nuestros días. Posteriormente se efectuará la puesta en valor de los elementos más relevantes del inmueble y la reintegración del palacio en el entorno en el que se ubica. Todos estos trabajos son y serán fundamentales para evitar un mayor deterioro de esta construcción

[43] Urrutia y Llano, J.M. (1982). *Nota sobre el proyecto de declarar monumento histórico artístico al solar del linaje de Urrutia de La Mella (Barrio de la Herrera, concejo de Zalla) y subsiguiente conservación*. Documento remitido a la Diputación Foral de Bizkaia y al Ayuntamiento de Zalla.

Ezkerrean, oinplano orokorra behin Urrutia Jauregi barruan metatutako zaborrak atera ondoren. Eskuinean, goian, Urrutia Jauregiaren hegoaldeko fatxada. Eskuinean, behean, Urrutia Jauregiaren ekialdeko fatxada.

A la izquierda: planta general tras la retirada de los escombros acumulados en el interior del Palacio Urrutia. Desde arriba: fachada meridional del Palacio Urrutia. Derecha abajo: fachada oriental del Palacio Urrutia.

rrenbestez, ondare balio handiko aurkintza berezi hau egoki kontserbatzeko.

Jauregi barruan metatutako zaborrak ateratzeko lanen gaineko kontrol arkeologikora mugatu da esku hartze arkeologikoa. Zaborrak aterata xehetasun osoz behatu ahal izan dugu kontserbatutako egituren hondamen egoera, iparraldeko eta ekialdeko fatxaden zati handi bat desagertuta dagoela egiaztatu dugu. Ondorioz, kontserbatutako gainerako hormetara eta barruan hautemandako erabilera mailetara (jauregi barruko geletan kontserbatutako azken zoruak eta atxikiriko elementuak) bideratu ditugu gure ahalegin guztiak.

XVI. mende aurreko egiturak

Burura eramandako esku hartze arkeologikoak ez du aurreneko eraikuntza horiei lotutako elementuak argi eta garbi ezaugarritzeko aukerarik eman, batez ere kontuan baldin badugu kontserbatutako zati gehienetan, beheko mailetan, kalitate eskaseko harlangaitzezko hondakinak bereizten direla, piezak nahasian, etengabeko aldaketen eta aurreko materialen berrerabileraren ondorioz.

Inolako zalantzarik gabe, XVII. mendetik aurrera egingo zituzten aldaketak lehengo harlangaitzezko egituretatik abiatuta egin zituzten. Baliteke kalitate eskaseko horma horiek aurreneko eraikuntzarekin lotuta egotea. Hala eta guztiz ere, material eta markagailu kronotipologikorik eskaintzen ez dutenez, ezinezkoa da lehenengo fase horiek zehaztu ahal izatea. Kontserbatutako dokumentazioak aukera ematen du

histórica y conservar así este enclave singular de alto valor patrimonial.

La actuación arqueológica se ha centrado en el control arqueológico de la retirada de los escombros acumulados en el interior del Palacio. La extracción de los mismos ha permitido observar en detalle el estado de deterioro de las estructuras conservadas; evidenciando la desaparición de gran parte de las fachadas norte y este. Esto ha centrado los esfuerzos en el resto de los alzados conservados junto a los niveles de uso detectados en el interior (últimos suelos conservados en las estancias interiores del palacio y elementos adosados).

Estructuras anteriores al siglo XVI

La actuación arqueológica realizada no ha permitido caracterizar con claridad los elementos adscritos a estas primeras construcciones. Sobre todo si tenemos en cuenta que gran parte de los restos conservados presentan, en sus cotas inferiores, restos de mampostería de baja calidad muy desordenada fruto de modificaciones constantes y del reaprovechamiento de materiales precedentes.

Sin lugar a dudas las nuevas modificaciones que se realizan a partir del XVII se efectúan sobre mampostería previa. Es posible que estas fábricas de mala calidad puedan adscribirse a esta primera construcción. No obstante, la falta de materiales y marcadores cronotipológicos de las mismas impiden definir estas primeras fases. Sólo la documentación conservada permite situar, en el siglo XVI, la existencia de un solar

orubea (familiak erositakoa) XVI. mendean kokatzeko, bertan instalatuko ziren XVII. mendearen erdialdean aurreneko Urrutiatarrak.

XVII. mende amaiera, XVIII. mende hasiera

La Mellaren une gorena jauregia Antonio de Urrutia y Salazarren eta bere seme Juan de Urrutia y Achuriaga I.aren babesean egon zenean iritsi zen. Orduan bideratu zuten jauregia zaharberritzeko obra handia, fatxada nagusia harlanduekin eraikirik, alboetako fatxadak berriturik (gaur egun ikus ditzakegun baoak antolatuz) eta alboko eskailera eraikirik. Une horretan eraiki zituzten La Mella jauregiko eraikuntza kalitate handieneko elementu ia guztiak.

Kalitate handiko higiezin hori izan zen Urrutia familiaren hainbat belaunaldiren sortetxea eta etxebizitza. Familia horretan aipagarria da Jose Ramon de Urrutia y Las Casas (1739-1803), Espainiako armadako kapitain nagusia, Francisco Goyak egin zion erretratuari esker gerora ere oroitua izan dena.

XVIII. mendea. Urrutia familiak abandonatua XIX. mendearen lehen laurdenean

XVIII. mende osoan eta XIX. mendearen erdialdera arte, beste moldaketa lan batzuen xede izan zen Urrutia Jauregia, lan horietako batzuek higiezinaren jatorrizko oinplanoa gaindituko zuten.

Barruan aldaketa txiki batzuk hautematen dira. Zoruetan eta barruko geletan egindako aldaketa batzuk dira, eta bao batzuk itsutu zituzten. Aldaketa horiek barruko geletako batzuetan gertatutako erabilera aldaketa salatzen dute. Kasu guztietan dira kalitatezko moldatze lanak, eta beraz, pentsa genezake beheko solairuko barruko gelen zati handi batean oraindik ez zizkietela ateak zabaldu nekazaritza eta abeltzaintza jardueretatik etorritakoei (hori geroago gertatuko zen). Beheko aldean egindako aldaketetan ikus daiteke sarreratik urrutien dauden zeharkako hormarteak berritu zituztela, izan ere, aldaketak egingo zituzten sukaldean eta janaritegietan.

Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak iparraldeko eta ekialdeko zerrendetan eratxikitako egituretan metatuko ziren, errege bidetik ahalik eta urrunen eta larrainetara, baratzeetara eta inguruko mendietara erraz iristeko aldean. Inguru hori garbituta ogia egiteko labe bat eta biltegi aldeak dokumentatu ahal izan ditugu orain arte.

Garrantzitsuagoak dira fatxada nagusiaren ondoan kontserbatutakoak. Jauregia eta kapera inguratzen duten horma almenadunaz eta gezileihodunaz, alboko pasabideaz, zubiaz, kuboez eta gainerako egiturez ari gara. La Mella jauregiari eta multzoari erantsitako elementu horiek ere kalitatezkoak dira, eta beraz, agerian uzten dute Urrutia familiak pasabide horren aurrean zuen nagusitasuna.

XIX. mendearen erdialdetik orain arte

XIX. mendearen erdialdera arte ez zen behera etorriko jauregiaren une gorena; une horretan Urrutia familiak betikoz abandonatu zuen aurkintza.

(el comprado por la familia) en el que se instalan a mediados del XVII los primeros Urrutia.

Finales del siglo XVII principios del XVIII

El máximo esplendor de La Mella se producirá con el patrocinio de Antonio de Urrutia y Salazar y su hijo Juan de Urrutia y Achuriaga I. Es el momento en el que se producirá la gran reforma del palacio con la fachada principal de sillería, las fachadas laterales (con la ordenación de vanos que podemos ver en la actualidad) y la inserción de la escalera lateralizada. Se edificarían en estos momentos la casi totalidad de los elementos de mayor calidad constructiva de La Mella.

Este inmueble de gran calidad será lugar de nacimiento y morada de varias generaciones de la familia Urrutia entre los que destaca José Ramón de Urrutia y Las Casas (1739-1803), capitán general del ejército de España, que ha pasado a la posteridad retratado por Francisco de Goya (Museo del Prado).

Siglo XVIII. Abandono de la familia Urrutia en el primer cuarto del siglo XIX

Durante todo el siglo XVIII, y hasta mediados del siglo XIX, el Palacio Urrutia será objeto de nuevas reformas que excederán, incluso, la planta originaria del inmueble.

En el interior se aprecian modificaciones de pequeña entidad. Es el caso de algunas reformas puntuales en suelos, compartimentaciones interiores y amortizaciones de vanos; lo que denota cambios en los usos de algunas estancias interiores. En la totalidad de los casos son reformas de calidad lo que puede ilustrar la no entrada (hasta fases posteriores) de actividades agrícolas y ganaderas en gran parte de las dependencias interiores de la planta baja. Entre los cambios de estas compartimentaciones se aprecia la reforma de las crujías transversales más alejadas al acceso; ya que se producirán modificaciones en la zona destinadas a cocinas y zonas de almacenaje.

Las actividades agropecuarias se concentrarán en las estructuras adosadas en las franjas septentrional y oriental; alejadas lo máximo posible de la zona de paso del camino real y con acceso inmediato a las eras, huertas y monte circundante. La limpieza de las mismas ha permitido documentar, hasta el momento, un horno de pan y zonas de almacenaje.

Mayor entidad tienen los adosados conservados junto a la fachada principal. Es el caso del muro almenado con aspilleras, el paso lateral, puente, cubos y demás estructuras que rodean tanto al palacio como a la capilla. Estas nuevas incorporaciones al conjunto de La Mella y al palacio mantienen la calidad y, por lo tanto, la supremacía que la familia Urrutia realiza sobre el paso.

Mediados del siglo XIX hasta la actualidad

La fase de esplendor del palacio continúa hasta mediados del siglo XIX; momento en el que se produce el abandono definitivo del enclave por la familia Urrutia.

Une horretatik aurrera bideratutako moldatze lanen xedea izango zen higiezina erabilera berrietara (alokairuan jartzeko) egokitzea. Ez dirudi berritze lan horiek fatxada ukitu zutenik. Aitzitik, barruko egituretan bideratutako aldaketek (pareta berriak altxa baitzituzten) eragingo zuten egitura ahultzea, horrexegatik etorri zen behera teilatuaren zati bat 1965 eta 1977 bitartean. Une horretatik aurrera, materialen lapurretak lagundurik (horixe berresten du Urrutiatarren oinordekoetako batek 1982an –Urrutia y Llano, 1982–) etengabea izan da barruko eta perimetroko hormen kolapsoa.

Es a partir de este momento cuando las reformas efectuadas tienen como objetivo adecuar el inmueble a nuevos usos como el alquiler. No parece que estas reformas tuvieran su reflejo en las fachadas. Sin embargo las posibles modificaciones de la estructura interior (con nuevas tabiquerías) están detrás del debilitamiento de la estructura que provocó la caída de parte del tejado entre 1965 y 1977. Desde este momento el colapso de los muros interiores y perimetrales ha sido constant, ayudados por el robo de material, como así atestigua un descendiente de los Urrutia en 1982 (Urrutia y Llano, 1982).

J.Á. Fernández Carvajal

B.20. **ZARATAMO**

B.20.1. **Pradera Hermanoseko presa**

Zuzendaritza: José Ángel Fernández Carvajal
Finantzazioa: URA, Ur Agentzia

B.20.1. **Presa Pradera Hermanos**

Dirección: José Ángel Fernández Carvajal
Financiación: URA (Agencia Vasca del Agua)

Prompted by plans to construct a section of the Basauri-Galdakao canal, which channels the Nervión-Ibaizabal river and runs between Bengoetxe and Plazakoetxe, a historical-archaeological study was conducted of the water wheel belonging to the Pradera Hermanos factory in Zaratamo.

Nerbioi-Ibaizabal ibaia bideratzeko Basauri-Galdakaoko kanalaren tarte bat, Bengoetxe eta Plazakoetxe artekoa, egiteko lanen harira, Zaratamoko Pradera Hermanos fabrikaren presa txikiaren azterketa historikoa eta arkeologikoa egin genuen.

Hasteko, Pradera Hermanos fabrikaren Presari buruzko dokumentuak eta bibliografia bildu eta aztertu genuen ikuspegi askotatik (jatorria, garapena, konponketak, arazoak, narriadura, etab.). Lehenengo fase hori amaituta, lehenagoko planoak eta dokumentazio grafikoa bilatzen hasi ginen. Azkenik, zehatz miatu genuen egitura, eta miaketa lan horrek presaren gaur egungo egoeraren berri emateaz gain, elementuaren egungo diagnostikoa eskaini digu burutu beharreko obrek ukitu aurretik.

1857an baino pixka bat lehenago instalatu zuten Pradera Hermanos fabrika Zaratamoko Arkotxa auzoan, Benito eta Gregorio Pradera Maguregi markinarrek udalari lur eremu bat eskatu ziotenean ibaiaren eta errege bidearen artean. Udal artxiboan kontserbatzen den dokumentazioaren arabera, kobrezko xaflak galdatzeko fabrika bat egiten ari zen Gregorio Pradera. Uraren indarra aprobetxatzeko premia funtsezkoa zen fabrikaren interesentzat. Presa bi urte geroago egongo zen eraikita, 1859an, Bilboko Lehen Auzialdiko Epaitegiak jakinarazi zuenean Galdakaoko elizateko Jose Uriarteren gorpua aurkitu zutela.

Burura eramandako obretan desagerrarazi egin dute egituraren erdiko zerrenda. Zerrenda horretan

Con motivo de la ejecución de un tramo del canal Basauri-Galdakao del encauzamiento del río Nervión-Ibaizabal, el comprendido entre Bengoetxe y Plazakoetxe, se realizó el estudio histórico-arqueológico del azud perteneciente a la fábrica Pradera Hermanos de Zaratamo.

El estudio se ha centrado, en un primer momento, en una recopilación documental y bibliográfica de la Presa Pradera Hermanos desde múltiples puntos de vista (origen, desarrollo, reparaciones, problemática, deterioro, etc.). Tras esta primera fase se ha realizado una búsqueda de planimetrías y documentación gráfica anterior. Finalmente se ha completado con una prospección sobre la estructura que nos ha aportado la situación más reciente y un diagnóstico actual del elemento antes de la afección de la obra.

La instalación de la fábrica de Pradera Hermanos en el barrio de Arkotxa en Zaratamo se produce poco antes de 1857, cuando Benito y Gregorio Pradera Maguregi, originarios de Markina, piden al ayuntamiento un terreno entre el río y el camino real. Según dice la documentación conservada en el archivo municipal, Gregorio Pradera se encontraba realizando una fábrica de fundición de chapas de cobre. La necesidad de aprovechamiento de la fuerza hidráulica era fundamental para los intereses de la fábrica. El azud estaría construido dos años después, en 1859, cuando el Juzgado de Primera Instancia de Bilbao nos informa del hallazgo del cuerpo sin vida de José de Uriarte vecino de la anteiglesia de Galdakao.

Las obras realizadas han consistido en la retirada de la franja central de la estructura. Esta se caracteri-

kontserbatzen ziren, oso egoera txarrean, bi horma bular eta hustubide bat. Horiek kenduta (bildutako ur kopurua gutxitzea ekarriko zuen) ongi asko dokumentatu ahal izan dugu egitura.

Obren gaineko jarraipen arkeologikoak ez zuen elementu interesgarririk eskaini. Hori bai, egituraren eskuinaldea oso egoera txarrean zegoela ikusi genuen, galduak ditu gailurreko lauza guztiak. Era berean, barruko egitura trinkoa, arkugainera, profil osoa eta presa eraiki ondoren ibaiak eragindako jalkin metaketa dokumentatu ahal izan genituen.

zaba por conservar los restos, muy deteriorados, de dos contrafuertes y un aliviadero. La retirada de los mismos (provocando la disminución del agua acumulada) ha facilitado la documentación de la estructura.

El seguimiento arqueológico de las obras no ha deparado la localización de elementos de interés. Únicamente se ha constatado el grado de deterioro que presentaba la estructura en su margen derecha, llegando incluso a perder la totalidad de las losas de la cumbrera. También se ha podido documentar el macizado interior, el trasdós, el perfil completo y la acumulación de sedimentos realizada por el río tras su construcción.

J.A. Fernández Carvajal, X. Padin Pagoaga, A. Ortega Franco

B.21. **ZEANURI**

B.21.1. **Hornidura berria Barazar, Saldropo eta Altzusta-Zubizabala auzoetara**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz

Finantzazioa: Bilbao Bizkaiko Ur Partzuergoa

B.21.1. **Nuevo abastecimiento a los barrios Barazar, Saldropo y Altzusta-Zubizabala**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz

Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

The main aim of this intervention was to photographically document and study the historic graffiti located in the Atxurra-Armiña cave, and to compare them with those found in Lumentxa and Abittaga caves. All three caves contain important works of graphic heritage, both in the form of Magdalenian parietal art and graffiti from the 18th to the 20th centuries.

Obren gaineko ikuskaritza eta kontrol arkeologikoan ikusi genuen bakunak eta arkeologikoki antzuak direla azaleraturiko zutabe estratigrafikoak. Begien bistakoa da haietan ez dagoela jarduera antropikoen, habitat ebidentzien edo lurraldearen ezein okupazioren zantzurik, ez eta kultura materialaren edo eraikuntza hondakinen aztarnarik ere. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da putzu artesiar txiki edo eraikuntza etnologiko tradizional bat dokumentatu izana, gaur egun ere erabiltzen baita. Egitura hori osoosorik babestu zen.

La supervisión y control arqueológico de las obras ha puesto de manifiesto la existencia de columnas estratigráficas sencillas y arqueológicamente estériles En todo el trazado se pone de manifiesto una ausencia total de actividad antrópica, evidencias de hábitat u ocupación del territorio, así como de restos de cultura material o evidencias constructivas. Tan sólo cabe destacar la documentación de un pequeño pozo artesiano o construcción etnológica tradicional, en uso en la actualidad y cuya fábrica fue preservada íntegramente.

M. Lerín Sanz

B.22. **BESTE BATZUK / VARIOS**

B.22.1 **Grafiti historikoen azterketa Abittaga (Amoroto), Atxurra-Armiña (Berriatua) eta Lumentxa (Lekeitio) leizeetan**

Zuzendaritza: Iñaki Libano
Finantzazioa: Berak finantzatua

B.22.1. **Estudio de grafitos históricos en las cuevas de Abittaga (Amoroto), Atxurra-Armiña (Berriatua) y Lumentxa (Lekeitio)**

Dirección: Iñaki Libano
Financiación: Propia

Intervention with results of no historical-archaeological interest.

2016an hasi ginen, Diego Garate Maidaganen ikerketa proiektuaren esparruan, Atxurra-Armiña (Berriatua) kobazuloko aro historikoko grafitiak dokumentatzen. Proiektu hori, hasiera batean Jose Migel Barandiaranek utzitako ebaki estratigrafikoak garbitzeko eta arkeologikoki induskatzeko lanetara mugatuko zena, aurkitutako labar artea aztertzeko lanetara eta diziplina anitzeko azterlan sorta bat egitera lerratuko zen gero, eta kobazuloa azken urteetan aurkitutako Madeleine aroko labar artearen santutegi garrantzitsuenetako bat bihurtu zen. Kobazuloaren diziplina anitzeko azterlana osatuko zuten azterlanetako baten xedea izan zen grafiti historikoen azterketa, halakoak ugari baitira Atxurra-Armiña sisteman. Diego Garate Maidaganen zuzendaritzapean egindako labar artearen aurkikuntzak Bizkaiko labar artearen multzo handiena irudikatzen du. Bertako irarlanak eta atxikiriko aztarnategi arkeologikoa azken urteetan Euskal Herrian egindako aurkikuntza garrantzitsuenen zati dira. Barrunbean komunikatzen diren bi kobazulok osatutako sistema hori behin eta berriz bisitatu dute XX. mende hasieratik Lea-Artibai ondoko udalerrietako biztanleek eta kobazuloak esploratzeko eta hartz hondakinak aurkitzeko edo oroigarri gisa estalaktita zatiak eramateko irrika duten abenturazaleek. Bisitari horietako askok eta askok beren sinadura eta data idatzi edo irarri zituzten kobazulo barruan.

Grafiti horiek argazki bidez dokumentatzea eta horien azterketa historikoa egitea planteatu genuen dokumentatutako grafiak ondoko udalerrietako egungo biztanleekin lotzeko eta alderdi hori ezagutarazteko; izan ere, kobazuloetako labar arteari buruzko azterlanetan gehien-gehienetan bazterrean uzten dira ha-

En 2016 comenzamos a documentar los grafitis de época histórica de la cueva de Atxurra – Armiña (Berriatua), en el marco del proyecto de investigación de Diego Garate Maidagan. Este proyecto, centrado inicialmente en la excavación arqueológica y limpieza de los cortes estratigráficos que dejó José Miguel de Barandiaran, derivó posteriormente en el estudio del arte parietal descubierto y en una serie de estudios multidisciplinares, convirtiéndose en uno de los santuarios de arte rupestre de época Magdaleniense más importante, descubierto en los últimos años. Uno de estos estudios que complementaban el estudio multidisciplinar de la cueva fue el de los grafitis históricos, que en gran cantidad contenía el sistema de Atxurra-Armiña. Los hallazgos de arte parietal descubiertos bajo la dirección de Diego Garate Maidagan, representan el conjunto parietal más numeroso de Bizkaia. Sus grabados y yacimiento arqueológico asociado, forman parte de los descubrimientos más importantes realizados en los últimos años en el País Vasco. Este sistema de dos cuevas que se comunican en el interior, ha sido desde principios del siglo XX muy visitado por los habitantes de los municipios cercanos de Lea-Artibai y por aventureros deseosos de explorarlas y de encontrar restos de osos o llevarse estalactitas de recuerdo. Muchos de estos visitantes dejaron escrito o grabado su paso por la cueva con su firma y fecha.

Su documentación fotográfica, así como el estudio histórico de estos grafitis, era el objetivo planteado para poner en relación las grafías documentadas con los actuales habitantes de los municipios cercanos y dar a conocer este apartado, que en la mayoría

Teknika fotogrametrikoekin eta dagokion kalkoarekin landutako panelaren sekzioa. Lumentxa haitzuloa. (Fotogrametria: Antonio Torres eta Loli Mesa. Kalkoa I. Libano).

Sección del panel trabajado con técnicas fotogramétricas con su calco correspondiente. Cueva de Lumentxa. (Fotogrametría: Antonio Torres y Loli Mesa. Calco I. Libano).

lakoak. Eta beste helburu bat zen kobazuloak XVIII. mendetik XX. mendera arte bisitatu zituzten pertsonaia ospetsuen grafiei balio handiagoa ematea.

Laneko testuinguru horretan, grafiti historikoei buruzko lan hori ondoko kobazuloetan ere egiteko aukera planteatu genuen, grafitien egileei eta Lea-Artibai eskualdearekin zuten harreman historikoari eta kulturalari buruzko datuak biltzeko. Lan hori burura eramateko aukeratu genituen kobazuloak Lumentxa (Lekeitio) eta Abittaga (Amoroto) izan ziren; izan ere biek dute ikertzaile talde berberak aurkitutako Paleolitoko labar artea.

Metodologia

Grafia historikoak aztertzeko, kobazuloetako hormak zehatz-mehatz miatzea eta aurkitutako grafiti historikoak dokumentatzea eta zerrendatzea planteatu genuen.

Miaketa

Hasteko, harrizko gainazal guztiak xehetasun osoz aztertzeko miaketa sistematiko bat bideratu genuen, ezagunak genituen irudiak berrikusi genituen eta beste toki batzuk miatu genituen grafiti berriak aurkitzeko eta identifikatzeko. Datuak biltzeko lan hori *in situ* eraman genuen burura, zehatz eta zorrotz, begiz behaturik. Horretarako, argi artifizial hotza erabili genuen, bateria autonomoekin, angelu egokia izateko aukera ematen dutelako eta, modu horretan, grafiti irarriak zein margotuak hautematen daitezkeelako. Esan bezala, zehatz eta zorrotz bideratu genuen begi bidezko miaketa, hormak, pertsona baten irismenaren altueran dauden sabaiak, herrestan sar daitekeen hutsuneak, arrakalak, eskalatzen iristen diren erlaitzak eta beste batzuk miatu genituen. Halaber, Paleolitoko artea duten euskarrietan egindako grafitiak dokumentatu genituen. Leku horietan guztietan dokumentatu ditugu grafitiak, baita leku ezkutatuenetan eta iristen zailenetan ere, baten bat ausartu baitzen horiek bisitatzera eta bisitaldi horren lekukotasuna uztera.

Dokumentazioa grafikoa eta idatzia

Begi bidezko miaketa lanak amaituta, argazki bidezko dokumentazioa eta, kasuren batean, dokumentazio fotogrametrikoa landu genuen, baita unitate grafikoen eta konposizio unitateen idatzizko dokumentazioa ere. Grafitien multzoari begira, bi erregistro maila bereizi ditugu. Oinarrizko erregistro maila bat, motiboek berek, bakarka hartuta, osatua: unitate grafikoa (grafitiak banan-banan hartuta); eta motiboen testuinguruaren erregistro maila, irarritako panel bakoitzean hatzen duten tokiaren arabera: konposizio unitatea (grafitiak multzoan hartuta). Modu horretan kobazuloetako topografian luzetara banatu ditugun aldeetan edo guneetan kokatuko genituen grafitiak.

Argazki bidezko dokumentazioak, alde batetik, unitate grafiko bakoitza du xede, eskalarekin edo gabe, xehetasun handiko makroargazkiak barne hartuta hala behar izanez gero, eta bestetik, konposizio unitateak ditu xede grafitiak dauden leku bakoitzaren ikuspegi orokor bat izateko. Argazki guztiak egin dira, alde batetik, kamerari erantsitako flash argiaz, eta bestetik, ze-

de los casos de estudio de arte parietal en cuevas, es obviado, así como poner en valor las grafías de visitantes ilustres que históricamente las visitaron desde el siglo XVIII al XX.

En este contexto de actuación planteamos la posibilidad de hacer el mismo trabajo sobre grafitis históricos en cuevas cercanas, con el objetivo de recopilar datos relativos a sus autores y su relación histórica y cultural con la comarca de Lea- Artibai. Las cuevas que se eligieron para este trabajo fueron Lumentxa (Lekeitio) y Abittaga (Amoroto) ambas además con arte rupestre paleolítico también descubierto por el mismo equipo de investigación.

Metodología

Para llevar a cabo el estudio de grafías históricas, se planteó la prospección exhaustiva de las paredes de las cuevas y la documentación e inventariado de los grafitis históricos descubiertos.

Prospección

Inicialmente se realizó una prospección sistemática de reconocimiento detenido de todas las superficies rocosas, centrándonos tanto en la detección de las representaciones conocidas como en los espacios restantes para identificar y descubrir nuevos grafitis. La labor de esta toma de datos se desarrolló *in situ* de una manera concisa mediante la observación visual. Para ello se utilizó iluminación artificial fría con baterías autónomas para disponer del ángulo apropiado por medio de su posicionamiento y, de esta manera, detectar los grafitis tanto grabados como pintados. La prospección visual se ha realizado minuciosa y detalladamente. Paredes, techos en la medida que quedan a la altura del alcance de una persona, huecos donde se puede entrar reptando, grietas, repisas a las que se accede escalando, etc. Incluso se han documentado grafitis sobre aquellos soportes con arte paleolítico. En todas estas zonas hemos documentado grafitis, incluso en los sitios más recónditos e inaccesibles hubo alguien que se aventuró a visitarlo y allí dejó constancia de ello.

Documentación gráfica y escrita

Tras la prospección visual, se procedió a la documentación fotográfica y en algún caso fotogramétrica, así como a la documentación escrita de las unidades gráficas y compositivas. Hemos establecido dos niveles de registro para el conjunto del repertorio de grafitis. Un nivel básico establecido por los propios motivos individualizados: unidad gráfica (grafitis individualizados) y un nivel de contextualización de los motivos dentro de cada uno de los paneles grabados: unidad compositiva (grafitis en conjunto) y, de esta forma, poder ubicar estos dentro de las zonas que hemos distribuido longitudinalmente sobre la topografía de las cuevas.

La documentación fotográfica se centra, por un lado, en cada unidad gráfica con y sin escala, incluyendo macrofotografías de detalle si lo requiere y por otro, en las unidades compositivas para obtener así una visión global de cada zona de grafitis. Todas las fotografías se han realizado, por un lado, con flash incorporado a la cámara y, por otro, con luces indirec-

Atxurrako grafiti historikoetako bat. «J sektorea, zaldien erlaitza» paneleko zaldien gainean dago. Egile beraren beste bi grafiti identifikatu ditugu beste sektore batzuetan, ezagutzen ditugu haren abizena eta grafitiak egindako data: J.M. Natxiondo 1960 (Argazkia: Diego Garate).

Uno de los grafitis históricos de Atxurra. Se encuentra encima de los caballos del «sector J repisa de los caballos». De su autor hemos localizado otros dos grafitis en diferentes sectores, descubriendo su apellido y la fecha en la que los realiza. J.M. Natxiondo 1960. (Foto Diego Garate).

harkako sestra argiez, emaitza positiboak lortzeko eta haietako bakoitzaren hainbat irudi edukitzeko. Ikatz, arkatz, argiztatzeko lanparetako olio edo pintura baliatzeko teknikekin egindako grafitiei dagokienez, kamerari aurreko aldean erantsitako flash argia izan da emaitza onena eskaini duena. Aitzitik, labana, eztena edo besterik gabe harri baten ertz zorrotza baliatzeko teknikarekin egindako irarlanei dagokienez, zeharkako sestra argiekin lortu dira emaitza onenak.

Lehengoratze grafikoa

Grafitiak oso hondatuta zeuden kasuetan Image-J©, D-Stretch© plugin bidez aztertu genituen horiek, oso emaitza positiboak eskaini zituen teknika horrek grafiti batzuk irakurri ahal izateko. Teknika horren aplikaziotik etorritako emaitzak oso lagungarriak izan dira eduki grafikoa behar bezala irakurtzeko.

Fotogrametria

Bestalde, euskarriaren bolumenak eskatzen zuen kasu jakin batzuetan, horien lehengoratze tridimentsionala landu genuen 3D-ko ereduak sortuz AgisoftPhotoScan Professional© softwarearen laguntzaz. Labar arteari buruzko azterlanetan oso erabiliak diren teknika horiei esker, gure kasuan ere grafitiak lehengoratzeko oso datu garrantzitsuak lortu ditugu, hiru dimentsioko ereduak eta oso kalitate eta xehetasun maila handiko argazkiak egiteko balio baitute eta horiekin grafitien irakurketa ahalbidetzen duten kalkoak egin baitaitezke.

Lehen emaitzak

Emaitzak lortzea, alde batetik, miaketa sistematikoaren araberakoa izan da, miaketa sistematikoa izan baita grafitiak aurkitzeko estrategia nagusia, eta bestetik, horiek guztiak laborategian aztertzeko lanaren araberakoa. Lan hori nekeza gertatu da, hiru kobazuloetan aurkitutako grafiti kopuru handiak horiek

tas rasantes para conseguir resultados positivos y tener varias tomas de cada uno de ellos. Para los que están pintados con técnicas diversas como carbón, lápiz, aceite de las lámparas de iluminación o pintura, el mejor resultado ha sido el flash incorporado a la cámara frontalmente. En cambio, para los grabados con diferentes tipos de instrumentos punzantes como navaja, lezna o simplemente el canto afilado de una piedra, los mejores resultados se han obtenido con luces indirectas rasantes.

Restitución gráfica

También se ha utilizado, en algún caso en el que los grafitis estaban muy deteriorados, el tratamiento de imágenes mediante el plugin para Image-J©, D-Stretch©, con resultados muy positivos para la lectura de alguno de los grafitis. Los resultados derivados de esta técnica han sido de gran ayuda para la correcta lectura del contenido gráfico.

Fotogrametría

Por otro lado, en determinados casos en los que el volumen del soporte lo precisaba, se recurrió a la restitución tridimensional de los mismos mediante modelados 3D a través del software AgisoftPhotoScan Professional©. Mediante estas técnicas, muy utilizadas en los estudios de arte rupestre, se han conseguido también en nuestro caso, datos muy importantes de restitución que sirven para poder realizar modelos tridimensionales y fotográficos de detalle de muy alta calidad, con los que poder realizar calcos que facilitan la lectura de los grafitis.

Resultados preliminares

La obtención de los resultados ha dependido, en primer término, de la prospección sistemática como principal estrategia para localizarlos y el análisis completo de todos ellos en laboratorio. Este trabajo ha sido bastante laborioso puesto que la gran cantidad de grafitis localizados ha supuesto un esfuerzo considerable

15. sektorea. Ezkerrean, irrimarraz egindako grafitia, data eta egilearen izena. Eskuinean, aurkitutako grafiti historikoak, oso ongi landuak. «1882».

Sector 15. A la izquierda grafiti con caricatura, fecha y nombre de su autor. A la derecha, grafitis históricos, muy cuidados en su realización «1882».

zerrendatzeko ahalegin berezia eskatu baitu, izan ere, Atxurra-Armiñan gutxi gorabehera 2.000 grafiti bereizi ditugu, Lumentxan 1.069, eta Abittagan 116. Azterlan honen beste helburu bat zen, Lumentxa eta Abittaga kobazuloetako hormetan eta Atxurra-Armiña sistemako kobazuloetako hormetan dauden irudi grafikoen bidez, bisitariekin loturarik ba ote zuten zehaztu ahal izatea.

Grafitiak egiteko erabili zituzten baliabide teknikoak askotarikoak izan ziren: grafitozko punta duen arkatza, ikatz ilintiak, kaltzitazko ilintiak, pintura plastikoa, argiztatzeko lanparetako olio karbonatatua, objektu zorrotzekin paretetan egindako irarriak eta argiztatzeko lanparetako keaz egindako grafitiak bereizten dira.

Grafiti zaharrenak, XVIII., XIX. eta XX. mende hasierakoak, askoz hobe landuta daude. Aipatzekoa da grafia horien kaligrafia, ia denak daude horma berean dauden beste batzuk errespetatuz eginda. Ia bakar bat ere ez zaio beste bati gainjartzen, eta ongi landuta daudenez halako balio artistikoa dutela esan behar dugu. Izan ere, horiek egiteko halako plan bat hautematen da, alegia, leku egokia bilatu eta prestatu zutela grafitia aukeratutako tokian behar bezala gera zedin.

Aitzitik, grafia berrienetan bandalismo dosi handi bat dagoela ikus daiteke. Lehendik zeudenak estaliz eta ezabatuz eginda daude. Ez dute eta ez dute bilatzen grafiti zahar gehienetan hautematen den xehetasun artistikoa, eta ez dituzte kobazuloko formazio geologikoak errespetatzen.

Atxurra-Armiña (Berriatua)

Atxurra-Armiña kobazuloetan antzeman eta zerrendatu ditugun gutxi gorabehera 2.000 grafitiak behar bezala dokumentatzeko, 30 sektore banakatutan zatitu genuen bi kobazuloen luzera, Atxurra-Armiñako bi sarreretatik amaiera puntura arte. Modu horretan behar bezala kokatuko genituen sistemaren luzera osoan zehar unitate grafiko eta konposizio unitate guztiak, alboetako paretetan bereizirik dauden formazioetan daudenak eta galerietako sabaian bertan daudenak.

de inventariado y catalogación en las tres cuevas, localizando unos 2000 en Atxurra-Armiña, 1069 grafitis en Lumentxa, 116 en Abittaga. Otro de los objetivos que se buscaba en este estudio, era el de poder determinar, por medio de estas representaciones gráficas en las paredes de las dos cuevas de Lumentxa y Abittaga y el sistema de Atxurra-Armiña, si tenían conexión con sus visitantes.

Los medios técnicos que se utilizaron para realizar los grafitis fueron variados; lápiz con punta de grafito, tizones de carbón, tizones de calcita, pintura plástica, aceite carbonatado de las lámparas de iluminación, grabados con objetos punzantes sobre la pared o grafitis con el humo de las lámparas de iluminación.

Los más antiguos, de los siglos XVIII, XIX y principios del XX, son mucho más cuidados con respecto a su ejecución. Destaca su caligrafía y casi todos ellos están realizados respetando a los adyacentes que se encontraban en la misma pared. Prácticamente ninguno se superpone y su cuidadosa realización les da cierto valor artístico. Denotan un cierto plan de realización, una búsqueda del sitio apropiado e incluso una preparación para que el grafiti quede adecuadamente colocado en el lugar elegido.

Por el contrario, en las grafías más modernas hay una dosis importante de vandalismo. Se realizaron tapando e incluso borrando a las anteriores. No tienen, ni buscan el detalle artístico que se detecta en la mayoría de los más antiguos y no respetan las formaciones geológicas de la cueva.

Atxurra-Armiña (Berriatua)

Para llevar a cabo la correcta documentación de los 2000 grafitis aproximados que hemos detectado e inventariado en la cueva de Atxurra- Armiña, dividimos la longitud de ambas, en 30 sectores individualizados, desde las dos entradas Atxurra-Armiña hasta su finalización, y así ubicar correctamente todas las unidades gráficas y compositivas en todo el recorrido longitudinal del sistema y en las formaciones que se encuentran separadas de las paredes laterales y en el mismo techo de las galerías.

Isabel II.aren eta bere segizioaren grafitiak: 1º Ysabel 2ª 1868», 2º «Julian Fernan 2º ofic. de S. M.», 3º «Antonio Bravo cocinero de S. M», 4º Carlos Faral… J Ramillete de S. M. Eduardo López y Juan Gómez 27 de agosto de 1868».

Grafitis de Isabel II y su sequito de acompañamiento: 1º Ysabel 2ª 1868», 2º «Julian Fernan 2º ofic. de S.M.», 3º «Antonio Bravo cocinero de S.M», 4º Carlos Faral… J Ramillete de S.M. Eduardo López y Juan Gómez 27 de agosto de 1868».

5.500 argazki egin eta 23 lanegun eman dira Diego Garate Maidaganen taldeak 2016tik 2020ra arte kobazulo sistema honetan egindako kanpainetan. Kontuan izanik Atxurra-Armiña sistema honetako grafiti kopuru handia, antzemandako grafia guztiak zerrendatzeko fasean gaude oraindik.

Lumentxa (Lekeitio)

Lumentxa haitzuloan 7 sektore banakatutan zatitu genuen bere luzera osoa unitate grafiko eta konposizio unitate guztiak behar bezala kokatu ahal izateko. Modu horretan behar bezala jakin dezakegu haitzuloaren luzera osoan non dauden unitate guztiak, alboetako paretetan bereizirik dauden formazioetan daudenak eta galerietako sabaian bertan daudenak barne hartuta. Emaitza horietatik ondorioztatzen da Lumentxa haitzuloan grafiti kopuru handiena biltzen duen aldea haitzuloaren luzeraren amaieran dagoela, hau da, «V., VI. eta VII.» sektoreetan.

"V.» sektorea da grafiti gehienak eta zaharrenak biltzen dituena. Halaber, emaitza horietatik ondorioztatzen da grafiti gehienak 1910etik 1920ra doan hamarraldian eginak direla. Agian urte horietan haitzuloak inoizko bisitari kopuru handiena izanarekin lotu behar da grafiti kopuru handi hori.

7 sektoreetan, guztira, 1.069 grafiti dokumentatu ditugu eta 2.525 argazki egin ditugu.

Lumentxa haitzuloko hormak sistematikoki miatzeko lanari esker, bi leku desberdinetan bereizi dugu *Antonino de Arrizubieta* dioen grafitia, 1766. urtean datatua, orain arte aurkitutako data aspaldikoena delarik. Bi grafiti izendun horiek, pertsona batek eta berak XVIII. mendean eginak, orain arte ez ziren ezagutzen, eta deigarria da oso haitzuloko bi sektore desberdinetan aurkitu izana, «IV. eta V.» sektoreetan.

Segur aski haitzuloa bisitatu zuen egun berean egin zituen «Antoninok» bi grafia horiek, grafitozko punta zuen arkatz bat erabiliko zuen, eta hori harrigarri samarra da garai hartarako. Datu horrek eta kaligrafia zainduak pentsarazten digu ongi hezitako per-

Se han realizado 5500 fotografías y se han invertido 23 días de trabajo en la cueva en las diferentes campañas llevadas a cabo por el equipo de Diego Garate Maidagan, desde 2016 hasta 2020. Dado el potencial de grafitis de este complejo Atxurra – Armiña, todavía estamos inventariando todas las grafías detectadas.

Lumentxa (Lekeitio)

En la cueva de Lumentxa, se han realizado 7 sectores individualizados en toda su longitud para poder ubicar correctamente a todas las unidades gráficas y unidades compositivas. De esta forma podemos saber dónde está cada uno de ellos en todo el recorrido longitudinal de la cueva y en las formaciones que se encuentran separadas de las paredes laterales, así como en el mismo techo. De estos resultados se deduce que la zona más grafiteada de la cueva de Lumentxa es la que está comprendida en la última parte de su recorrido, donde tenemos clasificados los sectores «V, VI y VII».

El sector «V», es el que más grafitis contiene y los más antiguos. También de estos resultados se deduce que la década de 1910 a 1920 es en la que más actividad de realización de grafitis se ha detectado, donde esa intensificación quizás tenga que ver con los años de mayor afluencia a la cueva.

En total, en los 7 sectores se han documentado 1069 grafitis y se han realizado 2525 fotografías.

El trabajo de prospección sistemática de las paredes de la cueva de Lumentxa nos ha permitido localizar en dos zonas diferentes el grafiti de *Antonino de Arrizubieta* que está fechado en 1766, siendo esta fecha la más antigua localizada. Estos dos grafitis nominales realizados por un mismo individuo en el siglo XVIII, no eran conocidos hasta la fecha y resulta llamativo que los hayamos descubierto en dos sectores diferentes de la cueva, «IV y V».

Probablemente «Antonino» realizó estas dos grafías el mismo día de su visita a la cueva y utilizó un lápiz de grafito, algo bastante extraordinario para la

tsona izan zela egilea. Bi grafitiek izugarrizko antza dute kaligrafiari eta tamainari dagokienez.

Isabel II en 1868 dio haitzulo honetako grafiti historiko ezagunenak. Segur aski erreginari laguntzen ziotenetako batek egina da. Badakigu erregina Lekeitioko herrira etorri ohi zela, eta dokumentatuta dago 1868an bertan izan zela. Atseden hartzera edo, dokumentuetan jasota dagoenez, bainuetxeetan edo Lekeitioko hondartzan «bainuak» hartzera joaten zenean, inguruko haitzuloak esploratzen zituen. Haitzulo honetan hamarren bat grafiti bereizi ditugu erreginari laguntzen zion segizioarekin lotuta, *Su Majestad*-en sukaldariak eta ofizial militarrek eginak. Azterlan honetan lortutako datu horiei esker badakigu Isabel II.a eta bere segizioa Lumentxa haitzuloan egon zirela *«20 días antes de su exilio a Francia» el 27 de agosto de 1868.»*

Era berean grafitiak egin zituzten Lumentxa haitzuloan Lekeitioko eragin handiko pertsona ospetsu batzuek, esate baterako Abaroa familiak, baita Víctor Luis de Gaminde, Anastasio Anduiza eta beste bizkaitar batzuek. Beraz, argi dago grafiti historiko horiek balio handiagoa ematen dietela haitzuloaren ondareari eta Lekeitioko historiari. Aisialdia haitzuloaren geologia ikusten ematen eta gozatzen zuten pertsona ospetsuen zuzeneko lekukotasunak dira.

Abittaga (Amoroto)

Haitzulo honetan «I.-II. sektoreak» eta «ikurrin sektorea» bereizi ditugu, azken horretan daude grafiti gehienak. Sektore horietatik kanpo 5 grafiti isolatu aurkitu ditugu, eta «I. sektorean» sartu ditugu sektore horretatik hurbil daudelako.

Abittagako grafitien katalogazioaren emaitza orokorrak (550 argazki egin ditugu) I., II. eta Ikurrin sektoreetan bereizitako 115 unitate grafikoetan islatzen dira. Datu horietatik ondorioztatzen dugu haitzulo honetan XIX. mendearen azken laurdenean eta XX. mendearen lehenengo hamarkadan eginak direla grafiti gehienak, eta 1970etik aurrera ez dela besterik egin. Deigarria da Abittagan egindako grafiti kopuru handiena 1895. urtean egin izana.

Konklusioak

Lan honen helburu nagusia izan da aurkitutako grafitien izaera definitzea eta, kasuren batean, grafitien eduki berriemailea eta historikoa interpretatzea. Emaitzak lortzea, alde batetik, miaketa sistematikoaren araberakoa izan da, miaketa sistematikoa izan baita grafitiak aurkitzeko estrategia nagusia, eta bestetik, horiek guztiak laborategian aztertzeko lanaren araberakoa. Lan hori nekeza gertatu da, hiru kobazuloetan aurkitutako grafiti kopuru handiak horiek zerrendatzeko ahalegin berezia eskatu baitu, izan ere, 1.069 grafiti bereizi ditugu Lumentxan, 116 Abittagan eta 2.000tik gora Atxurra-Armiñan.

Azterlan honen beste helburu bat zen, Lumentxa eta Abittaga kobazuloetako hormetan eta Atxurra-Armiña sistemako kobazuloetako hormetan dauden irudi grafikoen bidez, bisitariekin loturarik ba ote zuten época. Este dato, así como su cuidada caligrafía, nos hace pensar que era alguien con educación bastante desarrollada. Tienen un extraordinario parecido en cuanto a caligrafía y tamaño.

El grafiti histórico más conocido de esta cueva lo protagoniza *Isabel II en 1868*. Probablemente lo realizó alguien de su acompañamiento. Se conoce su afición a visitar el municipio de Lekeitio y está documentada su estancia en esa fecha. Solía explorar cuevas en los lugares donde acudía para descansar o según se indica «tomar baños de ola» en balnearios o en la playa de la villa de Lekeitio. En este estudio hemos localizado una decena de grafitis en relación con su séquito de acompañamiento, desde el cocinero de *Su Majestad* hasta oficiales militares. Con estos datos descubiertos en este estudio sabemos que Isabel II y su séquito estuvieron en la cueva de Lumentxa *«20 días antes de su exilio a Francia» el 27 de agosto de 1868.*

También dejaron grafitis en Lumentxa personalidades muy influyentes de la villa de Lekeitio, la familia Abaroa, de Bizkaia Víctor Luis de Gaminde y Anastasio Anduiza, etc. Con ello se demuestra que estos grafitis históricos revalorizan el patrimonio de la cueva y de la historia de Lekeitio. Son un testimonio directo de personalidades que disfrutaban de los ratos libres para contemplar la geología de la cueva.

Abittaga (Amoroto)

En esta cueva se han individualizado los «sectores I-II» y el «sector ikurriña», que es donde están la mayoría de los grafitis. Fuera de estos sectores sólo hemos localizado 5 grafitis aislados que los incluimos en el «sector I» dada su cercanía.

Los resultados generales de la catalogación de los grafitis de Abittaga con 550 fotografías realizadas han sido de 116 unidades gráficas individualizadas en los sectores I, II e ikurriña. Con estos datos deducimos que en el último cuarto del siglo XIX y primera década del XX, se produjeron la mayor cantidad de grafitis en la cueva y posteriormente a 1970 existe un vacío en la realización. Es llamativo que la mayor realización de grafitis en Abittaga se produjo en el año 1895.

Conclusiones

El objetivo principal de este trabajo ha sido la definición de la naturaleza y origen de los grafitis localizados y la interpretación, en algún caso, de su contenido informativo e histórico. La obtención de los resultados ha dependido, en primer término, de la prospección sistemática como principal estrategia para localizarlos y el análisis completo de todos ellos en laboratorio. Este trabajo ha sido bastante laborioso puesto que la gran cantidad de grafitis localizados ha supuesto un esfuerzo considerable de inventariado y catalogación en las tres cuevas, localizando 1069 grafitis en Lumentxa, 116 en Abittaga y más de 2000 en Atxurra-Armiña.

Otro de los objetivos que se buscaba en este estudio, era el de poder determinar, por medio de estas representaciones gráficas en las paredes de las dos cuevas de Abittaga, Lumentxa y el sistema de Atxu-

Abittagako grafitien «I. sektorea».

«Sector I» de grafitis de Abittaga.

zehaztu ahal izatea. Grafiti horiek dokumentaturik eta zerrendaturik argitu dugu alderdi ezezagun hori, izan ere, behin grafiti horiek aztertuta esan dezakegu kobazulo horiek bisitatu zituzten egile asko eta asko hiru kobazuloetan ibili zirela.

Grafiti historikoek beti izan dute halako «arbuio» bat, kobazuloen ikusgarritasuna zikintzeko eta hondatzeko aziotzat, eta kasu askotan, halakoak dauden haitzuloetan, Paleolitoko artea suntsitzeko ekintza gaitzesgarritzat hartzen baitira. Ez dago inolako zalantzarik behin eginda ez dagoela atzera egiteko biderik, bereziki horman ildaska sakonak eragiten dituzten objektu zorrotzekin irarritako grafitien kasuan, eta oso garestia litzatekeela lehen deskribatutako tekniken bidez margotutako grafitiak lehengoratzea.

«Atzera bueltarik gabeko» zirkunstantzia horietan dago oinarrituta gure azterlana. Proiektuaren helburua hasiera-hasieratik izan zen haitzulo horiek behar bezala kudeatzea eta horiek ongi dokumentatuta haitzulo horien alderdi historikoa sustatzea. Printzipioz interesik gabeko gaia dela ematen du, baina balio handikoa da haitzuloak aztertzeko, ezagutarazteko eta baita babesteko ere.

Datu garrantzitsu batzuk aurkitzeko aukera eman digu azterlan honek, izan ere, XVIII. mendetik aurrera haitzulo horietatik igaro ziren ondoko udalerrietako pertsona anonimoei buruzko datuak biltzeaz gain, egiaztatu ahal izan dugu haitzulo horietan izan zirela

rra-Armiña, si tenían conexión en relación a sus visitantes. Su documentación e inventariado nos ha permitido solucionar esta incógnita, y una vez finalizado su estudio, podemos afirmar que muchos de los autores que las visitaron fueron asiduos a las tres.

Los grafitis históricos han tenido siempre un relativo «desprecio», puesto que son una forma vandálica de ensuciar y deteriorar la espectacularidad de las cuevas y en muchos casos, de destrucción del arte paleolítico, en las cuevas que lo contienen. No cabe la menor duda, que una vez realizados, el proceso de vuelta atrás ya nos es posible, especialmente en el caso de los grabados con objetos punzantes que producen surcos profundos en la pared y, muy costoso en el caso de los pintados con cualquiera de las técnicas descritas.

Nuestro estudio está fundamentado en estas circunstancias, «de no retorno». El propósito desde el principio del proyecto, fue el de su gestión con el fin de potenciar, de esta manera, por medio de su documentación, esa vertiente histórica de estas cuevas, que en un principio pareciera un tema falto de interés, pero que posee un gran valor y potencial para su estudio, divulgación e incluso para su preservación.

Este estudio nos ha dado la posibilidad de descubrir importantes datos, no solo de las gentes anónimas de los municipios cercanos que pasaron por ellas a partir del siglo XVIII, sino que hemos podido constatar

aristokraziako pertsona oso ospetsuak, Bizkaiko politikariak eta enpresaburuak, eta XIX. mendeko abenturazale oso ezagunak. Behin grafitien izaerari eta grafiti horiek Lea-Artibai eskualdeko biztanleekin duten loturari buruzko analisi orokorra eginda, esan dezagun ikuspegi historiko batetik egindako lanaren uzta direla emaitza horiek.

Dokumentatutako, zerrendatutako eta aztertutako grafitietatik ateratako informazio horrek bisitari ezagunek eta anonimoek haitzuloetan egindako grafiti historikoen edukia sendotzeko eta inguruko kulturari eta historiari, kasu honetan Atxurra-Armiña, Lumentxa eta Abittaga haitzuloetako eta Berriatua, Lekeitio eta Amoroto udalerrietako kulturari eta historiari, balio handiagoa emateko balio behar du.

la visita circunstancial de gente muy importante de la aristocracia, políticos, empresarios de Bizkaia y aventureros muy conocidos del siglo XIX. Estos resultados responden al trabajo desarrollado desde la perspectiva histórica, una vez elaborada una primera fase de análisis general de la naturaleza de los grafitis y de su relación con los habitantes de Lea-Artibai.

Esta información extraída de los grafitis documentados, su inventariado y estudio, tiene un sentido para reforzar este contenido de manifestaciones de grafitis históricos del paso de visitantes conocidos y anónimos y su revalorización con respecto al potencial cultural e histórico de la zona y en este caso, de las cuevas de Atxurra-Armiña, Lumentxa y Abittaga y los municipios de Berriatua, Lekeitio y Amoroto.

I. Libano; S. Vega (Edestiaure Arkeologia Elkartea)

B.22.2. **Paleolitoko labar grafismoen miaketa arkeologikoa Bizkaiko Lurralde Historikoan (Lea-Artibai / Urdaibai)**

Zuzendaritza: Diego Garate
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.22.2. **Prospección de grafismos parietales paleolíticos en el Territorio Histórico de Bizkaia. (Lea-Artibai / Urdaibai)**

Dirección: Diego Garate
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

The 3rd season of archaeological prospecting of Palaeolithic cave art in the province of Bizkaia focused on caves in the Lea-Artibai and Urdaibai regions.

Kanpaina honetan 26 harpe miatu ditugu Urdaibai eta Lea-Artibai eskualdeetan Paleolitoko labar artea aurkitzeko asmoz, eta saiatu gara Pepetxo I (Amoroto) harpea aurkitzen, baina alferrik. Halaber, aurreko kanpainan aurkitutako San Pedro harpea (Busturia) miatu eta dokumentatu dugu, honetan ere badagoelako Paleolitoko labar artea. Lehenengo kanpainan miatutako harpe kopuru bertsua miatu dugu aurtengoan, izan ere, eskualde horietako harpe asko eta asko oso leku irisgarrietan daude aurreko urteetan atera genituen ondorioen arabera (harpeen kokapenei buruz ari gara itsas mailaren gaineko altuerarekiko). Harpe horietan argazkiak egin ditugu, dokumentazio topografikoa landu dugu (miatutako sektoreak adierazita) eta horietan dauden aztarna arkeologikoei eta paleontologikoei buruzko informazioa bildu dugu, baita eskain zitzaketen datu historikoei, geologikoei eta kulturalei buruzko datuak ere. Handia da bildutako datu kopurua.

Paleolitoko jarduera grafikoen aztarnei edo ebidentziei dagokienez, eta San Pedro kobaren kasua alde batera utzirik, esku hartze horren emaitza ezegokitzat jo daiteke, ez baita Goi Paleolitoan kokatu litekeen motibo grafiko argirik identifikatzerik lortu. Hala eta guztiz ere, hainbat orban gorri (jatorriz burdintsua) dokumentatu ditugu miatutako leizeetan, eta argazkiak egin dizkiegu; prozesu naturalen emaitza direla esan dezakegu huts egiteko beldurrik gabe. Arrasto natural horien presentziaren berri izateak aukera emango die etorkizuneko miatzaileei jakinaren gai-

En esta campaña, se han prospectado 26 cavidades de las comarcas de Urdaibai y Lea Artibai en busca de arte parietal paleolítico, además de la cavidad de Pepetxo I (Amoroto), que no pudo ser localizada. También se ha prospectado y documentado la cavidad con arte paleolítico de San Pedro (Busturia), localizada en la campaña anterior. El número de cuevas prospectadas ha sido similar a lo que se prospectó en la primera campaña, debido a la óptima localización de muchas de las cavidades de estas comarcas, en base a las conclusiones que sacamos en años anteriores (respecto a la altitud sobre el nivel del mar). En estas cavidades se ha tomado documentación fotográfica, topográfica (con indicación de los sectores prospectados) e información referida tanto a vestigios arqueológicos o paleontológicos existentes, como relativos a datos históricos, geológicos o culturales que pudieran ofrecer dichas cuevas. La cantidad de datos recabados es considerable.

En cuanto a vestigios o evidencias de actividades gráficas paleolíticas, y excluyendo el caso de la cueva de San Pedro, el resultado de esta intervención se podría calificar de no satisfactorio, ya que no se ha conseguido identificar ningún motivo gráfico claro atribuible al Paleolítico Superior. A pesar de esto, sí que hemos podido fotografiar y documentar diversas manchas rojas (de origen ferruginoso) en las cavidades prospectadas y que se pueden atribuir sin ningún problema a procesos naturales. El tener constancia de la existencia de estos vestigios naturales, permitirá a los prospectores

nean egoteko, arrasto horien kokapenak topografietan edo krokisetan adierazita baitaude.

Eta gogoan eduki behar dugu kanpaina honetan, hainbat kobazulotan, orain arte behar bezala dokumentatu ez diren aztarnategi arkeologikoak identifikatu ditugula, batzuk guztiz ezezagunak. Horien artean aipatzekoak dira Axpeko kobazuloan (Markina) okre prozesatuaren ebidentzia posibleak dituen erlaitz bat eta Santa Katalina II (Lekeitio) haitzulo barruko aztarnategia, giza okupazioaren aztarnak biltzen dituena, baina ezin izango ditugu fase zehatz batean kokatu erradiokarbono bidezko datazioak egin gabe.

Halaber, beste aztarnategi arkeologiko batzuk daude Lekeition, esate baterako, Larrotegi I-II haitzulo sistema, baina abandonu egoera orokorrean daude, eta ez dira kontuan hartu Lekeitioko hiria antolatzeko azken plan orokorra idazterakoan. Espero dezagun kanpaina honetan bildutako datuak erabakigarriak izatea interes arkeologiko handiko aztarna horiek babesteko, gaur egun babesik gabe baitaude eta guztiz abandonatuta.

Busturiko San Pedro kobari dagokionez, miaketa lanei esker mugatu ahal izan dugu harpeko multzo grafikoaren hedadura, irudi grafikoak galeria nagusian biltzen dira, harpeko sarreratik 115 eta 130 m bitarteko tartean. Multzoa bandera edo isuri formazioen gainean eta arroka amaren gainean egokitzen da, gorriz egindako ideomorfo bakunez osatuta dago, disko edo puntu handien (5 eta 15 cm bitarteko diametroarekin) formako ideomorfoez, segur aski ahoz putz egiteko teknikaz eginak. Ikonografiak, estiloak eta irudiak egiteko erak Goi Paleolitoaren hasierako faseak iradokitzen dituzte. Irudi horien (formazioen gaineko disko zerrendak) antzekoak ikus ditzakegu Kantabriako

que pudiera haber en el futuro estar al tanto de las mismas, ya que su ubicación ha sido señalada sobre las topografías o croquis.

También debemos recordar que en esta campaña se han localizado, en diversas cavidades, yacimientos arqueológicos poco documentados hasta la fecha, y en algunos casos inéditos. Destacaríamos la localización de una repisa con probables evidencias de procesado de ocre en la cueva de Axpe (Markina-Xemein) o un yacimiento con evidencias de ocupación humana en el interior de Santa Catalina II (Lekeitio), pero no nos será posible atribuirlas a una cronología concreta sin la realización de dataciones radiocarbónicas.

Asimismo, debemos señalar la existencia de otros yacimientos arqueológicos como el sistema de cuevas de Larrotegi I-II en Lekeitio, que se hallan en un estado de abandono generalizado, y no han sido tenidas en cuenta a la hora de redactar el último plan general de ordenación urbanística del municipio. Esperemos que los datos recabados en esta campaña resulten de utilidad para dar protección a estas evidencias de sumo interés arqueológico, a día de hoy desprotegidas y abandonadas.

En cuanto a la cueva de San Pedro de Busturia, las prospecciones han permitido acotar la extensión del dispositivo gráfico de la cavidad, la cual se desarrolla en la galería principal, a una distancia de entre 115 y 130 metros desde la boca de entrada. El conjunto se halla dispuesto sobre formaciones en bandera o en coladas, así como sobre la roca madre y está conformado por motivos ideomorfos simples en rojo, en forma de discos y puntuaciones de gran tamaño (entre 5 y 15 cm de diámetro) ejecutados seguramente mediante la técnica del soplado. Tanto la iconografía, como el estilo y el modo de ejecución apuntan a fases iniciales del Paleolítico Superior. Estas figuras

A.I.01 grafia multzoa hartzen duen bandera tolesaren aurpegi batetik ateratako ortoargazkia. Ezkerraldeko aurpegiak bertikalean egokitutako 4 diskok osatutako multzoa biltzen du, eta eskuinaldekoak beste 4 multzo biltzen ditu, barreiatuago, formazioaren tolesen artean.

Ortofotografía extraída de una cara del pliegue bandera sobre la que se asienta el grupo de grafías A.I.01. La cara izquierda agrupa un conjunto de 4 discos dispuestos verticalmente, mientras que en el lado derecho se distinguen otras 4 agrupaciones más dispersas entre los pliegues de la formación.

Candamo eta El Castillo leizeetan eta Frantziako Combe Negre, Travers de Janoye, Grotte Aux Points, Chauvet eta Pech Merle kobazuloetan. Halako grafiek eskuarki eskuen arrasto negatiboak izan ohi dituzte ondoan (San Pedro koban ez dago horrelakorik), eta inolako zalantzarik gabe lotzen dira Aurignac aldiaren eta Gravette aldiaren arteko kronologiekin (batez ere azken fase horretakoak dira gehienak). San Pedro kobako Paleolitoko pinturak kontserbazio egoera txarrean daude, berezko garbiketa prozesuek kaltetuta baitaude eta partzialki estaltzen baitituzte hartzen dituzten formazioek berek. Kontuan baldin badugu galeria nagusian barrena eta labarretako irudien oinetan lurpeko errekasto bat luzatzen dela, esan dezagun, hipotesi gisa bada ere, balitekeela gaur egun ikus ditzakegun irudiak kobak jatorrian izango zuen irudi multzo handiago baten zati bat baizik ez izatea.

Eskura dauzkagun datuen arabera, Urdaibai eta Lea-Artibai eskualdeetan pinturak dauzkaten 10 kobazulo daude, 5 eskualde bakoitzean. Kopuru hori guztiz zentzuzkoa da inguru honetako Goi Paleolitoko aztarnategien barreiadurarekin (14 leizetan giza okupazioaren aztarnak daude, eta horietatik seitan –Atxeta, Antoliña, Santimamiñe, Santa Katalina, Lumentxa eta Laminak II– elementu higigarri dekoratuak identifikatu dira). Kronologiaren ikuspegitik, eskualdeko Madeleine aldiko multzo grafiko batzuk apalak dira eta kontserbazio egoera txarrean daude (Morgota, agian Goikolau eta Lumentxa), beste batzuk tamaina ertaineko multzoak dira (Santimamiñe), eta badira hein batean ongi kontserbatu diren multzo handiak ere (Armintxe eta Atxurra). Hala eta guztiz ere, motiboen kontserbazio egoera eskasa izanagatik, badira Goi Paleolitoko fase zaharrean kokatu daitezkeen pinturak ere (San Pedro eta Ondaro). Azkenik, badira kronologiaren eta kulturaren ikuspegitik ezaugarritzen zailak diren beste multzo batzuk, horietan oso bakunak baitira motiboak (Antoliña eta Abittaga).

(bandas de discos sobre formaciones) se pueden observar en otras cuevas de la Región Cantábrica como Candamo, El Castillo, o en las cuevas francesas como Combe Negre, Travers de Janoye, Grotte Aux Points, Chauvet o Pech Merle. Se trata en todo caso de grafías que habitualmente suelen ir acompañadas de improntas de negativas de manos (ausentes en San Pedro), y se asocian, sin grandes reservas a cronologías que van desde el Auriñaciense hasta el Gravetiense, siendo en esta última fase cuando más abundan. La conservación de las pinturas paleolíticas de San Pedro se podría clasificar como deficiente, ya que se encuentran muy afectadas por los procesos naturales de lavado y parcialmente veladas por las formaciones sobre las que se asientan. El hecho de que la galería principal sea recorrida por un arroyo subterráneo, que discurre al pie de las figuras parietales, nos puede llevar a hipotetizar que los motivos que observamos hoy en día tan solo sean una parte del dispositivo original que albergaba la cueva.

A día de hoy, las comarcas de Urdaibai y Lea Artibai acogen un conjunto de 10 cuevas decoradas, 5 en cada comarca, coherentes con la dispersión de yacimientos del Paleolítico superior de la zona (con 14 cuevas con indicios de ocupación humana, de las cuales 6 -Atxeta, Antoliña, Santimamiñe, Santa Catalina, Lumentxa y Laminak II- presentan elementos muebles decorados). Cronológicamente, los dispositivos gráficos magdalenienses destacan en la región, con conjuntos modestos y a veces mal conservados (Morgota, quizás Goikolau y Lumentxa), conjuntos de tamaño medio (Santimamiñe) y los grandes conjuntos relativamente bien conservados de Armintxe y Atxurra. Sin embargo, y a pesar de la deficiente conservación de sus motivos, también existen dispositivos atribuibles a las fases antiguas del Paleolítico superior (San Pedro y Ondaro), mientras que otros conjuntos no son fáciles de caracterizar crono-culturalmente debido a la simpleza de sus motivos (Antoliña y Abittaga).

I. Intxaurbe; D. Garate; Mª Á. Medina-Alcaide; Á. Hidalgo de Cisneros

B.22.3. **Metropoli Hegoaldeko Saihesbidea. 9b-2 tartea. 1. eta 2. guneak (Bilbo / Arrigorriaga)**

Zuzendaritza: José Manuel Matés Luque
Finantzazioa: Seberetxe ABEE

B.22.3. **Variante Sur Metropolitana. Tramo 9b-2. Zonas 1 y 2 (Bilbao / Arrigorriaga)**

Dirección: José Manuel Matés Luque
Financiación: UTE Seberetxe

This watching brief was prompted by the construction of a motorway by-pass between Seberetxe and Bolintxu. It is an agricultural area, which explains the presence of modern debris and rubbish. The only two interesting findings were the identification of the (possibly) old path by Venta Alta (the inn on the traditional road between Arrigorriaga and Bilbao, located at the top of the hill), and two different stone walls that are somehow related to the maintenance of hill paths for farming purposes.

Batez ere Bilboko Seberetxe auzotik gertu dagoen aldean, *Seberetxe Bidea* errepidearen bi aldeetan, eragin zezaketen burura eraman beharreko obrek. Bide horrek Arrigorriaga eta Bilbo lotzen dituen BI-3723 errepidean du abiapuntua, AP-68 autobide gaineko zubira iritsi baino lehen.

La zona de afección principal corresponde con una zona próxima al barrio de Seberetxe (Bilbao) tanto a un lado y otro de la carretera *Camino de Seberetxe*. Se trata de una carretera que sale desde la BI-3723 que conecta Arrigorriaga y Bilbao, antes del puente sobre la autopista AP-68.

Ezkerrean, itxuraz terraza bat eratzen duen horma atal txikia. Muinoaren hegalean barrena luzatzen da. Eskuinean, horma atal handiaren xehetasunak. Badirudi hegalaren presioari eusten diola oinean duen bidea blokeatu ez dezan. 2 metro adierazten ditu zuin bertikalak.

A la izquierda, lienzo menor que parece componer un aterrazamiento. Se extiende a lo largo de la ladera. A la derecha, detalle del lienzo mayor que parece sujetar el empuje de la ladera para no bloquear el camino a sus pies. El jalón vertical indica 2 metros.

Obra horretan lur eremua moldatu behar zuten puntu horretan AP-68 autobidean sartzeko erreiak prestatzeko. Seberetxeko auzo gaineko muinoa zulatzen duen tuneletik atera eta Arrigorriagarantz daramaten erreiak dira[44] (tuneleko beste irteera/sarrera Bolintxu erreka ondoan dago). Beraz, obrak Bolintxu aldeko tunelaren sarreran, Seberetxe aldeko irteeran eta, puntu horretatik aurrera muinoaren hegal osoan eragin zezakeen AP-68 errepiderainoko tartean, BI-3723 errepideko zubibideraino.

Esku hartze hau 2019ko martxoan hasi eta 2020ko ekainean amaitu genuen, lanen gaineko kontrol arkeologikoa egin genuen obren eraginpeko lurretan gune berri bat induskatzen zuten bakoitzean, nola tuneletako tarteetan hala aipatutako erreien trazaduraren beharretara egokitzeko eraldatu egin den muinoaren hegalean. Kontuan eduki behar dugu AP-68 autobidea eraikitzeko lanetan zehar mugitutako lur asko eta asko (autobide hori ez zen erabilgarri egon 1977-1978 arte) egungo autobidearen bazterretan utzi zutela; albo horiek egungo lanetako behe aldeak dira, eta beraz, bigarren mailakotzat hartu behar dira depositu horiek.

Oro har, ez dugu kultura materialari dagokionez ezer interesgarririk aurkitu. Berreskuratu ditugu elementu batzuk, baina horiek adierazten diguten gauza bakarra horixe da, elementuak izan badirela, baina ez direla esanguratsuak. Kontuan eduki behar dugu landa eremua dela honakoa, baserriak eta nekazaritzari eta abeltzaintzari emandako beste egitura txiki batzuk daudela. Gainera, auzoko muinotik behera egiten duen amildegi txikiari eta inguruko beste puntu batzuei zabortegi eta hondakindegi erabilera eman izan zaie. Horrexegatik identifikatzen dira adreilu eta baldosa modernoen zatiak zaborrekin lotu beharreko beste elementu batzuekin nahasita. Ez genituen jaso inolako garrantzi arkeologikorik ez zutelako.

[44] Hegoaldeko saihesbidea hartzeko AP-68 errepideko irteera erreiak beste empresa bat ari da eraikitzen. Guk dakigula, ez dago lan horien gaineko kontrol arkeologikorik, eta beraz, ezin dugu deus esan horri buruz.

La obra consiste en la adecuación del terreno para preparar los carriles de acceso en ese punto a la AP-68. Son carriles en dirección a Arrigorriaga[44] tras salir por un túnel que perfora la colina situada sobre el núcleo de Seberetxe y que tiene la otra entrada/salida de túnel en el arroyo de Bolintxu. Por tanto, la afección incide en la entrada del túnel por Bolintxu, la salida del mismo por Seberetxe y toda la ladera desde ahí hasta la unión con la AP-68 hasta el viaducto de la carretera BI-3723.

La actuación se ha venido desarrollando desde marzo de 2019 concluyendo en junio 2020 mediante control de obra cada vez que se abría una nueva zona de toda la zona de afección, tanto en terreno de los túneles como en la ladera que se ha modificado para adecuarla a las necesidades del trazado de los carriles mencionados. Hay que tener presente que parte de la tierra movida durante la construcción de la AP-68 (que no estuvo lista hasta 1977-1978) fue depositada en los laterales de la actual autopista; estos laterales son zonas bajas de la actuación actual, por lo que estos depósitos han de considerarse como secundarios.

En conjunto, no se ha encontrado nada de interés en cuanto a cultura material. Se han recogido elementos pero son testimoniales de que efectivamente hay elementos pero no son destacables. Hay que tener presente que esta área es una zona rural, con presencia de caseríos y otras estructuras menores de uso agrícola y ganadero. Además, el pequeño barranco que baja de la colina del núcleo se ha usado como zona de basurero y vertedero así como otros puntos de la zona. Esto explica los restos de ladrillos y baldosas modernas así como otros elementos claramente asociados con basura que no se han recogido por carecer de interés arqueológico.

[44] Los carriles de salida desde la AP-68 para coger la variante sur son desarrollados por otra empresa para la que sepamos no existe control arqueológico así que no podemos decir nada al respecto.

Hori esanda, bi elementu identifikatu eta dokumentatu ditugu gure ustez halako interesa dutelako.

Elementu bat gure ustez Venta Alta (Arrigorriaga) Seberetxe auzoarekin lotzen zuen bide tradizionala denari dagokion aztarna da. Izan ere, alde horretan lurra kanal antzeko bat eratzeko moduan mugituta zegoela egiaztatu genuen, aldeak gorago zituela. 1945-46ko hegaldi amerikarrean egindako irudiak aztertuta bide bat hautematen da. Hain zuzen ere bat datoz kanalizazio horri in situ dagozkion GPS puntuak eta airetiko argazkietan ikusitako bidea. Datu horrek berretsi egiten digu bidearen presentzia. Hala eta guztiz ere, lurrezko bidea izango zen, ez baitugu lur eremuan bide hori urbanizatuko zukeen harrizko zoladura edo lauzak paratzeko moldaketa lan artifizialik bat ere identifikatu.

Beste elementu interesgarria, ustez auzo inguruko bideen gaiarekin lotuta dagoena, bi horma atalek osatzen dute. Horma independenteak dira eta posizio desberdinetan daude, baina oso gertu dago bata bestetik. Tamaina ertaineko kareharriz egindako hormak dira, harriak lehorrean eta horizontalean ipiniak. Guk uste dugu hormetako batek muinoaren presioari eusteko funtzioa betetzen duela, ez baitu auzotik muinoaren erdialderaino sigi-saga igotzen den bide xumea ixten.

Beste horma atala, muinoaren erdialdean, askoz ere baxuagoa da, baina luzeagoa. Itxura guztien arabera terraza antzeko bat edo bertan amaitzen den bide baten zati bat prestatzeko funtzioa betetzen du, ondoko baso txikiko zuhaitzek galarazita ez baitugu bide horren balizko jarraipenik aurkitu.

Bi horma atalak dokumentatu eta garbitu ondoren, haien zati bat induskatu dugu. Bietan txikiena, obraren eraginpeko eremuaren erdialdean dagoena, in situ gelditu da. Bestea eraitsi behar izan zuten tuneleko ahoa eraiki ahal izateko.

Dicho esto, si hay dos elementos que se han identificado y documentado y que presentan, creemos, cierto interés.

Uno, es la evidencia de lo que creemos corresponde con el camino tradicional que contectaba Venta Alta (Arrigorriaga) con el núcleo de Seberetxe. Efectivamente, se pudo comprobar la existencia de una alteración del terreno a modo de canal, con lados más elevados a ambos lados. Una comprobación de imágenes aéreas del vuelo americano de 1945-46 indican la presencia de un camino. Precisamente, la toma de puntos GPS in situ de esa canalización se corresponden con el camino visto en las fotos aéreas. Esto nos ratifica en la interpretación del camino. Sin embargo, se debió tratar de un camino de tierra ya que no se ha encontrado ninguna adecuación artificial del terreno a modo de solera de piedra o losas que urbanizaran tal camino.

El otro elemento de interés, y creemos que vinculado con el tema de los caminos de la zona del núcleo, corresponde a dos lienzos de muro distintos y en posiciones distintas aunque próximas. Se trata de lienzos a seco de piedra caliza de tamaño medio y en posición horizontal. Uno de los lienzos creemos que cumple la función de sujetar el empuje de la colina y no cerrar un pequeño camino que sube en zig-zag desde el núcleo del pueblo a la parte media de la colina.

El otro es un lienzo mucho menor en altura pero más largo, situado en esa parte media de la colina. Parece que su función es preparar una especie de terraza o parte de un camino que acaba en ese mismo lugar ya que no se ha encontrado continuidad por la presencia de árboles en el bosquecillo próximo.

Se han documentado ambos lienzos, realizando una limpieza y excavación de parte de los mismos. El más pequeño y situado en la parte media de la zona de afección ha quedado in situ. El otro tuvo que ser derribado por cuestión de la construcción del emboquille del túnel.

J.M. Matés Luque

B.22.4. **Basauri TA - Gatika TArako deribazioaren 132 kv-ko linea elektrikoaren aldaketa 16 eta 33-34 euskarrien artean (Bilbo / Sondika / Erandio)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz

Finantzazioa: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes

B.22.4. **Modificación de la línea Eléctrica a 132 kv ST Basauri – ST Gatika 1 y 2 entre los apoyos 16 y 33-34 (Bilbao / Sondika / Erandio)**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz

Financiación: i-DE Redes Eléctricas Inteligentes

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Esku hartze honetan, alde batetik, obren gaineko jarraipen arkeologikoa egin dugu, eta bestetik, 1. Zirkuituko Ap. 22 eta 2. Zirkuituko Ap. 23 euskarrietan estratigrafia balioesteko eta egiaztatzeko bi zundaketa egin ditugu, kontuan izanik beren potentzial arkeologikoa. Emaitzak negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik.

Intervención desarrollada en base al seguimiento arqueológico de las obras y en la realización de dos sondeos de valoración y comprobación estratigráfica en los apoyos Ap. 22 Circuito 1 y Ap. 23 Circuito 2, en base a su potencial arqueológico, siendo los resultados de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Ruiz de Marco

B.22.5. **Laida I, II, Txatxarramendi eta Porturas ontzi atalak eta hareatzak ikuskatzeko lana (Ibarrangelu / Sukarrieta)**

Zuzendaritza: Mercedes Gómez Bravo; Juan Carlos Zallo Uskola
Finantzazioa: Bizkaiko Foru Aldundia

B.22.5. **Pecios Laida I, II, Txatxarramendi y Porturas e inspección de arenales (Ibarrangelu / Sukarrieta)**

Dirección: Mercedes Gómez Bravo; Juan Carlos Zallo Uskola
Financiación: Diputación Foral de Bizkaia

During 2020, work continued on the monitoring of the Laida and Porturas wrecks, which are still protected by sand. As regards the Txatxarramendi wreck, we continued prospecting both the sandy area of the same name and Laida, with the aim of recovering fragments of either this wreck or any others from the Middle Ages.

Aurrekariak

2011ko maiatzean zurezko ontzi baten hondakinak aurkitu genituen hiru kanoi eta burdinazko aingura baten ondoan, Laidako hondartzaren hegoaldeko kanalean, eta ondorioz aztarnategiaren garrantzia eta kronologia zehazteko eta aztarnategiaren babesa eta azterketa bermatzeko xedean aplikatu beharreko neurriak balioesteko esku hartze arkeologiko bat eraman genuen burura. Lan arkeologiko horietan bigarren ontzi bat identifikatu genuen aurrekotik hamarren bat metrotara, honakoa ere zurezkoa baina ordura arte identifikatutakoa baino handiagoa; ontzi atal horiek Laida I eta Laida II izenez bataiatu ziren[45]. Horiei buruzko informazio gehiago eduki nahi izanez gero, bilduma honetako aurreko argitalpenak eta beste argitalpen batzuk kontsultatu daitezke.

Epe laburrera ez zenez esku hartze arkeologikorik aurreikusten, Kultura sailak eskatu zigun hondakin horiek aldizka kontrolatzeko, ontzi atal horietan faktore naturalen ondorioz eta giza faktoreen ondorioz gerta zitezkeen aldaketak hautemateko eta horiez ohartarazteko. Horrenbestez, Laidako ontzi hondakinak aldizka kontrolatu ditugu, eten gabe, 2012. urtetik gaur arte.

2012. urtean, Laida eta Txatxarramendiko hareatzetan bideratutako kontrol lanetan, zur zati ugari hauteman genituen –gehienak zuakerrak eta ohol zatiak–, eta horietatik asko eta asko berreskuratu genituen marea arteko eremuan egokiturik hondakin horiek betikoz gal zitezkeelako. Hasiera-hasieratik baztertu genuen zur horien eta Laidako ontzi atalen artean izan zitekeen lotura, pieza horiek inolako zalantzarik gabe lotu behar baitira «*teilakatua*» teknikaz eraikitako ontziekin, Erdi Aroko kronologia zuketenekin. Hondakin horietako asko eta asko Txatxarramendiko hareatzan azaldu zirenez, izen hori eman genion gure ustez ontzi bat edo batzuk osatzen dituen multzoari[46]; oraingoz tamaina askotako 60 zurki

[45] Zallo Uskola, J.C.; Gómez Bravo, M. (2012): «Evaluación arqueológica de los pecios Laida I y Laida II (Ría de Mundaka, Bizkaia)», *Kobie (Paleoantropologia), 31*: 207-226. Gómez Bravo, M; Zallo Uskola, J.C. (2014): «Nuevos hallazgos en la ría de Gernika-Mundaka (Bizkaia): los pecios Laida I y Laida II», *Actas del I Congreso de Arqueología Náutica y Subacuática española (Cartagena, 2013), vol.II*: 133-142.

[46] Zallo Uskola, J.C.; Gómez Bravo, M. (2016): «Nuevas embarcaciones a tingladillo en la ría de Gernika (Bizkaia)», *Ac-*

Antecedentes

En mayo de 2011 se localizaron los restos de una embarcación de madera, junto a tres cañones y un ancla de hierro, en el canal sur de la playa de Laida, lo que dio lugar a una actuación arqueológica encaminada a determinar el alcance y cronología del yacimiento, así como a valorar las medidas a adoptar con el fin de garantizar su preservación y estudio. En el curso de esos trabajos los arqueólogos localizamos una segunda embarcación a una decena de metros de la anterior, igualmente de madera, aunque de mayor porte que la hasta entonces documentada; estos pecios pasaron a denominarse Laida I y Laida II[45], y sobre ellos puede ampliarse la información en anteriores ediciones de esta revista y otras publicaciones.

Como no se contemplaba una actuación arqueológica a corto plazo, el departamento de Cultura nos encargó la realización de un control periódico de los restos con el fin de detectar y alertar, en su caso, de las posibles incidencias que tuvieran lugar sobre los pecios, tanto como consecuencia de factores naturales, como humanos. De esta forma, hemos estado haciendo controles periódicos sobre los pecios de Laida de forma ininterrumpida desde el año 2012 hasta el presente.

En el año 2012, en el curso de los controles que realizábamos en los arenales de Laida y Txatxarramendi, comenzamos a detectar la aparición de abundantes fragmentos de madera –en su mayoría cuadernas y tracas–, gran parte de las cuales recogimos debido al riesgo de pérdida de los restos que suponía su presencia en un área intermareal. Desde un principio descartamos la relación de estas maderas con los pecios de Laida, debido a que estos nuevos restos presentaban características que inequívocamente se asociaban con embarcaciones *a tingladillo*, y por ello de posible cronología medieval. Dado que el lugar donde aparecían gran parte de los nuevos restos era el arenal de Txatxarramendi, decidimos denominar así a lo que considera-

[45] Zallo Uskola, J.C.; Gómez Bravo, M. (2012): «Evaluación arqueológica de los pecios Laida I y Laida II (Ría de Mundaka, Bizkaia)», *Kobie (Paleoantropología), 31*: 207-226. Gómez Bravo, M; Zallo Uskola, J.C. (2014): «Nuevos hallazgos en la ría de Gernika-Mundaka (Bizkaia): los pecios Laida I y Laida II», *Actas del I Congreso de Arqueología Náutica y Subacuática española (Cartagena, 2013), vol.II*: 133-142.

inguru berreskuratu ditugu. Kultura Sailak aginduta, Laida eta Txatxarramendiko hareatzak aldizkako gainbegiratze lanetan kontrolatu beharreko eremuan sartuta gelditu ziren 2015ean.

2018ko uztailean Miamiko Beta Analytic laborategietara bidali genuen Txatxarramendiko ontziaren edo ontzien hondakinetako zur batetik ateratako lagin bat, han datatu zezaten. 1219-1284 cal AD kronologia eskaini zuen emaitzak, eta beraz, berretsi egin zen gure teoria, hots, Erdi Aroko kronologiako ontziei zegozkien Txatxarramendiko hondakinak. Bestalde, datazio horrek berretsi egin zuen Laidako hondartza[47] lehengoratzeko lanetan zehar aurkitutako hondakina, kronologia bertsukoa, Txatxarramendiko ontziaren/ontzien zati dela.

Urte hauetan guztietan inguru horretara egindako etengabeko bisitaldien ondorioz, 2017an beste ontzi atal bat aurkitu genuen Txatxarramendiko hareatzan, zehazki Porturas deritzon aurkintzan, eta horrexegatik eman genion izen hori aztarnategi berriari; zurezko egitura da, baina ezin dugu hari buruzko informazio askorik eskaini, oraindik egiteke baitago hura ebaluatzeko azterlana. Ontzi atal hori ere aldizka egiten ditugun bisitaldietan kontrolatu beharreko aztarnategien multzoan bildu genuen.

2020an, beraz, Laida, Txatxarramendi eta Porturas ontzi hondakinen gaineko jarraipen lanekin jarraitu eta Laidako eta Txatxarramendiko hareatzak miatu ditugu.

Laida I eta Laida II ontzi hondakinak

Aurten Laidako ontzi hondakinetan bideratutako lanen helburua izan da horiek aldizka kontrolatzea, haien egoeran gerta zitezkeen aldaketak hautemateko. Aldi berean, gertutik jarraitu dugu hondakin horiek pausatzen diren eremuaren bilakaera, izan ere, alde horretan oso bizia da kanalaren morfologian etengabeko aldaketak eragiten dituen dinamika.

Ikuskaritza lan guztiak itsasbeheran egin dira, eta beti erabili dugu lan metodologia berbera. Ontzi atalak hareak guztiz estalita daudenez eta gainazalean ez dagoenez zehazki non dauden adieraziko lukeen seinalerik, ezinbestekoa izan dugu GPSa hondakin horietara iristeko; beraz, lehenengo urratsa beti da koordenatuak kokapen sisteman sartzea. Behin bertatik bertara egokituta, ontzi hondakinek hareak estalita jarraitzen ote duten egiaztatzen dugu, eta gainazalean aztarnategiari legokiokeen elementurik ba ote dagoen begiratzen dugu. Azkenik, kanalaren bilakaera ezagutzeko eta ontzi hondakinekiko posizioa ezagutzeko kontrol lanak egiten ditugu.

tas del V Congreso Internacional de Arqueología Subacuática (IKUWA V), Hezkuntza, Kultura eta Kirola Ministerioa, 757-768.

[47] Matés Luque, J.M. (2016): «Laidako hondartza. Lehengoratzeko lanen gaineko jarraipena», *Arkeoikuska 2015*, 207-210.

mos se trata de uno o varios pecios[46], de los que hasta ahora contamos con alrededor de 60 fragmentos de diverso tamaño. Por encargo del Departamento de Cultura, desde 2015 los arenales de Laida y Txatxarramendi quedaron incluidos en la zona a controlar en las revisiones periódicas.

En julio de 2018 enviamos una muestra de una de las maderas del pecio/s de Txatxarramendi a los laboratorios de Beta Analytic (Miami) para su datación; el resultado de la misma ofreció una cronología de 1219-1284 cal AD, lo cual vino a confirmar nuestra teoría de que los restos de Txatxarramendi correspondían a embarcaciones de cronología medieval. Por otra parte, esta datación supuso la confirmación de que el resto localizado durante los trabajos de regeneración de la playa de Laida[47], de cronología similar, forma parte del pecio/s de Txatxarramendi.

Fruto de las continuas visitas realizadas a la zona durante todos estos años, en 2017 tuvo lugar el hallazgo de un nuevo pecio en el arenal de Txatxarramendi, concretamente en el área conocida como Porturas, denominación que dimos a este nuevo yacimiento; se trata de una estructura de madera, de la que no se puede ofrecer mucha información, dado que aún se encuentra pendiente de un estudio de evaluación. Este pecio también pasó a engrosar el número de yacimientos a controlar en las visitas que realizamos periódicamente.

En 2020 hemos continuado con los trabajos de control y seguimiento de los pecios de Laida, Txatxarramendi y Porturas, así como la prospección de los arenales de Laida y Txatxarramendi.

Pecios Laida I y Laida II

El objetivo de los trabajos realizados en los pecios de Laida a lo largo de este año ha sido el control periódico de los mismos con el fin de advertir posibles variaciones en su estado, a la vez que hacer un seguimiento de la evolución de la zona donde reposan, caracterizada por una dinámica muy activa que provoca continuas variaciones en la morfología del canal.

Todas las inspecciones se han llevado a cabo en periodos de bajamar, y la metodología de trabajo empleada ha sido siempre la misma. Dado que los pecios se encuentran totalmente cubiertos por la arena, y no hay en el exterior marca alguna que permita identificar el lugar exacto donde se encuentran, se hace imprescindible servirnos del GPS para acceder a los mismos; así pues, el primer paso siempre consiste en introducir las coordenadas en el sistema de posicionamiento. Una vez en la zona, comprobamos si los pecios continúan cubiertos por la arena, así como la posible presencia en superficie de algún elemento perteneciente al yacimiento. Para terminar, se

[46] Zallo Uskola, J.C.; Gómez Bravo, M. (2016): «Nuevas embarcaciones a tingladillo en la ría de Gernika (Bizkaia)», *Actas del V Congreso Internacional de Arqueología Subacuática (IKUWA V)*, Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, 757-768.

[47] Matés Luque, J.M. (2016): «Playa de Laida. Seguimiento de su restauración», *Arkeoikuska 2015*, 207-210.

Aurten, itsasbehera denean kanalaren alde batean azaltzen den hareatzean sartuta egon dira bi ontzi hondakinak, eta beraz, ez da ia inolako aldaketarik izan 2018. urte amaieraz geroztik.

Bi hontzi atalak daude hainbat metro lodi den hareazko geruzak estalita. Bestalde, argi eta garbi esan behar dugu inguruan ez dugula aztarnategiari legokiokeen material arkeologikorik identifikatu, eta gainazalean ez dela hondarpean hondakinak daudela iradokiko lukeen elementurik ikusten.

Txatxarramendiko ontzi hondakina/k

Txatxarramendiko lanak izen bereko hareatza miatzeko lanetara bideratuta egon dira, helburua izan baita gure ikerketaren xede den Erdi Aroko kronologiako ontziari (ontziei) dagozkion hondakinen agerpena kontrolatzea. Helburu bera ardatz hartuta beste miaketa lan batzuk egin ditugu Laidako hondartzan, urte hauetan guztietan multzo arkeologiko berari dagozkion zurkiak azaldu diren lekuan. Miaketa lanak beti egin ditugu itsasbehera zenean, orduan geratzen baita agerian miatu beharreko gainazalaren zatirik handiena.

Kanpaina honetan zehar zurezko hainbat zati aurkitu ditugu; horietatik lau berreskuratu ditugu haien ezaugarriei erreparatuta ontzi hondakin horiei dagozkiela uste dugulako. Zuakerra da horietako bat, gutxi gorabehera 1,30 m luze da. Beste hondakin bat zulo eta kabila bana duen zur zati txiki bat da. 2,40 m luze den zuaker zati bat da hirugarren elementua. Eta laugarrena «*teilakatua*» teknikaren arabera eraikitako ontzietan erabiltzen ziren ohol zati arrunt bat da, oholak elkartzeko zuloak eta kabilak sartzekoak dituena.

Aurkitutako piezei dagokienez, GPSaren bidez eta bertatik bertara egindako argazkien bidez kokatu dira *in situ*; jarraian, berreskuratu eta Gernikara eraman genituen, han etiketa ipini eta urez betetako edukiontzi batean sartu zituzten idortu ez zitezen.

Porturasko ontzi hondakinak

Aurten egindako lanetan aldizkako kontrolak bideratu ditugu hondakinen egoera behatzeko eta aztarnategiaren egungo kokapenean gertatu ahal izan diren aldaketak hautemateko. Gogora dezagun 2019ko udazkenaz geroztik pixkanaka hareaz estaltzen hasi zela ontzi atal hau, berez. Hortaz, 2020an egindako ikuskaritza lanen xedea izan da, alde batetik, hondakin horiek hareak estalita jarraitzen ote zuten egiaztatzea, eta bestetik, azaleratu zitezkeen ontzi atalaren hondakinak dokumentatzea.

Alde horretan egindako ikuskaritza lan guztietan –betiere itsasbehera zenean– egiaztatu ahal izan dugu ontzi atala hareak estalita egon dela urte osoan zehar, eta ez dela haren elementu bakar bat ere azaleratu.

Aztarnategiaren azterketari heltzen ez zaion artean, zalantzarik gabe abantaila handia da ontziahace un control de la evolución del canal, y su situación respecto a los pecios.

A lo largo de este año ambos pecios han permanecido en el arenal que queda a un lado del canal durante los periodos de bajamar, lo que significa que apenas ha variado su situación desde finales de 2018.

Los dos pecios están cubiertos por una capa de varios metros de arena. Por otra parte, hay que señalar que no se observaron en la zona materiales arqueológicos pertenecientes al yacimiento, ni se observa en superficie elemento alguno que indique la presencia de restos bajo la arena.

Pecio/s de Txatxarramendi

Los trabajos en Txatxarramendi han estado enfocados a la prospección del arenal del mismo nombre con el fin de controlar la aparición de restos pertenecientes al pecio/s de cronología medieval objeto de nuestra investigación. Con el mismo objetivo también se han llevado a cabo labores de prospección en la playa de Laida, donde a lo largo de estos años se han localizado fragmentos de madera pertenecientes al mismo conjunto arqueológico. Las prospecciones siempre han tenido lugar en los periodos de bajamar, ya que es el momento que ofrece la superficie de prospección más amplia.

A lo largo de esta campaña se han localizado varios fragmentos de madera, de los cuales hemos recogido los cuatro que, por sus características, consideramos forman parte de estos pecios. Uno de ellos corresponde a una cuaderna, cuya longitud aproximada es de 1'30 m. Otro resto corresponde a un pequeño fragmento de madera con un orificio y cabilla. El tercer fragmento es una cuaderna de 2'40 m de longitud. El último es una traca típica de la construcción *a tingladillo*, que presenta los orificios de unión entre tracas, así como los agujeros de cabillas.

El protocolo de actuación respecto a las piezas localizadas ha consistido en su posicionamiento mediante GPS y documentación fotográfica *in situ;* a continuación se procedió a su recogida y traslado a Gernika, donde se etiquetaron y posteriormente introdujeron en un tanque de agua para evitar su desecación.

Pecio Porturas

Los trabajos desarrollados en este pecio han consistido en controles periódicos destinados a vigilar el estado de los restos y detectar posibles cambios en la situación actual del yacimiento. Recordemos que desde el otoño de 2019 el pecio comenzó a cubrirse de arena progresivamente y de forma natural, con lo que las inspecciones llevadas a cabo en 2020 han tenido como objetivo verificar si continuaban cubiertos por la arena, a la vez que documentar los posibles restos del pecio que pudieran aflorar a superficie.

En todas las inspecciones realizadas a la zona –siempre en periodos de bajamar– hemos podido comprobar que el pecio ha permanecido cubierto de arena durante todo el año, y no ha salido a superficie ningún elemento del mismo.

El hecho de que los restos se encuentren protegidos por la arena supone una ventaja incuestionable

ren hondakinak hareak babestuta egotea. Alde batetik argitik babestuta daude hondakin horiek, eta kontuan eduki behar dugu argiak landare organismoak sorrarazten dituela –2018ko kanpainan ikusi ahal izan zen bezala–, eta hondakinak sakonera maila txikian egonik are errazago; gainera, hareazko geruzak zigilatu egiten ditu hondakinak, hareaz berez estaltzen hasi aurreko uneetan askatzen ari ziren oholak batuta mantentzen ditu. Eta azkenik, alde honetan urte osoan zehar eta bereziki udako hilabeteetan ibiltzen diren oinezkoen eta bainularien begiradetatik eta ekintzetatik babesten ditu hareak hondakin horiek.

Konklusioak

2020an bideratu ditugun miaketa eta ikuskaritza lanetan zehar ikusi dugu harea gehiago metatu dela Txatxarramendi eta Laidako hareatzetan, eta beraz, deposizio ziklo batean gaudela esan behar dugu. Lehen ere azaldu dugu oso bizia dela marea arteko alde hau, etengabeko aldaketak eragiten dituela itsasadarraren eta inguruko hareatzen morfologian, eta aldaketa horiek, esate baterako, ziklotan islatzen direla, ziklo batzuetan harea ekarpenak nagusitzen direlarik eta beste batzuetan itsasadarraren kanpoko aldera ateratzen direlarik.

Egoera horrek ondorioak ditu aztergai dauzkagun hondakinetan; Porturas eta Laidako ontzi atalen kasuetan, berezko estaldura hori abantaila handia da hondakinak osorik kontserbatzeko, are ez baldin da aztarnategi horietan esku hartze arkeologikorik aurreikusten. Nolanahi ere, kontuan harturik alde honetan dugun esperientzia, uste dugu hondakinak zaintzen jarraitu behar dela, itsas dinamikak pixkanaka desagerrarazi baitezake hareazko geruza hondakinak agerian utzi arte, bi ontzi atal horiek aurkitu genituen uneetan gertatu zen bezala.

Txatxarramendiko ontzi atalaren kasuan, hareatzeen morfologian gertatutako etengabeko aldaketa horiek eragiten dute zati kopuru handiena harea itsasadarraren kanpoko aldera ateratzen den uneetan gertatzea, harea metatzen den zikloetan kontrakoa gertatzen den bitartean. Horregatik, gure gomendioa da miaketa lanei jarraipena ematea, oraingoz bide hori baita hondakinak aurkitu eta berreskuratu ahal izatea berma dezakeen bakarra, ontzi horri edo horiei buruzko informazio gehiago izan dezagun eta, horrenbestez, Erdi Aroko ontzigintzari buruzkoak hobe ezagutu ditzagun.

Bukatzeko, ez diegu lerro hauei amaiera eman nahi benetan estimatzen genuen Mikel Unzueta Portillo gogoan hartu gabe, izan ere, hark kudeatu zituen, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko arkeologo teknikaria zen aldetik, aipatutako proiektuak.

para el yacimiento en tanto no se aborde su estudio. Por una parte los restos se encuentran protegidos de la luz, causante de la aparición de organismos vegetales –como quedó patente a lo largo de 2018–, circunstancia que se ve favorecida por su escasa profundidad; además, la capa de arena actúa como elemento sellador de los restos y los protege del desensamble del que estaban siendo objeto en los momentos previos a que comenzara su cubrición natural. Y por último, la arena protege los restos de las miradas y acciones de paseantes y bañistas que frecuentan la zona durante todo el año, y con especial intensidad en los meses veraniegos.

Conclusiones

En el curso de las prospecciones e inspecciones que hemos llevado a cabo en 2020 hemos advertido un aumento de arena en los arenales de Txatxarramendi y Laida, por lo que podemos decir que nos encontramos ante un ciclo de deposición. Ya hemos mencionado anteriormente que la actividad de esta zona intermareal es muy dinámica, y provoca continuos cambios en la morfología de la ría y sus arenales, que se refleja –por ejemplo– en ciclos en los que predominan los aportes o en otros en los que toma protagonismo la extracción de arena al exterior de la ría.

Esta característica tiene efectos diversos sobre los restos que nos ocupan; en el caso de los pecios de Laida y Porturas, esta cubrición natural supone una clara ventaja en lo que respecta a su conservación e integridad, máxime no habiendo en perspectiva la realización de una intervención arqueológica en los yacimientos. Sin embargo, nuestra experiencia en esta zona nos lleva a proponer la continuidad en la vigilancia de los restos, ya que esa dinámica marina puede ir eliminando paulatinamente la capa de arena hasta dejar los restos a la vista, como sucedió en los momentos en que ambos fueron localizados.

En el caso del pecio de Txatxarramendi, estos continuos cambios en la morfología de los arenales provocan que mayor número de fragmentos salgan a la luz en los momentos en que predomina la extracción de arena al exterior, produciéndose el efecto contrario en los ciclos de deposición de arena. Por ello, nuestra recomendación no puede ser otra que la continuidad de las prospecciones, ya que por el momento es la única acción que puede garantizar la localización y recuperación de los restos, de forma que podamos ampliar la información sobre este pecio o pecios, y con ello, de la construcción naval en este periodo de la Edad Media.

Por último, no queremos terminar estas líneas sin tener un recuerdo muy especial para Mikel Unzueta Portilla, al que correspondió la gestión de los proyectos mencionados desde su cargo como arqueólogo técnico del Servicio de Patrimonio Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia, y por el que sentíamos un sincero aprecio.

M. Gómez Bravo; J.C. Zallo Uskola

B.22.6. **Enkarterrirako ur hornidura sare nagusian. II. tartea: Jarralta-Avellanedako Depositua-Sollanoko EUT adarra (Avellanedatarren Dorrea BAG) (Sopuerta / Zalla)**

Zuzendaritza: Montserrat Lerín Sanz
Finantzazioa: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa

B.22.6. **Suministro de agua en red primaria a Encartaciones. Tramo II. Derivación de Jarralta-Depósito de Avellaneda – ETAP de Sollano (ZPA Torre de los Avellaneda) (Sopuerta / Zalla)**

Dirección: Montserrat Lerín Sanz
Financiación: Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Esku hartze honetan 14 m bider 1,5 m-ko luzetarako trantsektu bat eta tamaina desberdineko hamahiru zundaketa egin genituen. Avellanedatarren Dorrea teoria mailan egongo zen aldean egindako miaketa geomagnetikoan hautemandako aldaketa irregularren eremuan eta potentzial arkeologiko handiko beste eremu batzuetan, ustez eraikuntza hondakinak zeuden aldean, banatu genituen zundaketa horiek. Emaitzak negatiboak izan ziren historiaren eta arkeologiaren ikuspegitik, baina proiektua gauzatzeko aldian ebaluatzeko gelditzen da obraren eraginpeko lur eremuaren gainerakoa.

Intervención desarrollada en base a realización de un transect longitudinal de 14 m por 1,5 m y trece sondeos arqueológicos de diverso modulo. Estos fueron distribuidos en el ámbito de las anomalías variaciones detectadas tras la prospección geomagnética efectuada en el área teórica de ubicación de la Torre de los Avellaneda, así como en otras zonas de alto potencial arqueológico y donde se presumía la existencia de los restos constructivos. Los resultados obtenidos fueron de nulo valor histórico-arqueológico quedando por evaluar durante la ejecución del proyecto el resto del terreno afectado por la obra.

M. Lerín Sanz

C. GIPUZKOA

C.1. AMEZKETA

C.1.1. Iraregibizkar errota

Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Amezketako Udala

C.1.1. Molino Iraregibizkar

Director: Ander Arrese
Financiación: Ayuntamiento de Amezketa

Intervention with results of scarce or no historical-archaeological interest.

Ukituriko azalera osoan egin zen kontrol arkeologikoa, baina emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes arkeologikorik izan.

Control arqueológico realizado en toda la superficie afectada siendo los resultados de escaso o nulo interés histórico arqueológico.

A. Arrese

C.2. ANDOAIN

C.2.1. Ikutza Berri baserria

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Balfer Norte S.L.

C.2.1. Caserío Ikutza Berri

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Balfer Norte S.L.

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the Ikutza Berri farmhouse.

Esku hartze arkeologikoaren aurretik, baserriaren perimetroko altxaerak garbitu eta argazkiak erregistratu ziren.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak eskasak edo negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik begiratuta.

Previo a la intervención arqueológica se procedió a realizar el desbroce y registro fotográfico de los alzados perimetrales del caserío.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.3. ANOETA

C.3.1. Basagain herrigunea

XXVI. kanpaina
Zuzendaritza: Xabier Peñalver Iribarren
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Anoetako Udala

C.3.1. Poblado de Basagain

XXVI Campaña
Dirección: Xabier Peñalver Iribarren
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de Anoeta

The intervention focused on the area linked to the east-west collapse and part of the wall. Geo-radar techniques were used to locate an entrance to the fortified enclosure.

Basagain herrigunean 2020an egindako esku hartze arkeologikoa, aurreikus zitekeen bezala, hein handi batean desitxuratu egin du COVID-19k, eta 2019ko amaieran Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailari aurkeztutako proiektuan aurrez planteatutako ildoen zati bati eragin dio.

La intervención arqueológica de 2020 en el poblado de Basagain, tal y como era previsible, ha estado distorsionada en gran medida por el COVID-19, afectando a parte de las líneas planteadas previamente en el proyecto presentado a finales de 2019 al Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Iraileko hiru astetan egindako lanetan, une bakoitzean adierazitako arreta neurriak hartu dira, birusak ez kutsatzeko. Horietatik garrantzitsuena, eta lanen zati bati eragin diona, izan da indusketa taldeko kideen kopurua murriztea.

Defizit hori konpentsatzeko asmoz, aurreko kanpainetan egin ohi diren jarduera batzuk aldatu egin dira, hala nola esku hartutako eremuaren estaldura guztiz kentzea eta zehatz-mehatz garbitzea, argazki orokorrak egin ahal izateko.

Esku hartzeak ekialde-mendebaldeko behea jotako eremuan eta harresian izan du eragina batez ere, herrigunera sartzeko pistatik hurbilen dagoen muturrean. Era berean, georradar lanak egin dira ekialdeko terrazan defentsa lerroa aurkitzeko, bai eta zundaketa estratigrafiko bat ere.

Behea jotako eremua, ekialdetik mendebaldera

Esku hartutako zatiak 16T eta 16U laukiei eragin die, bai eta 17T eta 17U laukiei ere hegoaldeko muturraren zati batean. Lauki guztiek 5 x 5 metroko neurriak dituzte, hau da, 25 m²-ko azalera.

Behea jotako gune horretan, harri ugari zeuden hasieran, neurri askotakoak, haietako batzuk hareharri gorrixkako harlauzak, eta batzuek ebakidura zuzenen arrastoak ageri zituzten. Aipatzekoa da gune horretan lerro ebaki finez apaindutako estelak aurkitu ditugula, bai eta material ugari ere, era askotakoak (zeramikazkoak, metalezkoak, harrizkoak eta beirazkoak).

Elkarren segidako geruzetan, eremu horretako harriak kendu ditugu, geruza bakoitza marraztu eta argazkiak egin ondoren, eta lan horren azken zatia egin dugu aipatutako lauki horietan (16T eta 16U) kanpaina honetan.

16U laukian bi geruza beheratu ditugu, eta lau, berriz, 16T laukian. 17T eta 17U laukien hegoaldeko zerrendari dagokion zatia ez dugu amaitu, eta lan hori 2021eko kanpainan egitea aurreikusi da. 16T eta 16U laukien hegoaldeko eremuaren zati handi batek kolore gorrixka iluna du, oinarriko mailari dagokiona.

Harresiaren eremua, herrira sartzeko pistaren aldamenean

Herrigunera sartzeko bidearen mugakide diren eremuetan defentsa lerroaren trazadura zehazteko eta barrutira sartzeko balizko puntu bat baieztatu ahal izateko, bi jarduera egin dira kanpaina honetan: georradar bidezko azterketa, lurpean ezkutatutako eremuetako trazadura zehazteko, eta indusketaren amaieratik 13W/14W laukietan (harresiarenak), horietan argi eta garbi zehaztuta baitago bai barruko eta kanpoko horma ataletan, bai betelanean, herrigunera ekialdetik sartzeko egungo pistaraino doan eremuan lan egitea.

Landare zotala kendu ondoren, lur maila hori bat azaleratu da, aztarnategiaren gehienean ohikoa dena,

Durante los trabajos llevados a cabo a lo largo de tres semanas del mes de septiembre se han tomado las medidas de precaución indicadas en cada momento con el fin de evitar los contagios del virus. De todas ellas, la más relevante, y que ha afectado a una parte de los trabajos, ha sido la reducción del número de miembros del equipo de excavación.

Con el fin de compensar este déficit se han modificado algunas de las actuaciones habituales en campañas anteriores tales como la retirada total de la cubrición del área intervenida y su detallada limpieza con el fin de poder realizar fotografiados generales.

La intervención ha afectado principalmente a la zona de derrumbe este-oeste y a la muralla en su extremo más próximo a la pista de acceso al poblado. Igualmente se han realizado trabajos de georradar de cara a la localización de la línea de defensa en la terraza este y un sondeo estratigráfico.

Zona de derrumbe con orientación este-oeste

La parte intervenida ha afectado a los cuadros 16T y 16U, así como a los 17T y 17U en una parte de su extremo sur. La totalidad de los cuadros cuentan con unas dimensiones de 5 x 5 m, es decir, con una superficie de 25 m².

Esta zona de derrumbe contaba en un comienzo con gran cantidad de piedra de diferentes dimensiones, algunas de ellas lajas de arenisca rojiza, en ocasiones con restos de incisiones rectilíneas. Ha destacado en esta zona el hallazgo de estelas decoradas con finas líneas incisas así como el de abundante material de diferente tipo (cerámico, metálico, lítico y de vidrio).

En sucesivos lechos se han ido eliminando las piedras de esta zona, previo dibujado y fotografiado de cada lecho, habiéndose realizado la parte final de este trabajo en los cuadros citados (16T y 16U) a lo largo de la presente campaña.

En el cuadro 16U se ha practicado el rebaje de dos lechos y de cuatro en el 16T. La parte correspondiente a la franja sur de los cuadros 17T y 17U no ha sido finalizada, estando previsto realizar ese trabajo durante la campaña de 2021. Una parte considerable del terreno de la zona sur de los cuadros 16T y 16U presenta una coloración rojiza oscura correspondiente al nivel de base.

Zona de la muralla colindante con la pista de acceso al poblado

Con el fin de determinar el trazado de la línea defensiva en las zonas colindantes al camino de acceso al poblado y poder confirmar un posible punto de acceso al recinto, se han realizado en la presente campaña dos actuaciones: la realización de un estudio de georradar para definir el trazado en las zonas ocultas bajo la tierra y la intervención en la zona que va desde el final de la excavación en los cuadros 13W/14W (de la muralla), en donde se encuentra claramente definida tanto en sus lienzos interior y exterior y en su relleno, hasta la pista actual de acceso al poblado por el lado este.

Tras eliminar el tepe vegetal ha aflorado un nivel de tierra amarillenta característica en la mayor parte del yacimiento, con un considerable espesor. Bajo

oso lodia. Haren azpian tamaina ezberdineko harri ugari agertu dira, haietako bi lurrean sakon sartuta.

Kanpaina honetan ezin izan da eremu horretako esku hartzea amaitu, nahiz eta harrietako batzuek dituzten lerrokadurek argitu lezaketen harresiaren nondik-norakoa eremu horretan.

Bestalde, pistaren azpian (oraindik ez da esku hartu leku horretan) harresiko harriak daudela ikus daiteke. Hori dela eta, agian, 2021eko kanpainan esku hartu ahal izango da pistaren eremu horretan.

Zundaketa estratigrafikoa

Induskatutako eremuan leku askotan maila trinko bat agertu zen, kolore gorri ilunekoa, eta horrek pentsarazi zigun maila hura lurzoru naturalaren maila zela, leku batzuetan gutxi-asko degradatua zegoena, agian.

16T laukian behea jotako harriak kendu eta maila hori agerian geratu ondoren, 30x30 cm-ko kata bat egitea erabaki genuen, 35 cm-ko sakonerakoa, eta ikusi genuen lur trinko eta kolore uniformeko mota berekoa zela geruza osoa, hondakin arkeologikorik gabea. Gure asmoa da beste leku batzuetan kata berriak egitea, helburu berarekin.

Aztarnategiko hainbat eremutan egindako lan arkeologikoei esker, zeramikazko hondakin ugari berreskuratu ahal izan ditugu, bai eta harrizko tresneria ere, harri koskorrez osatua (leungailuak, perkutoreak, etab.), burdinaren metalurgiarekin lotutako elementuez gain (zepak eta pieza batzuk). Era berean, nabarmentzekoa da harrizko fitxa bat aurkitu dela harresiaren eremu zabalduan behea jotako zatian.

ella han ido apareciendo numerosas piedras de diferentes tamaños, dos de ellas profundamente clavadas en el terreno.

En la presente campaña no se ha podido finalizar la intervención en esta zona si bien algunas de las piedras presentan alineaciones que pudieran aclarar la problemática de la muralla en esa zona.

Por otra parte, bajo la pista (lugar en el que de momento no se ha intervenido) se aprecia la presencia de piedras de la muralla; este hecho quizá posibilite la intervención en esa zona de la pista durante la campaña de 2021.

Sondeo estratigrafico

La aparición en numerosas zonas del área excavada de un nivel compacto de color rojo oscuro nos hizo pensar que el mismo correspondía al nivel de suelo natural, tal vez más o menos degradado según las zonas.

Tras la eliminación del derrumbe de piedras en el cuadro 16T y la aparición de dicho nivel, se decidió realizar una cata de 30 x 30 cm de 35 cm de profundidad, correspondiendo la totalidad del estrato al mismo tipo de tierra compacta y color uniforme, carente de restos arqueológicos. Es nuestra intención practicar nuevas catas en otros puntos con el mismo fin.

Los trabajos arqueológicos llevados a cabo en las diferentes áreas del yacimiento han permitido recuperar numerosos restos de cerámica así como industria lítica de cantos (alisadores, percutores, etc.) además de elementos relacionados con la metalurgia del hierro (escorias y algunas piezas). Es de destacar también la localización de una ficha de piedra en el derrumbe de la zona ampliada de la muralla.

X. Peñalver; E. Uribarri

C.4. **ARRASATE**

C.4.1. **Gomeztio baserria**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Itziar Ibabe Acha

C.4.1. **Caserío Gomestio**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Itziar Ibabe Acha

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the Gomestio farmhouse.

Hiru azterketa eremu biltzen zituen esku hartze arkeologikoak: a) egituraren eraikuntza estratigrafia erregistratzea, aztertzeke dagoena; b) egituraren zurezko hainbat piezaren analisi dendrokronologikoa, hura ere amaitzeko zegoena; eta c) zenbait kata arkeologiko egitea. Kata horiek orubearen zati handi batean egin ziren, eta agortu egin zen orubeari buruz beste ikerketarik egiteko aukera oro. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes arkeologikorik izan.

La intervención arqueológica englobaba tres áreas de análisis: el registro de la estratigrafía constructiva de la estructura, pendiente de estudio; b) el análisis dendrocronológico de diversas piezas de madera de la estructura, pendiente también de finalizar su análisis y c) la realización de diversas catas arqueologicas, estas se desarrollaron en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.4.2. **Gazteluondo zentroa. Gazteluondo, 2-4**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Arizmendi Kooperatiba

C.4.2. **Centro Gazteluondo. Gazteluondo, 2-4**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Arizmendi Kooperatiba

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Mondragón.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak eskasak edo negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik begiratuta.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.4.3. **Erenuzketako Santiago. Ermita zaharraren orubea**

Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantzazioa: Arrasate Zientzia Elkartea; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.4.3. **Santiago de Erenuzketa. Solar de la antigua ermita**

Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Arrasate Zientzia Elkartea; Diputación Foral de Gipuzkoa

This year, we were able to finish the archaeological intervention begun in 2019 on the site of the old Santiago de Erenuzketa chapel. Although the site cannot be dated with exactitude, we surmise that the archaeological contexts documented range from the Low Imperial era to the Contemporary Age, although the most interesting findings date from between Antiquity and the Late Middle Ages. Although the material recovered requires more in-depth analysis, we can state that the site is of enormous interest, mainly because it provides new information about how funeral rites changed between Antiquity and the Early Middle Ages, and offers insight into other aspects reflected in the material culture associated with the graves.

Arrasateko metalurgia eta populatzea ikertzeko 2016. urtean hasi zen proiektuaren barruan, Arrasate Zientzia Elkartearekin eta Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoko Arkeologia Taldearekin elkarlanean, 2018an egindako hirugarren miaketa kanpainaren ondorioz, harri xabalez egindako ehorzleku bat aurkitu genuen garai bateko Erenuzketako Santiago ermitaren orubean. 2019an, orubearen indusketa hasi zen, 51 m^2-ko eremu batean, baina eten egin behar izan zen arrazoi klimatologikoengatik.

Kanpaina hartan honako hauek dokumentatu genituen: hainbat hezur hondakin (hobi bakunean egindako ehorzketen hondarrak izango ziren segur aski), kiskalitako hezur biltegi bat, zeramikekin, beirekin eta erromatarren garaiko beste zenbait materialekin batera, Goi Erdi Aroko harri xabalez eginiko haur hilobi bat (2018an aurkitua) eta lurperatutako ontzi multzo bat, itxuraz bederen aztarna antropologikoekin loturarik ez zuena, Antzinaro Berantiarrean egina segur aski.

Honekin batera doan planoan ikus daitekeen bezala, kanpaina honetan ebidentzia berriak azaleratu dira, eta aberastu egiten dute indusketaren lehen fasean planteatutako egoera. Laburbilduta, honako hauek dira hobitik atera diren elementuak:

- *Hobi bakunean egindako ehorzketak*: tipologikoki, bertan egindakoen artean berrienak direla dirudi, eta, agian horregatik, horiexek dira baldintza

Dentro del proyecto de investigación de la metalurgia y el poblamiento en Mondragón que se inició en 2016 entre la asociación Arrasate Zientzia Elkartea y el equipo de Arqueología del Museo de la Minería del País Vasco, la tercera campaña de prospecciones realizadas en 2018 dieron como resultado el hallazgo de una tumba de lajas en el solar de la antigua ermita de Santiago de Erenuzketa. En 2019, se inició la excavación del solar, en un área de 51 m^2, que quedó interrumpida por causas climatológicas.

En aquella campaña se documentaron varios restos óseos (posiblemente restos de inhumaciones en fosa simple), un depósito de hueso calcinado acompañado de cerámica, vídrio y otros materiales de época romana, una tumba de lajas infantil altomedieval (la detectada en 2018) y un enterramiento de recipientes sin relación aparente con restos antropológicos, posiblemente realizado durante la Tardoantigüedad.

Como puede verse en el plano anexo, en esta campaña han aflorado nuevas evidencias que enriquecen el panorama planteado en la primera fase de excavación. En síntesis, estos son los elementos que se han exhumado:

- *Inhumaciones en fosa simple*: tipológicamente, parecen ser las más recientes de las realizadas en el lugar y quizá por ese motivo, son las que se han

okerrenetan kontserbatu direnak. II., III. (XI.-XII. mendeetakoak) eta IV. hilobietako aztarna antropologikoak oso kaltetuta daude berriki toki horretan izan zen baratze jardueraren ondorioz; V. hilobia salbuespena dela dirudi, azaleratzeen artean babestuta geratu baita.

- *Hormatxoen hilobia*: forma angeluzuzeneko egitura da, hareharriz osatua, harriak hormatxo perimetrala osatuz elkartuak, baina kasu honetan hegoekialdeko muturraren zati bat desmuntatua izan da. Estalkiak ere desagertu egin dira, nekazaritza jardueraren ondorioz segur aski. Ehorzketari dagokionez, hezur izpi batzuk aurkitu ditugu, ia erabat disolbatuak. Segur aski hondar horiek izango dira bertan hilobiratutako hondakin antropologikoetatik geratu den bakarra (VIII. zenbakia). HE-IM norabidea du.
- *Harri xabalez osatutako hilobian egindako ehorzketa*: haur hilobia da (I. zenbakia), eta lurreko berezko margazko lauzez egina da. Estalkiak desagertu egin dira, eta hezur zati batzuk baino ez ditugu berreskuratu, haien artean burezurra osatzen zutenak. HE-IM norabidea du.
- *Harriz markatutako hobietan egindako ehorzketak*: ezohiko hilobi mota da hau, lurrean hobia egiten zuten eta hartan sartzen zuten gorpua, eta inguruan harriak jartzen zituzten, bai negatiboaren oinarrian bai goiko ertzean (VI., VII. eta IX.

conservado en peores condiciones. Los restos antropológicos de las tumbas II, III (siglos XI-XII) y IV se encuentran muy afectados por la actividad de la huerta que existió en el lugar en época reciente; la V parece ser la excepción, al haber quedado protegida entre los afloramientos.

- *Sepultura de muretes*: se trata de una estructura de forma rectangular formada por piedras areniscas trabadas formando un murete perimetral, aunque en este caso el extremo sureste ha sido parcialmente desmontado. También han desaparecido las cubiertas, posiblemente por causa de la actividad agrícola. Respecto a la inhumación, se han detectado algunas briznas de hueso casi completamente disuelto, que seguramente sea lo único que queda de los restos antropológicos enterrados en ella (número VIII). Se orienta SE-NO.
- *Inhumación en tumba de lajas*: se trata de una sepultura infantil (número I), realizada mediante losas de marga propias del terreno. Las cubiertas han desaparecido, y solamente se han recuperado algunos fragmentos de hueso, entre ellos los que formaban el cráneo. Se orienta SE-NO.
- *Inhumaciones en fosas marcadas mediante piedras*: Se trata de un tipo de tumba inusual, que consiste en una fosa practicada en el terreno donde se deposita al difunto y en torno al cual se disponen piedras, tanto en la base de la negativa

Geruza mineralen gaineko lurraren erliebea antzinako Santiago ermitaren orubean eta haietan dokumentatutako hilobi testuinguruak han eta hemen sakabanatuak.

Relieve del terreno sobre los estratos minerales en el solar de la antigua ermita de Santiago y dispersión de los contextos funerarios documentados sobre ellos.

hilobiak). Kasu guztietan, formarik gabeko kareharrizko blokeak dira, ez dute hormatxo edo lauza perimetralik osatzen, eta ez da inolako estalkirik dokumentatu. Barrualdean hezur hondakinak atzeman genituen, baina IX.aren kasuan oso disolbatuta daude. HE-IM norabidea dute. VII. gizakia gerrikoarekin lurperatu zuten, eta haren belarria kontserbatu du.

Hormatxoen hilobiak partzialki moztuak, harehar-rri txikiak ageri dira, batzuk zuzenean harriaren gainean jarriak, aipatutakoak bezalako hilobi batenak izan litezkeenak. Hala ere, ez dugu balizko ehorzketa baten aztarna antropologikorik ikusi, baina bai hezur kiskali batzuen arrastoak, han eta hemen sakabanatuak. Deskribatutako egitura guztiek HE-IM norabidea dute.

– Errauts depositua: depositu horietako bi aztarnategiaren behealdean (hegoaldean) daude, III. eta IV. hilobiak dauden lekuan. Kareharrian nahita egindako hutsuneetan babestuta daude eta metaketa handiak dira, hezur kiskaliak eta zeramikazko kutxatilen zatiak, beira eta metalezko zenbait pieza (aplikeak).

Depositu horietako beste bat ere oso antzekoa da ostilamenduaren aberastasunari dagokionez (piezen artean brontzezko eraztun bat berreskuratu dugu), baina zuzenean lurreko buztinean egina zen (gero aldatu egin zuen VII. gizakiaren hilobiak). Azkenik, substratu berean egindako beste bi dokumentatu ditugu, baina ia ostilamendurik gabeak, bata aztarnategiaren ekialdeko ertzean eta bestea hormatxoen hilobiaren oinean (eta hark moztua).

Bestalde, beste material higikor batzuk ere aurkitu genituen ekialdeko amilburuaren eta VI. eta VII. hilobien artean, baina ez zeuden aztarna antropologikoen hilobiekin lotuta. Alde batetik, aipatzekoak dira, joan den urteko testuan deskribatutako zeramikazko ontzia eta balde baten metalezko hondakinak (biak 10 cm inguruko altuera eta diametroa dutenak). Bestetik, metalezko pieza batzuk atzeman genituen (urrezko xafla txiki bat, eraztun bat zilarrezko txapa dekoratu batez hornitua eta eskuairan jarritako burdinazko pieza bat), bai eta beira orez egindako ale bat ere. Objektu horietako bakar bat ere ez dago inolako hilobirekin lotuta. Pieza horietako batzuk aldameneko errauts deposituetatik sakabanatu ahal izan zirela pentsa daitekeen arren, *in situ* dago jada deskribatutako ontzien ezkutatzea.

Ingurunea ere miatu dugu esku hartze honetan katen bidez (3 kata, 1 x 1 m-koa bakoitza), baina ez dute inolako emaitzarik eskaini orubean egiten den ikerketaren ondorioetarako.

Azkenik, aipatu behar dugu ateratako eraikuntza hondakinetako bakar batek ere ez duela Santiago ermitaren egiturarekin lotura zuzenik. Gure ustez, bertara igotzen den pistan egongo zen zehazki; pista hori aurreko hamarkadetan egin zuten baliabide mekanikoen bidez, eta aldapa erabilgarri bihurtu zen ezponda. Nolanahi ere, berriro ere adierazi nahi dugu harritu egiten gaituela inguruan guztiz Erdi Aroko zeramikazko materialik ez egoteak, Arrasateko antzeko beste aztarnategi batzuetan gertatzen den bezala, haietan oso ugari baitira su oxidatzailean erretako como en el borde superior (tumbas VI, VII y IX). En todos los casos se trata de bloques informes de caliza, que no componen muretes o losas perimetrales y no se documenta ninguna cubierta. En su interior se recuperan restos óseos, que en el caso de la IX se encuentran muy disueltos. Se orientan SE-NO. El individuo VII fue enterrado con cinturón, del que se ha conservado la hebilla.

Parcialmente cortado por la tumba de muretes se detectan pequeñas piedras areniscas, algunas dispuestas directamente sobre la roca que podrían corresponder a una tumba como las citadas. Sin embargo no se aprecian restos antropológicos de un posible enterramiento, pero sí algunos restos de hueso calcinado, dispersos. Todas las estructuras descritas se orientan SE-NO.

– Depósitos cinerarios: Dos de estos depósitos se ubican en la parte baja (sur) del yacimiento, coincidiendo con los enterramientos III y IV. Se caracterizan por estar acogidos en huecos practicados deliveradamente en la roca caliza y constituir una importante concentración de hueso calcinado y fragmentos de urnas cerámicas, vídrio y algunas piezas metálicas (apliques).

Otro de estos depósitos es muy similar en cuanto a la riqueza del ajuar (entre las distintas piezas, se recupera un anillo de bronce), aunque se realizó directamente en la arcilla del terreno (después fue alterado por la tumba del individuo VII). Finalmente, se documentan otros dos practicados en el mismo sustrato, aunque sin apenas ajuar, uno en el borde este del yacimiento y el otro al pie de la tumba de muretes (y cortado por esta).

Por otra parte, recuperamos otros hallagos de material mueble aparentemente no asociados a enterramientos de restos antropológicos entre el cantil este y las tumbas VI y VII. Por un lado, mencionamos el recipiente cerámico y los restos metálicos de un balde (ambos de unos 10 cm de altura y diámetro, aproximadamente), ya descritos en el texto de la anualidad precedente. Por otro, se recuperan piezas de metal (una pequeña lámina de oro, un anillo formado por una chapa decorada de plata, una pieza de hierro en escuadra) y una cuenta de pasta vítrea. Ninguno de estos objetos aparece asociado a un enterramiento de ningún tipo. Si bien se podría argumentar que algunas de estas piezas pudieron dispersarse de los depósitos cinerarios limítrofes, la ocultación ya descrita de los vasos se encuentra in situ.

Durante la intervención se ha procedido también a la exploración del entorno mediante catas (3, de 1 x 1 m cada una), las cuales han resultado frustradas a efectos de la investigación que se realiza en el solar.

Finalmente, debemos mencionar que ninguno de los restos constructivos exhumados parece tener relación directa con la fábrica de la ermita de Santiago. Creemos que pudo situarse exactamente en la pista que asciende al lugar, realizada mediante medios mecánicos en las décadas pasadas, convirtiendo el talud en cuesta practicable. En todo caso, reiteramos la sorpresa que nos produce la ausencia de materiales cerámicos puramente medievales en su entorno, como ocurre en el caso de los restos de recipientes comunes con pastas oxidantes que tan abundantes

orea duten ontzi komunen hondakinak, kontuan izanik identifikatutako hilobietako batzuen garaikideak direla aztarnategi horiek.

Ondorio gisa, eta indusketan eskuratutako materialak eta dokumentazioa oraindik aztertzen ari direla kontuan hartuta, esango genuke hileta gune honek Antzinaroaren eta Behe Erdi Aroaren artean izandako eraldaketaren sekuentzia nahiko osoa eskaintzen duela aztarnategiak. Erromatarren azken garaiko materialen aberastasunak ere berezitasun handia ematen dio leku honi. Gainera, Arrasateko populazioa ikertzeko bide berriak sortzen ditu, esate baterako, errausketa nekropolia sortu zuen finkamendua aurkitzera eramango gintuzkeena.

son en otros yacimientos similares de Mondragón y que serían coetáneos de algunos de los enterramientos ya identificados.

En conclusión, y teniendo en cuenta que los materiales y la documentación obtenidos en la excavación aún están siendo estudiados, consideramos que el yacimiento ofrece una secuencia bastante completa de la transformación de este espacio funerario entre la Antigüedad y la Baja Edad Media. La riqueza de los materiales tardorromanos es también un aspecto que otorga una gran singularidad al sitio. Además, suscita nuevas vías para la investigación del poblamiento en Mondragón, como es, por ejemplo, la que conduciría a la localización del asentamiento que dio lugar a la necrópolis de incineración.

I. Etxezarraga Ortuondo

C.5. AZKOITIA

C.5.1. **Altuna Portu, 14**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Jessica López Donosos

C.5.1. **Altuna Portu, 14**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Jessica López Donosos

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Azkoitia or with San Martin de Iraurgi.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak eskasak edo negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik begiratuta.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.5.2. **Balda, 18**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Pello Amiano Arregi

C.5.2. **Balda, 18**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Pello Amiano Arregi

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Azkoitia or with San Martin de Iraurgi.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak eskasak edo negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik begiratuta.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.5.3. **Balendin Olano, 6**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Iñaki Iribarren Alberdi;
Gipuzkoako Foru Aldundia

C.5.3. **Balendin Olano, 6**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Iñaki Iribarren Alberdi;
Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Azkoitiko Balendin Olano kaleko 6. zenbakiko orubean egindako lan arkeologikoek zerikusia dute San Martin muinoan dagoen eraikina birmoldatu eta berritzeko obrekin. Burdin Arotik populazio ebidentziak erregistratu dira ingurune horretan.

Esku hartzeak ez du inolako ebidentzia interesgarririk erregistratzeko aukerarik eman, eta substratu arkeologiko naturala azaleratu da zolatatik zentimetro gutxira.

Los trabajos arqueológicos desarrollados en el solar azkoitiarra de Balendin Olano nº 6 están relacionados con las obras de remodelación y reforma abordadas en el edificio, situado en la colina de San Martin. Un entorno donde se registran evidencias de población desde la Edad del Hierro.

La intervención no ha permitido registrar evidencias de interés alguno, aflorando el substrato arqueológico natural a los pocos centímetros de la solera.

A. Moraza Barea

C.5.4. **Larrumelarre I eta II (lehen Karramiola)**

Zuzendaritza: J. A. Mujika Alustiza
Dirulaguntza: Gipuzkoako Foru Aldundia

C.5.4. **Larrumelarre I y II (antes Karramiola)**

Dirección: J. A. Mujika Alustiza
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Over the past year we have attempted to determine the nature of two burial mounds discovered several years ago in Larrumelarre (previously known as Karramiola). To this end, three exploration pits were dug in each site.

Larrumelarre I tumulua (lehen Karramiola I), Irumugarrieta tontorraren iparraldean kokatzen da. 90eko hamarkadan, Munibe Taldeko Miguel Sasieta eta bere iloba Asier, Iruarrietara egindako miaketa-irteera batean egitura hori zegoela konturatu ziren, Oinatz Haundi baserrikoek Kanposantue deitzen zioten lursail batean.

Tumulua itxura homogeneoa duen harri-metaketa bat da, zazpi metroko diametroa eta 0,40 metroko altuera dituena. Egitura eratzen duten harriak, tokiko basaltoak dira.

Tumuluaren oroia, iparra erreferentziatzat hartuta, metro koadroko laukietan banatu da. X- aren ardatzean zenbakiak jarri dira eta Ipar-Hego norabidean, Y-an, hizkiak. Horrela, hiru lauki (6C, 6F, 6I) ireki dira. Estratigrafia oso xumea da. Goiko maila, kolore marroi ilunekoa zen, humusaren ondorioz. Bere azpian, kolorea argitu egiten da eta basaltozko harri koskorrak azaleratzen dira, 25 bat zm-tara. Basaltozko harri koskor hauek 40 cm baino txikiagokoak dira eta ez dute nabarmentzen inolako antolaketarik miaketa-zuloak egindako laukietan. Zundaketan ateratako lurrak bahetu ondoren bere tokira itzuli dira.

Zundaketan ez da inolako material arkeologikorik edota ganbera zantzurik aurkitu, eta ondorioz ezer gutxi esan daiteke egituraz. Hau gizakiak egindakoa izan daitekeela uste dugu bere uniformetasunagatik, eta trikuharri txiki baten edo harkutxa baten aurrean egon gintezkeela.

Larrumelarre I-etik 150 metrora, Ipar/Ipar-Mendebaldera kokatzen da Larrumelarre II (lehen Karramiola II). Azkoitiko Munibe Taldeko aurkitu zuten, 2005eko azaroan, balizko tumulu hau.

El túmulo de Larrumelarre I (antes Karramiola I) se sitúa al norte de la cima de Irumugarrieta. En la década de los 90, Miguel Sasieta y su sobrino Asier del Grupo Munibe se percataron de la existencia de esta estructura en una salida exploratoria a Iruarrieta, en un terreno que los moradores del caserío Oinatz Haundi llamaban Kanposantue.

El túmulo es una acumulación de piedras de aspecto homogéneo, de siete metros de diámetro y 0,40 metros de altura. Las piedras que forman la estructura son basaltos propios del lugar.

El área del túmulo, tomando como referencia el norte, se ha dividido en cuadros de un metro cuadrado. Se han colocado números en el eje de la X y letras en el de la Y en dirección Norte-Sur. Así, se han abierto tres cuadros (6C, 6F, 6I). Consta de una estratigrafía muy sencilla. El nivel superior era de color marrón oscuro debido al humus. Bajo este primer nivel se va aclarando el color y van aflorando cantos de piedra de basalto a unos 25 cm. Estos cantos de basalto tienen un tamaño inferior a 40 cm y no presentan ninguna disposición en los cuadros en los que se han realizado catas. Las tierras extraídas en el sondeo han sido tamizadas y devueltas a su sitio.

En el sondeo no se ha encontrado ningún tipo de material arqueológico ni indicios de cámara, por lo que poco se puede decir sobre la estructura. Creemos que puede ser obra del hombre por su uniformidad, y que podría tratarse de un pequeño dolmen o de una cista.

A 150 metros de Larrumelarre I se sitúa Larrumelarre II (antes Karramiola II) al Norte/Noroeste. Este posible túmulo fue descubierto en noviembre de 2005 por el Grupo Munibe de Azkoitia.

Larrumelarre I tumulua.

Túmulo Larrumelarre I.

Irregulartasun nabarmenak dituen gaintxo batean kokatzen da tumulu itxura duen harri-metaketa honek, 11 metro ditu Iparralderako norabideko ardatzean eta 12 metro zeharkakoan. Bere altuera ez da metrora heltzen.

Tumuluaren oroian egin den jarduera arkeologikoan beste egituran erabilitako metodologia bera erabili dugu eta hiru lauki ireki (4H, 8H, 12H) ditugu. Bertako estratigrafia beste egituraren antzekoa da. Zundaketetan 15 eta 30 cm-ra arte sakondu da, inolako antolaketarik ez duten basaltozko harri koskorrak azaleratu arte. Zundaketan ez da inolako material arkeologikorik aurkitu.

Bera kokatzen den inguruan azaleratzen diren egitura geologikoek pentsarazten digute ez gaudela egitura arkeologiko baten aurrean, eta gerta daitekeela inguru horretan egin diren mota ezberdineko nekazallanen ondorioz hartu duela gaur egun duen itxura. Larrumelarre II harri-metaketak zalantza gehiago sortzen digu bere izaera arkeologikoaz.

Esta acumulación de piedras en forma de túmulo se encuentra en un pequeño alto con notables irregularidades, y tiene 11 metros en el eje dirección Norte y 12 metros en el transversal. Su altura no alcanza el metro.

En la intervención arqueológica que se ha llevado a cabo en el área del túmulo se ha seguido la misma metodología utilizada en la otra estructura, y se han abierto tres cuadros (4H, 8H, 12H). Su estratigrafía es similar a la de la otra estructura. En los sondeos se ha profundizado entre 15 y 30 cm hasta aflorar bloques de basalto que no muestran ningún tipo de disposición. En esta intervención no se ha encontrado ningún material arqueológico.

Las estructuras geológicas que afloran en el entorno en el que se ubica nos hacen pensar que no nos encontramos ante una estructura arqueológica, y que su aspecto actual puede deberse a las diferentes labores agrícolas que se han llevado a cabo en la zona. La acumulación de piedras de Larrumelarre II sí que plantea más dudas sobre su carácter arqueológico.

Munibe Taldea

C.5.5. **Zubieta jauregia**

Zuzendaritza: Leandro Sánchez Zufiaurre
Finantzazioa: Familia Yrizar

C.5.5. **Palacio Zubieta**

Dirección: Leandro Sánchez Zufiaurre
Financiación: Familia Yrizar

Archaeological intervention (stratigraphic analysis of walls and documentary screening) in Zubieta Tower, prior to its restoration and valorisation. A total of seven construction phases were registered, enabling us to date the earliest evidence of its construction to at least the 14th century, with occupation continuing until the present day.

Sarrera

Zubieta jauregia Azkoitian dago, hirigunearen iparraldean eta Urola ibaiaren ezkerraldean. Gaur egun, oinplano angeluzuzeneko eraikin handia da,

Introducción

El palacio Zubieta se ubica en la localidad de Azkoitia, al norte del casco urbano y en la margen izquierda del río Urola. Actualmente es un gran edificio

eta beheko solairua, hiru goiko solairu eta teilatupea ditu. Iparraldean du altxaera nagusia; hegoaldean, ibaira ematen du fatxadak; mendebaldean, Azkoitiko antzinako hiribildura; eta ekialdean, jauregiko lorategi pribatura. Familia jabea higiezina eraberritzeko aukerak aztertzen ari da, bere esentzia historikoari eutsiz. Horregatik, ezinbestekoa zen azterketa arkeologikoa egitea.

Emaitzak

Azterketa arkeologikoak, Iturri dokumentalen eta bibliografikoen ikerketarekin batera, eskaini digun sekuentzia estratigrafikoa zazpi fase historiko-eraikitzailetan banatuko genuke:

1. fasea. I. dorrea

Egitura batzuk identifikatu genituen gaur egungo jauregiaren hegoaldeko erdialdean, eta lauki formako espazio bat eratzen zuten oinplanoan. Ez dakigu zenbateko altuera izango zuen, baina hormetako batzuk beheko solairuan eta lehen solairuaren zati batean garatzen dira. Hormen altxaerak, zati handi batean, zarpiatu zuriz estalita badaude ere, gune batzuetan zarpiatu hori galdu egin denez, jakin ahal izan dugu harlandu txikiz eta landu gabeko harriz eginak direla egiturak. Egitura horiek 6.50 metroko eremua mugatzen dute ekialdetik mendebaldera eta 5,30 metrokoa, berriz, iparraldetik hegoaldera, eta dokumentatutako konfigurazioaren arabera, iparraldean egongo zen sarbidea. Gure ustez, gaur egungo ateetako bat, iparraldeko altxaeraren mendebaldeko muturrean dagoena, jatorrizko portada ojibala da, baina lekuz aldatua; lehen faseko obran oraindik ageri da kendu ondoren utzitako hutsunea, barruko ate bihurtua, eta lekuz aldatutako arkua hartzeko adinako zabalera du, hain zuzen ere.

Lehen dorre horrez gain, ondo lerrokatutako bi orma aurkitu ditugu ekialdean, eta sarrerako defentsa sistemakoak izango zirela uste dugu.

Kronologiari dagokionez, badakigu Azkoitiko hiribildua 1324an sortu zela Iraurgiko San Martin izeneko tokian. Ondoren, 1331n, herria lekuz aldatu zuten, eta beste hiribildu bat sortu zuten ibaiaren ezkerraldean, Miranda de Iraurgi izenekoa. Iturrien arabera, dorrea bazegoen jada Miranda de Iraurgi sortu zenean, hiribilduko bi errebaletako batean, eta hasiera-hasieratik protagonista izan zen biztanleriaren antolaketan. Kronologia horrekin bateragarriak dira obraren ezaugarriak eta lekuz aldatutako portada.

2. fasea. Dorrea handitzea

Dorrea nabarmen handitu zuten, iparralderantz eta mendebalderantz hedatuz. Egiturak oinplano karratua du eta altuera handia izango zuela uste dugu. Bi gezileiho kontserbatu dira ekialdeko eta hegoaldeko altxaeretan; hiribildutik kanpo eta Azpeitira zeraman Errege bidearen ondoan zegoenez eutsi egingo zion zuen defentsa izaerari. Handitze horretan harlandu txikiz egin zituzten hormak, eta iparraldeko altxaeraren mendebaldeko muturrean du sarbidea. Arku zorrotzeko sarbide hori jatorrizko dorrearen sarrera izango zen segur aski. Dorrea handitu zutenean, barruko espazio batean geratu zen portada hori, eta horregatik mugitu zuten fatxada berrira. Lekuz aldatzean leiho biki bat

de planta rectangular que se distribuye en planta baja, tres alturas y bajocubierta. Su alzado principal se encuentra al norte; al sur su fachada da al río, al oeste a la primitiva villa de Azkoitia y al este a un jardín privado perteneciente al palacio. La familia propietaria está analizando alternativas de reforma del inmueble, que mantengan su esencia histórica. Por ello se hacía imprescindible su estudio arqueológico.

Resultados

El estudio arqueológico conjugado con la investigación de las fuentes documentales y bibliográficas, ha dado como resultado una secuencia estratigráfica distribuida en siete fases histórico-constructivas:

Fase 1. Torre I

Identificamos una serie de estructuras que dibujan en planta un espacio cuadrangular situado en la parte central sur del actual palacio. Desconocemos la altura que llegó a alcanzar, si bien algunos de los muros se desarrollan en la planta baja y en parte de la primera planta. Aunque los alzados de los muros están en gran parte cubiertos con enfoscados blancos, la pérdida de éstos en algunas zonas nos permite saber que se aparejan en sillarejo y mampostería. Estas estructuras delimitan un espacio de unos 6.50 m de E a W y 5,30 m de N a S y según la configuración documentada, su acceso se situaría al norte. Creemos que una de las puertas actuales, ubicada en el extremo occidental del alzado norte, es la portada ojival original pero trasladada; el hueco dejado tras su eliminación se conserva aún en la obra de la primera fase, reconvertido en puerta interior, y tiene la anchura justa como para albergar el arco trasladado.

Además de esta primera torre, se identificaron dos muros alineados al este que identificamos con el sistema defensivo de entrada.

Respecto a la cronología, sabemos que la villa de Azkoitia fue fundada en 1324 en el lugar llamado San Martín de Iraurgui. Posteriormente, en 1331 la población fue trasladada, fundando una nueva villa en la margen izquierda del río llamada Miranda de Iraurgui. Según las fuentes, la torre ya existía cuando se funda Miranda de Iraurgui, situada en uno de los dos arrabales de la villa, teniendo desde sus inicios un papel protagonista en la organización de la población. Las características de la obra y la portada trasladada son compatibles con esta cronología.

Fase 2. Ampliación de la torre

Se produce una importante ampliación de la torre, extendiéndola hacia el norte y hacia el oeste. La estructura tiene planta cuadrada y suponemos que tendría una altura considerable. Se conservan dos saeteras en los alzados este y sur; su ubicación fuera de la villa y junto al camino Real que llevaba a Azpeitia puede explicar el mantenimiento de su carácter defensivo. Los muros de esta ampliación se aparejan en sillarejo, y su acceso se localiza en el extremo occidental del alzado norte. Este acceso en arco apuntado sería seguramente el acceso de la primitiva torre. Cuando la torre se amplía esta portada queda en un espacio interior, y por eso la mueven a la nueva fachada. Al trasladarla abren sobre ella una ventana geminada

Jauregiaren bi altxaeren planoa argazki zuzenduarekin, eta bi solairu, eraikinaren eraikuntza faseak markatuta.

Plano de dos alzados del palacio con fotografía rectificada y dos plantas, donde se marcan las fases constructivas del edificio.

ireki zuten hartan (gaur egun itxia dago). Antzeko ezaugarriak dituen beste leiho biki bat izango zenaren hasiera kontserbatu da bigarren solairuaren parean.

Ez dakigu noiz egin zuten tamaina handiagoko defentsa dorrea sortu zuen handitze lan hori, baina uste dugu hiribilduaren gorakadarekin zerikusia izan behar zuela obra handi horrek. Dokumentu iturriek diote desadostasunak izaten zirela hiribildutik kanpoko biztanleen eta barrukoen artean; 1413an sinatu zuten bien artean konkordia gutuna, eta Yribeko dorretxean sinatu zuten, hauxe da, Zubieta dorrean, orain Yribe familiaren esku dagoena. Uste dugu XV. mendearen lehen erdian egin zela handitze lan hori.

3. fasea. Altuera handitzea eta mendebaldean leiho konopialak irekitzea

Dorrearen altuera birmoldatu zuten, beharbada kolapso partzial baten ondorioz, batez ere hegoaldeko altxaerari eragin ziona. Altuera aldatu zen, baina oinplanoan zuen azalera aldatu gabe. Obra berri horietan harlandu txikia erabili zuten iparraldeko eta mendebaldeko altxaeretan (nobleenak eta ikusgarrienak), eta landu gabeko harria, berriz, hegoaldeko altxaeran. Gauzarik aipagarrienetako bat da baoak egin zituztela, hauxe da, leiho konopialak mendebaldeko altxaeran eta dinteldunak hegoaldeko altxaeran. Haien bidez, bizitegi itxura handiagoa hartu zuen dorreak, defentsa funtzioaren kaltetan. Barrualdean, egurrezko egitura goitik behera berreraiki zuten. Egi-

(actualmente cegada). A la altura de la segunda planta se conserva el arranque de lo que parece ser otra ventana geminada de similares características.

Desconocemos la cronología de esta ampliación que crea una torre defensiva de mayor porte, pero consideramos que esta gran obra tuvo que estar relacionada con momentos de auge de la villa. Las fuentes documentales nos hablan de discrepancias entre los habitantes de fuera de la villa y los de dentro; en 1413 se firma la Carta de Concordia entre ambos y se rubrica en la casa-torre de Yribe, que no es otra que Zubieta Torrea, que ahora está en manos de la familia Yribe. Creemos que esta ampliación se realizó en la primera mitad del siglo XV.

Fase 3. Elevación con ventanas conopiales al oeste

Se lleva a cabo una remodelación en altura de la torre, provocada quizás por un colapso parcial que afecta sobre todo al alzado sur. Se modifica en altura, sin que cambie su superficie en planta. Se aparejan estas nuevas obras en sillarejo en los alzados norte y oeste (los más nobles y visibles) y en mampostería en el alzado sur. Una de las cosas más destacadas es la apertura de vanos, que son conopiales en el alzado oeste y adintelados en el alzado sur. Con ellos la torre adquiere un significado más residencial en detrimento de su función defensiva. En el interior se produce una reconstrucción completa de la estructura de madera,

tura horren hegoaldeko erdialdeko sabaia kontserbatu da beheko solairuan, lehenengo solairuko lurzorua osatzen duena espazio horretan.

Azterketa estratigrafikoa, obren tipologia eta kontsultatutako dokumentu iturriak kontuan hartuta, uste dugu XVI. mendean gauzatu zela fase hori.

4. fasea. Barne aldaketak eta leiho konopialak iparraldean

Aurreko fasearen estetikari eta esanahiari jarraitu zioten etapa berri honetan ere; beste lan batzuen artean, leiho konopialak ireki zituzten, kasu honetan, iparraldeko altxaeran. Mendebaldeko altxaeran bi bao egin zituzten, ate bat eta leiho bat, tamaina handikoak eta dinteldunak. Barrualdean mendebaldeko eremuaren barneko espazioak aldatu ziren, eta beheko solairuan gune handi bat sortu zuten, zurezko sabai berri batez estalia, lehen solairuko lurzorua osatzen zuena.

Kronologiari dagokionez, XVI. mendearen amaieraren eta XVII. mendearen hasieraren artean kokatuko genuke fase hori.

5. fasea. Dorrea ekialderantz zabaltzea eta altxatzea

Egitura mailako aldaketa nabarmenenak eta agerikoenak une honetan gertatu ziren Zubietan. Ekialdeko altxaeraren zati handi bat kendu zuten eta dorrea ekialderantz eta altueran handitu zuten, oinplano angeluzuzeneko jauregi bihurtuz. Aurreko kasuetan bezala, iparraldeko eta mendebaldeko altxaerak harlandu txikiz egin zituzten batez ere, aurreko faseetako piezak berrerabiliz. Hegoaldeko eta ekialdeko altxaerak, gutxien ikusten direnak, landu gabeko harriz egin zituzten. Altxaera guztietan baoak modu ordenatuan ireki zituzten, baina aurretik zeuden baoak kontuan hartuta betiere; horregatik, ordena hori aldatu egiten da batzuetan. Mendebaldeko altxaeran, aurreko faseko baoak itxi zituzten eta berriak ireki zituzten, fatxaden erregularizazioari jarraituz. Gainera, mugatu egin zuten ekialdean dagoen lorategi pribatua, landu gabeko harriz horma bat eginda, kaletik bereizteko.

Kanpoko lan horiek guztiek isla izan zuten barnealdean ere, barrua ere berrantolatu baitzuten. Espazioak mugatu eta sabai eta lurzoru berriak sortu zituzten, bai eta solairuak elkarrekin lotzeko eskailerak ere. Beheko solairuan biltegiak eta zalditegiak egin zituzten, eta lehen solairuan, berriz, gune zabalak ireki zituzten. Bigarren solairua da eraikineko nobleena: mendebaldeko erdian dauden aretoak dekoratu zituzten; hormetan papera jarri zuten eta sabaien egurrezko egitura ezkutuan geratu zen. Hirugarren solairuan gela pribatuak egin zituzten eta galeria handi bat hegoaldean. Lehenengo eta bigarren solairuen barne banaketaren barruan, nabari da gune publikoagoak edo lanekoak zituela mendebaldeko eremuak, eta erabilera pribatuagoak eta familiarragoak, berriz, ekialdeko eremuak.

Kronologiari dagokionez, lotura estratigrafikoak argiak dira guztiz, eta, gainera, dokumentazioari esker, badakigu 1770ean Micaela del Corral y Aguirre andreari saldu zitzaiola Zubietako etxea. Hark zati handi bat eraitsi eta berreraiki egin zuen eta Francisco de Ibero arkitektoa kontratatu zuen horretarako. Berreraide la que conservamos el techo de la parte central sur de la planta baja, que forma también el suelo de la primera en ese espacio.

Teniendo en cuenta el estudio estratigráfico, la tipología de las obras y las fuentes documentales consultadas, creemos que esta fase se enmarca en el siglo XVI.

Fase 4. Modificaciones internas y ventanas conopiales al norte

En esta nueva etapa se sigue la estética y el significado de la fase precedente; entre otras obras se abren ventanas conopiales, en este caso, en el alzado norte. En el alzado oeste se abren dos vanos, una puerta y una ventana, de gran porte y adintelados. En el interior se modifican los espacios internos de la zona occidental, creando en la planta baja un gran espacio que se cubre con un nuevo techo de madera, formando también el suelo de la primera planta.

En cuanto a la cronología, esta fase se puede enmarcar entre finales del siglo XVI y comienzos del siglo XVII.

Fase 5. Ampliación de la torre hacia el este y elevación

Los cambios más significativos y más visibles a nivel estructural en Zubieta se producen en este momento. Se elimina gran parte del alzado oriental y se amplía la torre hacia el este y en altura, convirtiéndola en un palacio con planta rectangular. Como en casos anteriores, los alzados norte y oeste se aparejan mayoritariamente en sillarejo, con reutilización de piezas de las fases precedentes. Los alzados sur y este, los menos visibles, se aparejan en mampostería. En todos los alzados se abren vanos de manera ordenada, aunque teniendo en cuenta los vanos preexistentes, por lo que este orden se ve en ocasiones alterado. En el alzado occidental se amortizan los vanos de la fase anterior y se abren nuevos siguiendo la regularización de fachadas. Además, se delimita el jardín privado que se abre al este, creando un muro de mampostería que lo separa de la calle.

Todas estas obras exteriores tienen su reflejo en el interior, donde se produce una nueva reorganización interna. Se delimitan espacios y se crean nuevos techos y suelos, así como las escaleras de comunicación entre las diferentes plantas. En la planta baja se crean almacenes y caballerizas y en la primera planta se abren amplios espacios. La segunda planta es la más noble del edificio: los salones situados en la mitad occidental se decoran; sus paredes se empapelan y se oculta la estructura de madera de sus techos. En la tercera planta se crean las habitaciones privadas y una gran galería al sur. Dentro de la distribución interna de la primera y segunda planta se aprecia que la zona occidental se dedica a estancias de carácter más público o laboral, mientras que la zona oriental tiene unos usos más privados y familiares.

En cuanto a la cronología, las relaciones estratigráficas son claras y, además, sabemos por la documentación que en 1770 se vende la casa de Zubieta a doña Micaela del Corral y Aguirre que la derriba en gran parte y la reedifica contratando al arquitecto Francisco de Ibero, del que conservamos los planos

kitze proiektu horren planoak kontserbatu dira. Horregatik guztiagatik, XVIII. mendearen amaieran kokatuko genuke fase hau.

6. fasea. Barneko berritze lanak XIX. mendean

Jauregiaren barnealdea berrantolatu zuten berriz ere. Gela berriak egin zituzten trenkadak altxatuz, eta premia berrietara egokitu zuten jauregiko bizitza. Horixe erakusten dute lehen solairuan egindako sukalde berriak, hirugarren solairuan egindako gelek edo gehien erabiltzen ziren aretoetan egin zituzten tximinia berriek. Ekialdeko altxaeraren kanpoaldean, harrizko eskailera berria eraiki zuten, lorategi pribatura joateko.

Kronologiari dagokionez, 1818ko data duen dokumentu batek dio Zubieta saldu egin zutela, eta eraikin osoa jabe bakar baten esku geratu zela. Uste dugu erosi ondoren obrak egingo zirela, XIX. mendearen bigarren laurdenean, hain zuzen ere.

7. fasea. Goiko galeria ixtea eta azken berritze lanak

Azken fase honetan aldaketak egin ziren XX. mendean zehar sortutako beharretara egokitzeko. Kanpoaldean berritze lanak egin zituzten, esate baterako ekialdeko altxaeran terraza goratu bat eraiki, eta haren azpian garajeko ate bat ireki. Barrualdean, berriz, solairuetako guneak berrantolatu zituzten; berritze lan garrantzitsuenetako bat da solairu bakoitzean ekialdean dauden komunak eraikitzea.

Bigarren lan garrantzitsua izan zen hirugarren solairuko galeria kentzea. Hura kendutakoan lurzoru berriak jarri zituzten eta gelen banaketa aldatu zuten, gelak handitu egin baitziren.

Argi nabari da aldaketa izan zela intimitatearen eta osasungarritasunaren kontzeptuan; obrak 1910eko hamarkadan hasi eta hogeiko hamarkadaren amaierara arte luzatu ziren. Obra haiekin hartu zuen jauregiak bere behin betiko fisonomia.

Konklusioak

Zubietako dorrearen azterketari esker, ezagutu ahal izan dugu duen sekuentzia estratigrafiko garrantzitsua. Aurretik defentsa egitura bat zegoela uste genuen, eta zorionez, identifikatu ahal izan ditugu jatorrizko dorretxearen hondakinak.

Zubietako ikerketa arkeologikoa dokumentu iturrien azterketarekin uztartu dugu, eta, horri esker, zazpi eraikuntza fasetan antolatu ahal izan dira emaitzak. Hainbat handitze eta eraberritze lan egin ziren historian zehar, dorrean sortzen ziren beharrei erantzuteko, Azkoitian bizi izandako gorabehera historikoak ere islatzen dituztenak. Jatorrizko izaera defentsibotik askoz ere bizitegi definizio handiagora eboluzionatu du; alderdi hori nabari da oraindik Zubietan dauden altzarietan ere, eta haiei esker, gai gara sortuak izan ziren bezala erakusteko guneetako batzuk. Horregatik guztiagatik, Zubietaren kontserbazioak ondasun higigarri eta higiezin guztiak integratu behar ditu, elkartuta kontserbatu behar ditu, familiaren historiari, eta, harekin batera, udalerriaren historiari eusteko.

del proyecto. Por todo ello esta fase se enmarca a finales del siglo XVIII.

Fase 6. Reformas interiores del siglo XIX

Se lleva a cabo una nueva reorganización interna del palacio. Se crean nuevas habitaciones levantando tabiques, y la vida en el palacio se acomoda a nuevas necesidades. Esto tiene su reflejo en la nueva cocina hecha en la primera planta, en la creación de habitaciones en la tercera o en la colocación de nuevas chimeneas en los salones más utilizados. En el exterior del alzado este, se construye una nueva escalera de piedra que da acceso al jardín privado.

En cuanto a la cronología, existe un documento fechado en 1818 en el que aparece la venta de Zubieta, pasando todo el inmueble a un único propietario. Creemos que una vez adquirido, se realizarían las obras; en el segundo cuarto del siglo XIX.

Fase 7. Cierre de la galería superior y últimas reformas

En esta última fase se realizan modificaciones para adaptarse a las necesidades surgidas a lo largo del siglo XX. Se hacen reformas en el exterior como la construcción de una terraza elevada en el alzado este, bajo la que se abre una puerta de garaje. En el interior se reorganizan los espacios de las diferentes plantas; una de las reformas más significativas es la construcción de los baños situados en cada planta en la zona oriental.

La segunda obra importante es la eliminación de la galería de la tercera planta. Esta eliminación supone la colocación de nuevos suelos y el cambio en la distribución de habitaciones, que se amplían.

Se aprecia claramente un cambio en el concepto de intimidad y salubridad; las obras comienzan en la década de 1910 y se dilatan hasta finales de los años veinte. Obras con las que el palacio adquiere su fisonomía definitiva.

Conclusiones

El estudio de la torre de Zubieta ha permitido conocer su importante secuencia estratigráfica. Suponíamos la existencia de una estructura defensiva previa, y afortunadamente hemos podido identificar los restos pertenecientes a la casa torre original.

En la zona central del edificio, donde se han abierto las nuevas zapatas, los resultados obtenidos durante el análisis arqueológico han permitido el registro de una secuencia estratigráfica sencilla. En una de ellas, situada en el noreste de la edificación se ha registrado una estructura fabricada con mampuestos y bolos de unas dimensiones aproximadas de 48 cm de anchura, 50 cm de longitud y tres hiladas de potencia (20 cm), pero dada su situación -se encontraba en el perfil de la cata- no se ha podido documentar su totalidad por lo que establecer su tipologia o funcionalidad ha resultado imposible.

En el area noroeste de la edificación, en una de las zanjas abiertas para la consolidación del muro perimetral trasero, se documentó, una estructura con disposición norte-sur fabricada con bolos trabados con tierra y con unas dimensiones de 80 cm de anchura, 60 cm de longitud y 50 cm de alzado en tres hiladas.

Se desconoce la fecha de edificación del caserio Alamandegi Berri, aun así existen dos documentos de 1617 en los que se hace referencia a elementos relacionados con su construcción: el primero de ellos data del 8 de marzo de 1617 y se trata de un » *concierto de la obra de canteria para la construcción de las cuatro paredes de la casa de Alamandegi Berri entre Tomás de Yrigoyen y la comunidad de Zubieta*» y el segundo fechado el 14 de junio del mismo año en el que relata «*censo dado por Francisco de Gullisasti a los vecinos de la tierra de Çubieta de 100 ducados, para la construcción de Alamandegi Berria*».

Para la segunda mitad del siglo XVII la que será casa del Concejo de la Comunidad de Zubieta ya estaba erigida como aparece reflejado en un documento de 1679: «*que juntos y congregados estamos conforme costumbre, en la casa nombrada Alamandeguía la nueba, que es la que thenemos señalada como propia de dicha comunidad para semexantes conbocatorias y tratar, conferir y resolber cosas del serviçio de Dios nuestro señor y hutilidad de dicha comunidad y su concexo...*».

Analizando la fachada principal se observa que el edificio sufrió una ampliación al oeste y, tal y como sucede con la construcción del caserío, se desconoce su fecha de realización. Por lo tanto, dada la situación y características de esta última estructura, podemos determinar que nos encontramos ante la zapata del muro de cierre oeste original del caserío Alamandegi Berri anterior a la ampliación mencionada».

Z. Galan Zumeta

C.12. **ELGOIBAR**

C.12.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.12.1.1. **Kalegoen plaza, 5**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea

C.12.1.1. **Plaza Kalegoen, 5**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Comunidad de Propietarios

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Elgoibar.

Esku hartze honetan 1,50 x 0,80 metroko bi zundaketatan oinarritu dugu gure lana, orubearen iparmendebaldeko muturrean. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik izan, eta etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

Intervención desarrollada en base a dos sondeos de 1,50 x 0,80 m en el extremo noroeste del solar; siendo los resultados de la misma de escaso interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del solar.

Z. Galan Zumeta

C.12.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.12.2.1. **Moruko barruti gotortua**

IV. kanpaina
Zuzendaritza: Ander Arrese
Finantzazioa: Elgoibarko Udala

C.12.2.1. **Recinto fortificado de Moru**

IV Campaña
Dirección: Ander Arrese
Financiación: Ayuntamiento de Elgoibar

During this fourth season of sondages in the Iron Age settlement of Moru, 5 sondages were dug in different areas of the site with varying results. Two revealed archaeological material compatible with the Iron Age, and a third revealed a possible floor. No information of interest was found in either of the other two.

Moruko zundaketen kanpaina honetan 5 zundaketa arkeologiko proposatu ditugu, hainbat helbururekin, eta emaitza desberdinak eskaini dituzte. Lortu nahi genuen helburuetako bat zen aztarnategia iparraldeko eta hego-mendebaldeko muturretan mugatzea 2. eta 4. zundaketekin. 4. zundaketak ez du aztarnategia saihets horretatik mugatzen lagunduko ligukeen informazio gehigarririk eman, ez baitu emaitza arkeologikorik eskaini. Aldiz, 2. zundaketak pentsarazi digu aztarnategia ez dela soilik Moruko gailurreko goiko terrazara mugatzen, baizik eta gailurraren hego-mendebaldean dagoen beheko terrazak ere funtzio bat izan zezakeela kastroaren funtzionamenduan, hori oraindik zehaztu gabe badago ere.

1., 3. eta 5. zundaketei dagokienez, esparruaren barneko espazioa zehaztu nahi genuen, haren estratigrafia eta inguruaren egitura. Barneko espazioari dagokionez, 1. zundaketak emaitza negatiboa izan du, 2018an goiko aldean egindako zundaketak bezalaxe, *a priori* potentzial handiena duena, azalera lau handia baitu aztarnategiaren goiko aldean. Ezin da baztertu eremu horretan hondakinak egoteko aukera, baina

En esta campaña de sondeos en Moru hemos planteado 5 sondeos arqueológicos con diferentes objetivos y han aportado resultados dispares. Uno de los objetivos que perseguíamos era el de delimitar el yacimiento en sus extremos norte y suroeste con los sondeos 2 y 4. El sondeo nº 4 no ha aportado información adicional que nos ayude a delimitar el yacimiento por este flanco ya que no ha ofrecido resultados arqueológicos. En cambio, el sondeo nº 2 nos lleva a suponer que el yacimiento no solo se limita a la terraza superior de la cima de Moru sino que el aterrazamiento inferior situado al suroeste de la cima podría jugar una función aún por definir en el funcionamiento del castro.

Respecto a los sondeos 1, 3 y 5 pretendían definir el espacio interior del recinto su estratigrafía y estructura del cerco. En cuanto al espacio interior, el sondeo nº 1 ha dado resultado negativo al igual que el sondeo realizado en 2018 en esta la zona superior y a priori la de mayor potencial ya que presenta una amplia superficie llana en la parte mas elevada del yacimiento. No se puede descartar que existan restos en esta zona,

badirudi gailurrean pilatzen den estratigrafia eskasak eta baso ustiapenaren jarduerak materialak desagertzea eragin dutela edo, egiazki, eremu hori aztarna arkeologiko nabarmenik utzi ez duten beste erabilera batzuetarako erabiltzen zela (abeltzaintza, nekazaritza...). 3. zundaketa egiteko, magnetometroaren bidezko miaketaren emaitzak hartu dira kontuan. Emaitzak material arkeologikoei dagokienez antzuak izan badira ere, pentsa daiteke aprobetxamenduren bat edo ekoizpenen bat izan zuela azalera lauan, sedimentua eta klastoak bloke handien kontra metatuz. Emaitza horiek ez dira eztabaidaezinak, eta, beraz, zundaketa hori handitu egin beharko da, haren jatorri geologikoa edo antropikoa argitzeko.

5. zundaketak informazio asko eman du, Moruko defentsa barrutiaren morfologia eta estratigrafia interpretatzeko materialaz gain. Uste dugu hesi hori, zati batean bederen, itxitura harrizko oinarri batekin eraikiko zutela, eta oholesi moduko zurezko egitura bati eutsiko ziola oinarri horrek.

pero parece que la escasa estratigrafía que se acumula en la cumbre unido a la actividad de explotación forestal ha propiciado la desaparición de los materiales o realmente esta zona se dedicaba a otros usos que no han dejado restos arqueológicos evidentes (ganadería, agricultura...). El sondeo nº 3 se realiza siguiendo los resultados que se derivan de la prospección con magnetómetro y sus resultados, aunque estériles en cuanto a materiales arqueológicos sugieren un posible aprovechamiento o incluso de producción de superficies llanas acumulando sedimento y clastos contra grandes bloques. Estos resultados no son concluyentes por lo que invitan a la ampliación de este sondeo para aclarar su origen geológico o antrópico.

El sondeo nº 5 ha aportado mucha información además de material para interpretar la morfología y estratigrafía del cerco defensivo de Moru. Entendemos que, al menos en parte, este cerco se construiría con una base de piedra que soportaría una estructura de madera en forma de empalizada.

A. Arrese

C.13. ERRENTERIA

C.13.1. Aizpitarteko leizeak. Azterketa geomorfologikoa eta arkeologikoa

Zuzendaritza: Diego Garate

Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia; Errenteriako Udala

C.13.1. Cuevas de Aizpitarte. Estudio geomorfológico y arqueológico

Dirección: Diego Garate

Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de Errenteria

In 2020, a geomorphological and archaeological study was carried out in the caves of Aizpitarte Hill. A microphotogrammetric study was conducted of the lines found in Aizpitarte IV with the aim of reconstructing the artists' gestural chains. We also identified the erosion and sedimentation processes that have taken place in the past in the Aizpitarte cave complex, enabling us to virtually reconstruct the status of the caves at different moments of history. Also worth mentioning is the discovery of an unprecedented and hitherto undetected series of red paintings, including two representations, in the final stretch of Aizpitarte IV.

COVID-19k ekarri duen osasun krisiak eragindako eragozpenen ondorioz, zorroztu egin behar izan baditugu ere kautelazko babes eta prebentzio neurriak, arrakastaz eraman ahal izan da aurrera Aizpitarteko leizeen azterketa geomorfologikorako eta arkeologikorako 2020ko kanpaina. Hala ere, lanak txosten hau idatzi aurreko hilabeteetan egin behar izan direnez, emaitzetako asko (batez ere datazio erradiometrikoei dagozkienak) ebazteke daude oraindik.

Azterketa geomorfologikoari esker, baldintza freatikoetan eratutako galeria sare bat aztertu ahal izan da Aizpitarten (administrazioaren eta hizkuntzaren arabera ematen du hori dela gomendatzen den terminoa, izaera zientifikoko dokumentazio idatzian «Aizpitarte» edo «Landarbaso» jasota dagoen arren), gutxienez 4 haitzulo maila dituena. Leize maila bakoitzaren eraketa prozesu paragenetikoekin lotuta dago; prozesu horiek gertatu dira karga sedimenta-

A pesar de los contratiempos derivados por la crisis sanitaria del COVID-19, los cuales nos han obligado a extremar las medidas cautelares de protección y prevención, la campaña de 2020 de estudio geomorfológico y arqueológico de las cuevas de Aizpitarte ha podido llevarse a cabo con éxito. Sin embargo, y como los trabajos han tenido que ejecutarse en los meses inmediatamente previos a la redacción de este informe, muchos de los resultados (sobre todo los referentes a las dataciones radiométricas) se hallan todavía pendientes de resolución.

El estudio geomorfológico ha permitido reconocer en Aizpitarte (el término recomendado a instancias administrativas y lingüísticas parece ser este, si bien en la documentación escrita de carácter científico el nombre que viene recogido es «Aizpitarte» o «Landarbaso») a una red de galerías formadas en condiciones freáticas, con una mínima disposición de al menos 4 niveles de cuevas. La formación de cada nivel de cueva está rela-

Aizpitarte III (beltzez) eta II (gorriz) (Aizpitarte Elkartea) topografien gainjartzea. Bi barrunbe horien eredu tridimentsionala, II. leizearen amaieran III. leizean aurkitutako Gravette aldiko testuinguruen arteko erlazioa erakusten duena. Altuna et al. 2011tik ateratako krokisa ageri da, bi galeriek bat egiten duten puntuaren kokapena erakutsiz, arestian aipatutako testuingurua ageri den lekuan.

Superposición de las topografías de Azpitarte III (en negro) y II (en rojo) (*Aizpitarte Elkartea*). Modelo tridimensional de esas dos cavidades, mostrando la relación entre el contexto gravetiense hallados en la parte final de la cueva II y la cavidad III. Se muestra un croquis extraído de Altuna et al. 2011, mostrando la ubicación del punto coincidente entre los dos conductos en el punto en el que se observa el contexto antes citado.

rioa handitu izanagatik emari hidrikoarekiko, ziurrenik Landarbaso errekarena, emari hori gaur egun mendigunean iragazten baita leku jakin batzuetan. Sedimentu ekarpenaren aldaketa (mendigunearen mendebaldeko mugako material triasikoak, gehienbat) klima aldaketekin loturik egon daiteke; izan ere, baldintza klimatiko egokiak errepikatzen diren bakoitzean handitu egingo litzateke sedimentu kopurua, eta, horrekin batera, leize mailak eratuko lirateke sistema karstikoan. Alde horretatik, leize maila bat ibitsu bihurtzen denean, bertan ezarritako sedimentua higatzen hasten da, eta segur aski eratzen ari den beheko mailan berrezartzen, eta behin eta berriz birziklatzen da sistematik irten arte.

Azterketa mikrofotogrametrikoari dagokionez, Aizpitarte IV leizeko goiko galerian 2017an aurkitutako hormetako grafien gainean egin da. Oso ondo kontserbatuta daudenez, grafiak egiteko prozesuei buruzko azterketa teknologikoa egin ahal izan da. Artista paleolitikoek egindako ebakien konbinazioak eta buztina modelatzeko moduak azterketa aukera bikainak eskaintzen ditu, gutxitan gertatzen diren bezalakoak. Hori dela eta, hiru dimentsiotan dokumentatu ditugu keinu sekuentzia guztiak, sarbideak eta kontserbazio egoerak horretarako aukera ematen zuten grafietan. Horri esker, lortutako ereduak kualitatiboki eta kuantitatiboki aztertu ahal izango dira, irudiak egiteko erabiltzen zituzten tresna motak, haien gauzatze ordena, lineen trazaduran dauden

cionada con procesos paragenéticos, que se deben a un incremento de la carga sedimentaria respecto al caudal hídrico, seguramente del arroyo Landarbaso, la cual se infiltra actualmente, de manera puntual, en el macizo. La variación en el aporte sedimentario (materiales triásicos del límite occidental del macizo, mayormente) es posible que se relacione con cambios climáticos, de forma que cada vez que se repiten las condiciones climáticas propicias se produciría el aumento en la disponibilidad sedimentaria, y con ello, el desarrollo de niveles de cueva en el sistema kárstico. En este sentido, una vez un nivel de cueva pasa a estar en condiciones vadosas, el sedimento depositado en ella comienza a erosionarse y posiblemente redepositarse en el nivel inferior que se está formando, reciclándose una y otra vez hasta salir del sistema.

En cuanto al estudio microfotogramétrico, esta ha sido efectuada sobre las grafías parietales localizadas en la galería superior de Aizpitarte IV en 2017. El estado de conservación excepcional que presentan ha permitido el desarrollo de un estudio tecnológico sobre los propios procesos de ejecución de las grafías. La combinación de trazos incisos y del modelado de la arcilla por parte de los artistas paleolíticos ofrece unas posibilidades de estudio pocas veces accesible. Por esta razón, hemos procedido a la documentación tridimensional de todas las secuencias gestuales en aquellas grafías cuyo acceso y estado de conservación lo permitían. De esta manera, los modelos obtenidos podrán ser estudiados cualitativa y cuantitativamente de manera que se pueda establecer el tipo(s) de útil(es) utilizado(s) para confeccionar las figuras, el

Aizpitarte IV, topografia (Gim-Geomatics S.L.), leizean orain arte aurkitutako Paleolitoko haitzuloetako artearen multzoak erakusten ditu.

Aizpitarte IV, topografía (Gim-Geomatics S.L.) señalando los conjuntos de arte rupestre paleolítico localizados en la cueva hasta el día de hoy.

antzekotasunak eta desberdintasunak eta abar zehaztu ahal izateko.

Azkenik, Aizpitarteko leizeetan egindako azterketa, miaketa eta topografia lanei esker, orain arte ezagutzen ez diren edo gutxi dokumentatu diren hiru testuinguru arkeologiko identifikatu ahal izan dira. Aizpitarte II, IV eta V leizeetan egin dira horiek.

Alde batetik, Aizpitarte II leizean egindako miaketei esker, 2 metroko lodiera zuen jatorri flubiokarstikoko betegarri bat ikusi ahal izan genuen, espeleotema kolada batekin tartekatua. Haren lagin bat hartu genuen Uranio serieen arabera datatzeko. Betegarri horren gainetik, pixka bat gorago eta baldintza ibitsuetan dagoen kotan, testuinguru arkeologiko txiki bat antzeman ahal izan dugu gainazalean, harrizko (xaflak, laskak) eta hezurrezko tresnez (arpoi zati distal bat izan zitekeena, hortz ilara batekin) osatua. Azterketa zehatzagorik ezean, badirudi leizearen sarrerako eremuarekin lotutako testuingurua dela, eta horrek esan nahi du gizakiak leize hori erabili zuela gutxienez Madeleine aldiaren amaierako kronologietan. Bestalde, barrunbearen amaierako aldean, leizearen sabaiaren eta lurzoruaren artean, depositu kolubialen hainbat buxadura ageri dira, hareharri koskorrak dira, *Buntsandstein* faziekoak, suharri hondakinekin (horien artean zeuden hainbat *Noailles* zulakaitz eta trunkadura zulakaitz, bai eta diedro zulakaitz bat ere) eta hezur hondakinekin (bobido handien eta hartzen hezurkiak izan daitezke) tartekatuak. Bere garaian J. Altunak behatu eta identifikatu zuen aztarnategi honetako Gravette aldiko tresneriaren ezaugarriek pentsarazten digute Aiz-

orden de ejecución de las mismas, semejanzas y desemejanzas en el trazado de las líneas, etc.

Finalmente, los trabajos de reconocimiento, exploración y topografía efectuados en las cuevas de Aizpitarte han permitido identificar tres contextos arqueológicos inéditos o poco documentados hasta la fecha. Estos han sido efectuados en las cuevas de Aitzbitarte II, IV y V.

Por un lado, en Aizpitarte II, las prospecciones realizadas permitieron observar un relleno de origen fluviokarstico de 2 metros de potencia, intercalada por una colada de espeleotema que fue muestreada para su datación por series de Uranio. Por encima de él, a una cota algo superior y en condiciones vadosas, ha podido reconocerse un pequeño contexto arqueológico en superficie, formado por industria lítica (láminas, lascas) y ósea (un posible fragmento distal de arpón con una hilera de dientes). A falta de un estudio más preciso, todo parece indicar que se trata de un contexto asociado a la zona de entrada de la cueva, lo que pudiera ser indicativo de la presencia humana en esta cueva, al menos en cronologías finales del Magdaleniense. Por otro lado, en la parte final de la cavidad, se observan entre el techo y el suelo del conducto, varios taponamientos de depósitos coluviales formado por cantos de arenisca de facies *Buntsandstein*, intercalados con restos de sílex (entre los cuales se observaron varios buriles de *noailles* y buriles de truncadura, así como un buril diedro) y óseos (posibles restos de gran bóvido y oso). Las características de la industria gravetiense de este yacimiento observado e identificado en su día por J. Altuna, propusieron su origen desplazado

pitarte III aztarnategitik etorriak direla. Egindako topografia berriari esker baieztatu egin da hipotesi hori; izan ere, ikusi da 3 metro baino ez daudela II. leizeko leku horren eta III. leizearen barruan egindako zundaketaren inguruan identifikatutako hondoratze baten artean.

Bestalde, Aizpitarte IV leizean aurrera eramandako azterlan geomorfologikoetan zehar, orain arte ezagutzen ez zen pintura gorrien multzo bat agertu zen, oso gaizki kontserbatuak, barrunbearen hondoan eskuinaldean dagoen alboko ijezkailu txiki batean. Irudien atariko tratamenduari esker, antzematen dira zaldi baten irudia, ezkerretara begira, beste animalia bat (segur asko bisontea) norabide berean, eta zeinu angeluzuzen bat panel berean. Ondoko paneletan ere koloratzaile aztarna txikiak nabari dira, puntu eta lerro ez-figuratibo gisa. Oso gaizki kontserbatua badago ere, grafiti ugari egin direlako grafia paleolitikoen gainean, badirudi sektore horrek ez duela jasan barrunbeko horma irisgarrienek jasan zuten presiozko uraren bidezko garbiketa prozesua, eta horri esker kontserbatu ahal izan da pintura.

Azkenik, Aizpitarte V leizean azterketa geomorfologikoa eta arkeologikoa egin den bitartean, hainbat animalia grafia berri identifikatu ditugu. Guztiak barrunbearen azken aretoan daude, eta hartara joateko galerian, 2015ean aurkitutako Madeleine aldiko grabatuak zeuden sektorearen ondoan. Gutxienez 4 bisonteren eta ekidoa izan daitekeen baten irudiak dira, bai eta haiekin lotutako zenbait marra ere. Tamaina txikiko irudiak dira, grabatu sinple baten bidez eginak (buztin bigunaren gainean hatzez egindako trazu batzuk izan ezik), eta leizean jadanik identifikatutako Gravette aldian koka genitzake.

desde el yacimiento de Aizpitarte III. La realización de una nueva topografía ha permitido confirmar esta hipótesis, ya que se ha observado que tan solo existen 3 metros entre este punto de la cavidad II y un hundimiento identificado en las cercanías del sondeo del interior de la cueva III.

Por otro lado, en el transcurso de los estudios geomorfológicos desarrollados en Aizpitarte IV, se localizó un conjunto inédito de pinturas rojas muy mal conservadas en un pequeño laminador lateral situado a la derecha en el fondo de la cavidad. El tratamiento preliminar de las imágenes nos permite entrever una representación de caballo orientado a izquierda, otro animal (probablemente bisonte) con la misma orientación y un signo rectangular en un mismo panel. En los paneles adyacentes se observan también restos menores de colorante, a modo de puntos y líneas no figurativas. Si bien la conservación es nefasta debido a la enorme cantidad de grafitis que se superponen a las grafías paleolíticas, parece ser que este sector no ha sufrido el mismo proceso de limpieza con agua a presión que sufrieron las paredes más accesibles de la cavidad, lo que ha permitido la conservación de la pintura.

Finalmente, en el transcurso del reconocimiento geomorfológico y arqueológico de Aizpitarte V, se identificaron varias grafías animales inéditas. Todas ellas se localizan en la sala final de la cavidad, y en la galería que accede a ella, inmediata al sector en el que se hallaron los grabados magdalenienses en 2015. Se trata de representaciones de al menos 4 bisontes y un probable équido, así como una serie de trazos asociados. Son figuras de pequeño tamaño, efectuadas mediante grabado simple (menos unos trazos efectuados con los dedos sobre arcilla blanda) y encuadrables en el horizonte artístico gravetiense ya identificado en la misma cueva.

D. Garate; M. Arriolabengoa; O. Rivero; I. Intxaurbe; J. Busselo; A. Rodríguez; S. Laburu

C.14. **EZKIO-ITSASO**

C.14.1. **Barretxe baserria**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Jose Ramón Unzurrunzaga Yurrebaso

C.14.1. **Caserío Barretxe**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Jose Ramón Unzurrunzaga Yurrebaso

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the Barretxe farmhouse.

Baserrian egindako esku hartze arkeologikoari esker, ebakidura bat identifikatu dugu lurrean, eraikinaren hegoaldean, baina ezin izan dugu haren funtzionaltasuna zehaztu. Era berean, 6,30 m-ko luzera duen horma egitura bat dokumentatu ahal izan genuen, iparralde-hegoalde norabidea zuena, orubearen erdialdean. Hartan bermatzen ziren baserriko zutoinetako biren oinarriak.

La intervención arqueológica realizada en el caserío ha proporcionado la identificación de un corte en el terreno, al sur del edificio, no pudiendo establecer su funcionalidad. A su vez, pudo documentarse una estructura muraría de 6,30 m de longitud con disposición norte sur en la zona central del solar en la que apoyaban las bases de piedra de dos de los postes del caserío.

Azken batean, esku hartze arkeologikoak ez digu aurreko okupazioen egiturarik edo mailarik aurkitzeko aukerarik eman. Eraikinaren zurezko egituratik hartutako zur laginen azterketa dendrokronologikoa egiteke dago.

En definitiva, la intervención arqueológica no ha permitido descubrir estructuras ni niveles de ocupaciones anteriores. Quedando pendiente el análisis dendrocronológico de las muestras de madera obtenidas de la estructura de madera del edificio.

Z. Galan Zumeta

C.15. **GETARIA**

C.15.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.15.1.1. **Kale Nagusia, 37**

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantzazioa: Jabeak

C.15.1.1. **Nagusia, 37**

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Propietarios

Report on the most important remains from the Roman era documented in the subsoil of num. 37 Nagusia Street, in Getaria.

Getariako Kale Nagusiko 37. zenbakiko goitik behera berritu behar zutela eta, esku hartze arkeologikoa egin genuen. 2019-2020 bitartean egin da landa lana, baina oraindik ez dira amaitu laborategiko lanak eta azken txostena idazteko lanak. Horrenbestez, testu honek emaitzen aurrerapen txiki bat besterik ez du aurkezten, eta geroago modu zabalean garatuko dira emaitza horiek. Dokumentatutako maila eta aztarna arkeologikoen sekuentzia zabalaren artean (Antzinarotik Aro Garaikidera arte), erromatarren garaiko eraikin handi baten zimenduen hondakinak nabarmentzen dira, esku hartutako orubearen mugetatik haratago hedatzen direnak. Zeramikazko eta bestelako materialen bilduma handia berreskuratu da harekin loturiko hondakinen artean, Erromatarren Goi Inperioaren garaikoak.

Intervención desarrollada en base a una reforma integral del edificio Kale Nagusia 37 de Getaria. El trabajo de campo se ha desarrollado entre los años 2019-2020, pero aún no han concluido las tareas de laboratorio y de redacción de la memoria final. En consecuencia, este texto presenta un somero avance de resultados que serán desarrollados de manera extensa más adelante. Entre la dilatada secuencia de niveles y vestigios arqueológicos documentada, que abarca desde la Antigüedad hasta la Época Contemporánea, destacan los restos de la cimentación de una gran construcción de época romana que se extiende más allá de los límites del solar intervenido. Unos restos asociados a una amplia colección de materiales cerámicos y de otra naturaleza, correspondientes al alto Imperio Romano.

X. Alberdi Lonbide

C.16. **HERNANI**

C.16.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.16.1.1. **Andrekale, 29**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Oiartzungo Promozioak 2018, S.L.; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.16.1.1. **Andrekale, 29**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Oiartzungo Promozioak 2018, S.L.; Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Andrekale kaleko 29. zenbakiko orubean lan arkeologikoak egin ditugu Hernaniko Hirigune Histo-

Los trabajos arqueológicos en solar de Andrekale kalea nº 29 se han ejecutado a raíz de las obras de

Andrekale kaleko 29. zenbakiko fatxada nagusia, eraberritze lanak egin ondoren, jatorrizko baoetako batzuk agerian utzita.

Fachada principal del edificio de Andrekale nº 29 tras los trabajos de reforma llevados a cabo dejando a la vista algunos de sus primitivos vanos.

rikoan dagoen eraikin horretan zaharberritze lanak egin behar zituztela eta. Egun ageri duen trazaduraren arabera, XVI. mendearen hasieran eraiki zuten eraikin hori, 1512. urtean herriaren zati handi bat suntsitu ondoren.

Aski xumea izan da erregistratutako depositu arkeologikoa. Gainazaletik zentimetro gutxira agertu da substratu geologiko naturala (buztin trinkoa), oso betegarri eskasarekin eta inolako interesik gabea ondarearen ikuspegitik begiratuta, oso nahasia. Hirigune Historiko horretan egindako esku hartze arkeologikoetan erregistratutakoaren kalitate berdineko depositua.

reforma operadas en el edificio, en pleno Casco Histórico de Hernani. Un edificio que a juzgar por su actual traza fue erigido a principios del s. XVI, tras la destrucción de buena parte de la población ocurrida en el año 1512.

El depósito arqueológico registrado ha sido bastante sencillo. Aflorando a los pocos centímetros de la superficie el substrato geológico natural (arcilla compacta), con un relleno muy pobre y sin interés desde el punto de vista patrimonial que aparecía sumamente revuelto. Un depósito de una calidad idéntica al ya registrado en las diferentes intervenciones arqueológicas efectuadas en este presente Casco Histórico.

A. Moraza Barea

C.16.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.16.2.1. **Putzuzar trikuharria (Ereñotzu)**

III. kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio
Dirulaguntza emailea: Hernaniko Udala

C.16.2.1. **Dolmen de Putzuzar (Ereñotzu)**

III Campaña
Dirección: Manu Ceberio
Subvención: Ayuntamiento de Hernani

In 2020, the intervention on the Putzuzar dolmen was completed with a sondage dug in the chamber in order to identify possible prior remains. The entire research project has enabled us to reconstruct the characteristics of the monument and to confirm that it is a corridor-type burial site.

2014an Lontxo Ugartek salatu zuen trikuharri bat zegoela Ereñotzuko Akola baserritik hurbil. Urte bere-

En abril de 2014 Lontxo Ugarte denunció la existencia de un dolmen en las cercanías del caserío

ko urrian egin genuen bisitaldian baieztatu ahal izan genuen egiaz trikuharri baten ezaugarriak zituela, eta horrenbestez, esku hartze arkeologikoa egitea erabaki genuen egitura behar bezala ikertu ahal izateko. 2018an, Txoritokietako eta Igoin Akolako estazio megalitikoak ikertzeko 2010az geroztik egiten ari garen proiektuaren barruan, esku hartze bat egin genuen Putzuzarren, eta trikuharria zela baieztatu genuen arkeologikoki. 2019an egindako lanetan, monumentuaren hego-ekialdea induskatu genuen, suntsituta zegoena, jatorrizko tumuluaren hondakinak eta ganberaren hegoaldeko muga aurkitu nahian, eta goiko geruzak kendu genituen. Geruza horietan lurrak eta harriak nahasiak zeuden izan zituzten aldaketen ondorioz. Lan horrekin batera, kamera induskatu genuen, eta hainbat maila erregistratu genituen, lurzorua izan zitekeenaren hondarrak identifikatu arte. Desegina bazegoen ere, hura osatzen zuten harlauzetako batzuk kontserbatu dira.

2020ko lanetan 0,50 x 0,90 metroko luzera eta 0,30 metroko sakonera duen zundaketa egin dugu hilobi ganberan, eta baieztatu dugu lekuko jatorrizko lurzorua dagoela haren azpian eta laginak hartu ditugu.

10 metroko diametroa eta 0,40 metroko altuera duen tumuluak osatzen du trikuharriaren egitura. Hegoaldeko erdia suntsitua dago tumuluko harriak ateratzearen ondorioz. Ganberaren ipar-mendebaldeko erpina osatzen duten lauzak ikus daitezke erdian. Ganbera iparraldetik ixten duen lauza handi bat nabarmentzen da nagusiki. Honako neurri hauek ditu agerian: 2,5 metroko luzera, 0,8 metroko altuera, 0,4 metroko zabalera eta 120º-ra orientatua dago. Mendebaldeko harlauzak, aurrekoarekiko elkarzut, 0,55 metroko luzera, 0,25 metroko altuera agerian eta 0,1 metroko zabalera ditu. Badira, gainera, tamaina txikia-

Akola de Ereñotzu. En la visita que realizamos en octubre de ese mismo año pudimos confirmar que presentaba las características propias de un dolmen, por lo que se decidió desarrollar una intervención arqueológica de cara a la investigación de la estructura. En 2018, y dentro del proyecto de investigación de las Estaciones Megalíticas de Txoritokieta e Igoin Akola que llevamos a cabo desde 2010, realizamos una intervención en Putzuzar, confirmando arqueológicamente su carácter dolménico. En los trabajos realizados en 2019 se excavó la parte sureste del monumento, que se encontraba destruida, tratando de localizar los restos del túmulo original y el límite sur de la cámara, eliminando las capas superiores de tierra y piedra mezcladas, fruto de la alteración del mismo. Junto con este trabajo se excavó la cámara, registrando diferentes niveles hasta identificar los restos de un posible suelo. A pesar de encontrarse desmantelado, se conservan algunas de las losas que lo conformaban.

En los trabajos de 2020 se ha realizado un sondeo de 0,50 x 0,90 metros de longitud y 0,30 metros de profundidad en la cámara sepulcral, confirmando que bajo la misma se localiza el suelo original del lugar y tomando muestras.

La estructura es un dolmen de 10 m de diámetro y un túmulo de 0,40 m de altura. La mitad sur está destruida debido a la extracción de las piedras del túmulo. En el centro se aprecian las losas que forman el vértice noroccidental de la cámara. Destaca principalmente una gran losa que cierra la cámara por el norte y presenta una longitud visible de 2,5 m, una altura de 0,8 m, una anchura de 0,4 m y está orientada a 120º. La losa oeste, perpendicular a la anterior, mide 0,55 m de longitud, 0,25 m de altura visible y 0,1 m de anchura. Existen, además, piedras de menor tamaño

Ganberaren xehetasuna.

Detalle de la cámara.

goko harri batzuk ekialderantz lerrokatuak, iparraldeko harlauzaren jarraipen gisa. Egitura eraikitzeko erabilitako materialak bertako hareharriak dira.

Zalantzarik gabe, aurkikuntzarik interesgarriena izan da hilobi ganberaren forma zehaztea. Izan ere, iparraldeko harlauza handiaren ekialderanzko luzapenak, harlauza txikien bidez, eta hegoaldetik doazen harlauzek erakusten dute galeriako hilobia dela.

Esku hartze arkeologikoan material arkeologiko interesgarriak aurkitu ditugu: gezi mutur bat, suharrizko bi xafla eta beste baten zati bat.

alineadas hacia el este como continuación de la losa norte. Los materiales utilizados en la construcción de la estructura son areniscas del lugar.

Sin duda, el descubrimiento más interesante ha sido el determinar la forma de la cámara sepulcral. La prolongación hacia el este de la gran losa septentrional mediante pequeñas losas, así como las losas que discurren por el sur, muestran que se trata de un sepulcro de galería.

Durante la intervención arqueológica, se han recuperado materiales arqueológicos de interés como una punta de flecha, dos láminas de sílex y un fragmento de otra.

M. Ceberio; J. Tapia; I. Quevedo

C.17. HERNIALDE

C.17.1. **Anotzaga handi baserria**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Juan Antonio Eceiza Leunda

Esku hartze honetan 1,00 x 2,5 metroko bi zundaketatan oinarritu dugu gure lana, orubearen hegoekialdeko muturrean. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik izan, eta etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

C.17.1. **Caserío Anotzaga Andi**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Juan Antonio Eceiza Leunda

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the Anotzaga Andi farmhouse.

Intervención desarrollada en base a dos sondeos de 1,00 x 2,5 m en el extremo sureste del solar; siendo los resultados de la misma de escaso interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del solar.

Z. Galan Zumeta

C.18. HONDARRIBIA

C.18.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.18.1.1. **Jabier Ugarte, 2-4**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

Orubearen hegoaldeko eremuan egindako esku hartze arkeologikoa. Emaitzak ez ziren batere garrantzitsuak izan historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik, baina etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

C.18.1.1. **Jabier Ugarte, 2-4**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the medieval town of Hondarribia.

Intervención desarrollada en el área sur de la parcela, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el área norte del solar.

Z. Galan Zumeta

C.18.1.2. **Jabier Ugarte, 9**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta

Finantzazioa: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

The archaeological intervention uncovered several elements of archaeological interest associated with the renaissance wall of Hondarribia.

Jabier Ugarte kaleko 9. orubean egindako esku hartze arkeologikoari esker, hutsik haraino, hiribilduko defentsa sistema errenazentistako beste bi egitura zati erregistratu genituen, Madalena kubokoak, zehatz esateko.

Lehenengo egitura orubearen ipar-ekialdeko muturrean dago, eta lursailean dagoen eraikin zaharraren aurreko hormaren eta Jabier Ugarte kalearen artean galtzen da; horregatik, nahiko urriak dira aurkikuntzaren neurriak. Harlanduz eta landu gabeko harriz egina da, eta 30 eta 90 cm arteko zabalera eta 2,66 metroko garapena erregistratu ahal izan ditugu. Altxaerak, berriz, 66 cm-ko harlandu mutxardatua du eta 1,55 m-ko landu gabeko harria zapatarekin.

Bigarrena, berriz, orubearen mendebaldeko muturrean dagoen horma atala da. Aurrekoak ez bezala, honek ez du harlandurik bere egituran, eta landu gabeko harriz bakarrik egina da, harriak kareorez lotuak. Aurreko kasuan bezala, orubearen neurriek ez digute utzi egitura osorik dokumentatzen, lursailaren mugen azpitik galtzen baita egitura hori. Kasu honetan, 70 cm-ko altxaera (zapatarik gabe), 6,8 m-ko garapena eta 4,8 m-ko gehieneko zabalera eta 2,5 m-ko gutxieneko zabalera erregistratu dira.

XV. mendearen bukaeratik aurrera galdu zuen Erdi Aroko harresiak bere defentsa balioa, eta Erdi Aroko harresi hori garai berrietara egokitu beharra ikusi zen. Horretarako, trantsizioko harresia zuen hiribilduak gotorleku alderantz.

C.18.1.2. **Jabier Ugarte, 9**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta

Financiación: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

La intervención arqueológica llevada a cabo en el solar Jabier Ugarte 9, vacío hasta la misma, se saldó con el registro arqueológico de dos nuevos tramos de estructuras pertenecientes al sistema defensivo renacentista de la villa, más concretamente al cubo de la Magdalena.

La primera de las estructuras se localiza en el extremo noreste del solar, y se pierde bajo el muro delantero de la antigua edificación existente en la parcela y la calle Jabier Ugarte, por ello, las dimensiones del hallazgo son relativamente escasas. Se encuentra fabricada en sillares y mampostería y se han podido registrar entre 30 y 90 cm de anchura, 2,66 metros de desarrollo y su alzado presentaba 66 cm de sillería abujardada y 1,55 m de mampostería con zapata.

La segunda de ellas corresponde al lienzo localizado en el extremo oeste del solar, a diferencia de la anterior, ésta no presenta sillería en su fábrica y está realizada únicamente con mampuestos trabados con mortero de cal. Tal y como sucede en el anterior caso, las dimensiones del solar no han permitido documentar la estructura en su totalidad dado que la estructura se pierde bajo los límites de la parcela. En este caso, se han registrado 70 cm de alzado (sin zapata), un desarrollo de 6,8 m y una anchura máxima de 4,8 m y mínima de 2,5 m.

A partir de finales del siglo XV, será cuando la muralla medieval pierda su valor defensivo y se revelará la necesidad de adecuar la cerca medieval a los nuevos tiempos y para ello la villa contará con una muralla de transición hacia la plaza fuerte abaluartada.

XVI. mendeko mendebaldeko harresia

Muralla siglo XVI oeste.

Trantsizioko gotorleku horren ezaugarri nagusia da harresi lodi eta altu bat eraiki zutela Erdi Aroko hesiaren aurretik, eta bertan, hainbat kubo eta dorre jarri zituzten zeukan ibilbidean zehar. Aztergai dugun eremu honetan kubo zirkular bat eraiki zuten, *Madalena edo Leiva kuboa* izenekoa. Dagoen dokumentazioari esker badakigu 1530. urtearen inguruan Madalena kuboa eraikita zegoela edo eraikitzen ari zirela. Hurrengo urteetan eta mendeetan, Hondarribiko defentsa sistema aldatu egin zen beharren eta errealitate berrien arabera. Kasu honetan, hainbat proposamen edo proiektu izan ziren Madalenako defentsa eremua zabaltzeko, hala nola Francisco de Isasirena edo Juan Manso Zúñigarena. 1669an, azken horrek hauxe proposatu zuen: «*me ha pareçido preçiso el que se haga en forma de baluarte el cubo de la Madalena…*». 1683ko sinadurarik gabeko plano batek adierazten digu Madalena kuboaren baluartea «*se ha comenzado alevantar*».

Beraz, Javier Ugarte kaleko 9. zenbakian egindako esku hartze arkeologikoak agerian utzi du Madalena kuboaren hormak daudela orube horretan, eta zehaztasun handiagoz trazatu ahal izango da XVI. mendeko harresiaren garapena, gainazalean haren arrastorik ikusten ez den eremu horretan.

Bi egituren artean ezin izan da kuboaren okupazio mailarik erregistratu, betelanak besterik ez, arkeologiaren ikuspegitik begiratuta antzuak eta inguruko lurzoru naturalari dagozkion geruza limotsuak; beraz, dokumentazioan adierazten den bezala hutsik egongo zen kuboa.

Esta fortificación de transición se caracterizará por la construcción de una gruesa y alta muralla por delante de la cerca medieval, en la que se instalaran diversos cubos y torres a lo largo de su recorrido. En la zona que nos ocupa se construirá un cubo circular denominado *Cubo de la Magdalena o de Leiva.* Gracias a la documentación existente conocemos que en torno al año 1530 el cubo de la Magdalena estaba construido o en fase de construcción. En los sucesivos años y siglos el sistema defensivo de Hondarribia fue modificándose en función de las necesidades y las nuevas realidades. Para el caso que nos ocupa existieron diferentes propuestas o proyectos para la ampliación de la zona defensiva de la Magdalena, por ejemplo los de Francisco de Isasi o los de Juan Manso Zúñiga. En 1669 este último propone «*me ha pareçido preçiso el que se haga en forma de baluarte el cubo de la Madalena…*». Un plano sin firma de 1683 nos indica que el Baluarte del cubo de la Madalena se ha «*comenzado alevantar*».

Por lo tanto, la intervención arqueológica realizada en el número 9 de la calle Javier Ugarte ha puesto de manifiesto la existencia de los muros del cubo de la Magdalena en dicho solar, pudiendo trazar con más precisión el desarrollo de la muralla del siglo XVI en una zona en la que no queda rastro visible de la misma en la superficie.

Entre ambas estructuras no se ha podido registrar ningún nivel de ocupación del cubo, únicamente rellenos estériles desde el punto de vista arqueológico y estratos limosos correspondientes al terreno natural de la zona, por lo tanto pudiera ser que tal y como indica la documentación el cubo estuviese vacío.

Z. Galan Zumeta

C.18.1.3. **Ubilla, 4 / Juan Laborda, 13**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Etxeberrikoa Desarrollos, S.A.; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.18.1.3. **Ubilla, 4 / Juan Laborda, 13**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Etxeberrikoa Desarrollos, S.A.; Diputación Foral de Gipuzkoa

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Ubilla kaleko 4. zenbakiko / Juan Laborda kaleko 13. zenbakiko orubea Hondarribiko Hirigune Historikoaren erdian dago. Bertan esku hartze arkeologikoa egin genuen lursailean dagoen etxebizitza eraikina birgaitu eta handitu behar zutela eta. Hasiera batean bi eraikin bereizik osatzen zuten, nahiz eta gaur egun atzealdea (Juan Laborda kalera ematen duena) lorategi bihurtua dagoen. Bi sektoreak finka bakar batean elkartuta geratu ziren XVII. mendearen amaieratik aurrera, Tomás Arzu kapitaina, armadore, ontzi jabe eta kortsario ezaguna eta bere deiturako hiri jauregiaren jabea, fatxada Ubilla kalera duena, bere etxearen atzeko aldean zegoen orubearen jabe egin zenean.

Lan prozesua, funtsean, lursail horretan historikoki egindako zundaketak eta lur iraultzeak erregistratu dira. Horren ondorioz, egiaztatu ahal izan dugu ia de-

El solar de Ubilla kalea nº 4 / Juan Laborda nº 13 se dispone en pleno Casco Histórico de Hondarribia. La intervención arqueológica estaba dirigida a la rehabilitación y ampliación de un edificio de viviendas existentes en esa parcela. Esta estaba conformada originalmente por dos edificaciones independientes, aunque en la actualidad la parte trasera (la abierta a Juan Laborda) estaba reducida a jardín. Ambos sectores quedaron unidos en una sola finca a partir de finales del siglo XVII cuando el capitán Tomás Arzu, destacado armador, naviero y corsario y propietario del palacio urbano de su apellido y con fachada a la calle Ubilla, se hace con la propiedad del solar dispuesto en la trasera de su casa.

El proceso de trabajo ha consistido básicamente en el registro de los distintos sondeos y remociones del terreno operados históricamente sobre esta

Artzu jauregi-etxe zaharraren fatxada nagusia, Ubilla kaleko 4. zenbakian.

Fachada principal de la antigua casa-palacio de Arzu ubicada en la calle Ubilla nº 4.

positurik ez zegoela Juan Laborda kalera ematen duen sektorean, erabat desagerrarazia izan baitzen esku hartze hau egin baino lehenago.

Orubearen beste erdia, Ubilla kalera ematen duena, mehelin arteko eraikin batek okupatzen zuen, eta eraiki zutenen (Hondarribiko Artzutarren leinua) mailarekin bat zetorren fatxada zeukan. Hareharrizko harlanduzko paramentua du beheko solairuan; goiko solairuek, berriz, bilbadura mistoa dute, zurez eta bistako adreiluz osatua. Hegalkin txiki bat du alboetan zurkaiztua, mehelin mailakatu banatan. Lehen solairuan, armarri handi bat dago, hareharrizko harlanduz egina, panelean sartua.

Sektore honetan, orube hori okupatzen zuen eraikina eraberritzeko obra handi bat egin zela dokumentatu ahal izan dugu, ez dakigu noiz, baina aspaldi ez dela betiere, bai zorupean bai forjatuetako goiko paramentuetan nabari baita. Oso litekeena da berritze lan hori gertaera katastrofikoren baten ondorioz egin izatea (XVIII. mendearen hasieran herria suntsitu zutenean -1719-?), hala erakusten baitu mendebaldeko sektorean erregistratutako obra hondakinen betegarri handiak (teila eta ikatz hondakin ugari dituena). Une historiko horren aurreko eraikuntza faseekin lotutako aztarna arkeologikorik dokumentatu gabe bukatu dugu esku hartze hau.

parcela. A resultas de ello se ha podido certificar como el depósito del sector abierto a Juan Laborda era prácticamente nulo, habiendo sido totalmente eliminado con anterioridad a la presente intervención.

La otra mitad del solar, la abierta a Ubilla, estaba ocupada por un edificio entremedianeras que presentaba una fachada acorde al nivel de sus constructores (linaje hondarribitarra de los Arzu). Presentando un paramento de sillería arenisca en planta baja, mientras las superiores disponen de un entramado mixto de madera y ladrillo caravista, la cual presenta un ligero voladizo apeado en sus laterales en sendos muros medianiles escalonados. Conjunto que se completa en la planta primera con un gran escudo de armas ejecutado en sillería arenisca empotrado en el panel.

En este sector se ha podido documentar la ejecución en un momento indeterminado, pero reciente en el tiempo, de una importante obra de reforma de la edificación que ocupaba este solar que se aprecia tanto en el subsuelo como en los paramentos superiores de sus forjados. Es muy posible que esa reforma tuviera lugar como consecuencia de algún tipo de episodio catastrófico (¿destrucción de la población a principios del siglo XVIII -1719-?) como se denota a través del potente relleno de escombro de obra registrado en el sector occidental (abundantes restos de teja y carbón). Concluyendo la intervención sin haber podido documentar evidencias arqueológicas relacionadas con fases constructivas anteriores a ese momento histórico.

I. Quevedo Senperenea; A. Moraza Barea

C.18.1.4. **Harresiak**

Zuzendaritza: Miren Ayerbe Irízar
Finantzazioa: Hondarribiko Udala

C.18.1.4. **Murallas**

Dirección: Miren Ayerbe Irízar
Financiación: Ayuntamiento de Hondarribia

Prompted by the drafting of a Master Plan for the defensive walls surrounding the town of Hondarribia (Gipuzkoa) by the architect Fernando Cobos, under his coordination, the Heritage Department of the Hondarribia Town Council ordered a series of archaeological sondages to obtain information of interest about the constructive structures of the walled precinct, with the aim of planning different conservation and renovation actions in Plaza Fuerte.

Zundaketa arkeologikoen helburu nagusia zen XIII. mendetik XIX. mendera bitarteko defentsa lerroaren perimetroarekin zerikusia zuten eraikuntza egitura zehatzak aurkitzea, Hondarribiko hirigune historikoko harresi barrutian.

2019. urtearen amaieran eta 2020ko hasieran, 8 zundaketa arkeologiko egin genituen honako eremu hauetan:

Madalena kuboa

Bi sektoretan egin genuen lan. Behekoa, lubanarroaren mailan, Madalena kuboaren hondakinak kontserbatu ziren egiaztatzeko, eta, zehazki, helburua zen angelua aurkitzea -harresiaren eta kuboarekin arteko lotura-, oinplano zehatzagoa eta seguruagoa izango zuen planimetria egiteko oinarritzat hartzeko. Aldez aurretik, miaketa lana egin zen georradarraren bidez.

Emaitza gisa, Madalena kuboaren kanpoko altxaera aurkitu genuen (3,10 m-ko lodiera zuen), bai eta mendebaldeko harresiarekiko inflexio angelua ere. Horri esker, Madalena kuboaren oinplanoa egungo oinplanoaren gainean gainjarri ahal izan genuen, egitura hori zehatzago kokatzeko eta etorkizuneko hirigintza jarduerak eta ondarea birgaitzeko lanak planifikatu ahal izateko.

Goiko sektorean, helburua zen orubearen potentzial arkeologikoa ezagutzea eta Erdi Aroko harresia eremu horretan zegoen egiaztatzea. Oso zaila zen eremu horretan zundaketa egitea, betegarri lodia duelako. Hori dela eta, etorkizunean osatuko da jarduera hau, espazio osoan esku hartze integrala eginda.

San Nikolas baluartea - Lubanarroa

Helburua zen jatorrizko lubanarroaren maila ezagutzea eta San Nikolas baluartearen iparraldeko saihetseko eraikuntza hondakinak kontserbatzen ziren egiaztatzea, gaur egun oso hondatua eta suntsitua baitago. Egiaztatu genuen, egungo lubanarroaren mailaren azpian, eraikuntza egitura horren kanpoko altxaera mantendu zela, hareharrizko harlanduz egina, gutxienez 2,45 m-ko lodierarekin.

Mendebaldeko harresia - Lubanarroa

Hasieran, lubanarroan, harresiaren oinetan zundaketa bat egitea bazen ere gure helburua, ezinezkoa izan zen, lan hura eragozten zuten argiztapen instalazio batzuk zeudelako. Lubanarroan bertan lan egitea erabaki genuen jatorrizko lubanarroaren maila erregistratu ahal izateko, -1,35 m/ -1,50 m egungo mailaren azpitik.

San Felipe baluartea

Eremu horretan zundaketa bat egin genuen, aipatutako baluarte horren iparraldeko saihetseko

El objetivo general de los sondeos arqueológicos era localizar estructuras constructivas concretas relacionadas con el perímetro de la línea defensiva que abarcar desde el XIII al siglo XIX, en el recinto amurallado del casco histórico de Hondarribia.

A finales del año 2019 y principios del 2020, se realizaron 8 sondeos arqueológicos en las siguientes áreas:

Cubo de la Magdalena

Se trabajó en dos sectores. El inferior, a nivel de foso, con la finalidad de comprobar si se conservaban restos del cubo de la Magdalena, y en concreto, el objetivo era localizar el ángulo, - unión de la cortina con el cubo -, que nos sirviera de base para realizar una planimetría de planta más detallada y certera. Previamente se llevó a cabo una prospección con georradar.

Como resultado se localizó el alzado exterior del cubo de la Magdalena que presentaba una potencia de 3,10 m así como el ángulo de inflexión con la cortina oeste lo que permitió realizar una superposición de la planta del cubo de la Magdalena sobre la planta actual para situar más exactamente esta estructura y poder planificar futuras actuaciones urbanísticas y de rehabilitación patrimonial.

En el sector superior, el objetivo era conocer el potencial arqueológico del solar y comprobar si la muralla medieval se localizaba en esta zona. La ejecución del sondeo en esta zona planteaba una gran complejidad por el potente relleno que alberga por lo que esta actuación se completará, en un futuro, con una intervención integral en todo el espacio.

Baluarte de San Nicolás - Foso

El objetivo era conocer el nivel de foso original así como comprobar si se conservaban restos constructivos del flanco norte del baluarte de San Nicolás, actualmente muy devastado y descarnado. Se comprobó que, bajo el nivel de foso actual, se conservaba el alzado exterior de dicha estructura constructiva realizada en sillería de arenisca con una potencia de, al menos, 2,45 m.

Cortina Oeste - Foso

Aunque, en origen, el objetivo era realizar un sondeo en el foso a pie de cortina no fue posible por la existencia de unas instalaciones de iluminación que complicaban su ejecución. Se optó por trabajar en el propio foso para obtener el registro del nivel de foso original, en -1,35 m / -1,50 m por debajo del nivel actual.

Baluarte de San Felipe

En esta área, se llevó a cabo un sondeo con el objeto de localizar restos constructivos del flanco nor-

Madalena kuboaren kanpoko altxaera eta alboko harresia.

Alzado exterior cubo de la Magdalena y cortina adyacente.

eraikuntza hondakinak aurkitu nahian. Emaitza positiboa izan zen, eta erregistroak XVII. mendeko defentsa lerroko eraikuntza unitateen hondakinak eskaini zizkigun, oso hondatuak. 0,20 cm-ko betegarri geruza baten azpian, kareharrizko landu gabeko harriz egindako horma egitura bat erregistratu genuen, 1,00 m eta 1,20 m arteko zabalera, 1,50 m-ko altxaera eta 3,50 m-ko luzera zituena.

te del citado baluarte. El resultado fue positivo y el registro ofreció restos de unidades constructivas de la línea defensiva del siglo XVII muy deterioradas. Bajo una estrato de relleno de 0,20 cm se registró una estructura muraria fabricada en mampuesto de caliza con unas dimensiones de entre 1,00 m y 1,20 m de anchura; 1,50 m de alzado y 3,50 m de longitud.

M. Ayerbe Irízar

C.18.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.18.2.1. **Jaizkibel V harrespila**

III. kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio Rodriguez
Dirulaguntza emailea: Hondarribiko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.18.2.1. **Cromlech Jaizkibel V**

III Campaña
Dirección: Manu Ceberio Rodriguez
Subvención: Ayuntamiento de Hondarribia; Diputación Foral de Gipuzkoa

Research continued into the Jaizkibel stone circles. The excavation of Jaizkibel V has so far proven very interesting. It is a structure formed by a circle of stones including two monoliths with an anthropomorphic silhouette located opposite each other along the northeast-southwest axis. Remains of the destroyed burial chamber were found inside the structure.

I. Txintxurretak 2002an aurkitu zuen monumentu hori ikertzen jarraituz, 2020an zirkulua osatzen duten lauzak ikertzen aritu gara, eta haien azpian eta inguruan egin ditugu indusketa lanak. Horretarako, le-

Continuando con la investigación de este monumento descubierto por I. Txintxurreta en 2002, en 2020 los trabajos se han centrado en la investigación de las losas que forman el círculo, excavando debajo y

Monumentuaren goitikako irudia 2020. urte hasieran, indusketaren ondoren eta berreraikitzeko prestatzen.

Imagen cenital del monumento a inicios de 2020, después de su excavación y durante la preparación para su reconstrucción.

kukoetako batzuk kendu ditugu. Fase honetan suharri zati bat baino ez da berreskuratu, baina lur lagin batzuk jaso ditugu eta lekukoen euste sistema ikusi ahal izan dugu.

Monumentuak 6 metro inguruko diametroa duen zirkulua du, eta, badirudi 22 lauza edo lekukoz osatua egongo zela jatorrian. Lauza batzuk hautsiak daude eta zatiak jatorrizko kokalekutik mugituak. Ikerketa eta leheneratze prozesuari begira, zati guztiak banan-banan identifikatu ditugu, 27 guztira. Jatorrizko lekukoen artean bi nabarmendu behar dira. Alde batetik, bitan zatitutako bloke handi bat, monumentuaren ipar-ekialdeko koadrantean; zati bat kanpoalderantz etzana dago, eta bestea, oinarria, jatorrian zuen lekuan mantendu da zirkuluaren lekuko gisa. Jatorrian 2,40 metro inguruko altuera izango zuen monolito bati dagozkio bi zatiak. Justu aurrean, zirkuluaren hego-mendebaldean, beste bloke handi bat dago, lekukoa izan zena eta kanporantz etzana agertu dena; 2,06 x 0,52 metroko tamaina kontserbatu du. Bi blokeak monolitoak dira, duten tamainagatik eta forma bereziengatik hautatuak eta nahita kokatuak izan direnak: goialdea pixkanaka estutu egiten da ipar-ekialdean dagoenean, eta goialdean tontor bat du hego-ekialdean dagoenak, silueta antropomorfoen itxura emanez.

Monumentua eraiki zen lurzoruak duen malda natural txikia, lurzoruaren ezaugarri hareatsuak eta harkaitzaren beraren kokapena kontuan hartuta, mazelaren mugimendu prozesu bat dokumentatu da, eta horrek eragina izango zuen eraikuntzan. Eragina ez zen guztietan berdina izan, lekukoak sistema desberdinen bidez bermatu baitziren. Hori gertatu da lurzoruaren litologiak ezaugarri desberdineko bi ha-

las inmediaciones de estas. Para ello se han retirado algunos de los testigos. En esta fase sólo se ha recuperado un fragmento de sílex, pero se han recogido algunas muestras de tierra y se ha podido observar el sistema de sujeción de los testigos.

El monumento consiste en un círculo de unos 6 metros de diámetro que parece formado en origen por 22 losas o testigos, algunos de los cuales se encuentran fracturados y los fragmentos desplazados de su ubicación original. De cara al proceso de investigación y restauración, todos los fragmentos han sido identificados individualmente, sumando 27. Entre los testigos originales cabe destacar dos. Por un lado, un gran bloque partido en dos en el cuadrante noreste del monumento, localizándose un fragmento tumbado hacia el exterior y otro, la base, manteniéndose en su posición original como testigo del círculo. Ambos fragmentos corresponderían a un monolito de una altura total en origen de unos 2,40 metros. Justo en frente, en el suroeste del círculo, se sitúa otro gran bloque que ejerció de testigo y ha aparecido tendido hacia el exterior, conservando un tamaño de 2,06 x 0,52 metros. Ambos bloques son monolitos que han sido seleccionados y ubicados intencionadamente por su tamaño y sus peculiares formas: un estrechamiento escalonado de su parte superior en el situado al noreste, y una protuberancia en la parte superior del sureste que sugieren siluetas antropomorfas.

Dada la ligera pendiente natural que presenta el terreno donde se construyó el monumento, las características arenosas del suelo, así como la propia disposición de la roca, se documenta un proceso de movimiento de ladera que debió afectar a la construcción. La afección se produjo de manera desigual debido a que los testigos fueron sujetos mediante diferentes sistemas. Esto se debe a que la litología del terreno presenta dos variantes de arenisca con diferentes características, y a que a causa de la irregularidad de la superficie de la roca el suelo presenta diferentes potencias. De esta manera, las losas que conforman el arco sur se ubican en una fosa ex-

reharri mota dituelako, eta harkaitzaren gainazalaren irregulartasunaren ondorioz lurzoruak lodiera desberdinak dituelako. Halatan, hegoaldeko arkua osatzen duten lauzak lurzoruan eta harkaitzean zulatutako hobi batean kokatzen dira, eta, kasuaren arabera, harrizko zirien bidez eta, batez ere, lurrez bermatu ziren. Gainerako lauzak zuzenean harkaitzaren gainean ezarri ziren, segur aski jatorrizko lurzoruan egindako hobi batean, eta, kasuaren arabera, harrizko ziriekin eta induskatzean ateratako lurrarekin bermatu ziren horiek ere.

Izandako prozesu naturalen eta aipatutako euste sistema horien ondorioz agian, zirkuluko ipar arkuko ia harri guztiak zutik daude, eta hegoaldekoak, berriz, lurrera erorita daude. Gehienak barnealdera erori dira, batez ere hego-ekialdeko koadrantekoak, eta hego-mendebaldekoak, berriz, kanpoaldera eroriak daude. Hala ere, deigarria da hego-mendebaldean eroritako lekukoetako batzuk, lurrean eta harkaitzean egindako zanga batean sartuak izan direnez, egonkortzeko ziririk ez izatea, zabalera txikia baitute hobiarekiko. Hala ere, kanporantz eta harri naturalaren gainean badira horretarako erabil zitezkeen hainbat bloke. Eusteko ziri falta bera antzeman dugu hego-mendebaldeko lekukoetan, eta nabarmentzekoa da 2,06 metroko altuera duen monolito handiaren kasua. Monolito hori zutik egon zen, halaxe erakusten baitute harkaitzean egindako hobi txiki batek eta bere kokapenak, baina, eusteko, tamaina txikiko harlauza bakar bat baino ez da ageri, kanpoaldeko altxagarri gisa (eta alde hartara erori zen, hain zuzen ere). Jatorrizko luzoruan egindako hobi baten barnean egongo ziren seguru lekukoa eta altxagarria, baina hori ezin dugu guztiz zehaztu. Aitzitik, ipar-ekialdean dagoen monolito handia erabat bermatua dago, lurrean egindako hobi batean sartua eta altxagarri gisa jarritako hainbat blokek eusten diote. Beste horrenbeste gertatzen da iparraldean eta ipar-mendebaldean dauden lekukoetako batzuekin.

Egituraren barnealdea, jatorriz, tumularra zen, eta, bi lekutan kontserbatu denaren arabera, lur geruza bat baino ez zuen gainean, eta haren azpian harri pilaketa bat harkaitzaren gainean. Zirkuluaren barruan, ipar-ekialdeko koadrantean, bi harlauza daude, gaur egun eroriak, harkaitzean zulatutako hobian, baina oraingoz ezezaguna zaigu egitura hori. Ipar-ekialdetik hego-mendebaldera doan zanga batek ebakitzen ditu harkaitza eta harrizko tumulua. Monumentuaren erdian lauza batzuk zeuden, haietako batzuk elkarren paraleloan antolatuak; egitura baten hondakinak ziren, hilobi ganbera batenak segur aski, ezagutzen ez dugun uneren batean suntsituko zena. Erdiko egitura hura suntsitzean, hura osatzen zuten tamaina handiko lauza bana atera eta lekuz aldatu ziren (bi zulo handietan egongo ziren agian?), eta harri zirkuluaren barnean etzanda geratu ziren, haren lekuko batzuen gainera eroriak, haiek hautsiz.

Bukatzeko, esan behar da testu hau idatzi den unean proiektu bat egiten ari direla monumentua berreraikitzeko eta balioa emateko.

cavada en el suelo y la roca y se sostenían según el caso mediante cuñas de piedra y principalmente tierra. El resto de losas se sitúan directamente sobre la roca, probablemente en una fosa practicada en el suelo original, y se sujetaban, también según el caso, con cuñas de piedra y la propia tierra extraída al excavar.

Tal vez como resultado de los procesos naturales y los sistemas de sujección señalados, prácticamente todas las piedras del arco norte del círculo están en pie, mientras que las del sur se encuentran caídas sobre el terreno. La mayoría de las caídas se localizan hacia el interior, principalmente las del cuadrante sureste, mientras que las del suroeste caen hacia el exterior. Ahora bien, llama la atención que algunos de los testigos caídos del suroeste, habiendo sido introducidos en una zanja practicada en el suelo y en la roca, no presentan cuñas que los estabilicen dada su escasa anchura respecto a la fosa, existiendo sin embargo varios bloques que pudieran ser usados a tal fin a poca distancia hacia el exterior y sobre la roca natural. La misma falta de cuñas para la sujeción se detecta en los testigos del suroeste, destacando el caso del gran monolito de 2,06 metros de altura. Este monolito estuvo de pie, como demuestran una pequeña fosa en la roca y su ubicación, pero sólo se aprecia para su sujección una única losa de pequeño tamaño como calce al exterior (precisamente hacia donde cayó), situándose con seguridad testigo y calce dentro de una fosa practicada en el suelo original, la cual no es posible determinar. Por el contrario, el gran monolito situado al nordeste se encuentra perfectamente sujeto, introducido en una fosa practicada en el suelo y sujeto por varios bloques dispuestos a modo de calce. Lo mismo ocurre con varios de los testigos situados al norte y noroeste.

El interior de la estructura era en origen tumular y, según se ha conservado en dos puntos, únicamente presentaba una capa superior de tierra bajo la cual se situaba una acumulación de pequeñas piedras areniscas sobre la roca. En el interior del círculo, en el cuadrante nordeste, se sitúan dos losas caídas y situadas en una fosa excavada en la roca, formando una estructura que de momento nos es desconocida. La roca y el túmulo de piedra están atravesados por una zanja que va del nordeste al suroeste. En el centro del monumento se situaban una serie de losas, algunas de ellas paralelamente dispuestas, que conformaban los restos de una estructura, posiblemente una cámara sepulcral destruida en un momento desconocido. La destrucción de esta estructura central conllevó también la extracción y desplazamiento de sendas losas de gran tamaño que formaban parte de la misma (¿tal vez situadas en dos grandes hoyos?), que quedaron tendidas en el interior del círculo de piedras, y caídas sobre algunos testigos del mismo fracturándolos.

Para terminar, debe señalarse que, en el momento de redactar este texto, se está realizando un proyecto para la reconstrucción del monumento y su puesta en valor.

M. Ceberio Rodriguez; I. Quevedo-Semperena

C.18.2.2. **Guadalupeko gotorlekua**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Hondarribiko Udala

C.18.2.2. **Fuerte de Guadalupe**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Hondarribia

This intervention failed to produce any results of archaeological interest.

Esku hartze honen emaitzak oso balio eskasekoak edo negatiboak izan dira historiaren eta arkeologiaren ikuspuntutik begiratuta. Obretarako aurreikusitako azalera jada beheratua zegoen lehenago egindako beste obra batzuen ondorioz.

Hondarribiko Udalak, Espainiako Gerra Zibilaren lehen faseetan eta inguru horretan izan ziren guduetan (1936-1939) desagertutako zenbait pertsonaren hondakinak aurkitzeko sustatutako ikerketa proiektuan du jatorria Guadalupeko gotorlekuan egindako esku hartze arkeologikoak.

Helburu horrekin, eta aldez aurretik, miaketa geomagnetikoa egin genuen datu historikoen arabera balizko hobi horiek egon zitezkeen lekuetan. Espazioak identifikatutakoan, hainbat zundaketa egin genituen baliabide mekanikoen bidez hiru kokalekutan, kasuan kasuko arkeologo teknikariek lagunduta makinen oinean.

Lanen azken emaitzek ez digute aukerarik eman lursailean inolako aldaketarik egiaztatzeko, ehorzketa motaren baten edo antzekoren baten zati gisa interpreta zitekeenik. Aitzitik, erregistratutako deposituak uniformetasun handia zuen egindako zundaketa guztietan, eta, batez ere, gotorlekuaren barruko azalera betetzeko eta homogeneizatzeko lanekin lotuta zegoen, behar bezalako defentsa bermatzeko. Hondarribiko Udalak erosi ondoren espazio horiek berregokitzeko egindako esku hartzeekin lotuta zeuden antzemandako aldaketa bakarrak, eta haiekin lotuko genituzke hainbat lekutan lurperatutako zabor depositu txikiak (plastikoak, botilak eta freskagarrien latak). Lanak amaitutakoan, jatorrizko egoerara itzuli zen lurra.

Intervención desarrollada con unos resultados de escaso o nulo interés histórico-arqueológico. La superficie prevista para las obras ya se encontraba rebajada por otras obras realizadas con anterioridad.

La intervención arqueológica realizada en el Fuerte de Guadalupe tiene su origen en el proyecto de investigación impulsado por el Ayuntamiento de Hondarribia con objeto de llevar a cabo la localización de los restos de varias personas desaparecidas durante las primeras fases de la Guerra Civil Española y los combates desarrollados en este entorno (1936-1939).

Con ese objetivo, y de una manera previa, se procedió a llevar a cabo una prospección geomagnética en los emplazamientos donde los datos históricos apuntaban a la localización de esas posibles fosas. Identificados los espacios se procedió a ejecutar diversos sondeos con medios mecánicos en tres emplazamientos distintos asistidos a pie de máquina con los correspondientes técnicos arqueólogos.

El resultado final de los trabajos no ha permitido constatar la presencia de alteración alguna del terreno que pudiera ser interpretada como parte de algún tipo de inhumación o similar. Al contrario, el depósito registrado presentaba una gran uniformidad en todos los sondeos practicados, estando principalmente relacionado con las labores de relleno y homogeneización de la superficie interior de la fortificación para garantizar su correcta defensa. Las únicas alteraciones detectadas estaban relacionadas con las intervenciones de readecuación de estos espacios tras su compra por el Consistorio hondarribitarra, y a las cuales se vinculan los pequeños depósitos de basura enterrados en distintos puntos (plásticos, botellas y latas de refrescos). Al finalizar los trabajos el terreno fue restituido a su estado original.

A. Moraza Barea

C.19. **IRUN**

C.19.1. HIRIGUNEA / CASCO URBANO

C.19.1.1. **Aixinzolua, 1**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Jabekideen komunitatea

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with Oiasso or the municipality of Irun.

1,50 x 1,80 metroko igogailurako zulo batean oinarritu genuen esku hartzea. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik, eta etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

C.19.1.1. **Aixinzolua, 1**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Comunidad de propietarios

Intervención desarrollada en base a un foso para ascensor de 1,50 x 1,80 m, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del solar.

Z. Galan Zumeta

C.19.1.2. **Foruen karrika, 5**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: María Mercedes Ibarguren Arocena

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with Oiasso or the municipality of Irun.

1,70 x 1,80 metroko igogailurako zulo batean oinarritu genuen esku hartzea. Emaitzak edo oso balio eskasekoak izan ziren edo ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik, eta etorkizunean ebaluatzeko utzi genuen orubearen gainerakoa.

C.19.1.2. **Fueros, 5**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: María Mercedes Ibarguren Arocena

Intervención desarrollada en base a un foso para ascensor de 1,70 x 1,80 m, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico, quedando pendiente de evaluar a futuro el resto del solar.

Z. Galan Zumeta

C.19.1.3. **5.3.13 Korrokoitz eremua**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with Oiasso or the municipality of Irun.

Irungo 5.3.13 Korrokoitz eremuko Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren aldaketaren ondorioz, eremua baloratzeko proiektu arkeologikoa idatzi zen. Hainbat erakunderen jarraibideen arabera, zundaketa batzuk irekitzeko beharra ezarri zen, eremu horren ahalmen arkeologikoa ezagutzeko.

C.19.1.3. **Ámbito 5.3.13. Korrokoitz**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Construcciones Sukia Eraikuntzak S.A.

La modificación del Plan Especial de Ordenación Urbana del ámbito 5.3.13 de Korrokoitz de Irun motivó la redacción de un proyecto arqueológico de valoración del área, siguiendo las pautas de diversas instituciones se estableció la necesidad de abrir diferentes sondeos con el fin de conocer la potencialidad arqueológica de la zona.

Korrokoitz eremuan aurkitutako egitura makurra.

Estructura arqueada localizada en el ámbito Korrokoitz.

Hirigune historikoaren hego-ekialdean dago eremu hori, eta honako muga hauek ditu: ekialdean Dunboako kanala, iparraldean Pelegrin de Uranzu karrika, mendebaldean Urdanibia plaza eta hegoaldean Santa Elena kalea. 16.347,00 m^2-ko azalera du.

XIX. mendearen amaieran lehortutako eta kolonizatutako padura eta estuario eremua da aztergai duguna. Abiapuntu gisa, kontuan hartu genuen uretan aseta egoten diren era horretako testuinguruetako (limoak) deposituetan intereseko testigantza arkeologikoak egon zitezkeela gordeta. Ez zen aurreikusi erromatarren garaiko edo Erdi Aroko azpiegiturekin lotutako eraikuntza hondakinak izango zirenik, bai ordea limoetan lurperatuta geratu ahal izan diren elementu isolatuak (itsasontzien hondakinak, zabor organikoa...).

Guztira 19 zundaketa egin genituen eremuan han eta hemen. Gehienetan betegarri garaikideko deposituak eta padurako eta estuarioko sedimentazio naturalaren ezaugarri diren limoak eta legarrak agertu ziren, eta ez genuen intereseko elementu arkeologikorik aurkitu.

Baina eremuaren iparraldean irekitako 7 zundaketetatik 4tan emaitzak bestelakoak izan dira, eta landare lurra eta gaur egungo eraikuntza materialez (80-90 urteetan botatakoa, Erromes plazako eraikinak egin ondoren[48]) osatutako betegarri maila kendu ondoren, lau egitura arkudun aurkitu ahal izan ditugu bi lerro paralelotan (bi arku lerro bakoitzeko), elkarren artean 8 metroko tartearekin. Egiturak zundaketen profilen azpian galtzen ziren, eta horregatik, ezin izan dugu zehaztu elkarren artean lotuta daudenik, baina itxura guztien arabera hala dela ematen du, bi eraikuntza lerro paralelo sortuz.

[48] Inguruko baratzeen erabiltzaile batek jakinarazita eskuratutako informazioa.

El espacio se localiza al sureste del núcleo histórico de la localidad, limita al este con el canal de Dunboa, al norte con la calle Pelegrin de Uranzu, al oeste, con la Plaza Urdanibia y por el sur con la calle Santa Elena, contando con una superficie de 16.347,00 m^2

La zona es un área de marisma y estuario desecada y colonizada e finales del siglo XIX, se partía de la premisa que en los depósitos correspondientes a este tipo de contextos saturados en agua (limos) pudieran haberse conservado testimonios arqueológicos de interés, no siendo previsible que se tratara de restos constructivos relacionados con infraestructuras romanas o medievales pero si con elementos aislados que pudieron haber quedado enterrados en los limos (desechos de embarcaciones, basura orgánica…).

Se abrieron un total de 19 sondeos repartidos por el ámbito, la mayoría de ellos dio como resultado depósitos de relleno contemporáneo y limos y gravas característicos de la sedimentación natural de marisma y estuario en los que no se ha hallado ningún elemento arqueológico de interés.

Pero en 4 de los 7 sondeos abiertos en la zona norte del ámbito los resultados han sido diferentes y tras la eliminación de la tierra vegetal y el nivel de relleno formado por material de construcción contemporáneo (aportado en los años 80-90 tras la construcción de los edificaciones de Erromes plaza[48]) se han podido registrar cuatro estructuras arqueadas en dos líneas paralelas (dos arcos por línea) con una distancia entre ambas de 8 metros. Las estructuras se perdían bajo los perfiles de los sondeos y por ello, no se ha podido determinar la unión de las mismas entre sí pero todo lleva a pensar que así es creando de esa manera dos líneas paralelas de construcción.

[48] Información obtenida por comunicación personal de un usuario de las huertas de la zona.

Iparralde-hegoalde norabidea zuten egiturak landu gabeko harriz eginak ziren, goiko aldeko eta kontrahormako harriak kareorez lotuak ziren, eta dobelek, itxuraz bederen, ez zuten orerik loturan, baina hori ezin izan da argi zehaztu, zundaketak zein egoeratan ireki diren kontuan hartuta, -altuera (gehienetan -6 m-ko kotaraino iritsi ginen); ur pilaketa, Dunboa kanala hurbil egoteagatik, limoak, eta abar-.

Elementu horien batez besteko altuera erregistratua 2,40 m izan ziren, baina, aipatu berri dugun moduan, altxaera ezin izan zen ongi zehaztu, ez eta elementuak zeren gainean oinarrituta dauden ere, limoen gainean edo, agian, zurezko paldoen gainean. Erregistratutako zabalera antzekoa izan da lau kasuetan, 0,90 eta 1,00 m artekoa.

Kontsultatutako dokumentazioaren arabera, 1882ko maiatzean Irungo Udalari baimena eskatu zitzaion Behobiara doan errepidearen ondoan trinketez hornitutako etxebizitza-etxea eraikitzeko[49]. Gainera, 1946an, Urantzu kaleko trinketa berritu eta handitzeko proiektua aurkeztu zioten Udalari orubearen jabeek. Errekerimendu horretarako aurkeztutako dokumentazioan, plano batean, zehatzago esateko, ageri da aipatu trinket hori eta aski bat dator aurkitutako horma egitura arkudunekin.

Gainera, egituretako baten goiko aldeko kareoreko ikatz lagin bat hartu genuen, eta karbono 14 bidez aztertu zen, eraikuntza arkudunen kronologia zehaztu ahal izateko. Lagina Upsalako Unibertsitatean aztertu zen Suedian, eta XIX. mendeko 132 ± 28 BP datazioa eskaini zuen.

Beraz, segur aski, dokumentazioan aipatutako trinketaren zimenduak izango dira Korrokoitz eremuaren iparraldean aurkitutako egiturak. Padura eremuan daudenez, arku formako zimenduak eraikuntza irtenbide egokia izan daitezke era horretako geruzetarako, limotsuak eta urez aseak, hala, pilareen puntuetara transmititzen baita karga.

Las estructuras con disposición norte-sur estaban fabricadas en mampuestos, la zona superior y del contrafuerte se encontraban trabados con mortero y las dovelas aparentemente no tenían ninguna masa en la unión, hecho que no se ha podido determinar con claridad dadas las circunstancias en las que se han abierto los sondeos- altura (se llegó en la mayoría de ellos hasta una cota -6 m); acumulación de agua por la cercanía del canal Dumboa, limos, etc-.

La altura media registrada de estos elementos fue de 2,40 m, pero como acabamos de señalar no se pudo determinar su alzado con exactitud como tampoco sobre que asentaban, si lo hacen sobre los limos o quizá sobre pilotajes de madera. La anchura registrada ha sido similar en los cuatro casos, entre 0,90 y 1,00 m.

Según la documentación consultada en mayo de 1882 se solicitó permiso al ayuntamiento de Irun para construir vivienda-casa con trinquete junto a la carretera que se dirige a Behobia[49]. Además en 1946 las dueñas del solar presentaron al consistorio el proyecto de reforma y ampliación del trinquete de la calle Uranzu. En la documentación aportada para este requerimiento, en un plano más concretamente, se sitúa el mencionado trinquete y concuerda con bastante exactitud con las estructuras murarías arqueadas halladas.

Además, se obtuvo una muestra de carbón del mortero de la parte superior de la una de las estructuras y se procedió a realizar una analítica de carbono 14 con el fin de establecer la cronología de las construcciones arqueadas. La muestra se analizó en la Universidad de Upsala en Suecia obteniendo una datación de 132 ± 28 BP, siglo XIX.

Por lo tanto, lo más probable es que las estructuras halladas en la zona norte del ámbito de Korrokoitz pertenezcan a la cimentación del trinquete citado en la documentación. Al situarse en una zona de marisma la cimentación en forma de arco puede resultar una solución constructiva a las características específicas de este tipo de estratos limosos y con abundante saturación de agua, transmitiendo así la carga a los puntos de pilares.

Z. Galan Zumeta

C.19.1.4. **Santiago, 1-3**

Zuzendaritza: Ander Ortega Franco
Finantzazioa: Nortegas Energía Distribución S.A.U.

C.19.1.4. **Santiago, 1-3**

Dirección: Ander Ortega Franco
Financiación: Nortegas Energía Distribución S.A.U.

The intervention, carried out at num. 1-3 Santiago Street, included the archaeological monitoring of the digging of a 25 m trench to extend the existing gas pipeline. The results of the monitoring process were of no historical-archaeological interest.

Kontrol arkeologikoa egin dugu gas sarea handitzeko irekitako 25 m-ko zanga batean. Emaitzak ez zuten inolako interes historiko-arkeologikorik izan.

Control arqueológico de la apertura de una zanja de 25 m para ampliar la red de gas, siendo los resultados del mismo de nulo interés histórico-arqueológico.

A. Ortega Franco

[49] AMIr-IrUA, D atala, 4. Neg., 7. Lib., 5. Esp., 1882.05.20

[49] AMIr-IrUA, Secc. D, Neg. 4, Lib. 7, Exp. 5., 20.05.1882

C.20. **LEABURU**

C.20.1. **Euletxarako gotorlekua**

III. kanpaina
Zuzendaritza: Manu Ceberio; Izaro Quevedo
Dirulaguntza emailea: Leaburuko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia; Aranzadi Zientzia Elkartea

C.20.1. **Fortificación de Euletxara**

III Campaña
Dirección: Manu Ceberio; Izaro Quevedo
Subvención: Ayuntamiento de Leaburu; Diputación Foral de Gipuzkoa; Sociedad de Ciencias Aranzadi

In 2020, we continued researching the different structures located on the mountain. One is a 1 hectare area, demarcated by a terraced slope with a pit at its foot, the characteristics of which correspond to those commonly associated with a roving Roman camp. This is further corroborated by the discovery of two fragments of weapons from the era. We also identified the remains of a trench associated with the skirmish that took place on the site in 1936, between the rebel forces and supporters of the republican government.

2018az geroztik, Leaburuko Euletxara mendian ari gara lanean, eta zenbait defentsa egitura aurkitu ditugu bertan.

Goragune bat da eta 345 m-ko garaiera du itsas mailatik gora. San Blas auzoaren gainean dago, eta udalerria ikusten da bertatik, Oria ibaiaren haranerako sarbidea kontrolatuz egungo Nafarroatik Araxes ibaiaren haranaren bidez. Aipatzekoa da Oriaren sektore honetan daudela, besteak beste, Intxurreko Burdin Aroko herrixka gotortua (Aldaba, Tolosa), Larte-Almitxuriko baratze edo harri zirkuluak (Berastegi-Gaztelu) eta Txispiri 3 leizea (Gaztelu), non Era aldaketako zeramikazko hondakinak identifikatu ditugun.

Euletxarako gainak gailurra inguratzen duen egitura bat du eta gutxi gorabehera hektarea bateko oinplano zirkular irregularreko esparru bat osatzen du. Begi hutsez ikusten da egiturak, kanpotik barrura, 1,50-2 metroko zabalerako eremu horizontal batean daudela; atzean, 0,80-1,50 metroko altuerako ezponda bat dago, eta, haren gainean, gutxienez 2 metroko zabalera duen terraza bat ageri da.

Barrutiaren ekialdean, terraza-ezpondak ebaki bertikal bat du kanpoalderantz, eta, dauden ortoargazkiak aztertu ondoren, badirudi 2015ean ondoko lurssailean egindako baso lanen ondorioa dela.

Ipar-mendebaldeko, iparraldeko, hegoaldeko eta hego-ekialdeko zenbait puntutan, terraza-ezpondaren azpian dagoen eremu horizontalak sakonune bat du, eta ipar-mendebaldeko eta hego-ekialdeko bi puntutan argi nabari da lubanarroa dela, beteta dagoena.

Mendebaldean, 1,50 metro baino gehiagokoa da ezponda, eta hainbat puntutan (mendebaldean, hego-mendebaldean eta hego-ekialdean) ezponda eta lubanarroa metro batzuk desagertu egiten dira (sarrerak ala terraza-ezponda eroria dago?).

2020an miaketa bat egin da metal detektagailuaren eta zundaketa arkeologikoen bidez. Metal detektagailuaren bidez egindako miaketari esker berreskuratu ahal izan dira, 1936ko gerra material ugariz gain, antzinaroko materialak, hala nola legionarioen *pilum*

Desde 2018 venimos trabajando en el monte Euletxara de Leaburu, donde localizamos varias estructuras defensivas.

Se trata de una elevación de 345 m.s.n.m. situada sobre el barrio de San Blas, y en posición dominante sobre el municipio, controlando el acceso al valle del Oria desde la actual Navarra a través del valle del Araxes. Cabe señalar que en este sector del Oria se localizan entre otros el poblado fortificado de la Edad del Hierro de Intxur (Aldaba, Tolosa), los *baratze* o círculos de piedras de Larte-Almitxuri (Berastegi-Gaztelu), así como la cueva de Txispiri 3 (Gaztelu), donde hemos identificado restos cerámicos del cambio de Era.

La cima de Euletxara presenta una estructura que rodea la cumbre y conforma un recinto de planta circular irregular de aproximadamente 1 hectárea. A simple vista se aprecia que las estructuras consisten, de fuera hacia dentro, en una zona horizontal de 1,50-2 metros de anchura, detrás, un talud de unos 0,80-1,50 metros de altura, sobre el que se ve una terraza de unos 2 metros de ancho mínimo.

En la zona este del recinto, la terraza-talud presenta un corte vertical hacia el exterior que, una vez analizadas las ortofotos existentes, parece fruto de los trabajos forestales realizados en la parcela contigua en 2015.

En varios puntos del noroeste, norte, sur y sureste, la zona horizontal situada bajo el talud-terraza presenta una depresión, que en dos puntos del noroeste y sureste se observa claramente como un foso colmatado.

Al oeste, el talud tiene más de 1,50 metros de altura y en diferentes puntos (oeste, suroeste y sureste) el talud y el foso desaparecen unos metros (¿entradas o la terraza-talud está caída?).

En 2020 se han realizado una prospección mediante detector de metales y sondeos arqueológicos. La prospección mediante detector de metales ha permitido recuperar, además de abundantísimo material bélico de 1936, materiales de época antigua como un fragmento de punta de *pilum* legionario y un fragmento de punta de lanza habitual entre los indígenas y las tropas auxiliares.

Euletxara: 4. zundaketa. Eskuinetik ezkerrera: *Agger, fossa* eta *contra-agger.*

Euletxara: sondeo 4. De derecha a izquierda: *Agger, fossa* y *contra-agger.*

muturraren zati bat eta indigenen eta tropa laguntzaileen artean ohikoa den lantza muturraren zati bat.

Egindako 4 zundaketen bidez, haietako 2 ezpondan eta lubanarroan (ipar-ekialdean eta hegoaldean), egiaztatu ahal izan dugu aipatutako egiturek 2019an adierazitako ezaugarri berak dituztela ibilbide osoan, jada aipatutako lekuetan izan ezik, horietan eten egiten baitira. Gainera, esparruaren barruan egindako zundaketa batean berreskuratutako suharri xafla zatiak adierazten digu agian historiaurre berrian okupatua izan zela toki hori. Lan horiekin batera, gailurraren eta dauden egituren topografia egin da, bai eta lurreko eredu digitala ere dron baten bidez.

Orain arte eskuratutako informazioaren arabera, erromatar armadaren kanpamentua da, bere egiturek eta berreskuratu diren materialek (gutxi baina argigarriak) erakusten duten bezala. Euletxarako defentsa egiturak, dituzten ezaugarriak eta hedadura kontuan hartuta, armada handi eta antolatu bati lotu behar zaizkio, eta erromatarren garaiko kanpamentuei dagozkie; *agger*, *fossa* eta *contra-agger* bat dira. Behin-behineko proposamen gisa, eta kronologia zehaztu gabe egonik, honako hau planteatuko dugu: batetik, martxako kanpalekua dela (material gutxi eta barrualdean bistako egiturarik ez duena) edo, bestetik, *castellum* bat dela, eremua kontrolatzeko edo laguntzeko, lurraldea konkistatzeko eragiketetan edo ondorengo kontrol lanetan eraikia. Tamainari erreparatzen badiogu, ehunka soldadu egongo ziren bertan.

Los 4 sondeos realizados, 2 de ellos en el talud y foso (al nordeste y al sur), han permitido comprobar que las estructuras citadas tienen las mismas características ya señaladas en 2019 en todo su recorrido, salvo en los lugares ya indicados, en los que puntualmente quedan interrumpidas. Además, el fragmento de lámina de sílex recuperado en un sondeo en el interior del recinto, nos señalan la posible ocupación del lugar en la prehistoria reciente. Junto a estos trabajos se ha realizado una topografía de la cumbre y de las estructuras existentes, así como el modelo digital terrestre mediante un dron.

La información obtenida hasta el momento señala que se trata de un campamento del ejército romano, tal y como se aprecia en sus estructuras y en los escasos, aunque clarificadores, materiales recuperados. Las estructuras defensivas de Euletxara, atendiendo a sus características y extensión, se deben asociar a un ejército numeroso y organizado, y son propias de los campamentos de época romana, consistiendo en un *agger*, *fossa* y un *contra-agger*. A modo de propuesta provisional, y a falta de concretar la cronología, nos decantamos por plantear que se trata de un campamento de marcha (escasos materiales y ausencia de estructuras evidentes al interior) o un *castellum* para controlar la zona o de apoyo, levantado durante las operaciones de conquista del territorio o las de control del mismo inmediatamente posteriores, y que por tamaño debió albergar unos cientos de soldados.

Para la fortificación del lugar se construyó un foso, y la tierra extraída se depositó al interior del recinto,

Lekua gotortzeko, lubanarro bat eraiki zuten, eta ateratako lurra barrutiaren barruan utzi zen, plataforma ezpondadun bat sortuz, eta parapeto baxu bat sortu zuten kanpoan. Hala, ezponda bat sortu zuten, atzeko aldean egurrezko defentsak zituena, babesteko lubanarroa oinetan, eta kanpoko parapeto bat. Horrek sakonera handiagoa eman zion, eta etsai izan zitezkeenek beste oztopo bat gainditu behar zuten eta defendatzaileen mende egotera behartzen zituen.

Egitura zahar horietatik argi eta garbi bereizirik, 36ko Gerra Zibileko lubaki eremu txiki bat dago. Defentsak Euletxarako gailurrean bertan jarri ziren arren, lubakietako bat beherago egin zen, erromatarren garaiko lubanarroa aprobetxatuz hego-ekialdeko sektorean. Hain zuzen ere, 1936ko uztailaren 30ean, hortik joko zuten Leabururi eraso egin zioten militarrek, falangistek eta erreketeek Tolosa kontrolatzen duen gailur horretara. Egiaztatu ahal izan dugunez, oso bizia izan zen borroka, eta materialak eta egiturak nola banatuta zeuden ikusita, dokumentatu da metro gutxiko distantzian borrokatu zirela. Euletxarako gailurra erasotu eta konkistatu ondoren, tropa matxinatuek postu bat ezarri zuten han egun batzuetarako.

Bestalde, berreskuratutako bala batzuek erakusten dutenez, mendi hori soldaduek erabili zuten XVIII. mendean (Konbentzioaren Gerra) eta XIX. mendean (Napoleonen gerra edo azken karlistaldia).

creando una plataforma con talud, y al exterior, creando un parapeto bajo al exterior. De esta manera se creó un talud con defensas de madera en su parte posterior, con un foso protector a sus pies, y se creó un parapeto exterior que dotó de mayor profundidad al mismo y obligaba a los posibles enemigos a salvar otro obstáculo y quedar expuestos a los defensores.

Claramente diferenciado de estas antiguas estructuras, se sitúa un pequeño campo atrincherado de la Guerra Civil del 36. Si bien las defensas se habilitaron en la misma cima de Euletxara, una de las trincheras se dispuso más baja, aprovechando el foso de época romana en el sector sureste, justo por donde el 30 de julio de 1936 los militares, falangistas y requetés que atacaron Leaburu, se debieron lanzar sobre esta cima que controla Tolosa. Según hemos podido comprobar, la lucha fue muy intensa, habiendo documentado a través de la distribución de materiales y estructuras, que se llegó a combatir a escasos metros de distancia. Tras el ataque y conquista de la cima de Euletxara, las tropas rebeldes establecieron un puesto en el lugar durante unos días.

Por otro lado, como atestiguan algunas balas recuperadas, este monte fue utilizado por soldados durante los siglos XVIII (Guerra de la Convención) y XIX (Guerra napoleónica o última carlistada).

M. Ceberio Rodriguez; I. Quevedo-Semperena

C.21. **LEGORRETA**

C.21.1. **Legorretazar baserria**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Ana Isabel eta Isidro Esnaola Herrero

C.21.1. **Caserío Legorretazar**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Ana Isabel e Isidro Esnaola Herrero

The archaeological intervention did not uncover any elements of archaeological interest associated with the Legorretazar farmhouse.

Orubearen azaleraren parte handi bat hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genuen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera oro, emaitzak eskasak edo negatiboak izan baitziren historiaren eta arkeologiaren ikuspuntuetatik begiratuta.

Intervención desarrollada en buena parte de la extensión del solar, agotando la posibilidad de nueva investigación sobre éste, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

Z. Galan Zumeta

C.22. **LEZO**

C.22.1. **Jaizkibelgo II. dorrea**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Lezoko Udala; Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

C.22.1. **Torreón Jaizkibel II**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Ayuntamiento de Lezo; Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco

The intervention took place in a tower-shaped fort (34 m2) built during the Second Carlist War (1875), and which remains in a good state of conservation (perimeter walls, well, kitchen, latrine, etc.). One building was reoccupied during the battles which took place at the beginning of the Spanish Civil War (September, 1936).

Jaizkibelgo II. dorrean egindako esku hartze arkeologikoak Lezoko Udalak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin lankidetzan sustatutako berreskuratze eta balioztatze proiektuan du jatorria. Gaur egun, gotorleku hori da hobekien kontserbatuta dagoena Jaizkibelgo mendilerroan.

Dorrea (II) Bigarren Karlistaldiaren (1872-1876) testuinguruan eraiki zuten. Zehatz esateko, 1875eko maiatza eta iraila bitartean gobernuko tropek eraiki zuten defentsarako eraikin hori, «Hondarribiarekiko eta Irunekiko Komunikazio Lerroa» izenekoaren barruan, Pedro Lorente ingeniarien komandantearen gidalerroei jarraituz. Mota askotako gotorleku multzoa zen (gotorlekuak, dorreak), Pasaia eta Hondarribia artean Jaizkibel mendia zedarritzen zuen komunikazio bide estrategiko bat babesteko, eta haren helburua zen Irungo plaza estrategikoaren isolamendua haustea, etsaien indarrek erabat inguratua baitzeukaten. Nolanahi ere, oso denbora txikian erabili zen, urte beraren amaieran jada funtziorik gabe baitzegoen, gobernuaren tropek lortu zutelako karlisten defentsa lerroak apurtzea eta Gaintxurizketako mendatetik (errepidea eta trenbidea) pasabidea berriz irekitzea. Gatazka amaitu ondoren, eraikina erabat abandonatuta geratu zen, inolako funtziorik gabe.

La intervención arqueológica realizada en el denominado Torreón II de Jaizkibel tiene su origen en el Proyecto de recuperación y puesta en valor promovido por el Ayuntamiento de Lezo en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. En la actualidad esta fortificación es la mejor conservada de toda la línea dispuesta a lo largo de la Sierra de Jaizkibel.

El Torreón (II) fue construido en el contexto de la Segunda Guerra Carlista (1872-1876). En concreto, fueron las tropas gubernamentales quienes entre finales de mayo y septiembre de 1875 procedieron a levantar esta edificación defensiva dentro de la definida como «Línea de Comunicación con Fuenterrabia e Irun» siguiendo las directrices del comandante de ingenieros Pedro Lorente. Un conjunto de fortificaciones de diversa tipología (fuertes, torreones) destinado a proteger una estratégica vía de comunicación que jalonaba la Sierra de Jaizkibel entre Pasaia y Hondarribia, y cuyo objetivo era romper el aislamiento en el que se encontraba la estratégica plaza de Irun totalmente rodeado de fuerzas enemigas. Su uso fue bastante efímero puesto que a finales de ese mismo año ya se encontraba sin función alguna, al conseguir las tropas gubernamentales romper las líneas de defensa carlistas y reabrir el paso a través del puerto de Gaintxurizketa (carretera y ferrocarril). Tras la finalización

Jaizkibelgo II. dorrearen barnealdearen xehetasuna, zoladura eta uraska, sukaldea eta komuna ikus daitezke.

Detalle del interior del Torreón de Jaizkibel II con su pavimento y los restos del aljibe, la cocina y el excusado.

Garai berriago batean berriz okupatua izan zen, baina oso denbora txikian, 1936ko irailaren erdialdean Gerra Zibilaren hasieran, defendatzaile errepublikanoen eta Pasaiako badiarantz zihoazen indar faxisten artean. Hainbat borroka bortitzen gertaleku izan zen, berreskuratutako munizio ugariek erakusten duten bezala.

Lan arkeologikoak, funtsean, izan dira gotorleku hau erregistratzea eta dokumentatzea soil-soilik eskuz egindako barneko zaborra kentzeko prozesuan. Lan hori bi fase bereizitan egin da (2020ko martxoa eta iraila). Horren ondorioz, denboran zehar bertan pilatutako obra hondakinen bolumen handia kendu ahal izan da (80-100 cm-ko lodiera, gutxi gorabehera), batez ere behea jotako eraikinaren barruko egiturako eta solairu desberdinetako hondakinak ziren (zurezko zutoinen egitura misto bat eta hormigoizko zolata bat).

Betegarri horretan, eraikinaren gerra funtzioarekin zuzenean lotutako hainbat material arkeologiko bildu ahal izan ditugu (munizioa, elikagaien eta sukaldeko tresneriaren hondarrak, botoiak, dominak, etab.) okupazioaren bi uneekin lotuak (1875 eta 1936). Material horien artean, duen bolumenagatik jatorrizko eraikuntzarekin lotutakoa nabarmenduko genuke, funtsean hainbat motatako burdinazko iltzeak eta bisagrak (% 64,78). Materialen bigarren multzoa goarnizioaren elikadurarekin loturikoa da, eta etxeko faunaren hondakinak dira nagusi (% 14,95). Zenbakitan, munizioarekin eta uniformearen elementuekin lotutakoa da hirugarren multzoa (% 12,95). Kontuan hartuta bi gerra gatazka desberdinetan erabili zela dorrea, haietako bakoitzarekin lotutakoak dira berreskuratutako hondakinak. Bigarren Gerra Karlistari dagokionean kartutxo hondakinen bolumen handia nabarmentzen da batez ere, fusil mota bakar baterako munizioarekin hertsiki lotua, Remington espainiarrarekin, huraxe izan baitzen Gobernuari leial zitzaizkion soldaduek erabili zuten arma nagusia. Haiekin batera, uniformearen bi botoi txiki agertu dira, «Infanteria» leloarekin, eta, antza denez, Malagako kofradia erlijioso batekin lotutako botozko domina txiki bat. Askotarikoagoa da Gerra Zibileko borrokekin lotutako munizioa, eta tropa errepublikanoen armamentuaren heterogeneotasuna berresten du gatazkaren lehen fase hauetan (Mauser morroilo fusilen munizioa, eskopetena eta Mauser C96 motako pistola batena edo, ziurrenera, Astra 900 motako pistola batena), bai eta indar frankistek jaurtitako artilleria jaurtigai baten hondarrak ere. Azken multzoa da heterogeneoena, eta eguneroko erabilerako hainbat piezarekin lotua dago (% 7,32), eta honako hauek daude horien artean: urez hornitzeko erabiltzen ziren upelen uztaiak, sukaldeko ontzien hondakinak (zeramika, beira, burdinazko koilara bat), bai eta neurri handiko guraize bat, kanila bat eta abar ere.

Eraikinak oinplano hexagonal oso erregularra zuen, hareharrizko harlanduzko horma atalak 3,40 metroko aldearekin eta 34,25 m^2-ko azalera (kanpokoa), eta 16 m^2 eskas barrualdean. Hiru solairu ditu (behekoa, lehenengoa eta teilatu lau estali gabea), eta

del conflicto el edificio quedará totalmente abandonado y sin función alguna. En un momento más reciente será nuevamente ocupado, aunque de un modo muy efímero, a mediados de septiembre de 1936, al comienzo de la Guerra Civil, entre sus defensores republicanos y las fuerzas fascistas que avanzaban hacia la bahía de Pasaia. Siendo escenario de una serie de virulentos combates como lo demuestra la abundante munición recuperada.

Los trabajos arqueológicos han consistido fundamentalmente en el registro y documentación de la presente fortificación durante el proceso de desescombro interior llevado a cabo con medios exclusivamente manuales. Esta labor se ha verificado en dos fases diferenciadas (marzo y septiembre de 2020). A resultas de ello se ha podido retirar un destacado volumen de escombros allí acumulado en el transcurso del tiempo (en torno a 80-100 cm de potencia aproximadamente), y procedente mayormente de la propia ruina de la estructura interior del edificio y de sus distintas plantas (una estructura mixta de postes de madera y una solera de hormigón).

Un relleno éste en el que se pudo recoger diverso material arqueológico relacionado directamente con la función bélica del edificio (munición, restos de alimentación y menaje, botones, medallas, etc.) y asociado a los dos momentos de ocupación (1875 y 1936). Entre este destaca por su volumen el relacionado con la primitiva construcción, conformado básicamente por clavos de hierro de diferente tipología y algunas bisagras (64,78%). El segundo grupo se asocia a alimentación de la guarnición destacada en este punto en forma de diferentes restos de fauna doméstica (14,95%). Numéricamente, el tercer grupo es el relacionado con la munición y elementos del uniforme (12,95%). Teniendo en cuenta el empleo del torreón en dos conflictos diferentes los restos recuperados se asocian a cada uno de los mismos. En el que se refiere a la Segunda Guerra Carlista destaca sobre todo el amplio volumen de restos de cartuchería, relacionado estrictamente con munición para un único tipo de fusil, el Remington español, principal arma empleada por los soldados leales al Gobierno. A ellos se unirán dos pequeños botones de uniforme, con el lema de «Infantería» y una pequeña medalla votiva relacionada al parecer con una cofradía religiosa malagueña. Algo más variada es la munición relacionada con los combates de la Guerra Civil, y que ratifica la heterogeneidad del armamento de las tropas republicanas en estos primeras fases del conflicto (munición de fusiles de tipo Máuser de cerrojo, de escopetas y de una pistola de tipo Máuser C96 o más seguramente Astra 900), e incluso restos de un proyectil de artillería lanzado por las fuerzas franquistas. El último grupo es el más heterogéneo y relacionado con una variada serie de piezas de uso cotidiano (7,32%), conformado por cellos de los barriles empleados para surtirse de agua, restos de cocina (cerámica, vidrio, una cuchara de hierro), así como una tijera de grandes proporciones, un candil, etc.

El edificio presentaba una planta hexagonal muy regular, con paños de sillería arenisca 3,40 m de lado y una superficie de 34,25 m^2 (exterior) y escasamente 16 m^2 al interior. Consta de tres plantas (baja, primera y azotea descubierta), y una altura variable en función

Jaizkibelgo II. dorrearen barruan berreskuratutako karlisten garaiko materialak.

Diferentes materiales de época carlista recuperados en el interior del Torreón de Jaizkibel II.

altuera aldakorra lurraren irregulartasunen arabera, batez beste 6 metro baino gutxi gehiago. Zuzenean harrizko azaleramendu naturalaren gainean zimendatua dago horma perimetrala. Kanpoaldean hainbat bao ordena ditu solairu bakoitzean, bai aireztapenekoak bai defentsakoak. Hondakinak kendu ondoren, jatorrizko eraikinarekin eta zituen funtzioekin lotutako zenbait elementu edo egitura dokumentatu ahal izan genituen:

- zolata bat, harlanduzko pieza erdi landuekin egina, galtzada harrizko zoladura moduan. Dorrearen barruko ia azalera osoa hartzen du, eta egoera onean kontserbatu da oro har. Zolata horren azpian, harrizko azaleramendu naturala dago, nahita beheratua.
- uraska edo edateko uraren depositua, lurrean induskatua (gutxi gorabehera 1,50 m3-ko edukiera zuena). 120 x 94 cm-ko kubo lauangeluar forma du, 00 zentimetroko sakonera, eta zementu hidrofugoz luzituta ditu hormak.
- sukaldea edo sutondoa, beheko suarekin (lurrean jarritako hareharrizko plaka) eta horma perimetralean egokitutako tximiniaz osatua.
- komuna, bloke monolitiko handi batean egina hutsune batekin, gorozkiak kanpora ateratzeko tartea utzita, horma perimetralaren zabalera osoa zeharkatuz.

Hemeretzigarren mendeko arkitektura militarraren adibide oso nabarmen eta berezia da gotorleku hau, eraikuntza aldetik xumea bada ere, are gehiago kontserbazio egoera ezin hobean dagoela kontuan hartuta.

de las irregularidades del terreno con una media de algo más de 6 m. Encontrándose el muro perimetral cimentado directamente sobre el afloramiento rocoso natural. Al exterior presenta diversos ordenes de vanos en cada una de las plantas, tanto de ventilación como de defensa. Tras la retirada del escombro se pudo documentar una serie de elementos o estructuras asociadas al edificio original y sus funciones:

- una solera ejecutada con grandes piezas de sillares semilabrados a modo de adoquinado. Ocupa casi toda la superficie interior del Torreón conservándose globalmente en buen estado. Bajo esta solera se dispone el afloramiento rocoso natural intencionadamente rebajado.
- un aljibe o depósito de agua potable excavado en el terreno (con capacidad para unos 1,50 m3 aproximadamente). Presenta una forma de cubo cuadrangular de 120 x 94 cm y 00 de profundidad presentando sus paredes revocadas con un cemento hidrófugo.
- una cocina u hogar compuesta por un fuego bajo (placa de arenisca dispuesta en el suelo) y su chimenea habilitada en el muro perimetral.
- un excusado ejecutado en un gran bloque monolítico ahuecado de tal forma que dejaba un hueco para facilitar la salida de las deposiciones hacia exterior atravesando para ello el muro perimetral en toda su anchura.

La presente fortificación es un ejemplo muy destacado y singular de arquitectura militar decimonónica a pesar de su sencillez constructiva, más aún teniendo en cuenta su óptimo estado de conservación.

A. Moraza Barea

C.23. MENDARO

C.23.1. Agarre leizea. Indusketa eta labar artearen azterketa

Zuzendaritza: Alvaro Arrizabalaga; Blanca Ochoa
III. indusketa kanpaina
II. kanpaina. Labar artearen azterketa
Finantzazioa: UPV-EHU

C.23.1. Cueva Agarre. Excavación y estudio arte parietal

Dirección: Alvaro Arrizabalaga; Blanca Ochoa
III Campaña de excavación
II Campaña de Estudio de Arte Parietal
Financiación: UPV/EHU

During 2020 we finished the rock art survey of the cave, finding two small non-figurative graphic works in the main gallery. We continued the documentation of the previously discovered rock art, including digital photography and photogrammetry. The excavation focused on reinforcing the area around the entrance.

Pandemiak eta hark eragindako konfinamenduak izugarri baldintzatu dituzte Agarre leizeko indusketa lanak. Kanpaina zazpi egunetan eraman da aurrera, bi eginkizunetan banatuta. Lan nagusia izan da J.M. Apellanizen 1966ko indusketaren amilburua zuzentzea, leizeko sarbidearen azpian. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuarekin adostu genuen bezala, amilburua bertikalizatu ondoren, panel bat jarri dugu material biniliko geldoekin, epe luzera egonkortu ahal izateko eta bisitariak eremu horretatik igaro ez daitezen. Bigarren, hondeaketa lanak zabaltzen hasi gara, Apellanizen indusketaren kontrako muturrera iritsi arte, baina egoera honetan ez dugu ia sakondu. Espero dugu 2021ean osasun baldintzak hobetzean indusketa kanpaina normalizatua egin ahal izatea azkenean.

Labar arteari dagokionez, aurreko kanpainan egiteke geratu ziren jarduerak egiten jarraitu genuen 2020an; batez ere, indusketa arkeologikoen garapena zela eta, iritsi ezin izan ginen eremuen miaketa, bigarren mailako bi galeriak barne, leizearen atarian irekitzen den ezkerreko adarretik abiatzen direnak. Eremu horretan ez genuen inolako ebidentzia paleolitikorik aurkitu. Hala ere, interesgarria iruditzen zaigu esatea grafiti ugari dituela, bai grabatuak, bai pintatuak. Gainera, galeria nagusia miatu genuen berriz ere, bere ezaugarriak direla eta, huraxe baita Goi Paleolitoko ebidentzia grafikoak aurkitzeko leku aproposena. Miaketa lan horretan, bi koloratzaile orban txiki aurkitu genituen, izaera antropikokoak, beherago aztertuko ditugunak.

Ebidentzia grafikoen erregistroarekin jarraitu genuen halaber 2020an. Aurkitu zen unean atzemandako grafiaren kalkoa egiaztatu genuen berriro, eta datu estandarizatuak hartu genituen, eskalatu eta geoerreferentziatu ahal izateko. Panel nagusia eta haitzuloko beste eremu batzuk dauden guneko argazki erregistro xehatua ere egin genuen, Agarre leizeko gailu grafikoa testuinguruan jartzeko. Azkenik, lehenengo argazki sorta egin genuen, panel nagusiaren jasotze fotogrametrikoa egiteko. Hurrengo kanpainan egiteko geratu da lan fotogrametriko makroa, ortoar-

Los trabajos de excavación en la cueva de Agarre se han visto muy condicionados por la pandemia y el correspondiente confinamiento. La campaña desarrollada ha llegado justamente a los siete días, divididos entre dos tareas. El trabajo principal se ha dirigido a rectificar el cantil de la excavación de 1966 de J.M. Apellániz, bajo el acceso a la cueva. Tal y como habíamos acordado con el Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, una vez verticalizado este cantil, hemos instalado un panel en materiales vinílicos inertes que permite su estabilización a largo plazo e impide el tránsito de los visitantes sobre esta zona. De manera secundaria, hemos comenzado la extensión de los trabajos de excavación hasta alcanzar el extremo opuesto de la excavación de Apellániz, aunque en estas circunstancias, apenas hemos profundizado. Esperamos que la mejoría en las condiciones sanitarias durante 2021 nos permita efectuar por fin una campaña de excavación normalizada.

En relación al arte parietal, durante 2020 continuamos las actuaciones que quedaron pendientes en la campaña anterior, fundamentalmente la prospección de las áreas que no habíamos tenido oportunidad de acceder por el desarrollo de las excavaciones arqueológicas, incluyendo las dos galerías secundarias que parten del ramal izquierdo que se abre en el vestíbulo de la cavidad. No localizamos ninguna evidencia paleolítica en esta zona; sin embargo, nos parece interesante comentar que presenta abundantes *grafittis,* tanto grabados como pintados. Además, se volvió a prospectar en la galería principal, puesto que, dadas sus características, es la zona más proclive al hallazgo de evidencias gráficas del Paleolítico superior. Durante esta prospección se localizaron dos pequeñas manchas de colorante de carácter antrópico que evaluamos más abajo.

Durante 2020 también continuamos el registro de evidencias gráficas. Se comprobó de nuevo el calco de la grafía localizada en el momento del descubrimiento y se hizo la toma de datos estandarizada para poder escalarlo y georreferenciarlo. También realizamos un registro fotográfico pormenorizado del área en la que se localiza el panel principal y otras áreas de la cueva para la contextualización del dispositivo gráfico de la cueva de Agarre. Finalmente hicimos una primera serie de fotografías para

D-stretch bidez aldatutako argazkia eta Agarreko grafia figuratiboaren kalkoa.

Fotografía modificada mediante D-stretch y calco de la grafía figurativa de Agarre.

gazki bat izateko, egungo kontserbazio egoera xehetasunez erregistratu ahal izateko. Eredu fotogrametrikoak *Agisoft Metashape Standard* programaren bidez gauzatuko dira, doitasun handiko 3D eredu testurizatuak lortzeko aukera ematen baitu programa horrek.

Jada deskribatutako panelaz gain, bi ebidentzia grafiko ez-figuratibo txiki aurkitu ditugu galeria nagusiaren ezkerreko horman, malda nabarmenaren ondoren lurzorua berdintzen den galeriaren eremuan. Bi multzo ez-figuratibo dira, oso egoera txarrean daudenak; bata, bi edo hiru puntuz osatua, eta bestea, marra bertikala izan zitekeen batez.

2021ean Antxieta Arkeologi Taldeko kideekin elkarlanean arituko gara barrunbearen jasotze topografiko eguneratua egiteko. Xehetasunezko topografia lana eginez gero, zehaztasun handiko euskarria lortuko dugu, geoerreferentziatuko diren ebidentzia grafikoak dauden espazioaren irudikapen grafikorako. Azkenik, datuak prozesatuko dira eta esku hartzearen azken txostena prestatu eta argitaratuko da.

hacer un levantamiento fotogramétrico del panel principal. Queda pendiente para la próxima campaña una toma fotogramétrica macro para obtener una ortofoto con el objetivo de registrar en detalle el estado de conservación actual. Los modelos fotogramétricos se llevarán a cabo con el programa *Agisoft Metashape Standard* que permite obtener modelos 3D texturizados de alta precisión.

Aparte del panel ya descrito hemos localizado dos pequeñas evidencias gráficas no figurativas situadas en la pared izquierda de la galería principal, en la zona de la galería donde el suelo se nivela tras la acusada pendiente. Se trata de dos conjuntos no figurativos en muy mal estado de conservación, uno compuesto de dos o tres puntuaciones y el otro por un posible trazo vertical.

Durante 2021 colaboraremos con miembros de Antxieta Arkeologi Taldea para la elaboración de un levantamiento topográfico actualizado de la cavidad. La construcción de una topografía de detalle proporcionará un soporte de gran exactitud para la representación gráfica del espacio en el que se localizan las diferentes evidencias gráficas que se georreferenciarán. Finalmente se procederá al procesado de los datos y a la preparación del informe final de la actuación y su publicación.

A. Arrizabalaga; M. J. Iriarte; B. Ochoa; M. García-Diez; A. Ibero; Antxieta Arkeologi Taldea

C.24. MUTRIKU

C.24.1. Iruroin eta Langatxo leizeak

Zuzendaritza: Jesus Tapia
Dirulaguntza emailea: Mutrikuko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

This season we continued cataloguing the materials recovered during the excavations carried out by F. Zumalabe, and the fieldwork focused on the topographic registry of both caves. As a result, we managed to finish the digital inventory of all materials from Langatxo, and completed the topographic analyses of Langatxo and Iruroin I and II.

2020ko kanpaina honetan, Langatxoko materialen inbentarioa amaitu dugu. Paperezko formatutik euskarri informatikora pasatu dira, eta guztira 4.000 pieza baino gehiago katalogatu dira (hezurrak, harrizko tresneria eta beste batzuk barne), elementu bakoitzaren sigla, koordenatuak, geruza, laukia eta izaera adieraziz.

1991-1992 kanpainen artean induskatutako laukiak honako hauek dira:

1G, 1H, 2H, 3H, 10J, 11J, 9K, 10K, 11K, 7L, 8L,9L,10L, 11L, 6M, 7M, 8M, 9M, 10M, 7N, 8N eta 9N

Landa lanean, Langatxo eta Iruroin I, II eta VII leizeen azterketa espeleologikoa eta topografia osoa egin dira, Burumendi Mendi Elkarteko espeleologoekin. Lortutako planoak eta sekzioak funtsezkoak dira bai bi aztarnategi horiek ulertzeko, bai behar bezala babesteko, Kultur Ondasun izendapenean eskatzen den bezala.

Hala ere, hurrengo kanpainan miaketa eta topografia lanekin jarraitu beharko da, Iruroinen kasuan ebatzi gabe geratu diren ezezagun batzuei erantzun arte.

C.24.1. Cuevas de Iruroin y Langatxo

Dirección: Jesús Tapia
Subvención: Ayuntamiento de Mutriku; Diputación Foral de Gipuzkoa

En esta campaña 2020 hemos finalizado el inventariado de los materiales de Langatxo, que se han pasado de formato en papel a soporte informático, y en total se han catalogado más de 4.000 piezas (incluyendo huesos, industria lítica y otros), indicando la sigla, coordenadas, capa, cuadro y naturaleza de cada elemento.

Los cuadros excavados entre las campañas 1991-1992 son:

1G, 1H, 2H, 3H, 10J, 11J, 9K, 10K, 11K, 7L, 8L,9L,10L, 11L, 6M, 7M, 8M, 9M, 10M, 7N, 8N y 9N

En el trabajo de campo se ha realizado una exploración espeleológica y una topografía completa, con los espeleólogos de Burumendi Mendi Elkartea, de las cuevas de Langatxo e Iruroin I, II y VII. Los planos y secciones obtenidos son fundamentales tanto para comprender ambos yacimientos, como para su adecuada protección, como se exige en su declaración como Bien Cultural.

Aun así, la próxima campaña será necesario continuar con la exploración y topografía hasta dar respuesta a algunas incógnitas que han quedado por resolver en el caso de Iruroin.

J. Tapia Sagarna

C.24.2. Kiputz IX leizea. Aztarnategi paleontologikoa

Zuzendaritza: Xabier Murelaga
Diru-laguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Kiputz IX is an important paleontological site that was excavated from 2004 to 2007. An important collection of macrofauna remains has been recovered at this site, mainly dominated by the Bison priscus, Cervus elaphus and Rangifer tarandus species. In the intervention carried out in 2020, the stratigraphy of the deposit was completed, with the bedrock being reached at a depth of 5.8 meters.

Kiputz aztarnategia Munibe taldeko kideek aurkitu zuten 2002. urtean. Aztarnategiaren interesa egiaztatu ondoren, 2004. urtetik 2007. urtera bitartean induskatu zuten Pedro Castañosen zuzendaritzapean, eta UPV/EHUko Xabier Murelaga eta Azkoitiko Munibe taldeko Juan Mari Arruabarrena, Xabier Alberdi eta Miguel Sasieta izan ziren taldeko kideak.

C.24.2. Cueva de Kiputz IX. Yacimiento paleontológico

Dirección: Xabier Murelaga
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa

El yacimiento de Kiputz fue descubierto por los miembros de Munibe taldea en el año 2002. Habiéndose constatado el interés del yacimiento este fue excavado entre los años 2004 al 2007 bajo la dirección de Pedro Castaños y siendo miembros del equipo Xabier Murelaga de la UPV/EHU, Juan Mari

Egindako kataren kokalekua, aztarnategi honetan egindako indusketei dagokienez.

Ubicación de la cata realizada con respecto a las excavaciones realizadas en este yacimiento.

Indusketetan ornodun handien 18.000 hondakin baino gehixeago atera zituzten, eta sedimentu laginak bildu zituzten granulometria, polena eta mikrougaztunak aztertzeko.

Aztarnategian 8 maila identifikatu ziren, eta F mailan pilatuta zeuden hondakin gehienak, D mailan zenbait hondakin isolatu agertu baziren ere. Hasieran pentsatu genuen barrunbearen oinarriko kareharria zela G maila, baina 3 F laukian haren zati bat hautsi zenean, konturatu ginen zarakar bat besterik ez zela. Zarakarraren zatien artean basurde hezur bat agertu zen, 37000 cal BP inguruko data zuena, eta kilo gutxi batzuk jaso genituen lur horixka batetik. Iruditu zitzaigun lur horrek poltsa txiki batzuk sortzen zituela zarakarraren barruan, eta halaxe irudikatu dugu orain arte gure lanetan.

2 helburu proposatu dira esku hartze honetarako. Lehenengoa H maila leizeko lehen depositua den egiaztatzea, eta bigarrena, berriz, ahal den lur guztia berreskuratzea mikrougaztunen hondakinak bilatzeko, H mailako deposituaren garaian zer baldintza zituzten jakiteko.

2 D laukian egin zen kata eta 160 cm behera egin genuen harri amara iristeko (Kretazeoko kareharri urgoniarrak). Hala, Kiputz IX leizeko ebaki estratigrafikoak 5,8 metroko lodiera hartu du. H maila honako hauek osatzen dute: *Cephaea nemoralis* metaketa H maila eta G maila elkartzen diren lekuan, eta kareharrizko blokeak (batzuk tamaina metrikokoak). Bloke horien artean kolore horixkako lur metaketa txikiak aurkitu ditugu, eta jaso egin ditugu gero azterketa mikropaleontologikoa egiteko, zehatz esateko 44., 46. eta 51. tailetan.

Arruabarrena, Xabier Alberdi y Miguel Sasieta de Munibe taldea de Azkoitia.

Durante las excavaciones se extrajeron algo más de 18000 restos de grandes vertebrados y se recogieron muestras de sedimento para estudios como la granulometría, el polen y los micromamíferos.

En el yacimiento se identificaron 8 niveles estando la mayoría de los restos concentrados en el nivel F y algunos restos aislados en el D. En un principio se pensó que el nivel G era la roca caliza de la base de la cavidad, pero al romperse un fragmento de ella en el cuadro 3F nos percatamos que no era más que una costra. Entre los fragmentos de la costra apareció un hueso de jabalí que fue datado en alrededor de 37000 cal BP y se recogieron unos pocos kilos de una tierra de color amarillento. La sensación que nos dio es que esa tierra estaba formando pequeñas bolsas dentro de la costra y así lo hemos representado hasta ahora en nuestros trabajos.

Los objetivos propuestas para esta actuación han sido 2. El primero el de comprobar si el nivel H supone el primer depósito de la cueva y el segundo recuperar toda la tierra que se pueda para buscar restos de micromamíferos que nos den una idea de las condiciones reinantes en el momento del depósito del nivel H.

La cata se realizó en el cuadro 2D y se profundizaron 160 cm hasta llegar a la roca madre (calizas urgonianas del Cretácico). De esta manera, el corte estratigráfico de Kiputz IX pasa a tener una potencia de 5,8 metros. El nivel H esta formado por una acumulación de *Cephaea nemoralis* en el contacto del nivel H con el G y por bloques calizos (algunos de tamaño métrico). Entre los cuales se han encontrado pequeñas acumulaciones de tierra de color amarillento que se han recogido para su posterior estudio micropaleontológico, concretamente en las tallas 44, 46 y 51.

X. Murelaga; J. M. Arruabarrena; X. Alberdi

C.25. OÑATI

C.25.1. Sagastizabal baserria

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantzazioa: Jabeak

Archaeological monitoring of the complete renovation of Sagastizabal farmhouse in Oñati. Despite being mentioned in several documents and dating (according to dendrochronological analyses) from the 15th century, no remains were found on the site from before the construction of the current building some time during the 18th or 19th century.

Sagastizabal baserriari buruzko lehen aipamen dokumentalak XV. mendekoak badira ere, egindako esku hartze arkeologikoaren emaitzen arabera, XVIII. eta XIX. mendeen artean eraiki zen egungo eraikina. Oinplano angeluzuzeneko eraikina da eta suebaki horma bat du, orubea erdigunetik ekialde-mendebalde norabidean banatzen duena. Landu gabeko harrizko hormak ditu eraikinak, eta harlanduak baoen ertzetan, eta zurezko barne egitura du, XVII. eta XVIII. mendeetako baserrietan ohikoak ziren mihiztatze soluzioekin. Baserriaren hegoaldeko sektorean egitura hori birplanteatu eta berreraiki egin zuten XIX. eta XX. mendeen artean, mandio bat egiteko. Iparraldeko sektoreko egiturari dagokionez, haren zati bat aldatu egin zuten XX. mendearen erdialdean, sute bat gertatu ondoren.

Aztarna arkeologiko zaharrenak ez ditugu baserriaren zorupean aurkitu, baizik eta eraikineko hormak eta zurezko egitura eraikitzeko berrerabilitako zuren artean. Arkeolan laborategiak egindako azterketa dendrokronologikoaren arabera, XV. mendeko batzuk daude berrerabilitako material horien artean. Hala ere, lurpean XVIII. mendea baino lehenagoko ebidentziarik aurkitu ez denez, datazio horrek, aipatutako laborategi horren laginen katalogoa loditzearen ondorio laudagarriaz gain, ez du batere laguntzen funtsezko garrantzia duten zenbait kontu argitzen, hala nola berrerabilitako material horiek jatorri duten XV. mendeko egituraren kokapena eta izaera.

C.25.1. Caserío Sagastizabal

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Propietarios

A pesar de que las primeras menciones documentales referidas a la existencia del caserío Sagastizabal se retrotraen al siglo XV, los resultados de la intervención arqueológica realizada apuntan a que el actual edificio fue construido a caballo entre los siglos XVIII y XIX. Se trata de un edificio de planta rectangular, dotado de un muro cortafuegos que divide el solar por su centro en dirección este-oeste, construido mediante muros de mampostería con sillares en los recercos de los vanos y estructura interna de madera con soluciones de ensamblaje típicas de los caseríos de los siglos XVII y XVIII. Una estructura que, en el sector sur del caserío fue replanteada y reconstruida entre los siglos XIX y XX, a raíz de la instalación de un mandio. La estructura del sector norte, por su parte, tras producirse un incendio fue en parte sustituida a mediados del siglo XX.

Las evidencias arqueológicas más antiguas no han sido localizadas en el subsuelo del caserío, sino entre las maderas reutilizadas usadas en la construcción de los muros y estructura lígnea del edificio. El análisis dendrocronológico realizado por el laboratorio Arkeolan señala que entre esos materiales reutilizados hay algunos del siglo XV. Sin embargo, al no haberse localizado en el subsuelo ninguna evidencia anterior al siglo XVIII, esta datación, más allá de la loable consecuencia de engrosar el catálogo de muestras del citado laboratorio, en nada contribuye a esclarecer cuestiones de importancia fundamental como la localización y la naturaleza de la estructura del siglo XV de la que proceden esos materiales reutilizados.

X. Alberdi Lonbide

C.25.2. Jaturabe IX leizea

I. kanpaina
Zuzendaritza: Naroa Garcia-Ibaibarriaga
Dirulaguntza emailea: Gipuzkoako Foru Aldundia; Oñatiko Udala

During the 1st season of archaeological excavations carried out in Jaturabe IX, we enlarged the area opened in the previous sondage season. The intervention comprised the excavation of an area covering 3m2, enabling a better documentation of occupations from the Mid Palaeolithic to recent Prehistory.

Jaturabe IX leizeko lehen indusketa kanpaina haitzuloan egiten den hirugarren ikerketa kanpaina da egiazki, bi urtez jarraian zundaketa arkeologikoak egin

C.25.2. Cueva Jaturabe IX

I Campaña
Dirección: Naroa Garcia-Ibaibarriaga
Subvención: Diputación Foral de Gipuzkoa; Ayuntamiento de Oñati

La primera campaña de excavación de Jaturabe IX es en realidad da tercera campaña de investigaciones que se realiza en la cueva, después de dos años

ondoren. 2020ko ekainetik irailera bitartean egin ziren landa lanak.

2018ko eta 2019ko zundaketetan irekitako azalera handitu genuen esku hartze honetan. 2019an ezarritako planimetriari eta koadrikulari jarraituz, 1 x 1 m-ko hiru lauki ireki genituen, jada induskatutakoen inguruan, eta 5 m^2-ko indusketa azalera ezarri genuen. Sakonera berera iritsi ginen, baina ez genuen haitzaren oinarria jo.

Ateratako sedimentu guztia lehorrean bahetu da, 2 mm-ko tarteak dituen baheaz, M20 laukiko koadrante bat izan ezik, etorkizunean egin daitezkeen azterketetarako gorde baitzen hura. Lan eremua irekitzean, laukien arteko aldeak ikusi ahal izan genituen, bai sedimentazioan, bai material arkeologikoetan.

Oro har, egindako lanek aurreko urteetako dinamika berresten dutela dirudi. Goiko geruzetan, fauna hondakinak eskuz egindako zeramika zatiak soilik berreskuratzen ditugu, ez zuen harrizko tresneriarik. Maila estalagmitiko batek estaltzen du eremu osoa, baina ez da uniformea sendotasunari dagokionez. Maila horretan, zeramika desagertu egiten da, eta harrizko tresnerien hondakinak agertzen dira, soilik suharrian eginak. Arkeologikoki emankorrak diren geruzen azpian tamaina handiko harri multzo bat ageri da, eta harri txikien multzoak eta lur arraildua tartean. Zundaketa ez da inoiz guztiz antzua izan, baina induskatutako azken geruzak izan dira berriro ere aberatsenak hondakin arkeologikoetan. Makrougaztunen eta harrizko tresnerien hondakin ugarien ezaugarri teknotipologikoei erreparatzen badiegu, Erdi Paleolitoan kokatuko genituzke.

consecutivos de sondeos arqueológicos. Las actuaciones de campo tuvieron lugar entre los meses de junio y septiembre de 2020.

La excavación consistió en la ampliación de la superficie abierta en los sondeos del 2018 y 2019. Siguiendo la planimetría y cuadrícula establecidas en el 2019, abrimos tres cuados de 1 x 1 m, circundantes a las ya excavadas, estableciendo una superficiede excavación de 5 m^2. Hemos llegado a la misma profundidad, sin tocar la base de la roca.

Cribamos todo el sedimento extraído en seco con una criba de luz de 2 mm, excepto un cuadrante del cuadro M20 que se guardó para posibles estudios de futuro. Con la apertura de la zona de trabajo, pudimos observar diferencias entre los cuadros, tanto en la sedimentación, como en los materiales arqueológicos propiamente dichos.

En general, los trabajos realizados parecen confirmar la dinámica de años previos. En las capas superiores recuperamos exclusivamente restos de fauna y de cerámica hecha a mano, sin presencia de industria lítica. Un nivel estalagmítico cubre la totalidad del área, si bien no es uniforme en cuanto a su consistencia. Este nivel marca la desaparición de la cerámica y la aparición de restos de industria lítica, realizados exclusivamente sobre sílex. Las capas fértiles arqueológicamente dan paso a un paquete de piedras de gran tamaño intercalado con niveles de piedras pequeñas y tierra brechificada. Si bien el sondeo nunca ha llegado a ser completamente estéril, las ultimas capas excavadas han vuelto a ser las más ricas en restos arqueológicos. Los numerosos vestigios de macromamíferos e industria lítica presentan características tecno-tipológicas que permiten atribuirlos al Paleolítico Medio.

N. Garcia-Ibaibarriaga; E. Arrieta

C.26. **ORDIZIA**

C.26.1. **San Bartolome ermita**

Zuzendaritza: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Finantzazioa: Ordiziako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.26.1. **Ermita de San Bartolomé**

Dirección: Iosu Etxezarraga Ortuondo
Financiación: Ayuntamiento de Ordizia; Diputación Foral de Gipuzkoa

The intervention focused on the inside of San Bartolomé chapel, which stood on the site prior to the chapel that is there today, in a section of the garden along its western wall. Although the levels of use pertaining to phases predating the chapel seem to have been destroyed by the contemporary building work (first half of the 19th century), the structure uncovered, funerary evidence documented and some of the material recovered provide evidence of some interesting aspects of the historical-construction evolution of the chapel, the origins of which are rooted in the High Middle Ages.

2012an egindako lehen ikerketa arkeologikoaren ondoren, eta 2018an egindako zundaketetan lortutako datuekin, Osbele Elkartearen laguntzarekin, antzinako San Bartolome ermitaren orubean ikerketekin jarraitzea proposatu zaio Ordiziako Udalari. Helburua da jakitea ea, dagoeneko ezagutzen diren horma hondaki-

Tras una primera investigación arqueológica realizada en 2012 y con los datos obtenidos en los sondeos realizados en 2018, con el apoyo de la Asociación Osbele se plantea al Ayuntamiento de Ordizia proseguir con las investigaciones en el solar de la antigua ermita de San Bartolomé. El objetivo que se

nez gain, haiekin zerikusia duten erabilera testuinguruak mantentzen ziren, haiek informazioa emango bailigukete populazioak izandako aldaketei eta lekuan egiten ziren ehorzte eta liturgia erituei buruz.

Erdi Aroko (c.1450-1500) tenpluaren iparraldeko erdiko ia perimetro guztia azaleratu zen 2018an, eta, zenbait aldaketa izan bazituen ere, hark iraun egin zuen eraitsi eta gaur egungo eraikin neoklasikoa eraiki zen arte. Susmatzen genuen bezala, 1856an hasitako berreraikitze lanetan ermitaren barnealdea txikitzea eta orientazioa aldatzea erabaki zen, absidea hegoaldera jarrita. Makinen bidez egindako zundaketei esker, antzinako burualdearen zati bat (eta XVIII. mendean erantsi zizkioten aretoak) aurkitu ahal izan ziren egungo tenpluaren ekialdean, eta nabearen hormak, berriz, mendebaldean (1004. UE). Horrez gain, lehenagoko eliza bateko (c.1280-1380) horma hondakinak (1005. UE) identifikatu ziren, zati batean moztuak 1004. UE horma ezartzeko. Gainera, egiaztatu ahal izan da, Erdi Aroaren azken garaiko eraikina zela burualdearen handitzea eta haren zabalera pixka bat handitzea (soilik 1005. hormaren lodiera alde bakoi-tzean); oinetako hormak, berriz, zutik jarraituko zuen, bere funtzioa betez. Azkenik, beste horma bat aurkitu zen (1006. UE), azken horri atxikia, iparralderantz jarraituz, baina ez dakigu zein izaera eta zein eginkizun izango zituen.

Kanpaina honetan, induskatzeko estrategia zen XIX. mendearen erdialdean desagertutako ermitaren iparraldeko erdia ahalik eta gehien hartzen saiatzea. Jakin nahi genuen zein lotura zegoen mendebaldean agertutako hormen eta tenpluaren barruko deposituen eta erabilera mailen artean, baina 2018an egindako zangek ez zuten horretarako aukerarik eman. Tenpluaren lehenagoko aztarnak aurkitzea espero genuen, barruan egindako zundaketa batean dokumentatutako aztarna antropologikoetatik halakorik ondoriozta baitzitekeen. 1120 eta 1220 arteko kronologia izango zuen hark.

Laburbilduz, ermitaren nabe zaharraren indusketak ez du aurkikuntza garrantzitsurik ekarri tenpluaren erabilera faseei dagokienez. Substratua aldatuta dago, aro garaikidean segur aski, bai aurreko ermitaren erabilera aldiaren amaieran, bai egungoa eraikitzeko obren testuinguruan. Lurraren buztin naturalera iristen dira aldaketa horiek. Aipatzeko moduko ebidentzia bakarra da antzinako ermitaren alboko hormen paraleloan doan zanga. Ermita neoklasikoaren eraikuntzaren hasierako fasetzat jo izan da, eraikinaren orientazioa aldatzeko erabakia hartu aurreko planteamendua agian. Nolanahi ere, negatiboa egin zen depositua nahiz ixteko egin zen betelana ia berdinberdinak dira, eta XIX. mendearen erdialdera eramango gintuzkete seguruenik.

Erdi Aroko horma perimetralei dagokienez, interes handiko zenbait alderdi dokumentatu dira. Egiaztatu ahal izan da 1005. Horma, 1006. Horma iparralderantz luzatzen duena, 1004. Horma baino lehenagokoa dela. Aipatutako guztiak landu gabeko harrizko hormak dira, ertz kateen bidez sendotuak. Hala ere, XV. mendea baino lehenagoko hormen

plantea es conocer si, además de los restos murarios ya conocidos, se mantenían los contextos de uso relacionados con los mismos y que aportarían información sobre las transformaciones del poblamiento y los ritos funerarios y litúrgicos desarrollados en el lugar.

En 2018 afloró prácticamente todo el perímetro de la mitad norte del templo de origen medieval (c.1450-1500) que, con modificaciones, perduró hasta su derribo y la construcción del edificio neoclásico actual. Como ya sospechábamos, en las obras de reedificación iniciadas en 1856 se decidió reducir el espacio interior de la ermita y cambiar su orientación, situando su ábside al sur. Los sondeos realizados con maquinaria permitieron hallar parte de la cabecera antigua (y las dependencias que le fueron añadidas en el siglo XVIII) en el costado este del templo actual y los muros de la nave en el occidental (UE1004). Además, se identificaron restos murarios (UE1005) pertenecientes a una iglesia anterior (c.1280-1380), en parte desmochados para instalar la pared 1004. Se pudo comprobar, además, que el edificio tardomedieval consistía en una ampliación de la cabecera y una tímida extensión de su anchura (solamente el grosor del muro 1005 a cada lado), mientras que el muro de los pies continuaría en pie cumpliendo su función. Finalmente, se detectó otro muro (UE1006) adosado a este último, continuando en dirección norte, cuya naturaleza y función era una incógnita.

En la presente campaña, la estrategia de excavación adoptada fue la de intentar abarcar la mayor parte posible de la mitad norte de la ermita desaparecida a mediados del siglo XIX. Queríamos conocer las relaciones entre los muros exhumados en la parte oeste y los depósitos y niveles de uso del interior del templo, algo que las zanjas perpetradas en 2018 no permitieron. Esperábamos hallar restos anteriores del templo, cuya existencia se deducía de los restos antropológicos documentados en un sondeo realizado en el interior, cuya cronología se situaba entre 1120 y 1220.

En síntesis, la excavación de la antigua nave de la ermita no ha aportado importantes hallazgos en relación con las fases de uso del templo. El sustrato se encuentra alterado en época contemporánea, seguramente, bien al final del período de uso de la ermita anterior, bien en el contexto de las obras de construcción de la actual. Estas alteraciones llegan hasta la arcilla natural del terreno. La única evidencia reseñable es una zanja paralela a los muros laterales de la antigua ermita. Se ha interpretado como una fase inicial de la construcción de la ermita neoclásica, quizá un planteamiento anterior a la decisión de modificar la orientación del edificio. En todo caso, tanto el depósito en el que se practicó la negativa como el relleno con el que se amortizó son prácticamente idénticos, que muy probablemente nos remiten a mediados del siglo XIX.

En cuanto a los muros perimetrales medievales, se han documentado varios aspectos de gran interés. Se ha podido comprobar que el muro 1006, que prolonga la 1005 hacia el norte, es anterior a la pared 1004. Todos los mencionados son muros de mampostería reforzada mediante cadenas esquineras. Sin embargo, la solidez de los muros anteriores al siglo

Restos murarios exhumados en la presente campaña y a los que se hace mención en el texto.

Kanpaina honetan agerian geratu diren horma hondakinak, testuan aipatzen direnak.

sendotasuna zimenduen sakontasunean erakusten da bereziki.

Ermita zaharraren kanpoko espazioa induskatzean betegarri handiak aurkitu genituen XX. mendearen amaierako obra hondakinez eta zaborrez osatuak, eta Oria ibaira erortzen zen lurra erregularizatzea izan zen haien helburua. Gaur egun, antzeko kotan dago meandroaren zati hori guztia, baina duela gutxi arte, ibai ertzera jaisten zen malda bat zegoen. Hala, hondakin multzo hori induskatu ondoren, geruza minerala azaldu zen, 1005. hormaren goiko kotatik 150 cm baino gehiagora. Barrualdean, aldiz, buztin naturala, oro har, 45 cm beherago ageri da. Oinetako hormaren beheko kota atzeman eta dokumentatu behar genuenez, 270 cm sakondu behar izan genuen. Horrek kanpoko lurzoruaren kotatik metro bat baino beherago kokatzen du, ibaira begira. Inolako zalantzarik gabe, horma hori egin zutenen asmoa zen aurrealde solido bat sortzea Oria ibaiak izan zitzakeen ur goraldien aurrean.

Aipagarria da, halaber, matxoi handi bat aurkitu genuela, harlandu txikiz egina forru gisa, bai eta harriak eta kare ugari ere nahasiak (1017), kanpotik 1005. hormaren kontra atxikia mendebaldeko aurrealdean eta zentimetro gutxi batzuk zimendatua lurreko buztinean. Kontrahorma sendo bat izango da ziurrenik, garai modernoan erantsia ibaira ematen duen horma indartzeko.

1005. hormarekin lotutako beste aurkikuntza interesgarri bat da berrerabilitako eraikuntza materiala atzeman izatea, aurreko eliza batekoa segur aski. Jatorriz, ibaitik pilatutako harrizko bloke batzuk dira, aurreko eraikin baten barruko luzituaren kare geruza atxikia dutenak. Estaldura horren zati ugari be-

XV se demuestra especialmente en la profundidad de sus cimientos.

Durante la excavación del espacio exterior de la antigua ermita se detectaron fuertes rellenos a base de escombro y basura de finales del siglo XX, cuyo objetivo fue el de regularizar el terreno que originalmente caía hacia el río Oria. Actualmente, toda esta parte del meandro se sitúa a una cota más o menos similar, pero hasta hace fechas recientes existía una pendiente que descendía hacia la orilla. Así, una vez excavado este cúmulo de desperdicios, se halló el estrato mineral, a más de 150 cm desde la cota superior del muro 1005. En la parte interior, en cambio, la arcilla natural aparece, en términos generales, a unos 45 cm por debajo. Al disponernos a detectar y documentar la cota inferior del muro de los pies fue preciso profundizar 270 cm, lo que lo sitúa a más de 1m por debajo de la cota de suelo exterior en dirección al río. Sin duda alguna, la intención de quienes fabricaron esta pared era crear un frente sólido frente ante las posibles crecidas del río Oria.

Cabe indicar también la localización de un gran machón construido con sillarejo como forro y una mezcla de piedras y abundante cal en el interior (1017), adosado desde el exterior contra el muro 1005 en el frente oeste y apenas cimentado unos pocos centímetros en la arcilla del terreno. Se trata probablemente de un sólido contrafuerte añadido en época moderna para reforzar el muro de hacia el río.

Otro hallazgo de interés relacionado con el muro 1005 es la detección de material constructivo reutilizado, probablemente de una iglesia anterior. Se trata de varios bloques de piedra originalmente acopiados del río que conservan adherida la capa de cal del enlucido interior de un edificio anterior. Se han recuperado

rreskuratu dira induskatutako zenbait depositutan (1005. hormaren zimendatze zangako betegarrian, esate baterako), eta haietako askok pinturak dituzte, marra gorriak eta beltzak, 1005. hormaren zimenduan identifikatutako harriak barne, 1280-1380 artean datatuak.

Bestalde, egiaztatu da 1005. eta 1006 hormei atxikita dagoela 1004. horma, bi horma horien arteko juntura ez baitator bat azken horren kanpoko paramentuaren lerrokadurarekin. Nolanahi ere, iparraldean geratzen den espazioa, 1004. eta 1006. hormek mugatua, buztin naturalean egindako betegarria da, nahiz eta zenbait estratu estaltzen dituen. Haren kronologiak Aro Modernoaren amaierara eramango gintuzke segur aski. 2020ko kanpainaren amaieran, ingurune horretako azken hondakinak garbitzen ari ginela, hilobi bat aurkitu genuen. Bertan, bi ehorzketa dokumentatu dira, elkarren gainean jarritako hondakin antropologikoak, lotura anatomikoan eta orientazio kanonikoan. Ehorzketa sakonenaren berezitasuna da kare ugariko oinarri batean jarri zela, eta horregatik, hobeki kontserbatu ahal izan dira hezurrak.

Azkenik, aurkitutako materialei dagokienez, adierazi behar dugu intereseko pieza gehienak bigarren mailako deposituetan berreskuratu direla, izaera eta kronologia desberdineko beste batzuekin nahasiak. Kobrezko zenbait txanpon nabarmentzen dira, Behe Erdi Arokoak segur aski, bai eta zeramikazko zati batzuk ere, Erdi Aro Betera eramango gintuzketenak.

Azken batean, esku hartzearen emaitzak desberdinak izan dira eta planteatutako helburuetako batzuk ezin izan dira bete. Alderdirik positiboena izan da munta handikoak direla agerian geratutako hormen hondakinak, eta, horrenbestez, jendeak ikusteko moduan jar daitezkeela etorkizunean. Bestalde, berreskuratutako dekorazio hondarrek argia eman dute 1300 baino lehenagoko tenpluak izan zezakeen muntari dagokionez. Gainera, elizaren perimetrotik kanpo hilobia aurkitu izana aurrerapauso bat da orube horretan egin ziren ehorzketa erabilerak definitzeko bidean.

Planteatutako galderen aurrean, ekarpen hau sinatu dugun ikertzaileok Ordiziako San Bartolome ermita zaharra aztertzen jarraitzeko asmoa adierazi nahi dugu. Uste osoa dugu oraindik ere badirela lekukotasun baliotsuak inguru horretan, Ordiziako hiribilduaren jatorriari eta Ordiziako herrixka zaharraren bilakaera historikoari buruz gauza gehiago jakiteko aukera emango dutenak.

abundantes fragmentos de este cubrimiento en varios depósitos excavados (como en el relleno de la zanja de cimentación del muro 1005, por ejemplo) y muchos de ellos presentan pinturas en forma de líneas rojas y negras, incluídas las piedras identificadas en el cimiento del muro 1005, datado entre 1280-1380.

Por otra parte, se ha comprobado que el muro 1004 aparece adosado tanto a la 1005 como a la 1006, ya que la junta entre estos dos últimos muros no coincide con la alineación que presenta del paramento exterior de la primera. En todo caso, el espacio que queda en el lado norte, limitado por los muros 1004 y la 1006, es un rellano practicado en la arcilla natural, aunque con varios estratos que cubren, cuya cronología nos remite posiblemente al final de la Edad Moderna. Al final de la campaña de 2020, durante la limpieza de los últimos restos de este ambiente, se detecta una fosa de enterramiento en la que se documentan dos inhumaciones de restos antropológicos superpuestas, en conexión anatómica y orientación canónica. La peculiaridad del enterramiento más profundo es que fue depositado en una base con abundante cal, que ha permitido una mejor conservación de los huesos.

Finalmente, respecto a los hallazgos materiales, debemos indicar que la mayoría de las piezas de interés se recuperan en depósitos secundarios, mezclados con otros de distinta naturaleza y cronología. Se destacan varias monedas de base de cobre, posiblemente de cronología bajomedieval, así como algunos fragmentos de cerámica que nos remiten a la Plena Edad Media.

En definitiva, los resultados de la intervención han sido desiguales y parte de los objetivos planteados no se han podido cumplir. La parte más positiva ha sido la potente entidad de los restos murarios exhumados, que los hace susceptibles de ser puestos a la vista del público en un futuro. Por otra parte, los restos decorativos recuperados aportan luz sobre la entidad que pudo tener el templo anterior al 1300. Además, el hallazgo de la sepultura en el exterior del perímetro eclesial supone un avance en la definición de los usos funerarios que se desarrollaron en este solar.

Ante las cuestiones planteadas, los investigadores que firmamos esta aportación manifestamos nuestra voluntad de continuar con el estudio de la antigua ermita de San Bartolomé de Ordizia, con la convicción de que aún quedan valiosos testimonios que desentrañar en su entorno, que permitirán crear nuevo conocimiento sobre los orígenes de la villa de Villafranca y la evolución histórica de la antigua aldea de Ordizia.

I. Etxezarraga Ortuondo; N. Iraola Garmendia; D. Cano Becerro

C.27. ORIO

C.27.1. Lusarbe Handi baserria. Erdiko sektorea

Zuzendaritza: Xabier Alberdi Lonbide
Finantzazioa: Jabea

C.27.1. Caserío Lusarbe Haundi. Sector central

Dirección: Xabier Alberdi Lonbide
Financiación: Propietario

Archaeological monitoring of the renovations carried out to the central part of Lusarbe Haundi farmhouse (Orio).

Lusarbe baserriko erdiko sektoreko orube osoa hartu zuen esku hartze arkeologikoak. Agortu egin genituen bertan beste ikerketa bat abiarazteko aukera guztiak, emaitzak edo oso balio eskasekoak izan baitziren edo ez baitzuten inolako interes historiko-arkeologikorik izan.

Intervención desarrollada en toda la extensión del solar del sector central del caserío Lusarbe Haundi, agotando la posibilidad de nueva investigación en este, siendo los resultados de la misma de escaso o nulo interés histórico-arqueológico.

X. Alberdi Lonbide

C.28. GIPUZKOA ETA ARABAKO PARTZUERGO NAGUSIA / PARZONERÍA DE GIPUZKOA Y ÁLAVA

C.28.1. San Adriango tunela edo Lizarrateko Igarobidea

XIV. kanpaina
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Nagusia; Zegamako Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.28.1. Túnel de San Adrian o Paso de Lizarrate

XIV Campaña
Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Parzonería General de Gipuzkoa y Alava; Ayuntamiento de Zegama; Diputación Foral de Gipuzkoa

The archaeological intervention enabled the documentation of the most recent phases of occupation of the old castle built inside the tunnel, which was dismantled during the 16th-17th century and turned into an inn for travellers.

2020an San Adrian/Lizarrateko tunelean edo leizean egindako lan arkeologikoak duela hamarkada bat hasitako lanaren jarraipena dira, eta hainbat erakundek parte hartzen dute ikerketa prozesu horretan (Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako eta Arabako Partzuergo Nagusia eta Zegamako Udala).

Indusketa arkeologikoen XIV. kanpainari esker, inguru horren bilakaerari buruzko datu berri eta interesgarriak lortu dira. Aurten, egoera bereziak direla eta, nabarmen murriztu dira lan eremua eta parte hartzaileen kopurua, taldearen osasun baldintzak uneoro bermatu ahal izateko.

Ostatu edo Benta zaharraren barrualdean egin ditugu batez ere lan arkeologikoak, tunelaren E ahotik hurbil (Zegamara ematen duena). Puntu horretan, «L» formako lauki bat ireki dugu, 8,50 m^2 inguruko

Los trabajos arqueológica desarrollados en el Túnel o Cueva de San Adrián/Lizarrate en el año 2020 son una continuidad de la labor iniciada una década atrás, y en cuyo proceso de investigación se encuentran implicadas diversas instituciones (Diputación Foral de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, la Parzonería General de Gipuzkoa y Álava y el Ayuntamiento de Zegama).

La XIV Campaña de excavaciones arqueológicas ha permitido obtener nuevos e interesantes datos referidos a la evolución de este entorno. Este año ante las especiales circunstancias se ha reducido sensiblemente el área de trabajo y el número de participantes a fin de garantizar en todo momento las condiciones sanitarias del grupo.

Los trabajos arqueológicos se han centrado fundamentalmente en el interior del antiguo Ostatu o Venta, en las proximidades de la boca E del Túnel (aquella que se abre hacia Zegama). En ese punto se

Ezkerrean, San Adrian/Lizarrateko tunelean egindako zundaketaren kokapen planoa. Eskuinean, San Adrian/Lizarrateko tuneleko lan arkeologikoetan aurkitutako hezurrezko orratza.

A la izquierda, plano de localización del sondeo ejecutado en el Túnel de San Adrian/Lizarrate. A la derecha, aguja de hueso localizada en los trabajos arqueológicos en el Túnel de San Adrian/Lizarrate.

azalera duena. Eremu horretan, ebaluazio lan batzuk egin ziren 2008. urtean, baina orain arte bertan behera utzi behar izan ziren, amilburuak oso ezegonkorrak direlako.

Zundaketa horri esker, Ostatuko hormen egungo zimenduak ikusi ahal izan dira. Gaur egun, tunelaren ekialdeko erdia mugatzen dute. Horma horrek E-O norabidea zuen, barrunbeko horma naturalarekiko paraleloan jarria, eta gaur egun zimenduak besterik ez zegoen 1915. urte inguruan eraikina suak hartu eta haren hondakinak eraitsi ondoren, aziendarentzat eta oinezkoentzat arriskutsua zelako. Landu gabeko harrizko horma arrunt batekin egina zen, harriak oso trinkoa ez den kareorez lotuak, 70 cm-ko zabalera zuen batez beste eta 55-60 cm eskaseko altuera kontserbatu du. Harroin edo zimendu baten gainean zegoen, tamaina ertain-handiko bloke irregular batzuek osatua, eta bloke horiek Erdi Arotik Aro Modernora igarotzearekin lotu daitekeen betegarri baten gainean zuzenean ezarriak.

Zundaketan, aipatutako Ostatuaren azken okupazio fazieekin (XIX. mendearen bigarren erdian utzi zion ostatu izateari) lotutako mailarik azalekoenak kendu ondoren, okupazio maila desberdinak identifikatu ahal izan ditugu. Maila horiek elkarren gainean daude argi eta garbi, alboko ebakian dokumentatu ahal izan zen bezala, eta okupazio fase desberdinekin lotu behar dira. Hala, bizileku mailak dokumentatu ahal izan dira, bai eta beste maila batzuk ere. Maila horietan, nolabaiteko garrantzia duen sutondo edo su bat identifikatu dugu, seguruenik elikagaiak prestatzeko erabiliko zutena.

ha abierto un cuadro en forma de «L» con una superficie de unos 8,50 m^2, un área donde ya se hicieron unos primeros trabajos de evaluación en el año 2008 que hubieron de suspenderse hasta la fecha por la inestabilidad de los cantiles.

Gracias a este sondeo se ha podido observar la cimentación actual de los muros del referido Ostatu, y que delimitan en la actualidad la mitad oriental del propio túnel. Este muro presentaba una orientación E-O, dispuesto en paralelo a la pared natural de la cavidad y en la actualidad se encontraba reducido a sus cimentos tras el incendio del edificio hacia 1915 y la posterior demolición de sus restos por el peligro que suponía para el ganado y los viandantes. Estaba ejecutado con un muro de mampostería ordinaria ligado con una argamasa calcárea muy poco consistente disponiendo de una anchura media de 70 cm y una altura conservada de escasamente 55-60 cm; estando dispuesto sobre una basa o cimentación conformada por una serie de bloques irregulares de tamaño medio-grande, y éstos directamente sobre un relleno asociable al tránsito entre la Edad Media y la Edad Moderna.

En el sondeo, una vez retirados los niveles más superficiales y asociados a las últimas facies de ocupación del referido Ostatu (abandonado como tal en la segunda mitad del siglo XIX), se han podido identificar una serie de niveles diferentes de ocupación. Estos niveles se presentan claramente superpuestos como se pudo documentar en el corte lateral, y se asocian a diferentes fases de ocupación. De este modo se han podido documentar niveles de habitación, junto a otros donde se ha identificado un hogar o hoguera de una cierta relevancia, empleada seguramente para el cocinado de sus alimentos.

Maila horiek guztiak bizitegi garai zabal batekin lotuko genituzke, Aro Modernotik hasi (XVI.-XVII. mendeak) eta Erdi Arora arte, berreskuratutako material higigarrien arabera, nahiz eta material horiek, batzuetan, nahasita agertzen diren, bertako biztanleek egindako lur iraultzeen ondorioz. Hala, hainbat ebidentzia material (zeramikazkoak batez ere) bildu ahal izan genituen, Erdi Aroko okupazioekin lotuko gintuzkeenak, baina batzuetan erromatarren garaiko edo Brontze Aroko elementu batzuk ere agertzen ziren. Aipatu behar da giza garezurren bi zati gutxienez aurkitu ditugula, osatugabeak eta testuingurutik erabat kanpo daudenak; beraz, oraingoz ezin dira fazie zehatz batekin lotu. 2021eko kanpainan osatu nahi da maila horien indusketa.

Aurkikuntzarik interesgarriena, ordea, zundaketan ekialdeen zegoen besoan egiaztatu ahal izan zen, itxitura hormatik gertuen zegoenean. Sektore horretan, zundaketaren gainerako mailetatik guztiz ezberdina zen estratigrafia erregistratu ahal izan genuen gainazaleko mailetatik. Betegarri heterogeneoagoa eta nahasiagoa zuen, eta hainbat kronologiatako material higigarriak egiaztatu ahal izan genituen bertan. Beheko aldean horma baten zimenduak aurkitu genituen, oso gaizki kontserbatuak eta goiko aldean suntsituak. Haren ezaugarri espezifikoak ezin izan ziren argi eta garbi zehaztu, kanpaina honetan ezin izan baitziren oraindik induskatu. Horma hori egungo itxituratik 2,50 metro ingurura zegoen, barrualdera, eta, jatorrian, tunela ixten zuen ekialdeko aho horretatik, tunelaren hegoaldeko horman egindako beheratze artifizialean ere egiaztatu ahal izan zen bezala. Horma hori, erabat desegin edo moztu egin zuten, segur aski XVI. mendearen amaieran-XVII. mendearen hasieran kokatuko genukeen une batean, eta, datu historikoak eta harekin loturik zeuden materialak kontuan hartuta, puntu horretan gutxienez XIII. mendetik zegoen gaztelu zaharrarena izango zen seguruenik (XI. mendean eraikia egongo zen segur aski). Itxitura horrek, 1592ko plano ezagunean agertzen den bezala, geziak jaurtitzeko gezileiho batzuk eta gaur egun kontserbatzen denaren antzeko sarrera arku bat zituen. Oso litekeena da gerora berraprobetxatu eta horma berrian birkokatu zen arku bera izatea, gaur egungoa ez bezalako posizio batean baitzegoen horma hori. Obra horren bidez, puntu horretan egokitutako eraikinaren azalera nabarmen handitzea lortu zuten tunelaren erabiltzaileek, gaur egun dituen neurriak emanez. Une hori, ziurrenik, bat etorriko zen Bentaren beraren berreraikuntzarekin (gazteluko alkaidearen etxe zaharra birmoldatua). Bi hormen arteko espazioa, lur harroz egindako betelan oso uniforme batekin estali zuten, eta txanpon kopuru handi bat berreskuratu ahal izan dugu bertan (dozena erdi inguru), oso gaizki kontserbatuak, baina Erdi Aro Beteko kronologia dutenak (XII.-XIV. mendeak).

2021. urteko kanpainan, aurten hasitako lanak bukatu nahi dira, eta inguru horren indusketa amaitu, oraindik gelditzen diren zalantzak argitzeko.

Todos estos niveles corresponderían a un amplio momento de habitación que oscilaría desde la Edad Moderna (siglos XVI-XVII) hasta la Edad Media a juzgar por los materiales muebles recuperados, si bien éstos aparecen en ocasiones revueltos debido a las propias remociones del terreno llevadas a cabo por sus moradores. De esta manera se pudieron recoger diversas evidencias materiales (principalmente cerámicas) asociables a horizontes de ocupación medievales, pero en los que en ocasiones aparecían otros aislados de época romana o de la Edad del Bronce. Es necesario reseñar la localización de al menos dos fragmentos de cráneos humanos, incompletos y totalmente descontextualizados, por lo que no pueden asociarse momentáneamente a ninguna facies concreta. Niveles cuya excavación se pretende completar en la campaña del año 2021.

El hallazgo más interesante, sin embargo, se pudo verificar en el brazo más oriental del sondeo, el más próximo al muro de cierre. En este sector se pudo registrar desde los niveles superficiales una estratigrafía totalmente diferente a la del resto del sondeo. Con un relleno más heterogéneo y revuelto, y en el que se pudo registrar la presencia de materiales muebles de diversa cronología. En la parte inferior se pudo localizar los cimientos de un muro muy deficientemente conservado y arrasado en su parte superior cuyas características específicas no pudieron definirse con claridad al no haber podido ser excavados aún en esta campaña. Este muro estaba situado unos 2,50 m del cierre actual, hacia el interior, y cerraba originalmente el túnel por esta boca oriental, tal y como se pudo certificar asimismo en el rebaje artificial ejecutado en la pared meridional del túnel. Este muro fue totalmente desmantelado o desmochado en un momento situado seguramente a finales del siglo XVI-principios del XVII, y teniendo en cuenta los datos históricos y los materiales asociados pertenecía casi seguramente al antiguo castillo habilitado en este punto desde al menos el siglo XIII (seguramente ya estaba edificado en el siglo XI). Un cierre que, como aparece reflejado en el conocido Plano de 1592, estaba dotado de una serie de saeteras para el disparo de flechas y un arco de acceso similar al que actualmente se conserva. Es muy posible que sea el mismo arco posteriormente reaprovechado y recolocado en el nuevo muro, ya que éste estaba dispuesto en una posición diferente al actual. Mediante la presente obra los usuarios del túnel consiguieron ampliar sensiblemente la superficie de la edificación dispuesta en ese punto, dándole las proporciones que en la actualidad dispone. Momento que muy seguramente coincidiría con la reconstrucción de la propia Venta (antigua casa del alcaide del castillo reconvertida). El espacio entre ambos muros fue colmatado por un relleno muy uniforme de tierra suelta donde se han podido recuperar un numero destacado de monedas (cerca de media docena) muy defectuosamente conservadas, pero que presentan una cronología plenamente medieval (siglos XII-XIV).

En la campaña del año 2021 se pretende terminar las labores iniciadas este año concluyendo la excavación de este entorno, aclarando las posibles dudas aún existentes.

A. Moraza Barea; M. Ceberio Rodriguez; J. Tapia Sagarna

C.29. SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS

C.29.1. Sabua trikuharria

II. kanpaina
Zuzendaritza: Jesus Tapia
Finantzazioa: Soraluzeko Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.29.1. Dolmen de Sabua

II Campaña
Dirección: Jesús Tapia
Financiación: Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas; Diputación Foral de Gipuzkoa

The excavation of Sabua enabled us to analyse the remains of the funerary chamber and to confirm that it is a small, cist-type structure.

Sabua tumulua J. M. Barandiaranek aurkitu zuen 1920an, baina Aranzadik, Barandiaranek eta Egurenek uko egin zioten hura induskatzeari, gainazalaren itxurak itxaropen txikiak ematen zuelako.

M. Ceberiok eta J. Tapiak 2016. urtean egindako miaketetan berriro aurkitu arte, monumentu hori galdutzat jo zen, ezin izan zelako argi identifikatu inguruneko erliebean. 2017an, kata arkeologiko bati esker, haren izaera megalitikoa egiaztatu ahal izan zen, baina ezin izan zen informazio zehatzik eman 2019an induskatzen hasi arte.

Esku hartze honetan, ganbarari dagokion zatia induskatu dugu, material arkeologikoak berreskuratzeko, zuen estratigrafia xehetasunez dokumentatzeko eta zituen elementu arkitektonikoen kokapena aztertzeko.

Material arkeologiko berririk aurkitu ez den arren, jatorrian egitura osatzen zuten elementuen gaur egungo antolaketa zehaztu eta eraikuntza alderdi berriak zehaztu ondoren, ondorio honetara iritsi gara: tamaina txikiko hilobi ganbera da, zista motakoa, eta tumulu txiki batek babesten du. Lur oinarri baten gainean jarritako bloke eta basaltozko lauza batzuek osatzen dute tumulua.

Esku hartze honen emaitzak oso positiboak dira, eta monumentu horren tipologia egiaztatzeko aukera ematen dute, kontuan harturik antzekoak badirela Megalito Gune berean, hala nola Atxolin Txiki II edo Frantsesbasoa, eta, aldi berean, haren eraikuntza ezaugarri batzuen berezitasuna nabarmendu behar da.

El túmulo de Sabua fue descubierto en 1920 por J. M. Barandiarán, pero, Aranzadi, Barandiaran y Eguren renunciaron a excavarlo debido a las pobres expectativas que ofrecía su apariencia superficial.

Hasta su redescubrimiento durante las prospecciones realizadas por M. Ceberio y J. Tapia en 2016, este monumento se dió por perdido al no poderse identificar con claridad en el relieve del entorno. En 2017, una cata arqueológica permitió constatar su carácter megalítico, pero no se pudo aportar información detallada hasta el inicio de su excavación en 2019.

En esta intervención hemos excavado la parte correspondiente al recinto cameral, con objeto de recuperar materiales arqueológicos, de documentar con detalle su estratigrafía, y de analizar la disposición de sus elementos arquitectónicos.

Pese a que no se han hallado nuevos materiales arqueológicos, tras precisar la disposición actual de los distintos elementos que formaban originalmente la estructura y determinar nuevos aspectos constructivos, llegamos a la conclusión de que se trata de una cámara sepulcral de pequeño tamaño, de tipo cista, arropada por un pequeño túmulo, compuesto por bloques y lajas de basaltos colocados sobre una base de tierras.

Los resultados de esta intervención son muy positivos y permiten verificar la tipología de este monumento, con paralelos dentro de la misma Estación Megalítica como Atxolin Txiki II o Frantsesbasoa, y al mismo tiempo resaltan la particularidad de algunas de sus características constructivas.

J. Tapia Sagarna

C.30. **TOLOSA**

C.30.1. HIRIGUNE HISTORIKOA / CASCO HISTÓRICO

C.30.1.1. **Kale Nagusia, 19**

Zuzendaritza: Zohartze Galan Zumeta
Finantzazioa: Construcciones Francisco Aierbe S.L.

Kale Nagusiko 19. zenbakian etxebizitza berriak eraiki behar zituztela eta, esku hartze arkeologikoa egin genuen orube horretan. Lursaila herriko alde zaharraren erdialdean dago, eta Andia Dorrea du muga hegoaldean. 188 m^2 inguruko azalera duen hiri lursaila da, angeluzuzena, eta 16,30 m luze eta 11,60 m zabal ditu.

Esku hartze arkeologiko honetan nabarmentzekoa da egitura baten zimenduak aurkitu ditugula orubearen hego-ekialdean, Andia Dorrearen ondoan. Lursailaren gainerakoan ondare interes txikikoak izan ziren dokumentatutako depositua.

Eskuairan jarritako egitura baten oinarria da, landu gabeko arbelez eta kareharriz egina, harriak lurrez lotuak. Ilara bakarra zuen, 90 cm zabal eta 2,25 m eta 5,10 m luze zituena, eta osorik ezin zen erregistratu mendebaldeko muturrean hondatua zegoelako. Ekialde-mendebalde norabideari eusten zion luzetarako zatian, eta erdialdean, berriz, beste horma bat hasten zen mehelin edo banatzeko horma gisa, 70 bat cm-ko zabalerakoa eta 1,10 m-ko luzerakoa, baina egituraren gainerako zatia baino egoera txarragoan zegoen. Lurrean induskatutako zimendu zanga erregistratu ahal izan genuen, eta, datu interesgarri gisa, esan behar dugu dorrearen zimenduek ebaki egin zituztela horma perpendikularrak.

Ez dakigu noiz eraiki zuten Andia Dorrea (gaur egun, Kale Nagusiko 17. zenbakia), baina gauza jakina da Domenjon González de Andia, «Gipuzkoako erregea» izenez ezaguna, Gipuzkoako Ermandadearen sustatzailea, eta Bandoen Gerra amaitzen lagundu zuena, dorre horretan jaio zela XV. mendearen lehen erdian, eta Antón González de Andia semea izan zela eraikina berritu zuena hiribilduan 1503an[50] izan zen sutearen ondoren. Andia dorrea Kontzeju itxiaren egoitza izan zen, eta hiribilduak jabetza erosi zuen. Dorrearekin batera, «ukuilu bat eta etxetxoak zituen atxikita»[51], harik eta esku pribatuetara itzuli zen arte, hainbat auzi izan ondoren[52].

[50] Martin Ramos, A., (1993), *La construcción de Tolosa,* Coavn, Bilbo,56

[51] Martin Ramos, A., (1993), Op. Cit., 56. or.

[52] Garmendia Larrañaga, J., (2007), *Domenjon Gonzalez de Andia y la villa de Tolosa*, Eusko Ikaskuntza.

C.30.1.1. **Nagusia, 19**

Dirección: Zohartze Galan Zumeta
Financiación: Construcciones Francisco Aierbe S.L.

The archaeological intervention uncovered several elements of archaeological interest associated with the town of Tolosa.

La construcción de nuevas viviendas en el nº 19 de la calle Nagusia motivó la actuación arqueológica en dicho solar. La propiedad se sitúa en el área central del casco histórico de la villa, limitando al sur con la Torre Andia. Corresponde a una parcela urbana rectangular de unos 188 m^2 de superficie aproximadamente, cuenta con 16,30 m de largo y 11,60 m de anchura.

Como elemento destacado en la intervención arqueológica debemos señalar el hallazgo de la cimentación de una estructura localizada en la zona sureste del solar, junto a la Torre Andia; en el resto de la parcela los depósitos documentados resultaron ser de escaso interés patrimonial.

Se trata de la base de una estructura en escuadra realizada con mampuestos de pizarra y caliza trabados con tierra. Presentaba una única hilada en sus 90 cm de anchura y 2,25 m y 5,10 m de longitud, no pudiéndose registrar en su totalidad debido a que se encontraba deteriorada en su extremo oeste. Mantenía una orientación este-oeste en su tramo más longitudinal y en la zona central arrancaba otro muro a modo de muro medianero o de partición de unos 70 cm de anchura y 1,10 m de longitud pero su estado de conservación era peor que el del resto de la estructura. Pudo registrarse la zanja de cimentación excavada en el terreno y, como dato interesante debemos de señalar que los muros perpendiculares se encontraban cortados por la cimentación de la torre.

Se desconoce la fecha de construcción de la Torre Andia, (actual nº 17 de kale Nagusia) pero es sabido que Domenjon Gonzalez de Andia, conocido como «Gipuzkoako erregea» promotor de la Hermandad de Gipuzkoa y cuya figura contribuyó al fin de las Guerras de Bandos, nació en la torre en la primera mitad del siglo XV y fue su hijo Antón González de Andia quien la reformo tras el incendio que sufrió la villa en 1503[50]. La torre Andia fue sede del Concejo cerrado, la villa adquirió la propiedad, que junto con la torre poseía «un corral y casillas adjuntas»[51] hasta que volvió a manos privadas no sin antes diversos litigios[52].

[50] Martin Ramos, A., (1993), *La construcción de Tolosa,* Coavn, Bilbao,56

[51] Martin Ramos, A., (1993), Op. Cit., p, 56

[52] Garmendia Larrañaga, J., (2007), *Domenjon Gonzalez de Andia y la villa de Tolosa,* Eusko Ikaskuntza.

Egitura Kale Nagusiko 19an.

Estructura en Nagusia, 19.

Aipatu den bezala, dokumentatutako erlazio estratigrafikoen arabera, Andia dorrearen egungo iparraldeko fatxadak ebaki egiten zituen egituraren zati perpendikularrak. Horregatik, Antón González de Andiak dorrea berreraiki baino lehenagoko eraikin baten aurrean gaude, hau da, XVI. mendea baino lehenagoko egitura baten aurrean, baina ezin dugu zehaztu zein izaera izango zuen.

1524an, Errege Probisio batek baimena eman zion hiribilduari dorreari iparraldean53 atxikita alondegi bat eraikitzeko. Pablo Gorosabelen arabera, mintzagai dugun orube honetan egongo zen alondiga hori, baina ez da aurkitu harekin lotutako elementu arkeologikorik.

Como se ha mencionado dadas las relaciones estratigráficas documentadas, los tramos perpendiculares de la estructura se encontraban cortados por la actual fachada norte de la torre de Andia, por ello determinamos que estamos frente a una edificación anterior a la reconstrucción de la torre por parte de Anton Gonzalez de Andia, es decir una estructura anterior al siglo XVI, pero sin poder establecer cuál sería su naturaleza.

En 1524 una Real Provisión autoriza a la villa a establecer una alhóndiga al contacto de la torre por su lado norte[53], que según Pablo Gorosabel se situaría en el solar que nos ocupa, pero no se ha encontrado ningún elemento arqueológico relacionado con la misma.

Z. Galan Zumeta

[53] Gorosabel P., (1853), *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa,:«Esta alhóndiga parece se ejecutó al contacto de la torre de Domenjon González de Andia por la parte del norte en solar perteneciente a esta misma torre; y así es que la casa que después se fabricó en dicho sitio se le ha denominado vulgarmente en vascuence Azoquezarra, o sea alhóndiga vieja»*, 341. or.

[53] Gorosabel P., (1853), *Bosquejo de las antigüedades, gobierno, administración y otras cosas notables de la villa de Tolosa*,: «*Esta alhóndiga parece se ejecutó al contacto de la torre de Domenjon González de Andia por la parte del norte en solar perteneciente a esta misma torre; y así es que la casa que después se fabricó en dicho sitio se le ha denominado vulgarmente en vascuence Azoquezarra, o sea alhóndiga vieja»*, p 341.

C.30.2. UDAL BARRUTIA / TÉRMINO MUNICIPAL

C.30.2.1. **Altzustaberriko tumuluak**

Zuzendaritza: Javier Prieto
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia

Prompted by the possible existence of a series of man-made burial mounds in the vicinity of Altzustaberri farmhouse, archaeological sondages and soil pits were dug, with no results of interest being found.

X. Agirrek Altzustaberri baserritik hurbil tumulu batzuk daudela jakinarazi ondoren, eta kontuan izanik Iramendin aurkitutako beste batzuetatik hurbil daudela eta haiekin loturik egon daitezkeela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkeologia Zerbitzuak ikerketa proiektu bat egiteko eskatu zigun.

Altzustaberri baserriko lurretan, 315 metro iparraldera, zelaigune bat dago goragunearen iparraldeko hegalean, eta hantxe dago baserria. Aipatutako zelaigune horretan badirudi gune bat dagoela iparraldetik eta hegoaldetik ezponda batek mugatzen duena. Parapeto antzeko bat ere ikusten da han, eta guztiek barruti bat iradokitzen dute, eta haren barruan daude tontorrak. Tamaina txikikoak dira, gehienak bi metro inguruko diametrokoak (bat 5 metrokoa) eta gehienez metro erdiko altuerakoak. Batzuetan harriak ageri dira.

Egitura horien interes arkeologikoa baieztatzeko, tamaina desberdinetako 3 zundaketa egin ditugu: 2 tumulu handienetan eta beste bat parapetoa izan daitekeenaren zati batean, baina ez dugu material arkeologikorik eta jatorri antropikoko egiturarik aurkitu. Bestalde, iparraldean dagoen ezpondaren zati bat garbitu dugu eta harri naturalaren azaleramendua dela baieztatu dugu.

Egindako lanei esker, baieztatu ahal izan da tontorrak eta ezpondak inolako interes arkeologikorik gabeko egiturak direla.

C.30.2.1. **Túmulos de Altzustaberri**

Dirección: Javier Prieto
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

Tras el aviso dado por X. Agirre sobre la existencia cerca del caserío Altzustaberri de unos túmulos, y atendiendo a que estas estructuras se encuentran próximas a otras identificadas en Iramendi con las que podrían guardar relación, el servicio de Arqueología de la Diputación Foral de Gipuzkoa nos solicitó la realización de un proyecto de investigación.

En los terrenos del caserío Altzustaberri, a 315 metros al norte, existe un rellano en la ladera norte de la elevación donde se sitúa el caserío. En el citado rellano parece existir un espacio delimitado por un talud al norte y al sur, donde también parece observarse una especie de parapeto, sugiriendo todos ellos un recinto, dentro del cual se ubican los abultamientos. Estos son de pequeño tamaño, generalmente de un par de metros de diámetro (uno de 5 metros) y una altura máxima de medio metro. En algunos parecen observarse piedras.

Para confirmar el interés arqueológico de estas estructuras se han realizado 3 sondeos de diferentes tamaños; 2 en los túmulos más grandes y otro en un tramo de posible parapeto, sin encontrar material arqueológico ni estructuras de origen antrópico. Por otro lado, se ha limpiado parte del talud situado al norte, confirmando que se trata de un afloramiento de roca natural.

Los trabajos realizados han permitido confirmar que los abultamientos y los taludes son estructuras sin interés arqueológico.

M. Ceberio; J. Prieto

C.31. ENIRIO-ARALAR ELKARTEA / UNIÓN ENIRIO-ARALAR

C.31.1. **Aralar mendialdea: Ondarre eta Beaskin**

Zuzendaria J. A. Mujika Alustiza
Dirulaguntza: Gipuzkoako Foru Aldundia

Over recent years, we have continued our research in Aralar, focusing this year on a medieval hut in Onarre and a rectangular structure in Beaskin, where we had previously dug a surface sondage. The second structure is very similar to another structure located on the same hill.

2020ko ekinaldian, Aralarko jarduera arkeologikoak aurrera eraman ahal izateko baldintza bereziak izan ditugu pandemia dela eta. Horregatik, aldi be-

C.31.1. **Sierra de Aralar: Ondarre y Beaskin**

Dirección: J.A. Mujika Alustiza
Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa

En la campaña de 2020 hemos tenido condiciones especiales para poder llevar a cabo las intervenciones arqueológicas de Aralar debido a la pandemia.

rean, bi gunetan lana egitea erabaki genuen arazoak saihesteko. Jarduerak, Ondarre eta Beaskin inguruan egin dira, uztaileko azken hiru astetan eta lan hauetan, UPV/EHU-ko hamabost bat ikasleen eta Munibe Taldeko kideen laguntza izan dugu. Azterketarako UPV/EHU Historiaurreko Ikerketa Taldearen (IT-1223-19) laguntza izan du.

Ondarreko harantxoan hainbat egitura aurkitu eta indusi dira, zehazki Aitzin Brontze-Aroko harkutxa bat eta Azken Brontze-Aroko hiru baratze edo harrespil. Aurtengo jarduera Ondarre IV egituran 2015eko miaketen jarraipena da. Mugatutako 88 m^2-tik 27 m^2 indusi dira, gainontzekoak lekuko gisa utziz. Lan-eremuan, batez beste, 30-35 cm jaitsi dira, Ondarreko terrazaren sapaira iritsitakoan geldiaraziz. Estratigrafia oso xumea du: I.- Goiko geruza, humusak eratzen duena. II.- Hogeita bost bat zentimetroko lodiera duen kolore nabarreko geruza buztintsu-lohitsua, hareharri koxkor bakar batzuk eta bioturbazio aztarna ugari dituena. III.- Terraza.

Laukitu den eremuan gune ezberdinak mugatu ahal izan dira.

- Forma obalatu luzekara duen oroi harriztatu irregular eta gorabeheratsu bat mugatu ahal izan da. Harri koskorrak, ondoko errekatxotik hartuak, neurriz nahiko kaxkarrak (10-15 cm ingurukoak) dira, eta batzuk mugituta eta sakabanatuta daude. Bertako eta inguru hurbileneko jalkina ilunagoa da, materia organikoaren eraginez. Erdi aldean, karaitzezko harri koskor bakar batzuk ere badaude lerrokatuta, agian txabolaren estalkiko goi-haga tinkatzeko jarritako habeak eusteko.

- Beste gune batean, hareharrizko harri koskor-metaketa trinko bat bereizi zen, formaz ia «karratua» eta horietako batzuk erabil-arrastoekin.

- Gainera, 8-9 N laukian, bertikalki ezarritako bi harri koskor zeuden, bat kararrizkoa, piramide moztu forma duena, eta 22 X 15 (alt.) X 13 (lod.) cm-koa, eta bigarren bat hareharrizkoa, alderantziz jarritako piramide baten forma duena eta 35 (L) X 20 (Z) X 15 (lod.) cm-koa. Bi harri bakar hauen funtzioa ez ezaguna zaigu, agian hausterretza gisa erabilitakoak izan daitezkeela diogu.

Aire zabaleko txabola-hondo baten aurrean gaude, nahiz eta aztarna arkeologikoen urritasunak ez duen laguntzen bere ezaugarriak zehazten. Hain hedadura «zabalean» egitura xumeak aurkitu izanak, pentsarazten digu inguru horretan egin ziren jarduera ezberdinen zantzuak direla. Ez da bereiztu ahal izan sutondorik, hobirik edota industria edo tresna konzentraziorik. Fauna ez da kontserbatu. Aurkitutako aztarnak (ikatzak, zeramikak, suharriak eta burdin-zati bat) sakabanatuta agertu dira. Egitura, kronologikoki, erradiokarbono datazioei esker Erdi-Aroan kokatzen dela dakigu, eta jasotako suharrizko tresna bat (kronologikoki adierazgarria izan zitekeena) uste dugu txabolaren estalkia egiteko erabilitako zohien zuztarretan iritsi zitekeela, edota abeltzainek bertan egindako lur-mugimenduen ondorioz.

Por eso, decidimos trabajar en dos zonas al mismo tiempo para evitar problemas. Las intervenciones se han llevado a cabo en los alrededores de Ondarre y Beaskin, durante las tres últimas semanas del mes de julio y en estos trabajos se ha contado con la colaboración de unos quince alumnos y alumnas de la UPV/EHU y miembros del Grupo Munibe. El estudio ha contado con la colaboración del Grupo de Investigación Prehistórica de la UPV/EHU (IT-1223-19).

En el pequeño valle de Ondarre se han localizado y excavado diversas estructuras, concretamente una cista de la Edad del Bronce Antiguo y tres crómlechs del Bronce Final. La intervención de este año es continuación de las prospecciones realizadas en 2015 en la estructura Ondarre IV. De los 88 m^2 delimitados se han excavado 27 m^2, dejando el resto como testigo. En la zona de trabajo se ha descendido una media de 30-35 cm, parando al llegar a techo de la terraza de Ondarre. Su estratigrafía es muy sencilla: I.- Capa superior formada por el humus. II.- Capa arcillolimosa de color pardo de unos veinticinco centímetros de espesor, con unas pocas areniscas y abundantes restos de bioturbación. III.- Terraza.

En el área que se ha cuadriculado se han podido delimitar diferentes zonas.

- Se ha podido delimitar un cuadriculado irregular y fluctuante con forma ovalada alargada. Los guijarros, tomados del riachuelo contiguo, son de dimensiones bastante escasas (10-15 cm aproximadamente), y algunos de ellos están movidos y dispersos. El sedimento del lugar y del entorno más cercano es más oscuro debido a la presencia de materia orgánica. En la parte central se encuentran alineados unos pocos cantos calizos, quizá para sostener las vigas colocadas para apuntalar la viga superior de la cubierta de la chabola.
- En otra zona se identificó una compacta acumulación de piedras de arenisca, de forma casi «cuadrada» y algunas de ellas con trazas de uso.
- Además, en el cuadro 8-9 N había dos cantos de piedra dispuestos verticalmente, uno de ellos de piedra caliza con forma de pirámide truncada, de 22 X 15 (alt.) X 13 (esp.) cm, y la segunda de arenisca con forma de pirámide invertida, de 35 (L) X 20 (A) X 15 (esp.) cm. Desconocemos la función que tendrían estas dos únicas piedras, quizá pueden haber sido utilizadas como mojones centricales.

Nos encontramos ante un fondo de chabola al aire libre, aunque la escasez de restos arqueológicos no ayuda a determinar sus características. El hallazgo de estructuras sencillas en una extensión «tan amplia» nos hace pensar que son indicios de las diferentes actividades que se llevaron a cabo en la zona. No se han podido identificar hogares, fosas o concentraciones de industria ni de utensilios. No se ha conservado la fauna. Los restos hallados (carbones, cerámicas, fragmentos de sílex y de hierro) han aparecido dispersos. Sabemos que la estructura, cronológicamente, se sitúa en la Edad Media gracias a las dataciones de radiocarbono, y consideramos que el utensilio de sílex recogido (que podría ser cronológicamente representativo) podía haber llegado allí en las raices de los tepes utilizados para la construcción de la cubierta de

Ondarre IVko txabola--hondo harriztatua.

Fondo de chabola empedrado de Ondarre IV.

Beaskingo gailurrean bi ehorzketa-egitura (baratze bat eta errausketadun hilarri bat) eta eurekin erlazioa duen beste egitura laukizuzen bat daude indusita. Aurten, azken honen oso antzekoa den beste baten indusketari ekin diogu. Hemen, duela lau urte, 2016ko ekinaldian, J. M. Barandiaranek tumulutxotzat hartu zuen 5 metroko diametroa duen harri-metaketa irregular batean jardun genuen lanean bere izaera argitzeko asmoz.

Lehenengo jarduera horretan, 6 X 3 m luze, eta metro bat zabal ziren bi zerrenda perpendikular ireki genituen. Hauetan zotala besterik ez zen altxatu, eta zangak zeharkatzen ziren laukian, gutxi gorabehera 1 X 1 metroko zundaketa bat egin zen bazirudielako harriren bat besterik ez zegoela. Hemen, egur-ikatz orban bat agertu zen, 20 cm-ko sakonerara. Lan hauei esker ikusi ahal izan genuen tumulu itxura zuen egitura hau, 25 bat zentimetroko altuerakoa, hareharrizko geruza hauskor edo bigun batzuen gainean eraikita zegoela.

Aurtengo ekinaldian, 6 X 4 m-ko eremua mugatu dugu, eta horietako 18 indusi, egitura eratzen duten hareharrizko harri koskorrak edo bertako paleozorua azaleratu arte. Egitura zeharo desitxuratuta dago, harri koskorrak zartatuta daudelako noranzko guztietan, ondoko harrespileko lekukoekin gertatzen zen antzera. Erdi aldean, nahiko garbi mugatuta, 1,60 X 1 m-ko hutsune bat bereizten da eta bertan aurreko ekinaldikoaren jarraipena zen ikatz-konzentrazio nabarmen bat. Barne eremu honetan ez da bestelako aztarna arkeologikorik aurkitu, baina bai errekarri bat eta leuntzaile/zorroztarri bat egituraren kanpo aldeko mugan. Egituratik kanpora, baratzerantz edo harrespilerantz ikusten ditugun harriengatik ez dugu baztertzen luzapenen bat edo beste egitura txiki bat egotea.

Azkenik, duela urte batzuk hasitako beste jardueretako bat ere bukatu dugu, Giorgio Studerren zuzendaritzapean, Naparbide zutarria altxatzea.

la chabola, o bien debido a los movimientos de tierra realizados en ella por los ganaderos.

En la cima de Beaskin se han excavado dos estructuras funerarias (un crómlech y una estela con incineración) y otra estructura rectangular relacionada con ellas. Este año hemos iniciado la excavación de otra muy similar a esta última. En este lugar, hace cuatro años, en la campaña de 2016, trabajamos para aclarar su naturaleza, una acumulación irregular de piedras de 5 metros de diámetro que J. M. Barandiaran consideró como un túmulo.

En esta primera intervención se abrieron dos bandas perpendiculares de 6 X 3 m de longitud por un metro de ancho. En ellas sólo se levantó el tepe y en el cuadro que atravesaban las zanjas se realizó un sondeo de aproximadamente 1 X 1 metro, ya que parecía que no había más que alguna piedra. Allí apareció una mancha de carbón vegetal a 20 cm de profundidad. Estos trabajos nos permitieron observar que esta estructura en forma de túmulo, de unos 25 centímetros de altura, estaba construida sobre unas frágiles o blandas capas de arenisca.

En la presente campaña se ha delimitado un área de 6 X 4 m, de los cuales 18 se han excavado hasta que afloran los bloques de arenisca que forman el paleosuelo. La estructura está totalmente desfigurada, ya que las piedras están agrietadas en todos los sentidos, al igual que ocurría con los testigos del crómlech contiguo. En la zona central, delimitada de forma bastante nítida, se distingue un hueco de 1,6 X 1 m. en el que existe una notable concentración de carbón que era continuación de la de la campaña anterior. En esta zona interior no se han encontrado otros restos arqueológicos, pero sí un canto rodado y un alisador/afilador en el límite exterior de la estructura. Por las piedras que vemos fuera de la estructura, hacia el crómlech, no descartamos que haya alguna prolongación u otra pequeña estructura.

Por último, también hemos finalizado otra de las actividades iniciadas hace años, bajo la dirección de Giorgio Studer, levantar el menhir de Naparbide.

J. Alberdi; J. Mª Arruabarrena; A. Lopetegi; J. A. Mujika-Alustiza

C.32. **USURBIL**

C.32.1. **Irigain**

I. indusketa kanpaina
Zuzendaritza: Izaro Quevedo; Manu Ceberio
Finantzazioa: Usurbilgo Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.32.1. **Irigain**

I Campaña de excavación
Dirección: Izaro Quevedo; Manu Ceberio
Financiación: Ayuntamiento de Usurbil; Diputación Foral de Gipuzkoa

In 2020, the excavation of this site from the Roman imperial period, discovered in 2004, began. The results seem to indicate the existence of a habitat of a certain size, based on the large amount of ceramic materials.

2020an hasi gara indusketak egiten 2004an aurkitutako erromatarren Behe Inperioaren garaiko aztarnategi honetan. Emaitzek, itxura guztien arabera, halako habitat garrantzitsu bat egon daitekeela adierazten dute, zeramikazko material kopuru handia baitago.

2004an aurkitu zen erromatarren Behe Inperioaren garaiko aztarnategia sakon ikertzeko, eta, «Oria ibaiaren behe arroa: Andatza, Belkoain, Garate eta Zarate mendiak» ikerketa proiektuaren XII. kanpainaren barruan, induskatzeko beste eremu bat ireki-tzea erabaki da. Aztarnategiari buruzko informazioa jada argitaratu zen 2010ean, aurkikuntzaren eta zenbait materialen berri emateko (*Munibe* Antropologia-Arkeologia, 61. zk.: 243-259. or.). Azterketa egiteko, eta kontuan hartuta gaur egun oihan moduan dagoela (aurkitu zen unean lurra garbi zegoen), 1x1 metroko kata bat egin da hondakinak aurkitzeko. Kata horretan, erromatarren garaiko zeramika arrunteko eltze baten ertzaren zati bat agertu da, bai eta ikatzak eta lur errea ere. Hori dela eta, indusketa egin da leku horretan.

Hala, hasierako kata handitu da laukiz lauki, 2x3 metroko eremua ireki arte (hau da, 6 lauki guztira). 1., 2., 3., 5. eta 6. laukiak harkaitz naturala (marga) agertu arte induskatu dira, eta bi maila desberdin agertu dira: goikoa, buztin marroiz osatua (102. UE), eta behekoa, buztin horixkaz osatua (103. UE). Material gehiena, tornu geldoan egindako zeramika arrunteko eltzeen zatiak, bi geruzen arteko mugan berreskuratu dira, eta humusean eta harkaitzean bertan ere jaso dira zeramikazko zati batzuk.

Indusketa egin den aldi berean beste bi kata egin dira, lehenengoa hego-mendebaldean dago eta ez du emaitza positiborik eman, baina bigarrenean, indusketa eremuaren mendebaldean, erromatarren garaiko zeramika arrunt zati bat agertu da, eltze baten ertza.

2004az geroztik berreskuratutako material kopuru handiak eta material horren ezaugarriek (zeramikak, iltzeak, lur errea...) pentsarazten digute zurezko hainbat eraikin daudela. Horrekin guztiarekin, Irigain aztarnategia ezinbestekoa da Oria ibaiaren antzinako bokalea ezagutzeko, bai eta inguruko populazioaren ezaugarriak identifikatzeko ere.

En 2020 se ha iniciado la excavación de este yacimiento de época bajo imperial romana descubierto en 2004. Los resultados parecen señalar la existencia de un hábitat de cierta entidad, a tenor de la gran cantidad de materiales cerámicos.

Con el objetivo de investigar a fondo el yacimiento de época bajo imperial descubierto en 2004, y dentro de la XIIª campaña del proyecto de investigación «Cuenca baja del Oria: montes Andatza, Belkoain, Garate y Zarate», se ha decidido abrir una nueva zona de excavación. El yacimiento ya fue objeto de una publicación en 2010, dándo cuenta del hallazgo y de algunos de los materiales (*Munibe* Antropologia-Arkeologia, nº 61: p. 243-259). Para llevar a cabo el estudio, y teniendo en cuenta que en la actualidad se encuentra en estado selvático (en el momento del descubrimiento el terreno estaba despejado), se ha realizado una cata de 1 x 1 metros dirigida a la localización de los restos. En esta cata ha aparecido parte del borde de una olla de cerámica común de época romana, así como carbones y tierra cocida, lo que ha llevado a realizar la excavación en el lugar.

Así, la cata inicial se ha ampliado de cuadro en cuadro hasta abrir un área de 2 x 3 metros (es decir, 6 cuadros en total). Los cuadros 1, 2, 3, 5 y 6 han sido excavados hasta la aparición de la roca natural (marga), registrándose 2 niveles diferentes: el superior, conformado por arcilla marrón (UE 102) y el inferior, compuesto por arcilla amarillenta (UE 103). La mayor parte del material, consistente en fragmentos de ollas de cerámica común realizados a torno lento, se ha recuperado en el límite entre los dos estratos, habiéndose recogido también algunos fragmentos de cerámica en el humus y sobre la misma roca.

Al mismo tiempo que se ha desarrollado la excavación se han practicado dos catas más, la primera, situada al suroeste, no ha dado resultados positivos, pero en la segunda, al oeste de la zona de excavación, ha aparecido un nuevo fragmento de cerámica común romana, un borde de olla.

La importante cantidad de material recuperado desde 2004, así como las características del mismo (cerámicas, clavos, tierra cocida…) nos lleva a pensar en la existencia de varias edificaciones de madera. Con todo ello, el yacimiento de Irigain resulta imprescindible de cara a conocer la desembocadura del Oria en época antigua, así como para identificar las características del poblamiento en la zona.

I. Quevedo-Semperena; M. Ceberio Rodriguez

C.32.2. **Lertxundi baserria**

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Finantzazioa: Mirabela Mateies Iovan; Augustin Egidiu Mateies; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.32.2. **Caserío Lertxundi**

Dirección: Alfredo Moraza Barea
Financiación: Mirabela Mateies Iovan; Augustin Egidiu Mateies; Diputación Foral de Gipuzkoa

The intervention was carried out in an interesting building which preserves a large part of the old farmhouse-press. The archaeological deposit had been destroyed prior to the intervention, with no findings of interest being recorded.

Gaur egun Lertxundi baserria banatzen den hiru zatietako batean (ipar-mendebaldeko sektorea) egin dugu esku hartzea, Zubieta auzoan. Tamaina handiko eraikina da, eta XIV. mendearen amaieran eraikia zegoen jada, aztarna nagusiak XV. mendearen azken hamarkadetakoak-XVI mendearen lehen hamarkadetakoak diren arren. Baserri-dolarea zen. Garai hartakoak dira jatorrizko baserriko dolarea edo sagardoprentsa sostengatzen zuten bolumen handiko pieza bakarreko lau zutoin. Armazoi horrek oraindik ere kontserbatu ditu bere enara buztanaren itxurako lotura asko, jatorrizko beso gehienak galdu badira ere. Geroago, XVIII. mendeko lehen hamarkadetan, berritu

Intervención desarrollada en una de las tres partes en las que se divide actualmente el caserío Lertxundi (sector NO), en el barrio de Zubieta. Es una edificación de grandes proporciones que al parecer ya estaba edificada a fines del siglo XIV, si bien los principales restos datan de las últimas décadas del siglo XV-primeras del XVI- conformando un característico caserío-lagar. De esta época se conservan cuatro de sus postes enterizos de gran volumen que sustentaban el lagar o prensa de sidra del primitivo caserío, armadura que aún conserva una buena parte de sus enlaces de cola de golondrina a cara, aunque se haya perdido la mayor parte de las tornapuntas originales. Posteriormente, re-

Baserri-dolarearen egitura eramailearen ikuspegia prozesu arkeologikoan.

Perspectiva de la estructura portante del caserío-lagar durante el proceso arqueológico.

eta handitu egin zuten, gaur egun duen bolumena emanez.

Esku hartze honen bidez, eremu horretan egin diren lur mugimendu guztien kontrol arkeologikoa egin dugu (pieza bakarreko zutoinen gaur egungo harroin handien batatxeak, indartzeko zapata berriak prestatzea eta gaur egungo zolata beheratzea).

Kontserbatutako egitura eramailea ikusgarria izan arren, dokumentatutako depositu arkeologikoa oso eskasa izan zen, eta horrek zerikusia izango du, antza denez, azalera horretan aurrez egindako lur iraultzeekin, haien ondorioz jatorrizko depositua erabat suntsitu egingo baitzen.

formado y ampliado en su actual volumen ya en las primeras décadas del siglo XVIII.

La intervención ha consistido en el control arqueológico de los diversos movimientos de tierra ejecutados en este espacio (bataches de las grandes basas actuales de los postes enterizos, habilitación de las nuevas zapatas de refuerzo y rebaje de la solera actual).

A pesar de la espectacularidad de la estructura portante conservada el depósito arqueológico documentado fue de una gran pobreza, lo cual parece estar relacionado con las distintas remociones operadas en esa superficie con anterioridad que habían provocado el arrasamiento total de su posible depósito original.

M. García Dalmau; A. Moraza Barea

C.32.3. **Txangostako trikuharria. Oria ibaiaren behe arroa: Andatza, Belkoain, Garate eta Zarate mendiak**

III. kanpaina
Zuzendaritza: Izaro Quevedo
Finantzazioa: Usurbilgo Udala; Gipuzkoako Foru Aldundia

C.32.3. **Dolmen de Txangosta. Cuenca baja del Oria: montes Andatza, Belkoain, Garate y Zarate**

III Campaña
Dirección: Izaro Quevedo
Financiación: Ayuntamiento de Usurbil; Diputación Foral de Gipuzkoa

Archaeological intervention on a structure known since ancient times in a place known as Txangosta. We were able to confirm that the structure is a dolmen whose chamber was destroyed during a raid, although remains of the 13 metre-diameter mound still remain.

2004an, inguruan egin genituen ikerketen testuinguruan, egitura interesgarri bat identifikatu genuen Txangosta edo Oiardo izeneko eremuan. 2018an eta 2019an zundaketa arkeologikoa egin genuen, eta baieztatu genuen trikuharria zela. Emaitzetatik abiatuta, pentsatu genuen ikerketa sakon bat egin behar zela zituen ezaugarriak eta kronologia ezagutzeko, eta, ondoren, beharreko babes eta hedapen neurriak planteatzeko ordura arte ezezaguna zen egitura hari begira.

2020an, «*Oria ibaiaren behe arroa: Andatza, Belkoain, Garate eta Zarate mendiak*» izeneko ikerketa proiektuaren XIII. kanpainaren barruan, helburua izan da Txangostako trikuharriaren indusketa erabat amaitzea. Horretarako, 2019an irekitako eremuan jarraitu dugu lanean. Hilobi gabera izan zenaren mugak zehazteko eta xehetasunez aztertu ahal izateko, hura induskatu dugu, eta hura kokatu zen eremuan zeuden blokeak eta lauzak dokumentatu genituen prozesu horretan.

Ikerketa prozesuan, hainbat material arkeologiko berreskuratu ditugu, hala nola suharri zatiak, suharri xafla bat, errea, eta harri kristal zatiak. Baina guztien gainetik lepokoaren ale bat nabarmendu behar da. 4 zentimetroko luzera eta 3 zentimetro zabalera ditu gehienez. Kono formako bi zulo ditu, sekzio zirkularreko hodi baten bidez lotzen direnak.

En 2004, en el contexto de nuestras investigaciones en el entorno, identificamos una estructura de interés en la zona conocida como Txangosta u Oiardo. En 2018 y 2019 realizamos un sondeo arqueológico, confirmando que se trataba de un dolmen. A partir de los resultados entendimos que era necesaria una investigación en profundidad de cara a conocer sus características y cronología, para posteriormente plantear las correspondientes medidas de protección y difusión para una estructura desconocida hasta ese momento.

En 2020, y dentro de la XIIª campaña del proyecto de investigación «*Cuenca baja del Oria: montes Andatza, Belkoain, Garate y Zarate*», el objetivo ha sido terminar totalmente la excavación del dolmen de Txangosta. Para ello, se ha continuado interviniendo en el área abierta en 2019. De cara a determinar los límites de los que fue la cámara sepulcral y poder estudiarla con detalle, se ha incidido en su excavación, documentándose en el proceso los diferentes bloques y losas localizados en el área donde se ubicó.

En el proceso de investigación, se han recuperado diversos materiales arqueológicos, como fragmentos de sílex, una lámina de sílex quemada y trozos de cristal de roca. Pero por encima de todos cabe destacar una cuenta de collar. Presenta 4 centímetros de largo y 3 centímetros de ancho máximo. Tiene dos orificios de forma cónica que se unen a través de un conducto de sección circular.

Ganberan egindako esku hartzean bi maila arkeologiko dokumentatu ditugu funtsean: 05. UE ganbera suntsitu ondoren nahasia gelditukо zen lurrak osatzen du; maila horren azpian 06. UE dago, lur natural gorrixka du eta lurrezko berezko hareharriekin lotuta dago. Ustez ganbera zegoen eremuaren indusketaren emaitza nagusia izan da hura arpilatzeko egindako zuloaren mugak aurkitzea. Hala, zenbait bloke eta lauza identifikatu ditugu, tumuluaren jatorrizko muga zirenak eta ganbera osatzen zuten lauzak haren presiotik partzialki babesten zituztenak.

Laburbilduz, egindako lanen arabera, baieztatu daiteke trikuharri bat dagoela Txangostan/Oiardon. Hura arpilatu egin zuten une ezezagun batean eta espoliatu zutenean aterako zituzten ganberako harlauzak, eta, une horretan edo geroagoko beste fase batean, batzuk zutik jarriko zituzten, agian eraikin txiki batekin lotutako itxitura jartzeko. Itxitura horren harrizko zenbait ilara kontserbatu dira, izkina bat osatzen dutenak. Historiaurreko monumentuaren tumulutik ere harriak atera zituzten prozesu horretako uneren batean.

Ganberaren kokalekuaz gain, tumulua ere identifikatu dugu, 10 bat metroko diametrokoa, harkaitz azaleratze baten gainean kokatua eta harri eta lur geruzez osatua.

Andatzako mendigunearen iparraldeko isurialdean trikuharri hau aurkitu izana aurkikuntza interesgarria da, monumentu megalitikoak, orain arte, honen hegoaldean eta ekialdean bakarrik ezagutzen baitziren. Gainera, eremu horretan giza ezarleku bat egoteko aukera iradokitzen du, Oria bailarako sektore horrek eskaintzen dituen baliabideak eta, bereziki, ibarrak aprobetxatuz.

Durante la intervención en la cámara se han documentado fundamentalmente dos niveles arqueológicos: la UE 05 está conformada por la tierra que debió quedar revuelta tras la destrucción de la cámara; bajo este nivel se localiza la UE 06, un nivel de tierra natural rojiza asociado a las areniscas propias del terreno. La excavación del área donde presumiblemente se localizaba la cámara ha dado como mayor resultado la localización de los límites del hoyo de saqueo de la misma, identificándose varios bloques y lajas que servían de límite original del túmulo y protegían parcialmente de la presión del mismo las losas que conformaban la cámara.

Ustezko 5. Eremu Arkeologikoan mugatutako miaketa lanetan, galtzada zahar bat aurkitu genuen, Goientziagirre eta Goientziazpikoa baserriak (Abadiño) lotzen zituena. Landare estalkiak ezkutatzen zuen galtzadaren zorua, baina dokumentazio prozesuan haren trazadura definitu ahal izan genuen. Bideak, gutxi gorabehera, 277 metroko luzera zuen, eta 130 metro lineal eskuz garbitu genituen, egikaritze proiektuaren arabera, obrek ukituko zituztenak, hain zuzen ere. Garbitu ondoren, arkeologikoki eta topografikoki dokumentatu genuen. 1,20 m-ko zabalerako bidea zen, hareharrizko bloke handiz osatua, harriak trazaduraren alboetan jarriak, eta harri txikiagoez eta lurrez betea zuen zoladuraren erdiko aldea. Garbitutako trazadura osoan (Goientziagirre baserritik hurbilen dagoen aldean) ez genuen dokumentatu eraikuntza faserik edo konponketa puntualik. Goientziagirre baserriaren fatxada nagusiaren parean harriz osatutako eremu zabalago bat aurkitu genuen, bidea baserriko sarrerarekin lotzen zuena. Lurraren azaleko betegarrian zuzenean bermatua zegoen bidea.

Bide hori datatu eta zituen ezaugarriak hobeto ezagutzeko asmoz, bi zundaketa egin genituen, bidearen trazatuarekiko perpendikularrak, metro bateko zabalerakoak gutxi gorabehera. Aurkitutako ebidentzien arabera, esan daiteke XIX. mendearen amaieran utzi zitzaiola erabiltzeari. Oinezkoentzat izateaz gain, gurdiak igarotzeko ere erabiltzen zen, zundaketak egitean dokumentatutako betegarrietan hainbat idi ferra agertu baitziren. Zoritxarrez, ezin izan genuen zehaztu noiz eraiki zuten galtzada, baina baserrien jatorriaren kronologiari erreparatzen badiogu, Goientziagirre kasuan XV. mendearen amaierakoa da edo XVI. mendearen hasierakoa (ikusi Goientziagirre baserriari buruzko artikulua, argitalpen honetan bertan, haren azterketa arkeologikoaren emaitzak ezagutzeko), pentsa dezakegu garai hartarako izango zela baserrien artean komunikazio bide bat. Alde horretatik, hurbil dagoen Mendiolako galtzadak, Abadiñoko udalerrian hura ere, antzeko ezaugarriak ditu eta Erdi Arotik dokumentatua dago[54].

Azken balorazioa

Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Linearen Plataformaren trazaduraren zati baten tamainako proiektua gauzatzeak aukera ematen du elementu arkeologiko ezagunekin nahiz berriekin lotutako informazio ugari erregistratu eta dokumentatzeko. Proiektu arkeologiko egokia egitea eta obrekin lotutako eragile guztiekin koordinatzea funtsezkoa izan zen ukitutako elementu guztiak behar bezala aztertzeko eta dokumentatzeko, kasu honetan Atxondotik Abadiñora doan tartean.

[54] Basterretxea, A. «Nuevos restos de calzadas anteriores al s. XVI en el Duranguesado: construcción y trazado». *Kobie* (Serie Paleoantropología), Bilbo. XX. zk., 1992/93.

Calzada entre los caseríos Goientziagirre y Goientziazpikoa

Durante las labores de prospección del área delimitada de la Zona de Presunción nº 5, se localizó una antigua calzada que unía los caseríos Goientziagirre y Goientziazpikoa (Abadiño). El firme de la calzada se encontraba oculto por la cubierta vegetal, aunque en el proceso de documentación se pudo definir su trazado. De los 277 metros de longitud que presentaba aproximadamente el camino, se limpiaron de forma manual 130 m lineales que, según el proyecto de ejecución, iban a ser afectados por las obras. Una vez limpio, fue documentado arqueológica y topográficamente. Se trataba de un camino de 1,20 m de anchura formado por grandes bloques de arenisca colocados en los laterales del trazado, con piedras de menor tamaño y tierra rellenando la parte central del firme. En todo el trazado limpio (situado en la zona más cercana al caserío Goientziagirre) no se documentaron fases constructivas o arreglos puntuales. Frente a la fachada principal del caserío Goientziagirre se localizó una zona empedrada más amplia, que unía el camino con la entrada al caserío. El camino se apoyaba directamente sobre el relleno superficial del terreno.

Con el objetivo de datar esta vía y conocer mejor sus características se ejecutaron dos sondeos, perpendiculares a su trazado, de una anchura aproximada de un metro. Con las evidencias recogidas se puede afirmar que este camino fue abandonado hacia finales del siglo XIX; además de ser peatonal se utilizaba para el tránsito de carros, ya que aparecieron varias herraduras de buey en los rellenos documentados en la ejecución de los sondeos. Desafortunadamente no pudimos determinar el momento de construcción de la calzada, pero teniendo en cuenta la cronología del origen de los caseríos, que en el caso de Goientziagirre se remonta a finales del siglo XV o comienzos del siglo XVI (remitimos al artículo sobre el caserío Goientziagirre, en esta misma publicación, para conocer los resultados de su estudio arqueológico), podemos suponer que para estas fechas debió existir una vía de comunicación entre los caseríos. En este sentido, la cercana calzada de Mendiola, situada también en el municipio de Abadiño, comparte características similares y su existencia se documenta desde la Edad Media[54].

Valoración final

La ejecución de un proyecto de la magnitud de un tramo del trazado de la Plataforma de la Línea de Alta Velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastián, permite el registro y documentación de una gran cantidad de información relacionada con elementos arqueológicos tanto conocidos como nuevos. La ejecución de un proyecto arqueológico adecuado y la coordinación con todos los agentes integrantes de las obras, fue fundamental para conseguir el correcto estudio y documentación de todos los elementos que en este caso se vieron afectados en el tramo de Atxondo a Abadiño.

[54] Basterretxea, A. «Nuevos restos de calzadas anteriores al s. XVI en el Duranguesado: construcción y trazado». *Kobie* (Serie Paleoantropología), Bilbao. Nº XX, 1992/93.

Artikulu honetan azaldutakoaz gain, argitalpen honetan bertan agertzen diren beste artikulu batzuetara ere jo behar dugu, Mendilibar-Artzeaga, Goientziagirre eta Bolunbizkar baserrien azterketari buruzkoak, horiek ere AHTren obren testuinguru berean egindakoak eta, duten garrantziagatik, aparteko kontakizunak merezi dituztenak.

Además de lo expuesto en este artículo, debemos remitir a los artículos incluidos en esta misma publicación, referentes al estudio de los caseríos Mendilibar-Artzeaga, Goientziagirre y Bolunbizkar, realizados en el mismo contexto de obras de TAV y que por su magnitud merecen referencias aparte.

L. Sánchez Zufiaurre; B. Renedo Villarroya

D.1.2. **Arrasate-Elorrio-Bergara tartea. 2. sektorea (Bizkaia / Gipuzkoa)**

Zuzendaritza: Javier Niso Lorenzo
Finantzazioa: UTE Sector 2

D.1.2. **Tramo Arrasate-Elorrio-Bergara. Sector 2 (Bizkaia / Gipuzkoa)**

Dirección: Javier Niso Lorenzo
Financiación: UTE Sector 2

Intervention carried out to mitigate the consequences for any potential archaeological heritage elements that may still exist in the area affected by the construction of a platform for the Vitoria-Bilbao-San Sebastián High-Speed Railway. The results were negative, with the exception of the discovery of a cave in Karraskain, in which fauna remains from the Quaternary period were found.

Sarrera

Orain idatzi den testu honekin bukatutzat emango da jarduera arkeologiko bat, hainbat pertsonek aldi desberdinetan garatu dutena, eta izendatzaile komun gisa dute gaur egun 2. sektorea deitutakoan egin izana. Karraskaingo hegoaldetik hasten da zati hau, trazadura bitan banatzen den eremuan, eta ardatzetako batek Elorriorantz jarraitzen du, eta bestea Bergararantz.

Garai hartako proiektuaren arabera ukituriko azaleran lehen miaketa lanak egin zirenetik; Álvaro Arrizabalaga irakasleak zuzendu zituen lan haiek jada urrun dagoen 2004. urtean, urte asko igaro dira eta hainbat esku hartze egin dira Kobate ibaiaren inguruetan, proiektatutako zenbait lanek eraginda[55]. Horren guztiaren ondorioz, gure lanak hastean, nahiko aurreratua zegoen obra. Arrasate-Elorrio ardatza egina zegoen jada, tunel bat bazegoen Karraskainen, bidezubi bat Kobaten eta tunel bat Udalaitzen. Azken batean, lekuaren irudiak une hartan ez zuen zerikusi handirik eraikuntza proiektu handi hau hasi aurretik zuenarekin.

Obra berri honek Bergarara doan ardatza (Arrasate-Bergara ardatza) egin behar zuen, eta horretarako, honako hauek egin behar ziren: bi tunel Karraskainen (Karraskain ekialdea eta Karraskain mendebaldea), bi biaduktu Kobate errekaren gaineko desnibela gainditzeko eta bi tunel Udalaitzen (Udalaitz ekialdea eta Udalaitz mendebaldea). Proiektu honen xede zen za-

[55] Arrizabalaga, A. (2006): «Gasteiz-Bilbo-Donostia Abiadura Handiko Burdinbidea. Lezetxikiko saihesbidea (Elorrio/Arrasate» *Arkeoikuska 2005*, Vitoria-Gasteiz, 485-486. or.

Tellería E. (2012): «Arrasate-Elorrio zatia (Bizkaia-Gipuzkoa) *Arkeoikuska 2011*, Vitoria-Gasteiz, 452-453 or..

Loza, M. y Niso, J. (2017):"Mondragón-Bergara zatia, Kobate sektorea (Gipuzkoa) *Arkeoikuska 2016*, Vitoria-Gasteiz, 438. or.

Introducción

Con el texto que ahora se redacta se da por finalizada una actuación arqueológica que ha sido desarrollada por distintas personas en distintos periodos de tiempo y que tienen como denominador común el haberse llevado a cabo en el actualmente denominado Sector 2. Tramo que tiene su inicio desde la parte sur de Karraskain, zona donde se desdobla el trazado, continuando uno de los ejes hacia Elorrio, y el otro hacia Bergara.

Desde los primeros trabajos de prospección dirigidos por el profesor Álvaro Arrizabalaga en el ya lejano 2004 en la superficie afectada según el proyecto constructivo de entonces, han transcurrido muchos años en los que en el entorno del río Kobate se han ido sucedido distintas intervenciones motivadas por diversas obras proyectadas[55]. Todo ello supuso que al comenzar nuestros trabajos la obra ya estuviese bastante avanzada. El eje Mondragón-Elorrio ya se encontraba ejecutado, habiendo ya un túnel en Karraskain, un viaducto en Kobate y túnel en Udalaitz. En definitiva, la imagen del lugar en ese momento poco tenía que ver con la previa al inicio de este gran proyecto constructivo.

Esta nueva obra iba a realizar el eje que se dirige a Bergara (Eje Mondragón-Bergara), para el cual eran necesarios dos tuneles en Karraskain (Karraskain este y Karraskain oeste), dos viaductos que salven el desnivel sobre el arroyo Kobate y dos tuneles en Udalaitz (Udalaitz este y Udalaitz oeste). El final del tramo objeto de este proyecto se encontraba a unos 5 km y

[55] Arrizabalaga, A. (2006): «Línea de alta velocidad Vitoria-Bilbao-San Sebastian. Variante de Lezetxiki (Elorrio/Arrasate» en *Arkeoikuska 2005*, Vitoria-Gasteiz, p. 485-486.

Tellería E. (2012): «Tramo Arrasate-Elorrio (Bizkaia-Gipuzkoa) en *Arkeoikuska 2011*, Vitoria-Gasteiz, p. 452-453.

Loza, M. y Niso, J. (2017):"Tramo Mondragón-Bergara, Sector Kobate (Gipuzkoa) en *Arkeoikuska 2016*, Vitoria-Gasteiz, p. 438.

tiaren amaiera 5 km eta 600 m inguruan zegoen, Bergararantz, eta mendiaren barruan zegoen, Udalaitz gailurra eta Elorrio eta Arrasate lotzen dituen errepidea gaindituta, Kanpazar mendatetik, BI-P-1225, Angiozar herritik 2 km eskasera.

Gipuzkoako eta Bizkaiko probintziei eragiten zien zati horrek. Gipuzkoan, zatiaren hasieran zuen eragina azaleran, hegoaldean, eta gainerakoa mendiaren barnetik zihoan. Bizkaian, azaleko eragina zuen Udalaitzen iparraldean, Kanpazar mendatearen inguruan, Mirikixetako zabortegia kokatu behar zen tokian.

Gipuzkoako aldean, Lezetxikiko historiaurreko aztarnategitik oso gertu zegoen trazadura, eta, horrenbestez, plan arkeologiko bat egin behar zen azpiegitura berriaren okupazio zerrendari, sarbideei eta instalazio osagarriak, mailegu-eremuak eta zabortegiak ezartzeko azalerei jarraipena egiteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak Adif enpresari bidali zizkion bi jakinarazpenen arabera (12/10/19 eta 13/03/13), Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sare Berriko Arrasate-Bergara zatian, Kobate sektoreko ondare arkeologikoan eta historikoan eragindako kalteak direla-eta aurkeztutako txostenen ondoren, obraren garapenak ondare interes handiagoko hainbat puntutan eragingo zuen, eta haietan arreta handiagoa jarri behar zen.

1. Karraskain iparraldeko sarrerak eta Karraskaingo gailurrean zegoen sarbide berria (CAO-MBE-0.8).
2. Karraskain iparraldeko eta Udalaitz hegoaldeko tunelen lehen 50 metroak, leherketa bakoitzaren ondoren.
3. Kobateko biaduktuen zapaten oinarriak egiteko lanak.
4. Sarbide berriak eraikitzeko lanak, lur mugimenduak eragingo baitzituzten.
5. Zabalgaineko zabortegiaren eremua, ingurua oso aldatuta bazegoen ere.

Bizkaiko aldean, ondarearen ikuspegitik begiratuta, obrak ez zion zuzenean eragingo babestutako elementu arkeologiko bakar bati ere. Inguruetan, Elorrioko 32. Ustezko Eremu Arkeologikoa besterik ez zegoen, Santa Luzia ermita zehatz esateko, baina ermita hori nahiko urruti zegoen Mirikixetako etorkizuneko zabortegitik, haren mendebaldean, Artadi mendiaren gailurrean. Nolanahi ere, orografia konplexua zuen eremua zen, eta ez zen egokia giza kokaleku iraunkor baterako.

Hala ere, eta Gipuzkoan gertatzen zen bezala, gerta zitekeen ezagutzen ez zen leize edo osinen bat egotea eta obrek agerian uztea. Horregatik, arreta handiagoa jarri behar zitzaien ondare interes handiena zuten zenbait punturi, haietan aztarna arkeologikoak ager baitzitezkeen:

1. Tarteko eraso galeriako lehen 50 metroak.
2. Sarbide berriak eraikitzeko, lur mugimenduak eragingo baitzituzten, eta daudenak zabaltzeko lanak (C.A.R. Mirikixeta 1 eta Mirikixeta 2).
3. Mirikixetako zabortegiaren eremua.

600 m dirección Bergara, situándose dentro de la montaña, habiendo superado la cima del Udalaitz y la carretera que une Elorrrio con Mondragón por el puerto de Kanpazar, BI-P-1225, a apenas 2 km de la localidad de Angiozar.

Dicho tramo, tenía afección tanto en la provincia de Gipuzkoa como en la de Bizkaia. En la zona guipuzcoana, tenía incidencia en la superficie en el inicio del tramo, en su parte sur, el resto ya era por el interior de la montaña. En Bizkaia, tenía afección superficial en la cara norte del Udalaitz, en la zona del puerto de Kanpazar, donde se iba a situar el vertedero de Mirikixeta.

En la parte guipuzcoana el trazado se encontraba muy cerca del yacimiento prehistórico de Lezetxiki por lo que era necesario realizar un plan de seguimiento arqueológico de la franja de ocupación de la nueva infraestructura, de los caminos de acceso y de las superficies destinadas a acoger instalaciones auxiliares, zonas de préstamos y vertederos.

Según las dos comunicaciones (19/10/12 y 13/03/13) que el Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa envió a Adif, tras los informes presentados por la afección del patrimonio arqueológico e histórico del tramo Mondragón-Bergara. Sector Kobate de la Nueva red Ferroviaria del País Vasco, el desarrollo de la obra iba a incidir en varios puntos de mayor interés patrimonial en los que había que prestar una mayor atención.

1. Los emboquilles norte de Karraskain y el nuevo camino de acceso (CAO-MBE-0.8) que estaba en la cima de Karraskain.
2. Los primeros 50 m de los túneles Karraskain norte y Udalaitz sur tras cada voladura.
3. Los trabajos de ejecución de las bases de las zapatas de los viaductos de Kobate.
4. Construcción de nuevos caminos de acceso que iban a provocar movimientos de tierra.
5. Zona del vertedero de Zabalgain, aunque la zona ya estaba muy alterada.

En la parte vizcaína, desde el punto de vista patrimonial, la obra no iba a afectar directamente a ningún elemento arqueológico protegido. En las cercanías, únicamente se encontraba la Zona de Presunción Arqueológica nº 32 de Elorrio, concretamente la Ermita de Santa Lucía, pero ésta se ubicaba bastante lejos del futuro vertedero de Mirikixeta, al oeste del mismo, en la cima del monte Artadi. En cualquier caso, se trataba de una zona con una orografía complicada, no apta para un asentamiento permanente humano.

No obstante y al igual que ocurría en la zona guipuzcoana, también cabía la posibilidad de que existiese alguna cueva o sima que no se conociera y que las obras pudiesen dejar al descubierto. Por ello había que prestar una mayor atención a varios puntos de mayor interés patrimonial en los que pudieran aparecer evidencias arqueológicas:

1. Los primeros 50 m de la galería de ataque intermedio.
2. Construcción de nuevos caminos de acceso que pudieran provocar movimientos de tierra y ampliación de los existentes (C.A.R. Mirikixeta 1 y Mirikixeta 2).
3. Zona del vertedero de Mirikixeta.

Egindako lanak eta izandako emaitzak

Lehenik eta behin, ukitutako eremu guztiak miatu genituen bai Gipuzkoan bai Bizkaian. Lan hori inolako berritasunik gabe egin zen, beste alde batetik logikoa, eremu hori guztia behin eta berriz berrikusi baitzen aurreko esku hartze arkeologikoetan. Hala, bada, oraindik egon daitekeen ondarea arriskuan jar zezaketen eraikuntza ekintzak kontrolatu besterik ez dugu egin esku hartze arkeologiko honetan.

Lerro hauetan ez dugu beharrezkotzat jo aipatutako prebentzio kontrol hori egin zen puntu guztiak garatzea. Beraz, lortutako emaitzak deskribatuko ditugu zuzenean. Haiek guztiak obraren Gipuzkoako aldean dokumentatu ziren. Kronologikoki egingo dugu errepaso hori.

Karraskain ekialdeko tunelaren sarrera prestatzean aurkitutako haitzuloa

Martxoaren 21ean, lurpeko galeria baten sarrera agertu zen Karraskain ekialdean leherketa bat egin ondoren, barrunbeak agertzeko arrisku handiena zuen eremuan, hain zuzen ere.

Egun horretan bertan bildu ziren ABEEko arduradunak eta Iterbideko arkeologo bat, une hartatik aurrera zer protokolo jarraitu behar zuten ikusteko, begi hutsez kobazulo sakona eta sabai altukoa ematen baitzuen. Hegalaren gainazaletik 25 m ingurura ageri zen, eta beherantz jarraitzen zuela ematen zuen; beraz, tunelaren trazadurarekin bat egin zezakeen. Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkeologiako arduradunari abisatzea erabaki genuen. Hark erabaki zuen espeleologo talde bati deitu behar zitzaiola leizean sar zitezen eta aztertu eta dokumentatu zezaten.

Felix Ugarte Elkarteak izan zen leizea aztertu zuen espeleologia taldea. Lehen miaketa 2019ko apirilaren 4an egin zen. Barrunbe sakona zela egiaztatu zuten. Putzu sakon batera iritsi ziren, 50 metro inguruko beheranzko maldan, eta beste egun batean langile eta taldekide gehiagorekin itzuli behar zutela erabaki zuten, azterketa osoa egiteko eta behar bezala topografiatu ahal izateko. Lehen miaketa horretan, hondakin paleontologiko batzuk berreskuratu zituzten, hartzarenak eta ahuntzarenak ziren, eta ikusi zuten sedimentazioa zegoela haitzulora sartzeko lehen metroetan.

Espeleologoek 2019ko apirilaren 8an egin zuten haitzuloaren bigarren azterketa. Ikerketa osoagoa izan zen, eta haren topografia hartu ahal izan zen, eta egiaztatu zen oso luzea zela eta bi putzu sakon zituela. Egiaztatu ahal izan zuten halaber, sarrerakoa zela depositua zituen eremua, han zulo bat baitzegoen, aipaturiko betegarriak erorarazi zituena. Horregatik, kobaren barruko segurtasuna ez zen erabatekoa.

Haitzuloaren lehenengo metroetan estratigrafia nahikoa zegoela eta aztarna paleontologiko batzuk agertu zirela ikustean, Gipuzkoako Foru Aldundiko arkeologia arduradunak, kontuan izanik Karraskaingo

Trabajos realizados y resultados obtenidos

Primeramente se efectuó la prospección de todas las zonas afectadas tanto en Gipuzkoa como en Bizkaia. Esta tarea se llevó a cabo sin ninguna novedad, algo por otro lado lógico ya que toda esta área había sido reiteradamente revisada en las intervenciones arqueológicas previas. De esta forma, la actuación arqueológica quedó reducida al control de las distintas acciones constructivas que pudieran poner en riesgo el posible patrimonio aún presente.

En estas líneas no creemos necesario desarrollar todos los puntos en los que se efectúo el mencionado control preventivo por lo que directamente vamos a pasar a describir los resultados obtenidos. Todos ellos se documentaron en la parte guipuzcoana de la obra. Este repaso se realizará de forma cronológica.

Cueva localizada durante la preparación del emboquille del túnel de Karraskain este

El día 21 de marzo apareció la entrada a una galería subterránea después de realizar una voladura en Karraskain este, la zona con mayor riesgo de aparición de cavidades.

Ese mismo día se realizó una reunión entre los responsables de la UTE y un arqueólogo de Iterbide para ver el protocolo a seguir a partir de entonces, ya que a simple vista parecía una cueva profunda y de techos altos. Aparecía a unos 25 m desde la superficie de la ladera y parecía continuar de manera descendente por lo que podría coincidir con el trazado del túnel. Se decidió avisar a la responsable de Arqueología de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que decidió que había que avisar a un equipo de espeleólogos para que se metieran en la cueva para explorarla y documentarla.

El equipo de espeleología que realizó el examen de la cueva fue Félix Ugarte Elkartea. La primera exploración fue el día 4 de abril de 2019. Comprobaron que se trataba de una cavidad profunda. Llegaron a un pozo profundo después de unos 50 m en ligera pendiente descendente y decidieron que debían volver otro día con más personal y más equipo para poder realizar una exploración completa y poder topografiarla correctamente. En esta primera exploración, recuperaron algunos restos paleontológicos que resultaron ser de oso y cabra y comprobaron que había sedimentación en los primeros metros de entrada a la cueva.

Los espeleólogos hicieron la segunda exploración de la cueva el día 8 de abril de 2019. Se trató de una investigación más completa en la que se pudo tomar su topografía, comprobando que era muy larga con dos pozos profundos. También pudieron corroborar que la zona con depósitos era la de la entrada, donde existía un socavón que había provocado la caída de los mencionados rellenos y que hacía que la seguridad dentro de la cueva no fuera total.

Al comprobar de primera mano que existía bastante estratigrafía depositada en los primeros metros de la cueva y que habían aparecido algunos restos paleontológicos, la responsable de arqueología de la

1-2. Karraskain ekialdean aurkitutako haitzuloaren irudiak; bertan, fauna kuaternarioko sedimentuak agertu ziren. 3. Leizea ixtea. 4. Trazaduraren planimetria, bertan ikusten da tunelek ez ziotela eragiten (Félix Ugarte Elkartearen planoa).

1-2. Distintas imágenes de la cueva localizada en Karraskain este en la que aparecieron sedimentos con fauna cuaternaria. 3. Cegado de esta cueva. 4. Planimetría de su trazado, en la que se observa como los túneles no le afectaban (Plano de Félix Ugarte Elkartea).

tuneleko induskatzeko lanak haitzuloaren aurretik egingo zirela pentsatuz, beharrezkotzat jo zuen deposituen zati bat kentzea eta ahalik eta hezur gehien berreskuratzea.

Horretarako, eta aurkikuntzaren inguruabar bereziak kontuan hartuta, proposatu zen depositua makina txiki batekin hondeatzea, leizearen barrualdea kuadrikulatzea eta kanpoan mahuka bat erabiltzea

Diputación Foral de Gipuzkoa, dando por hecho que las obras de excavación del túnel de Karraskain este iban a llevarse por delante la cueva, consideró necesario retirar parte de los depósitos y rescatar el mayor número de huesos posible.

Para tal objetivo y teniendo en cuenta las circunstancias especiales del hallazgo, se propuso que se excavaran los depósitos con una pequeña máquina, cuadriculando el interior de la cueva y utilizando una

buztina disolbatu ahal izateko eta, hartara, egon zitezkeen hondakinak errazago aurkitzeko. Horretarako, nahitaezkoa zen lurzoruaren kota 3 metro inguru jaistea, kota horretan baitzeuden urrutien zeuden deposituak. Asmoa zen makina bat haitzuloaren ahotik ahalik eta gehien sartzea, besoarekin eta kazoarekin kentzea haitzuloan erorita zeuden harkaitz hondakinak eta ahalik eta sakonenera iristea. Leizea eta espeleologoek egiaztatu zutena lurrean ikusi ondoren, makina sartzeko lurzoru kota jaisteko modurik onena zein zen aztertu zen.

Handik egun gutxira, UTE Sector 2 enpresak erabaki zuen makina batekin haitzulora sartzeko modu bakarra zela kaxa bat zulatzea haitzuloaren ahoaren aurrean, makina sartzeko adinako zabalerarekin eta 3 metro inguruko sakonerarekin. Leherketa egiteko aukera baztertu egin zen, behea jotzeko arrisku handia baitzegoen. Hala, apirilaren 11n hasi ziren lurra beheratzeko lanak, makinara sartzeko. Iterbide enpresako arkeologo batek kontrolatu zituen lan horiek.

Lurra beheratzean, egiaztatu genuen haitzuloaren ahoa estutu egiten zela behealdetik eta egonkortasuna kentzen ziola. Sarrerako hormetan arraildura batzuk ireki ziren, eta ezin zen 3 metro baino gehiago jaitsi. Makina sarreran eroritako haitz hondakinak kentzen joan zen, ahalik eta sakonenera iristeko, baina puntu jakin batera iritsi zen jada ezin zuen aurrera egin, eta besoa ez zen iristen estratifikaziorik handiena zegoen eremura. Eroritako harkaitz zatiak aterata, azpian zeuden sedimentu batzuk kendu genituen, eta hezur hondakin batzuk agertu ziren. Aritza Villaluenga irakaslearen arabera[56], gehienak haitzuloetako hartzarenak ziren, baina orein hezur zatiren bat ere bazegoen, haragijale baten hortza sartuta zuena aipagarriena.

Haitzuloaren hondoko deposituak makinaz ezin zirela atera egiaztatu ondoren, Aldundiko arkeologia saileko arduradunari galdetu zitzaion berriro ere, eta hark erabaki zuen orduan eskuz induskatu behar zirela.

Halatan, Iterbide S.C. enpresako arkeologoek eta UTE Sector 2 enpresako arduradunek haitzuloaren barnealdea aztertu zuten, deposituak ateratzeko modurik seguruena zein zen ikusteko. Arriskurik handiena aurreko egunetan aurkitutako zuloa zen, gero eta handiagoa ematen baitzuen. Leizearen barruan segurtasuna ez zegoenez bermatuta, erabaki zen berriro deitzea espeleologoei, lurra egiaztatzeko eta berme guztiekin lan egin ahal izateko.

Apirilaren 17an, beraz, leizearen miaketaz arduratzen zen espeleologia taldeko kideak joan ziren lekura, eta ez zuten baztertu zuloaren eremuan putzu bat izateko aukera. Ondorioz, konplikatu egin zen sedimentuak eskuz ateratzeko lana.

Beste aukera batzuen bila, espeleologoek berriki hartutako haitzuloaren topografiara jo genuen, eta

[56] Berariaz eskertu nahi diogu emandako informazioa.

manguera en el exterior para poder disolver la arcilla y así facilitar el hallazgo de los posibles restos que pudiera haber. Para ello se hacía imprescindible bajar la cota del suelo unos 3 m, que era la cota de los depósitos que se encontraban más alejados. La idea era que una máquina entrara por la boca de la cueva el máximo que pudiera y con el brazo y el cazo retirar los restos de roca desprendidos de la cueva y llegar a lo más profundo posible. Después de ver en el terreno la cueva y lo que habían comprobado los espeleólogos, se quedó en estudiar cuál era la mejor forma de bajar la cota de suelo para que pudiera entrar la máquina.

Pocos días después, desde la UTE Sector 2, se decidió que la única manera de poder acceder a la cueva con una máquina era excavar un cajón delante de la boca de la cueva con una anchura suficiente para que entrara la máquina y una profundidad de unos 3 m. Se descartó la posibilidad de la voladura porque había mucho riesgo de desplome. De esta manera, el día 11 de abril comenzaron los trabajos de rebaje del terreno para el acceso de la máquina. Un arqueólogo de Iterbide controló estos trabajos.

Al rebajar el terreno se comprobó que la boca de la cueva se iba estrechando por la parte inferior y que le iba restando estabilidad a la misma. Se abrieron algunas grietas en las paredes de la entrada y ya no se podía bajar más de los 3 m. La máquina fue retirando los restos de rocas caídas en la entrada para poder acceder lo más profundo posible, pero llegó a un punto que ya no podía y el brazo no llegaba a la zona donde existía la mayor estratificación. Extrayendo los fragmentos de roca caídos, se retiraron algunos sedimentos que había debajo y aparecieron algunos restos óseos que, según el profesor Aritza Villaluenga[56], correspondían en su mayoría a oso de las cavernas, pero también había algún fragmento de ciervo, destacando uno que tenía clavado el diente de algún carnívoro.

Al comprobar que no se iban a poder extraer con máquina los depósitos del fondo de la cueva, se volvió a consultar con la responsable de arqueología de la Diputación quien dictaminó que entonces se tenían que excavar de forma manual.

De esta manera, los arqueólogos de Iterbide S.C. y los responsables de la UTE Sector 2, estudiaron el interior de la cueva para ver cuál era la forma más segura de poder extraer los depósitos. El mayor peligro era el socavón descubierto en jornadas anteriores y que parecía que cada vez mayor. A causa de que la seguridad dentro de la cueva no estaba garantizada, se decidió llamar a los espeleólogos de nuevo para que comprobaran el terreno y así poder trabajar con plenas garantías.

El día 17 de abril, por lo tanto, acudieron los miembros del equipo de espeleología responsable de la exploración de la cueva y no descartaron que hubiera un pozo en la zona del socavón. Consecuentemente, se complicaba la extracción por métodos manuales de los sedimentos.

En busca de nuevas alternativas se acudió a la topografía de la cueva recientemente tomada por los

[56] A quien queremos agradecer expresamente la información proporcionada.

egiaztatu ahal izan genuen Karraskaingo etorkizuneko tunelak ez ziola haitzuloari eragiten, jada egindako tunelaren eta etorkizunekoaren artean zegoelako, eta, beraz, pentsatu zen aukera egokiena zela leizea ixtea eta etorkizuneko belaunaldientzat ukitu gabe uztea.

Azken batean, antzinako aztarna paleontologikoak dituen beste leize bat erregistratu eta dokumentatu ahal izan zen leku honetan, eta, zorionez, ia ukitu gabe geratuko zen hurrengo ikerketetarako. Horri dagokionez, espeleologoek proposatu zuten sistema itzulgarri eta kanpotik erraz identifikatzeko modukoarekin ixtea. Alde guztiek onartu zuten konponbide hori, eta apirilaren 23an hasi ziren haitzuloa ixteko lanak. Lan horiek Iterbide enpresako bi arkeologok kontrolatu zituzten, hondakin paleontologikoak izan zitzaketen deposituak ez zirela aldatzen egiaztatzeko eta, aldatuz gero, haiek ongi berrikusi ahal izateko. Burdinazko sare batekin itxi zen eta sarearen gainean zulatutako metalezko plakak, erraz mozteko modukoak etorkizunean sartu nahi izanez gero. Azkenik, gunita bota zen gainetik, aurrealde osoari egonkortasuna eta homogeneotasuna emateko.

Karraskain ekialdeko tunelaren aurrealdea egiteko leherketen ondoren aurkitutako beste leize batzuk

2019ko urrian, tamaina handiko bi haitzulo aurkitu ziren, eta aztertu egin behar izan ziren. Horretarako, espeleologoen taldeak parte hartu zuen berriro ere baieztatu zuten ez zegoela ebidentzia arkeologikorik ez paleontologikorik. Gainera, ikusi ahal izan zuten bigarren haitzuloak aurretik miatu izanaren aztarnak zituela ibilbide osoan. Horrek, miatutako galerien neurriekin eta haien egoerarekin batera, pentsarazi zien Lezetxiki izenez ezagutzen den barrunbeko azken galeriak izan zitezkeela. Lortutako emaitzak ikusita eta parte hartu zuten alderdi guztiek onartuta, arazorik gabe jarraitu ahal izan zen tunela egiten.

Karraskain mendebaldeko tunelaren sarrera prestatzean aurkitutako beste haitzulo batzuk

2020ko urtarrilaren 30ean, UTE Sector 2 enpresa elkarteko arduradunen abisua jaso genuen, Karraskain mendebaldean tuneleko ahoa egiteko prestatzen ari den ezpondan zulogune bat agertu zelako. Egun horretan bertan, lekura joan eta zulogunea eta ingurua aztertu genituen. Egiaztatu ahal izan genuen metro bat inguruko diametroa zuen leizea zela, barrurantz modu bertikalean egiten zuena, baina hondorantz sakonegi estutzen zen, eta ezin zen hartan sartu. Elementu geologikoak baino ezin ziren ageri, eta inolako hondakin arkeologikorik ez zegoen ez haren barruan ez inguruan zituen buztin betegarrietan. Hori zela eta, ez genuen egokitzat jo espeleologoei abisatzea, tunelaren trazadurak ez baitzion eragingo, eta, beraz, baimena eman zen obrekin jarraitzeko.

Otsailaren 4an, UTE Sector 2 enpresa elkarteko arduradunek jakinarazi ziguten beste zulogune bat espeleólogos y se pudo comprobar que el futuro túnel de Karraskain este no afectaba a la cueva, puesto que se encontraba entre el túnel ya realizado y el futuro, por lo que se propuso que la mejor opción era la de cerrar la cueva y dejarla intacta para futuras generaciones.

En definitiva, se pudo registrar y documentar una nueva cueva con restos paleontológicos antiguos en el lugar, que afortunadamente iba a queda prácticamente intacta para futuras investigaciones. A este respecto, los espeleólogos propusieron que se tapara con un sistema que fuera reversible y fácil de identificar desde fuera. Esta solución fue aceptada por todas las partes, por lo que el día 23 de abril comenzaron los trabajos de cierre de la cueva. Estos trabajos fueron controlados por dos arqueólogos de Iterbide, para corroborar que no se alteraban depósitos que pudieran tener restos paleontológicos y si lo hacían, poder revisarlos. El cierre consistió en un enrejado metálico con ferrallas y unas placas metálicas perforadas sobre el enrejado, fáciles de cortar si en un futuro se quiere acceder. Finalmente, se vertió gunita por encima para dar estabilidad y homogeneidad a todo el frontal.

Otras cuevas localizadas tras las voladuras para realizar el frente del túnel de Karraskain este

Durante el mes de octubre de 2019, se encontraron sendas cuevas de importantes dimensiones que fue necesario examinar. Para ello nuevamente se contó con el equipo de espeleólogos quienes confirmaron que en ellas no había ninguna evidencia arqueológica ni paleontológica. Además, pudieron ver que la segunda de las cuevas tenía restos de haber sido explorada con anterioridad en todo su recorrido. Esto, unido a las dimensiones de las galerías reconocidas y su situación, les hizo suponer que, con mucha probabilidad, pudiera tratarse de las galerías finales de la cavidad conocida como Lezetxiki. En vista de los resultados obtenidos y con la aprobación de todas las partes implicadas, se pudo proseguir la ejecución del túnel sin mayor problema.

Otras cuevas localizadas en la preparación del emboquille del túnel de Karraskain oeste

El día 30 de enero de 2020, recibimos un aviso de los responsables de la UTE Sector 2 por la aparición de una oquedad en el talud que se está preparando para el emboquille en Karraskain oeste. Ese mismo día, acudimos al lugar e inspeccionamos la oquedad y su entorno. Pudimos comprobar que se trataba de una sima de un metro de diámetro aproximado que profundizaba hacia el interior de forma vertical, pero que se estrechaba demasiado hacia el fondo, no teniendo acceso. Se podían observar únicamente elementos geológicos, no habiendo ningún resto arqueológico ni en su interior ni en los rellenos arcillosos que había en la zona circundante. De esta manera, no se creyó oportuno avisar a los espeleólogos debido a que el trazado del túnel no iba a afectarla, por lo que se dio permiso para la continuación de las obras.

El día 4 de febrero, los responsables de la UTE Sector 2 nos avisaron de la aparición de otra oque-

agertu zela Karraskain mendebaldean tunelaren ahoa prestatzen ari ziren ezpondan, urtarrilaren 30ean agertutakotik oso gertu, aurreko txostenean jasota dagoena. Egun horretan bertan joan ginen lekura eta zulogunea eta ingurua aztertu genituen. Barrunbea aztertu ondoren, ikusi ahal izan genuen leize hutsa zela, eta hainbat metroko garapena zuela gorantz eta beherantz, eta metro bat baino gehiagoko diametroa. Leizea inguratzen zuten buztinezko betegarri guztiak aztertu genituen, baina ez genuen inolako hondakin arkeologikorik dokumentatu.

dad en el talud que se estaba preparando para el emboquille en Karraskain oeste, muy cercana a la aparecida el día 30 de enero y que está reflejada en el anterior informe. Ese mismo día acudimos al lugar e inspeccionamos la oquedad y su entorno. Una vez inspeccionada la cavidad se pudo constatar que era una sima hueca que tenía un desarrollo de varios metros hacia arriba y hacia abajo, y más de un metro de diámetro. Se revisaron todos los rellenos de arcilla que rodeaban la sima y no se documentó ningún resto arqueológico.

M. Loza; J. Niso

D.2. BESTE BATZUK / OTROS

D.2.1. Guda-Hotsak. Gerra Zibilaren fronte egonkorra Euskal Herrian (Araba / Bizkaia / Gipuzkoa)

Zuzendaritza: Josu Santamarina Otaola
Finantzazioa: Kultura Ondarearen Zentroa. Eusko Jaurlaritza

D.2.1. Guda-Otsak. El frente estable de la Guerra Civil en el País Vasco (Álava / Bizkaia / Gipuzkoa)

Dirección: Josu Santamarina Otaola
Financiación: Centro de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco

The Guda-Otsak Project was carried out between 2019 and 2020. The aim of the project was to carry out an archaeological study of the stable front established in the Basque Country during the Spanish Civil War. It also aimed to document different remains of the conflict in an area measuring about 582 km2, located between the three provinces of the Autonomous Community of the Basque Country. Firstly, an inventory was carried out of some 213 areas in 27 municipalities containing remains of fortifications, both Republican and Francoist. Secondly, detailed studies were conducted of certain positions, with archaeological surveys in Oketa (Zigoitia) and Burbona Oriental (Zuia) and geometric documentation work in El Pico-Menoio (Ayala) and Zapola and Zapolazpia (Markina-Xemein). Finally, the study also included a comparative analysis of the militarisation, destruction and (re)construction of two villages located on this front: Legutio and Elgeta.

2019 eta 2020 bitartean eraman zen aurrera *Guda-Hotsak: Euskal Herriko Gerra Zibilaren kanpoko frontearen arkeologia-ondare azterketa* proiektua, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntzari esker. Lan hori 1936ko gerrak sortutako aztarna arkeologikoen errealitatera hurbiltzea da, zortzi hamarkada geroago eta EAEko hiru lurraldeetan banatuta dauden 27 euskal udalerritan zehar.

Azterketa eremua egituratzeko, *kanpoko frontearen* errealitate historikoa hartu da ardatz gisa. Fronte hori euskal lurraldean luzeen iraun zuen gerra frontea baino ez da; zehazki, 1936ko irailetik urrira eta 1937ko martxotik apirilera bitartean. Fronte hori Bizkaiko kostaldean hasten zen (Berriatua eta Ondarroa udalerriak) ipar-ekialdean, eta Bizkaiko probintziako mugari jarraitzen zion gutxi gorabehera, eta haren trazadurak Burgosko mugaraino jarraitzen zuen, Aiaratik mendebaldera. Lerro hori Euzkadi errepublikanoaren eta Francoren Espainiaren arteko *de facto* muga izan zen, eta *kanpoko frontea* deitu izan zaio Bilboko Burdin Hesitik bereizteko. Azken horri *barneko frontea* ere deitu izan diote noiz edo noiz, atzealdean eraikitako lerro gotortua baitzen.

Entre 2019 y 2020 se desarrolló el proyecto *Guda-Otsak: Estudio arqueológico-patrimonial del frente exterior de la Guerra Civil en el País Vasco* gracias a una subvención del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. Este trabajo es una aproximación a la realidad de los restos arqueológicos producidos por el conflicto de 1936, más de ocho décadas después y a lo largo y ancho de 27 municipios vascos repartidos por los tres territorios de la CAPV.

El área de estudio se estructura tomando la realidad histórica del *frente exterior* como eje. Este frente no es otro sino el frente de guerra que permaneció estable más tiempo en territorio vasco, concretamente, entre los meses de septiembre-octubre de 1936 y marzo-abril de 1937. Un frente que se extendía desde el litoral vizcaino (municipios de Berriatua y Ondarroa) en el noreste, seguía más o menos el límite provincial de Bizkaia y continuaba su trazado hasta el límite con Burgos por Ayala al oeste. Esta línea sirvió de frontera *de facto* entre la Euzkadi republicana y la España de Franco y ha sido llamada *frente exterior* con la intención de distinguirla del Cinturón de Hierro de Bilbao, también nombrado este último alguna vez como *frente interior* por su carácter de línea fortificada construida en retaguardia.

Hiru lan lerroren arabera antolatu da azterketa. Lehenik eta behin, kanpoko frontean edo fronte egonkorrean zehar zeuden gerra posizioen miaketa, azaleko dokumentazioa eta inbentarioa egin dira, eta kanpainako gotorlekuen hondarrak dituzten 213 gune inbentariatu dira, bai Eusko Armadarenak, bai matxinatutako indarrenak. Bigarrenik, zundaketak egin ditugu fronte horretan aldez aurretik hautatutako bi eremutan: Oketa (Zigoitia) eta Ekialdeko Burbona (Zuia), Gorbeiako Parke Naturalean. Azterketa maila hori, posizio bakoitza azterketa unitate gisa hartuta, hautatutako beste posizio batzuen dokumentazio zehatzarekin osatu da, hala nola El Pico-Menoio (Aiara) eta Zapola eta Zapolazpi (Markina-Xemein), lanaren konparazio ahalmena handitu ahal izateko. Azkenik, *Guda-Hotsak* proiektuaren barruan bi herrigune, Legutio eta Elgeta, konparatzeko azterketa txiki bat egin da, Gerra Zibilean (1936-1948) suntsitze eta (berreraikitze) prozesuek izan zuten eragina arkeologikoki dokumentatzeko asmoz.

Testuinguru historiko-geografikoa eta ikerketaren aurrekariak

Azterketa eremuak 27 udalerri hartzen ditu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, honela banatuak:

De esta forma, el estudio se organiza en base a tres líneas de trabajo. En primer lugar, la labor de prospección, documentación superficial e inventariado de posiciones de guerra a lo largo del *frente exterior* o frente estable, inventariando así 213 espacios con restos de fortificaciones de campaña, tanto del Ejército Vasco como de las fuerzas sublevadas. En segundo lugar, la realización de una serie de sondeos en dos áreas previamente seleccionadas de dicho frente: las posiciones republicanas de Oketa (Zigoitia) y Burbona Oriental (Zuia), en pleno Parque Natural de Gorbeia. Este nivel de análisis, que ha tomado cada posición como unidad de estudio, se ha visto completado con la documentación detallada de otras posiciones seleccionadas, como El Pico-Menoio (Aiara/Ayala), y, Zapola y Zapolazpia (Markina-Xemein), para así ampliar el potencial comparativo del trabajo. Por último, dentro del proyecto *Guda-Otsak* se incluye un pequeño estudio comparativo entre dos núcleos de población, Legutio y Elgeta, con el objetivo de documentar arqueológicamente el impacto de los procesos de destrucción y (re) construcción en la Guerra Civil (1936-1948).

Contexto histórico-geográfico y antecedentes de investigación

El área de estudio comprende 27 municipios en los territorios de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa repartidos de la siguiente manera:

Guda-Hotsak proiektuaren azterketa eremuaren mapa orokorra (2019-2020).

Mapa general del área de estudio del proyecto Guda-Otsak (2019-2020).

– Araba: Aiara, Amurrio, Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutio, Aramaio eta Arratzua-Ubarrundia.

– Bizkaia: Urduña, Orozko, Zeanuri, Otxandio, Atxondo, Zaldibar, Markina-Xemein, Etxebarria, Berriatua, Amoroto eta Ondarroa.

– Gipuzkoa: Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate, Bergara, Elgeta, Soraluze, Eibar eta Elgoibar.

Udalerri horiek guztiak gerra fronte egonkorraren testuinguru belikoan murgilduta egon ziren Euskal Herrian, 1936ko udazkenetik 1937ko udaberrira bitartean. Hainbat faktoreren ondorioz ezarri zen fronte hori. Hasteko, 1936ko uztaileko estatu kolpe saiakerak arrakasta desberdina izan zuen Euskal Herrian: Araban eta Nafarroan arrakasta izan zuen, ez ordea Bizkaian eta Gipuzkoan. Azken lurralde horretan, Loiolako kuarteletan matxinada saiakera egin zen, baina huts egin zuen, kolpea berehala menderatu baitzuten. Hala, Araba eta Espainia matxinatuaren Errepublikarekiko leiala zen lurraldea bereizten zituen lehen lerroa, oso lausoa, Bizkaia eta Gipuzkoaren eta Arabaren eta Nafarroaren arteko mugarekin bat zetorren. Hala ere, uda horretan bertan, matxinatutako indarrek Gipuzkoa konkistatzeko kanpaina hasi zuten, Irunen *muga* moztuz, Oria ibaiaren haranean barrena aurrera egin eta 1936ko irailaren 13an Donostia hartu zuten. Hortik aurrera, matxinoek kanpaina azkar bati ekin zioten Gipuzkoa osoaren gainean. Bitartean, Bizkaiaren eta Arabaren arteko mugan, liskar eta eraso txiki batzuk gertatu ziren, baina, besteak beste, aipatzekoa da Otxandio airetik bonbardatu izana, uztailaren 22an. Mota horretako lehen bonbardaketa izan zen euskal lurraldean, eta 60 hildako baino gehiago eragin zituen.

Matxinatuek oso azkar egin zuten aurrera Gipuzkoan eta irailaren amaieran Bizkaiko ekialdearen mugan zeuden jada matxinatuak. Hala ere, errepublikaren defentsa gero eta sendoagoa izan zen, eta, azkenean, frontea ipar-ekialdetik hego-mendebaldera zihoan lerroa osatuz ezarri zen, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren arteko mugari jarraituz gutxi gorabehera. Une hartatik aurrera, gerra fronte egonkorra eratu zen, eta, neurri handi batean, geldirik egongo zen sei hilabete geroago arte. Orduan, hasierako *zutabe gerra higadura gerra* bihurtu zen. Era berean, alderdi matxinoak Franco lider absolutu bihurtu zuen, eta, lerroaren beste aldean, Errepublikarekiko leiala zen lurraldean, eratu ziren Eusko Jaurlaritza eta Euzkadiko proiektu autonomikoa. Hala, euskal lurraldea zatitzeaz gain, bi erregimen politiko antagonikoren arteko muga gisa ere balio zuen *de facto* lerro hark.

Fronte hori, egonkorra izan arren, borrokaldi eta gudu ugariren gertalekua izan zen. Hasteko, Legutioko gudua, 1936ko azarotik abendura. Hori izan zen Euzko Gudarosteak gatazka osoan egin zuen eraso handi bakarra, eta Araban matxinatutako lerroak hautsi nahi zituen. Aurrera egiteko hainbat saiakera egin arren, erasoak porrot egin zuen, eta horrek eragin handia izan zuen Euzkadiko indar errepublikanoek ordutik aurrera hartuko zuten defentsa jarreran.

– Álava: Ayala, Amurrio, Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutio, Aramaio y Arratzua-Ubarrundia.

– Bizkaia: Orduña, Orozko, Zeanuri, Otxandio, Atxondo, Zaldibar, Markina-Xemein, Etxebarria, Berriatua, Amoroto y Ondarroa.

– Gipuzkoa: Leintz-Gatzaga, Eskoriatza, Arrasate/Mondragón, Bergara, Elgeta, Soraluze-Plasencia de las Armas, Eibar y Elgoibar.

Todos estos municipios se vieron inmersos en el contexto bélico del frente de guerra estable en el País Vasco entre el otoño de 1936 y la primavera de 1937. Este frente se estableció como consecuencia de varios factores. Para empezar, el intento de golpe de estado de julio 1936 tuvo un éxito desigual en el País Vasco: triunfó en Álava y Nafarroa, pero no en Bizkaia y Gipuzkoa. En este último territorio, hubo un intento fallido de sublevación en los cuarteles de Loiola, pero el golpe fue sofocado rápidamente. De esta forma, la primera y muy difusa línea que separaba Álava al territorio leal a la República de la España sublevada se correspondía con el límite entre Bizkaia y Gipuzkoa con Álava y Nafarroa. Sin embargo, ese mismo verano, fuerzas sublevadas iniciaron la campaña de conquista de Gipuzkoa, cortando la *muga* por Irun, avanzando por el valle del Oria y tomando Donostia el 13 de septiembre de 1936. A partir de ahí, los rebeldes iniciaron una rápida campaña sobre toda Gipuzkoa. Mientras tanto, en el límite entre Bizkaia y Álava se producían algunas escaramuzas y ataques de pequeña envergadura, aunque hay que destacar, entre otros hechos, el temprano bombardeo aéreo sobre Otxandio, el 22 de julio. Fue el primero de este tipo en territorio vasco y produjo más de 60 víctimas mortales.

El avance sublevado sobre Gipuzkoa fue muy rápido y a finales de septiembre los rebeldes se encontraban ya en el límite con el este de Bizkaia. Sin embargo, la defensa republicana se hizo cada vez más sólida y finalmente el frente quedó establecido formando una línea noreste-suroeste, más o menos siguiendo el límite entre Bizkaia y Gipuzkoa. A partir de ese momento, se hacía realidad un frente de guerra estable, que permanecería en gran medida inmóvil hasta seis meses después. Fue el momento en el que la *guerra de columnas* inicial se convirtió en una *guerra de desgaste*. Fue también el momento en el que el bando rebelde convirtió a Franco en su líder absoluto y en el que, al otro lado de la línea, en el territorio leal a la República, se constituyó el Gobierno Vasco y el proyecto autonómico de Euzkadi. De esta forma, esta línea no sólo dividía al territorio vasco, sino que además servía como frontera *de facto* entre dos regímenes políticos antagónicos.

Este frente, a pesar de su carácter estable, fue el escenario de múltiples combates y batallas. Para empezar, la conocida como Batalla de Villarreal, entre noviembre y diciembre de 1936. Esta fue la única acción ofensiva de gran tamaño que protagonizó el Ejército de Euzkadi en todo el conflicto y pretendía romper las líneas sublevadas en Álava. A pesar de varios intentos de avance, la ofensiva fue un fracaso y ello repercutió en la actitud decididamente defensiva que tomarían las fuerzas republicanas de Euzkadi a partir de entonces.

Beste ekitaldi handia 1937ko martxoaren 31n hasi zen, Mola jeneralak Bizkaia konkistatzeko kanpainaren hasiera zuzendu zuenean. Fronte egonkorraren haustura modu mailakatuan gertatu zen kanpainan zehar. Lehenik eta behin, frankisten erasoaldia Arabako fronteari eraso eginez hasi zen, Zigoitia, Legutio eta Aramaio aldetik (1937ko martxoa-apirila). Bigarrenik, Intxorta mendien aurkako hainbat eraso gertatu ziren Elgetan, baina azkenean matxinatuek frontearen zati hori eroraraztea lortu zuten, Udalatxetik eta Elorriotik defentsak hautsiz (apirilaren amaieran). Azkenik, 1937ko maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran, gerra erabakita zegoen Euzkadi Errepublikanoaren-tzat: armada frankista une hartan Bilbo inguruan zegoen ordurako, Burdin Hesia apurtzeko zorian. Testuinguru hartan gertatu zen Francoren erasoa San Pedro-Askurenen gainean, Amurrio-Urduña inguruan, eta, ondoren, Nerbioi Garaian aurrera egin zuten, Bilbo hartu eta egun gutxira.

Gertakarien segida horrek erakusten du fronte egonkorreko zati batzuek aktibo iraun zutela euskal lurrean gatazka belikoak iraun zuen ia denbora guztian. Horregatik, arlo hori aztertzea oso interesgarria da. Hasteko, esan den bezala, euskal lurraldea denbora tarte handi batean zatitu zuen *de facto* muga izateagatik. Bigarrenik, lerro horretan laburbilduta daudelako, denbora gutxian aldakorra izateagatik nabarmendu zen gatazka hartan izandako hainbat fase historiko. Eta, hirugarrenik, fronte egonkorreko paisaia hori higadura gerra baten paisaia arkeologikoaren lehen mailako adibidea delako, nazioarteko ekarpen handiarekin eta gero eta industria izaera handiagoarekin. Gerra Handiko lubakien esperientziaren eta Bigarren Mundu Gerrako *gerra azkarraren* arteko paisaia. Hori guztia 100 kilometro inguruko tartean pilatua, EAEko erdialdeko guneetan.

Fronte egonkorraren errealitate historiko hori ez da oharkabean pasatu aurretiko esku hartze askotan ere. Egin diren hainbat miaketa eta indusketatan aurkitu dira Gerra Zibileko materialak testuinguru espazial horretan. Esate baterako, Atxorrotz aztarnategian (Eskoriatza) 1968az geroztik hainbat ikertzailek eta ikerlarik egindako indusketetan: Erdi Aroko gotorleku bat, matxinatutako posizio bat han egokitu zen 1936 eta 1937 artean[57]. Beste horrenbeste gertatu zen Murugainen kasuan (Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate): Burdin Aroko gotorleku bat, *Dragones*[58] batailoi sozialistak posizio errepublikano gisa berraprobetxatu zuena. Nabarmentzekoak dira halaber Antxoka Martínez Velascok Gudu zelaietako arkeologiaren ildotik 2007az geroztik egindako esku hartzeak[59]; izan ere, Gerra Zibilaren aztarnak erakutsi dituzte Delikako Santa Age-

[57] Barandiaran, I. (1970): «Excavaciones en Aitzorrotz», *Munibe*, 3-4, 125-164.

[58] Telleria Sarriegi, E. (2011): «Sondeos arqueológicos en el poblado de Murugain (Aramaio, Álava)», *Estudios de Arqueología Alavesa*, 27, 135-216.

[59] Martínez Velasco, A. (2008): «Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos», *Sautuola*, 14, 383-398.

El otro gran evento se inició el 31 de marzo de 1937 cuando el general Mola dirigió el comienzo de la campaña de conquista de Bizkaia. La ruptura del frente estable se produciría de forma escalonada a lo largo de la campaña. En primer lugar, la ofensiva franquista se inició atacando el frente de Álava, por la zona de Zigoitia, Legutio y Aramaio (marzo-abril de 1937). En segundo lugar, se sucedieron varios ataques contra los montes Intxortas en Elgeta, pero finalmente los sublevados consiguieron hacer caer esta parte del frente rompiendo las defensas por Udalatx y Elorrio (a finales de abril). Finalmente, a finales de mayo e inicios de junio de 1937, la guerra estaba sentenciada para la Euzkadi republicana: el Ejército franquista se hallaba ya en aquel momento en las inmediaciones de Bilbao, a punto de romper el Cinturón de Hierro. En ese contexto, se produjo el ataque franquista sobre San Pedro-Askuren, en la zona de Amurrio-Orduña, así como, con posterioridad, el avance sobre el Alto Nervión, apenas unos días después de la toma de Bilbao.

Esta secuencia de hechos muestra cómo hubo partes del frente estable que permanecieron activas casi todo el tiempo que duró el conflicto bélico en suelo vasco. Por ello, el estudio de este área resulta de gran interés. Para empezar, porque, como se ha dicho, se trata de la frontera *de facto* que dividió al territorio vasco durante un periodo de tiempo considerable. En segundo lugar, porque a lo largo de esta línea, en un conflicto que destacó por su carácter cambiante en poco tiempo, se hallan sintetizadas diversas fases históricas del mismo. Y, en tercer lugar, porque este paisaje del frente estable es un ejemplo de primer nivel del paisaje arqueológico de una guerra de desgaste, con un gran aporte internacional y un carácter cada vez más industrial. Un paisaje a caballo entre la experiencia de las trincheras de la Gran Guerra y la *guerra-relámpago* de la Segunda Guerra Mundial. Todo ello concentrado a lo largo de una franja de unos 100 kilómetros de longitud en áreas centrales de la CAPV.

Esta realidad histórica del frente estable no ha pasado desapercibida en multitud de intervenciones previas. Han sido varias las prospecciones y excavaciones que se han topado con materialidad de la Guerra Civil en este contexto espacial. Es el caso de las excavaciones realizadas en Atxorrotx (Eskoriatza) por multitud de investigadoras e investigadores desde 1968: una fortificación medieval en la que se situó una posición sublevada entre 1936 y 1937[57]. También es el caso de Murugain (Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate): una fortificación de la Edad del Hierro reaprovechada como posición republicana por el batallón socialista *Dragones*[58]. Aunque hay que destacar también las intervenciones realizadas en la línea de la Arqueología de los Campos de Batalla por parte de Antxoka Martínez Velasco desde 2007[59] y que han mostrado la

[57] Barandiaran, I. (1970): «Excavaciones en Aitzorrotz», *Munibe*, 3-4, 125-164.

[58] Telleria Sarriegi, E. (2011): «Sondeos arqueológicos en el poblado de Murugain (Aramaio, Álava)», *Estudios de Arqueología Alavesa*, 27, 135-216.

[59] Martínez Velasco, A. (2008): «Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos», *Sautuola*, 14, 383-398.

dan (Amurrio), Gazteluatxen (Elgeta) edo Karakaten (Elgoibar, Soraluze). Beste esku hartze batzuek ere erakutsi dute, hala nola 2014an Arrasateko[60] San Kristobal Meatzerreka ermitan egindako lanek edo 2018 eta 2019 bitartean[61] Zamakolako zubian (Markina-Xemein) egindako kontrol arkeologikoko lanek, fronte egonkorreko ondare horren zati bat.

2014. urtean, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta une hartan sortu berria zen Euskal Prospekzio Taldeak ere parte hartu zuten fronte horretako lau puntutan: Urkamendin (Ondarroa), Kalamendin (Berriatua) eta Olabe eta Ezkurraundin (biak Markina-Xemeinen). Hurrengo urtean, 2015ean, beste bi puntutan esku hartu zuten, Akarregin eta Onuntzezabalen (Markina-Xemein, Etxebarria). Fronte horretan gerra posizioen aztarnak arkeologikoki inbentariatzeko nahia ere adierazi zuten. Hala ere, proiektu hura ez zen gauzatu, eta ordutik aurrera hobien kokalekuen arloan nabarmendu da batez ere euren lana.

Errepaso labur honen bidez erakutsi nahi dugu fronte horren errealitate arkeologikoa ikerketa lerro askok aztertu dutela hein batean bederen. Bestalde, azpimarratu behar da tokiko hainbat elkartek, hala nola Aztarnak (Goi Nerbioi), Abadelauetak (Zigoitia), Intxorta 1937 Kultur Elkarteak (Debagoiena), Eibarko Memoria Taldeak (Eibar) edo Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak (Lea-Artibai) eremu horretako Gerra Zibilaren ondarea ezagutzeko eta zabaltzeko izan duten garrantzi handia.

Oinarri hori, hainbat motatako esku hartze arkeologikoez eta tokiko ekimenez osatua, eta nahikotzat jo da fronte egonkorreko paisaia arkeologiko osoa zehatz-mehatz ezagutzeko eta orain arte lortutako informazioa sistematizatzeko lanari ekiteko. Paisaia hori mendiko gotorlekuen hondakinez osatua dago (lubakiak, gotorlekuak, airekoen aurkako babeslekuak, tiro lekuak, etab.), baina badira eraikin zibilen eta erlijiosoen, monumentuen, mugarri toponimikoen eta abarren aztarnak ere. Horiek guztiak metodologia arkeologikoaren bidez azter daitezkeen elementuak dira. Gainera, 2019an Monumentu Multzo gisa kalifikatutako Bilboko Burdin Hesiaren hondakinekin egin den bezala, espero dugu ondasun horiek ere ondare gisa babestu eta hedatzeko aukera izatea etorkizun hurbilean.

Metodologia

Proiektu hau egiteko, lan-fluxu honi jarraitu zaio:

a) Lurzoruaren eta dokumentatu beharreko elementuen hasierako identifikazioa.

   Fase honetan lan bibliografikoa eta dokumentazio lana egin zen hainbat artxibo historikotan, liburutegitan eta hemerotekatan. COVID-19ren pandemiak eragin zuen ohiz kanpoko testuinguruak (2020ko

[60] Egizabal Santos, I.; Otaduy Tristán, A. (2014): «Meatzerreka. San Kristobal ermita», *Arkeoikuska 14*, 302.

[61] Sánchez Zufiaurre, L.; Renedo Villarroya, B. (2017): «Plazakola zubia», *Arkeoikuska 17*, 302-306.

existencia de restos de la Guerra Civil en lugares como Santa Águeda en Delika (Amurrio), Gazteluatx (Elgeta) o Karakate (Elgoibar, Soraluze). Otras intervenciones, como los trabajos en la ermita de San Cristóbal-Meatzerreka (Arrasate)[60] en 2014 o las labores de control arqueológico en el puente de Zamakola (Markina-Xemein) entre 2018 y 2019[61], han mostrado también parte de ese legado del frente estable.

En 2014 la Sociedad de Ciencias Aranzadi y el en aquel momento recién creado Euskal Prospekzio Taldea intervinieron también en cuatro puntos de este frente: en Urkamendi (Ondarroa), en Kalamendi (Berriatua) y en Olabe y Ezkurraundi (ambos en Markina-Xemein). Al año siguiente, en 2015, intervinieron en otros dos puntos, Akarregi y Onuntzezabal (Markina-Xemein, Etxebarria). Señalaron también la voluntad de inventariar arqueológicamente los restos de posiciones de guerra a lo largo de este frente. Sin embargo, este proyecto no se materializó y a partir de entonces su labor ha destacado sobre todo en el ámbito de la localización de fosas.

Con este breve repaso se pretende mostrar que la realidad arqueológica de este frente ya ha sido parcialmente estudiada por parte de multitud de líneas de investigación. Aunque hay que subrayar también el papel que han jugado (y juegan) asociaciones locales como Aztarna (Alto Nervión), Abadelaueta (Zigoitia), Intxorta 1937 Kultur Elkartea (Debagoiena), Eibarko Memoria Taldea (Eibar) o Ahaztuen Oroimena 1936 (Lea-Artibai) en el conocimiento y difusión sobre el patrimonio de la Guerra Civil en este área.

Esta base, compuesta por intervenciones arqueológicas de distinto tipo e iniciativas locales, se ha considerado suficiente como para emprender una labor de conocimiento exhaustivo de todo el paisaje arqueológico del frente estable, así como de sistematización de la información obtenida hasta ahora. Este es un paisaje constituido por restos de fortificaciones de campaña (trincheras, fortines, refugios antiaéreos, puestos de tiro, etc.), pero también por marcas más o menos visibles en edificios civiles y religiosos, monumentos, hitos toponímicos, etc. Todos ellos son elementos susceptibles de ser estudiados mediante metodología arqueológica. Además, al igual que se ha hecho con los restos del Cinturón de Hierro de Bilbao, calificados como Conjunto Monumental en 2019, se confía en que en un futuro próximo estos bienes también puedan ser objeto de protección y difusión patrimonial.

Metodología

Para la realización de este proyecto se ha seguido el siguiente flujo de trabajo:

a) Identificación inicial del terreno y de los elementos a documentar.

   En esta fase se realizó el vaciado bibliográfico y documental en varios archivos históricos, bibliotecas y hemerotecas. El contexto excepcional producido por la pandemia del COVID-19 declarada

[60] Egizabal Santos, I.; Otaduy Tristán, A. (2014): «Meatzerreka. Ermita de San Cristóbal», *Arkeoikuska 14*, 302.

[61] Sánchez Zufiaurre, L.; Renedo Villarroya, B. (2017): «Puente Plazakola», *Arkeoikuska 17*, 302-306.

Esku hartzeko hautatutako eremuak: Pico-Menoio (Aiara), Ekialdeko Burbona (Zuia), Oketa (Zigoitia), Legutio, Elgeta, Zapola eta Zapolazpi (Markina-Xemein).

Áreas de intervención seleccionadas: el Pico-Menoio (Aiara/Ayala), Burbona Oriental (Zuia), Oketa (Zigoitia), Legutio, Elgeta, Zapola y Zapolazpia (Markina-Xemein).

martxoaren 11n deklaratu zen pandemia hori) estualdi larrian jarri zuen proiektuaren fase hori, baina arazo hori konpontzen saiatu gara eskura zeuden sarbide publikoko on line baliabide guztiak intentsiboki erabiliz. Hala, ahozko testigantzak aztertzeko, esate baterako, Ahotsak.com (Euskal Ahozko Artxiboa) eta Ahaztuen Oroimena 1936 plataformetako ikus-entzunezko funtsak eta idatziak erabili behar izan ziren. Lehen fase horretan eskuratutako informazioa (idatzia, grafikoa, kartografikoa, ahozkoa, etab.) Informazio Geografikoko Sistemen (IGS) bidez prozesatu zen, balizko aztarna arkeologikoen geolokalizazio eta teledetekzio lanak hasteko.

b) Azaleko dokumentazioa, esanahiaren balorazioa eta aztertutako lekuetako kalteen balorazioa.

Fase horretan miaketak egin ziren, gidatuak eta intentsiboak, hasierako teledetekzio fasearen bidez gaur egun hondakinak daudela uste zen lekuetan. Gainera, prozesu horretan, lehen aipatutako tokiko elkarte askoren laguntza ezin baliotsuagoa izan genuen, bai eta gai horretan interesa zuten zenbait pertsonena ere. Horrela, azaleran ikus zitezkeen hondakinak dokumentatu genituen, materialak bildu gabe eta lurrak irauli gabe, fronteko posizioetan. Gainera, hondakinak

como tal el 11 de marzo de 2020- puso en un serio aprieto esta fase del proyecto, aunque se intentó solventar mediante el uso intensivo de todos los recursos *online* de acceso público disponibles. De esta forma, por ejemplo, el estudio de testimonios orales tuvo que llevarse a cabo recurriendo a los fondos audiovisuales y escritos de plataformas como *Ahotsak.com* (Archivo Oral Vasco) y Ahaztuen Oroimena 1936. La información obtenida en esta primera fase -escrita, gráfica, cartográfica, oral, etc.- fue objeto de procesado mediante Sistemas de Información Geográfica (SIG) para así iniciar las labores de geolocalización y teledetección de posibles restos arqueológicos.

b) Documentación superficial, valoración de significado y valoración de daños en los lugares de estudio.

En esta fase se produjeron las prospecciones, de carácter dirigido e intensivo, en aquellos lugares en los cuales mediante la fase inicial de teledetección se presumía la existencia de restos en la actualidad. Además, en este proceso se contó también con la inestimable ayuda de muchas de las asociaciones locales anteriormente referenciadas así como de personas interesadas por esta cuestión. De esta forma, se procedió a la documentación de los restos visibles en superficie, sin recogida de

izan zitzaketen kalteei eta afekzioei buruzko lehen balorazioak egin genituen.

c) Xehe aztertu beharreko eremuak hautatzea eta haietan lan egitea.

Fase honetan, azterketa xeheagoak egiteko interesgarritzat jotzen diren zenbait eremu aukeratu genituen, baina ikuspegi, helburu eta metodologia desberdinekin. Lehenik eta behin, Oketako (Zigoitia) eta Ekialdeko Burbonako (Zuia) posizioetan, lau zundaketa egin genituen, bai eta jasotze topografikoko lanak ere. Bigarrenik, El Pico-Menoioko (Aiara), Zapolako eta Zapolazpiko (Markina-Xemein) hormigoizko gotorlekuen dokumentazio grafikoa eta geometrikoa egin genuen, indusketarik gabe. Azkenik, Legutio eta Elgeta herriak aztertzeko, Arkitekturaren Arkeologia eta Auzitegiko Arkitektura dokumentazio grafikoa hartu genuen oinarritzat.

Muga: mendiko gotorlekuen hondakinak fronte egonkorrean

2016 eta 2017 bitartean, proiektu hau ahalbidetu duen finantziazio ildo berari esker, Arabako lurraldeko mendiko gotorlekuen hondakinen lehen inbentarioa egin zen. Une hartan, dokumentatu zen horrelako hondakinak 75 lekutan zeudela, zortzi udalerritan banatuak. Hala ere, 2019-2020ko proiektu horri esker, azterketa sakona egin ahal izan zen, eta leku kopurua 113ra igo zen. Hala, Arabako lurraldean honako datu hauek bildu ziren:

materiales ni remoción de tierras, en las diferentes posiciones del frente. Además, se realizaron unas primeras valoraciones sobre posibles daños y afecciones que pudiesen haber sufrido los restos.

c) Selección de áreas de estudio detallado y trabajo en las mismas.

En esta fase se designaron varias áreas consideradas de interés para la realización de estudios más minuciosos, aunque con enfoques, objetivos y metodologías diferentes. En primer lugar, en las posiciones de Oketa (Zigoitia) y Burbona Oriental (Zuia) se llevó a cabo la excavación de cuatro sondeos, así como trabajos de levantamiento topográfico. En segundo lugar, los fortines de hormigón de El Pico-Menoio (Aiara/Ayala), Zapola y Zapolazpia (Markina-Xemein) fueron objeto de documentación gráfica y geométrica sin excavación. Y, por último, las localidades de Legutio y Elgeta fueron estudiadas tomando la documentación gráfica, la Arqueología de la Arquitectura y la Arquitectura Forense como base.

Frontera: restos de fortificaciones de campaña en el frente estable

Entre 2016 y 2017, gracias a la misma línea de financiación que ha hecho posible este proyecto, se realizó un primer inventario de los restos de fortificaciones de campaña en el territorio de Álava. En aquel momento se documentó la existencia de dichos restos en 75 lugares repartidos en ocho municipios. Sin embargo, este proyecto de 2019-2020 permitió la realización de una revisión exhaustiva y el número de lugares acabó por ascender hasta los 113. De esta forma, para el territorio de Álava se recogieron los siguientes datos:

Ekialdeko Burbonako (Zuia) tiro postuan egindako zundaketa. Behea jotako zurezko estalkiaren maila; induskatutako postua eta haren berreraikuntzaren interpretazioa.

Sondeo del puesto de tiro de Burbona Oriental (Zuia). Nivel de derrumbe de la cubierta de madera; puesto excavado y reconstrucción interpretativa del mismo.

– Aiara: 24 posizio (21 errepublikano eta 3 frankista).
– Amurrio: 10 posizio (guztiak errepublikanoak).
– Urkabustaiz: 6 posizio (2 errepublikano eta 4 frankista).
– Zuia: 18 posizio (13 errepublikano eta 5 frankista).
– Zigoitia: 23 posizio (11 errepublikano eta 12 frankista).
– Legutio: 17 posizio (11 errepublikano eta 6 frankista).
– Aramaio: 9 posizio (guztiak errepublikanoak).
– Arratzua-Ubarrundia: 6 posizio (guztiak frankistak).

Arabako gotorleku hondakin asko onura publikoko mendietan daude, baita Gorbeia, Urkiola eta Aizkorri-Aratz parke naturaletan ere. Horregatik, ez da harritzekoa leku horietako askoren kontserbazio maila nahiko ona izatea. Aurrerago ikusiko dugun bezala, gorabehera horrek ere eragina izan zuen Araban bi posizio aukeratzeko, zundaketak egiteko (Oketa eta Ekialdeko Burbona). Gainera, Arabako lurraldean hain kontserbazio egoera onean egote horrek ere laguntzen du ulertzen talde berak egindako aurreko proiektuetan zergatik aukeratu ziren lurralde horretan kontserbatutako posizioak, hala nola San Pedro-Askuren (Amurrio, Urduña) edo Ketura (Zigoitia).

Bizkaiaren kasuan, hondakinak zituzten 53 toki dokumentatu ziren proiektu honetan, 11 udalerritan:
– Urduña: 18 posizio (5 errepublikano eta 1 frankista).
– Orozko: posizio bat (errepublikanoa).
– Zeanuri: posizio bat (errepublikanoa).
– Otxandio: posizio bat (errepublikanoa).
– Atxondo: posizio bat (errepublikanoa).
– Zaldibar: posizio bat (errepublikanoa).
– Markina-Xemein: 21 posizio (19 errepublikano eta 2 frankista).
– Etxebarria: 10 posizio (4 errepublikano eta 6 frankista).
– Berriatua: 8 posizio (4 errepublikano eta 4 frankista).
– Amoroto: posizio bat (errepublikanoa).
– Ondarroa: 2 posizio (biak frankistak).

Lurralde horretan lehen mailako nahiz bigarren mailako posizio gotortuak daude. Urduña, Markina-Xemein, Etxebarria, Berriatua eta beste udalerri batzuk lehen su lerroan kokatu ziren 1936ko eta 1937ko hilabete haietan, eta, beraz, haietan bando baten eta bestearen posizioak dokumentatzen dira *inoren lurra (no man's land)* izenaz ezagutzen denaren bi aldeetan. Hala ere, Eusko Armadak ahalegin handia egin zuen bigarren euste lerro bat izateko, lehenengoari laguntzeko. Bigarren lerroko posizio horiek, batzuetan, bakartuta eta bukatu gabe egoten ziren, eta horixe da posizio bakarra zuten udalerrietan ikusten dena. Hala ere, esan behar da indar errepublikanoek bigarren lerro bat eraiki zutela eremu jakin batean, defentsa ba-

– Ayala: 24 posiciones (21 republicanas y 3 franquistas).
– Amurrio: 10 posiciones (todas ellas republicanas).
– Urkabustaiz: 6 posiciones (2 republicanas y 4 franquistas).
– Zuia: 18 posiciones (13 republicanas y 5 franquistas).
– Zigoitia: 23 posiciones (11 republicanas y 12 franquistas).
– Legutio: 17 posiciones (11 republicanas y 6 franquistas).
– Aramaio: 9 posiciones (todas ellas republicanas).
– Arratzua-Ubarrundia: 6 posiciones (todas ellas franquistas).

Buena parte de los restos de fortificaciones en Álava se sitúan en terrenos de montes de utilidad pública o incluso dentro de alguno de los parques naturales de Gorbeia, Urkiola y Aizkorri-Aratz. Por ello, no es de extrañar que el nivel de conservación de muchos de estos lugares sea razonablemente bueno. Como se verá más adelante, esta circunstancia también motivó que fuesen dos posiciones en Álava -Oketa y Burbona Oriental- las seleccionadas para la realización de sondeos. Además, este notable estado de conservación en territorio alavés también ayuda a comprender por qué en proyectos anteriores realizados por el mismo equipo se optó por posiciones conservadas en este territorio, como es el caso de San Pedro-Askuren (Amurrio, Orduña) o Ketura (Zigoitia).

En el caso de Bizkaia, en este proyecto se documentaron 53 lugares con restos en 11 municipios:
– Orduña: 6 posiciones (5 republicanas y una franquista).
– Orozko: una posición (republicana).
– Zeanuri: una posición (republicana).
– Otxandio: una posición (republicana).
– Atxondo: una posición (republicana).
– Zaldibar: una posición (republicana).
– Markina-Xemein: 21 posiciones (19 republicanas y 2 franquistas).
– Etxebarria: 10 posiciones (4 republicanas y 6 franquistas).
– Berriatua: 8 posiciones (4 republicanas y 4 franquistas).
– Amoroto: una posición (republicana).
– Ondarroa: 2 posiciones (ambas franquistas).

En este territorio se hallan tanto posiciones fortificadas de primera línea como de segunda línea. Municipios como Orduña, Markina-Xemein, Etxebarria o Berriatua se situaron en primera línea de fuego durante aquellos meses de 1936 y 1937 y, por lo tanto, en los mismos se documentan posiciones de uno y otro bando a ambos lados de la conocida como *tierra de nadie* (*no man's land*). Sin embargo, por parte del Ejército Vasco, se invirtió también un gran esfuerzo en ir definiendo una segunda línea de contención para así servir de apoyo a la primera. Este tipo de posiciones de segunda línea a veces se hallaban aisladas e inacabadas y eso es lo que se aprecia en aquellos municipios que sólo albergan una posición. Aunque hay que señalar que las fuerzas republicanas sí que

liabide askorekin: Markina-Xemein eta Etxebarriako bigarren lerroa, ia hogei bat gotorleku hormigoiz eginak. Bigarren lerro horretakoak dira, besteak beste, Zapolako eta Zapolazpiko gotorlekuak, eremu horretan frontea erortzeko arriskua aurreikusita proiektatu zirenak.

Gipuzkoari dagokionez, hondakinak dituzten 47 leku jaso ziren inbentarioan, 8 udalerritan banatuak, guztiak Debagoiena eta Debabarrena eskualdeetan:

- Leintz-Gatzaga: 4 posizio (bat errepublikanoa eta 3 frankista).
- Eskoriatza: 5 posizio (3 errepublikano eta 2 frankista).
- Arrasate: 9 posizio (3 errepublikano eta 6 frankista).
- Bergara: 11 posizio (10 errepublikano eta 1 frankista).
- Elgeta: 11 posizio (10 errepublikano eta 1 frankista).
- Soraluze: 2 posizio (bata errepublikanoa eta beste frankista).
- Eibar: 4 posizio (bat errepublikanoa eta 3 frankista).
- Elgoibar: posizio bat (frankista).

EAEko hiru lurraldeetan askoz ere gehiago dira bando errepublikanoaren hondakin arkeologikoak. Aipatutako 213 toki horietatik, 144tan bando horri zegozkion gotorlekuak identifikatu dira, eta matxinatutako bandoari dagokionez, berriz, 69 posizio baino ez dira dokumentatu.

Kopuru desberdin hori hainbat faktorerekin lotuta egon daiteke. Hasteko, gotortzeko jarduera desberdin baten ondorio zuzena izan daiteke. Esan bezala, Legutioko erasoak huts egin zuenetik aurrera, indar errepublikanoek jarrera defentsiboa hartu zuten batez ere, eta saiatu ziren finkatuta zeuden lurraldeari ahalik eta etekin handiena ateratzen. Gainera, bi bandoen arteko asimetria teknologikoa gero eta handiagoa izatea, alderdi frankistak airean erabateko hegemonia baitzuen 1937ko udaberrian, badirudi motibazio argia izan zela gotortze lanak areagotzeko.

Nolanahi ere, kuantitatiboki ez ezik, kualitatiboki ere gertatu zen gotortzeko moduaren desberdintasun hori. Tipologiari dagokionez, alde nabarmenak daude bando baten eta bestearen gotortzeko moduan. Ez da harritzekoa defentsa errepublikanoak ia soilik lubaki linealaren baitan egotea baliabide nagusi gisa; hala, lerro jarraitu handiek markatutako paisaia sortzen da, han eta hemen sakabanatutako tiro postuekin. Frankisten bandoak, aldiz, gailur eta muino batzuen gotortze intentsiboa egitea erabaki zuen, eskema trinkoagoa erabiliz, lubaki lerro luzerik gabe. Batzuetan, gotortzeko bi modu horien arteko konparazioa egin izan da, eta ikusi da Lehen Mundu Gerraren esperientziak eragina izan zuela bando errepublikanoan -lubaki linealera jo zuen-; bando frankistan, berriz, eragin handiagoa izan zuen gerra kolonialak -eta haren ereduak, gailurra perimetro

construyeron una segunda línea con gran cantidad de recursos defensivos en una zona concreta: la segunda línea de Markina-Xemein y Etxebarria, con casi una veintena de fortines realizados en hormigón. A esta segunda línea pertenecen, entre otras, las fortificaciones de Zapola y Zapolazpia, proyectadas en previsión de una posible caída del frente en esta zona.

En cuanto a Gipuzkoa, en el inventario se recogió la existencia de 47 lugares con restos repartidos en 8 municipios, todos ellos, en las comarcas de Debagoiena y Debabarrena:

- Leintz-Gatzaga: 4 posiciones (una republicana y 3 franquistas).
- Eskoriatza: 5 posiciones (3 republicanas y 2 franquistas).
- Arrasate/Mondragón: 9 posiciones (3 republicanas y 6 franquistas).
- Bergara: 11 posiciones (10 republicanas y una franquista).
- Elgeta: 11 posiciones (10 republicanas y una franquista).
- Soraluze-Placencia de las Armas: 2 posiciones (una republicana y otra franquista).
- Eibar: 4 posiciones (una republicana y 3 franquistas).
- Elgoibar: una posición (franquista).

En los tres territorios de la CAPV se aprecia una mayor visibilidad arqueológica de los restos pertenecientes al bando republicano. De estos 213 lugares, en 144 se han identificado fortificaciones correspondientes a este bando, mientras que del bando sublevado apenas se han documentado 69 posiciones.

Esta representación desigual puede estar relacionada con varios factores. Para empezar, puede ser la consecuencia directa de una actividad fortificadora desigual. Como se ha dicho, a partir de la fallida ofensiva de Villarreal, las fuerzas republicanas adoptaron una actitud eminentemente defensiva, tratando de sacar el máximo partido del territorio sobre el que se asentaban. Además, la cada vez mayor asimetría tecnológica entre ambos bandos, con una hegemonía aérea total por la parte franquista en la primavera de 1937, parece que fue una motivación clara para la intensificación de las labores de fortificación.

Aunque la divergencia en la forma de fortificar no sólo tuvo lugar en términos cuantitativos, sino también en términos cualitativos. A un nivel tipológico se aprecian diferencias notables en la forma de fortificar de uno y otro bando. No es raro que las defensas republicanas dependan casi en exclusiva de la trinchera lineal como principal recurso, creándose así un paisaje marcado por grandes líneas continuas con puestos de tiro repartidos aquí y allá. El bando franquista, por el contrario, optó más por la fortificación intensiva de determinadas cumbres y colinas, adoptando un esquema más denso, sin largas líneas de trinchera. A veces se ha llegado a establecer una comparativa entre ambas tipologías de fortificación, señalando la influencia de la experiencia de la Primera Guerra Mundial en el bando republicano -y su recurso a la trinchera lineal-, así como una mayor influencia de la guerra colonial en el bando franquista -y su modelo de cima con un perímetro circular fortificado y construcciones a modo

Ortoirudia Oketan aztertutako egiturekin eta ikusgaitasun mapa tiro postuetatik 700 metrora.

Ortoimagen con las estructuras estudiadas en Oketa y mapa de visibilidades a 700m desde los puestos de tiro.

zirkular gotortuarekin eta *blocao*[62] gisako eraikuntzekin-. Oro har, mendiko gotorleku gehiago eta askotarikoagoak ikusten dira posizio errepublikanoetan matxinatuen posizioetan baino: borrokarako eta komunikaziorako lubaki luzeak (kremailera motakoak, sigi-sagan, etab.), tiro postu mota desberdinak, hormigoizko gotorlekuak (sarritan fusilariak egoteko erabiltzen zirenak arma automatikoak edukitzeko baino gehiago), aireko erasoen aurkako babeslekuak (lurrazpiko galeriaren gisakoak), bai eta tipologia bakarrekoak ere, hala nola errepidea kontrolatzeko zulatutako horma baten hondakinak (Santa Engrazian, Legution) edo lurpeko galeria bat egitea *minen gerra* deitutakorako (Akondian, Eibarren). Gainera, nabarmendu behar da soldaduek egindako inskripzioak dituzten zenbait gotorleku errepublikano dokumentatu direla; bando frankistan, aldiz, ez da horrelako kasurik dokumentatu. Izen bereziak, batailoi izenak, sinbolo politikoak eta abar dituzten inskripzioak dira. Dirudienez, eraikuntzen jabetza partikularra eta kolektiboa Euzko Gudarostean gehiagotan gertatu zen Francoren armadan baino, eta horrek adierazten du alor politiko eta militarrean ikuspegi desberdinak zituztela bando batean eta bestean.

Bigarrenik, badirudi, azken hamarkadetan lurraldean izandako jarduera sozioekonomiko eta urbanistikoen garapen desberdinarekin lotuta dagoela erregistro arkeologikoan dagoen desberdintasun horren

[62] González Ruibal, A. (2020): *The Archaeology of the Spanish Civil War*, Routledge, Oxon-New York, 188.

de *blocao*[62]. En términos generales, se aprecia una mayor cantidad y variedad de fortificaciones de campaña en las posiciones republicanas que en las sublevadas: largas trincheras de combate y comunicación (tipo cremallera, en zig-zag, etc.), diferentes tipos de puestos de tiro, fortificaciones de hormigón (a menudo más destinadas a albergar fusileros que a armas automáticas), refugios antiaéreos tipo galería subterránea e incluso tipologías únicas como los restos de un muro aspillerado para el control de carretera (en Santa Engracia, Legutio) o la realización de una galería subterránea para la llamada *guerra de minas* (en Akondia, Eibar). Además, hay que destacar la documentación de varias fortificaciones de hormigón republicanas con inscripciones realizadas por combatientes, mientras que en el bando franquista no se ha documentado ningún caso de este tipo. Inscripciones con nombres propios, nombres de batallón, símbolos políticos, etc. Parece que la apropiación particular y colectiva de las construcciones se daba con mayor profusión en el Ejército de Euzkadi que en el Ejército de Franco y ello parece apuntar a distintas perspectivas sobre lo político y lo militar en uno y otro bando.

En segundo lugar, otra de las claves para esta representación desigual en el registro arqueológico parece relacionarse con el desarrollo desigual de actividades socioeconómicas y urbanísticas en el territorio en las últimas décadas. Buena parte de las defensas republicanas se establecieron en macizos

[62] González Ruibal, A. (2020): *The Archaeology of the Spanish Civil War*, Routledge, Oxon-New York, 188.

beste giltzarrietako bat. Errepublikanoen defentsa gehienak mendiguneetan ezarri zituzten, hala nola Gorbeia mendigunean, Arangio mendilerroan edo Elgetako eta Eibarko mendietan. Haietako batzuk, gainera, parke naturalen eta bestelako eremu babestuen barnean jaso dituzte azken 30 urteetan. Aldiz, posizio frankistak, kasu askotan altuera txikiagoko eremuetan ezarri zituzten, biztanlegune eta komunikazio bide nagusietatik hurbil, eta eremu horietan eragin handiagoa izan dute azken hamarkadetako lurzoruaren artifizializazio prozesuek.

Dena den, oro har, paisaia arkeologiko horren kontserbazioari dagokionez, esan behar da fronte osoan zehar eragin maila handia nabari dela hainbat arrazoiren ondorioz. Izan ere, duela gutxiko testuinguru arkeologikoa denez, 80 urte baino gehixeago dituena, pentsa liteke haren osotasunak ez zuela arriskuan egon behar, baina ez da hala izan. Kasu askotan, baso landaketek eta haien mozketa eta basoberritze prozesuek nabarmen aldatu dute jatorrizko topografia, eta, are gehiago, erabat desagertu da gainazalean egon zitekeen edozein hondakin. Eragin hori nabarmena izan da XX. mendearen erdialdetik aurrera, neurri handi batean insignis pinuan oinarritutako baso eredua hedatu zenetik. Hala ere, zehaztu behar da 2018tik aurrera izan direla batez ere baso landaketaren ondoriozko hondakinen suntsitze horiek, banda marroiaren izurritearen ondorioz konifero asko moztu behar izan direnean. Hori bereziki nabarmena izan da Markina-Xemeinen, Etxebarrian, Eibarren, Elgetan eta Bergaran. Nolanahi ere, azkenik, basogintzako praktika kapitalistek eragindako kalteari beste kontu batzuk ere gehitu behar zaizkio, hala nola hirigintza hazkunde estentsiboa edo bide azpiegitura handien eraikuntza. Azken batean, azken hamarkadetan lurralde honek bizi izan duen artifizializazio prozesu handia.

Azkenik, balantze orokor labur honetan, alde handi batzuk nabarmendu behar dira fronte egonkor horren eta Bilboko Burdin Hesiko lerro gotortuaren artean. Alde batetik, gogoan izan behar da fronte hori hainbat borrokaren ondorioz ezarri zela, eta bi lehiakideen arteko harreman lerro gisa; horrek esan nahi du haren trazadura ez zela planifikatu Burdin Hesiaren kasuan bezala. Horrek esan nahi du, halaber, kultura materiala inprobisazioarekin eta inguru jakin batera egokitzearekin lotutako erabaki prozesuekin lotzen dela. Bestalde, fronte horretan hormigoiz egindako eraikin gutxiago daude Burdin Hesian baino. Horrek zerikusia du, antza, honako faktore hauekin: ingurune fisikoak ezarritako oztopoak, materialen eskuragarritasuna, etsaien indarrak gertu egotea, etab. Hala, paradoxa garrantzitsua ikusten da bi gertalekuen artean: fronte egonkorra, nahiz eta eraikuntza prekarioa izan, benetako fronte aktiboa izan zen gatazka osoan; Burdin Hesiak, berriz, egikeran monumentaltasun handiagoa erakutsi arren, ia ez zuen erabilera praktikorik izan gerraren testuinguruan. Edo bestela esanda, ikusezin bihurtua baina gertaleku nagusia izan zen fronte baten, eta protagonismo txikiagoa baina ikuspen handiagoa izan zuen fronte baten arteko paradoxa.

montañosos como el Macizo del Gorbeia, la Sierra de Arangio o los montes de Elgeta y Eibar, algunos de los cuales además han sido recogidos como parte de parques naturales y otras áreas protegidas en los últimos 30 años. Las posiciones franquistas, por el contrario, en buena cantidad de casos se establecieron en áreas a menor altura, cerca de los principales núcleos de población y vías de comunicación, áreas que se han visto más afectadas por los procesos de artificialización del suelo de las últimas décadas.

Aunque, en cuanto a la conservación de este paisaje arqueológico en general, hay que señalar el elevado nivel de afección que se aprecia como consecuencia de diferentes causas a lo largo de todo el frente. De hecho, que se trate de un contexto arqueológico reciente, de poco más de 80 años de antigüedad, podría hacer pensar que su integridad no se debería verse amenazada, pero no es así. En muchos casos, las plantaciones forestales y sus procesos de tala y reforestación han alterado intensamente la topografía original e incluso han supuesto la desaparición total de cualquier resto visible en superficie. Este tipo de afección ha sido considerable desde mediados del siglo XX, cuando se extendió un modelo forestal basado en gran medida en el pino radiata. Sin embargo, hay que precisar que una buena parte de la destrucción de restos en plantaciones forestales ha tenido lugar a partir de 2018, cuando la epidemia de la banda marrón ha obligado a talar grandes extensiones de coníferas. Esto ha sido especialmente notorio en municipios como Markina-Xemein, Etxebarria, Eibar, Elgeta y Bergara. Aunque, finalmente, a la afección producida por las prácticas forestales capitalistas se les suman otras cuestiones como el crecimiento urbanístico extensivo o la construcción de grandes infraestructuras viarias. En definitiva, el gran proceso de artificialización del suelo vivido por este territorio en las últimas décadas.

Por último, en este breve balance general, hay que destacar algunas diferencias notables entre este frente estable y la línea fortificada del Cinturón de Hierro de Bilbao. Por una parte, el hecho de que este fue el frente que quedó establecido a raíz de diversos combates y con un carácter de línea de contacto entre ambos contendientes, lo cual significa que su trazado no fue planificado como en el caso del Cinturón. Esto parece apuntar también a que su cultura material se asocie a procesos de decisión relacionados con la improvisación y la adaptación a un medio más o menos dado. Por otra parte, se aprecia una menor cantidad de edificaciones construidas con hormigón en este frente que en el Cinturón de Hierro, algo que parece relacionarse con los siguientes factores: los obstáculos impuestos por el medio físico, la disponibilidad de material, la presencia cercana de las fuerzas enemigas, etc. De esta forma, se observa una importante paradoja entre ambos escenarios: el frente estable, a pesar de su precariedad constructiva fue el frente verdaderamente activo a lo largo de todo el conflicto, mientras que el Cinturón de Hierro, a pesar de mostrar un mayor grado de monumentalidad en su fábrica, apenas tuvo un uso práctico en el contexto bélico. O dicho de otro modo, la paradoja entre un frente invisibilizado pero que fue el escenario principal y el de un frente con menor protagonismo pero con una visibilidad mayor.

Zatiak: Oketa (Zigoitia) eta Ekialdeko Burbona (Zuia)

2020ko uztailetik abuztura bitartean, azterketa intentsibo eta zehatza egin zen Oketako (Zigoitia) eta Ekialdeko Burbonako (Zuia) errepublikanoen posizioei buruz. Gorbeiako Parke Naturalean daude bi posizio horiek, 1.000 metro inguruko altueran. Bi leku horiek hautatzeko, hainbat irizpide hartu genituen kontuan. Lehenik eta behin, lehen aipatutakoa, duen altitudea: Gorbeia mendigunean dauden bi posizio dira, eta, beraz, euskal fronte osoko punturik altuenetako batzuetan. Bigarrenik, Parke Naturalaren barruan dagoelako, horrek, hasiera batean bederen, kontserbazio maila handiagoa ekarri beharko bailuke. Eta, hirugarrenik, testuinguru bakoi-tzaren ezaugarri jakin batzuengatik. Ekialdeko Burbonaren kasuan, hasierako miaketa fasean ikusi zen oinplano karratuko tiro postuak zeudela, nahiko arraroak frontearen testuinguru orokorrean, eta, gainera, leku bereko material organikoetan oinarrituta eginak ziren: lur zanpatua eta zura. Ekialdeko Burbonako postu horietako batean, gainera, jatorrizko egurrezko estalkiaren zati bat kontserbatu zela ikusi genuen, eta hori ere ez da ohikoa testuinguru orokorrean. Oketan, berriz, beste elementu bakar bat zegoela dokumentatu zen: landu gabeko harrizko eraikin multzo handi bat mendiaren gailurraren inguruan, bai eta hainbat lubaki mota ere (lerromakurrak, kremailerakoak, sigi-sagakoak...) eta hainbat motatako tiro postu ugari.

Irizpide horiekin bi lan nagusi planteatu ziren. Alde batetik, gainazalean ikus daitezkeen egitura guztien jasotze topografikoa. Eta bestetik, zundaketa bat egitea Ekialdeko Burbonako tiro postu karratuan eta hiru zundaketa Oketako hiru eremutan: abangoardiako tiro postu batean, kremailera motako lubaki zati batean eta harrizko txaboletako baten barruan.

Ekialdeko Burbonako posizioan ondo bereizten dira era horretako defentsa posizioaren bereizgarri diren hiru eremuak: lubaki lineal luze bat abangoardian, tiro postuekin eta airetiko erasoen aurkako babesleku bat ere, galeria moldekoa; behatzeko eremu bat gailurraren inguruan, non harrizko txabola baten hondakinak kontserbatu baitira; eta erretaguardia eta atseden eremu bat, aterpe artifizialekin iparraldeko aldean eginak, kanpalekua egoki ezartzeko. Iparraldeko alde horretan ikaztegien hondakinak ere badaude. Borrokarako lubakiak mendebaldetik ekialdera inguratzen du gailurra, hegoaldeko isurialdetik, eta hamar tiro postu ditu, mendigunetik igarotzen diren pasabide nagusietako batzuk eta, bereziki, Baias ibaiaren iturburua kontrolatu ahal izateko. Burbonako tiro postu gehienak ahurrak dira eta oinplano zirkularra dute. Hala ere, hasierako miaketa lanetan oin karratuko tiro postu bat nabarmendu zen, eta bertan zituen jatorrizko zurezko estalkiaren hondakinak ziruditenak.

Hala, 4 x 6 metroko zundaketa bat egin genuen tiro postu horretan. Gainazaleko goroldioa eta orbelak kentzearekin bakarrik ikusi genuen jatorrizko estalkia eroria zegoela: hamabi zur zatiz osatutako teilatua zen, haietako batzuk hautsiak, baina beste

Fragmentos: Oketa (Zigoitia) y Burbona Oriental (Zuia)

Entre julio y agosto de 2020 se realizó un estudio intensivo y detallado de las posiciones republicanas de Oketa (Zigoitia) y Burbona Oriental (Zuia). Dos posiciones situadas en pleno Parque Natural del Gorbeia, en altitudes en torno los 1000 metros. La elección de estos dos lugares se llevó a cabo atendiendo a diferentes criterios. En primer lugar, la ya mencionada, su altitud: se trata de dos posiciones situadas en el Macizo del Gorbeia y, por lo tanto, en algunos de los puntos a mayor altura de todo el frente vasco. En segundo lugar, por su ubicación dentro del Parque Natural, algo que *a priori* debería significar un mayor nivel de conservación. Y en tercer lugar, por determinadas características específicas de cada contexto. En el caso de Burbona Oriental ya en la fase prospección inicial se observó la existencia de puestos de tiro de planta cuadrada, bastante raros en el contexto general del frente, realizados además en base a materiales orgánicos del mismo lugar: tierra prensada y madera. En el caso de uno de estos puestos en Burbona Oriental se observó además la aparente conservación de parte de su cubierta de madera original, un caso también poco común en el contexto general. En Oketa, en cambio, se documentó la existencia de otro elemento único: un gran conjunto de construcciones de mampostería en torno a la cima del monte, así como varios tipos de trinchera (curvilíneas, de cremallera, en zig-zag...) y multitud de puestos de tiro de diferente tipología.

Con estos criterios, se plantearon dos labores principales. Por un lado, el levantamiento topográfico de todas las estructuras visibles en superficie. Y por otro, la realización de un sondeo en el puesto de tiro cuadrado de Burbona Oriental y de tres sondeos en tres áreas diferentes de Oketa: en un puesto de tiro en vanguardia, en un tramo de trinchera de tipo cremallera y en el interior de una de las chabolas de piedra.

En la posición de Burbona Oriental se diferencian bien los tres ámbitos característicos de una posición defensiva de este tipo: una larga trinchera lineal en vanguardia, con puestos de tiro e incluso un refugio antiaéreo tipo galería subterránea; una zona de observación en torno a la cumbre, en la que se conservan los restos de una cabaña de piedra; y un área de retaguardia y descanso, con abrigos artificiales realizados en la cara norte para así acomodar el campamento. En esta cara norte destaca también la existencia de varios restos de carboneras. La trinchera de combate bordea la cumbre en dirección oeste-este, por su vertiente sur, jalonada por una decena de puestos de tiro con el objetivo de controlar algunos de los principales pasos por el Macizo y, en especial, la cabecera del río Baias. La mayor parte de los puestos de tiro en Burbona son de forma cóncava y planta circular, sin embargo, ya en las prospecciones iniciales destacó un puesto de tiro de planta cuadrada y con lo que parecían ser los restos de la cubierta de madera original.

De esta forma, se realizó un sondeo de 4 x 6 metros en dicho puesto de tiro. Solo con retirar el musgo y la hojarasca en superficie se reveló la existencia del derrumbe de la cubierta original: una techumbre formada por doce fragmentos de madera, algunos de ellos rotos, aunque también otros

batzuk habe oso gisa kontserbatuak. Zuen lur beltz eta lohitsuagatik nabarmentzen zen behea jotako maila hori. Gainera, maila horretan dokumentatu genuen zundaketan aurkitutako objektu bakarra: iltze bat, zurezko zati bati itsatsia. Ez zen pieza gehiagorik aurkitu: ez muniziorik, ez bestelako tresnarik. Objekturik ez agertu arren, zundaketa lanekin jarraitu genuen, postua guztiz karakterizatzeko. Estalkiaren azpian, maila trinkoagoa eta buztintsuagoa dokumentatu zen, kolore laranjak zituena, tiro postua eraikitzeko erabili zuten lur prentsatuarekin bat zetorrena neurri handi batean. Postu hori gainerako tiro postuekin lotzen duen komunikazio lubakia harri naturala ebakita egin zen. Lubakiaren hormaren zati batean erorketa handiak zeuden, eta bidearen jatorrizko trazaduraren zati bat lurperatzen zuten.

Munizio piezarik aurkitu ez denez, zaila da interpretatzea zein arma motarentzat diseinatu zuten postu hori. Hala ere, induskatzeko prozesuan egindako marrazkien gainean probak egin dira hainbat arma motaren neurriak kontuan hartuta, eta, itxura guztien arabera, litekeena da postu horretan norbait egotea fusil bat edo fusil metrailadore bat erabiltzen, baina ez tamaina handiko metrailadorea. Nolanahi ere, zundaketa horri esker, errepublikanoek euskal frontean izan zituzten posizioen berezko egitura bat dokumentatu ahal izan da: tiro postu bat, garai hartako zenbait deskribapenekin bat datorrena, «lurrezko zotalez» eta «zurezko biribilkiz» egindako postuak aipatzen baituzte. Ingurunerik hurbilena aprobetxatuz egindako egitura, ingurunean ondo integratua. Baliabideen ekonomiaren eta fronteko kamuflajearen adibide bikaina. EAEn arkeologikoki induskatutako antzeko posturen bat bilatzeko, Lemoatxen induskatutako metrailadoreen habiaren adibidea dugu[63].

Oketan egindako esku hartzeari dagokionez, esan behar da Abadelaueta Etnografia Elkartea eta Ángel Martínez Montecelo eta José Rodríguez Fernández arkeologoak eskualdean 2016. urteaz geroztik egiten ari diren lana oso garrantzitsua izan dela lekua behar bezala ulertzeko[64]. Oketa mendia 1.030 m-ko garaierako tontorra da, gaur egun ez du zuhaitzik eta lurzoru azido bereizgarriak ditu. 1936ko azaroaren 30ean, Legutioko ofentsiba errepublikanoaren hasieran, borrokaren lehen gertalekuetako bat izan zen. Euzkadiren kontrolpean egon zen 1937ko apirilaren 5era arte; orduan, airetiko bonbardaketa gogorrak egiten hainbat egun eman ondoren, indar errepublikanoek posizioa ebakuatu zuten. Oketa fronte egonkorrean egon zen denboran, CNTko zenbait batailoi anarkistak protagonismo nabarmena izan zuten haren defentsan. *Durruti, Isaac Puente* edo *Sacco eta Vanzetti* bezalako batailoiak.

[63] Peña Muñoz, A.; Blanco, J.; Alonso, E.; Jimenez, J.; Agirre-Mauleon, J. (2018): «Arkeologia lubakietan / Arqueología en las trincheras». In Agirre-Mauleon, J. (coord.): *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena - La última victoria del Ejército Vasco*, Lemoako Udala, Lemoa, p. 127.

[64] Martínez Montecelo, A.; Rodríguez Fernández, J. (2017): «Miaketak mendietan eta basoetan», *Arkeoikuska 17*, 205-208 or.

conservados como vigas completas. Este nivel de derrumbe se caracterizaba también por su tierra de color negruzco y carácter limoso. Además, en este nivel se documentó el único objeto de todo el sondeo: un clavo adherido a un fragmento de madera. No se hallaron más piezas: ni munición, ni otros enseres. A pesar de la carencia de objetos, se continuó con el sondeo para así caracterizar completamente el puesto. Bajo la cubierta se documentó un nivel más compacto y arcilloso, con todos anaranjados, que se correspondía en gran medida con la tierra prensada empleada en la construcción del puesto. La trinchera de comunicación que enlaza este puesto con el resto de puestos de tiro había sido realizada mediante el corte de la roca natural. Parte de la pared de la trinchera mostraba importantes derrumbes que sepultaban parte del trazado original de la vía.

Al no haberse hallado ninguna pieza de munición, se hace difícil interpretar para qué tipo de arma se pudo haber diseñado dicho puesto. A pesar de ello, sobre los diferentes dibujos realizados en el proceso de excavación se han hecho pruebas tomando en cuenta las dimensiones de distintos tipos de arma y parece que lo más probable es que en este puesto se situase alguien manejando un fusil o un fusil ametrallador, pero no una ametralladora de gran tamaño. En cualquier caso, este sondeo ha permitido documentar una estructura característica de las posiciones republicanas en el frente vasco: un puesto de tiro que se ajusta a a algunas descripciones de la época que hablan de puestos realizados con «tepes de tierra» y «rollizos de madera». Una estructura realizada aprovechando el entorno más inmediato y bien integrada en el ambiente. Todo un ejemplo de economía de medios y de camuflaje en el frente. Para buscar algún puesto similar excavado arqueológicamente en la CAPV contamos con el ejemplo del nido de ametralladoras excavado en Lemoatx[63].

En cuanto a la intervención en Oketa, hay que señalar que el trabajo que la Asociación Etnográfica Abadelaueta y los arqueólogos Ángel Martínez Montecelo y José Rodríguez Fernández están llevando a cabo en la zona desde 2016 ha sido muy importante de cara a una correcta comprensión del lugar[64]. El monte Oketa es una cima de 1030 m de altitud, sin vegetación arbórea en la actualidad y con unos característicos suelos ácidos. Ya el 30 de noviembre de 1936, en el inicio de la ofensiva republicana de Villarreal fue uno de los primeros escenarios de la batalla. Permaneció bajo control de Euzkadi hasta el 5 de abril de 1937, cuando, tras varios días de duros bombardeos aéreos, la posición fue evacuada por las fuerzas republicanas. Durante gran parte del tiempo en que Oketa formó parte del frente estable, varios batallones anarquistas de la CNT tuvieron un protagonismo destacado en su defensa. Batallones como el *Durruti*, el *Isaac Puente* o el *Sacco y Vanzetti*.

[63] Peña Muñoz, A.; Blanco, J.; Alonso, E.; Jimenez, J.; Agirre-Mauleon, J. (2018): «Arkeologia lubakietan / Arqueología en las trincheras». In Agirre-Mauleon, J. (coord.): *Lemoatx 1937: Eusko Gudarostearen azken garaipena - La última victoria del Ejército Vasco*, Lemoako Udala, Lemoa, p. 127.

[64] Martínez Montecelo, A.; Rodríguez Fernández, J. (2017): «Prospección en medio montano y forestal», *Arkeoikuska 17*, p. 205-208.

1., 2. eta 3. zundaketen ortoirudiak Oketan, indusketak amaitzean.

Ortoimágenes de los sondeos 1, 2 y 3 en Oketa al finalizar las excavaciones.

Testuinguru horretan, gainazalean agerian zeuden egitura guztien jasotze topografikoa egin zen. Oketan hiru egitura mota nagusi bereiz daitezke: lubakiak, harrizko eraikuntzak eta kraterrak. Harrizko eraikuntzak asko nabarmentzen dira, batez ere asko direlako eta gailurraren iparraldeko hegalean kokatuta daudelako. Txabola horiek Gorbeia Parke Natural osoan dauden artzain eraikuntzak ekarriko lizkigukete gogora, behin baino gehiagotan aztertu direnak. Hala ere, iparraldean kokaturik daudenez, abeltzaintzako eraikuntzetan ikusten denaren oso bestelako kokapen eredua erakusten dute. Itxura guztien arabera, horren arrazoia da mendiak berak defentsa eskain zezakeela etsaien indarren, matxinatutako tropen aurrean, haiek hegoaldean baitzeuden, Arabako Lautadan zehar.

Eraikuntza bakoitzaren azterketaren ondorio orokor gisa, nabarmendu behar da asko direla: 34 egitura guztira. Haietatik 15 egitura itxiak edo txabolak dira (% 44,1). Haietako batzuk tamaina handikoak izan daitezke, eta hainbat gelatan banatua dute barnealdea; esate baterako, zundaketa bat egiteko aukeratu genuena: 44 m2 baino gehiagoko txabola zen, hiru gelatan banatua, eta sartzeko lubaki batekin. Hala ere, harrizko txabolen hondakinak ere ageri dira, lubaki zati batzuk ardatz gisa hartuta. Lubaki estaliak zirela esan daiteke.

Beste egitura multzo ugariena (% 32,3) egitura irekiena da, tiro postu gisa identifikatu direnak. Harrizko hormak dira, batzuk bakunak, baina beste batzuek, hiru horma atxikiz, uztaiak eratzen dituzte. Tiro postu horien kokapena eta orientazioa kontuan hartuta, ikuspen mapa egin zen gero, 700 metroko zuzeneko tiro tartea oinarritzat hartuta. Mapa horretan ondo asko ikusten da gailurraren inguruan han eta hemen sakabanatutako tiro postuek lortzen zutela gailurrera igotzeko bide nagusiak modu eraginkorrean estaltzea. 360º-ko kontrola lurraldearen gainean, hegoaldera eta hego-ekialdera begira sakonagoa bazen ere.

Gainazaleko azterketa horrek, bestalde, egitura negatibo batzuk identifikatzeko ere balio izan zuen, guztizkoaren % 8,8, gehienak tamaina txikikoak eta soldadu talde txiki batentzat babesleku gisa erabiltzearekin lotuak. Guztiz eraitsitako bost egitura ere identifikatu ziren, guztizkoaren % 14,7. Harri metaketa batzuk ziren, oin deformatua zutenak, eta ezin zaizkio egitura itxien edo irekien multzoei atxiki. Behea jotako multzo horiei dagokienez, nabarmentzekoa da gainazalean dokumentatutako kraterretatik hurbil daudela. Inpaktu horiek hainbat bonbardaketa erasorekin lotuta daudela dirudi, eta garrantzitsuenak 1937ko martxoaren 31n egin zirenak dira, hau da, Bizkaiaren aurka eraso frankista hasi zen egunean, bai eta apirilaren 1ekoa eta 4koa ere. Egun haietan, abiazio frankistak guztira 150 bonba jaurti zituen Oketako posizio errepublikanoen aurka. Esku hartze honetan 30 krater dokumentatu dira, eta, zuhaixkek haien guztien geo-

En este contexto se procedió a la realización de un levantamiento topográfico de todas las estructuras visibles en superficie. En Oketa se pueden diferenciar tres grandes tipos de estructura: trincheras, construcciones de piedra y cráteres. Las construcciones de piedra destacan notablemente, sobre todo por su elevado número y por su ubicación preferente en la ladera norte de la cima. Estas chabolas bien podrían recordar a las construcciones pastoriles que pueblan todo el Parque Natural del Gorbeia y que han sido estudiadas en varias ocasiones. Sin embargo, su ubicación en la cara norte hace que muestren un patrón de localización muy distinto al observado en las construcciones ganaderas. La razón parece radicar en la defensa que podía ofrecer el propio monte frente a las fuerzas enemigas, las tropas sublevadas, que se situaban al sur, a lo largo de la Llanada Alavesa.

Como conclusión general del estudio individualizado de cada construcción, destaca su elevado número: 34 estructuras en total. 15 de ellas se corresponden con estructuras cerradas o cabañas (el 44,1%). Algunas de ellas pueden llegar a ser de gran tamaño y con separaciones internas en varias estancias, como la que fue seleccionada para la realización de uno de los sondeos: una chabola de más de 44 m2 dividida en tres estancias y con un trinchera de acceso. Aunque también se aprecia la construcción de cabañas de piedra tomando diferentes tramos de trinchera como eje, de tal forma que se puede hablar de trincheras cubiertas.

El otro grupo más numeroso de estructuras, el 32,3%, lo compone el de las estructuras abiertas, identificadas también como puestos de tiro. Se trata de muros de piedra, a veces simples pero en ocasiones formando cercos mediante el adosado de tres muros. Tomando en cuenta la disposición y la orientación de estos puestos de tiro se elaboró después un mapa de visibilidad tomando como base un rango de tiro directo de 700 metros. En este mapa se aprecia bien que los puestos de tiro desperdigados en torno a la cumbre conseguían cubrir de forma efectiva las principales vías de ascenso a la cima. Un control sobre el territorio de 360º, aunque con una mayor profundidad en las orientaciones sur y sureste.

Este estudio en superficie también sirvió para identificar algunas estructuras negativas, el 8,8% del total, casi siempre de pequeño tamaño y relacionadas con su uso como refugios para un grupo pequeño de combatientes. Se identificaron también cinco estructuras completamente derruidas, el 14,7% del total, caracterizadas como cúmulos de piedras con una planta deformada y que no puede ser adscrita a los grupos de estructuras cerradas o abiertas. En relación con estos derrumbes, destaca su proximidad respecto a los cráteres documentados en superficie. Estos impactos parecen estar relacionados con múltiples acciones de bombardeo, siendo las más importantes las que se llevaron a cabo el 31 de marzo de 1937, día del inicio de la ofensiva franquista sobre Bizkaia, así como el 1 y el 4 de abril. En aquellos días, en total, la aviación franquista lanzó 150 bombas sobre las posiciones republicanas de Oketa. En esta intervención se documentaron 30 cráteres y, si bien, la

lokalizazioa eragozten duen arren, kopuru nahiko adierazgarria dela dirudi.

Egituren eta inpaktuen azterketa konbinatuak zenbait kontu argitzen ditu bonbardaketen arkeologiaren ariketa egiten badugu. Alde batetik, inpaktuen kontzentrazioa Oketa mendiaren tontorrean, eraso frankistetarako erreferentzia nagusia gailurra bera izan balitz bezala. Bestalde, kraterren ondoan daude eraikitako multzo osoko egiturarik kaltetuenak, hau da, behea jotako zatiak. Edo bestela esanda, inpakturik ez dagoen lekuetan, kontserbazio maila hobea erakusten dute harrizko egiturek. Horrek begi-bistakoa dirudi, baina, egia esan, islatzen du gerra paisaia zenbateraino fosildua dagoen Oketan. Izan ere, badirudi horrek esan nahi duela eraispenak zuzenean loturik daudela 1937ko bonbardaketa ekintzekin, eta ez hainbeste higadura, behea jotze eta sedimentazio prozesu naturalekin. Badirudi Oketako egituren aurri egoera (ruination) diferentzialak adierazten duela egungo erregistro arkeologikoa osatzeko orduan 1937ko martxotik apirilera bitarteko egun gutxi batzuetan gertatu ziren ekintzek eragin handiagoa izan zutela 80 urte baino gehiagotan gertatutako afekzio prozesuek baino. Beraz, bonbardaketa frankistak, garai hartan suntsitzeko ahalmen handia zuen teknologia erakustaldi hark, ondorengo beste edozein prozesuk baino indar handiagoz moldatu zuen Oketako tontorra.

Zigoitiko mendi horretako zundaketei dagokienez, hiru egitea planteatu zen, defentsa posizioko hiru eremu desberdinetan. Ekialdeko Burbonaren kasuan adierazi den bezala, gerra posizioetan hiru funtzionaltasunekin lotutako hiru eremu bereizten dira: abangoardiako lehen lerroa, euste eta behatoki eremua gailurrean eta bizi eremu bat atzealdean. Hori dela eta, Oketako 1. zundaketa tiro aurreratuko putzu batean kokatu genuen, gailurretik 200 bat metro hegoaldera (abangoardia); 2. zundaketa kremailera moduko lubaki baten zati batean, gailurraren ondoan (eustea); eta 3. zundaketa, atzealdeko harrizko txaboletako baten barruan, geletako bat eta bertara sartzeko lubakia oinarritzat hartuta.

Ekialdeko Burbonan bezala, dokumentatutako kultura materialaren urritasuna nabarmentzen da Oketako zundaketa hauetan ere. 1. zundaketan, arantzadun alanbrezko biribilki bat aurkitu genuen, bai eta Alemaniako Mauser zorro bat ere, 7,92 mm-koa, postuko tiro banketaren justu gainean eta harrizko parapetoaren ondoan. 2. zundaketan, lubaki zatian, lata bat izan zen dokumentatutako objektu bakarra, -formari erreparatuz gero, sardina lata zela esango genuke-. 3. zundaketan, berriz, txabolan, bi bota zola agertu ziren, iltzez hornituak. San Pedro-Askuren, Murugain eta Lemoatx bezalako gudu testuinguruetan ez bezala, Oketan nabarmena da material eskasia. Baliteke horren arrazoia izatea posizioan ez zela *in situ* borrokatu, baizik eta Eusko Armadak ebakuatu zuela 1937ko apirilaren 5ean, hainbat egun bonbardatu ondoren. Gainera, matxinatutako indarrek Oketa hartu zutenean, mendia erasotzeko posiziotzat hartu zuten borroken hurrengo etapan, eta, beraz, pentsatzekoa da aurreko okupatzaileek utzitako materiala aprobetxatu zutela.

vegetación arbustiva impide la geolocalización de todos ellos, parece un número lo suficientemente representativo.

El estudio combinado de estructuras e impactos, haciendo un ejercicio de Arqueología de los Bombardeos, revela varias cuestiones. Por un lado, la concentración de impactos en torno a la cima del monte Oketa, como si la referencia principal para los ataques franquistas no hubiese sido otra que la propia cumbre. Por otro lado, junto a los cráteres se sitúan las estructuras más dañadas de todo el conjunto edificado, es decir, los derrumbes. O expresado de otro modo, allí donde no hay impactos, las estructuras de piedra muestran un mayor nivel de conservación. Esto puede parecer algo obvio, pero en realidad refleja hasta qué punto se halla fosilizado el paisaje de guerra en Oketa. Y es que, esto parece indicar que los derrumbes se relacionan directamente con las acciones de bombardeo de 1937 y no tanto con los procesos naturales de erosión, derrumbe y sedimentación. La ruinación (*ruination*) diferencial de las estructuras de Oketa parece indicar que los procesos de afección ocurridos a lo largo de más de 80 años han sido menos determinantes en la formación del registro arqueológico actual que aquellos que tuvieron lugar en apenas unos días de marzo-abril de 1937. Es decir, el bombardeo franquista, toda una demostración de tecnología de gran poder destructivo en la época, moldeó de forma más intensa la cima de Oketa que ningún otro proceso posterior.

En cuanto a los sondeos en este monte zigoitiarra, se plantearon tres en tres áreas diferentes de la posición defensiva. Como se ha señalado en el caso de Burbona Oriental, en las posiciones de guerra suelen diferenciarse tres ámbitos asociados a tres funcionalidades: una primera línea de vanguardia, un área de contención y observatorio en la cima y una zona de vida en retaguardia. Por ello, el Sondeo 1 de Oketa se situó en un pozo de tiro avanzado, a unos 200 metros al sur de la cima (vanguardia); el Sondeo 2 en un tramo de trinchera de cremallera junto a la cumbre (contención); y el Sondeo 3 en el interior de una de las cabañas de piedra en retaguardia, tomando como base tanto una de las estancias como su trinchera de acceso.

Al igual que en Burbona Oriental, en estos sondeos de Oketa destaca la escasez de cultura material mueble documentada. En el Sondeo 1, se halló un rollo de alambre de espino, así como un casquillo de Máuser alemán de 7,92 mm inmediatamente sobre la banqueta de tiro del puesto y junto al parapeto de piedra. En el Sondeo 2, en el tramo de trinchera, fue una lata -atendiendo a su forma, presumiblemente de sardinas- el único objeto documentado. Y en el Sondeo 3, en la cabaña, aparecieron dos suelas claveteadas de bota. Al contrario que en otros contextos de batalla como San Pedro-Askuren, Murugain o Lemoatx, en Oketa la escasez de material es notable. Es posible que esto se deba a que la posición no fue disputada *in situ* sino que fue evacuada por el Ejército Vasco el 5 de abril de 1937 tras varios días de bombardeo. Además, cuando las fuerzas sublevadas tomaron Oketa, hicieron del monte su propia posición ofensiva en la siguiente etapa de las operaciones, de tal forma que presumiblemente pudieron aprovechar el material que pudiesen haber abandonado sus anteriores ocupantes.

Nolanahi ere, zundaketek balio izan dute era horretako defentsa posizioetan oinarrizkoak diren hiru eremuak eraginkortasunez ezaugarritzeko. 1. zundaketak lau postuko tiro putzuetako bat hartu zuen erreferentziatzat. Multzo hori eremu gotortuaren hegoaldean dago, eta txabola baten arrastoak ere baditu. Beraz, eraso baten aurrean, zaintzarako eta abangoardiako eremu gisa erabiliko zutela uste dugu. Zulatutako tiro putzuak harri eta lur pilaketa batez osatutako parapetoa zuen, bai eta tiro egiteko banketa bat ere lur berean egina. Tiro putzuen arteko lotura gisa, jatorrizko lubakiaren zati bat dokumentatu genuen. 2. zundaketan, kremaileran jarritako lubaki baten zati txiki bat hartu genuen erreferentzia gisa. Era horretako lubakien ezaugarria da 90º-ko angeluak dituztela, eta, horrela, babesleku txikiak eta aurreratutako tiro puntuak sortzen direla. Eta, azkenik, 3. zundaketan, Oketako txabola handieneko geletako bat erreferentziatzat hartuta, deigarria da harkaitzean prestatutako zorurik ez duela; izan ere, hori ez da oso ulergarria kontuan harturik indar errepublikanoek zenbat denboran eman zioten babesa toki horri. Interesgarria izango litzateke mendiko beste etxola batzuetan zundaketak egitean egiaztatu ahal izateko «erosotasun falta» hori zein neurritaraino izan zen arau edo, aitzitik, salbuespenezko kasua den.

Atal hau bukatzeko, hurrengo posizioetan zundaketarik egin ez bazen ere, aipatzekoa da proiektu honen testuinguruan fronte egonkorreko beste puntu batzuetan egindako lana ere. Mendiko gotorlekuen hondakinak ezagutzeko lanean sakontzeko eta, gainera, azterketa konparatiboaren oinarri enpirikoa zabaldu nahian, grafikoki eta geometrikoki dokumentatu ziren El Picon, Menoion (Aiara), Zapolan eta Zapolazpin (Markina-Xemein) zeuden posizio errepublikanoen hondakinak.

Lehenengo kasuan, Aiarako fronteko ohiko posizio bat da, eta lubakiak, tiro postuak eta hormigoizko metrailadore habi bat ditu, zirkuluerdi formako bi kanoi zulo dituen oinplanoarekin. Bertan ageri den inskripzioak eraikuntza data adierazten du: «1937-5-9». Fronte honetan ohikoak dira horrelakoak hainbat arrazoirengatik. Hasteko, bere izaera berantiarragatik: 1937ko maiatzak 9, une hartan fronte egonkorraren zati handi bat hautsia zegoelarik, esate baterako Zigoitia-Legutio-Aramaio aldean martxo-apirilean eta Gipuzkoarekiko muga osoan, berriz, apirileko azken egunetan. Gotorleku hori eraiki zuten bitartean, Euzkadin borrokak Sollube inguruan zeuden jada, Bilbotik 20 km eskasera. Bigarrenik, tipologiagatik: El Pico-Menoioko habiaren ia berdinak aurkitu dira frontearen alde honetako beste 17 tokitan. Posizio horien helburua zen modu eraginkorrean kontrolatzea Salbada mendilerrotik, matxinatuek gatazkaren hasieratik kontrolatzen zuten kordal handitik, Aiarako Sopeñara jaisteko bideak. Izan ere, frontearen zati hori, egungo Aiaraldea eskualdean dagoena, hormigoizko gotorleku gehien dagoen eremuetako bat da fronte osoan, Zigoitia-Legutio eremuarekin eta Markina-Xemein eta Etxebarriako errepublikanoen bigarren defentsa lerroarekin batera. Hormigoizko egituren eraikuntza Burdin Hesian ikusitakoarekin konpara daitekeen hiru eremu bakarrak dira. Pico-

En cualquier caso, los sondeos han servido para caracterizar de forma eficaz los tres ámbitos básicos de una posición defensiva de este tipo. El Sondeo 1 tomó como referencia uno de los pozos de tiro de un conjunto de cuatro puestos. Este conjunto se sitúa al sur de todo el conjunto fortificado y cuenta también con los restos de un cabaña, de tal forma que se presume su función como área de vigilancia y vanguardia ante un eventual ataque. El pozo de tiro excavado constaba de un parapeto compuesto por una acumulación de piedras y tierra y de una banqueta de tiro realizada sobre la misma tierra. Como unión de los diferentes pozos de tiro se documentó parte de la trinchera original. En el Sondeo 2 se tomó como referencia un pequeño tramo de una trinchera dispuesta en cremallera. Este tipo de trincheras destaca por su ángulos 90º creando así pequeñas áreas resguardadas así como puntos adelantados de tiro. Y, finalmente, en el Sondeo 3, tomando una de las estancias de la cabaña más grande de Oketa como referencia, destaca la ausencia de una preparación del suelo de roca, algo poco comprensible teniendo en cuenta el tiempo que las fuerzas republicanas guarnecieron el lugar. Sería interesante poder realizar sondeos en otras cabañas del monte para así comprobar hasta qué punto esta «falta de confort» fue la norma o si, por el contrario, se trata de un caso excepcional.

Para finalizar este apartado, si bien no se procedió a la realización de sondeos en las siguientes posiciones, hay que mencionar la labor llevada a cabo en estos otros puntos del frente estable en el contexto de este proyecto. Buscando profundizar en el conocimiento de los restos de las fortificaciones de campaña y ampliar además la base empírica del estudio comparativo, se documentaron de forma gráfica y geométrica restos de las posiciones republicanas de El Pico, en Menoio (Aiara-Ayala) y Zapola y Zapolazpia (Markina-Xemein).

En el primer caso se trata de una posición característica del frente ayalés, con trincheras, puestos de tiro y un nido de ametralladora de hormigón con una planta que consta de dos troneras de forma semicircular. Una inscripción en el mismo señala su fecha de construcción: «9-5-1937». Resulta característica de este frente por varios motivos. Para empezar, por su carácter tardío: 9 de mayo de 1937, momento en el que buena parte del frente estable ya había sido roto, como en la zona de Zigoitia-Legutio-Aramaio en marzo-abril y en todo el límite con Gipuzkoa en los últimos días de abril. Mientras se construía esta fortificación los combates en Euzkadi se situaban ya en la zona del Sollube, a escasos 20 km de Bilbao. En segundo lugar, por su tipología: nidos casi idénticos al de El Pico-Menoio se han localizado en otros 17 lugares de esta parte del frente. Estas posiciones pretendían controlar de manera efectiva las vías de descenso a la Sopeña ayalesa desde la Sierra Salvada, el gran cordal que controlaban los sublevados desde el inicio del conflicto. De hecho, esta parte del frente, situada en la actual comarca de Aiaraldea, es una de las áreas con mayor concentración de fortificaciones de hormigón de todo el frente junto al área de Zigoitia-Legutio y a la segunda línea defensiva republicana de Markina-Xemein y Etxebarria. Son las tres únicas áreas en las que la construcción de estructuras de hormigón puede compararse a la

Pico-Menoioko (Aiara) metrailadore habiaren (goian) eta Zapolazpiren (behean) irudi eta eredu fotogrametrikoak.

Imágenes y modelos fotogramétricos del nido de ametralladora de Pico-Menoio (Aiara/Ayala) (arriba) y de Zapolazpia (abajo).

Menoiok frontearen multzo hau ondo irudikatzeko azken arrazoia da, inguru honetan dauden hormigoizko beste 13 habia bezala, egitura hori modu irregularrean induskatu dela azken urteetan. Ez dakigu nork egin dituen lan horiek, baina norbaitek sistematikoki induskatu ditu egitura horietako gehienen tiro ordokiak, eta fronteko eremu jakin honetan zehazki. Praktika hori Administrazioari jakinarazi zaio; izan ere, erakusten du ondasun horiek zenbateraino ari diren modu irregularrean tratatzen, horrek berekin daraman erregistro arkeologikoa galtzearekin.

Dokumentazio grafiko eta geometriko zehatza egiteko aukeratutako beste eremua izan zen Markina-Xemeingo Zapola eta Zapolazpi parajeetan kontserbatutako bigarren lerroko posizioen multzoa. Errepublikanoen bigarren lerro hori 1937ko apirilaren 27an fronte osoa erori aurretik eraiki zuten, eta dozena bat defentsa postu baino gehiago ditu, hormigoizko 15 habiarekin. Itxura guztien arabera, eremu horretan frontearen haustura partziala aurreikusita proiektatu zen bigarren defentsa lerro hori: hala gertatuz gero Markinako gunea inoren lurrean edo etsaien eremuan gelditzea ekarriko baitzuen. Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak urteak daramatza ondare hori ezagutzeko eta berreskuratzeko konpromisoa erakusten. 2020 eta 2021 bitartean, kolektibo horren eskutik, gainera, me-

observada en el Cinturón de Hierro. El último motivo por el cual El Pico-Menoio representa bien a este conjunto del frente es porque, al igual que otros 13 nidos de hormigón en esta zona, esta estructura ha sido excavada de forma irregular en los últimos años. Se desconoce la autoría de estas labores, pero alguien ha excavado sistemáticamente las mesetas de disparo de la mayoría de estas estructuras y en esta zona del frente en concreto. Una práctica que ya ha sido puesta en conocimiento de la Administración en la medida en que muestra hasta qué punto estos bienes están siendo tratados de forma irregular, con la pérdida de registro arqueológico que ello supone.

La otra área elegida para su documentación gráfica y geométrica de forma detallada fue el conjunto de posiciones de segunda línea conservadas en los parajes de Zapola y Zapolazpia, en Markina-Xemein. Esta segunda línea republicana, construida en momentos previos a la caída de todo el frente el 27 de abril de 1937, consta de más de una docena de puestos defensivos con 15 nidos de hormigón. Al parecer, esta segunda línea fue proyectada en previsión de una ruptura parcial del frente en esta zona: algo que hubiera hecho caer al núcleo de Markina en tierra de nadie o en zona enemiga. La asociación Ahaztuen Oroimena 1936 lleva años mostrando su compromiso por el conocimiento y la recuperación de este patrimonio. Entre 2020 y 2021, de la mano de este colecti-

Inpaktuen irudia eta marrazkia Gudarien bidea 8 zenbakian (goian) eta inskripzioen marrazki eta irudi xehea Abridio Etxeko fatxadan, Elgetan (behean).

Imagen y dibujo de impactos en Gudarien Bidea nº 8 (arriba) y dibujo e imagen de detalle de inscripciones en la fachada de Casa Abridio, Elgeta (abajo).

moriaren ibilbide bat sortu da, Zapola eta Zapolazpi posizioak zeharkatzen dituena; beraz, hondakin horien dokumentazio grafikoak eta geometrikoak, Enklabe kooperatibaren laguntzarekin egina, laguntza material gisa ere balio du ibilaldietan eta bisitetan. Gotorleku horien tipologiari dagokionez, nabarmentzekoa da metrailadore habien forma: kareharrizko eta hormigoizko hormak dituzte, oinplano angeluzuzena eta metrailadoreekin tiro egiteko kanoi zulo zabalak. Gainera, gehienetan ez bezala, Zapolako eta Zapolazpiko habiek jatorrizko estalkiari eutsi diote.

Burbona Ekialdeko (Zuia), Oketako (Zigoitia), El Pico-Menoioko (Aiara) eta Zapolako eta Zapolazpiko (Markina-Xemein) posizioei buruzko ikerketa zehatz horiek balio izan dute fronte egonkor osoa osatzen duten hainbat elementu erakusteko, baina mikro eskalan. Esku hartze horietan dokumentatutako kultura material higigarriaren eskasia konpentsatzen da errepublikanoen mendiko gotorlekuetako hainbat egitura motaren banakako azterketarekin. Adibide gutxi batzuk besterik ez, fronte baten errealitate zatikatu eta konplexua ezagutzeko; izan ere, *makro* mailan lineala eta benetan homogeneoa dirudien arren, ez da hala.

Hausturak: suntsiketa eta (ber)eraikuntza Legution eta Elgetan

Euskal Herriko fronte egonkorrean kokaturiko bi herri horien arteko konparaziozko azterlan honek erakutsi nahi du Gerra Zibilaren hurrengo prozesuak nola gertatu ziren esparru kronologiko ez-konbentzio-

vo, se ha creado además un itinerario memorial que recorre las posiciones de Zapola y Zapolazpia, por lo que la documentación gráfica y geométrica de estos restos, realizada con la ayuda de la cooperativa Enklabe, sirve también de material de apoyo en los paseos y visitas. En cuanto a la tipología de estas fortificaciones, destaca la forma de sus nidos de ametralladora, con muros de piedra caliza y hormigón, planta rectangular y amplias troneras para el disparo con ametralladoras. Además, al contrario que en la mayoría de los casos, los nidos de Zapola y Zapolazpia han conservado su cubierta original.

Estos estudios detallados sobre las posiciones de Burbona Oriental (Zuia), Oketa (Zigoitia), El Pico-Menoio (Ayala) y Zapola y Zapolazpia (Markina-Xemein) han servido para mostrar diferentes elementos que conforman todo el frente estable pero a una escala micro. La escasez de cultura material mueble documentada en estas intervenciones se compensa por el estudio individualizado de diferentes tipo de estructuras pertenecientes a las fortificaciones de campaña republicanas. Apenas una serie de ejemplos mediante los cuales tratar de conocer la realidad fragmentaria y compleja de un frente que a nivel *macro* puede parecer lineal y ciertamente homogéneo pero que no lo es.

Fracturas: destrucción y (re)construcción en Legutio y Elgeta

Este estudio comparativo entre dos localidades situadas en el frente estable del País Vasco pretende ilustrar cómo tuvieron lugar los siguientes procesos

nalean -1936tik 1950eko hamarkadaren hasierara bitarte-: herriguneen militarizazioa, haien gotortzea, defentsa eta suntsipena, bai eta Diktadurak zuzendutako (ber)eraikuntza lanak ere. Gerra Zibilerako proposatutako esparru kronologiko hori bi alderditatik dator: gaiari buruzko historiografia berrienaren atal handi batetik –*Europako gerra zibila* edo *okupazio gerra* bezalako planteamenduak Estatu Berriaren eraikuntzarekin sinbiosian–, eta Gerra Zibilaren arkeologiatik beretik ere, azterketa eremu izaten bi hamarkadako historiaren ondoren[65]. Azterlan honetan kontuan hartu dira arkitekturaren arkeologiatik eta «auzitegi-arkitektura» delakotik (*Forensic Architecture*) datozen metodoak eta planteamenduak[66].

Azterketa konparatibo hau egiteko aukeratu ziren herriak Legutio eta Elgeta izan ziren, zenbait irizpide aintzat hartuta. Lehenik eta behin, biek antzeko eskala partekatzen dute, lehenak 1.800 biztanle inguru ditu eta bigarrenak, berriz, 1.300 inguru. Bigarrenik, antzeko jatorri historikoa eta hiri bilbea dituzte: biak dira Alfontso XI.a Gaztelakoak 1330eko hamarkadan sortutako hiribilduak, iparralde-hegoalde ardatzen inguruan antolatuak, plaza nagusi batekin. Eta, azkenik, bi herriak frontearen lehen lerroan egon ziren 1936 eta 1937 artean, eta borroka latzak izan ziren bertan. Hala ere, puntu honetan nabarmendu behar da Legutiok eta Elgetak modu antagonikoan bizi izan zutela gerra.

Legutio hiribildua Euzko Gudarosteak setiatu zuen, eta goarnizio frankista batek defendatu zuen 1936ko abenduan Legutioko guduaren testuinguruan. Indar errepublikanoak askotan saiatu ziren herria hartzen. Guztiek huts egin zuten, baina hondamenezko eta suntsipenezko paisaia bat sortu zuten, ondoren alderdi garaileak goretsiko zuena. Hala, «Villaescombros» edo «Baluarte heroico de Álava» bezalako laudorio propagandistikoak jaso zituen herria izan zen Legutio diktadura osoan zehar. Carlos Saenz de Tejada margolariak ere koadro batean islatu zuen Legutioren idealizazioa Espainia *nazionalaren* hondamendi garailearen adibide gisa. Elgeta, aitzitik, euskal antifaxismoaren lehen hiribildu handi erresistentea izan zen. 1936ko urrian bertan egonkortu zen frontea, eta hari esker sartu ahal izan zen indarrean autonomia estatutua, «Elgetako Estatutua» ere deitua. 1937ko apirilaren 24ra arte errepublikanoen lehen defentsa lerroko kide izan zen herri gipuzkoar hori. Intxortako mendietan hainbat egun borrokan eman eta airetiko bonbardaketa gogorrak jasan ondoren, Armada frankistak hartu zuen. Hala ere, Elgeta aurrez aurre konkistatu ez izanak, Udalatxetik eta Elorriotik egindako maniobra inguratzaile baten bidez baizik, areagotu baino ez zuen egin euskal imaginario antifaxistarentzat garaitu gabeko lekua zela.

[65] Santamarina Otaola, J. (2020): «Geroztik gudan gera»: gerra luzea Francoren diktaduraren prozesu eratzaile gisa (1936-1948), *Uztaro*, 115, 55-76 or.

[66] Weizman, E. (2017): Forensic Architecture: Violence at the Threshold of Detectability, Zone Books, New York.

de la Guerra Civil en un marco cronológico no convencional -desde 1936 hasta inicios de la década de 1950-: la militarización de núcleos poblados, su fortificación, defensa y destrucción, así como los trabajos de (re)construcción dirigidos por la Dictadura. Este marco cronológico propuesto para la Guerra Civil proviene tanto de buena parte de la historiografía más reciente sobre el tema -planteamientos como la *guerra civil europea* o la *guerra de ocupación* en simbiosis con la construcción del Nuevo Estado- como de la propia Arqueología de la Guerra Civil tras dos décadas de historia como ámbito de estudio[65]. En este estudio se han tomado en cuenta métodos y planteamientos que provienen de la Arqueología de la Arquitectura y de la llamada «Arquitectura Forense» (*Forensic Architecture*)[66].

Las localidades seleccionadas para este estudio comparativo fueron Legutio y Elgeta en base a varios criterios. En primer lugar, ambas comparten una escala similar, con unos 1800 habitantes la primera y unos 1300 habitantes la segunda. En segundo lugar, comparten un origen histórico y una trama urbana similares: ambas son villas fundadas por el rey Alfonso XI de Castilla en la década de 1330, organizadas en torno a ejes norte-sur con una plaza principal. Y, por último, ambas fueron localidades situadas en primera línea del frente entre 1936 y 1937 y escenario de durísimos combates. Aunque, en este punto hay que destacar que Legutio y Elgeta vivieron la guerra de manera antagónica.

Legutio fue una villa asediada por el Ejército de Euzkadi y defendida por una guarnición franquista en el contexto de la Batalla de Villarreal, en diciembre de 1936. Las fuerzas republicanas intentaron tomar el pueblo en multitud de ocasiones. Todas resultaron fallidas, pero generaron un paisaje de ruina y destrucción que después sería objeto de exaltación por parte del bando vencedor. De esta forma, Legutio sería durante toda la Dictadura un pueblo merecedor de elogios propagandísticos como «Villaescombros» o «Baluarte heroico de Álava». Incluso el pintor Carlos Sáenz de Tejada plasmó en un cuadro su idealización de Legutio como ejemplo de ruina victoriosa de la España *nacional*. Elgeta, al contrario, ha pasado a la historia como la primera gran villa resistente del antifascismo vasco. El lugar en el que se estabilizó el frente en octubre de 1936 y gracias al cual pudo entrar en vigor el Estatuto de autonomía, también llamado «Estatuto de Elgeta». Este pueblo gipuzkoarra formó parte de la primera línea de defensa republicana hasta el 24 de abril de 1937, cuando tras varios días de combates en los montes Intxortas e intensos bombardeos aéreos, fue tomado por el Ejército franquista. Sin embargo, el hecho de que Elgeta no fuese conquistada frontalmente, sino mediante una maniobra envolvente desde Udalatx y Elorrio no hizo sino engrandecer su carácter de lugar invicto para el imaginario antifascista vasco.

[65] Santamarina Otaola, J. (2020): «Geroztik gudan gera»: gerra luzea Francoren diktaduraren prozesu eratzaile gisa (1936-1948), *Uztaro*, 115, p. 55-76.

[66] Weizman, E. (2017): Forensic Architecture: Violence at the Threshold of Detectability, Zone Books, New York.

1940tik aurrera Erregimenak «onartutako» herriak izan ziren biak. Adopzioa zen Estatu Berriak ezarritako formula Suntsituriko Eskualdeen eta Erreparazioen Zuzendaritza Nagusiak, estatuko (ber)eraikuntza zerbitzuak, esku hartzeko. (Ber)eraikuntza terminoa anbiguotasun pixka batekin aipatzen da, Zuzendaritza Nagusi hura ez baitzen mugatu suntsitutako obrak berrezartzera, baizik eta propaganda funtzio argia bete zuen, bortxazko eskulana erabiliz eta erregimen berriaren printzipioekin bat zetozen hiri eszenografia berriak eraikiz[67].

Oinarri historiko eta geografiko honekin, Guda-Hotsak proiektuaren zati hau diseinatu zen lehen lerroan zeuden herrigune horiek nola garatu ziren, zein militarizazio eta gotortze prozesu mota bizi izan zituzten eta zein suntsipen maila jasan zuten ulertzeko asmoz. Geroagoko fase batean, (ber)eraikuntza prozesua nola gertatu zen alderatzeko beharra ere planteatu zen, kontuan hartuta espazio batek eta besteak erregimenerako zuten esanahi politiko antagonikoa. Helburu horiek, gainera, proiektu osoaren hasierako esparrua gainditzea ahalbidetzen zuten: alde batetik, nagusiki militarrak ziren aztarna arkeologikoetatik harago joatea –mendiko gotorlekuak–, eta ikerketa itxuraz zibilak ziren testuinguruetara zabaltzea –herriak–; eta, bestetik, 1936-1937ko esparru kronologiko konbentzionala gainditzea eta, horrela, intereseko xedea 1940ko hamarkadaren amaierara eta 1950eko hasierara arte zabaltzea.

Ikerketa hori artxibo lan garrantzitsu batetik abiatu da: 1936tik 1937ra bitarteko denborari buruzko txostenekin, testigantzekin eta kontakizunekin, baina baita plano askorekin, memoria arkitektonikoekin, udal aktekin, obra txostenekin, aireko irudiekin eta 1937tik aurrerako argazkiekin ere. Landa lana hasiera batean izan zen Legution 153 eraikinen eta Elgetan 86 eraikinen erregistro grafikoa eta inbentarioa egitea. Datu base horri esker, egiaztatu ahal izan genuen herri horietako eraikinetako zenbatek zituzten Gerra Zibilaren aurreko edo ondorengo egikerak, suntsiketa/(ber)eraikuntza dinamikaren errealitatera lehen hurbilketa egin ahal izateko. 1936-1937ko suntsipenei buruzko irudiak erabilita, berriz argazkia egiteko lanak egin ziren, hau da, iraganeko argazki horiek egin ziren lekuen egungo argazkiak egitea. Irudi askoren datazio zehatzari esker, (ber)eraikuntza lan askoren sekuentzia kronoestratigrafikoa zehaztu ahal izan da. Lan horri gehitu behar zaio, halaber, gerraren jatorrizko inpaktuak edo inskripzioak gaur egun ageri dituzten egitura fatxada batzuen erregistro fotogrametrikoa. Horrela, Bi herri horien *gerrako hirigintzarako* hurbilketa dei dezakeguna eratzen du corpus grafiko horrek guztiak, gotortzeko, suntsitzeko eta (ber)eraikitzeko prozesuen sekuentzia kronoestratigrafikoa ardatz hartuta.

[67] Muñoz Fernández, F. J. (2016): «La reconstrucción del País Vasco de posguerra. Arquitectura y urbanismo en los primeros años de la dictadura franquista». In *Momoitio Astorkia*, I.; Nuñez Monasterio, A. T. (coords.): *Caer y levantarse: la reconstrucción del patrimonio después de una guerra*, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernika-Lumo, 17-32.

Ambas fueron localidades «adoptadas» por el Régimen a partir de 1940. La adopción era la fórmula establecida por el Nuevo Estado para la intervención de la Dirección General de Regiones Devastadas y Reparaciones, el servicio estatal de (re)construcción. Se señala el término *(re)construcción* con cierta ambigüedad porque esta Dirección General no se limitó a una labor de reposición de obras destruidas, sino que cumplió una función propagandística clara, empleando mano de obra forzosa y construyendo nuevas escenografías urbanas acordes con los principios del nuevo régimen[67].

Con esta base histórica y geográfica, esta parte del proyecto *Guda-Otsak* se diseñó con el objeto de comprender cómo se desenvolvieron estos núcleos poblados en primera línea, qué clases de procesos de militarización y fortificación vivieron y qué grado de destrucción sufrieron. En una fase posterior, se planteó también la necesidad de comparar cómo tuvo lugar el proceso de (re)construcción teniendo en cuenta además la antagónica significación política para el Régimen que tenían uno y otro espacio. Estos objetivos permitían además superar el marco inicial de todo el proyecto: por un lado, ir más allá de los restos arqueológicos eminentemente militares -fortificaciones de campaña- y abrir la investigación a contextos aparentemente civiles -los pueblos-; y por otro lado, superar el marco cronológico convencional de 1936-1937 y extender así el objeto de interés hasta finales de la década de 1940 e inicios de 1950.

Esta investigación ha partido de una base de trabajo de archivo importante: con informes, testimonios y relatos del tiempo que va de 1936 a 1937, pero también con gran cantidad de planos, memorias arquitectónicas, actas municipales, informes de obra, imágenes aéreas y fotografías posteriores a 1937. El trabajo en campo, consistió en un primer momento, en el registro gráfico e inventariado de 153 edificios en Legutio y de 86 edificios en Elgeta. Gracias a esta base de datos se pudo comprobar cuántos de los edificios de estas localidades presentaban facturas anteriores o posteriores a la Guerra Civil, mostrando así una primera aproximación a la realidad de la dinámica destrucción/(re)construcción. Mediante el uso de imágenes sobre las destrucciones de 1936-1937 se realizaron ejercicios de *refotografía*, es decir, de localización y toma de capturas en el presente de esas mismas fotografías del pasado. Gracias a la datación exacta de muchas de las imágenes se ha podido establecer una secuencia cronoestratigráfica de muchas de las obras de (re)construcción. A esta labor se le sumó también el registro fotogramétrico de algunas fachadas de estructuras que muestran impactos o inscripciones originales de la guerra en el presente. De esta forma, todo este corpus gráfico, tomando como eje la secuencia cronoestratigráfica de procesos de fortificación, destrucción y (re)construcción forma lo que podemos llamar una aproximación al *urbanismo de guerra* de estas dos localidades.

[67] Muñoz Fernández, F. J. (2016): «La reconstrucción del País Vasco de posguerra. Arquitectura y urbanismo en los primeros años de la dictadura franquista». In *Momoitio Astorkia*, I.; Nuñez Monasterio, A. T. (coords.): *Caer y levantarse: la reconstrucción del patrimonio después de una guerra*, Gernikako Bakearen Museoa Fundazioa, Gernika-Lumo, 17-32.

Elgetako (ezkerrean) eta Legutioko (eskuinean) (ber) eraikuntza lanei buruzko mapa.

Mapa sobre las obras de (re)construcción en Elgeta (izda.) y Legutio (dcha.).

Balantze orokor gisa, hainbat ondorio atera dira azterlan honetatik. Hasteko, Legutioren eta Elgetaren suntsitze maila ezberdina izan zen, batez ere maila kualitatiboan. Infanteriako indarrek Legutio setiatu zuten, eta artilleria errepublikanoen jazarpena ere izan zuen. Hegazkinek ere kalte handiak eragin zituzten hiri bilbean, baina gero Elgetan gertatutakoak baino inpaktu global txikiagoa izan zuten. Agian horregatik, Legutioko eraikinen suntsipenak hirigune osoan zehar banatuagoak izan ziren, eta eraikin osoak eraitsi ere egin zituzten, nahiz eta gutxitan. Elgetan, berriz, Italiako hegazkinek 1937ko apirilaren 23an egindako alfonbra bonbardaketak erabat suntsitu zituen hainbat eraikin, kasu askotan era «estu» samarrean erdiko plazaren inguruan. Beste ondorio esanguratsu bat da bi herriek (ber)eraikuntza prozesu ezberdina izan zutela. Itxura guztien arabera, Elgetan Estatu Berria Legution baino askoz ere zuzentzaileagoa eta handinahiagoa izan zen. Gipuzkoako udalerrian, Suntsitutako Eskualdeen Zuzendaritzak oso modu aktiboan esku hartu zuen parrokia eliza berreraikitzeko lanetan -Legution bezala-, baina, horrez gain, udaletxe berria, zenbait udal zerbitzu eta *ex novo* etxebizitza blokeak eraiki zituen. Gainera, 1940tik aurrera, presoak erabili zituzten eskulan gisa, eta, Eskola Patronatuaren eraikina egokitu zen haien bizitoki izateko. Legution ere udaletxe berria eraiki zuten *ex novo*, baina ez zen esku hartu kaleen urbanizazioan, ez eta bideen eta lursailen lerrokaduran ere, ez Elgetan bezain zorrotz. Bestalde, ez dirudi bortxazko eskulana erabili zenik, edo, behintzat, oraingoz ez da horri buruzko dokumenturik aurkitu.

